

## **MONTESQUIEUren *LEGEEN IZPIRITUA* Zen hitzaurrea**

(Carmen Iglesias, Historiako Errege Akademiakoa)

### **1.- Alderdi biografiko-historiko zenbait.**

Charles-Louis de Secondat, La Brèdeko jauna eta Montesquieuuko baroia, 1689an jaio zen La Brèdeko gazteluan, Bordeletik kilometro batzuetara. Jatorri garaiko familia bateko seme zaharrena, haren familian bat egiten dute ezpatazko nobletasunak eta bereziki togako nobletasunak. Honetatik jasoko ditu bere karguak Bordeleko Parlamentuan, eta berak eratuko dizkio neurri handi batean bere pentsaera eta gustuak. Ez da ahaztu behar togako nobletasun horretakoak izan zirela modernitateko pentsamendu frantseseko izen handien sail eder bat: Bodino, Pascal, Descartes, Montaigne, Malesherbes, Tocqueville, Royer-Collard; ikertzaile asko arduratu dira klase parlamentario horrek Erregimen Zaharraren iraungitzean duen garrantziaz eta klase gisa duen gizarte-anbiguitasunaz eta instituzio baten konplexutasunaz –karguak oinordekotzaz eta salberatasunez hartzen baitziren–, baina hala ere aztergaia ez da agortu.

Monarkiak berak sortu zituen togako nobleak, XIV. mendean –erregetza formalizatu eta zuzenbide eta finantzetako adituz inguratzen denean–, eta laster beren mugak gainditu eta bere gain hartu zuten erresumako oinarritzko legeen gordetzaile-funtzio politikoa. Magistratu horiek, erregek sortuak talde gisa, bokazio unibertsalista goiztarra zuten, eta behe-aristokraziatik zetozen jatorriz, are estatu lautik, edo klerotik; gizarte aldetik jatorri hori dute, antzinako noble zaharretatik oso urrun. Hauek inoiz ez zuten ezkutatu beren gehiagotasun-sentimendua, eta batzuetan baita beren aurkaritza ere "nobleen pribilegioez gozatzen zuten burges ohorezko haiei" –halaxe deitu zien ironiaz eta destainaz Saint-Simongo dukeak Luis XIV. garaian–. Gerrarien aristokraziak Hirugarren Estatuaren goi-mailatzat jotzen bazituen ere, parlamentarioek (Frantzian, *Parlement* direlakoak, jakina denez, Justizia Auzitegiak dira batez ere) etengabe aldarrikatuko dute irabazitako nobletasuna, eta hantustez bereiziko dira Hirugarren Estatutik, mespretxatu egiten baitute, eta noble zaharretatik, bekaitz baitira haietaz eta pixkanaka beraiekin senidetuz joango baitira, baina beren "talde-sen" indartsuari eutsiz beti ere. *Enregistrement* eta *remontrance* eskubideen bitartez, togako noble hauek tartekatuz joan ziren erregeren boteretik sortutako legeen egikaritzean, eta oraindik ere eztabaidagai da ea galga izan ziren Erregimen Zaharrean herrialdea modernotzeko izandako bultzaden kontra, ala aurrerazale jokatu ote zuten. Beharbada

bereizi beharra legoke batetik parlamentua eta parlamentarioak –Montesquieuk berak gogor kritikatzeko dituenak, bestalde– bere jardura errealean, eta bestetik Parlamentu *sinbolikoa*, zeinek are Estatu Orokorren ordezkaritza bera ere bere egin\* nahi baitu (zerikusirik ez duelarik, hortaz, ez eta nahaspiderik ere, Parlamentu ingelesarekin), baina orain interesatzen dena bereziki noblezia parlamentario edo togakoaren egoera bikoitz horixe azpimarratzea da.

"Noble handien eta herriaren artean dagoen togako noblezia hori –idatzi du Montesquieuk– (...) lehenaren distira izan gabe, beraren pribilegio guztiak dituen; norbanakoak erdi mailan uzten dituen, legeen gordailu den gorputza gailurrean dagoelarik; noblezia hori, *zeinetan nork bere burua ez daukan gailentzerik gaitasunaren eta bertutearen bidez baizik*; lanbide ohoragarria izanik, beti ere ohoragarriago bat bistan uzten duena" (L.I., XX, 22). (Neuk azpimarratua).

Horrela adierazten da denen sentipena, alegia, magistratuaren betekizunak eta ez haren pertsonak zekarrela nobletasuna. Erregeren izenean epaitzea jardura noblea zen, eginkizun hori betetzen zuen pertsonaren gainetik zegoena, eta horren argitan ulertzen da togako noble horien biziera eta bizimodua; izan ere, ekonomiari eta familiako eta norbanakoaren ohiturei dagokienez, bizimodu funtsean burgesari eutsi zion, baina talde gisa gorentasun-kontzientzia indartsua garatu zuen, erregeren agintea ukatzeraino. Hartara, honako paradoxa hau dugu: gorputz politiko-judizial batek, Estatuak Estatuarentzat sortuak, Estatuaren egituraren kontra egiten du 1789ko Iraultzaren bezperetan. Horixe da Erregimen Zahar osoaren funtsezko paradoxa; izan ere, modernitatetik aurrera, elkarrekin joango dira, gorabeherak gorabehera, gizarte-ordenen hierarkizazio gotorrean oinarritutako gizarte-antolamendu bat –ordena bakoitza bere pribilegioek eta desberdintasunek bereizten zutelarik besteetarik–, eta klase-gizarte bat, zeinetan norbanakoak nagusitzen zaizkion balio moral gisa taldeari, eta oinarritzko berdintasuna eta merezimendu hutsen –"gaitasunaren eta bertutearen"– bidezko desberdintasuna baieztatu zituzten. Nolanahi ere den, Montesquieuk oinordekotzan jasotako noble-sentimenduak –jaio zenean, gaztelura eskean joandako erromes bat izan zuen aita ponteiko, zertarako eta, aristokraziaren ohitura gupidatsu eta kristauari jarraituz, haurrak beti gogora zezan "pobreak senide zituela"– beti izango du ñabardura hori, alegia, bere baliagarritasun, betekizun eta talentuagatik eta ez kasta-pribilegioengatik justifikatzen den gizarte-ordena batekoa dela.

Hortaz, 1689 eta 1715 artean –tarte horretan gertatu ziren "europar kontzientziaren krisia", balio tradizionalen eraldaketa bizkorra, Ingalaterran monarkia konstituzionala ezartzea, Frantzia Luis XIV.a zahartuaren erregealdia luzatzen den bitartean–, Montesquieuren bizitza bere bidetik joango da, bere gizarte-mailari dagokion bezala. Bost urtez Juillyko oratorianoekin interno egon zen, eta irakaskuntza moderno eta liberala jaso zuen bere garairako, Malebranchek –ordena oratorianoeko kide ospetsuenak– ezarritako sistemaren cartesianismo-ukituekin. Gero urtebete emango zuen Bordeleko unibertsitatean, eta hurrengoak Parisen, non zuzenbidea ikasi eta Parisko intelektual-giroarekin harremanetan jarri baitzen. Aita hil zenean, Bordeleko parlamentuko kontseilari-postua hartu zuen oinordekotzan 1714an –magistratura hori Secondat familiarena zen oinordekotzaz– eta, 1716an, bere osaba Montesquieuko baroia hil zenean, Bordeleko parlamentuko lehendakaritza erantsiko dio kargu horri. Kargu, ohore eta erantzukizunen bi oinordekotza garrantzitsu horien artean, Montesquieu Jeanne de Lartigue hugonote aberatsarekin ezkondu zen; administratzaile bikaina eta emazte leiala izan zitzaion La Brèdeko jaunak Parisen egiten zituen gero eta egonaldi luzeagoetan. Izan ere, lehen urteetan mahastiak zaintzen, ikasketetan eta zientzi esperimentuetan, Bordeleko Akademiako kide gisa eta, batez ere, magistratu-lanetan –inoiz ez zuen erakutsi berotasun handirik honetarako, prozedurek asper-asper eginda uzten baitzuten, harik eta kargua saldu zuen arte– banatzen zuen bere denbora, baina 1721ean *Lettres Persanes* argitaratu zuenez geroztik, fama eta ospearen kariaz Parisko kultur eta politika-barruti guztiz aberatsetako deiak jaso zituen gero eta indartsuago.

*Gutun Pertsiarak* 1721ean argitaratu ziren, Montesquieuk hogeita hamabi urte zituenean, eta berebiziko arrakasta izan zuten Erregeordetzaren garaiko gizartean, 1715ean Luis XIV.a hil zenez geroztik desagertu egin baitziren errege horren zahartzaroan ezarritako trabak eta lozorroa. Lan horretan, Europara etorri eta Parisen bizitzen jarritako pertsiar batzuen fikzioa aitzakiatzat hartuta, kritika gogorra egiten zaio Elizaren botereari; Europako ohitura erotikoak eta tradizioak ironiaz tratatzen dira; auzitan jartzen dira printzipio absolutistak; era guztietako sinesmenak erlatibizatzen dira eta, oro har, obraren tonu arinak eta literatur kalitate handiak eta sakontasun filosofikoak ezinbesteko irakurgai bihurtzen dute lehen lan hau. Handik aurrera, Montesquieuk Paris eta Bordele artean banatuko du bere denbora. 1727an Akademia Frantsesean sartzen da, akademikoak kontra bazituen ere, baina Parisko lagun Mme. de Lambert-en saloikoak aldeztu zituela. 1728an hiru urteko bidaialdiari ekingo dio Europan barrena, Alemania eta Italia ibiliko ditu, eta urtebetez egongo da Ingalaterran. Royal Society ospetsuko kide hautatu zuten, masonerian sartu zen, biziki interesatu zen

Ingalaterrako bizitza politikoan –hango konstituzioa eredu baliatuko zitzaion bere botere-banaketa famaturako–, eta, oro har, aldi erabakigarria izan zen hori haren garapen intelektualerako. Frantziara itzulitakoan, Parisen egin zuen denboraldi bat, eta gero La Brèdera itzuli zen, non 1733a arte iraun baitzuen.

Orduko, baziren urte batzuk bere lan nagusian ari zela: *De l'Esprit des Lois*. Etengabe pilatzen zuen dokumentazioa bere bizitzako hogeitaz harago hartuko zizkion lan horretarako. Aldi berean, beste literatur lan munta gutxiagoko batzuez gainera, hala nola *Le Temple de Gnide*, 1725ean argitara emana, edo *Histoire Véritable, Arsace et Isménie*, hogeita hamarreko urteetan eta berrogeikoen hasieran idatziak, beste idatzi batzuk osatu ditu, bere lan gorenaren aitzindari, hein handi batean bere liburu handiko kapitulu gisa sartuko baititu bertan. Bereiz aipatzekoa da 1734an erromatarrez argitaratu zuen entseiu garrantzitsua, gai hori gaztetatik interesatzen baitzitzaion. *Considérations sur les causes de la grandeur des Romains et leur décadence* bikaina kausalitate historikoaren bilaketa da, giza ekintzak eta gertaerak ulergarri bihurtzeko askatasuna ukatu gabe, *Legeen Izpirituaz* bikainaren ildo emankorretik.

Azkenean, Genevan agertu zen obra hori, 1748an, egile-izenik gabe, eta berehala izan zuen arrakasta, Frantzian eta atzerrian: hogeita bi argitaraldi 1748ko urriaren eta 1750eko urtarrilaren artean. Onarpenen nahiz arbuioen berotasunak erakusten du obra horren izaera eztabaidatsua eta interpretaziotan aberatsa, hala bere garaian nola ondorengo mendeetan. 1750ean, jansenisten eta jesuiten kritikei erantzuteko, Montesquieuk *Défense de l'Esprit des Lois* argitaratu zuen. Hala eta guztiz ere, eliza katolikoak liburu debekatuen zerrendan sartu zuen, egilearen atsekabe handiz, ahal zuen guztia egin baitzuen hori horrela izan ez zedin. Nolanahi ere, Elizaren kondenak ez zion ekarri arazorik bere herrialdeko agintariekin, eta azken urteak ospeaz eta bere garaikideen begiruneaz gozatzen bizi izan zituen. Artean idatziko zuen entseiu bat *Gustua*z, D'Alembert eta Dideroten Entziklopediarako, eta bere lan nagusien argitarapen berriak prestatu zituen. Horrez gainera, bere kaier pribatuetan oharrak idazten jarraitu zuen, nahiz eta betidanik izan zituen ikusmen-arazoak gero eta handiagoak izan, ia erabat itsutzeraino azken urteetan.

La Brèden sei hilabeteko azken egonaldi bat egin eta gero, Parisera itzuli zen, urteetan baitzeukan egoitza han hartuta; larriki gaixotu zen 1755eko urtarrilean, eta hurrengo otsailean hil zen, bakean. "Kristau gisa" diote batzuek; "filosofo gisa" esan zuen Voltairek; kontua da ezen, bere sineste eta errito katolikoekin bakean –guztiz bete baitzituen–, aldi berean ondo gordeta utzi zituela bere lanen eskuizkribuak, batez ere *Lettres Persanes*, jesuiten nahiz beste edozein elizgizonen eskuetan eror ez zitezen,

haietaz jabetu eta "garbitu" ez zitzaten. Diderot haren hiletan izan zen, baina *L'Esprit des Lois*-en egilearen pentsamenduak bizirik iraun zuen, etengabe berrinterpretatua eta berraurkitua, hala garaikideek nola hurrengo mendeetan. Ilustratua ezbairik gabe, baina inongo sekta edo eskolatan sartu ezin delarik, lehen liberalismoaren ordezkari Erregimen Zaharraren egitura mental anibalanteen barruan, zientzia politikoaren eta ikuspegi soziologikoaren sortzaile modernoa, **pluralista** ezbairik gabea edozein joera **unitario** edo uniformizatzaileraren gainetik, erregimen moderatuaren defendatzaile, zeinetan "boterea botereaz erditzen baita", berak Mme. du Deffand-i –biak ere itsutasunaren mende zeudenean– idatzi zion gauza bera aplikatu dakioke:

"Itsu zaudela diozu! Ez al duzu ulertzen garai batean zu eta ni izpiritutxo errebeldeak izan ginela, eta ilunpeetara kondenatuak izan garela? Honexek kontsolatu behar gaitu: argi ikusten dutenak ez direla horregatik argiak" (*Korrespondentzia*, 1754).

## II. Legeen Izpirituaz

### 1. Determinismoa eta askatasuna

"Lehenik, gizakiak aztertu ditut –idazten du Montesquieuk *L'Esprit des Lois*-en hitzaurrean–, eta iruditu zait ezen, lege eta ohituren ugaritasun amaiezinen artean, ez zutela jokatzeko beren fantasiaren arabera soilik. (...) Gizakia, izaki fisiko den aldetik, lege aldaezinek gobernatzen dute, beste gorputzak bezala. Izaki adimendun den aldetik, ordea, etengabe hausten ditu Jainkoak ezarritako legeak, eta aldatu egiten ditu berak jarritakoak ere" (L. I., I, 1)<sup>1</sup>.

Montesquieuren obraren bi premisa nagusi ageri dira paragrafo adierazgarri horretan. Lehenik, gizakien egintzen ulergarritasunaren aldeko apostua. Bere garaikide gehienek ez bezala, izadiaren legeen erregulartasunari gizartearen desordena kontrajartzen baitiote, gure autoreak zera azpimarratzen du, gizakien jokabide ustez kaotikoaren azpian badagoela aurkitzerik halako erregulartasun eta razionaltasun bat, edo gutxienez motibazio ez-arbitrarioak. Gertaera gogoangarria da hori ezagueraren ikuspuntutik, norbera bizi den gizartea bera "begirada berriz" behatzea eta sailkatzea esan nahi baitu, giza munduari natur zientzia indartu berrien paradigma aplikatuta – baina hala eta guztiz ere giza izaeraren eta gizarte-aniztasunaren askotariko aberatsaren

murritzaille den mekanizismoan erori gabe-, eta horrexek bihurtzen du Montesquieu gizarte-zientzia modernoaren aitzindari.

Izan ere, eta bigarrenik, aurreko aiputik atera daitekeenez, erregularitasuna bilatzeak, hots, gizakien jokabide sozialaren azpiko antolamendu ulergarria bilatzeak, ez du ezabatzen –aitzitik, indartu egiten du– gizakia gizaki egiten duen hori: bere askatasuna erabiltzeko ahalbidea. Askatasun-ariketa hori –eta, beraz, hautamen eta erantzukizun moralezko ariketa hori– ez da hutsean egiten, baizik eta baldintzapen fisiko eta sozialen sare baten erdian, eta horien artean egokitzen dira ingurunean gizarteak eta norbanakoak. Ez zori hutsik ez determinismo hutsik. Montesquieuk *izpiritu orokor* kontzeptua sortzen du gizakien eta ingurunearen arteko elkarrekintza askotariko hori adierazteko.

"Gauza askok –idazten du– gobernatzen dituzte gizonak: klimak, erlijioak, legeek, gobernuaren arauak, iraganeko gauzen etsenpluek, ohiturek, usadioek, eta horien guztien ondorio da izpiritu orokorra. Nazio bakoitzean, kausa horietako bat indartu ahala, besteek neurri horretan egiten dute atzera" (L. I., XIX, 4).

Izpiritu orokorra, beraz, interferentzi joko baten emaitza da, gizakiaren eta munduaren arteko prozesu bikoitz batena, zeinetan kausa eta ondorioa alderantzgarri izan baitaitezke; ez da eragile pasibo hutsa, aktiboa ere bada; emaitza bat da zeinetan elementu moralak, gizakien ekintza librearen ondorio, nagusi baitira gizarte aurreratuetan baldintzapen fisikoen gainetik. "Legeen izpiritu" hori gizarte-dinamikaren emaitza materiala da –zeinetan elkarrekin erlazionatzen baitira klima, luraren zer-nolakoak, jabegoaren antolakuntza eta lanaren banaketa, askatasun-maila, erlijioa, ohiturak, merkataritza, aberastasuna, biztanle-kopurua, emakumearen egoera, etab.–, eta ez printzipio idealista bat. Marko honetan ulertu behar da "Legeez, izakiekin dituzten harremanen aldetik" izeneko kapituluan ematen duen definizio famatua:

"Legeak, beren adierarik zabalenean, *gauzen izaeratik eratortzen diren beharrezko erlazioak dira*. Alde honetatik, izaki guztiek dituzte legeak: Jainkoak, mundu materialak, gizakiaren gainetiko adimenek, animaliek eta gizakiak berak. Munduan ikusten ditugun egintza guztiak patu itsu baten emaitza direla esan zutenek burugabekeria handia esan zuten; izan ere, ba al da burugabekeria handiagorik, izaki adimendunak patu itsu baten emaitza direla pentsatzea baino?" (L. I. I, 1) (Neuk azpimarratua).

Montesquieuk ez dio dedukzio orokorraren bidez ekiten giza izaeraren legeen, "legearen izpirituaren" edo giza legeen *legearen* ikerketari Descartes eta Hobbesek bezala, baizik eta, Newtonen metodoak mundu fisikoan erabilitako arauak aplikatuz, behaketaren, esperientziaren eta are esperimentazioaren bidez aurkitzen saiatzen da. "Nire printzipioak ez ditut nire aurrejuzkueetatik atera –dio *L'Esprit des Lois*-en hitzaurrean–, gauzen izateetik baizik". Beraz, giza espeziearen aldagaietatik, gizakien portaera itxuraz kaotiko eta apetatsuan, konstanteetara doan bidea da hori. Gizakien bizitza politiko eta sozialean Newtonek Fisikaren eta kosmologiaren alorretan lortutako ulergarritasunaren antzekoaren bila dabil, eta horretarako giza fenomenoen alderdi guztiez jardun behar du; legeetan adierazitako ulergarritasun horrek datu historiko, geografiko, politiko eta sozialen askotarikoaren beharra dauka.

Beraz, lege horiek ez daude giza nahimen hutsaren edo halabeharraren apetaren mende, baina ez dira zuzenketarik ez ametitzeko bezain zurrinak ere, baldin eta zuzenketok kontuan hartzen badituzte baldintzatzen dituzten faktore konplexuak. Montesquieurentzat, gizartearen eraketa gizakiaren izaeraren beraren ondorio da: hipotetikoki edo teorikoki, gizaki guztiak berdinak eta baketsuak dira beren "ahultasun-sentimenduaren" ondorioz; beren premien bultzadak elikagaien bila jartzen ditu, eta beren urritasunak batzera eta gizartea eratzerako daramatza. Hobbesen aurrean, Montesquieu lehendakariak, XVIII. mendeko autore gehienek bezala, giza espezieak daukan berezko izate gizartekoia baieztuko du. Nola frogatu gizartea naturala dela, baina aldi berean aldagarria, zeren eta osatzen duten norbanakoen adostasuna eta ituna behar baititu, halako moldean non izadi fisikoaren mundua gidatzen zuen determinismoa ez baita derrigor sartzen mundu moral eta politikoan: horra La Brèdekoko baroiaren gogoetaren ardatz nagusia. Legeak ezin dira egon ezeren arbitrariotasunaren mende, baizik eta "gauzen berezko izatearen" mende, baina baldintzapen hori ez da fatalismoa, baizik eta, hein batean, guztiz kontrakoa: gizartearen eta erregimen politikoaren eraketan zein kanpo- eta barne-faktorek hartu duten parte jakinez gero bakarrik bereizi ahalko dira gizakiek daukaten libertatearen eta adimenaren jardun bateratuak alda ditzakeenak.

Hortaz, arauak edo legeak ez daude nahimen-ekintza huts baten mende besterik gabe, baina aldaezinak ere ez dira. Oso desberdina da hori baikortasun ilustratutik, eta geroagoko baikortasun iraultzailetik. Lehendakaria jakitun da mundu errealeko konplexutasunaz eta edozein eraldaketaren kostuez, batez ere eraldaketa hori errotikoa bada. Legegileen "eskuak ikara behar luke" lege berriren bat sartu edo besteren bat aldatzen duten bakoitzean (L. P., CXXIX), baina hori ez zaio zor bakarrik izan badena iraunarazteko interesari, baizik eta ekintza horrek eragiten dituen ondorio aurreikusezinei; horri, Weber-en hizkeran, "ekintzaren ondorio ez-berariazkoak"

deituko zaio gerora, eta oso presente dago Montesquieuren obran. Hain zuzen, gizarte bakoitza eratzen duten kausa fisiko, sozial, moralen elkarrekintza konplexuagatik; hain zuzen, analisi zientifikoak agerian jartzen duelako herrien antolamendu sozial eta politikoen *aniztasuna* eta aniztasun horren gainean bakar baten balio edo printzipioak proiektatzeko ezina; lehendakariak "décisionnaire universel" ororen kontra ohartarazten du (L. P., LXXII) –halaxe deitu zien, ironiaz, inoiz zalantza-izpirik izan ez eta dena erabakitzen dutenei–, aldaketaren erabakia bere gain hartu nahi duen edozein gizaki edo talderen kontra. Pluralismoaren eta erlatibismo politiko eta sozialaren bere defentsa politikoen buruan, tolerantzia ez ezik, gatazka onartzea jartzen du: giakien helburuak anitzak eta askotarikoak dira. Sistema bakar batek, helmuga bakar batek ez lituzke denak hartuko. Horregatik, ezerk ez dio sumin handiagorik eragiten gizandiek, aberri-salbatzaileek baino; Montesquieuk, Voltairerekin batera, aberriaren heroien kontrako, konkistatzaileen kontrako diatribarik gogorrenak egiten ditu, baina lehendakariaren kasuan gobernu despotiko oro harrapatzen dute diatribok, nahiz eta "ilustratu" edo antzeko adjektiboren bat aldarrikatu (L. I., X, 2 eta hurr.; *Considérations...* 137), ikusiko dugunez.

Hain zuzen, giza izatearen aniztasunean azpiko egitura batzuk aurkitzen dituen azterketa horretaz baliatzen da gizarte- eta gobernu-mota desberdinen *berezitasunak*, konparazio *indibidualizatzaileak* azpimarratzeko. Lege positiboak berak sinesten duen justiziaren edo berdintasun naturalaren aplikazioaren "kasu partikularrak" besterik ez badira (L. I., I, 3), hain juxtu "partikularitasun" hori interesatzen zaio nabarmentzea askatasunaren eta gizakien ekintzaren emari gisa. Gizartekoitasun naturalaren ideiatik abiatuta, Montesquieuk tipologia soziologiko-politikoa marrazten du, zeinetan "motakako" deskribapenak sailkapen politiko hutsa gainditzen baitu.

## 2. Tipologia politiko-soziala. Boterearen eta askatasunaren artikulazioa

Lehendakaria ez zaio atxikitzen jatorri klasikoko gobernu-formen tipologia klasiko ohikoari, ez kontzeptualizazio formalean, ez eta sailkapenerako jarraitzen duen metodoan. Kontua dagoena deskribatzea da, ez egon behar lukeena; kontua erakundeen askotarikoa gauzetatik beretatik ulertzea da, ez a prioriko irizpideekin juzgatzea, eta kontua, halaber, askotariko hori objektibotasunez kokatuko duten eredu batzuen arabera antolatzea da (hartara "tipo ideal" bihurtzen dira, Weber-en adieran). Gizarte bakoitzaren egitura eta beraren elkarrekintza dinamikoa argitu behar dira, hau da, abian jartzen dituen antolamendu-printzipioa. Hortaz, lehendakariarentzat, politikak



gizarteetan azaltzen duen askotariko anitza hiru gobernu-motaren argitan azter daiteke: errepublikarra, monarkikoa eta despotikoa. Horietako bakoitzari *izaera* edo egitura bat dagokio –*nork* duen boterea, *nola* duen, legeen arabera duen ala arbitrarioki–, eta *printzipio* bat, alegia, "jardunarazten duena", "mugiarazten duten giza grinak" (L. I., II, 1 eta III, 1). Edota, gure egungo hitzez esateko, erregimen jakin bat sustengatzen eta legitimatzen duten *balio eta sinesteen sistema*. Erlazio haustezina dago izaeraren eta printzipioaren artean, halako moldez non gobernu-forma bakoitza "osotasun" bat baita, bere osagai bakoitzaren barruraino iristen den barne-batasuna duena.

Hona iritsirik, merezi du azpimarratzea Montesquieu gobernu-sailkapen huts batez baino zerbait gehiagoz ari dela; izan ere, **botere-tipologia** bat ari da osatzen, P. Vernière-ren<sup>2</sup> esapide doiaz esateko. Botere horiek, berriz ere, azpiko gizarte-egitura batzuen isla dira, non instituzio eta ohiturek –hasi hezkuntzatik eta justiziaraino, ezkontza-era eta emakumearen egoeratik nekazaritza eta merkataritzaraino, erlijiotik gizarte-usadioetaraino– elkar baldintzatzen baitute, elkarri eragiten baitiote. Esate baterako, greziarrek *jokoak* izatea, non borrokatzea ohoragarria eta irabaztea loriatsua baitzen, eta erromatarrek *ikuskizunak* besterik ez (besteak beste, gladiadore-borroken ikuskizun laidogarria), ez da kasualitatea, ez eta gauza ezdeusa ere; aitzitik, dio Montesquieuk, horrek zerbaiti erantzuten dio: greziarrak libre sentitzen ziren, eta libre izan nahi zuten; Erromako herri xeheak esklabotzat zeukan bere burua, eta sentipen horiek hala instituzio eta ohituretan nola aisian agertzen ziren.

Hiru gobernu-mota horietako bakoitza, beraz, bere baitan dituen faktore guztiak baldintzatzen dituen egitura bat da; aldi berean, osagaien barne-kohesioak baldintzatu egiten du bera. Kohesio hori *printzipio aktiboaren* bidez bakarrik mami daiteke, bera baita bere *izaeraren* eragilea, halako moldez non, printzipioa usteltzen denean, haren indarrak dena usteltzen baitu:

"Gobernuaren printzipioak behin ustelduz gero, legerik onenak txar bilakatzen dira, eta Estatuaren kontra bihurtzen; printzipioak sanoak direnean, lege txarrek onen ondorioa dute; printzipioaren indarrean datza dena" (L. I., VIII, 11).

Hortik dator legeak gizarteko klaseak biziarazten dituen printzipio bakoitzaren arabera ezartzearen garrantzia.

#### *a) Gobernu errepublikarra*

Errepublikaren *printzipioa*, dela errepublika aristokratikoa (elite edo batzar mugatu batek gobernatua), dela demokratikoa (denen batzarrak gobernatua), *bertute politikoa* da, hots, aberriari zaion maitasuna, berdintasunari zaion maitasuna eta, ondorioz, urritasunari zaion maitasuna. Haren legeek honako honetan oinarritu behar dute: lurraren jabetzaren banaketa bidezkoan; oinordekotza arautzean, jarauntsiak metatuta desberdintasunik izan ez dadin; haurrei interes publikoa pribatuaren aurretik jartzen irakatsiko dien hezkuntzan; lege penal eta zerga-lege mugatuetan; azken buruan, *neurritasuna* eta *urritasun*-joerak inspiratuko dituzten hiri-bertuteetan.

Baina Montesquieuk ohartarazten du ezen horrela ulertutako errepublika, Behe Erdi Arotik idealizatutako mendebaldar tradizio oso bat biltzen duena, *nekazaritzako errepublika* edo *humanismo hiritarrean*<sup>3</sup> oinarritua, iraganeko kontua dela. Izan ere, denen interes orokorra partikularren aurretik jartzeak –hiritarren partaidetzarako premisa– honako baldintzok eskatzen ditu ezinbestean: lurralde ez oso handia, hiritarren kopuru urria, garai modernoek konplexutasunari egokitzen ez zaion hiritar-jarrera, are bertutezko *zaintza*, hau ere gaizki etortzen dena norbanako modernoek burujabetza- eta liberekin.

Inolako nostalgiarik baldin bada antzinako errepublikez egiten duen deskribapenean –hasi Trogloditen apologiatik, *Lettres Persanes*-en, edo bere obra apalago askotako nekazari-bizimodu zoriontsu eta sinplearen irudiatik, eta erromatarren gainbeheraren azterketa politikoraino edo *Legeen Izpituaz*-en burutzen duen azterketa xeheraino–, Montesquieuk ez du inolako utopiarik eraikitzen denboran atzera joanda, leial baitzaio modernitateko zientzia berriaren printzipio metodologikoari: errealitateari eta gauzei "diren bezala" begiratzea, ez izan litezen nahi genukeen bezala (izan ere, desirak eta ez errealitateek eraman gaitzaten uzteak ondorio maiz izugarri eta nahieztakoak ekartzen baititu, lehendakariak bere obran zehar, hala plano indibidualean nola kolektiboan, behin eta berriz azpimarratzen duenez). Horrek ez du esan nahi gauza horiek aldatzeari eta hobetzeari uko egin behar zaionik, baina betiere errealitate-printzipiotik eta neurritasunetik. Mandevillek *Erleen fabula* obran eman irakaspenen zordun –oso ondo ezagutzen du Montesquieuk–, badaki "errepublika bertutetsuak", "gauzen berezko izaeragatik", ezinezko direla ezta arrakastarako bide guztiak emanda ere. Izan ere, nahiz eta lehendakariak –Mandevillek ez bezala– ez jo bateraezintzat hiritar-bertutea eta oparotasun material halako bat, denik eta urriena izanik ere (errepublika bertutezkoari eustea bera litzateke berez arrakasta), oparotasun horrek bilakaera eta garapena esan nahi du beti, eta horiek ezinezko egiten dute hiritarrak zorian iraunkor eta aldaezin batean betikotzea.

Izan ere, ezein gizarte ez daiteke geldi egon atzera egin gabe; ezin iraun bere sorreratik beretik giza izatearen beraren zabalkunde-nahikariek barrutik jana izan gabe. Ereduzko errepublika ito egin bazen,

"Ez zaio horren errua bota behar –dio Montesquieuk *Considérations* obran hasierako errepublika erromatarra aztertzean (XI. kap.)– partikularren askonahiari; sala dezagun gizakia, gero eta botere-goseago baita zenbat eta gehiago lortu, eta asko daukalako dena desiratzen baitu".

Izan ere, bere obran zehar behin eta berriz azpimarratuko duenez, gizakien botere-goseak –libertatearen emari, hein handi batean– besteen libertatea gutxitza edo ezabatza eraman dezake, harrigarria badirudi ere. Beraz, beti beharko da, ikusiko denez, "botereak boterea geldiaraztea". Izan ere,

"betidanikoa da boterea duen gizon orok hura gehiegikeriaz erabiltzera jotzen duela; mugak aurkitu arte iristen da. Nork esan behar zuen! *Bertuteak berak ere mugak behar ditu* (L. I., XI, 4) (Neuk azpimarratua).

Hasierako errepublika idealetan *printzipioak usteldu* baziren, hori faktore objektibo eta subjektiboen kausalitate konplexu bati zor zaio: "...Zesarrek eta Ponpeiok Katonek bezala pentsatu izan balute, beste batzuek Zesarrek eta Ponpeiok bezala pentsatuko zuket; eta errepublika, heriotza-bidean halabeharrez, beste esku batzuek eramango zuten amildegira" (*Considérations... I*). Erromatar instituzio jakintsuek hiritarren hainbat ohitura barbaro eta jarrera ez duin ez ezabatzeaz gainera, Montesquieuk, partikularrek aberastasunak edo dirua eskuratzearen bidezko ustelkeriaren kontrako diskurtso moralista kutsukoaren orde, hainbat faktore ematen ditu konplexuagoak. Horien artean, ezta hiritarren arteko harmonia galtzea bera ere – funtsezkoa nekazari-errepublikaren tradizio utopikoan, hiritar guztien uniformetasun zorientsuaren idealarekin– da garrantzizkoa lehendakariarentzat; aitzitik, gainbeherak erromatarren barne-zatiketetan zerikusia ez izateaz gainera, eta bi mende lehenago Makiavelok irekitako ildotik, **gatazka eta zatiketa haiek onartzeak bakarrik ekarri zuen askatasuna** (*Considérations... VIII*).

Hortaz, antzinateko errepubliketatik eta haien bertutetik, Montesquieuk zera jasotzen du, boterearen gehiegikeria galaraziko duten instituzioen eta desberdintasunak gordetzearen garrantzia. Instituzio horien indarra ageri da are erromatarren historian

bertan ere; izan ere, nahiz eta behin eta berriz haien printzipioak usteldu, mendeetan saihestu zuten beren libertateen porrota. Modernoen libertatea –norbanakoarena– eta antzinakoek eskatzen zuten hiritar-partaidetzazko libertatea oso desberdinak dira, baina Montesquieuren aburuz balegoke lokarri bat bien artean, ez prediku moralisten bidetik, baizik eta instituzio politiko malgu eta aldi berean irmo batzuei eustearen bidetik, gizakien botere-gehiegikeria galarazteko. **Boterea** eta **libertatea** artikulatzea da beti gogoeten eta azterketen ardatza *Legeen Izpirituaz*-en.

#### *b) Erregimen monarkikoa edo legepeko libertatea*

"Monarkietan, politikak ahalik eta bertute gutxienarekin gauza handiak eragiten ditu; makinarik ederrenetan ere, arteak ahalik eta mugimendu, indar eta gurgilik gutxien erabiltzen ditu... Estatuak iraun egiten du, aberriarekiko maitasuna dena delarik ere, benetako loriaren desirari esker, norberaren burua ukatzeari, norberaren interes kutunenak sakrifikatzeari, eta antzinakoengan aurkitzen ditugun eta *entzutez baizik ezagutzen ez ditugun* bertute heroiko horiei guztiei esker. Han *legeek bertute horien guztien lekua hartzen dute*, ez baita hauen beharrik batere..." (L. I., III, 5) (Neuk azpimarratua).

Garai modernoetako erregimenak, beren gizartearen konplexutasuna handitzean eta lurralde-estatuak eratzean, erregimen monarkikoak edo erregimen despotikoak besterik ezin daitezke izan. Azken hauek baztertuz gero, giza izaeraren guztiz kontra doazelako, monarkia modernoen ezaugarriak erreparatu beharra dago. Gizarte hauetan aldaketa funtsezko bat gertatu da publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko artikulazioan eta definizioan; antzinateko errepubliketan interes pribatu edo partikular guztiak interes publikoaren mende jartzen ziren bezala, halako moldeak non are partikular bat kaltetzen duten delituak berak ere delitu publiko gisa tratatzen baitira, norbanakoarenak ia bere esparrurik ez duelarik; estatu modernoetan, berriz, interes partikularrak bereizi egiten dira eta are lehentasuna izan dezakete interes orokorraren gainetik. Estatu horietako norbanako bakoitza bere interes edo ongizate partikularren atzetik dabil, baina, harrigarriki, hortik ez da sortzen suntsiketarik, eta are gutxiago denen pobreziarik.

Nekazaritza-errepublikanismoaren tradizioaren arabera, bertuteak bakarrik dakar oparotasuna eta, ondorioz, iraun egin zuen bekatuaren edo bizio pribatuen ideia gaitz publiko beti mehatxari zeudenekin (garestitzeak, izurriteak, goseteak, etab.) lotzen zuen ikuspegi jatorri erlijiosokoak. Baina Montesquieuk, berriz ere Mandevilleren ildotik,

gainditu egiten du *L'Esprit des Lois*-en topiko moralista hori, bizio morala eta gainbehera are materiala lotzen dituen. "Arren, ez bedi inor samin esan dudanagatik – idazten du–; historiaren arabera ari naiz" (L. I., III, 5). Historia eta "gauzen izatea" (L. I., II, 3), "gauzak diren bezala" aztertzea, horiek denek erakusten dute norberaren askonahiak –kaltegarria errepublika batean– "ondorio onak izaten dituela" monarkia batean; partikularrek, beren aberastasunaren atzetik, aberastu egiten dute gizartea bere osoan; luxuak, moralistek laidoztatu egiten badute ere, jende askori ematen dio lana, eta ekonomi zirkulazioa bultzatzen du. Hitz batez, *zorionaren* bilaketak –gizakiaren helburu nagusia mundu honetan (L. P., XCVI; L. I., XXIV, 3; *Pensées*, 614)– gizarte-zorion handiagoa dakar. Baldin eta jardunbide hori guztia osotasuna baldintzatzen duen askatasun- eta instituzio-giroan garatzen bada; botere-gehiegikeria galaraziko duten *tarteko botereak* edo mailak eta gizarte-talde antolatuak badira. Edota, bestela esan, *erregimen moderatua* bada. Horra bere funts egiazkoa.

Bestela, monarkiaren *izaera* botere soberano baten gobernua den bezala – printzeak **ezarritako legeen arabera** egikaritzen duena–, *printzipioa*, aldiz, *ohorea* da, hots, nork bere burua bereizteko, gailentzeko, jatorrizko mailatik irteteko nahikaria. Errepublika batean arriskutsu litzatekeena –besteen gainetik gailentzea, norberaren interesa interes publikoaren gainetik jartzea– gizarte modernoaren eragilea da.

"Esan liteke unibertsoko sistema bezalakoa dela, non indar batek etengabe urruntzen baititu gorputz guztiak zentrotik, eta beste indar batek, pisuarenak, erakarri egiten baititu. Ohoreak gorputz politikoaren parte guztiak mugiarazten ditu; bere ekintzaz beraz lotzen ditu; eta gertatzen da *norbera denen onerako ari dela, bere interes partikularren onerako ari delakoan*. Egia da ezen, filosofikoki hitz eginez, ohore faltsua dela Estatuaren parte guztiak gidatzen dituen ohorea. Baina ohore faltsu horrek gauza publikoarentzat dakarren onura, *egiazko ohoreak norbanakoei dakarkien onura bezain baliagarria da*" (L. I., III, 7).

Eta berdintsu idazten du bere kaieretan:

"Mundu fisikoak irauten badu, materiaren parte bakoitzak zentrotik urruntzera jotzen duelako irauten du; orobat mundu politikoak ere, *norbanako bakoitzak ezarria izan den lekutik irteteko duen barne-nahikari horren kariaz* irauten du. Alferrik da moral zorrotz batek ezabatu nahi izatea langile handienak gure arimetan ezarritako zantzuak... (hobe da) gizakien sentimenduak bideratzea ezen ez suntsitzea" (*Pensées*, 69).

Moralaren **utilitarismoa eta laikotzea** begi-bistakoak dira lehendakariaren azterketa hauetan. Norbanakoen eta gizartearen helburua zoriona da, eta berez jotzen dute horretara. Joera horrek denentzako on diren emaitzetan mamitzeak **ez du zerikusirik asmoekin, ekintzekin baino**; ohorea "faltsua" izateak berak ez du eraginik emaitzetan eta bere baliagarritasunean. Norbanakoen asmoetan den berezko ontasun edo gaiztotasunak, izatekotan, norbanako bakoitzaren barne-subjektibotasunean izango du eragina, ez **gizarte-erlazioaren objektibotasunean**, ez legearen objektibotasunean, esan genezake gaur egun. Politika plano **tekniko eta objektibatu**en gainean ezartzen da, ez asmo-judizio baten edo bizio eta bertuteen kalifikazio moralen gainean, eta are gutxiago *izan behar lukeenaren* desira edo nostalgien gainean. Funtsezko urratsa da hori etorkizunean Zuzenbide Estatua izango den eraikin konplexua eraikitzeak, non bizitza pribatuko inkisidoreak eta hiritar bakoitzaren *asmo* ustezkoak juzgatzeko eskubidea ezabatzea –haien ekintzetara ez bestetara mugatuz– mugarria baita gizarte demokratiko baten eta totalitarismoaren artean.

Montesquieu ohartzen da bere azterketaren ausardiaz eta politikaren –zentzu teknikoan ulertua, bitarteko gisa, ez helburu gisa– eta bertute moralaren artean egiten duen bereizketaz; esparru publikoaren eta errealtate pribatuaren esparruaren artean:

"Ez dut esan hau –dio– akatsen eta bertuteen artean den tarte izugarria inolaz ere txikiagotzeko: Jainkoari nahi ez dakiola! Zera besterik ez dut erakutsi nahi izan: akats politiko guztiak ez direla akats moralak, eta akats moral guztiak ez direla akats politikoak; eta horixe ez dute ahaztu behar izpiritu orokorraren kontra doazen legeak egiten dituztenek" (L. I., XIX, 11).

Hala eta guztiz ere, ez da erortzen erlatibismo amorean edo "dena baleko" pragmatismo politikoan, ikusiko dugunez, baina Montesquieu saiatzen da ulertzen eta gizakiei ulertarazten giza ekintza oro libertate-zedarri batzuen barruan gertatzen dela, eta aldi berean ezikusia egin ezin zaien baldintza batzuen barruan; izan ere, ezikusia eginez gero, saihestu nahi zena baino ondorio txar kaltegarriagoak etor daitezke. "Ez dut uste –idazten du bere kaier pribatuetan– inoiz printzeren bat izan denik munduan moral-tratatu bati esker bere jokabidea aldatu duenik" (*Pensées*, 817).

Horregatik da garrantzitsu grina indibidualak denen ongizatearen alde erabiltzen jakingo duen politika errealista; *interesa* –"Lurberako erregerik ahaltsuena" (L. P.), CVI)– erabiltzea merkataritza, jabetza eta lana ugaltzeko, hauek Locke finkatua zuen<sup>4</sup> adiera modernoan ulertuta; tasun errealtetara jotzea, orain bi besterik ez baitira:

"aberastasunak eta **norberaren merezimendua**" (L. I., XIX, 27), "**denetarik kotsolatzen duen merezimendu hori**" (*Pensées*, 1016).

### c) Despotismoa

Erregimen politikoetan hirugarrena, Montesquieurentzat, gobernuaren antieredua da. Botere despotikoaren *izaera* honako honetan datza: botere hori gizon bakar batek erabiltzean, legeen mende egon gabe, arbitrarietatez gobernatzen edota boterea bere faborito edo ministroen eskuetan uzten duelarik. Erregimen horren printzipioa *beldurra* da, ustelkeria izugarrienaren laguntza, beti ezkutuan baitatza (L. I., II, 5; III, 8-10).

Sistema despotiko batean berdintasunik osozkoena dago, baina berdintasun horrek bere gizatasunaz gabetzen ditu gizakiak, eta horixe da hain juxtu legepeko berdintasunaren kontrakoa: "Gizakiak berdinak dira denak gobernu errepublikarrean; berdinak dira gobernu despotikoan; lehenengoan, haiek dena direlako; bigarrenean, berriz, ezer ez direlako" (L. I., VI, 2). Honetan libertate politiko oro kentzen zaie gizakiei, eta ezein arau, ez juridiko ez naturali erantzuten ez dion borondate baten arbitrariotasunaren gai bihurtzen ditu: ez da ezta botere aitatiar baten luzapena ere; halako batek, botere politikoa inoiz legitimatzen ez badu ere (Montesquieuk garbi bereizten ditu beti esparru pribatuko botere aitatiar eta familiarra eta esparru publikoko botere politikoa), gutxienez naturala da. Botere despotikoak giza izaerari egiten dio eraso eta "izugarritzko kalteak" eragiten dizkio gizakiari (L. I., II, 4).

Despotismoaren arbuioa arauen ikuspegitik argi eta garbia den bezala, berdin da ikuspegi pragmatiko edo estuki politikotik ere. Gaitz maiz konponezinak eragiteaz gainera (mendekotasun politikora ohitutako herri batek nekez ikasiko du libertateaz baliatzen. *Dialogue de Sylla et d'Eucrate. Dossier E. L., 404*), ez ditu ezta eraginkortasun politikoaren gutxienezko bermeak ere. Gobernu ezegonkor, inseguru, beti albaramendu eta konspirazioen mende dagoena da (L. P., LXXX). Errealitatearen konplexutasunaren aurrean, sinpletasun barbaroa eta uniformetasuna erabakitzen dituen gobernu bat: "Luisianako basatiek fruituak nahi dituztenean, zuhaitza ondo-ondotik ebaki eta fruitua hartzen dute. Horra gobernu despotikoa" (L. I., V, 13). Halako gobernua "begien bistan dago" eta "ezartzeko, grinak besterik behar ez direnez, edonor da gai hori egiteko". Ez du ezagutzen bakerik, baizik eta beldurpeko "hirien isiltasuna" (L. I., V, 14; *Pensées*, 1822). Mugarik ezagutzen ez duen beldurra: oinazeak beti ditu mugak, baina beldurrak, fisikoa ez baina psikologikoa baita, mugagabea izan daiteke (*Spicilège*, 298-299). Mendekoek erregimen despotikoetan duten obedientziaitsuak

bere suntsipena dakar: baldin eta Atahualpa, Manco Inca, Moctezuma, Guatimozin-en mendekoek "abere-talde batek bezala" obeditu ez baliete, buruzagiaren hitz bakar batez borroka geldiarazteko gai, "ehun eta hirurogei espainiarrek ezin konkistatuko zituzketen" (*Pensées*, 648).

Montesquieu, gobernu despotikoen eta gobernuok nagusitzeko duten erraztasunaren kontra abisua ematean, ez da ari despotismo agerikoez bakarrik; ari da baita itxuraz justiziazko diren legeen bitartez existitzen diren diktadura estaliez ere; izan ere, "legeen bidez ezpatatz bezala suntsi daiteke" (*Dossier E. L.*, 259), eta hori tiraniarik ankerrena da justiziaren itxurapean (*Considérations...*, XIV, eta *Dossier E. L.*, 228). Aipatu dugu gizandiak, aberriaren salbatzaileak, konkistatzaileak arbuiazen dituela. Arbuio horrek zerikusia du buruzagien aurrean erakusten duen mesfidantzarekin; izan ere, botere mugagabearekin, hondamendira eramaten baitituzte beren herriak. Hondamendi fisiko, moral eta materiala, zeren eta aberastasunak ihes egiten du estatu despotikoetatik, inseguritateagatik eta boterearen erabaki arbitrarioen auresanezintasunagatik (L. I., XIII, 6). Erregimen hori usteldu egiten da etengabe "bere baitan daramalako galbidea", eta bakarrik eusten dio "klima, erlijio, herriaren egoera edo jeinuaren inguruabarrek ordena jakin bati jarraitzera behartzen dutenean, eta arauren bati amore ematera", baina bere ankerkeria gordez beti ere (L. I., VIII, 10), eta erlijioak oso gutxitan jartzen diolarik galga (L. I., XII, 29).

Tirania hori, ez legeak ez ohiturak errespetatzen dituen borondate apetatsu baten inposaketa hori, gizaki batengan ez ezik, talde batengan edota are gehiago batengan ere gauza daiteke. Montesquieuk antzinateko demokrazien galbidearen kausa batzuk aztertzen ditu; sistema demokratikoan, lege oro herriaren borondate da, **baina herriaren borondate oro ez da lege**; termino horiek nahasten diren unetik, demokrazia **demagogian** eta **ustelkerian** erortzen da:

"...berdintasun-izpiritua galtzen denean bakarrik ez, erabateko berdintasunaren izpiritua hartzen denean ere hondatzen da, eta nork bere agintari hautatu dituenen berdina izan nahi duenean. Ordurako, herriak, berak ematen duen boterea jasan ezinik, berak egin nahi du dena, deliberatu senatuaren ordezt, egikaritu magistratuen ordezt, eta epaileak beren betekizunezt gabetu (L. I., VIII, 2).

Botere-metaketa tiraniaren seinale da beti, eta antzinateko errepubliken gehiegikeria handienetako bat, hain zuzen, aldi berean "epaile eta salatzaile" izatera iristea zen (L. I., XI, 6). Hiritarren libertate politikoa ez babesteak –halako moldez non hiritarrak "etxea behinik behin babesleku izan dezan, eta hortik kanpoko jokabidea



seguru" (L. I., XX, 23), bai eta pentsamendu- eta adierazpen-askatasuna bortxarik gabe erabiltzeko ahalbidea ere: "Libertateaz gozatzeko, beharrezko baita norberak pentsatzen duena esan ahal izatea..." (L. I., XIX, 27)– definitzen du erregimen despotiko bat. Izan ere, libertatea benetakoa izan dadin, **hiritarra libre izateaz gainera, erkidego libre batean bizi izan behar du** eta hori, ikusiko dugunez, bakarrik da posible mekanismo instituzional batzuen bidez, zeinetan "botereak boterea geldiaraziko duen" eta zeinetan lege zibilak hiritarren libertatearen eta aldi berean segurtasunaren berme diren. Izan ere,

"gizon bat libre da bakar baten edo askoren suminak ez dizkiola ez bizia ez eta bere ondasunen jabetza kenduko sinets dezakeen heinean" (*Pensées*, 631), berari buruzko errugabetasun-ustea inoren lege edo erabaki arbitrarioek urratzen ez duten heinean" (L. I., XII, 2).

Baina lehendakariaren azterketa harantzago doa: erregimen despotikoak, hiritarrak beldurraren eta ustelkeriaren bitartez manipulaturik bakarrik ez, giza izatearen bikoiztasunaren beraren bitartez ere nagusitzen dira. Gizakiek libertatea oso maite badute ere, indarkeria arbuiatu arren, bada gizakiengan atseden hartzeko eta mendean jartzeko desira ilun bat, eta despotismoaren gauzarik txarrena, hain zuzen, zera da, desira horiei putz egitean, desegin egiten dituela geroko libertate-ahalbideak (*Dialogue de Sylla et d'Eucrate. Dossier E. L.*). Montesquieuk jakinarazten digu obran zehar ezen suntsiketan menderatzailea eta menderatua sartzen direla, gaur egun "autoritarismoaren barneratzea" edo "nagusia-esklaboa dialektika" deituko genukeena sarriegi gertatzen dela historian. Horregatik da garrantzitsua hiritarren hezkuntza: "Hezkuntzak monarkietan bihotza jasotzeko baino lan egiten ez duen bezala, estatu despotikoetan bihotza azpiratu besterik ez du nahi"; morroi-hezkuntza agintea duenari interesatzen zaio, zeren eta "inor ez baita tirano, aldi berean esklabo izan gabe" (L. I., IV, 3) eta, azken buruan, erreprimitu oro erreprimitzailerik bihurtu daitezke (L. I., XXV, 9). Kaligula Tiberioren ondorengo bihurtu zeneko adibidea esanguratsua da:

"Hartaz esaten zuten –dio *Considérations...* obran (XV)– inoiz ez dela izan esklabo hoberik eta nagusi txarragorik. Bi gauza horiek bateratsu doaz; izan ere, agintzen duenaren botere mugagabearen aurrean umiliarazten duen izpirituzko joera berak bultzatzen du, boterea lortu eta gero, boterea gehiegikeriaz erabiltzera".

Beraz, "kontua ez da besteak mendean dituen suntsitzea, menderakuntza bera suntsitzea baizik" (L. I., XII, 18). Ez zaie eskatu behar gizakiei asmo onetan oinarritutako moraltasuna; giza izaeran den gehiegikeriarako –edo atsedean eta inertziarako– joera horri mugak jarriko dizkioten mekanismoak finkatu behar dira, "botereak boterea geldiaraz dezan" (L. I., XI, 4), aldi berean lege zibilek eta ohiturek hiritarren askatasuna barne-indartzen laguntzen dutelarik. Zeren eta, despotismoaren sinplifikazioaren aurrean, ez baitu

"ezer ezagutzen, eta ezin jar diezaioke arreta ezeri; dena martxa berberean joatea behar du; borondate zurrin beti batez gobernatzen du nonahi, dena lautzen da haren oinpean" (L. I., VI, 1),

gobernu eta gizarte moderatu batzuek bakarrik bermatzen dute "askotariko legeak" ezartzea edo "ohitura desberdinak" toleratzea (*ibidem*), horiek bakarrik dira gai despotismoak berekin daraman atsedenerako, sinplifikaziorako eta gehiegikeriarako joeraren kontra eraginkortasunez borrokatzeko.

### 3. *Erregimen moderatua eta botere-aniztasuna*

#### a) *Legepeko libertatea. Gobernu ona*

Despotismoaren aurrean, gobernu moderatu orok irudimen- eta teknika-ahalegina eskatzen du (L. I., V, 4). Gobernu-moten analisisian, lehendakariak ateratzen duen ondorioa argia da: **hiritarren libertate politikoa erregimen moderatu batean bakarrik da posible**, hau da, hainbestetan errepikatu dugun esaldi ospetsuaz esateko, "botereak boterea geldiaraziko duen" erregimen batean (L. I., XI, 4). Erregimen neurritzkoa, legeek eraendua, gizarte-taldeek, interes-taldeek, galga eta kontrapisuek instituzioen bidez orekatua. Erregimen moderatu hori "erdibide justu" klasikoaren desberdina da, eraikin konplexuagoa da, zeren eta orain ariketa aktiboa baita, indar kontrajarrien tentsioari eutsiko diona, aniztasunean sortzen diren desberdintasun eta gatazkak bere gain hartuko dituen, aniztasuna ezabatu gabe (*Considérations...* VIII eta IX).

Interes- eta botere-aniztasun hori –eta, beraz, hiritarren libertate politikoa– babesten duen erregimen oro sartzen da "moderatu" kategorian; errespetatzen ez duena, aldiz, despotismoan erortzen da. Kontua, hortaz, ez da, teoria politiko klasikoan bezala,

nork gobernatu behar duen edo zein den gobernu-formarik hoberena; **lekualdatze bat gertatu da batasun ideiatik aniztasun ideiaraino, eta moderazioaren adiera moraletik irizpide teknikoraino**. Kontua instituzio batzuk artikulatzea da, zeinetan hiritarren interesek eta gizarte-taldeek eutsiko dieten orekari eta tentsio politikoari. Tentsioari indarkeriarik eta bortxarik gabe eutsi, desadostasunak eramateko gai den gizarte-aniztasunaren poderioz, eta aldi berean botere politikoa beste botere batzuekin **lehian ari den botere** gisa erabiltzen delarik, beste botere horiek ezereztu gabe, baina hiritarrei obedientzia eskatzeko eskubidea horien gainetik duelarik.

Hortaz, libertatea bai erregimen demokratikoek eta bai erregimen aristokratiko edo monarkikoek bortxa dezaketenez –berez bortxatzaile direnez gainera, despotikoak alegia–, Montesquieuren aburuz *agian izan liteke gobernu onik* –baldin eta neurritasunean eta mugen kontrol horretan oinarritzen bada–, *baina inoiz ezin da izan hoberena*, hau da, formula unibertsal bat, noiznahi eta nonahi aplikatzeko modukoa. Izan ere, ez da aski, libertatea bermatuko duten gobernua eta gizartea izan daitezen, libertatea legeetan ager dadin; horrez gainera, lege horientzako bide errealak egon behar dira, dela **tarteko gorputz politikoen** bitartez, dela **botereen banaketaren** bitartez, halako moldez non izate anitzeko gizarte-errealitatea islatuko den. Azken buruan, **neurritasunaren irizpidea**, mugena alegia, irizpide **tekniko** (ez psikologiko edo moral) bihurtzen da, oro har herri baten eta bereziki herritarren libertate-maila neurtu ahal izateko.

"Gobernu moderatu bat eratzeke –dio–, botereak konbinatu behar dira, arautu, leundu, jardunarazi egin behar zaie; nolabait esateko, bati lasta jarri, beste bati jarki ahal dakion; legegintzako maisu-lana da hori (...) Gobernu despotiko bat, aitzitik, begi-bistakoa da..." (L. I., V, 14).

Hori adimen handiak batzuetan eta izpiritu txikiak beti harrapatzen dituen batera-nahiaren kontrakoa da guztiz. "Herria zoritxar horretan erortzen da, beraren konfiantza jaso dutenek, beren ustelkeria ezkutatu nahian, hura usteldu nahi dutenean. Herriak ez dezan haien askonahia ikus, haiek bere handitasunaz baizik ez diote hitz egiten; beren zikinkeriaz ohar ez dadin, zuriketan aritzen zaizkio" (L. I., VIII, 2).

Baina gauzak oso bestela dira:

"Egia da –idazten du– demokrazietan herriak nahi duena egiten duela dirudiela; baina *libertate politikoa ez datza norberak nahi duena egitean*. Estatu batean, hau

da, *legeak dituen gizarte batean*, libertatea ezin izan haxe besterik: egin behar dena *egin ahal izatea*, eta egin behar ez dena *egitera behartua ez izatea*". –Eta honela bukatzen du– "Jabetu beharra dago zer den *independentzia*, eta zer den *libertatea*. Libertatea *legeek uzten duten guztia egiteko eskubidea da*; eta *hiritar batek legeek debekatzen dutena egiterik baleuka, ez legoke libertaterik*, beste hiritarrek ere ahal hori izango bailukete" (L. I., XI, 3). (Neuk azpimarratua).

Bi ohar garrantzitsu eratortzen dira libertate politikoaren definizio horretatik. Batetik, Montesquieuren aburuz libertatea eta ordena elkarren kontra ez jartzeko beharra. Horretarako ez direlarik nahastu behar *libertatea* eta *independentzia* (L. I., XI, 3-5), hau da, libertatea legeek uzten duten guztia egiteko eskubide gisa batetik, eta bestetik norberak nahi duena egiteko independentzia ("partikular bakoitzaren independentzia da Poloniako legeen xedea; baina hortik denen zapalkuntza dator", XI, 5). Era berean, ezin dira nahastu libertate politikoa eta *libertate filosofikoa* (alegia, norberaren borondatea erabiltzea edo, lehendakariaren hitzak zehatzago aldatuz, "nork bere borondatea erabiltzen duelako iritzia", XII, 2). Zeren eta, azken batean, libertate politikoa honetan baitatza funtsean: "Gobernua halakoa izatea (...) non hiritar bat ezin den beste hiritar baten beldurrez egon" (XI, 6). Halako libertatearen eta ordenaren arteko aurkaritzak independentziara eramango du azkenean, baina indartsuenaren independentziara ziurrenik, indartsuen norberekeria eta maltzurren zinismoa inposatzera, denen zapalkuntzara, Poloniaren adibidean bezala.

Bestalde, bada bigarren ohar bat *libertate politikoaren* definizioan eta *independentziaz* edo *libertate politikoaz* egiten duen bereizketan, nabarmentzea merezi duena. Izan ere, libertate politiko horrek hiritarraren segurantzaren bermatuko duten lege zibil batzuk izan behar ditu osagarri nahitaez, izatez eta eskubidez izan dadin libre, esan bezala; eta gainera libertate hori "hiru botereen banaketa halako batean", oinarritzko lege batzuetan eta instituzio batzuetan gauzatu behar da, horiek *tarteko gorputzak* izan nahiz *botere-banaketa* izan, baina beti ere *neurritasuna* bermatuko dutelarik.

"Demokrazia eta aristokrazia –dio lehendakariak hiritarren partaidetza zuzeneko errepublika antzinakoez ari delarik–, berez, ez dira egoera libreak. *Libertate politikoa ez da gobernu moderatuetan baizik*. Baina gobernu moderatuetan ere ez da beti izaten. **Boterea gehiegikeriaz erabiltzen ez denean baizik ez da izaten** libertate politikoa, baina betidanikoa da boterea duen gizon orok hura gehiegikeriaz erabiltzera jotzen duela; mugak aurkitu arte iristen da. Nork esan behar zuen! Bertuteak berak ere mugak behar ditu" (L. I., XI, 4).

Azken batean, libertate politikoaren bermea, nolanahi ere, *botere-aniztasuna* da, eta, alde horretatik, libertate politikoa edozein motatako erregimenei dagokie, dela ingelesari botere-banaketarekin, dela monarkia frantsesari tarteko botereekin, eta "ez dago urrunago tronutik senatutik baino" (*Pensées*, 631).

*b) Tarteko botereak Frantzian eta botere-banaketa Ingalaterran*

Gizarte-errealitate anitza eta gobernu neurritsua hainbat eratan ager daitezke mundu modernoaren historian, Montesquieuk dioenez, eta nahiz eta berak batzuk lehenetsi, bi eredu desberdin aurkitzen ditu bere garaian. Izan ere, gizakiek boterean gehiegikeriara jotzen badute, boterearekiko atxikimendua "aseezina" bada, "ia etengabe areagotua eta edukitzeak inoiz ez asea", bere kaieretan idazten duenez (*Spicilège*, 485-486); bertuteak berak ere mugak behar baditu; gobernariez babestu beharra badago baina baita gobernatuak ere uniformetasun geldorantz eta beldur eta ustelkeria bidez mendekotasunerantz daramatzen sen ilunaz; horren guztiaren aurrean, nahikoa gotor eta malgu diren instituzioak eduki behar dira, bizikidetza gatazkadunera iristeko baina bortxakeriarik edo gizarte-ordenaren hausturarik gabe.

Monarkia frantsesean, eta Luis XIV.ak izan zuen botere absolutuari kontrajarririk, lehendakariak nazio frantsesaren **tarteko gorputzetan** aurkitzen ditu botereari mugak jartzen dizkioten instituzio horiek. Erregimen Zaharrean eta XVIII. mendearen lehen erdian, garai horretan bizi baita gure autorea, tarteko gorputz horiek ezin zitezkeen nobleak, kleroa eta parlamentuak besterik izan. Eta Montesquieuk botere "mendeko" gisa aztertzen ditu, betekizun sozial eta politiko jakin batzuk dituztelarik erregimen monarkikoan, zeinetan oinarritzko legeen bitartez gobernatzen den:

"Oinarritzko lege horiek *tarteko bideak* izatea eskatzen dute derrigor, boterea tarteko bide horietatik ibil dadin; izan ere, Estatuan bakar baten borondate une bateko eta apetatsua besterik ez bada, ezer ezin da finkoa izan, eta, beraz, ezta oinarritzko legerik ere" (L. I., II, 4).

Tarteko hiru botere horiek –ez dira nahastu behar Erregimen Zaharreko Estatu Orokorretako hiru ordenekin– boterea Estatuko organo bakar batean biltzea galarazten dute, eta bereziki galarazten dute betekizun legegileak eta betekizun judizialak eginkizun betearazlearekin bat egin dezaten. Horrexek bereizten du estatu

despotikoetatik: estatu despotikoetan, printzeak berak epai dezake. Gobernu moderatuan, ordea, ezin du, zeren eta orduan konstituzioa suntsitu egingo bailitzateke (L. I. VI, 5).

Montesquieuk gobernu moderatuaren beste era bat aurkitzen du konstituzio ingelesean. Praktika eta teoria ingelesak, kostata bada ere, libertatearen eta ordenaren arteko oreka zail hori lortu dute, hiru botereak (legegilea, betearazlea eta judiziala) bereiztearen bidez eta hiritarraren libertate indibiduala bermatzen duten legeei esker (*habeas corpus*, adierazpen- eta iritzi-askatasuna, delituen proportzioko lege penalak eta haien ezagutza publikoa, etab.). Montesquieuk bere zalantzak zituen, hala ere, uste zuelako erregimen hark integraziorako joera gehiegizkoa zuela aniztasunaren kaltetan, eta bakoitza bere fakzioaren aurreiritzien esklabo bihurtzen zela, despota baten bezain esklabo (L. I., XIX, XXVII), beste eragozpen batzuen artean; hala eta guztiz ere, bere eredia izan da agian Mendebaldean eraginik handiena izan duen formulazio teknikoak libertate politikoa botere-banaketaren bitartez babesteko. Hiru botereak organo bakar batean ez biltzea, eredu ingelesean, berme juridikoen mende ez ezik, botere batzuen eta besteen arteko galga eta kontrapisu diren gizarte-indarrak izatearen mende dago. Horrek guztiak halako desberdintasun xume eta inplizitu batzuk ezartzen ditu *betekizunen* eta *organoen* artean; oso modu desberdinetan "itzuli" izan dira Mendebaldeko herrialdeen praktika konstituzionalean harrezkero<sup>5</sup>.

Baina orain haxe hartu behar dugu kontuan: bide desberdinetatik, ingelesa bezalako erregimen politiko batek –botere-banaketan oinarrituak– eta tarteko botereek leundutako monarkia konstituzional batek –Montesquieuk Frantziarentzat nahi duena bezalakoak– oinarri anitz berbera eta xede berbera dituztela: hiritarren libertate politikoa babestea.

#### *4. Askatasun-erregimen baten printzipioak. Legeen Izpirituaz-en irakurketa bat*

Datu eta adibide historikoen aberastasunak, pentsalari antzinako eta modernoek buruzko erreferentziek, era guztietako xehetasun eta oharrek Mendebaldeko eta Ekialdeko gizarteak –eta are gizarte primitiboak– iraganaz eta orainaz, gogoeta filosofikoak, antropologikoak, soziologikoak edo politikoak, *Legeen Izpirituaz-en* jatorrizko testua betetzen eta aberasten dutelarik, bultzatu dituzte batzuetan Montesquieuren obraren azterleak zalantzari eta norberaren gogoetari ateak beti irekita uzten dizkion metaketa eta nolabaiteko sakabanaketa hori azpimarratzera. Hain zuzen, horixe da Montesquieuren pentsamenduaren aberastasunaren ezaugarri bat, ikara ematen

baitzioten –bere garaikide askori bezala– *sistema* itxiek, zeinetan jainkozko eta gizakizko oro behin betiko itxita eta argituta geratzen baitzen. Haren obra, berriz, irekita geratzen da beti, berak aldarrikatzen zuen gizarte askotariko eta tolerantea bezala, eta abantailak eta kostu minberatsuak zeramatzaten aldaketa sakonen garaiko gizon gisa. Montesquieu irakurtzea mentura intelektual kitzikagarria da beti; izan ere, haren ezbai eta zalantzak, haren haztamukak, gure garaikoak dira beti, nahiz eta inguruabar historikoak desberdinak izan.

Baina jarrera ireki eta moderatu horrek, sistema itxi eta oroazaltzaileak arbuiatze horrek, ez du esan nahi, ikusi dugunez, aukera desberdinak berdintzen dituen erlatibismo morala. Gobernurik *hoberena* existitzen ez bada ere, bada, eta errotik arbuiatu behar da, okerreana: despotismoa; alegia, herritarren libertatea zanpatzea, norbanakoaren segurantzaren falta, legeei ez obeditzea, arbitrariotasunaren eta indarkeriaren oihana. Giza izaerak botere-gehiegikeriara, atsedenera, inertziara jotzen badu ere, bereak ditu askatasunaren maitasuna, unibertso moral baten esanguraren premia, ahalik eta bidezkoena izango den ordena batekiko atxikimendua. Era guztietako baldintzapen fisiko eta kulturalen artetik, gizakiaren askatasuna –eta beraz hautapen morala– beti da posible. Horregatik, lege eta instituzio politikoek berezko joera horien alde egin behar dute beti, baina nahimen hutsezko bortxarik egin gabe, ez eta asmorik hoberenen aitzakiaz ere, baizik eta historian jalkitako denbora-espazio jakin batzuen errealitateari atxikiz beti ere. *Bertutea* boteretik inposatu nahi izatea (askatasuna inposatu edo "behartzea" bezala, gerora Rousseauk esango zuenez) kontraesana litzateke Montesquieurentzat, soluziorik gabeko paradoxa. Botere politikoa, politika, *bidea* da beti, ez jomuga; norbanakoen bizitzaren zati garrantzitsu bat da, erabakigarria hiritarrentzat, baina inoiz ezin du bizitza osoa hartu; muga argi eta garbiak izan behar ditu beti. "Gauzen beren izateak" markatutako mugak, "nazio baten izpiritu orokorrak", hiritarren libertateak eta, oso bereziki, mekanismo instituzional batzuek –teknikoek, hala esaterik balego–, "botereak boterea geldiaraz dezan" markatutako mugak.

Ezein gobernuak, ezein gobernarik –gogorazten digu behin eta berriz Montesquieuk– ez du aldatu bere jokamoldea aholku eta erregu moralei erantzunez, eta hori ez politikoen gaiztakeria bereziagatik, baizik eta giza izaerari dagokiolako mugak hausteko, ez asetzeko eta boterea gehiegikeriaz erabiltzeko joera hori. Hortaz, aintzakotzat hartu beharra dago boterea mugatu eta arau tekniko eta objektibatuak ezarriko dituzten mekanismo instituzional horiek, hiritarrak horien arabera garatuko baitu bere askatasuna gune eta esparru pribatu eta publikoetan. Hori *erregimen moderatu* batean bakarrik lortzen da, bai monarkietan bai errepubliketan, zeren eta

gobernu-forma ez baita erabakigarria. Erabakigarria zera da, norbanakoak libreak izatea erkidego libre batean, konstituzioa eta lege zibilak parez pare joatea.

Bestela, beti *egintza eta ez asmoa* aintzakotzat hartzea; hiritar kontzientzia eta moral laikoa eratzea, azkenean interes partikularra –bulko indibidualaren oinarritzko motibazioetako bat gizarte modernoetan– eta interes orokorra batzen baitituzte; gizakien eta gizartearen askotarikoa azpimarratzea, halako moldez non "nazio bakoitzak bere kontzientzia" duen (L. P., CXXXV), eta despotismoa besterik ez den onartezina – herritarren libertatearen eta segurantzaren desegile den aldetik, hau da, bai printzipio moral eta antropologikoengatik bai eraginkortasun-irizpideengatik–; horrek denak herritarrarentzako gune pribatu bat sorrarazten du, non bere kontzientzia moralak agintzen baitu; politikan, aldiz, **bitarteko tekniko, autonomoei** erantzuten die beti, **ez baliabide emozional eta lausoei**.

Politikak, Montesquieurentzat, ez du xedetzat Estatuaren edo gobernariaren boterea handitzea; bakea eta norbanakoaren segurantza bermatu behar ditu, besterik ez, eta horrekin denen arteko bizikidetzat. Botere mugatua da beti. Mendebaldeko gizakiaren oinarritzko helburuetako bat, XVIII. mendean jadanik, mundu honetan ahal den zoriona lortzea da (eta beraz, ahal bada, baita beste munduan ere, Montesquieuk uste baitu ez direla bateraezinak), baina botere politikoari hori zeharka dagokio, hiritarren segurantza eta haiek **legepean** libre aritzea bermatuz, arbitroarena eginez ahulen zampaketa galarazteko eta gizarte-bizitza oihana izan ez dadin, baina bizitza hori autoritarioki gidatzeko asmorik gabe. Xede indibidual horrek, zorionaren bilaketak, **helburu-aniztasun** batera darama, zeren eta zoriona, definizioz, zerbait subjektibo eta askotarikoa baita, unibertsalki mugatu ezin dena (bi norbanakoren arteko konparazio oro alferrikoa eta faltsua da, zeren eta "egoerak eta ez pertsonak konparatzen baitira". (*Sur le bonheur. Pensées*, 549). **Legeak** bakarrik ezar dezake **gune objektibo** bat subjektibotasunen artean, denen bakea eta askatasuna bermatuko dituen. Libertate-sistema bat, Berlinek idatzi zuenez<sup>6</sup>, non ez baita azken soluziorik, ez azken betegintzarrerik, eta non hobe baita "jendeak iritzi okerrak izatea, ezen ez iritzi zuzenak izan ditzan bortxatzea".

Hori hautapen etikoa da erlatibismo edo konformismo axiologikoki neutral ororen aurrean: aniztasuna onartzea uniformetasunaren aurrean; zaintza eta partaidetza – horietarako hainbat formula izan baitaitezke– instituzio batzuetan, zeinek, despotismoan eta honek berekin daraman indarkerian erortzea galaraziz, gizarte-funtzionamendua eta ororen funtsezkoa segurtatzen baitute: norberaren libertatea eta segurantza.

Magisterio dogmatiko orotarik urrun, egun Montesquieu irakurtzea giza izatearen ziurtasunik eza eta askatasuna gogoratzea da –"libre eta ziurtasunik gabeak gara", "ez da



dena zuzendu behar", "utz diezagutela garen bezalakoak izaten" (*Pensées*, 2080; L. I., XIX, 6)–, eta aldi berean beste hau gogoratzea: giza ekintza "ziurgabe" horiek ez dutela kaosa edo halabehar itsua esan nahi; aitzitik, baldintzapen konplexu batzuen sarean – zoriaren eta beharrianaren nahaste-borrastearen sarean– hainbat aukera egitearen ondorio direla, eta gizakien askatasuna eta borondatea baldintzapen konplexu horien artean dabiltzalarik. Hori deserosoa gerta daiteke ortodoxia-itxurarik ez duelako eta legeen babespean geure oinez ibiltzeko dugun erantzukizuna baiesten duelako.

Carmen Iglesias.

Historiako Errege Akademiakoa

## **BIBLIOGRAFIA**

### 1.- Montesquieuren obren argitalpen nagusiak.

-*Oeuvres Complètes*. Ed. Roger Caillois. Gallimard, La Pléiade, Paris, 1949-1951. 2 lib.

-*Oeuvres Complètes*. Ed. André Masson. Nagel, Paris 1950-1955. 3 lib. (*Correspondance-a barne*).

-*Lettres Persanes*. Ed. H. Barckhausen. Paris, 1897.

-*Lettres Persanes*. Ed. A. Adam. Droz, Geneva, 1954

-*Lettres Persanes*. Ed. P. Vernière. Garnier, Paris, 1960. Bordas berrargitalpena, 1990).

-*Considérations sur les causes de la grandeur des Romains et de leur décadence*. Ed. J. Ehrard, Garnier-Flammarion, Paris, 1968.

-*Considérations sur les causes de la grandeur des Romains et de leur décadence*. Ed. H. Barckhausen, Imprimerie Nationale. Paris, 1990.

-*De l'Esprit des Lois*. Ed. J. Brethe de la Gressaye. Les Belles Lettres, Paris, 1950-1961. 4 lib.

-*De l'Esprit des Lois*. Ed. R. Derathé. Garnier, Paris, 1973.

-*Pensées. Spicilège*. Ed. L. Desgraves. Robert Laffont, Paris, 1991.

-*Essai sur le goût*. Ed. L. Desgraves. Payot et Rivages, Paris, 1993.

-*Correspondance*. Ed. F. Gebelin. E. Champion, Paris, 1914. 2 lib.

-*Correspondance.1700-1731. Lettres 1-364*. Ed. L. Desgraves-E. Mass. *Oeuvres complètes*.18. Voltaire Foundation, Oxford, 1998.

### 2.- Egileaz eta bere obraz erabilitako erreferentzi obra nagusiak.

-Berlin, I. (1955): "Montesquieu". In *Against the Current. Continuity and Change in Ideas. 1600-1950*. The Hogarth Press, London, 1979.

-Binoche, B. (1998): *Introduction à De l'esprit des lois de Montesquieu*. P.U.F. Paris.

-Desgraves, L. (1986): *Montesquieu*. Mazarine, Paris.

-Díez del Corral, L. (1975): "Montesquieu" ( orr.), in *La Monarquía hispánica en el pensamiento político europeo. Obras completas*. lib. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales. Madrid, 1998.

-Durkheim, E. (1892): *Montesquieu et Rousseau, précurseurs de la sociologie*. Ed. Marcel Rivière 1966. Paris.

-Ehrard, J. (1965): *Politique de Montesquieu*. A. Colin, Paris.

-Hirschman, A.O. (1977): *The Passions and the Interest: Political Arguments for Capitalism before Its Triumph*. Princeton University Press. Princeton, New Jersey.

-Iglesias, M.C. (1984): *El pensamiento de Montesquieu. Política y ciencia natural*. Alianza Univ. Madrid. (1985eko Montesquieu saria Frantzian).

----- (1986): *Los cuerpos intermedios y la libertad en la sociedad civil*. INAP. Madrid.

----- (1991): *Individualismo noble. Individualismo burgués. Libertad y participación política en el pensamiento francés del siglo XVIII*. Real Academia de la Historia. Madrid.

----- (1992): *Montesquieu. Ética y política*, (194-244 orr.), in Historia de la ética (biltz. Victoria Camps). Crítica. Barcelona.

----- (1995): "L'Europe comme valeur: individualisme et liberté politique dans l'oeuvre de Montesquieu", (257-270 orr.), in L'Europe de Montesquieu. Biltz. A. Postigliola-M.G. Bottaro Palumbo. Liguori Editore, Napoli-Universitas, Paris-Voltaire Foundation, Oxford.

----- (1999): *Razón y sentimiento en el siglo XVIII*. Real Academia de la Historia. Madrid.

-Manin, B. (1985): "Montesquieu et la politique moderne" (155-229 orr.). In *Cahiers de Philosophie Politique*. Université de Reims.

----- (1988) "Montesquieu", (786-800 orr.), in *Dictionnaire critique de la Révolution Française*, F. Furet-M. Ozouf zuzendari. Flammarion. Paris.

-Pangle, T. (1973): *Montesquieu's Philosophy of Liberalism. A Commentary on the Spirit of the Laws*. Chicago-London.

-Pocock, J.G. (1983): "Cambridge Paradigms and Scotch Philosophers: a study of the relations between the civic humanist and the civil jurisprudential interpretation of eighteenth-century social thought", in I. Hont-M. Ignatieff, eds.: *Wealth and Virtue. The Shaping of Political Economy in the Scottish Enlightenment*. Cambridge.

-Rosso, C. (1971): *Montesquieu, moralista. Dalle leggi al "bonheur"*. Libreria Goliardica. Pisa.

-Starobinski, J. (1953): *Montesquieu par lui-même*. Seuil. Paris.

-Shackleton, R. (1961): *Montesquieu. A critical biography*. Oxford University Press.

-Vernière, P. (1977): *Montesquieu et L'Esprit des Lois ou la raison impure*. Sedes. Paris.

-VV.AA. (1987): *Storia e ragione. (Les "Considérations sur les causes de la grandeur des Romains et de leur décadence")*. A. Postigliola zuzendari. Liguori Ed. Nápoles.

## LEGEEN IZPIRITUAZ

### EGILEAREN OHARRA

Obra honetako lehen lau liburuak ulertzeko, honako hau izan behar da gogoan:

1. Nik errepublikan bertute deitzen diodana aberriaren maitasuna dela, hau da, berdintasunaren maitasuna. Ez da bertute morala, ez eta bertute kristaua ere, baizik eta bertute politikoa. Alde horretatik, errepublikako Gobernua mugimenduan jartzen duen baliabide gisa definitzen da, ohorea monarkia mugimenduan jartzen duen baliabidea den bezala. Beraz, bertute politiko deitu diot aberriaren eta berdintasunaren maitasunari. Ideia berriak bururatu zaizkit: hitz berriak bilatu behar izan ditut, edota zaharrei adiera berriak eman behar izan dizkiet. Hori ulertu ez dutenek zentzugabekeriak leporatu dizkidate; munduko herri guztietan sumingarri liratekeenak, zeren eta munduko herri guztietan nahi izaten baita morala.

2. Kontuan izan behar da alde handia dagoela halako kualitate, arimaren aldaketa edo bertute Gobernu bat bultzatzen duen baliabidea ez dela esatearen, eta Gobernu horretan gauza hori ez dela esatearen artean. Nik esango banu "gurpil hau, pinoi hori, ez dira erlojua martxan jartzen duten baliabideak", hortik ba ote legoke ateratzerik bi gauza horiek ez daudela erlojuan? Bertute moral eta kristauak ez daude baztertuta monarkian, ez eta bertute politikoa ere. Hitz batez: errepublikan bada ohorea, nahiz eta errepublikaren baliabidea bertute politikoa izan; eta Monarkian bada bertute politikoa, nahiz eta Monarkiaren baliabidea ohorea izan.

Azkenez, III. liburuko V. kapituluan aztertzen den gizaki zintzoa ez da kristau zintzoa, baizik eta gizaki politiko zintzoa, bertute politiko hori duena. Bere herriko legeak maite dituen gizakia da, eta lege horien arabera jarduten duena.

Argitalpen honetan berriro argitu ditut gauza hauek guztiak; eta *bertute* hitza erabili dudan gehienetan, *bertute politiko* jarri dut.

## HITZAURREA

Baldin eta, liburu honetan esaten diren ezin konta ahala gauzen artean, baten batek inor nire borondatez kontra irainduko balu, asmo txarrez behintzat ez da idatzia. Izatez ez naiz gaitzeslea. Platonek eskerrak ematen zizkion zeruari Sokratesen garaian jaio zelako; nik bizi naizen gobernu-eraren pean jaiotzeagatik ematen dizkiot, eta maitarazi zizkidanen esanetara jarri nahi izan naudelako.

Grazia bat eskatzen dut, emango ez zaidan beldurrez: hogeituro urteko lana ez dadila une bateko irakurraldi batez epai; liburu osoa onets edo gaitzets dadila, ez esaldi bakan batzuk. Egilearen asmoa bila dezanak, obraren asmoan baino ez du aurkituko.

Lehenik, gizakiak aztertu ditut, eta iruditu zait ezen, lege eta ohituren ugaritasun amaiezinaren artean, ez zutela jokatzeko beren fantasiaren arabera soilik.

Printzipioak finkatu ditut; eta frogatu dut kasu partikularrak berez bezala egokitzen zitzaizkiela haiei, nazio guztien historia printzipio horien ondorio zela, eta lege partikular bakoitza beste lege batekin erlazionatuta zegoela, edo beste orokorrago baten mende.

Antzinatea aztertu nuenean, bere izpiritutik bertatik aztertzen saiatu nintzen, berez desberdinak ziren kasuak antzekotzat ez hartzeko, eta itxuraz berdinak zirenen arteko aldeak ikusi ahal izateko.

Nire printzipioak ez ditut nire aurrejuzkueetatik atera, gauzen izatetik baizik.

Obra honetan egia asko ez dira nabarmen agertuko harik eta batzuk eta besteak lotzen dituen katea ikusten den arte. Zenbat eta gogoeta gehiago egin xehetasunez, hainbat hobeto atzemango da printzipioen egia. Hala ere, ez ditut denak azaldu; izan ere, nork esan lezake dena, erabat aspergarri bihurtu gabe?

Liburu honetan ez dira aurkituko gaur egungo obren ezaugarri bide diren zer nabarmenak. Gauzei irizpide-zabaltasun apur batez behatuz gero, nabarmentasun horiek desagertu egingo dira; izan ere, ez dira agertzen gure izpiritua, errealitatearen parte batek bakarrik erakarrita, beste guztia abandonatzen duenean baino.

Ez dut idazten halako edo bestelako herrialdean eta besteetan ezarrita dagoena gaitzesteko. Nazio bakoitzak hemen aurkituko ditu bere arauen arrazoiak, eta nor bere kabuz aterako du ondorio hau: Estatuaren eraketa osoa jeinu-ukitu batez hautemateko zorroztasunaren jabe (zorionez) jaio direnak baizik ez dira gauza aldaketak eragiteko.

Badu garrantzirik herria eskolatua izateak. Agintarien aurreiritziak nazioaren aurreiritzi izanez hasi dira beti. Ezjakintasunezko garaietan ez da zalantzarik izaten, ezta gaitzik larrienak egiten direnean ere. Argiaren garaietan, berriz, ikara izaten gara onik handienak egitean ere. Antzinako gehiegikeriez ohartzen gara, eta nola zuzen daitezkeenaz. Baina ikusten ditugu zuzentzeak berak berekin dakartzan gehiegikeriak ere. Beraz, txarra dena alde batera uzten dugu txarrago denaren beldur bagara, on dena alde batera uzten dugu hobeaz zalantzarik badugu, parteak aztertzen ditugu osotasunaz iritzia ateratzeko, eta kasu guztiak aztertzen ditugu emaitza guztiak ikusi ahal izateko.

Nire esku balego mundu guztiak arrazoi berriak aurkitu ahal izatea bere eginbeharrak maite izateko, printzipe bat maite izateko, bere aberria eta bere legeak maite izateko; nire esku balego nor bere herrialdean, bere gobernuan, bere postuan, zoriona hobeto sentitu ahal izatea, hilkorretan zoriontsuena nintzateke.

Nire esku balego agintariek agindu behar dutenaz gehiago jakitea, eta obeditzen dutenek obeditzean plazer berri bat aurkitzea, hilkorretan zoriontsuena nintzateke.



Hilkorretan zoriontsuena nintzateke gizakiak beren aurreiritzietatik sendarazteko gauza banintz. Eta aurreiritzi deritzot, ez zenbait gauza ez ezagutzea dakarrenari, baizik eta nork bere burua ez ezagutzea dakarrenari.

Gizakiak heziz gauzatu behar da gizateriaganako maitasuna delako bertute orokorra. Gizakia, gizartean besteen pentsamendu eta inpresioei egokitzen zaien izaki malgu hori, bere izatea ezagutzeko gai da inork erakusten dionean, baina baita bere izate horren zentzua galtzeko ere, ezkutatu egiten diotenean.

Lan hau askotan hasi dut, eta gero utzi; mila aldiz jaurti ditut lau haizetara<sup>1</sup> idatziak nituen orriak; egunero sentitzen nituen erortzen aitaren eskuak<sup>2</sup>; planik eratu gabe nenbilen nire asmoaren atzetik; artean ez nituen ezagutzen ez arauak ez salbuespenak; egia aurkitu eta berehala galtzen nuen. Baina nire printzipioak aurkitu nituenean, bilatzen nuen guztia etorri zitzaidan, eta hogeitaz urtez ikusi dut nola nire obra hasi, hazi, aurreratu eta amaitu egin den.

Obra honek arrakastarik badu, gaiaren handiari zor izango diot hein handi batean; hala ere, uste dut ez naizela batere jeinugabea. Hainbat gizakik nik baino lehen Frantzian, Ingalaterran eta Alemanian idatzitakoa ikusi nuenean, mirespenez bete nintzen, baina ez nuen adorea galdu, eta Corregiok bezala esan nuen: "Ni ere pintore naiz"<sup>3</sup>.

## LEGEEN IZPIRITUAZ

...Prolem sine matre creatam.

Ovidio

## LEHEN PARTEA

|

## LEHEN LIBURUA

### LEGEEZ, ORO HAR

#### LEHEN KAPITULUA:

##### Legeez, izakiekin duten zerikusiaren aldetik

Legeak, beren adierarik zabalenean, gauzen izaeratik eratortzen diren beharrezko erlazioak dira. Alde honetatik, izaki guztiek dituzte legeak: Jainkoak<sup>4</sup>, mundu materialak, gizakiaren gainetiko adimenek, animaliek eta gizakiak berak.

Munduan ikusten ditugun egintza guztiak patu itsu baten emaitza direla esan zutenek burugabekeria handia esan zuten; izan ere, ba al da burugabekeria handiagorik, izaki adimendunak patu itsu baten emaitza direla pentsatzea baino?

Beraz, bada jatorrizko arrazoi bat. Eta legeak jatorrizko arrazoi horren eta izakien artean diren erlazioak dira, bai eta izakien beren arteko erlazioak ere.

Jainkoak sortzaile eta kontserbatzaile gisa du erlazioa unibertsoarekin. Hura sortzeko erabili zituen legeen beren bitartez kontserbatzen du. Arauok ezagutzen dituelako jarduten du haien arabera; berak egin dituelako ezagutzen ditu, eta bere jakituria eta ahalarekin erlazioa dutelako egin ditu.

Ikus dezakegunez, munduak, materiaren mugimenduaz eratuta eta adimenik gabe, iraun egiten du. Beraz, haren mugimenduek lege aldaezinak izan behar nahitaez; eta mundu hau ez bezalako beste mundu bat imajinatzerik balego, arau aldaezinak izango lituzke, edota bestela suntsitu egingo litzateke.

Hartara, munduaren kreazioak, egintza arbitrario gisa ageri bazaigu ere, ateen halabeharrak bezain arau aldaezinak eskatzen ditu. Burugabea litzateke Sortzaileak mundua arau horiek gabe goberna lezakeela esatea, horiek gabe ez bailuke irauterik.

Arauok etengabe ezarritako erlazioa dira. Higitzen diren bi gorputzen artean, higidura guztiak dira elkarrekikoak, eta masen eta abiaduren erlazioen arabera handitzen, txikiagotzen edo galtzen dira. Aniztasun oro *uniformitate* da, eta aldaketa oro *konstantzia*.

Izaki partikular adimendunek, berek egindako legeak izan ditzakete, baina badituzte berek egin ez dituzten beste lege batzuk ere. Izaki adimendunik izan aurretik, izaki adimendunak posible ziren; beraz, erlazio posibleak zituzten eta, ondorioz, lege posibleak. Legeak eman aurretik, justizia-erlazio posibleak zeuden. Bidezkoa edo bidez kontrakoa, lege positiboek agintzen edo debekatzen dutena besterik ez dela esatea, zera esatea litzateke, zirkulua lehen aldiz marratu baino lehen haren erradio guztiak ez zirela berdinak.

Beraz, onartu egin behar da badela berdintza-erlazorik, halakoak ezartzen dituen lege positiboa baino lehen. Adibidez: gizarte posibleak imajinatz, bidezko litzateke haien legeetara egokitzea; beste izaki batengandik onuraren bat jaso duen izaki adimendunik balitz, halakoak esker oneko behar luke harenganako; izaki adindun batek beste bat sortu balu, honek sortzez lukeen mendekotasunean iraun behar luke; beste izaki bizidun bati gaitzen bat egina liokeen izaki bizidun batek gaitz berbera jasotzea merezi luke, eta horrela hurrenez hurren.

Baina ez dago esaterik adimen-mundua mundu fisikoa bezain ondo gobernatuta dagoenik, zeren eta, hark ere berez aldaezinak diren legeak dituen arren, ez ditu beti betetzen, mundu fisikoak bereak betetzen dituen bezala. Horren zergatia honako honetan datza, izaki partikular adimendunak mugatuak direla berez, eta, beraz, errorearen mende daudela; eta bestalde, beren izaerari dagokio beren kabuz jardun ahal izatea. Alegia, ez diete etengabe men egiten beren sortzezko legeei, eta beren buruei ezartzen dizkieten legeak ere ez dituzte beti betetzen.

Ez dakigu animaliek mugimenduaren lege orokorren arabera jarduten duten, ala mugimendu partikular baten arabera. Nolanahi ere den, Jainkoarekin ez dute mundu materialeko beste gauzek baino harreman estuagorik, eta beren sentimenak ez die balio beren arteko, beste izaki partikularrekiko eta beren buruekiko harremanetarako baino.

Animaliek plazerraren erakargarritasunari esker gordetzen dute beren izate partikularra; eta erakargarritasun horrixe esker kontserbatzen dute beren espeziea. Lege naturalak dituzte, sentimenduaren bidez lotuta daudelako; ez dute lege positiborik, ordea, ez daudelako ezagutzaren bidez lotuta. Hala ere, beren lege naturalak ez dituzte beti eta modu aldaezinez betetzen. Landareek, zeinetan ez baitugu ez ezagutzarik ez sentimendurik sumatzen, hobeto betetzen dituzte.

Animaliek ez dituzte guk ditugun abantaila handiak, baina guk ez ditugun batzuk dituzte. Ez dituzte gure itxaropenak, baina ezta gure beldurrak ere; gu bezala, heriotzaren zordun dira, baina ez dute ezagutzen; gehienak gu baino hobeto kontserbatzen dira, eta ez dituzte beren grinak hain oker erabiltzen.

Gizakia, izaki fisiko den aldetik, lege aldaezinek gobernatzen dute, beste gorputzak bezala. Izaki adimendun den aldetik, ordea, etengabe hausten ditu Jainkoak ezarritako legeak, eta aldatu egiten ditu berak jarritakoak ere. Bere mugak eta guzti, gidatu egin behar du bere jokabidea; adimen mugatu oro bezala, ezjakintasunaren eta errorearen zordun da, eta are bere ezagupen ahulak ere galdu egiten ditu. Sorkari sentikor gisa, hamaika grinaren mende dago. Halako izaki bat une oro ahaz liteke bere Sortzaileaz, baina Jainkoak erlijioaren legeen bitartez deitzen dio. Era berean, halako izaki bat une oro ahaz liteke bere buruaz, baina filosofoek galarazten diote, moralaren legeen bitartez. Gizartean bizi izateko jaioa, ahaztu egin liteke besteez, baina legegileek bere betebeharrak deitzen diote, lege politiko eta zibilen bitartez.

## II. KAPITULUA

### Naturaren legeez.

Lege horiek guztiak baino lehen, naturarenak daude. Gure natura edo izaeratik datozelako deitzen zaie horrela. Ondo ezagutzeko, gizartea sortu aurretiko gizakia kontsideratu behar da. Naturaren legeak, gizaki horrek egoera hartan jaso zituenak lirateke.

Gure baitan sortzaile baten ideia txertatu eta sortzaile horrengana garamatzan legea, *lege naturaletan* lehena da garrantziz, baina ez lege naturalen ordenari dagokionez. Gizonak, natura-egoeran, ezagutzeko ahalmena izango zuen, baina ez ezagupenak. Argi dago haren lehen ideiak ez zirela ideia espekulatiboak izango; bere izatea gordetzen saiatuko zen, bere izatearen jatorria bilatu baino lehen. Halako gizaki batek bere ahulezia baino ez zuen sentituko; haren herabetasuna ezin handiagoa izango zen; eta horren esperientziarik behar izanez gero, aurkitu izan dira basoetan gizaki basatiak<sup>5</sup>: edozerk eragiten die ikara, edozerk jartzen ditu ihesean.

Egoera horretan, norbera menean sentitzen da, nekez sentituko da besteen berdina. Beraz, gizakiek ez lukete elkarri eraso egiteko aukerarik bilatuko, eta bakea litzateke lehen lege naturala.

Hobbesez gizakiei lehenik egozten dien desira, bata bestea azpiratzekoa, ez da arrazoizkoa. Inperioaren eta dominazioaren ideia, hain konplexua eta beste ideia batzuen hain mendean egonik, ez litzateke lehena.

Hobbesez galdera hau egiten du: "Gizakiak, berez gerra-egoeran ez badaude, zergatik doaz beti armaturik? Eta zergatik dituzte giltzak beren etxeetako ateak ixteko?". Baina ez dirudi gizakiei gizartea ezarri ondoren baizik gerta ez dakiekena gizartea ezarri baino lehen egotz dakiekeenik, ezarpen horrek ematen baitizkie elkarri erasotzeko eta defendatzeko motiboak.

Bere ahuleziaren sentipenaz gainera, gizakiak bere premien sentipena izango luke. Hala, bada, beste lege natural bat elikagai bila bultzatuko lukeena litzateke.

Esan dut beldurrak elkarrengandik ihesi jarriko lituzkeela gizakiak; baina elkarrenganako beldurraren zantzuek elkarrengana bultzatuko lituzkete. Bestalde, animalia batek bere espezieko beste animalia baten hurbilak ematen dion plazerra sentituko luke. Gainera, bi sexuek, beren arteko aldeak direla eta, elkarri sentiarazten dioten xarmak handitu egingo luke plazer hori. Eta bata besteari beti egin ohi dioten eskea ere hirugarren legea litzateke.

Lehenengoz duten sentimenduaz gainera, gizakiak ezagupenak edukitzera iristen dira; hartara, beste animaliek ez duten bigarren lotura bat dute. Beraz, elkarrengana jotzeko beste motibo bat dute; eta gizartean bizi izateko desira da laugarren lege naturala.

### **III. KAPITULUA**

#### **Lege positiboez**

Gizakiek, gizartean izan bezain laster, beren ahuleziaren sentimendua galtzen dute; beren artean zen berdintasuna desagertu egiten da, eta gerra-Estatua hasten.

Gizarte partikular bakoitza bere indarraz ohartzen da, eta horrek gerra-egoera dakar nazioen artean. Partikularrak, gizarte bakoitzean, beren indarra sentitzen hasten dira; beren alde jartzen saiatzen dira gizarte horretako abantaila nagusiak; eta horrek gerra-egoera sortzen du beren artean.

Bi gerra-egoera horiek legeak ezarrarazten dituzte gizakien artean. Hain planeta handian bizi izanda, herri desberdinak izatea beharrezko denez, gizakiek legeak dituzte herri horiek beren artean dituzten harremanetan, eta horri



JENDEEN ZUZENBIDEA deritza. Iraunarazi egin behar den gizarte batean bizi diren aldetik, berriz, gizakiek legeak dituzte gobernatzen dutenen eta gobernatuen arteko harremanak arautzeko, eta horri ZUZENBIDE POLITIKOA deritza. Hiritar guztiek beren artean dituzten harremanetan ere, gizakiek badituzte legeak, eta horri ZUZENBIDE ZIBILA deritza.

Jendeen zuzenbidea honako printzipio honen gainean sortua da: nazioek ahalik eta onik handiena egin behar diotela elkarri bakean direnean, eta ahalik eta gaitzik txikiena gerran direnean, beren benetako interesei kalte egin gabe.

Gerraren helburua garaipena da; garaipenarena, konkista; konkistarena, iraupena. Printzipio horretatik eta aurrekotik etorri behar dute jendeen zuzenbideaosatzen duten lege guztiek.

Nazio guztiek dute jendeen zuzenbide bat; baita irokese ere, beren presoak jaten dituzten indiarrek, badute bat. Enbaxadak bidaltzen eta hartzen dituzte; gerrako eta bakealdiko eskubideak ezagutzen dituzte; okerra, jendeen zuzenbide hori benetako printzipioetan oinarritua ez izatean datza.

Gizarte guztiei dagokien jendeen zuzenbideaz gainera, bada zuzenbide politiko bat bakoitzarentzat. Gizarte bat ez litzateke gauza gobernu-erarik gabe. Indar partikular guztien batasunak, dio oso ondo Gravinak, ESTATU POLITIKOA deritzana eratzen du.

Indar orokorra bakar baten eskuetan edo zenbaiten eskuetan jar daiteke. Batzuek pentsatu izan dute ezen, naturak aitaren boterea ezarri duenez, bakar baten gobernua zegokiola ondoen naturari. Baina aitaren boterearen adibideak ez du ezer frogatzen. Izan ere, aitaren botereak bakar baten gobernuarekin zerikusia badu ere, aita hil ondoren anaien botereak, edo, anaiak hil ondoren, lehengusuen botereak, zenbaiten gobernuarekin dute zerikusia. Ahal politikoak hainbat familiaren batasuna dakar berekin nahitaez.

Hobe da esatea naturari ondoen atxikitzen zaion gobernu-era, den bezalakoa izateagatik herriaren izaerari ondoen egokitzen zaion gobernu-era dela.

Indar partikularrek ez daukate batzerik, borondate guztiak batu gabe. Borondate horien batasunari, dio berriz ere Gravinak oso ondo, ESTATU ZIBIL deritza.

Legea, oro har, giza arrazoia da, Lurreko herri guztiak gobernatzen dituen heinean; eta nazio bakoitzeko lege politiko eta zibilek ez dute izan behar giza arrazoi hori aplikatzen deneko kasu partikularrak baino.

Hain izan behar dute egokiak eginak diren herri horrentzat, non kasualitate handia litzatekeen nazio batenak beste bati komeni izatea.

Beharrezkoa da naturari eta ezarri den edo ezarri nahi den gobernu-printzipioari egokitzea; dela printzipio hori eratzen dutelako, lege politikoek egiten duten bezala; dela printzipio horri eusten diotelako, lege zibilek egiten duten bezala.

Herrialdeko ezaugarri fisikoei dagozkienak izan behar dute; klima hotzari, beroari edo epelari; lurraren kalitateari, egoerari, tamainari; herrien bizimoduari; nekazari, ehiztari edo artzain izan; konstituzioak jasan dezakeen askatasun-graduari egokitu behar zaizkio, biztanleen erlijioari, haien jaidurei, haien aberastasunei, kopuruari, merkataritzari, ohitura eta azturei; azkenez, erlazioak dituzte beren artean; erlazioa dute beren sorrerarekin, legegilearen xedearekin, ezarri zaizkien gauzen ordenarekin. Ikuspegi horietatik guztietatik kontsideratu behar dira.

Horixe egin nahi nuke obra honetan. Erlazio horiek guztiak aztertuko ditut; denek batera, nik LEGEEN IZPIRITUA deitzen diodana osatzen dute.

Ez ditut bereizi lege politikoak zibiletatik. Izan ere, ez naiz legeez ari, baizik eta legeen izpirituaz; eta izpiritu hori legeek hainbat gauzarekin dituzten

erlazioetan datzanez, gutxiago atxiki behar izan natzaio legeen ordena naturalari, erlazio horien eta gauza horien ordenari baino.

Lehenik legeek naturarekin eta gobernu bakoitzaren printzipioarekin dituzten erlazioak aztertuko ditut; eta printzipio horrek legeen gainean eragin handiena duenez, printzipio hori ondo ezagutzeari lotuko natzaio; eta printzipioa ezartzea lortzen badut, beren iturburutik jario agertuko dira legeak. Ondoren, partikularragoak diruditen beste erlazioetara pasatuko naiz.

## II. LIBURUA

### GOBERNU-ERAREN IZAERATIK ZUZENEAN ERATORTZEN DIREN

#### LEGEAK

### LEHEN KAPITULUA

#### Hiru gobernu-eren izaeraz.

Hiru gobernu-mota daude: ERREPUBLIKARRA, MONARKIKOA eta DESPOTIKOA. Horien izaera aurkitzeko, aski da gizon ezikasienek duten ideia. Hiru definizio, edota, hobeto esanda, hiru egintza suposatzen ditut: bat, *gobernu errepublikarra, ahalmen subiranoa herriak bere osoan, edo herriaren zati batek bakarrik, dueneko hura dela; monarkia, bakar batek gobernatzen duenekoa, baina lege finko eta ezarrien bidez; despotikoan, aldiz, bakar batek, ez lege ez arau, bere borondate hutsaz eta bere apetez darama dena.*

Horra zeri deritzodan gobernu bakoitzaren izaera. Ikusi behar da zein diren izaera horretatik datozen legeak, hots, oinarrizko lehen legeak.

## II. KAPITULUA

#### Gobernu errepublikarrak, eta demokraziari doazkion legeez.

Errepublikan ahalmen subiranoa herri osoak duenean, *demokrazia* dugu. Ahalmen subiranoa herriaren parte baten eskuetan dagoenean, horri *aristokrazia* deritza.

Zenbaiten ikuspuntuaren arabera, herria, demokrazian, errege da; beste zenbaiten arabera, berriz, mendeko edo sujet da.

Ez dauka errege izaterik bere sufragioen bidez ez bada, horiek baitira bere borondateak. Subiranoaren borondatea subiranoa bera da. Beraz, boto-eskubidea

ezartzen duten legeak oinarrizkoak dira gobernu-era honetan. Hain zuzen, monarkia batean erregea nor den eta nola gobernatu behar duen jakitea bezain garrantzizkoa da demokrazian zera arautzea, nork, nori, nola, zertaz eman behar dion botoa.

Libanius-ek<sup>6</sup> dio Atenasen, herriaren batzarrean sartzen zen arrotzari, heriotza-zigorra ematen zitzaiola. Izan ere, halakoak subiranotasun-eskubidea usurpatzen baitzuen.

Funtsezkoa da batzarrak eratu behar dituzten hiritarren kopurua zehaztea; hori gabe, ez legoke jakiterik herriak ala herriaren zati batek hitz egin duen. Lazedemonian, hamar mila hiritar behar ziren. Erroman, berriz, txiki sortu eta handi bihurtutako Erroman; patuaren gorabehera guztiak probatzeko egindako Erroman; Erroman, non batzuetan ia hiritar guztiak harresiez kanpora baitzeuden, eta besteetan Italia osoa eta Lurreko parte bat bere harresien barruan, ez zegoen zehaztuta kopuru hori<sup>7</sup>, eta horixe izan zuen bere hondamendiaren arrazoi nagusietako bat.

Botere subiranoa duen herriak bere kabuz egin behar du ondo egin ahal duen guztia; eta ondo egin ezin duena, bere ministroen bitartez egin behar du. Bere ministroak ez ditu bere, berak izendatzen ez baditu; beraz, gobernu-era horren arau funtsezkoa da herriak bere ministroak, hots, bere magistratuak, izendatzea.

Erregeek bezala, edota erregeek baino gehiago, kontseilu edo senatu baten gidaritzapean egon behar du. Baina harengan uste osoa izan dezan, berak hautatu behar ditu kideak; dela berak aukeratuz, Atenasen bezala; dela hautaketarako ezarri duen magistraturen baten bidez, Erroman zenbait abagunetan egin ohi zen bezala.

Herria miresgarria da, bere autoritatearen parte bat hartuko diotenak hautatzen dituelako. Derrigor ezagutu behar dituen gauzez erabaki behar du

bakarrik, zentzuen bidez jasotzen diren egintzez. Oso ondo daki gizon bat sarritan joan dela gerrara, halako edo halako arrakasta izan duela; beraz, oso gai dela jenerala izateko. Badaki epaile bat bere lanari atxikia dela, jende asko itzultzen dela pozik haren auzitegitik, ez dutela ustelkeriara eraman; nahikoa da hori pretore bat hautatzeko. Harritu egiten dute hiritar baten handitasunak edo aberastasunak; aski da hori edil bat aukeratzeko. Gauza horiek guztiak egintzak dira, eta hobeto izaten du horien berri plaza publikoan, errege batek bere jauregian baino. Baina jakingo ote du eginkizun publiko bat eramaten; leku, abagune, uneei antzematen; horietaz profitatzen? Ez, ez du jakingo.

Herriak merezimenduak bereizteko duen gaitasun naturalaz zalantzarik balitz, aski litzateke atenastarrek eta erromatarrek egin zituzten aukera harrigarrien segida etengabe honi begiratzea; halakorik ez baitzaio inolaz ere zoriari egotziko.

Gauza jakina da Erroman, nahiz eta herriak plebeioak karguetan jartzeko eskubidea izan, ez zeukala hauek hautatzerik; eta nahiz eta Atenasen, *Aristides*-en legeari esker, magistratuak klase guztietatik atera ahal izan, inoiz ez zen gertatu, dio Xenofontek<sup>8</sup>, herri xeheak bere ongizateari edo loriari komeni zitzaizkionak eskatzea.

Hiritar gehienak, hautatzeko gai badira ere, ez dira gai hautatuak izateko; era berean, herria ere, besteen kudeaketaz kontu eskatzeko gai izan arren, ez da gai kudeatzaile izateko.

Eginkizunek aurrera egin behar dute; eta ez geldoegi ez bizkorregi egin behar dute aurrera. Baina herriak beti du edo ekintza gehiegi, edo gutxiegi. Batzuetan, ehun mila besorekin, dena itzulipurdikatzen du; beste batzuetan, ehun mila oinekin, zomorroak bezala dabil.

Estatu herritarrean, herria zenbait klasetan banatzen da. Banaketa hori egiteko moduagatik nabarmendu izan dira legegile handiak; eta horren mende jarri izan dute beti demokrazioaren iraupena eta onura.

Servio Tulio, klaseak osatzerakoan, aristokraziaren izpirituari jarraitu zitzaion. Tito Livio<sup>9</sup> eta Dionisio Halikarnasokoaren lanetan<sup>10</sup> ikusten dugunez, hiritar nagusien eskuetan jarri zuen sufragio-eskubidea. Erromako herria ehun eta laurogeita hamahiru zenturiatan banatu zuen, sei klase osatuz. Aberatsenak lehen zenturietan jarri zituen, baina oso kopuru txikian; aberats ez zirenak, baina ugariago, hurrengoetan; txiroen jendetza guztia azkenekoan jarri zuen; eta zenturia bakoitzak ahots bat besterik ez zuenez<sup>11</sup>, bitartekoek eta aberastasunek ematen zuten sufragioa, ez pertsonak.

Solonek lau klasetan banatu zuen Atenasko herria. Demokraziaren izpirituak eramana, ez zuen hori egin hautesleak finkatzeko, hautagaiak finkatzeko baizik; eta hautapen-eskubidea hiritar bakoitzari utziz, epaileak lau klase horietako bakoitzean hauta zitezen nahi izan zuen<sup>12</sup>, baina magistratuak lehen hiruretatik baino ez hartzea, hantxe baitzeuden hiritar dirudunak.

Boto-eskubidea dutenen banaketa, errepublikan, oinarritzko legea den bezala, botoa emateko era ere oinarritzko beste lege bat da.

Zozketazko sufragioa demokraziari dagokio; hautabidezko sufragioa, berriz, aristokraziari.

Zozketa inor mintzen ez duen hautabidea da; hiritar bakoitzari itxaropen-zati bat uzten dio bere aberriari zerbitzatzeko, baina berez akastuna denez, legegile handiek hautabide hori arautzen eta zuzentzen eman dituzte beren onenak.

Solonek, Atenasen, kargu militar guztiak hauteskunderaz izendatuko zirela ezarri zuen, eta senadoreak eta epaileak zozketaz aukeratuko zirela.

Gastu handiak egitea eskatzen zuten magistratura zibilak hauteskunderaz eman zitezen nahi izan zuen, eta besteak zozketaz eman zitezen.

Baina zozketarena zuzentzeko, zera arautu zuen, aurkezten zirenen artekorik baino ezingo zela aukeratu; aukeratutakoa epaileek aztertuko zutela<sup>13</sup>, eta edonork sala zezakeela duinez izateaz<sup>14</sup>; horrek biak biltzen zituen, zozketa eta hautabidea. Magistratura-aldia agortu eta gero, beste epaiketa bat jasan behar zuen magistratuak, aldi horretan izandako jokabideaz. Hartara, gai ez zirenek higuin handia izango zuten beren izena zozketarako emateko.

Botoa emateko era finkatzen duen legea ere oinarrizko legea da demokrazian. Arazo handia da ea sufragioak publikoak ala sekretuak izan behar duten. Zizeronek idatzi zuenez<sup>15</sup>, Erromako errepublikaren azken garaietan botoa sekretu bihurtu zuten legeek<sup>16</sup> ekarri zuten batez ere haren erorketa. Hau errepublika batzuetan eta besteetan desberdin egiten denez, hona zer pentsatu behar litzatekeen, nire ustez.

Ezbairik gabe, herriak bere botoak ematen dituenean, publikoak izan behar dira<sup>17</sup>; eta hau demokraziaren oinarrizko legetzat hartu behar da. Herri xehea jakinaren gainean jarri behar dute buruek, eta muga batzuen barruan eutsi behar dio zenbait pertsonaiaren seriotasunak. Esate baterako, Erromako errepublikan, botoak sekretu bihurtu zituztenean, dena desegin zen; handik aurrera ezin izan zen gidatu desbideratutako jendaila. Baina aristokrazia batean nobleen multzoak bere botoak ematen dituenean<sup>18</sup>, edo demokrazia batean senatuak<sup>19</sup>, xedea azpijokoei biderik ez ematea denez, botoek ezin sekretuagoak izan behar dute.

Azpijokoa arriskutsua da senatu batean; arriskutsua da nobleen artean ere; baina ez herrian, herriari berez baitagokio grinaz jardutea. Gobernuan parterik ez duen estatuetan, guztiz berotuko da aktore bat dela eta, arazo publikoengatik egingo zukeen bezala. Errepublika baten zorigaitza azpijokorik ez egotea da; eta hori gertatzen da herria diruz usteldu dutenean: odol hotzeko bihurtzen da, diruzaletu egiten da, baina ez da eginkizun publikoetara zaletzen; gobernuaz eta han proposatzen denaz arduratu gabe, bere soldataren zain egoten da lasai asko.



Demokraziaren oinarrizko legea da, halaber, legegintza herriaren eta ez besteren esku egotea. Hala ere, mila abagunetan senatuak erabaki beharra izaten du. Sarritan, gainera, lege bat probatzea komeni izaten da indarrean jarri baino lehen. Erromako konstituzioa eta Atenaskoa oso zuhurrak ziren. Senatuaren erabakiek<sup>20</sup> legearen indarra zuten urtebetez; herriaren borondateak baino ez zituen behin betiko bihurtzen.

### **III. KAPITULUA**

#### **Aristokraziaren izaerari buruzko legeez.**

Aristokrazian, botere subiranoa zenbait pertsonaren eskuetan egoten da. Horiek egiten dituzte legeak, horiek betearazten dituzte; eta monarkia batean sujetak erregearekiko direna da herria aristokrazian pertsona horiekiko.

Aristokrazian ez da behar zozketa bidezko hautapenik; eragozpena besterik ez letorke hortik. Izan ere, bereizketarik mingarrienak jadanik ezarrita dituen gobernu batean, inor zozketaz aukeratua izandakoan, ez lukete gutxiago gorrotatuko: noblearen bekaitz dira, ez magistratuaren.

Nobleak ugari direnean, senatu bat behar da, nobleen gorputzak erabakitzen asmatuko ez lituzkeen arazoak arautu eta erabakitakoak prestatuko dituen. Kasu honetan, esan daiteke aristokrazia, nolabait, senatuan dagoela, eta demokrazia nobleen gorputzean; eta herria ez dela ezer.

Zorioneko gauza litzateke aristokrazian herria, zeharkako bideren batez, bere bazterketatik ateraraztea; esate baterako, Genoan, San Jorjeren bankuak, hein handi batez herriko buruek kudeatua baita<sup>21</sup>, nolabaiteko eragina onartzen dio herriari gobernuan, eta horrek haren onura dakar erabat.

Senadoreek ez dute eduki behar senatuan falta direnak ordezkatzeko eskubidea; ez litzateke ezer kaltegarriagorik gehiegikeriak betierekatzeko.

Erroman, lehen garaietan halako aristokrazia bat izan baitzen, senatuak ez zuen bere burua ordezkutzen; senadore berriak zentsoreek izendatzen zituzten<sup>22</sup>.

Neurritz gaineko aginpideak, errepublikan bat-batean eta hiritar bati emanda, monarkia eratzen du, edo monarkia baino gehiago. Monarkian, legeek emana dute konstituzioa, edota beronetara egokitu dira; gobernu-eraren printzipioak geldiarazi egiten du erregea; baina errepublika batean hiritar batek neurritz gaineko boterea bereganatu badu<sup>23</sup>, botere horren neurrigabekeria handiagoa da; izan ere, legeek, ez baitute halakorik inolaz ere aurreikusi, ez dute ezer egin hura geldiarazteko.

Batzuetan arau horrek salbuespena izaten du: estatu baten konstituzioak, bere izaeragatik, neurritz gaineko boterea duen magistratura baten beharra duenean. Halakoxea zen Erroma bere diktadoreekin, halakoxea Venezia estatu-inkisidoreekin; magistratura beldurgarriak dira horiek, Estatua askatasunera bortizki eramaten dutenak. Baina zer dela eta dira hain desberdinak magistratura horiek bi errepublika horietan? Erromak bere aristokrazi hondarrak herriaren kontra defendatzen zituelako; Venezia, aldiz, bere aristokraziari nobleen kontra eusteko baliatzen da estatu-inkisidoreez. Ondorioz, Erroman diktadurak denbora gutxi iraun behar zuen; herriak bere suhartasunaren arabera jarduten duelako, ez bere xedeen arabera. Magistratura hura distiratsu erabili behar zen, kontua herria kikiltzea zelako, ez herria zigortzea; diktadorea arazo bakar baterako sortu behar zen, arazo horretarakoxe bakarrik izan behar zuen mugarik gabeko aginpidea, ustekabeko arazo baterako sortzen baitzen beti. Venezian, aitzitik, magistratura iraunkorra behar da; xedeak han hasi, segi, eten, berrekin egiten zaie; bakar baten handinahia familia batena bihurtzen da, eta familia baten handinahia askorena. Ezkutuko magistratura baten beharra dago, hark zigortzen dituen delituak, handiak beti, sekretuan eta isilpean sortzen baitira. Magistratura horrek ikuskapen orokorra izan behar du; zeren eta, ezagunak diren gaitzak geldiarazi ez ezik, ezagutzen ez direnetatik gorde ere egin behar baitu. Azkenik, susmatzen dituen

delituak mendekatzeko ezarria da Veneziako magistratura; eta Erromakoak, berriz, zigorra baino gehiago mehatxua erabiltzen zuen delituen kontra, baita egileek ekintzok aitortzen zituztenean ere.

Magistratura guztietan, boterearen handia bere iraupenaren laburrarekin orekatu behar da. Urtebete da legegile gehienek ezarritako denbora; luzeago, arriskutsua litzateke; laburrago, gaiaren beraren izaeraren kontrakoa litzateke. Nork nahi lituzke horrela gobernatu bere etxeko arazoak? Ragusan<sup>24</sup> errepublikako buruzagia hilero aldatzen dute, beste karguak astero, gazteluko gobernadorea egunero. Hori ezin da gertatu potentzia izugarri handiez inguratutako errepublika txiki batean izan ezik<sup>25</sup>, haiek erraz erosiko bailituzkete magistratu txikiak.

Aristokraziarik onena, batere botererik ez duen herri-zatia hain txikia eta pobrea izanik, nagusi direnak hura zapaltzeko inolako interesik ez dutenekoa da. Esate baterako, Antipaterrek<sup>26</sup> Atenasen bi mila drakma ez zutenak boto-eskubiderik gabe geratuko zirela ezarri zuenean, ahal zen aristokraziarik onena eratu zuen; izan ere, zentso hura hain zen txikia, non oso jende gutxi uzten baitzuen kanpoan, eta inor ez hirian aintzakotzat hartua zenik.

Beraz, familia aristokratikoez, ahal den neurrian, herri izan behar dute. Aristokrazia bat, zenbat eta gehiago hurbildu demokraziara, hainbat eta beteginagoa izango da; eta ez da hain betegina izango, zenbat eta gehiago hurbildu monarkiara.

Denetan akastunena, obeditzen duten herritarrak agintzen dutenen esklabotza zibilean daudenekoa da. Poloniako aristokrazia, kasu, non nekazariak nobleziaren esklabo baitira.

#### **IV. KAPITULUA**

**Legeez, gobernu monarkikoaren izaerarekin duten zerikusiaren aldetik.**

Tarteko botereek, agindupeko eta manupekoek, osatzen dute gobernu monarkikoa, hau da, bakar batek oinarrizko legeen bitartez gobernatzen dueneko gobernu. Tarteko botere agindupeko eta manupekoak esan dut; izan ere, monarkian, printzea da botere politiko eta zibil ororen iturri. Oinarrizko lege horiek tarteko bideak izatea eskatzen dute derrigor, boterea tarteko bide horietatik ibil dadin; izan ere, Estatuan bakar baten borondate une bateko eta apetatsua besterik ez bada, ezer ezin da finkoa izan, eta, beraz, ezta oinarrizko legerik ere.

Tarteko botere manupekorik naturalena nobleziarena da. Esan liteke noblezia monarkiaren mamian sartzen dela, monarkiak honako arau funtsezko hau duelarik: *erregerik gabe, ez da nobleziarik; nobleziarik gabe, ez da erregerik*, despota bat baizik.

Europako estatu batzuetan, zenbaitek jaunen justizia guztiak abolitu nahi izan dituzte. Halakoek ez zuten ikusten egin nahi zutena Ingalaterrako parlamentuak egin duena zela. Ken itzazue monarkia batean jaunen, elizgizonen, nobleziaren eta hirien pribilegioak, eta estatu herritarra edo estatu despotikoa izango duzue laster.

Europako estatu handi bateko tribunalak etengabe ari dira, mendeetan zehar, jaunen eta elizgizonen ondarezko jurisdikzioaren kontra. Guk ez ditugu zentsuratu nahi hain magistratu jakintsuak; baina hortxe uzten dugu, erabakitzeo, ikus dadin zenbateraino ez ote den horrela barne-egitura aldatuko.

Ez nago elizgizonen pribilegioekin itsututa; baina horien jurisdikzioa behin betiko finka ledin nahi nuke. Kontua ez da halakorik ezartzeko arrazoirik bazen ala ez; baizik eta ezarrita dagoen ala ez, herrialdeko legeen parte bat den, eta alde guztietan erlatiboa den, ea independentetzat jotzen diren bi botereraren artean baldintzak ez ote diren elkarrekikoak izan behar, eta sujet on batentzat ez ote den

berdina printzearen justizia defendatzea eta justizia horrek betidanik bere buruari ezarritako mugak defendatzea.

Elizgizonen boterea errepublika batean arriskutsua den bezala, komenigarria da monarkia batean; batez ere despotismora jotzen duten haietan. Non lirateke Espainia eta Portugal, beren legeak galdu eta gero, botere arbitrarioa geldiarazten duen botere bakar hori gabe? Hesi ona da, beti ere, besterik ez denean; izan ere, despotismoak giza izaerari kalte izugarriak ekartzen dizkionez, hura mugatzen duen gaitza gauza beharra da.

Nola itsasoa, lurbira osoa estali nahi duela dirudielarik, ertzeko belarrek eta hartxintzar txikiak geldiarazten duten, halaxe erregeak ere, haien boterea mugarik gabea dirudien arren, oztoporik txikiak geldiarazten dituzte, eta beren harrotasun berezkoak men egiten die erregu eta otoitzei.

Ingelesek, askatasunari bideak errazteko, beren monarkia eratzen zuten tarteko botere guztiak kendu dituzte. Arrazoi osoa dute askatasun hori gordetzean; galduko balute, Lurreko herri esklaboenetako bat lirateke.

Law jauna, konstituzio errepublikarra zein monarkikoa ezezagunak zitzaizkionez, European izan den despotismoaren bultzatzaile handienetako bat izan zen. Egin zituen aldaketa hain bat-bateko, ezohiko, egundokoez gainera, tarteko klaseak kendu nahi izan zituen, eta gorputz politikoak ezereztu; monarkia desegiten ari zen<sup>27</sup> ameskeriazko bere diru-itzultzeen bidez, eta bazirudien konstituzioa bera berrerosi nahi zuela.

Ez da aski monarkia batean tarteko klaseak izatea; hori ez ezik, legeen gordailua ere behar da. Gordailu hori gorputz politikoetan bestetan ezin daiteke izan; izan ere, haiek dira, legeak egiten direnean, legeok iragartzen dituztenak, eta gogoratu egiten dituzte ahazten direnean. Nobleziak berez duen ezjakintasunak, arretarik ezak, gobernu zibilari dion mesprezioak, zera eskatzen dute, legeei etengabe hautsak harrotuko dizkien gorputzen bat izatea. Printzearen kontseilua ez

da gordailu komenigarria. Hura, izan, printzearen unean uneko borondatearen gordailu da, eta ez oinarritzko legeen gordailu. Gainera, monarkaren kontseilua etengabe aldatzen da; ez da iraunkorra, inolaz ere; ezin izan liteke lagun askok osatua; ez du herriaren konfiantza handirik, inolaz ere; beraz, ez da egokiena garai zailetan argi egiteko, ez eta obedientziara erakartzeko ere.

Estatu despotikoetan, non ez baita oinarritzko legerik, ez dago legeen gordailurik. Hortik dator herrialde horietan erlijioak ia beti hainbeste indar izatea; izan ere, halako gordailu eta iraunkortasun bat ematen du. Eta erlijioa ez bada, ohiturak gurtzen dira legeen orde.

## **V. KAPITULUA**

### ***Estatu despotikoaren izaerari dagozkion legeez.***

Botere despotikoaren izaerari dagokio botere hori darabilen gizon bakarrak, berak ere bakar bati erabilaraztea. Gizaki bat, bere bost sentimenek etengabe bera oro dela eta besteak ezer ez direla diotsotelarik, alferra, ezjakina, apetatsua da berez. Beraz, utzi egiten ditu estatu-eginkizunak. Baina bat baino gehiagori utziko balizkie, eztabaidak izango lirateke haien artean; azpijokoak izango lirateke esklaboetan lehena nor izango; printzea behartua legoke administrazioan esku hartzera. Beraz, errazagoa zaio boterea bisir<sup>28</sup> baten eskuetan uztea, hasiera batean berak adina botere izango duelarik. Bisir bat ezartzea, estatu horretan, oinarritzko lege bat da.

Diotenez, aita santu batek, aukeratu zutenean, bere ezgaitasunaz hain oharturik, mila oztopo jarri zituen hasiera batean. Onetsi zuen azkenean, eta bere ilobari utzi zizkion zeregin guztiak. Miretsita zegoen, eta honela esaten zuen: "Sekula ez nuen uste izango hau hain erraza izan zitekeenik". Gauza bera gertatzen zaie Sortaldeko printzeei ere. Eunukoek printzeari bihotza eta izpiritua

ahuldu dizkioteneko —eta maiz bere egoeraren ezjakinean eduki duteneko—  
kartzela horretatik ateratzen eta tronuan ezartzen dutenean, harri eta zur geratzen  
da hasieran; baina bisir bat izendatzen duenean, eta bere harenean grinarik  
gordinenetara ematen denean; korte abaildu baten erdian, bere apetarik  
burugabeenei jarraitu zaienean, inoiz ez zukeen pentsatuko hori hain erraza izan  
zitekeenik.

Zenbat eta hedatuagoa inperioa, hainbat eta emakumez hornituago  
printzearen harena; eta ondorioz, hainbat eta plazerretan itoago hura. Hartara,  
estatu horietan, printzeak zenbat eta herri gehiago izan bere gobernupean, hainbat  
eta gutxiago pentsatzen du gobernuaz; zenbat eta handiagoak izan arazoak,  
hainbat eta gutxiago eztabaidatzen da haietaz.

### III. LIBURUA

#### HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOEZ

### LEHEN KAPITULUA

#### Gobernu-eraren eta bere printzipioaren arteko aldea.

Gobernu-mota bakoitzaren izaerari zein lege dagozkion aztertu ondoren, bakoitzaren printzipioari dagozkionak ikusi behar dira.

Gobernu-motaren izaeraren eta bere printzipioaren artean honako alde hau dago<sup>29</sup>: izaerak den bezalakoa izatea dakarkio; eta printzipioak, jardunarazi egiten dio. Bata egitura partikularra da; eta bestea, mugiarazten duten giza grinak.

Alabaina, legeak gobernu-mota bakoitzaren izaerari bezainbat egokitu behar zaizkio bere printzipioari. Beraz, printzipio hori zein den bilatu beharra dago. Horixe egingo dut liburu honetan.

### II. KAPITULUA

#### Gobernu-mota bakoitzaren printzipioaz.

Esan dut gobernu errepublikarraren izaera herriak bere osoan, edota zenbait familiak, botere subiranoa izatea dela; gobernu monarkikoarena, botere subiranoa printzeak izatea, baina ezarritako legeen arabera erabil dezan; gobernu despotikoarena, bakar batek gobernatzea bere borondate eta apeten arabera. Ez dut gehiago behar beren hiru printzipioak aurkitzeko; berez baitatoz. Gobernu errepublikarretik hasiko naiz, eta lehendabizi demokratikoaz jardungo dut.

### III. KAPITULUA

#### Demokraziaren printzipioaz.



Ez da zintzotasun handirik behar gobernu monarkiko batek edo gobernu despotiko batek iraun dezaten. Legeen indarrak batean, printzearen beso beti altxatuak bestean, dena arautzen edo hartzen dute. Baina estatu herritar batean bitarteko bat gehiago behar da: BERTUTEA.

Nik diodana historia osoak baiesten du, eta guztiz bat dator gauzen berezko izaerarekin. Izan ere, argi dago ezen, monarkia batean, non legeak betearazten dituenak legeen gainetik baitauka bere burua, bertutearen behar gutxiago dagoela gobernu herritar batean baino, non legeak betearazten dituenak bere burua ere haien mende sentitzen baitu, eta haien pisua berak eramango duela.

Argi dago, halaber, errege batek, kontseiluaren erruz edo utzikieriaz legeak betearazteari uzten badio, erraz konpon dezakeela gaizki egina; kontseilua aldatzea besterik ez dauka, edo bere utzikeria zuzentzea. Baina gobernu herritar batean legeak betearazteari utzi zaionean, hori errepublikaren usteltzetik baino ezin etor daitekeenez, Estatua galdua da jadanik.

Ikuskizun on samarra izan zen joan den mendean ingelesen ahalegin antzuak ikustea beren artean demokrazia ezartzeko. Arazo publikoez arduratzen zirenek batere bertuterik ez zutenez, haien askonahia gehien ausartu zenaren<sup>30</sup> arrakastak kitzikatua zenez, alderdi batekoen izpirituari bestekoen izpirituak baizik eusten ez zionez, gobernua etengabe aldatzen zen; herriak, harrituta, demokrazia bilatzen zuen, eta ez zuen inon aurkitzen. Azkenik, hainbat gorabeheraren ondoren, hainbeste txoke eta astinduren ondoren, debekatu zuten gobernu-era hartan bertan hartu behar izan zuten atsedena.

Silak Erromari askatasuna itzuli nahi izan zionean, hiriak ezin izan zuen hartu; bertute-hondartxo bat besterik ez zuen; eta gero eta gutxiago izan zuenez, Zesar, Tiberio, Kaio, Klaudio, Neron, Domizianoren ondoren esnatu ordez, gero

eta esklaboago bihurtu zen; kolpe guztiak tiranoen gainera erori ziren, bat ere ez tiraniaren gainera.

Politikari grekoek, gobernu herritarrean bizi baitziren, ez zuten hari eutsiko zion beste indarririk onartzen bertutearena baizik. Gaurkoek ez digute manufakturez, merkataritzaz, finantzez, aberastasunez eta are luxuaz bestetaz hitz egiten.

Bertute hau amaitzen denean, askonahia sartzen da har dezaketen bihotzetan, eta zikoizkeria sartzen da bihotz guztietan. Desirak gauza batzuetatik beste batzuetara aldatzen dira; maite zena ez da jadanik maite. Legeekin aske zenak, legeen kontra izan nahi du aske. Hiritar bakoitza nagusiaren etxetik ihes egindako esklaboa bezalakoa da. *Jokabide-arau* zenari *zorroztasun* deitzen zaio; *erregela* zenari, *neke*; *arreta* zenari, *beldur*. Edukitzeko desira ez baina urritasuna hartzen da han zikoizkeriatzat. Behinola partikularren onak osatzen zuen altxor publikoa; baina gero altxor publikoa partikularren ondare bihurtzen da. Errepublika hondakin hutsa da; eta haren indarra zenbait hiritarren boterea besterik ez da, eta denen lizentzia.

Atenasek indar berberak izan zituen bere baitan, bai hain loria handiz nagusi zenean, bai hain lotsa handiz mendean egon zenean. Hogei mila hiritar zituen<sup>31</sup> grekoak pertsiarrengandik defendatu zituenean, nagusigoa zela-eta Lazedemoniarekin lehiatu zenean, eta Siziliari eraso egin zionean. Hogei mila zituen, Falerako Demetriok<sup>32</sup> merkatu batean esklaboak kontatzen diren bezala zenbatu zituenean. Filipo Greziaz nagusitzen ausartu zenean, Atenasko ateetan agertu zenean<sup>33</sup>, hiriak artean denbora besterik ez zuen galdua. Demostenesen lanetan ikus daiteke zenbat neke behar izan zen hura esnatzeko; beldurra zioten Filipori, ez askatasunaren etsai zelako, plazerren etsai zelako baizik<sup>34</sup>. Hiri hura, hainbeste porrot jasan zituena, hainbeste suntsipenen ondoren birsortzen ikusi zutena, Keronean menderatu zuten, eta betiko menderatu ere. Zer axola dio

Filipok preso guztiak atzera etxera bildaltzea? Ez zituen gizonak bidali. Atenasko indarrak menderatzea erraza zen hein berean zen zaila hango bertutea menderatzea.

Nola eutsiko zion bada Kartagok? Hanibalek, prefektu bihurtutakoan, magistratuei errepublika zakuratzea galarazi nahi izan zienean, ez al zuten bada haiek salatu erromatarren aurrean? Zorigaitzekoak hiritar izan nahi eta hiririk ez zutenak, eta aberastasunei beren suntsitzaileen eskutik eutsi nahi zietenak! Laster eskatu zien Erromak hirurehun hiritar nagusi bahi gisa; armak eta untziak emanarazi zizkion, eta ondoren gerra deklaratu zien. Kartago armagabetuan<sup>35</sup> etsipenak eragin zituen gauzen arabera atera daiteke zer egin zezakeen bere bertuteaz, indarrak zituenean.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Aristokraziaren printzipioaz.**

Gobernu herritarrean bertutea beharrezkoa den bezala, aristokratikoan ere beharrezkoa da. Egia da, hala ere, ez dela guztiz beharrezko.

Herriari, sujetak erregearekiko direna baita hura nobleekiko, bere legeek eusten diote. Beraz, bertutearen premia gutxiago du demokraziako herriak baino. Baina nola eutsiko zaie nobleei? Legeak beren kideen kontra betearazi behar dituztenek berehala sentituko dute beren buruen kontra ari direla. Beraz, bertutea beharrezkoa da gorputz horretan, konstituzioaren berezko izaeraz.

Gobernu aristokratikoak, berez, demokratikoak ez duen indar bat du. Nobleek gorputz bat osatzen dute, beren pribilegioengatik eta beren interes partikularrerako, herria hertsatzen duena; aski da legeak egotea, honi dagokionez beteak izan daitezen.

Baina gorputz horri besteak hertsatzea erraza zaion heinean, hainbatean zaio zaila bere burua hertsatzea<sup>36</sup>. Halakoa da konstituzio honen izaera, non ematen baitu jende bera batetik legeen mendean jartzen eta bestetik legeen manupetik kentzen duela.

Alabaina, halako gorputz bat ezin da hertsatu bi eratan baizik: bertute handi batez, nobleak nolabait herriaren parekoak izango liratekeelarik, eta horrek errepublika handi bat era dezakeelarik; edota bertute txikiago batez, halako neurritasun batez alegia, nobleak gutxienez beren artean berdinak egiten dituelarik; horri esker irauten dute.

Neurritasuna da, beraz, gobernu horien arima. Bertutean oinarritutako neurritasunaz ari naiz, ez koldarkeriatik eta arimaren alferkeriatik datorrenaz.

## **V. KAPITULUA**

### **Bertutea ez dela gobernu monarkikoaren printzipioa.**

Monarkietan, politikak ahalik eta bertute gutxienarekin gauza handiak eragiten ditu; makinarik ederrenetan ere, arteak ahalik eta mugimendu, indar eta gurpilik gutxien erabiltzen ditu.

Estatuak iraun egiten du, aberriarekiko maitasuna dena delarik ere, benetako loriaren desirari esker, norberaren burua ukatzeari, norberaren interes kutunenak sakrifikatzeari, eta antzinakoengan aurkitzen ditugun eta entzutez baizik ezagutzen ez ditugun bertute heroiko horiei guztiei esker.

Han legeek bertute horien guztien lekua hartzen dute, ez baita hauen beharrik batere; Estatuak barkatu egiten dizkizu horiek guztiak; zaratarik gabe egiten den ekintza batek, han, ez du ondoriorik, nolabait esanda.

Delitu guztiak berez publikoak izan arren, delitu publiko-publikoak eta delitu pribatuak bereizten dira; honela deitzen zaie hauei, norbanako bat ez baina gizarte osoa iraintzen dutelako.

Alabaina, errepubliketan, delitu pribatuak publikoagoak dira; alegia, gehiago doaz Estatuaren konstituzioaren kontra, norbanakoen kontra baino; eta monarkietan, delitu publikoak pribatuagoak dira; alegia, norbanakoen aberastasunen kontra doaz, Estatuaren beraren konstituzioaren kontra baino gehiago.

Arren, ez bedi inor samin esan dudanagatik; historia guztien arabera ari naiz. Ondo dakit ez dela gauza arraroa printze bertutetsuak izatea, baina zera diot, monarkia batean oso zaila dela herria bertutetsua izatea<sup>37</sup>.

Irakur bedi garai guztietako historialariek erregeen gorteez esan dutena; gogora bitez herrialde guztietako gizakiekin kortesanoen izaera miserableaz izan dituzten elkarriketak; horiek ez dira susmo hutsak, esperientzia tristea baizik.

Askonahia alferkerian, doilorkeria harrokerian, lanik egin gabe aberasteko desira, egiari zaion higuina, zurikeria, traizioa, maltzurkeria, ardura guztiak uztea, hiritarraren betebeharrak mesprezatzea, printzearen bertuteari beldur izatea, haren ahulezien esperantza, eta hori guztia baino gehiago, bertutearen gainean jaurtitako erridikulu etengabea; horiexek denek osatzen dute, nik uste, gortesau gehienek izaera, alde eta aldi orotan. Alabaina, oso zaila da estatu bateko buruen gehienak jende gaiztoa direla eta azpikoak jende ona direla onartzea; haiek iruzurtiak direla eta hauek inozo hutsak direla onartzea.

Baldin eta, herritarren artean, zorigaitzeko gizon zintzoren bat<sup>38</sup> balitz, Richelieu kardinalak, bere testamendu politikoan, iradokitzen du errege bat ez dela hartaz baliatu behar<sup>39</sup>. Izan ere, egia hutsa baita bertutea ez dela gobernu-era honen baliabidea! Bertute hori ez zaio guztiz falta, egia da hori; baina ez du bere bitartekoa.

## VI. KAPITULUA

### *Nola ordezkutzen den bertutea gobernu monarkikoan.*

Presatu egingo naiz, eta martxa handian aurreratuko, inork sinets ez dezan gobernu monarkikoaren satira bat egiten ari naizenik. Ez, gobernu horri tresna bat falta bazaio ere, badu beste bat: OHOREA. Hau da, pertsona bakoitzaren eta klase bakoitzaren aurreiritziak hartzen du aipatu berri dudan bertute politikoaren lekua, eta edonon ordezkutzen du. Ekintzarik ederrenak inspira ditzake; legeen indarrarekin batera, gobernuaren helburura eramane dezake, bertuteak berak bezala.

Hartara, monarkia ondo arautuetan, mundu guztia izango da gutxi gorabehera hiritar ona, eta nekez aurkituko da gizaki zintzorik; izan ere, gizaki zintzoa izateko<sup>40</sup>, horretarakoko asmoa eduki behar da<sup>41</sup>, eta Estatua norberagatik baino gehiago maitatu behar da beragatik.

## VII. KAPITULUA

### *Monarkiaren printzipioaz.*

Gobernu monarkikoak, esan dugunez, berekin ditu lehentasunak, mailak eta are jatorrizko noblezia bat ere. Ohoreak berez lehentasunak eta bereizketak eskatzen ditu; beraz, oso ondo kokaten da gobernu horretan.

Askonahia kaltegarria da errepublika batean. Ondorio onak ditu monarkian; bizia ematen dio gobernu-mota horri; eta abantaila hori dago, ez dela arriskutsua, etengabe muga daitekeelako.

Esan liteke unibertsoa sistema bezalakoa dela, non indar batek etengabe urruntzen baititu gorputz guztiak zentrotik, eta beste indar batek, pisuarenak,

erakarri egiten baititu. Ohoreak gorputz politikoaren parte guztiak mugiarazten ditu; bere ekintzaz beraz lotzen ditu; eta gertatzen da norbera denen onerako ari dela, bere interes partikularren onerako ari delakoan.

Egia da ezen, filosofikoki hitz eginez, ohore faltsua dela Estatuaren parte guztiak gidatzen dituen ohorea. Baina ohore faltsu horrek gauza publikoarentzat dakarren onura, egiazko ohoreak norbanakoei dakarkien onura bezain baliagarria da.

Eta ez al da asko gizakiak ekintza zail guztiak, eta indarra eskatzen dutenak, eginaraztea, ekintza horien zaratotsa bera beste saririk gabe?

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Ohorea ez dela estatu despotikoen printzipioa.***

Estatu despotikoen printzipioa ez da ohorea: gizaki guztiak berdinak izanik, inork ez dauka besteen aurretik jartzerik; gizaki guztiak esklabo izanik, inork ez dauka ezeren aurretik jartzerik.

Gainera, ohoreak bere legeak eta arauak baititu, ez luke amore ematen jakingo; bere apeten esanetara dago, eta ez inorenetara; ez dago hura aurkitzerik konstituzio finkoa eta lege seguruak dituzten estatuetan baizik.

Nola iraungo luke ohoreak *despotarenean*? Ohoreak mesprezatu egiten du bizia, eta despotak bizia ken dezakeelako baizik ez du indarrik. Nola jasango luke ohoreak despota? Arau jarraiak ditu, eta apeta iraunkorrak; despotak, berriz, ez du inolako araurik, eta haren apetek beste guztiak desagiten dituzte.

Ohorea ez da ezagutzen estatu despotikoetan, eta haietan, maiz, ezta hitzik ere ez da izaten hura adierazteko<sup>42</sup>; baina nagusi da monarkietan; han bizia ematen dio gorputz politiko guztiari, legeei, eta bertuteei ere bai.

## IX. KAPITULUA

### Gobernu despotikoaren printzipioaz.

Errepublikan bertutea eta monarkian ohorea beharrezkoak diren bezala, gobernu despotiko batean BELDURRA da beharrezko; bertuteari dagokionez, ez da beharrezko, eta ohorea arriskutsua litzateke.

Printzearen botere neurrigabea osorik pasatzen da hark konfiantza dienengana. Beren buruak oso maite izateko gai liratekeenek iraultza egin lezakete. Beraz, beharrezkoa da beldurrak ausardia guztiak apal ditzan eta handinahi-sentimendurik txikiena ere itzal dezan.

Gobernu moderatu batek nahi adina eta arriskurik gabe malgu ditzake bere baliabideak. Bere legeeze eta bere indarraz irauten du. Baina gobernu despotikoan, printzeak une batez besoa jasotzeari uzten badio, kargu gorenak dituztenak batean ezereztu ezin dituenear<sup>43</sup>, galdu da dena; izan ere, gobernuaren baliabidea —beldurra, alegia— desagertua denez, herriak ez du babeslerik.

Zentzu horretan esan izan dute, nonbait, kadi handiek jaun nagusia ez zegoela behartuta bere hitza edo zina gordetzera, hitz edo zin horrek agintea mugatzen bazion<sup>44</sup>.

Herria legeeze epaitu behar da, eta handikiak printzearen fantasiaz; azken sujetaren buruak seguru egon behar du, eta pasha direlakoena beti arriskuan. Ez dago gobernu beldurgarri horietaz ikararik gabe hitz egiterik. Gure egunetan Miriveis-ek tronutik kendu duen Pertiako sofiak gobernua erortzeko arriskuan ikusi zuen konkista aurretik, zergatik eta nahikoa odol isuri ez zuelako<sup>45</sup>.

Historiak diosku Domizianoren ankerkeria izugarriek ikaratu egin zituztela gobernadoreak, eta herria zerbait oneratu zela haren erregealdian<sup>46</sup>. Horrelaxe, uhar batek ere: batetik dena aurrean eramaten du, eta bestetik landak uzten ditu, eta belardiak urrutira bistan.



## X. KAPITULUA

### Gobernu moderatuetan eta gobernu despotikoetan obeditzearen arteko aldea.

Estatu despotikoetan, gobernuaren izaerak erabateko obedientzia eskatzen du; eta printzearen nahiak, ezagutu eta gero, bere ondorioa izan behar du hutsik egin gabe, bola baten kontra jaurtitako beste bola batek berea izan behar duen bezala.

Ez da jiterik, aldaketarik, egokitzapenik, mugarik, baliokiderik, negoziazorik, kritikarik; ez da ezer berdinik edo hoberik proposatzeko. Gizakia, agintzen duen izaki bati obeditzen dion izakia da.

Ez dago etorriko den gertakizun batez beldurra adierazterik, ezta gertaera txarrak zoriaren apetak aitzakiatzat hartuta zuritzerik ere. Gizakiei dagokiena, abereei bezala, sena da, obedientzia, zigorra.

Ez du ezertarako balio sentimendu naturalak kontrajartzeak: aitaganako begirunea, haurren eta emazteenganako samurtasuna, ohorearen legeak, osasun-egoera; agindua hartu da, eta aski da hori.

Pertsian, erregeak norbait kondenatu duenean, ezin zaio hartaz ezer esan, ez barkamena eskatu. Mozkortuta edo bere onetik at egonda ere, beharrezkoa litzateke zigorra berdin betetzea<sup>47</sup>; halakorik egin gabe, kontraesanean legoke, eta legeak ezin du kontraesanik izan. Pentsaera hau betidanik izan da han: Asuerok emandako agindua —judutarrak sarraskitzea— ezeztatu ezin zenez, haiei beren burua defendatzeko baimena ematea erabaki zen.

Hala ere, bada gauza bat batzuetan printzearen borondateari kontrajar dakiokeena<sup>48</sup>: erlijioa. Abandonatu egingo da aita, baita hil ere, printzeak hori agintzen badu; baina ez da ardorik edango, hark nahi eta agintzen badu ere. Erlijio-legeak goragoko maila batekoak dira; printzearen gainetik emanak

direlako, sujeten gainetik bezala. Baina zuzenbide naturalari dagokionez, besterik da: printzea ez da hartzen gizakitzat.

Estatu monarkiko eta moderatuetan, boterea bere baliabideak mugatzen du; ohoreak, alegia. Errege batek bezala agintzen baitu printzearen eta herriaren gainean. Ez zaio inor joango kortesano bati erlijioaren legeak aipatuz; honek irrigarri ikusiko luke bere burua hori eginez gero. Ohorearenak aipatuko zaizkio etengabe. Hortik sortzen dira obedientzian beharrezko diren aldaketak; ohorea bitxikeriei lotua dago berez, eta obedientziak denei egingo die men.

Nahiz eta obeditzeko modua desberdina izan bi gobernu horietan, boterea berbera da. Erregeak, zeinahi aldetara itzultzen dela, alde hartara makurrarazten du balantza, eta obeditu egiten dute. Diferentzia guztia honetan datza: monarkian, printzeak argiak dituela, eta ministroak askoz abilagoak eta trebatuagoak direla arazo publikoetan, estatu despotikoan baino.

## **XI. KAPITULUA**

### **Honi guztiari buruzko gogoeta.**

Horiexek dira hiru gobernuen printzipioak. Horrek ez du esan nahi halako errepublika batean gizakiak bertutetsuak direnik, izan behar luketela baizik. Horrek ez du frogatzen, halaber, monarkia batean ohorea dagoenik, eta estatu despotiko batean beldurra, baizik eta horiek eduki behar lituzketela; horiek gabe gobernua ez da perfektua izango.

#### IV. LIBURUA

#### HEZKUNTZAKO LEGEEK GOBERNU-ERAREN PRINTZPIOEI

#### DAGOZKIENAK IZAN BEHAR DUTELA

#### LEHEN KAPITULUA

##### Hezkuntzako legez.

Hezkuntzaren legeak dira hartzen ditugun lehenak. Eta hiritar izateko prestatzen gaituztenez, familia bakoitza familia guztiek osatzen duten familia handiaren arabera gobernatu behar da.

Baldin eta herriak, oro har, printzipio bat badu, osatzen duten parteek ere, familiek alegia, izango dute. Beraz, hezkuntzaren legeak desberdinak izango dira gobernu-mota bakoitzean. Monarkietan, ohorea izango dute helburu; errepublikan, bertutea; despotismoan, beldurra.

#### II. KAPITULUA

##### Monarkietako hezkuntzaz.

Monarkietan haurrak hezten diren etxe publikoetan ez da jasotzen hezkuntza nagusia; mundura sartzean hasten da, nolabait esanda, hezkuntza. Hantxe dago ohorea deritzan eta noranahi gidatuko gaituen maisu unibertsal horren eskola.

Hiru gauza ikusten eta entzuten dira hantxe: bertuteetan jatortasun pixka bat jarri behar dela; ohituretan, lañotasun pixka bat; maneretan, adeilege pixka bat.

Erakutsi ohi zaizkigun bertuteak, gehiago dira norberari zor zaiona, besteei zor zaiona baino; gehiago dira gure hirikideengandik bereizten gaituena, haiengana deitzen diguna baino areago.

Gizakien ekintzak ez dira ontzat epaitzen, edertzat baizik; ez bidezkotzat, handitzat baizik; ez arrazoizkotzat, ohiz kanpokotzat baizik.

Ohoreak edozeri iritzi diezaiokeenez jator, edo halako gauzak legezko egiten dituen epailea da, edota justifikatzen dituen sofista.

Gorteiatzea zilegitzat jotzen du, bihotzeko sentimenduen ideiarekin lotuta dagoenean, edo konkistaren sentimenduarekin; eta horrexegatik, hain zuzen, monarkietan ohiturak ez dira gobernu errepublikarretan bezain aratzak.

Disimulua zilegitzat jotzen du, izpiritu-handitasunari edo arazo publikoen handitasunari lotuta doanean; politikan bezala, non fineziek ez baitute iraintzen.

Ez du debekatzen koipekeria, hau aberastasun handietatik bereizita eta bere doilorkeriaren sentimenduari lotuta dagoenean baino.

Ohituren ikuspegitik, esan dut monarkietako hezkuntzak zabaltasun pixka bat izan behar duela. Beraz, egia nahi da diskurtsoetan. Baina egiaren beraren amoreagatik? Inolaz ere ez. Egia esaten ohituta dagoen gizakiak ausarta eta librea dirudielako. Izan ere, halako gizon batek ez dirudi gauzen mende dagoenik, ez eta besteek hura nola hartuko begira dagoenik ere.

Horrexek dakar ezen, zenbat eta gehiago aholkatu zabaltasun-mota hori, hainbat eta gehiago mesprezatzen dela herriarena, honenak egia eta sinpletasuna besterik ez baititu helburu.

Azkenez, hezkuntzak, monarkietan, halako gizalege pixka bat eskatzen du moduetan. Gizakiak, elkarrekin bizitzeko jaioak izanik, elkarri atsegin emateko ere jaio dira; eta jokamolde egokia gorde ez eta bizikideen kontra arituko litzatekeenak, bere izen guztia galduko luke, harik eta inolako onik egiteko gai ez izateraino.

Baina gizabide horrek ez du jatorria hain iturri aratzean. Besteengandik bereizteko gogotik sortzen da. Urguiluagatik gara ongi heziak; harro sentitzen

gara jende baxua ez gabela eta garai guztietan izan diren jende baztertuekin bizi izan ez gabela frogatzen duten moduak ditugulako.

Monarkietan, gizabidea natural bihurtzen da gortean. Gizaki handiegi batek txiki bihurtzen ditu beste guztiak. Hortik dator mundu guztiari zor zaion adeia; hortik sortzen da gizabidea, eta hala gizabidez jokatzeko dutenak nola gizabide hori hartzen dutenak balakatzeko ditu; izan ere, horrek gortekoa zabela ematen baitu aditzera, edota gortekoa izateko adina bazarela.

Gorteko airea nork bere berezko handitasuna utzi eta horren ordez handitasun mailegatua hartzean datza. Honek bere handitasunak baino gehiago harrotzen du kortesano bat. Halako umiltasun harrotu bat ematen du, luze hedatzen dena; baina harrotasuna gutxitu egiten da oharkabea, handitasun horren iturritik zauden distantziaren arabera.

Gortean, gustu-fintasun bat aurkitzen da gauza guztietan, aberastasun handien gainezko gauzak etengabe erabiltzetik datorrena, barietatetik, eta batez ere plazerren neketik, ugaritasunetik, nahasmendutik; are fantasietatik ere bai, zeren eta hauek ere, atseginak direnean, onartu egiten baitira.

Gauza horien guztien gainean izaten da hezkuntza, gizaki zintzoa deritzona egiteko, gobernu-era horretan eskatzen diren dohain eta bertute guztiak dituen.

Han ohorea, nonahi nahastuz, pentsaera guztietan eta sentitzeko era guztietan sartzen da, eta are printzipioak ere gidatzen ditu.

Ohore bitxi horrek berak nahi duena eta berak nahi bezalako bihurtzen ditu bertuteak; bere kabuz ezartzen dizkie arauak aurrez agindu zaigunari; gure eginbeharrak bere gogara zabaltzen edo mugatzen ditu, nahiz haiek iturria erlijioan izan, nahiz politikan, edota moralean.

Monarkian, legeek, erlijioak eta ohoreak agintzen duten ezer ez da printzearen borondateari obeditzea baino gehiago; baina ohore horrek diosku

printzeak ez digula inoiz desohoratzen gaituen ekintzarik agindu behar, horrek hura zerbitzatzeko ezgai bihurtuko baikintuzke.

Crillonek errefusatu egin zuen Gisako dukea asasinatzea; baina Enrike III.ari eskaini zitzaion haren kontra dueluan borrokatzeko. San Bartolome gauaren ondoren, Karlos IX.ak gobernadore guztiei hugonoteak sarraskitzeko idatzi zienez, Dorte bizkondeak, Baionan agintari, honela idatzi zion erregeari<sup>49</sup>:

"Jauna, ez dut aurkitu biztanleen eta gerra-jendearen artean hiritar onak baizik, soldadu onak, eta borrero bakar bat ere ez; hortaz, haiek eta nik gure beso eta biziak gauza egingarrietan enplegatzeko eskatzen diogu Maiestate Horri". Adore handi eta prestu hark ezinezkotzat ikusten zuen koldarkeria.

Ohoreak gerran printzea zerbitzatzea agintzen dio batez ere nobleziari, beste ororen gainetik. Izan ere, hori da lanbide itzaltsuena, zeren eta beraren gorabeherak, gertaerak eta are zorigaitzek handitasunera baitaramate. Baina lege hori inposatzean, ohoreak arbitroa izan nahi du; eta kontra egiten bazaio, etxera erretiratzeko bide ematen edo exijitzen du.

Ohoreak enpleguak eskuratu zein errefusatu ahal izatea nahi du; libertate hori aberastasunen beren gainetik dauka.

Ohoreak, bada, bere arau nagusiak ditu; eta hezkuntzak haietara egokitu beharra dauka<sup>50</sup>. Hona hemen behinenak: gure aberastasunez arduratzea badaukagula; baina guztiz debekatuta daukagula geure biziaz arduratzea.

Bigarrena zera da, maila batean jartzen gaituztenez geroztik, ez dugula egin edo jasan behar ezer, geure burua maila horren azpitik jotzen dugula erakutsiko duenik.

Hirugarrena, ohoreak debekatzen dituen gauzak askoz zorrotzago debekatuta daudela legeek debekatzen ez dituztenean; eta hark exijitzen dituenak askoz indar handiagoz exijituta daudela, legeek eskatzen ez dituztenean.

### III. KAPITULUA

#### Gobernu despotikoko hezkuntzaz.

Hezkuntzak monarkietan bihotza jasotzeko baino lan egiten ez duen bezala, estatu despotikoetan bihotza azpiratu besterik ez du nahi. Mirabe izan beharra dauka. Horrela hezi izana onerako izango da, baita agintean ere; inor ez baita tirano, aldi berean esklabo izan gabe.

Obedientzia mugagabeak obeditzen duena ezjakina izatea eskatzen du; bai eta agintzen duena ezjakina izatea ere. Ez dauka deliberatzerik, zalantza egiterik, arrazoitzerik; aski du edozer nahi izatea.

Estatu despotikoetan, etxe bakoitza inperio bat da. Hezkuntza besteekin bizi izatean datza eta, beraz, han oso murriztuta dago; beldurra bihotzean sartzera mugatzen da, eta erlijio-printzipio oso sinple batzuk ezagutaraztera. Han, jakitea arriskutsua izango da, emulazioa ondikozkoa; eta bertuteei dagokienez, Aristotelek ez du uste esklaboek berezko bertuterik izan dezaketenik<sup>51</sup>; horrexek bai murrizten duela ondo hezkuntza halako gobernuetan.

Beraz, esan liteke ez dagoela hezkuntzarik. Dena kendu beharra dago, zerbait eman ahal izateko; eta sujet txar bat egiten hasi, esklabo on bat egiteko.

Ei! Zergatik ekingo lioke hezkuntzak zorigaitz publikoan parte hartzen duen hiritar on bat hezteari? Hark Estatua maiteko balu, gobernuaren baliabideak laxatzeko tentazioa izango luke; lortuko ez balu, galdua litzateke, eta lortuko balu, galtzeko arriskuan leudeke bera, printzea eta inperioa.

### IV. KAPITULUA

#### Antzinakoen hezkuntzaren eta gurearen ondorioen arteko aldea.

Antzinako herririk gehienak oinarritzat bertutea zuten gobernuen mende bizi ziren; eta hura indarrean zegoenean, gaur egun ikusten ez ditugun eta gure arimatxoak harritzen dituzten gauzak egiten ziren.

Haien hezkuntzak beste abantaila bat zuen gurearen gainean; inoiz ez zuten hura ukatzen. Epaminondasek, bere bizitzako azken urtean, bere heziketa hasi zuenean entzuten, ikusten, egiten zituen gauza berberak entzuten, ikusten eta egiten zituen.

Gaur egun, hiru hezkuntza desberdin edo elkarren aurkako jasotzen ditugu: gurasoena, maisuena, munduarena. Azkenekoan esaten zaigunak goitik behera aldatzen du lehen bietan esandako guztia. Hori, aldez, gure garaian erlijioaren eta munduaren eskakizunen artean dagoen kontrastetik dator; antzinakoek ez zuten halakorik ezagutzen.

## **V. KAPITULUA**

### **Gobernu errepublikarreko hezkuntzaz.**

Gobernu errepublikarrean, hezkuntzaren ahalmen osoaren premia dago. Gobernu despotikoetako beldurra gobernutik bertatik sortzen da mehatxu eta zigor artean; monarkietako ohoreari grinek laguntzen diote, eta berak ere laguntzen die haiei; baina bertute politikoa nork bere burua ukatzea da, eta hori oso gauza nekosoa da beti.

Bertute hori honela defini daiteke: legeak eta aberria maitatzea. Maitasun horrek interes publikoa norberaren interesaren aurretik etengabe jartzea eskatzen duenez, bertute partikular guztiak ematen ditu; aurretik jartze hori baino ez dira bertute horiek guztiak.



Maitasun hori demokrazietan sortzen da batez ere. Haietan bakarrik ematen zaio gobernu hiritar bakoitzari. Dena den, gobernu munduko gauza guztiak bezalakoa da: kontserbatzeko, maitatu egin behar da.

Inoiz ez da aditu erregeek monarkia maite izan ez dutenik, eta despotek despotismoa gorroto zutenik.

Beraz, errepublikan, dena maitasun hori ezartzearen mende dago; eta hezkuntzak erne egon behar du maitasun hori sorrarazteko. Baina hurrek eduki ahal dezaten, bada bitarteko seguru bat: aitek ere edukitzea.

Gehienetan, norberaren esku dago hurrei ezagupenak ematea; are gehiago pasioak.

Hori gertatzen ez bada, etxean egindakoa kanpoko inpresioek desegin dutelako izaten da.

Ez da herri jaio berria endekatzen; gizaki eginak ustelduta daudenean baino ez da galtzen.

## **VI. KAPITULUA**

### **Greziarren zenbait instituzioz.**

Antzinako greziarrek, guztiz jabeturik gobernu-era herritarren mende bizi ziren herriek bertutean heziak izateko zuten premiaz, berebiziko instituzioak egin zituzten horretarako. Ikusten duzuenean, Likurgoren bizitzan, hark lazedemoniarrei eman zizkien legeak, sevarambiarren historia irakurtzen ari zaretela irudituko zaizue. Kretako legeak Lazedemoniakoen sorburua ziren; eta Platonenak, haien zuzenketa.

Arreta pixka bat eskatuko nuke legegile haiek behar izan zuten jeinuarentzat: jasotako ohitura guztiak astinduz, bertute guztiak nahasiz, beren jakituria erakutsiko zioten munduari. Likurgok, lapurreta justizia-izpirituekin

nahastuz, esklabotzarik gogorrera askatasun handienarekin, sentimendurik ankerrenak moderazio handienarekin, egonkortasuna eman zion bere hiriari. Baliabide guztiak kentzen zizkiola zirudien: arteak, merkataritza, dirua, harresiak; bazegoen anbizioa, hobeia izateko itxaropenik gabe; bazeuden sentimendu naturalak, eta ez haur, ez senar, ez aita izan gabe; lotsa bera ere kendu egin zitzaion kastitateari. Bide horietatik iritsi zen Esparta handitasunera eta loriara; baina instituzioen halako hutseginezintasunarekin, non ez baitzen beraren kontra ezer lortzen batailak irabaziz, baldin eta bere antolamendua kentzen ez bazitzaion<sup>52</sup>.

Kreta eta Lazedemonia beren legez gobernatuak izan ziren. Lazedemonia izan zen azkena mazedoniarrei amore ematen, eta Kreta erromatarren azken ehiza izan zen<sup>53</sup>. Samnitek instituzio horiek izan zituzten, eta erromatarrek hogeita lau garaipen lortu zituzten haien gainean<sup>54</sup>.

Greziako instituzioetan ikusten zen gauza harrigarri hau gure garai modernotako jendaila eta ustelkerian ikusi dugu<sup>55</sup>. Legegile zintzo batek herri bat eratu du, non zintzotasuna espartarrentzat suhertasuna bezain natural dirudien. William Penn<sup>56</sup> benetako Likurgo bat da; eta lehenak bakea izan badu ere helburu, eta bigarrenak, aldiz, gerra, antzekoak dira, beren herriak bide berdingabeetatik abiarazi dituztelako, gizaki libreen gainean itzala izan dutelako, aurreiritziak gainditu dituztelako, grinak menderatu dituztelako.

Paraguayk beste adibide bat emango digu. Delitua bailitzan egotzi nahi izan zaio agintzeko plazerra bizitzako on bakartzat hartzen duen *Lagundiari*; baina beti izango da ederra gizakiak zoriontsuago eginez gobernatzea<sup>57</sup>.

Lagundi horrentzat zorionekoa da lehena izatea, paraje haietan, erlijioaren ideia gizatasunarenarekin batera erakusten. Espainiarren txikizioak konponduz, gizakiek jasan duten izurri handienetako bat sendatzen hasi da.

Lagundi horrek ohore deitzen dion oroz duen sentimendu finak, aditzen dutenak predikatzen dutenak baino apalago egiten dituen erlijio baten aldeko ardurak, gauza handiei ekinarazi die; eta lortu ere lortu ditu. Oihanetatik atera ditu herri sakabanatuak, bizibide segurua eman die; jantzi egin ditu; eta hori eginda gizakien arteko industria handitu besterik egin ez balu ere, nahikoa egina luke.

Antzeko instituzioak egin nahiko dituztenek ondasunak amankomunean edukitzea ezarriko dute, Platonen errepublikan bezala, hark jainkoentzat eskatzen zuen begirunea izatea, arrotzengandik bereiztea ohiturak gordetzeko, eta merkataritza hiriaren esku izatea, eta ez hiritarren esku; gure arteak gure luxurik gabe emango dituzte, eta gure premiak gure desirak gabe.

Dirua debekatuko dute, diruaren ondorioa gizakien aberastasunak naturak jarritako mugez harantzago gizentzea baita, alferrik metatutakoa alferrik kontserbatzen ikastea, desirak mugagabe aniztea, eta natura ordezkartzea, honek gure grinak kitzikatzeko eta elkar galbideratzeko oso bitarteko mugatuak eman baitzizkigun.

"Epidamniarrek<sup>58</sup>, ikusirik beren ohiturak gaiztotzen ari zirela barbaroekiko tratua kariaz, magistratu bat hautatu zuten, merkatu guztiak hiriaren izenean eta hiriarentzat egiteko". Hartara, merkataritzak ez du galbidean jartzen konstituzioa, eta konstituzioak ez du gizartea merkataritzaren abantailez gabetzen.

## **VII. KAPITULUA**

### ***Instituzio berezi horiek zein kasutan izan daitezkeen onak.***

Instituzio-era hauek egokiak izan daitezke errepubliketan, zeren eta bertute politikoa baita haien printzipioa; baina monarkietan, ohorerantz erakartzeko, edo estatu despotikoetan beldurra sartzeko, ez da behar hainbeste ardura.

Gainera, ezin dira gauzatu estatu txiki batean ez bada<sup>59</sup>, halakoan hezkuntza orokorra eman baitaiteke, eta herri osoa familia bat bailitzan hezi.

Minos, Likurgo eta Platonen legeek hiritar guztiek elkarrenganako arreta handia izatea eskatzen dute. Hori ez dago espero izaterik herri handi bateko arazo publikoen nahasmenduan, utzikerian, luze-zabalean.

Instituzio hauetan dirua desagertarazi egin behar da, esan bezala. Baina gizarte handietan, arazoen kopuruak, aniztasunak, zailtasunak, garrantziak, erosketen erraztasunak, aldaketen moteltasunak, denentzako neurri berbera eskatzen dute. Boterea noranahi eramateko edo nonahi defendatzeko, gizakiek edonon boterearekin lotu duten zer hori eduki behar da.

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Antzinakoen paradoxa baten azalpena, ohiturei dagokienez.***

Polibiok, Polibio zentzudunak, diosku musika beharrezko zela arkadiarren ohiturak ezartzeko, eguratsa tristea eta hotza den herrialde batean bizi baitziren; Zinetekoak, musika baztertua baitzuten, greziar guztietan ankerrenak izan zirela, eta ez dela egundo beste hiririk izan hainbeste delitu ikusi duenik. Platonek batere beldurrik gabe dio musikan ez dagoela aldaketarik egiterik, Estatuko konstituzioaren aldaketa eragingo ez duenik. Aristotele, zeinek dirudien bere politika bere sentimenduak Platonenei kontrajartzeko baino ez zuela idatzi, bat dator hala ere harekin musikak ohituren gainean duen ahalmenari dagokionean. Teofrastok, Plutarkok<sup>60</sup>, Estrabonek<sup>61</sup>, antzinako guztiek pentsatu izan dute gauza bera. Ez da ondo hausnartu gabe botatako iritzia; beren politikako printzipioetako bat da<sup>62</sup>. Halaxe ematen zituzten beren legeak, halaxe nahi zuten hiriak gobernatuak izatea.

Uste dut azal nezakeela hori. Gogoan hartu behar da Greziako hirietan, batez ere beren xede nagusitzat gerra zutenetan, diru-irabazpide ziren lan eta lanbide guztiak gizaki aske baten duineztzat jotzen zirela. "Arte gehienek", dio Xenofontek<sup>63</sup>, "usatzten dituztenen gorputzak hondatzen dituzte; itzalean esertzera behartuko zaituzte, edota sutondoan; ez dago astirik ez lagunetarako, ez errepublikarentzat". Demokrazia batzuek gainbehera egin zutenean baino ez ziren iritsi artisauak hiritar izatera. Horixe irakasten digu Aristotelek<sup>64</sup>; eta zera dio, errepublika on batek ez diela inoiz hiritartasun-eskubidea emango<sup>65</sup>.

Nekazaritza lanbide baxua zen, eta gehienetan gerran menderatutako herriren batek jarduten zuen hartan; lazedemoniarren artean, iloteak; kretarren artean, perieziarrek; tesaliarren artean, penestoek; beste errepublika batzuetan, beste herri esklabo batzuek<sup>66</sup>.

Azkenik, merkataritza apal oro<sup>67</sup> lotsagarria zen greziarren artean. Hiritar batek, merkataria jardunez gero, bere zerbitzuak eskaini beharko baitzizkien esklabo bati, maizter bati, arrotz bati; eta ideia hori greziarren askatasun-izpirituaren kontra zihoan; horregatik, Platonek<sup>68</sup>, bere legeetan, merkataria ibiliko zen hiritarra zigortzea nahi zuen.

Beraz, Greziako errepubliketan ez zegoen erraza ezertan jardutea. Ez zen nahi hiritarrek merkataritzan, nekazaritzan, ez eta arteetan ere, lan egitea; eta ez zen onartzen haiek ezer egin gabe egotea ere<sup>69</sup>. Gimnastikako ariketetan eta gerrarekin zerikusia zutenetan baino ez zuten zeregina<sup>70</sup>. Instituzioak ez ziren besterik ematen. Beraz, greziarrak atleta eta borrokalariz osatutako gizarte gisa hartu behar dira. Alabaina, ariketa haiek, jende gogorra eta basatia<sup>71</sup> sorrarazteko hain egokiak izanik, ohiturak gozatuko zituzten beste batzuen bidez ematu beharra zegoen. Musika, gorputzeko organoetatik iristen baitzaio izpirituari, oso egokia zen horretarako. Erdigune bat da, gizakiak gogortzen dituzten gorputz-ariketen eta basati bihurtzen dituzten espekulazio-zientzien artean. Ez dago esaterik musikak

bertutea erakartzen zuenik; hori pentsaezina litzateke; baina galarazi egiten zuen instituzioaren ankerkeria, eta arimari, hezkuntzan, bestela izango ez zukeen parte bat ematen zion.

Demagun gure artean badela ehizak hainbeste grinatutako jendarte bat non hartaz besterik ez litzatekeen arduratuko; gauza segurua da halako jendea zakartu egingo litzatekeela neurri batez. Baldin eta jende horiek musikarekiko gustua hartuko balute, laster ikusiko litzateke aldea beren manera eta ohituretan. Azkenik, greziarren ariketa fisikoek grina-mota bat baizik ez zieten sorrarazten: zakarkeria, sumina, ankerkeria. Musikak beste batzuk kitzikatzen zizkien; eta eztitasuna, samurtasuna, plazer gozoa sentiarazten zion arimari. Moraleko gure autoreek, gure artean antzerkiaren kontra hain gogor aritzen direlarik, nahikoa sentiarazten digute musikak gure arimen gainean duen ahala.

Baldin eta, aipatu dudan gizarte hartan, danborrak eta tronpeta-hotsak besterik izango ez balira, ez al da egia ez litzatekeela helburua lortuko musika samurra emanda bezainbeste? Antzinatarrek arrazoia zuten, beraz, zenbait abagunetan, ohiturak zirela eta, modu bat bestea baino nahiago zutenean.

Baina, esango duzue, zergatik eman lehentasuna musikari? Sentimenen plazer guztien artean, ez delako besterik arima gutxiago galbideratuko duenik. Gorritu egiten gara Plutarkori irakurtzean<sup>72</sup> ezen, tebastarrek, gazte-jendearen ohiturak leuntzeko, legez ezarri zutela gero munduko nazio guztiek legez kanpo utziko zuten amodio-era bat.

## V. LIBURUA

### LEGEGILEAK EMATEN DITUEN LEGEEK GOBERNUAREN PRINTZIPIOAREN ARABERAKOAK IZAN BEHAR DUTELA

#### LEHEN KAPITULUA

##### Liburu honen ideia.

Ikusi berri dugunez, hezkuntza-legeek gobernu bakoitzaren printzipioaren araberakoak izan behar dute. Legegileak gizarte osoari ematen dizkionek ere halakoxeak izan behar dute. Legeek printzipio horrekin duten zerikusiak gobernuaren baliabide guztiak jartzen ditu atezuan, eta printzipioa, berriz, indarberritu egiten da. Halaxe gertatzen da mugimendu fisikoetan ere: ekintzaren ondoren beti dator erreakzioa.

Gobernu-era bakoitzean erlazio hori nolakoa den aztertuko dugu; eta Estatu errepublikarretik hasiko gara, printzipiotzat bertutea duenetik.

#### II. KAPITULUA

##### Estatu politikoan bertutea zer den.

Bertutea, errepublikan, oso gauza sinplea da: errepublika maitatzea; sentimendu bat da, ez jakintza-multzo bat; Estatuko azken gizakiak izan dezake sentimendu hori, lehenak bezala. Herriak arau on batzuk dituenean, jende agurgarri deritzenek baino luzaroagoan atxikitzen zaie. Gauza arraroa da galbidea herrian hastea; maiz, bere jakituriaren kaxkarretik, ezarritakoarekiko atxikimendu handiagoa atera izan du herriak.

Aberria maitatzeak ohitura onetara darama; eta ohitura onek aberria maitatzera. Zenbat eta gutxiago ase ahal izan gure grina partikularrak, hainbat eta

gehiago emango gara orokorretara. Monakoek zergatik dute hain maite beren ordena? Hain zuzen, jasanezina zaielako. Beren araudiak grina arrunten euskarri diren gauza guztiez gabetzen ditu; beraz, zigortzen dituen araudiarekiko grina horixe bera geratzen zaie. Zenbat eta zorrotzagoa izan hura, hots, zenbat eta gehiago lotzen dizkien beren jaidurak, hainbat eta indar handiagoa ematen die baimentzen dizkien gauzei.

### **III. KAPITULUA**

#### **Demokrazian errepublika maitatzea zer den.**

Errepublika maitatzea, demokrazia batean, demokrazia maitatzea da; demokrazia maitatzea, berriz, berdintasuna maitatzea.

Demokrazia maitatzea urritasuna maitatzea ere bada. Bakoitzak zorion berbera eta abantaila berberak izan behar dituenek, plazer berberak gozatu behar ditu, eta itxaropen berberak osatu; eta hori ez dago espero izaterik urritasun orokorretik baino.

Berdintasuna maitatzeak, demokrazia batean, askonahia desira bakar batera mugatzen du: aberriari beste hiritarrek baino zerbitzu handiagoak egiteko zorion bakarrera. Denek ezin dizkiote zerbitzu berdinak eskaini; baina hala ere denek eskaini behar dizkiote. Jaiotzatik, zor neurrigabea dauka gizakiak harekin, inoiz ere kitatu ezingo duena.

Horregatik, bereizketak berdintasun-printzipiotik sortzen dira, hau zerbitzu neurritz gainekoek edo jeinu garaiek galarazi egiten dutela ematen badu ere.

Urritasuna maitatzeak, *edukitzeko desira* familiarentzat beharrezko —eta are aberriarentzat premiarik gabeko— den horretara mugatzen du. Aberastasunek ematen duten boterea ezin du hiritar batek beretzat erabili, zeren eta, hartara, ez



bailitzateke besteen berdina. Bakar batek gozatu ezin dituen gozamenak ematen dituzte, hori ere berdintasunaren kontra bailihoake.

Beraz, demokrazia onek, etxerako urritasuna ezarri eta gastu publikoei atea ireki diete, Atenasen eta Erroman egin zen bezala. Halakoetan, arrandia eta ugaritasuna urritasunaren muintetik bertatik sortzen ziren; eta erlijioak jainkoei eskaintzak egiteko eskuak garbi edukitzea eskatzen duen bezala, legeek urritasun-ohiturak nahi zituzten, aberriari zerbait eman ahal izateko.

Norbanakoen zentzu ona eta zoriona beren talentuen eta ondasunen ertainean datza. Legeek jende ertain asko eratua duteneko errepublika bat, jende zuhurrez osatua izanez gero, zuhur gobernatuko da; jende zoriontsuz osatua izanez gero, oso zoriontsua izango da.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Nola kutsatzen den berdintasunarekiko eta urritasunarekiko maitasuna.***

Berdintasunak eta urritasunak izugarri kitzikatzen dituzte berdintasunarekiko eta urritasunarekiko maitasuna, legeek bata eta bestea ezarri dituzteneko gizarte batean bizi izanez gero.

Monarkia eta estatu despotikoetan inork ez du xedetzat berdintasuna; inori ez zaio halakorik bururatzen; bakoitzak besteen gainetik jartzera jotzen du. Maila baxueneko jendeak, besteen ugazaba izateko baino ez du irten nahi bere egoeratik.

Beste horrenbeste urritasunari dagokionez ere: hura maite izateko, hartaz gozatu beharra dago. Plazerrek galbideratutakoek ez dute inolaz ere maite izango bizitza urria; eta hori naturala eta arrunta izan balitz, Alzibiadesek ez zukeen sorraraziko mundu osoaren miresmena. Besteen luxuaren bekaizti edo miresle direnek ere ez dute inola ere urritasuna maite izango: begien aurrean gizaki aberatsak edo berak bezalako gizaki miserableak besterik ez dituztenek, gorroto

dute beren miseria, baina miseria horren bukaera dakarrena maite edo ezagutu gabe.

Beraz, guztiz egia da ezen, errepublika batean berdintasuna eta urritasuna maite izateko, aurrez legeek ezarri egin behar dituztela.

## **V. KAPITULUA**

### ***Legeek nola ezartzen duten berdintasuna demokrazian.***

Antzinako zenbait legegilek, hala nola Likurgok eta Romulok, zati berdinetan partitu zituzten lurak. Hori errepublika berri bat sortzean baizik ezin zen gertatu; edota errepublika zaharra hain usteldua izanik, eta izpirituak halako egoeran, non txiroak horrelako erremedioa bilatzera eta aberatsek horrelako erremedioa jasatera behartuta sentituko baitziren.

Baldin eta legegileak, horrelako hainbanaketa bat egiten duenean, ez baditu hark iraun dezan legeak egiten, behin-behineko konstituzioa baino ez du egiten; desberdintasuna legeek babestu ez duten aldetik sartuko da, eta errepublika galdu egingo da.

Beraz, horretarako, arautu beharra dago emakumeen doteak, dohaintzak, oinordekotzak, testamentuak; hitz batez, kontratuak egiteko era guztiak. Izan ere, zilegi balitz nork bere ondasunak nahi duenari eta nahi bezala eman ahal izatea, borondate partikular bakoitzak funtsezko legearen xedea aldatuko luke.

Solonek, Atenasen nork bere ondasunak, baldin eta haurrik ez bazuen<sup>73</sup>, nahi zuenari testamentuz ematea uzten baitzuen, kontra egiten zien antzinako legeei, legeok ondasunak testamentu-emailearen familian gera zitezen agintzen baitzuten<sup>74</sup>. Kontra egiten zien bere legeei ere; izan ere, zorrak ezabatzean, berdintasuna bilatu baitzuen.

Bi jarauntsi jasotzea debekatzen zuen legea lege ona zen demokraziarentzat<sup>75</sup>. Lurra berdin partitzean eta hiritar bakoitzari zati-kopuru berbera ematean zuen jatorria. Legeak ez zuen nahi izan gizaki bakar batek zati asko izatea.

Senide hurbilena oinordekoarekin ezkontzea agintzen zuen legeak antzeko jatorria zuen. Judutarren artean eman zen lege hori, antzeko partitze baten ondoren. Platonek<sup>76</sup> ere ematen du, bere legeak partiketa horretan oinarritzen dituelarik; eta Atenasko legea zen.

Bazen lege bat Atenasen, zeinen izpiritua ez baitakit inork ezagutu duen. Zilegi zen arreba odolokidearekin ezkontzea, baina ez sabelkidearekin<sup>77</sup>. Usadio horrek bi lur-zati —eta beraz, bi oinordekotza— norbanako berari ez ematea xedetzat zuten errepubliketan du jatorria. Gizon bat aitaren aldetik arreba zuenarekin ezkontzen bazen, oinordekotza bat baino ezin zezakeen ukan, aitarena; baina arreba sabelkidearekin ezkontzen zenean, gerta zitekeen arreba horren aitak, semerik ez izan eta, gizon hori oinordeko uztea; eta hartara senar eta neba zenak bi jarauntsi izango zituen.

Ez bekit aipa Filonek dioena<sup>78</sup>, alegia, nahiz eta Atenasen odolokide baina ez sabelkidearekin ezkontzea izan, Lazedemonian bazegoela arreba sabelkidearekin ezkontzea, baina ez arreba odolokidearekin. Izan ere, aurkitu dut Estrabonen lanetan<sup>79</sup> ezen, Lazedemonian, arreba nebarekin ezkontzen zenean, nebarena halako erdia zuela dotetzat. Argi dago bigarren lege hori lehenengoaren ondorio txarrak ekiditeko egina zela. Arrebaren familiako ondasuna nebarenera pasa ez zedin, arrebari nebaren dotea halako erdia ematen zitzaion.

Senekak<sup>80</sup>, Silanoz ari dela —hau arrebarekin ezkontzea zela eta—, dio Atenasen baimena mugatua zela, eta Alexandrian orokorra. Bakar baten gobernuan ez zegoen ondasunen banaketari eutsi beharrik.

Demokrazian lur-banaketa honi eusteko, ona zen zenbait seme-alaba zituen aitak bere lur-zatia haietariko bati emateko<sup>81</sup> agintzen zuen legea, eta beste seme-alabak haurrik ez zuen norbaiten esku uzteko seme edo alabakotzat har zitzan, hartara hiritar-kopurua eta lur-zatiena berdinak izaten segituko baitzuten.

Kaltzedoniako Faleasek<sup>82</sup>, ondasunak errepublika batean desberdinak baziren, berdintzeko modu bat asmatu zuen. Aberatsek beren ondasunak pobreei oinordekotzan ematea nahi zuen, eta ezer ez jasotzea; eta pobreek dirua jasotzea beren alabentzat, eta ez ematea. Baina ez dakit errepublikaren bat lege hartara jarri zenik. Hain baldintza desberdinen mende jartzen ditu hiritarrak, gorrotatu egingo baitzuten sartu nahi zen berdintasun hori. Batzuetan ona izaten da legeak lortu nahi duten helburura hain zuzenean ez joatea.

Nahiz eta demokrazian berdintasun erreala Estatuaren arima izan, hain da zaila ezartzen, non alde horretatik erabateko zehaztasuna ez litzatekeen beti komenigarria izango. Aski da desberdintasunak maila bateraino gutxituko dituen zentsu bat ezartzea<sup>83</sup>. Horren ondoren, lege partikularrei dagokie, nolabait esan, desberdintasunak berdintzea, aberatsei kargak ezarriz eta pobreei erraztasunak emanez. Erdizkako aberastasunek baino ezin ditzakete konpentsatzio-mota hauek eman edo jaso; izan ere, neurriz gaineko ondasunek iraintzat hartzen baitute botere eta ohorerik ez ematea.

Desberdintasun orok, demokrazian, demokraziaren izaeratik sortua behar du, eta berdintasunaren printzipiotik. Adibidez: gerta liteke bizibidea atera ahal izateko lan jarraiaren premia dutenak gehiegi pobretzea magistratura bat dutelarik, edota beren betebeharrak baztertzea; gerta liteke artisauak harropuztea; edota libertoak, gehiegi izanik, hiritarrak berak baino ahaltsuago izatera iristea. Kasu horietan, hiritarren arteko berdintasuna<sup>84</sup> baztertu egin daiteke demokrazia batean, demokraziaren beraren mesedetan. Baina itxura hutsezko berdintasun bat baino ez da baztertzen orduan; izan ere, magistratura batengatik porrot egindako gizon bat

beste hiritarrak baino egoera okerragoan legoke; eta gizon horrek, bere betebeharez ez arduratzera behartuta, berea baino egoera okerragoan ezarriko lituzke beste hiritarrak; eta horrela beste guztia ere.

## **VI. KAPITULUA**

### ***Legeek nola eutsi behar dioten urritasunari demokrazian.***

Demokrazia on batean ez da aski lur-zatiak berdinak izatea; txikiak ere izan behar dute, erromatarren artean bezala. "Jainkoari nahi ez dakiola", esaten zien Kuriok bere soldadue<sup>85</sup>, "hiritar batek gizon bati jaten emateko aski den lurra gutxiestea".

Aberastasunen berdintasunak urritasunari eusten dion bezala, urritasunak ere aberastasunen berdintasunari eusten dio. Bi gauza horiek, desberdinak badira ere, ezin dute iraun batak bestea gabe; bakoitza kausa eta ondorio da; bata demokraziatik desagertzen bada, bestea atzetik joango zaio ezinbestean.

Egia da ezen, demokrazia merkataritzan oinarrituta dagoenean, gerta daitekeela partikularrek aberastasun handiak izatea, eta hala ere ohiturak ez galbidean jartzea. Izan ere, merkataritza-izpirituak berekin daramatza urritasuna, ekonomia, neurria, lana, zuhurtzia, lasaitasuna, ordena eta araua. Hartara, izpiritu horrek irauten duen bitartean, sortzen dituen aberastasunek ez dute ondorio txarrik. Gaitza aberastasunen ugariak merkataritza-izpiritu hori desegiten duenean etortzen da: bat-batean desberdintasunaren desordenak agertzen dira, ordura arte sentitu ere egiten ez ziren arren.

Merkataritza-izpirituari eusteko, goi mailako hiritarrek berek jardun behar dute horretan; izpiritu horrek bakarrik agindu behar du, beste ezeinekin nahastu gabe; lege guztiak alde izan behar ditu; lege horiek, beren xedapenen bidez, aberastasunak zatituz merkataritzarekin ugaltu ahala, nahikoa erraztasun eman

behar diote hiritar pobre bakoitzari besteez bezala lan egin dezan; eta hiritar aberats bakoitza erdibidean jarri behar dute, beharra izan dezan daukana gordetzeko edo berriak irabazteko.

Oso lege ona da, merkatarien errepublika batean, gurasoen oinordekotzatik haur guztiei zati berdina ematen diena. Horri esker, aitak edozein ondasun bilduta ere, haurrak, beti hura baino pobreagoak izanik, behartuta daude luxuari ihes egitera, eta hark bezala lan egitera. Merkatarien errepublikez ari naiz bakarrik; izan ere, bestelakoentzat, legegileak beste hainbat araudi egin behar ditu<sup>86</sup>.

Greziar bi errepublika-mota zeuden. Batzuk militarrek ziren, hala nola Lazedemonia; beste batzuk merkatariek, hala nola Atenas. Batzuetan, hiritarrak zereginik gabe izatea nahi zen; besteetan, lanarekiko maitasuna txertatu nahi zen. Solonek delitu bihurtu zuen zereginik eza, eta hiritar bakoitzak bizibidea nola ateratzen zuen kontu eman zezan nahi izan zuen. Izan ere, demokrazia on batean, non ez baita beharrezko gauzetan baizik gastatu behar, nor berea irabazi behar du; izan ere, norengandik jasoko luke bestela?

## **VII. KAPITULUA**

### **Demokraziaren printzipioari laguntzeko beste bide batzuk.**

Demokrazia guztietan ezin da ezarri lurak banatzeko modu berdina. Hainbat gorabehera eta abagunetan, halako edo halako konponketa ezinezko, arriskutsu izango lirатеke, eta konstituzioaren beraren kontra joango lirатеke. Ez dago beti muturreko bideak hartu beharrik. Demokrazia batean, ohiturek iraun dezaten egiten den partiketa-modu hori komeni ez dela ikusiz gero, beste bide batzuetatik jo behar da.

Baldin eta berez ohituren araua izango den gorputz finko bat ezartzen bada; alegia, adinak, bertuteak, duintasunak, zerbitzuek sarbidea emango duten senatu

bat; orduan, herriaren begien aurrean, jainkoen irudi gisa, familia guztietara hedatuko diren sentimenduak inspiratuko dituzte.

Batez ere, senatu horrek antzinako instituzioei atxikia izan behar du, eta herriari eta magistratuei elkarrengandik urruntzen utziko ez diena.

Ohiturei dagokienez, asko dago irabazteko antzinako ohiturak gordetzean. Herri gaiztotuek nekez egiten dituzte gauza handiak: ez dute ezarri gizarterik, sortu hiririk, eman legerik; aitzitik, ohitura simple eta zorrotzak dituztenek sortu dituzte gauzarik gehienak; gizakiei antzinako ohiturak gogoraraztea, gehienetan, bertutera eramatea da.

Gainera, iraultzaren bat izan bada, eta Estatuari forma berria eman bazaio, hori ez da gertatu egundoko neke eta lanekin baizik, eta ez zereginik ezarekin eta ohitura ustelduekin. Iraultza egin dutenek berek ere gustagarri egin nahi izan dute, eta ez dute arrakasta lortu lege onen bidez baino. Antzinako instituzioak, beraz, zuzenketak izan ohi dira, eta berriak gehiegikeriak. Gobernu luzean zehar gaizkiri jo ohi da oharkabea, eta ahaleginduz eta saiatur baino ezin da igo ongira.

Zalantzak izan dira aipatu dugun senatuko kideek bizitza osorakoak izan behar duten, ala aldi baterako hautatuak. Ezbairik gabe, bizitza osorako hautatuak izan behar dute, Erroman<sup>87</sup>, Lazedemonian<sup>88</sup> eta Atenasen egin ohi zen bezala. Zeren eta ez baita nahastu behar Atenasen senatu zeritzona —alegia, hiruhilero aldatzen zen gorputz bat—, eta areopagoa, zeinen kideak bizitza osorako hautatuak baitziren, betiereko eredu gisa.

Lege orokorra: araua eta, nolabait esan, ohituren gordailu izateko eratutako senatu batean, senadoreak bizitza osorako hautatu behar dira; arazo publikoak prestatzeko egindako senatu batean, senadoreak aldatu egin daitezke.

Izpiritua, dio Aristotelek, gorputza bezala zahartzen da. Gogoeta honek magistratu bakarra denean balio du bakarrik, eta ezin zaio aplikatu senadoreen biltzar bati.

Areopagoaz gainera, baziren Atenasen ohituren zaindariak eta legeen zaintzaileak<sup>89</sup>. Lazedemonian, agure guztiak ziren zentsore. Erroman, zentsura bi magistratu partikularren esku zegoen. Senatuak herria zaintzen duenez, herriaren eta senatuaren ganean zentsoreek begia izatea komeni da. Errepublikan usteldutako guztia berrezar dezaten behar da; epelkeria sala dezaten, arduragabekeriak epai ditzaten, eta okerrak zuzen ditzaten, legeek delituak zigortzen dituzten bezala.

Adulterio-salaketa publikoa izatea agintzen zuen Erromako legea miresgarria zen ohituren garbitasunari eusteko; emakumeak ikaratzen zituen, baita haiek zaindu behar zituztenak ere.

Ezerk ez die hobeto eusten ohiturei, gazte-jendea adindunen mende-mendean egoteak baino. Batzuek eta besteek eutsiko diete beren buruei: haiek, zaharrei zor dieten begiruneagatik, eta hauek beren buruei die tenagatik.

Ezerk ez die indar handiagoa ematen legeei, hiritarrak magistratuen mende-mendean egoteak baino. "Likurgok Lazedemoniaren eta beste hirien artean ezarri duen alde handia", dio Xenofontek<sup>90</sup>, "honetan datza, hiritarrek legeak betetzean; korrika doaz magistratuagana honek deitzen dienean. Baina Atenasen, gizon aberats bat guztiz suminduko litzateke magistratuaren mende legokeela sinetsiko balitz".

Aitaren aginpidea ere oso baliagarria da ohiturei eusteko. Ikusi dugunez, errepublika batean, ez dago beste gobernuetan bezain erreprimizailea den indarrik. Beraz, legeek beren ordezkoa asmatu behar dute: aitaren aginpidea, hain zuzen.

Erroman, aita eskumen osoa zuen seme-alaben biziaren nahiz heriotzaren ganean<sup>91</sup>. Lazedemonian, aita bakoitzak besteren umea zigortzeko eskubidea zuen.



Aitaren aginpidea errepublikarekin batera galdu zen Erroman. Monarkietan, non ez baita hain ohitura garbientzako lekurik, denak magistratuen boterepean bizi daitezen nahi da.

Erromako legeek, gazte-jendea mendekotasunera ohitua baitzuten, adintxikitasun luzea ezarri zuten. Beharbada oker gabiltza usadio hori hartu dugulako: monarkia batean ez da hainbesteko loturen premiarik.

Errepublika batean, mendekotasun horrexek eskatuko luke, agian, aita bere bizitza osoan izatea seme-alaben ondasunen jabe, Erroman araututa zegoen bezala. Baina hori ez da monarkiaren izpiritua.

## **VIII. KAPITULUA**

***Nola legeak gobernu-eraren printzipioarekin erlazionatu behar diren aristokrazian.***

Aristokrazian, herria bertutetsua bada, gobernu herritarrak eman ohi duen zoriona izango da gutxi gorabehera, eta Estatua ahaltsu bihurtuko da. Baina oso arraroa denez gizakien aberastasunak hain desberdinak diren lekuetan bertutea gauza ugaria izatea, nahitaezkoa da legeek, ahal duten heinean, neurritasun-izpiritua ematera jotzea, eta Estatuaren konstituzioak ezinbestean kentzen duen berdintasun hori berrezarri nahi izatea.

Neurritasun-izpirituari bertute deritzo demokrazian; estatu herritarreko berdintasun-izpirituak estatu herritarrean duen lekua du han.

Baldin eta erregeak inguratzen dituzten ospea eta arrandia beren boterearen parte bat badira, maneren apaltasuna eta sinpletasuna dira noble aristokratikoen indarra<sup>92</sup>. Inolako bereizketarik onartzen ez dutenean, herriarekin nahasten direnean, herria bezala janzten direnean, herria beren plazer guztietan partaide egiten badute, herriak ahaztu egiten du bere ahulezia.

Gobernu bakoitzak bere izaera eta printzipioa ditu. Beraz, ez da beharrezko aristokraziak monarkiaren izaera eta printzipioa hartzea; horixe gertatuko litzateke, baldin eta nobleek beren klaseari ez dagozkion lehentasun pertsonal eta partikularrak izango balituzte; pribilegioek senatuarentzat izan behar dute, eta senadoreentzat begirune soila.

Bi nahasbide nagusi daude estatu aristokratikoetan: desberdintasun ezin handiagoa gobernatzen dutenen eta gobernatuen artean; eta desberdintasun hori bera gobernatzen duen gorputzeko kideen artean. Bi desberdintasun horietatik sortzen dira gorrotoak eta jelsiak, eta legeek aurreikusi edo ekidin egin behar dituzte hauek.

Lehen desberdintasuna honetan datza: buruzagien pribilegioak, herritarrentzat lotsagarri direlako bakarrik izatean ohorezko. Halakoxea zen Erroman patrizioek plebeioekin ezkontza bidez bat egitea debekatzen zuen legea<sup>93</sup>; horrek ondorio hau baizik ez zuen ekartzen, batetik patrizioak harroagotzea, eta bestetik gorrotatuagoak izatea. Ikusi besterik ez dago zer-nolako abantailak atera zituzten tribunoek hortik beren harenga eta hitzaldietan.

Desberdintasun hori gertatuko da, halaber, hiritarrak zergei dagokienean desberdinak badira. Hori lau erataraz gertatzen da: nobleek beren buruari ez ordaintzeko pribilegioa ematen diotenean; iruzur egiten dutenean ez ordaintzeko<sup>94</sup>; berentzat hartzen dituztenean, beren zereginengatik sari edo ordain direlako aitzakiaz; eta azkenik, herria zerga-ordaintzaile bihurtu, eta jasotakoa beren artean partitzen dutenean. Azken kasu hau oso gutxitan gertatu da; horrelakorik gertatuz gero, gobernu guztietan gogorrena da aristokrazia.

Erroma aristokraziak gobernatu zuen bitartean, oso ondo saihestu zituen eragozpen horiek. Magistratuek ez zuten ezer irabazten beren magistraturengatik. Errepublikako buruek besteek bezala ordaintzen zituzten zergak; gehiago ere ordaintzen zuten, eta batzuetan berek bakarrik ordaindu zuten. Azkenik,

Estatuaren irabaziak beren artean banatu ordeztu, herriaren artean banatu zuten oso-  
osorik altxor publikotik atera ahal izan zuten guztia, zoriak aberastasunetan eman  
zuten guztia, hark beren ohoreak barka ziezazkien<sup>95</sup>.

Funtsezko araua hau da: demokrazian herriari ondasunak banatzeak kaltea  
dakarren bezala, gobernu aristokratikoan ondorio onak dakartza. Lehen kasuan,  
galdu egiten da hiritar-izpiritua; bigarrenean, berriz, izpiritu hori eskuratzen da.

Errentak herriari banatzen ez bazaizkio, ondo administratzen direla adierazi  
behar zaio: erakustea bera, nolabait, haietaz gozaraztea da. Venezian erakusgai  
izaten zen urrezko katea, gerraren bat irabazitakoan Erromara eramaten ziren  
abertasunak, Saturnoren tenpluan gordetzen ziren altxorrak..., horiek denak  
herriaren aberastasunak ziren benetan.

Aristokrazian, bereziki funtsezkoa da, nobleek zergak ez biltzea. Estatuaren  
goren mailakoak ez ziren sartzen horretan; bigarrenekoak arduratzen ziren eta  
horrek, gerora, akats handiak ekarri zituen. Zergak biltzea nobleen esku dago  
aristokrazia batean, partikular guztiak leudeke negozio-gizonen esanetara; ez  
legoke haiek zuzenduko lituzkeen auzitegi nagusirik. Gehiegikeriak galarazteko  
proposatutakoek berek, nahiago lukete gehiegikeriez gozatu. Nobleak estatu  
despotikoetako printzeek bezala jokatu lukete, nahi lituzketen ondasunak  
berentzat hartuz.

Hala lortutako etekinak norberaren ondaretzat hartuko lirateke laster, eta  
zekenkeriak bere gogara handituko luke ondare hori. Landetxe eta baserriek  
porrot egingo lukete; errenta publikoa ezerezean agortuko litzateke. Horrexegatik,  
estatu batzuk, porrot nabarmenik izan gabe ere, ahulezian erortzen dira, bai auzo-  
herrien eta bai hiritarren beren harridurarako.

Legeek merkataritza ere debekatu egin behar diete: hain izen handiko  
merkatariek era guztietako monopolioak sortuko lituzkete. Merkataritza maila

berdinekoen lanbidea da; eta, estatu despotiko zorigaitzekoenak printzea merkatari dutenak dira.

Veneziako legeek<sup>96</sup> debekatu egiten diete merkataritza nobleei; izan ere, are nahi gabe ere neurritz gaineko aberastasunak aterako lituzkete.

Legeek bitartekorik eraginkorrenak erabili behar dituzte nobleek herriari justizia bana diezaioten. Ez badute tribunorik ezarri, legeek berek izan behar dute tribuno.

Legeak betetzearen kontrako babes-mota orok galbidean jartzen du aristokrazia; eta tirania oso gertu dago hortik.

Legeek aldi orotan zentzatu behar dute besteak meneratzeko harrokeria. Beharrezkoa da, aldi baterako edo betiko, nobleak ikaran jarriko dituen magistratu bat, Lazedemonian eforoak bezala, eta estatu-inkisidoreak Venezian; magistratura horiek ez daude inolako formalitateren mende. Gobernu-era honek baliabide oso bortitzen premia du: Venezian, harrizko aho bat dago irekita salatzaile ororentzat<sup>97</sup>; tiraniaren ahoa dela esan liteke.

Magistratura larderiatsu horiek, aristokrazian, zerikusia dute demokraziako zentsurarekin; hau ere, bere izaeraz, hura bezain independente baita. Hain zuzen, ez dago zentsoreak ikertzerik beren zentsuraldian egindakoez; konfiantza eman behar zaie, ez adoregabetu. Eromatarrak miresgarriak ziren: magistratu guztiei eska zekizkiekeen kontuak<sup>98</sup>, zentsoreei izan ezik<sup>99</sup>.

Bi gauza dira kaltegarriak aristokrazian: nobleen guztizko pobrezia, eta nobleen neurritz gaineko aberastasuna. Pobrezia saihesteko, beren zor guztiak kitarazi behar zaizkie garaiz. Aberastasunak neurri batzuen barruan edukitzeko, xedapen zuhur eta nabarmentzen ez direnak behar dira; ez konfiskaziorik, lur-jabetza arautzeko legerik, zorrak deuseztatzerik, halakoek kalte amaigabeak baitakartzate.

Legeek primutza-eskubidea ezabatu behar dute nobleen artean<sup>100</sup>; hartara, jarauntsiak etengabe zatikatuz, ondasunek berdintasunera jo dezaten beti.

Ez dago ordezkatzeen, berreskuratze jentilizioen, primutzen eta adopzioen beharrik. Estatu monarkikoetan familien handitasuna betierekatzeko asmatutako bitarteko guztiak ez lirateke baliagarri aristokrazian<sup>101</sup>.

Legeek familiak berdindu dituztenean, haien arteko batasunari eustea dute zeregina. Nobleen arteko auziak laster erabaki behar dira; hori gabe, nobleen arteko ika-mikak familien arteko ika-mika bihurtzen dira. Arbitro batzuek buru ditzakete prozesuak, edota prozesuak sortzea galaraz dezakete.

Azkenik, ez da egokia legeek handikeriak familien artean jartzen dituen bereizketak haiza ditzaten, batzuk besteak baino nobleago edo antzinakoago direlako aitzakiaz; hori norbanakoen arteko txikikerien mailan jarri behar da.

Lazedemoniari begi ematea baino ez daukagu; ikusiko dugu nola eforoek erregeen ahuleziak, handikienak eta herriarenak zigortzen asmatu zuten.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Nola legeak beren printzipioari dagozkion monarkian.***

Gobernu honen printzipioa ohorea denez, legeek zerikusia izan behar dute ohorearekin.

Legeek nobleziari eusten saiatu behar dute; izan ere, nobleziarentzat ohorea, nolabait esateko, haur eta guraso baita.

Legeek oinordezko bihurtu behar dute noblezia; ez printzearen boterearen eta herriaren ahuleziaren arteko mugarri izan dadin, bien arteko lotura baizik.

Ordezkatzeak, familietako ondasunak gordetzen baitituzte, oso baliagarriak izango dira gobernu honetan, besteetan komeni ez badira ere.

Berreskuratze jentilizioak itzuli egingo dizkie familia nobleei ahaide baten eskuzabaltasunak besterendu dizkien lurak.

Lur nobleek pribilegioak izango dituzte, pertsonak bezala. Ez dago bereizterik erregearen duintasuna bere erresumarenetik; era berean, ez dago bereizterik noblearen duintasuna bere feudoarenetik.

Pribilegio hauek guztiak nobleziarenak baino ez dira izango, eta ez dira herriarengana pasatuko, gobernuaren printzipioaren kontra joan nahi ez bada, nobleziaren indarra eta herriarena gutxitu nahi ez badira.

Ordezkapenak traba egiten diote merkataritzari; berreskuratze jentilizioak ezin konta ahala auzi sorrarazten ditu, erresumako orube saldu guztiak jaberik gabe egoten dira nolabait, urtebetea gutxienez. Feudoei atxikitako pribilegioek, jasan behar dituztenentzat oso astuna den boterea ematen dute. Nobleziari dagozkion eragozpenak dira horiek, baina ez dira ezer hark dakarren baliagarritasun orokorraren aurrean; alabaina, herriari pasarazten zaizkionean, hori printzipio guztien kontra alferrik joatea da.

Monarkietan badago ondasunen parterik handiena seme-alabetako bakar bati uztea; aukera hori gobernu-mota horretan baizik ez da ona.

Legeek gobernu-era horren konstituzioak eman dezakeen merkataritza guztiari lagundu behar diote<sup>102</sup>; zertarako-eta sujetek, bizia galtzeko arriskurik gabe, printzearen eta gortearen premia beti berrituak ase ahal ditzaten.

Nolabaiteko ordena ezarri behar dute zergak biltzeko moduan, bilketa zergak berak baino astunagoa izan ez dadin.

Zergen astunak lehenik lana dakar; lanak, nekea; nekeak, alferkeriarako gogo.

## **X. KAPITULUA**

**Monarkian laster egikaritzeaz.**

Gobernu monarkikoak abantaila handia du errepublikarraren gainean: arazo publikoak bakar batek daramatzanez, lasterrago egikaritzen da dena. Baina, bizkortasun hori presa bihur daitekeenez, legeek nolabaiteko mantxotasuna ezarriko dute. Konstituzio bakoitzaren izaeraren alde egiteaz gainera, izaera horretatik etor litezkeen gehiegikeriak zuzendu behar dituzte.

Richelieu kardinalak<sup>103</sup> konpainien arantzak ekidin nahi ditu monarkietan, denari trabak jartzen baitizkiote. Gizon honek, despotismoa bihotzean eraman ez balu ere, buruan eramango zukeen.

Legeen gordailu diren gorputzek ez dute inoiz hobeto obeditzen pauso geldoan doazenean eta printzeari bere arazoez gogoeta eskaintzen diotenean baino, gorteko jendeak Estatuko legeez duen argitasun faltatik eta aholkuak itsumustuan ematetik ez baita halakorik etorriko<sup>104</sup>.

Zer gertatuko zitzaiokeen munduko monarkiarik ederrenari baldin eta magistratuek, beren geldotasunaren, beren kexuen, beren eskarien bidez, erregearen bertuteen suharra geldiarazi ez balute?; errege horiek, beren arima handia besterik kontsultatu gabe, neurri gabe saritu nahi izan balituzte suhertasun eta leialtasun halaber neurrigabez egindako zerbitzuak?

## **XI. KAPITULUA**

### **Gobernu monarkikoaren bikaintasunaz.**

Gobernu monarkikoak abantaila handi bat du despotikoaren gainean. Berez printzearen azpian konstituzioaren mendeko hainbat ordena izatea dagokionez, Estatua finkoagoa da, konstituzioa hauskaitzagoa, gobernatzen dutenen pertsona seguruagoa.

Zizeronek<sup>105</sup> uste du Erroman tribunoak ezartzeak salbazioa ekarri ziola Errepublikari. "Izan ere", dio berak, "bururik ez duen herriaren indarra askoz beldurgarriagoa da. Buruzagi batek badaki arazoak bere gain hartuak dituela, eta horretaz pentsatzen du; baina herriak, bere oldarrean, ez daki zein arriskutan jartzen den". Gogoeta hau estatu despotiko bati aplika dakioke, ez baitu tribunorik, eta monarkia bati ere bai; izan ere, han herriak, nolabait, tribunoak baititu.

Hain zuzen, edonon ikus daiteke ezen, gobernu despotikoaren mugimenduetan, herriak, bere kabuz, gauzak joan daitezkeen urrutienerraino eramaten dituela; egiten dituen gehiegikeria guztiak erabatekoak dira; monarkietan, aldiz, gauzak oso gutxitan iristen dira gehiegikeriara. Buruzagiak beldur izaten dira abandonatuko ote dituzten; botere mendekoek<sup>106</sup> ez dute nahi herriak gaina hartzea. Oso arraroa da Estatuko ordenak erabat usteldurik egotea. Printzea ordena horien mende dago; eta Estatua iraultzeko ez borondaterik ez itxaropenik duten albarazaleek ez dute nahi eta ezin dute printzea bota.

Gauzak honela direlarik, zuhurtzia eta autoritatea duten pertsonak hartzen dute parte; gauzak beren neurrian egiten dira, konpondu eta zuzendu; legeek beren indarra hartzen dute berriz, eta aintzakotzat hartzen dira.

Horrela, gure historia guztiak iraultzarik gabeko gerra zibilez beteta daude; estatu despotikoetakoak, berriz, gerra zibilik gabeko iraultzaz beteta daude.

Zenbait estatutako gerra zibilen historia idatzi dutenek, are gerra zibilok bultzatu dituztenek berek, nahikoa frogatzen dute zein susmo gutxi duten printzeek zenbait ordenari, zerbitza ditzan, ematen dioten autoritateaz; izan ere, erreboltan bertan, ordena horiek legeen eta beren betebeharren antsia zuten, eta eutsi egiten zioten, eta ez lagundu, matxinatuen oldarrari eta suharrari<sup>107</sup>.

Richelieu kardinala, pentsatuz beharbada gehiegi doilortu zituela Estatuko ordenak, printzearen eta honen ministroen bertuteez baliatu zen Estatuari



eusteko<sup>108</sup>; eta hainbeste exijitzen zien non, benetan, aingeru batek baizik ezin zezakeen hainbeste arreta, argi, irmotasun, ezagupen izan; eta nekez pentsa genezake gaur egunetik monarkiak desagertu arte haiek bezalako printze eta ministroak izan daitezkeenik.

Antolamendu egokian bizi diren herriak basoetan zehar ez arau ez buruzagi bizi direnak baino zoriontsuagoak direnez, halaxe erregeak ere, beren estatuko oinarrizko legeen esanetara bizi direlarik, zoriontsuagoak dira printze despotikoak baino, hauek ez baitute ez beren herrien bihotza ez berena arau dezakeen ezer.

## **XII. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Ez bedi bila eskuzabaltasunik estatu despotikoetan; printzeak ez luke emango berak ez duen handitasunik; estatu horietan, ez da loriarik.

Monarkietan bai, ikusiko dira sujetak printzearen inguruan honen distira jasotzen; nolabait esateko, leku zabalagoa izanik, bakoitzak jokoan jar ditzake bere bertuteak, arimari independentzia ez baina handitasuna ematen diotenak.

## **XIII. KAPITULUA**

### **Despotismoaren ideia.**

Luisianako basatiek fruituak nahi dituztenean, zuhaitza ondo-ondotik ebaki eta fruitua hartzen dute<sup>109</sup>. Horra gobernu despotikoa.

## **XIV. KAPITULUA**

### **Nola legeak gobernu despotikoaren pritzipioari dagozkion.**

Gobernu despotikoak beldurra du printzipio; baina herri izu, ezjakin, azpiratuentzat ez da behar lege askorik.

Denak bizpahiru ideiaren gainean ibili behar du; beraz, ez da gehiago behar. Abere bat bezatzen denean, kontu handia izan behar da ez ditzan maisua, ikasgaia eta martxa alda; bizpahiru mugimendu sartzen zaizkio buruan, ez gehiago.

Printzea giltzapean dagoenean, ezin da lizunkeriaren baitatik irten han daukaten guztiei gogait eragin gabe. Haiek ezin dute jasan printzea bera eta printzearen boterea beste esku batzuetara pasatzea. Beraz, oso gutxitan joan ohi da gerrara, eta deklaratu ere nekez deklaritzen du gerra bere ordezkarien bidez.

Halako printze bat, bere jauregian inolako kontrakarrik izaten ohituta, haserretu egiten da armak eskutan hartuta kontra egiten zaionean; beraz, suminak edo mendekuak mugiarazi ohi dute. Bestalde, ezin du izan loriaren benetako ideiarik. Hala, bada, gerrak beren berezko sumin osoan egiten dira derrigor, eta jendeen zuzenbideak beste leku batzuetan baino garrantzi gutxiago du.

Halako printze batek hainbeste akats ditu, non beldur izatekoa bailitzateke haren berezko inozokeria argitan jartzea. Ezkutatuta dago, eta inork ez daki zein egoeratan dagoen. Zorionez, herrialde horietako gizakiak diren bezalakoak direnez, ez dute izen bat besterik behar goberna ditzan.

Karlos XII.a Bender-en zegoelarik, kontrakar pixka bat izan zuen Suediako senatuan, eta idatzi omen zuen bere bota bat bidaliko ziela gobernatzeko. Bota hark errege despotiko batek bezala gobernatuko zukeen.

Printzea preso badago, hildakotzat jotzen dute, eta beste norbait igotzen da tronura. Preso dagoenak egin ditzakeen hitzarmenak deusezak dira; ondorengoak ez ditu berretsiko. Izan ere, bera legeak, Estatua eta printzea baita, eta printze ez bada ez baita ezer, hildakotzat joko ez balute Estatua suntsitu egingo litzateke.

Turkiarrak Pedro I. arekin bakea egitera bultzatu zituen arrazoietakoa bat, besteak beste, hauex da: Moskoviarrak zera esan ziotela biserrari, Suedian beste errege bat tronuratu zutela<sup>110</sup>.

Estatuaren iraupena printzearen iraupena baizik ez da, edota hura giltzapetuta dagoen jauregiarena. Jauregi hori edo hiriburua zuzenean mehatxatzen ez duen orok ez die zirrarak eragiten izpiritu ezjakin, harro eta zuhurtziarik gabeei; eta, gertaeren kateamenduari dagokionez, ez daukate horri segitzetik, aurreikusterik, ez eta hartaz pentsatzetik ere. Politikak, bere baliabideek eta legeek, oso mugatuta egon behar dute; eta gobernu politikoa gobernu zibila bezain sinplea da<sup>101</sup>.

Dena gobernu politikoa eta zibila etxeko gobernuarekin bateratzera mugatzen da, Estatuaren ofizialak emakumeen hareneko ofizialekin.

Halako estatu bat egoerarik onenean izango da munduan bakarrik balego bezala badago, basamortuz inguratuta eta barbaro deituko dien beste herri batzuetatik bereizita. Armadaz fidatzetik ez daukarez, on izango da bere parte bat desegin dezan.

Gobernu despotikoaren printzipioa beldurra den bezala, helburua lasaitasuna da; baina hori ez da bakea, hiri batean etsaiek bereganatu behar dutenean izan ohi den isiltasuna baino.

Indarra Estatuan ez dagoenez, hura sortu duen armadan baino, armada hori gorde behar litzateke Estatuaren defendatzeko; baina armada beldurgarria da printzearentzat. Beraz, nola bateratu Estatuaren segurtasuna pertsonaren segurtasunarekin?

Ikus, arren, nola saiatzen den Moskuko gobernu despotismotik irteten, mendeen dituen herriei berei baino astunagoa baitzaio berari. Armada-indar handiak desegin ditu, delituen penak gutxitu, epaimahaiak ezarri, legeak

ezagutzen hasi, herriei irakatsi. Baina badira zenbait arrazoi partikular, berriro ere, agian, ihes egin nahi zion zorigaitzera eramango dutenak.

Estatu hauetan, erlijioak beste edozeinetan baino eragin handiagoa du; beldurrari erantsitako beldurra da. Mahometar inperioetan, erlijiotik hartzen dute herriek, aldeaz, printzeagana duten begirune harrigarria.

Erlijioak orekatzen du pixka bat turkiar konstituzioa. Mendekoak, ohorearen bidez ez baitzaizkio atxikitzen Estatuaren loriari eta handitasunari, erlijioaren indarragatik eta printzipioagatik atxikitzen zaizkio.

Gobernu despotiko guztien artean, ezeinek ez du bere burua gehiago estutzen, printzea lur-sail guztien jabe eta sujet guztien oinordeko deklaritzen deneko hark baino. Hortik beti etorri ohi da lurrak lantzeari uztea, eta horrez gainera printzea merkataria bada, industri mota oro hondatu egiten da.

Estatu hauetan ezer ez da konpontzen, ez hobetzen<sup>111</sup>. Norberaren bizialdirako baino ez dira egiten etxeak; ez dira erretinak egiten, ez dira zuhaitzak aldatzen; dena kentzen zaio lurrari, baina ez zaio ezer itzultzen; dena dago landu gabe, mortu.

Uste duzue lur-sailen jabetza eta ondasunen oinordekotza galarazten duten legeek handikien askonahia eta diru-gosea urrituko dituztela? Ez; kitzikatu egingo dituzte askonahi eta diru-gose horiek. Mila gehiegikeria egitera behartuta sentituko da norbera; izan ere, uste izango baitu lapurtu ahal ditzan urrea eta zilarra besterik ez direla bereak.

Dena gal ez dadin, on da printzearen gosea ohituraren batek motel dezan. Esate baterako, Turkian, printzeak askietsi egiten du herritarren jarauntsietatik ehuneko hiru hartuta<sup>113</sup>. Baina jaun handiak lur gehienak bere soldaduei ematen dienez, eta nahierara erabiltzen dituenaz; inperioko ofizial guztien oinordekotzak bereganatzen dituenaz; gizon bat semerik izan gabe hiltzen bada, jabetza jaun

handiak duenez, eta alabek usufruktua baino ez dutenez; azkenean gertatzen da Estatuko ondasunik gehien jabetza badaezpadakoa izan ohi dela.

Bantango legearen arabera<sup>114</sup>, erregeak herentzia osoa hartzen du, baita emaztea, seme-alabak eta etxea ere<sup>112</sup>. Hiritarrak behartuta daude, lege horren xedapen ankerrena saihesteko, haurrak zortzi, bederatzi edo hamar urtetan ezkontzera, baita gazteago ere, inoiz, zertarako-eta aitaren herentziaren osagai izan ez daitezen.

Oinarrizko legerik ez duten estatuetan, inperiorako oinordekotza ezin finkoa izan. Koroaren oinordekoa printzeak aukeratzen du, bere famili barruan edo familiatik kanpo. Alferrik ezarriko litzateke oinordekotza primuarentzat izatea; printzeak beti aukeratu ahalko luke beste norbait. Ondorengoa printzeak berak izendatzen du, edo haren ministroek, edo gerra zibil batek. Hartara, estatu honek monarkia batek baino arrazoi bat gehiago du desegiteko.

Errege-familiako printze bakoitzak hautatua izateko aukera berberak dituzenez, gertatzen da tronuratzen denak bere anaiak itoarazten dituela, Turkian bezala; edo itsutu egiten ditu, Pertsian bezala; edo zoratu egiten ditu, mongolen artean bezala; edota, neurri horiek hartzen ez badira, Marokon kasu, tronua hutsik geratzen den bakoitzean izugarrizko gerra zibila izan ohi da.

Moskoviako konstituzioen arabera<sup>115</sup>, tsarrak nahi duena aukera dezake ondorengotarako, dela familian bertan, dela familiatik kanpora. Oinordekotza-modu horrek mila iraultza ekarri ohi ditu, eta tronua aldabera eta oinordekotza apetazko bihurtzen ditu. Oinordetze-ordena herriari gehien axola zaizkion gauzetako bat denez, onena begi-bistara garbien azaltzen dena da, hala nola jaiotza, eta jaiotzazko ordena jakin bat. Halako xedapen batek gerarazi egiten ditu azpijokoak, eta ito egiten du askonahia; horrela ez da liluratzen printze ahul baten izpiritua, eta ez zaie hitz eginarazten hilzorian daudenei.

Oinordekotza oinarrizko lege batek ezarria denean, printze bakar bat da oinordekoa, eta anaiek ez dute benetako edo ustezko eskubiderik koroa dela-eta lehian sartzeko. Ez dago aitaren borondatea aldarrikatzerik ez baliatzerik. Erregearen anaia atxilotzeak edo hilarazteak ez du beste edozein sujet atxilotzeak edo hilarazteak baino zentzu gehiago.

Baina estatu despotikoetan, non printzearen anaiak haren esklabo eta aurkako baitira aldi berean, zuhurtziak haien aurrean seguru izatea agintzen du; batez ere herrialde mahometarretan, non erlijioak Jainkoaren epaitzat hartzen baitu garaipena edo arrakasta. Horrenbestez, inor ez da subirano eskubidez, egitatez baizik.

Askonahia askoz biziagoa da zenbait estatutan —odolezko printzeek, tronura iristen ez badira, atxilotu edo hilarazi egingo dituztela ikusten duten estatuetan—, gure artean baino, non odolezko printzeen egoera, goranahia hainbeste asetzen ez badu ere, hobeto asetzen baititu asmo apalak.

Estatu despotikoetako printzeak gehiegi baliatu izan dira beti ezkontzaz. Emazte asko hartu ohi dituzte, batez ere despotismoa, nolabait esateko, naturalduta dagoen munduko partean, Asian alegia. Hainbeste haur izaten dituzte, non ia ezin baitituzte maita, ez eta anai-arrebek elkar ere.

Errege-familiak Estatuaren antza du; ahulegia da, eta burua indartsuegia du; handia dirudi, baina ez da ezer<sup>16</sup>. Artaxerxesek bere haur guztiak hilarazi zituen, beraren kontra elkar hartu zutelako. Ez da egiantzekoa berrogeita hamar haurrek aitaren kontra konspiratzea; eta are gutxiago konspirazioaren zioa hark bere ohaidea semerik zaharrenari utzi nahi ez izatea. Errazago sinesten da han Sortaldeko harenetako azpijokoren bat izan dela; gau beltzaren babesean amarruak, gaiztakeriak, maltzurkeriak isiltasunean nagusitzen diren estatu horietako azpijokoren bat; non printze zahar bat, egunetik egunera ergelagotuz doana, jauregiko lehen presoa baita.

Esan berri dugun guztiaren ondoren, irudi luke giza izaera etengabe oldartuko litzatekeela gobernu despotikoaren kontra. Baina gizakiek askatasuna maite badute ere, indarkeria gorroto badute ere, herri gehienek amore ematen diote despotismoari. Hori erraz da ulertzen. Gobernu moderatu bat eratzeko, botereak konbinatu behar dira, arautu, leundu, jardunarazi egin behar zaie; nolabait esateko, bati lasta jarri, beste bati jarki ahal dakion; legegintzako maisulana da hori, zoriak nekez egiten duena, eta zuhurtziari nekez egiten uzten zaiona. Gobernu despotiko bat, aitzitik, begi-bistakoa da, nolabait esateko; uniforme da orotan; hura ezartzeko grinak besterik behar ez direnez, mundu guztia da ona horretarako.

## **XV. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Klima beroetan, non despotismoa nagusi izan ohi baita, grinak laster sentitzen dira, baina indargetu ere laster indargetzen dira<sup>117</sup>; izpiritua han aurrerratuagoa da; ondasunak xahutzeko arriskuak txikiagoak dira; aukera gutxiago dago norbera besteengandik bereizteko, tratu gutxiago etxean sartuta egon ohi diren gazteen artean. Ezkondu goizago ezkondu ohi dira; beraz, adin-nagusitasuna Europako gure klimetan baino lehenago iristen da. Turkian, adin-nagusitasuna hamabost urte betetzean hasten da<sup>118</sup>.

Ondasunen zesioa ezinezkoa da; inork ondasun segururik ez duen gobernu batean, arreta handiagoa eskaintzen zaio pertsonari ondasunei baino.

Gobernu moderatuetan, berriz, eta batez ere errepubliketan, naturala da ondasunen zesioa<sup>119</sup>; hiritarren zintzotasunean konfiantza handiagoa izan beharra dagoelako, eta nork bere buruari ustez eman dion gobernu-erak gozotasuna eragiten duelako.

Baldin eta, Erromako errepublikan, legebileek ondasunen zesia<sup>120</sup> ezarri balute, ez ziratekeen gertatuko hainbeste albaramendu eta hainbeste iskanbila, ez zituzketen jasango gaitzen kalteak eta erremedioen arriskuak.

Ondasunen pobretasunak eta segurtasunik ezak, estatu despotikoetan, naturaldu egiten dute lukurreria; nork bere diruaren prezioa igotzen du, mailegutuan uztean hartzen duen arriskuaren arabera. Beraz, miseria alde guztietatik dator herrialde zorigaitzeko hauetan; dena falta da, baita maileguak berak ere.

Hortik dator merkatarik batek behar bezala merkataritza egiten ez jakitea; egunez egun bizi da; merkantzia asko hartuko balitu, gehiago galduko luke haiek ordaintzeko eman beharko lituzkeen interesetan, merkantziekin irabaziko lukeena baino. Horregatik, ez dago lekunik merkataritzako legeentzat; antolamendu publiko hutsa besterik ez dute horretarako.

Gobernuak ez luke injustu izaterik, injustizia horiek egiteko eskurik gabe; alabaina, ezinezkoa da esku horiek beren mesedetan ez aritzea. Pekulatua, beraz, naturala da estatu despotikoetan.

Delitu hori gaitz ohikoena izanik, konfiskazioak baliagarriak dira. Hartara, kontsolatu egiten da herria; hortik ateratzen den dirua zerga handi samarra da, eta printzeak nekez aterako luke halakorik lur jotako sujetengandik; herrialde horretan, egon, ez dago ezta aurreztu nahi duen familiarik ere.

Estatu moderatuetan oso besterik da. Konfiskazioek ziurgabe bihurtuko lukete ondasunen jabetza. Gauza guztiez gabetuko lituzkete seme-alaba errugabeak; suntsitu egingo lukete familia bat, erruduna zigortu beharrean. Errepubliketan, ezabatu egingo lukete berdintasuna, errepublikaren arima, hiritar bat bere oinarritzko beharrianak asetzeko bidez gabetzean<sup>121</sup>.

Lege erromatar batek<sup>122</sup> dio lehen agintariaren aurkako *lesa majestate* delituagatik baino ez dela konfiskatu behar. Maiz oso zuhurra litzateke lege



horren izpirituaren ildotik jokatzeari, eta konfiskazioak delitu batzuen kasuetara mugatzeari. Bertako ohitura batek ondasun propioak ezarri dituen herrialdeetan, Bodinok<sup>123</sup> dio, oso ondo, irabazpidezko ondasunak baino ez liratekeela konfiskatu behar.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Boterea emateaz.**

Gobernu despotikoan, boterea oso-osorik pasatzen da ematen zaion haren eskuetara. Bisirra despota bera da; eta ofizial bakoitza bisirra. Gobernu monarkikoan, boterea ez da hain bertatik bertara aplikatzen; erregeak, hura ematean, leundu egiten du<sup>124</sup>. Halako moldez banatzen du bere agintea, non ez baitu inoiz parterik ematen, parte handiagoren bat beretzat gorde gabe.

Hartara, estatu monarkikoetan, hirietako gobernadoreak probintziako gobernadorearen agintepean daude, baina printzearen are agintepeanago; eta gorputz militarretako ofizialak, jeneralaren mende izanik ere, printzearen are mendeanago daude.

Estatu monarkiko gehienetan zuhurki erabakia da aginte handi samarra dutenek armadako ezein gorputzekin loturarik ez izatea; hartara, boterea printzearen borondate partikularren kariaz baino ez dutelarik, enplegatuta edo enplegurik gabe egon daitezkeelarik, alde zerbizuan daude, eta alde zerbizuz kanpo.

Hori ezinezkoa da gobernu despotikoan. Izan ere, enplegurik ez dutenek gutxienez pribilegioak eta tituluak balituzte, berez handiak liratekeen gizakiak izango lirateke Estatuan; eta hori gobernu-modu horren izaeraren kontra lihoake.

Hiri bateko gobernadorea pasharengandik independente balitz, gauzak leundu beharko lirateke egunero biek elkar har lezaten; zentzugabea da hori

gobernu despotiko batean. Eta gainera, hiri bateko gobernadoreak ez obeditzea baleuka, nolatan erantzun beharko luke probintziakoak bere buruaz?

Gobernu honetan, agintea ezin da orekatu; magistratu txikienarena ez da despotarena baino orekatuagoa. Herrialde moderatuetan, legea zuhurra da nonahi, ezaguna da nonahi, eta magistratu txikiak hari jarrai dakizkioke. Baina despotismoan, legea printzearen borondatea baino ez delarik, printzea zuhurra izanik ere, nola jarraituko zaio magistratu bat ezagutzen ez duen borondate bati? Bereari jarraitu beharra dauka.

Bada gehiagorik: legea printzeak nahi duena izanik, eta printzeak ezagutzen duena bakarrik nahi izan dezakeelarik, beharrezkoa da asko izatea haren ordeztu eta hark bezala nahi dutenak.

Azkenik, legea printzearen unean uneko borondatea izanik, beharrezkoa da haren ordeztu nahi dutenek hark bezala nahi izatea unez une eta berehala.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Opariez.**

Usadioa da herrialde despotikoetan, norberaren gainetik dagoen edonorengana joatean, oparia egitea beti, baita erregeek ere. Mogolen enperadoreak<sup>125</sup> ez ditu hartzen sujeten errekerimenduak aurrez ezer jaso ez badu. Printze hauek are beren faboreak hondatzera ere iristen dira.

Horrela izan behar inor hiritar ez den gobernu-modu baten azpian; goikoak behekoari ezer zor ez diolako ideia nagusi den gobernu batean; gizakiak batzuek besteei ezartzen dizkieten zigorrak bakarrik lotzen dituela uste den gobernu-modu batean; negozio gutxi den gobernu batean, eta gauza arraroa delarik inor handi baten aurrera agertzea eskariak egitera, eta are gutxiago kexuak.

Errepublikan batean, opariak higuigarriak dira, bertuteak ez baitu haien beharrik. Monarkia batean, ohorea opariak baino indartsuagoa da. Baina estatu despotiko batean, non ez baita ez ohorerik ez bertuterik, inor ezin da jardutera deliberatu, bizitzako erosotasunen esperantzaz ez bada.

Errepublikako ideietan oinarrituz zioen Platonek<sup>126</sup> beren betebeharrak betetzearen truke opariak jasotzen zituztenei heriotza-zigorra eman behar zitzaiela. "Ez da oparirik onartu behar" zioen berak, "ez gauza onengatik, ez eta txarrengatik ere".

Lege kaltegarria zen magistratuei opari txikiak hartzeko aukera ematen zien<sup>127</sup> erromatar lege hura<sup>128</sup>, opariak urtebetean ehun ezku baino gehiago ez izatekotan. Ezer ematen ez zaien ez dute ezer desiratzen; pixka bat ematen zaien pixka bat gehixeago nahi izango dute laster, eta asko gero. Bestalde, errazagoa da ezer hartu behar ez eta pixka bat hartzen duena konbentzitzea, gutxiago hartu behar eta gehiago hartzen duena baino; hauek beti aurkitzen dituzte aitzakia, estakuru, zergati eta arrazoi onargarriak.

## **XVIII. KAPITULUA**

### **Subiranoak ematen dituen saries.**

Gobernu despotikoetan, esan bezala, bizitza erosoagoaren esperantzaz baino ez baita inor jardutera behartua, saria ematen duen printzeak dirua besterik ez du emateko. Monarkia batean, ohorea baita nagusi, printzeak bereizkuntzak baino ez lituzke emango saritan, baldin eta ohoreak ezartzen dituen bereizkuntzek nahitaez beharrak sorrazten dituen luxua ekarriko ez balute; printzeak ohoreen bidez saritzen du, eta ohoreok aberastasuna dakarte. Baina errepublika batean, non bertutea baita nagusi, eta hori berez da nahikoa eta beste guztiak kanpo uzten baititu, Estatuak bertute horren testigantzen bidez baizik ez du saritzen.

Arau orokorra da sari handiak, monarkian eta errepublikan, hauen gainbeheraren adierazle direla; izan ere, sariok printzeak ustelduta daudela frogatzen dute; eta alde batetik, ohorearen ideiak ez duela hainbeste indar, eta bestetik, hiritartasuna ahuldu egin dela.

Erromako enperadorerik gaiztoenak izan ziren gehien eman zutenak. Adibidez, Kaligula, Klaudio, Neron, Oton, Vitelius, Komodo, Heliogabalo eta Karakala. Onenak, Augusto, Vespasiano, Antonino Pio, Marko Aurelio eta Pertinax, aurrezleak izan ziren. Enperadore onekin, Estatuak bere printzipioei heltzen zien berriro: ohorearen altxorrak beste altxorren lekua hartzen zuen.

## **XIX. KAPITULUA**

### **Hiru gobernu-eren ondorio berriak.**

Ez nuke liburu hau amaitu nahi nire hiru printzipioen aplikazio batzuk egin gabe.

Lehen galdera: legeek behartu egin behar al dute hiritar bat kargu publikoak hartzera? Nik diot gobernu errepublikar batean baietz, behartu egin behar dutela, baina ez monarkian. Lehenengoan, magistraturak bertutearen lekuko dira, aberriak hiritar bati uzten dizkion gordailuak, eta honek harentzat baino ez du bizi, jardun eta pentsatu behar; beraz, ezin egin diezaioke uko<sup>129</sup>. Bigarrenean, berriz, magistraturak ohorearen lekuko dira; alabaina, horra ohorearen bitxia, nahi duenean eta nahi bezala baino ez du onartzen ohoreren bat.

Sardiniako errege zenak<sup>130</sup> zigortu egiten zituen bere estatuko ohore eta karguei uko egiten zietenak; ideia errepublikarren arabera jarduten zuen, berak jakin gabe. Bestalde, haren gobernatzeko erak nahikoa argi frogatzen du ez zela hori haren asmoa.

Bigarren galdera: arau ona ote da hiritar bat, armadan, izan duena baino postu beheragoko bat hartzera behartuta egotea? Erromatarren artean, sarri gertatu ohi zen kapitainak bere laguntzailearen esanetara zerbitzatzea hurrengo urtean<sup>131</sup>. Izan ere, errepubliketan, bertuteak Estatuari nork bere burua eta bere goganbeharrak etengabe sakrifikatzea eskatzen du. Monarkietan, ordea, ohore egiazko edo faltsuak ezin du jasan bere ustez maila galtzea den hori.

Gobernu despotikoetan, ohore, postu eta mailak gehiegikeriaz erabiltzen baitira, berdin bihurtzen da printze bat lekaio, eta lekaio bat printze.

Hirugarren galdera: buru beraren gainean ezarriko al dira kargu zibilak eta militarak? Errepublikan, batu beharra dago, eta monarkian, berriz, bereizi beharra. Errepubliketan, arriskutsua litzateke armen lanbidea eginkizun zibilak dituenarengandik bereiztea, egoera partikular bihurtuz; eta monarkietan, ez luke arrisku gutxiagorik bi betekizunak pertsona berari emateak.

Errepublikan, legeak eta aberria defendatzeko baino ez dira hartzen armak; hiritar izateak aldi baterako soldadu izatea dakar. Bereizitako bi egoera balira, armadan egonda bere burua hiritartzat lukeenari, soldadu baino ez zela jakinaraziko litzaioke.

Monarkietan, gerra-jendeak loria besterik ez du xede, edota ohorea behinik behin, edota aberastea. Kontu handia izan behar da kargu zibilak horrelako jendeari ez emateko; aitzitik, magistratu zibilek izan behar dituzte karguok; eta pertsona berek ez dute izan behar, aldi berean, herriaren konfiantza eta konfiantza hori gaizki erabiltzeko ahalmena<sup>132</sup>.

Ikus, errepublika monarkia-itxura hartuta ezkutatzen den nazio batean, zein beldur handia zaion soldaduei antolamendu maila bat emateari; eta nola gerraria hiritar den beti, edota are magistratu ere; zertarako-eta bi tasunok aberriaren berme izan daitezen, eta hori ez dadin inoiz ahaztu.

Magistraturak zibil eta militarretan banatze hori, erromatarrek errepublika galdu eta gero egina, ez zen aukerakoa izan. Erromako konstituzioa aldatzearen ondorio izan zen: gobernu monarkikoaren izaerari zegokion. Eta Augustorekin hasitakoa<sup>133</sup>, ondorengo enperadoreek<sup>134</sup> burutu egin behar izan zuten, gobernu militarra leuntzeko.

Hala, Prokopiok, Valenterekin inperioa nork hartuko ari zela, ez zekien zertan ari zen Hormidasi –Pertsiko errege-odoleko printze bati– prokotsul kargua ematerakoan<sup>135</sup>, honek antzina gidatutako armada kargu horren mende jarri zuenean; salbu eta hura egiteko arrazoi partikularrak bazituen. Subiranotasuna lortu nahi duen gizon batek, Estatuari baliagarri zaiona baino, bere kausari baliagarri zaiona bilatzen du.

Laugarren galdera: komeni al da karguak salgarri izatea? Ez dute halakoak izan behar estatu despotikoetan, han printzeak noiznahi jar eta ken baititzake sujetak.

Salgarritasun hori ona da estatu monarkikoetan, hartara familiako lanbide gisa eginarazten baitu bestela bertutearen indarrez egingo ez litzatekeena; nor bere egitekora lotzen du, eta Estatuaren ordenak iraunkorrago bihurtzen ditu. Oso ondo dio Suidasek<sup>136</sup>, Anastasiok aristokrazia moduko bat bihurtu zuela inperioa magistratura guztiak salduz.

Platonek<sup>137</sup> ezin du jasan salgarritasun hori. Honela dio: "itsasontzi batean bakoitzaren diruaren arabera, bat pilotu eta bestea marinel egitea bezalakoa da hori. Ba ote daiteke arau hori, bizitzako edozein gauzatarako txarra izanik, errepublikaren martxa onerako ona izatea?". Baina Platon bertutean oinarritutako errepublika batez ari da, eta gu monarkia batez. Alabaina, monarkia batean, karguak araudi publiko batez salduko ez balira ere, kortesanoen pobrezia eta askonahiak salduko lituzke berdin-berdin; zoriak sujet hobeak emango ditu printzeak egindako aukerak baino. Azkenik, aberastasunei esker gora egiteko

moduak sustatu eta eutsi egiten dio lan-gogoari<sup>138</sup>; eta gobernu-mota honek horren behar handia du.

Bosgarren galdera: zein gobernutan behar dira zentsoreak? Errepublika batean bai, behar dira, gobernuaren printzipioa bertutea baita han. Delituek bakarrik ez dute bertutea suntsitzen; utzikeriak, hutsegiteek, halako epelkeriak aberriarekiko maitasunean, adibide arriskutsuek, ustelkeri haziak; alegia, legeen kontra joan gabe, saihestu egiten dituen guztiak; suntsitu ez baina ahuldu egiten dituenak; hori guztia zuzendu behar dute zentsoreek.

Harritu egiten gaitu areopagita hark jaso zuen zigorrak, gabirai batengandik ihesi zihoan txolarre bat bere golkoan babestu nahi eta hil egin zuelako. Harritu egiten gaitu areopagoak haur bati heriotza-zigorra ezartzea, bere txoria itsutu zuelako. Ohar gaitezen, hor ez dagoela delitu batengatiko zigorrik, baizik eta ohituren epaiketa bat, ohituren gainean oinarritutako errepublika batean.

Monarkietan ez da zentsoreen beharrik: ohorearen gainean oinarritzen dira, eta ohoreak, izatez, unibertso osoa du zentsoretzat. Horretan huts egiten duen gizon oro dago zentsuraren mende, baita ohorerik ez dutenen zentsuraren mende ere.

Monarkian, zentsoreen zuzenketa jaso beharko luketenek berek hondatuko lituzkete zentsoreak. Ez lirateke onak izango monarkia baten ustelkeriaren kontra; baina monarkia baten ustelkeria gogorregia izango litzateke haientzat.

Bistan da gobernu despotikoetan ez dagoela zentsoreen beharrik. Txinaren adibideak arau hau hausten duela dirudi; baina ikusiko ditugu, obra honetan aurrerago, hura han ezartzeko arrazoi bereziak.

## VI. LIBURUA

### GOBERNU-EREN PRINTZPIOEN ONDORIOAK, LEGE ZIBIL ETA KRIMINALEN SINPLETASUNARI, EPAIEN FORMARI, ZIGORRAK EZARTZEARI DAGOKIENEZ.

#### LEHEN KAPITULUA

##### Gobernu-era bakoitzeko lege zibilen sinpletasunaz.

Gobernu monarkikoak ez ditu despotikoak bezain lege sinpleak. Auzitegiak behar dira han. Auzitegi horiek erabakiak hartzen dituzte. Erabakiak gorde egin behar dira; ikasi egin behar dira, gaur atzo bezala epai dadin, eta hiritarren jabetzak eta bizia seguru izan daitezen, Estatuaren konstituzioa bera bezala.

Monarkia batean, bizen eta ondasunen gainean ez ezik, ohorearen gainean ere erabakiak hartzen dituen justizia bat administratzeak, azterketa xeheak eskatzen ditu. Epailleak arreta handiagoz jardun beharra dauka zenbat eta gordailu handiagoa izan, eta zenbat eta interes handiagoen gainean epaitu behar izan.

Beraz, ez dago zertan harritu estatu hauetako legeetan kasu partikularrak anizten dituzten eta arrazoia bera arte bihurtzen dutela diruditen hainbeste arau, murrizketa, luzapen aurkitzeagatik.

Gobernu monarkikoan diren maila-, jatorri-, egoera-desberdintasunek bereizketak eragiten dituzte ondasunen izaeran; eta estatu horren konstituzioari dagozkion legeek handitu egin dezakete bereizketa horien kopurua. Esate baterako, gure artean ondasunak propioak, eskuratuak edo irabazpidezkoak; dotalak eta parafernalak; aitagandikoak eta amagandikoak; hainbat motatako higigarriak; libreak, ordezkatuak; oinetxetarrak edo ez; nobleak, alodialak edo onuradunak; lur-errentak edo dirutza batez osatuak. Ondasun-mota bakoitza arau



jakin batzuen mende dago; horien arabera jokatu behar da ondasunak erabiltzeko; eta horrek ere sinpletasuna galarazten du.

Gure gobernuetan, feudoak herentziazko bihurtu dira. Beharrezkoa izan da nobleziak halako funts bat izatea, feudoaren jabea printzearen zerbitzuan egon ahal izateko. Horrek aldaera asko ekarri ditu; adibidez, zenbait herrialdetan ezin izan dira banatu feudoak anaien artean; beste batzuetan, bigarren semeak bizibide zabalagoak ukan ahal izan ditu.

Erregeak, bere probintzia bakoitza ezagutzen baitu, lege desberdinak ezar ditzake, edo ohitura desberdinak onartu. Baina despotak ez du ezer ezagutzen, eta ezin jar diezaioke arreta ezeri; dena martxa berberean joatea behar du; borondate zurrun beti batez gobernatzen du nonahi, dena lautzen da haren oinpean.

Monarkietan, auzitegietako epaiak ugaritu ahala, jurisprudentzia sententziaz betetzen da, eta batzuetan horietako batzuk kontrajarri egiten zaizkio elkarri; edota epaileek, bat bestearen ondoren etorriz, desberdin pentsatzen dutelako; edo auziak batzuetan ondo beste batzuetan gaizki defendatzen direlako; edo, azkenik, gizonen eskuetatik pasatzen den orotara lerratzen diren hainbat eta hainbat gehiegikeriagatik. Derrigorrezko gaitza da hori, legegileak noizean behin zuzentzen duena, gobernu moderatuaren izpirituaren kontrakoa delako. Izan ere, auzitegietara jo beharra gertatzen denean, hori konstituzioaren arabera egin behar da, eta ez legeen kontraesanen eta ziurgabetasunaren arabera.

Gobernu-era batean, pertsonen artean nahitaez bereizketak badaude, pribilegioak egon behar derrigor. Horrek are gehiago urritzen du sinpletasuna, eta mila salbuespen ekartzen du.

Gizarteari, eta batez ere emailari, karga txikienetakoa dakarkion pribilegio bat, norberak nahi duen auzitegira jotzea da. Horra arazo berriak; alegia, zein auzitegitara jo jakiteak dakartzanak.

Estatu despotikoetako herriak guztiz bestelako kasuan daude. Nik ez dakit herrialde horietan legegileak zertaz erabaki edo epaileak zertaz epai dezaketen. Lurrak printzearenak direnez, ia ez da lege zibilik lurren jabetzaz. Subiranoak oinordetzarako eskubidea duenez, ez da legerik oinordekotzez ere. Zenbait herritan, negozioetarako duen eksklusibitateak alferrikako bihurtzen ditu merkataritzari buruzko lege guztiak. Neska esklaboekiko ezkontzek emakumeen doteez eta abantailez ia legerik ez izatea dakarte. Hainbeste esklabo izateak zera dakar, ia ez dela borondate propiorik duen jenderik eta, ondorioz, epaile baten aurrean beren jokabideaz kontu eman dezaketenik. Ekintza moral gehienak, aitaren, senarraren edo ugazabaren borondatea baino ez direnez, horiek arautzen dituzte, eta ez magistratuek.

Ahaztu egin zait esatea ezen, guk ohore deitzen dioguna estatu horietan ia ezezaguna denez, ez dela ohoreari dagokion auzirik, gure artean halakoek hain sail handia osatzen duten arren. Despotismoak aski du bere buruarekin; hutsik dago dena haren inguruan. Horregatik, bidaiariek hura nagusi deneko herrialdeak deskribatzen dizkigutenean, oso gutxitan mintzatzen zaizkigu lege zibilez<sup>139</sup>.

Eztabaida eta epaiketarako aukera guztiak falta dira han, beraz. Horregatik, aldeztu hartzen dituzte hain gaizki auzilariak; haien eskarien bidegabekeria agerian geratzen da, hainbat eta hainbat lege ezkutatua, leundua edo babestua ez dagoenez.

## **II. KAPITULUA**

### **Gobernu-era bakoitzeko lege kriminalen sinpletasunaz.**

Maiz entzun ohi da justizia Turkian bezala partitu behar litzatekeela nonahi. Herri ezjakinenak ote dira jakintsuei gehien axola zaien gauza argien ikusi dutenak?

Justiziaren formalitateak aztertzen badituzue, hiritar batek berari dagokiona jasotzea edota edozein irainengatiko ordaina dela eta, ikusiko duzue gehiegi direla; baina hiritarren askatasunarekin eta segurtasunarekin duten zerikusia aztertzen baduzue, gutxiegi direla irudituko zaizue maiz; eta ikusiko duzue justiziaren nekeak, gastuak, luzapenak, are arriskuak ere, hiritar bakoitzak bere askatasunagatik ordaintzen duen prezioa direla.

Turkian, non oso kasu gutxi egiten baitzaie mendekoen ondasunei, biziari, ohoreari, laster amaitzen dira, batera edo bestera, eztabaida guztiak. Amaitzeko erak ez dio axola, amaitzea da kontua. Pashak, jakinaren gainean jarri eta gero, auzilariei oin azpitan makilazoak emateko agintzen du bere gogara, eta etxera bidaltzen ditu.

Oso arriskutsua litzateke han auzilarien grinak azalduko balira; alegia, justizia jasotzeko gogo bizia, gorrotoa, izpirituzko ekintza, eta aurrera egiteko seta. Hori dena baztertu egin behar da beldurra beste sentimendurik eskatzen ez duen gobernu batean, non denak, bat-batean eta aurrez konturatzeko modurik gabe, iraultzara baitarama. Bakoitzak jakin behar du beharrezko dela magistratuak beraz hitz egiten ez aditzea, eta nork bere ezerezetik baino ez duela ateratzen bere segurtasuna.

Baina estatu moderatuetan, non hiritar apalenaren burua aintzakotzat hartzen baita, azterketa luze baten ondoren baizik ez zaizkio ohorea eta ondasunak kentzen; ez zaio bizia kentzen aberriak berak erasotzen dionean baizik; eta ez dio erasotzen bere burua defendatzeko bide guztiak dituelarik baizik.

Horregatik, gizon bat absolutistago bihurtzen denean<sup>140</sup>, lehenik legeak sinpletzen ditu. Estatu horretan, hasteko, gehiago harritzen dute eragozpen partikularrek mendekoen askatasunak baino, eta honi ez zaio batere kasurik egiten.

Ikusten denez, errepubliketan, monarkietan adina formalitate behar dira, gutxienez. Gobernu batean eta bestean, formalitateok gehitu egiten dira hiritarren ohoreari, ondasunei, biziari, askatasunari egiten zaien kasuaren arabera.

Gizakiak berdinak dira denak gobernu errepublikarrean; berdinak dira gobernu despotan; lehenengoan, haiek dena direlako; bigarrenean, berriz, ezer ez direlako.

### **III. KAPITULUA**

#### **Zein gobernu-eratan eta zein kasutan epaitu behar den legearen testu zehatz baten arabera.**

Gobernua zenbat eta gehiago hurbildu errepublikara, hainbat eta finkoago bihurtzen da epaitzeko era; eta Lazedemoniako errepublikaren akats bat zen eforoek beren apeten arabera epaitzea, haiek gidatuko zituen legerik gabe. Erroman, lehen kontsulek eforoek bezala epaitzen zuten: ikusi ziren horren eragozpenak, eta lege zehatzak egin ziren.

Estatu despotikoetan, berriz, ez da legerik: epailea bera da araua. Estatu monarkikoetan, lege bat dago; eta beharrezko denean, epailea hari jarraitzen zaio; beharrezko ez denean, haren izpiritua aurkitu beharko du. Gobernu errepublikarrean, konstituzioaren izaerari dagokio epaileak legearen letrari jarraitzea. Ezin da ezein hiritarren kontra interpretatu legea, haren ondasunak, ohorea, edo bizia jokoan daudenean.

Erroman, epaileek akusatua bidegabekeria baten errudun zela besterik ez zuten esaten; eta zigorra legean zegoen, egin ziren legeetan ikus daitekeenez. Era berean, Ingalaterran, epaimahaikoek akusatua beren aurrera eramanean duen auzian erruduna den ala ez erabakitzen dute; eta errudun deklaratzeko badute, epaileak

legeak egintza horretarako ezarrita daukan zigorra ematen du; eta horretarako, begiak besterik ez ditu behar.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Epaiketak eratzeko moduaz.**

Hortik datoz epaiketak eratzeko modu desberdinak. Monarkietan, epaileek arbitroek bezala jokatzan dute; batera deliberatzen dute, beren pentsamenduak jakinarazten dizkiote elkarri, bat etortzen dira; iritzia aldatzen dute beste batenarekin ados izateko; gehienen iritzia nagusitzen da. Hori ez dagokio errepublikaren izaerari. Erroman, eta Greziako hirietan, zinpekoek ez zuten elkarrekin hitz egiten; bakoitzak bere iritzia ematen zuen, honako hiru modu hauetako batean: *absolbitu egiten dut, kondenatu egiten du, abstenitu egiten naiz*<sup>141</sup>; izan ere, herriak epaitzen zuen, edo epaitzen zuela jotzen zen. Baina herria ez da legeetan aditua; arbitroen aldaketa eta kontuhartze guztiak ez dira harentzat eginak; objektu bakarra aurkeztu behar zaio, egintza bat eta bakarra; eta ez zaio eskatu behar kondenatzea, absolbitzea edo epaia atzeratzea baizik.

Erromatarrek, greziarren ildotik, akzio-formulak sartu zituzten<sup>142</sup>, eta auzi bakoitza zegokion akzioaren bidez gidatu beharra ezarri zuten. Hori beharrezkoa zen beren epaitzeko moduan; auziaren nondik norakoa finkatu beharra zegoen, herriak beti begien aurrean izan zezan. Bestela, auzi handi batean zehar, auziaren nondik norako hori etengabe aldatuko zen, eta ezinezko gertatuko zen hura ezagutzea.

Horregatik, epaile erromatarrek eskatutako huraxe eta ez besterik ematen zuten, ezer gehitu, kendu edo aldatu gabe. Baina pretoreek beste akzio-formula batzuk asmatu zituzten, *fede oneko* deitu zituztenak<sup>143</sup>, zeinetan epaia jakinarazteko modua epailearen eskuanago geratzen baitzen. Hori hobeto

zegokion monarkiaren izpirituari. Horregatik, legelari frantsesek hauxe esaten dute: "Franzian<sup>144</sup>, prozedura guztiak dira fede oneko".

## V. KAPITULUA

### *Zein gobernu-eratan izan daitekeen subiranoa epaile.*

Makiavelok dioenez<sup>145</sup>, herriak bere kontra egindako *lesa majestate* delituak gorputz gisa ez epaitzeagatik galdu omen zuen Florentziak askatasuna. Horretarako, zortzi epaile zeuden. "Baina", dio Makiavelok, "gutxi behar da gutxi batzuk erosteko". Onartuko nuke gizon handi haren esana, baina kasu honetan interes politikoak, nolabait esateko, bortxatu egiten baitu interes zibila (zeren eta beti baita eragozpena herriari egindako irainak herriak berak epaitzea), hori konpontzeko, beharrezko da legeek, beren esku dagoen heinean, partikularren segurtasuna aurreikus dezaten.

Horretarako, Erromako legegileek bi gauza egin zituzten: akusatuei atzerriratzea onartu zieten<sup>146</sup> epaiketa baino lehen<sup>147</sup>; eta kondenatuen ondasunak sagaratuak izan zitezen erabaki zuten, herriak ez zitzaizkion legez bahituta jaso. XI. liburuan ikusiko ditugu herriak epaitzeko zuen ahalmenari jarri zitzaizkion mugak.

Solonek ondo hartu zien aurea herriak delituak epaitzerakoan egin zitzakeen gehiegikeriei: areopagoak auzia berrikus zezala ezarri zuen; akusatua bidegabe absolbitu zutela uste bazuen<sup>148</sup>, berriro akusa zezala herriaren aurrean; bidegabe kondenatu zutela uste bazuen<sup>149</sup>, berriz, geldiaraz zezala exekuzioa eta berriro epaiaraz zezala. Lege miresgarria, herria beronek gehien errespetatzen zuen magistraturaren zentsuraren mende jartzen zuena, bai eta bere buruaren mende ere!

On izango da halako auzietan geldi aritzea, batez ere akusatua preso dagoenean; herria lasaitu ahal dadin, eta odol hotzean epai dezan.

Estatu despotikoetan, printzeak berak epai dezake. Monarkietan ezin du: konstituzioa suntsitu egingo litzateke; tarteko botere mendekoak, ezabatuko lirateke; epaiketetako formalitate guztiak bertan behera geratuko; beldurra jabetuko litzateke izpiritu guztiez; aurpegi guztiak zurbil ageriko lirateke; akabo konfiantza, ohorea, maitasuna, segurtasuna, monarkia.

Hona hemen beste gogoeta batzuk. Estatu monarkikoetan, printzea akusatuen kontra ekiten dion alderdia da, zigortuak edo absolbituak izan daitezen; berak epai baleza, epaile eta alderdi litzateke.

Estatu horietan, maiz, konfiskatutako ondasunak printzeak jasotzen ditu; delituak epaituko balitu, berriz ere epaile eta alderdi litzateke.

Horrez gainera, bere subiranotasunaren ezaugarririk ederrena galduko luke: graziarena<sup>150</sup>. Zentzugabea litzateke hark bere epaiak egitea eta desegitea, eta ez luke bere buruarekin kontraesanean egon nahiko.

Horrez gainera, horrek ideia guztiak nahastuko lituzke, eta ezingo litzateke jakin gizon bat noiz izan den absolbitua, noiz barkatua.

Luis XIII.ak La Valetteko dukearen epaiketan<sup>151</sup> epaile izan nahi zuelarik, eta horretarako parlamentuko zenbait ofiziali eta zenbait estatu-kontseilariri deitu zienean, Bélièvre kontseiluburuak, erregeak behartu egin baitzituen atxilotze-dekretuaz beren iritzia eman zezaten, honela esan zuen: auzi hartan oso gauza arraroa ikusten zuela: printze batek bere sujet baten auzian iritzia ematea; erregeei grazia ematea baizik ez zegokiela, eta kondenatzea beren ofizialen esku jarrita zeukatela. "Eta Maiestate horrek, nahi ote luke ikusi gizon bat bere aurrean akusatuta, berorren epaiaren kariaz ordubeteren buruan heriotzara lihoakeena!". Printzearen aurpegiak, graziaren eramale izanik, ezin zuela halakorik jasan; bera ikuste hutsak elizetako debekuak indargabetzen zituela; printzearen aurretik pozik

baino ezin zela atera". Auzia bere sakonean aztertu zenean, kontseiluburu hark hauxe esan zuen bere iritzia ematerakoan: "Hau aurrekaririk gabeko epaiketa bat da, hots, iraganeko eta gaur arteko aurrekari guztien aurkakoa, Frantziako errege batek epaile gisa gizaki bat bere iritziz heriotzara kondenatzea"<sup>152</sup>.

Printzeak egindako epaiketak bidegabe eta abusuen iturri agortezina lirateke, kortesanoek, beren desagokitasunaren bidez, bortxatu egingo lituzkete haren epaiak. Erromako enperadore batzuek epaitzeko grina izan zuten; beste zekin erresumak ez zuen gehiago harritu mundua haien bidegabeek baino.

"Klaudiok", dio Tazitok<sup>153</sup>, "auzien epaitzea eta magistratuen betekizunak bereganaturik, harrapaketa-mota guztiei ireki zien bidea". Neronek ere, Klaudioren ondoren enperadore izatera iritsita, jendea bereganatu nahirik, honela esan zuen: "Inola ere ez zela izango auzi guztien epaile; akusatzaile eta akusatuak, jauregi baten hormen artean, zenbait libertoren botere bakarraren mende egon ez zitezen"<sup>154</sup>.

"Arkadioren erregetzan", dio Zozimok<sup>155</sup>, "kalumniatzaileen saldoa zabaltu egin zen, gortea inguratu eta kutsatu egin zuen. Gizon bat hiltzen zenean, ematen zen ez zuela haurrik utzi<sup>156</sup> eta haren ondasunak erreskriptu baten bidez ematen ziren. Izan ere, printzea oso ergela baitzen, eta enperatriza, berriz, guztiz saiaturia, emakumeak men egiten zion zerbitzari eta salatarien zekenkeria agortezinari; hartara, jende neurrizkoarentzat ez zegoen heriotza baino gauza desiragarriagorik".

"Antzina", dio Prokopiok<sup>157</sup>, "oso jende gutxi zegoen gortean; baina Justinianoren agintaldian, epaileek jadanik ez baitzuten justizia egiteko askatasuna, auzitegiak hutsik zeuden; printzearen jauregian, aldiz, alderdi batzuen eta besteen aldarrikapen-hotsak entzuten ziren, zein bere arazoez arduratuta". Mundu guztiak daki nola saltzen ziren epaiak, eta are legeak ere.



Legeak printzearen begiak dira: haiek gabe ikusiko ez lukeena ikusten du hark haien bidez.

## **VI. KAPITULUA**

### **Monarkian ministroek ez dutela epaitu behar.**

Monarkietan, beste eragozpen handi bat dago: printzearen ministroek berek epaitzen dituztela auziak. Gaur egun ere oraindik ikusten dugu zenbait estatuk ezin konta ahala epaile dituztela arazo fiskalak erabakitzeko, eta ministroek — lanak ditu sinesteak! — arazo horiek ere epaitu nahi dituztela. Gogoetak parrastan datozkit, baina ez dut haxe besterik esango:

Bada halako kontraesan bat, gauzen berezko izaeragatik, erregearen kontseiluaren eta auzitegien artean. Erregearen kontseilua pertsona gutxi osatu behar dute; eta justizi auzitegiek jende asko eskatzen dute. Horren arrazoia haxe da: lehenengoan, auziei halako suhertasun batez ekin behar zaiela, eta hori ezin espero daitekeela lauwpabost gizon baino gehiagorengandik, hori beren arazotzat hartzen badute. Aitzitik, justizi epaimahaiek odol hotzekoak izan behar dute, eta auzi guztietan, nolabait esanda, alderdi batera edo bestera egiten ez dutenak.

## **VII. KAPITULUA**

### **Magistratu bakarraz.**

Magistratu bakarra ezin da izan gobernu despotikoan baizik. Erromako historian ikusten da epaile bakar batek zenbateraino abusa dezakeen bere botereaz. Nola ez zituen Apiok, bere epaitegian, legeak mesprezatuko, berak egindakoa bera ere hautsi bazuen<sup>158</sup>? Tito Liviok jakinarazten digu ezenbiro haren bereizketa gaiztoa: gizon bat etorri zitzaion aurrera, Virginia bere

esklabotzat eskatuz; Virginiaren senideek zera eskatu zioten, bere legearen arabera, neska berei emateko behin betiko epaiketa izan arte. Apiok, ordea, bere legea aitaren alde egina zela deklaratu zuen, eta Virginio aita kanpoan zenez, legeak ez zuela aplikaziorik<sup>159</sup>.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Gobernu-era desberdinetan salatzeaz.**

Erroman<sup>160</sup>, hiritar batek bazeukan beste bat salatzea. Hori errepublikaren izpirituaren arabera zegoen ezarrita; izan ere, errepublikan, hiritar bakoitzak mugarik gabeko ardura izan behar du on publikoaz. Hiritar bakoitzak aberriaren eskubide guztiak bere eskuetan dauzkala jotzen da. Enperadoreekin ere errepublikaren arauetara egin zitzaizkion; eta lehenik jendaila-mota adur txarreko bat agertu zen, salatari-saldo bat. Grina txarrak eta talentuak, arima baxua eta askonahia zituen edonork, delitugile bat bilatzen zuen, printzeak gogoz kondenatuko zuen norbait; horixe zen ohoreak eta aberastasunak iristeko bidea<sup>161</sup>. Horrelakorik ez dugu geure artean.

Gaur egun lege miresgarri bat dugu, zeinen arabera, printzeak, legeak betearazteko baitago, ofizial bat proposa baitezake auzitegi bakoitzean, bere izenean delitu guztien kontra ekiteko; hartara, gure artean ez da ezagutzen salatariaren egitekoa. Eta susmatuko balitz mendekatzailerik publiko horrek gaizki erabiltzen zuela bere kargua, bere salaria izendatzera behartuko lukete.

Platonen legeetan<sup>162</sup>, magistratuak jakinaren gainean jartzen ez dituztenak, edo laguntza ematen ez dietenak, zigortu egin behar dira. Gaur egun ez litzateke horrelakorik komeniko. Akusazio publikoak babesten ditu hiritarrak; hark kabuz dihardu, eta hauek lasai daude.

## IX. KAPITULUA

### Gobernu-era desberdinetako zigorren gogortasunaz.

Zigorren gogortasuna hobeto doakio gobernu-era despotikoari, non printzipioa izulaborria baita, monarkiari eta errepublikari baino, hauek ohorea eta bertutea baitituzte baliabide.

Estatu moderatuetan, aberriarekiko maitasuna, lotsa eta gaitzespenen beldurra zio errepresioak dira, eta hainbat delitu galarazten dituzte. Ekintza gaizto batengatik zigorrik handiena gaizki egin izanaz sinetsita egotea izango da. Lege zibilek errazago zuzenduko dute, beraz, eta ez dute indar handirik beharko.

Estatu horietan, legegile ona gutxiago lotuko zaio delituak zigortzeari, delituak aurreikusteari baino; ohiturak emateari ekingo dio, suplizioak emateari baino gehiago.

Autore txinatarrek beti esan izan dute<sup>163</sup> ezen, zenbat eta suplizio gehiago izan beren inperioan, hainbat hurbilago zegoela iraultza. Izan ere, ohiturak galdu ahala gehitzen ziren suplizioak.

Erraza litzateke frogatzen ezen, Europako estatu guztietan edo ia guztietan, askatasunetik hurbilago edo urrunago izatearen arabera gutxitu edo gehitu direla zigorrak.

Herrialde despotikoetan, hain dira zorigaitzekoak non handiagoa baita heriotzari dioten beldurra, bizitzari dioten maitasuna baino; beraz, torturek han gogorragoak izan behar dute. Estatu moderatuetan, ordea, beldur handiagoa zaio bizia galtzeari, heriotzari berari baino; bizia besterik gabe kentzen duten zigorrak aski dira, beraz, haietan.

Gizaki guztiz zoriontsuek eta gizaki guztiz zorigaitzekoek gogorrerako joera berbera dute; monakoek eta konkistatzaileek, kasu. Erdibideak eta zori onaren eta txarraren nahasketak bakarrik ematen dute gozotasuna eta errukia.

Gizakiengan partikulariki ikusten dena aurkitzen da nazioetan ere. Herri basatietan —non bizimodu gogorra baitute—, eta gobernu despotikoa duten herrietan —non ez baita gizaki bakar bat besterik zoria bere alde duena, beste guztiak laidoztatuta daudelarik—, ankerkeria berdina da. Gobernu moderatuetan, gozotasuna da nagusi.

Historietan, sultanen justizia krudelaren adibideak irakurtzen ditugunean, giza izaeraren gaitzak sentitzen ditugu, halako oinaze batez.

Gobernu moderatuetan denak balio diezaioke legegile on bati zigor bihurtzeko. Ez al da harrigarria Espartan zigor nagusietako bat norberaren emaztea inori utzi ezina zela, eta besterena hartu ezina, edota etxean birjinekin soilik egon beharra? Hitz batean, legeak zigor deitzen dion guztia zigorra da.

## **X. KAPITULUA**

### **Frantziako lege zaharrez.**

Frantziako lege zaharretan aurkitzen da monarkiaren izpiritua. Diru-zigorrei dagokienez, noble ez direnek nobleek baino zigor arinagoak jasotzen dituzte<sup>164</sup>. Guztiz bestela gertatzen da delituetan<sup>165</sup>: nobleak ohorea galtzen du, eta hitza gortean; aldiz, bilauak, ez baitu ohorerik, bere gorputzean jasotzen du zigorra.

## **XI. KAPITULUA**

### **Herri bat bertutetsua denean zigor gutxi behar duela.**

Erromako herria zintzoa eta zuzena zen. Zintzotasun horrek hainbeste indar zuen, non sarritan legegileak on zena erakutsi besterik ez zeukan, herria hari jarrai zekion. Bazirudien ezen, araudien ordeztu, nahikoa zela aholku onak ematea.

Errege-legeen zigorrak, eta Hamabi Tauletako legeenak, ia denak kendu zituzten errepublikan, dela Lege Valeriarraren<sup>166</sup> segida gisa, dela Lege Portziarraren<sup>167</sup> ondorio gisa. Ez zuen ematen horregatik errepublika okerrago araututa zegoenik, eta hortik ez zen etorri inolako lege-makurrik.

Lege Valeriar horrek bide oro galarazten zien magistratuei herriagana jo zuen edozein hiritarren kontra ekiteko, eta gaizkiletzat hartua izatea beste zigorrik ez zion ezartzen lege-hausleari<sup>168</sup>.

## **XII. KAPITULUA**

### **Zigorren ahalmenaz.**

Esperientziak erakutsi duenez, zigorrak arinak diren herrialdeetan, zirrara eragiten dute hiritarraren izpirituan, zigor larriek beste leku batzuetan bezala.

Trabaren bat hauteman dutela estatu batean? Gobernu bortitz batek berehala zuzendu nahi du; eta lege zaharrak betearazten saiatu ordeztu, zigor ankerra ezartzen du, eta gaitza bertan behera kentzen. Baina horrela maiztu egiten da gobernuaren baliabidea; irudimena ohitu egiten da zigor handi horretara, txikira ohitu zen bezala; eta honen beldurra gutxitu egiten denez, laster bestea kasu guztietan ezarri beharra izaten da. Bide nagusietako lapurretak gauza arrunta ziren zenbait estatutan; gerarazi nahi izan ziren: gurpilaren tortura asmatu zen, eta aldi batez desagertu egin ziren. Aldi horren ondoren, ordea, aurrez bezalako lapurretak egin ziren bide nagusietan.

Gure garaian, desertzioa oso maiz gertatzen zen; heriotza-zigorra ezarri zen desertoreen kontra, eta desertzioa ez da gutxitu. Arrazoia guztiz naturala da: soldadu batek, bere bizia egunero arriskatzera ohiturik, mesprezatu egiten du, arriskua mesprezatzeaz harro agertzen da. Ohituta dago egunero lotsari beldur

izaten; beraz, bizitza osorako marka utziko zuen zigor bat<sup>169</sup> ezarri beharra zegoen. Zigorra handitu nahi, eta txikiagotu egin da.

Gizakiak ez dira eraman behar muturreko bideetatik; naturak ematen dizkigun bitartekoak erabiltzen jakin behar da. Azter bedi lasaikeria guztien kausa; ikusiko da nola delituak ez zigortzetik datorrela, ez zigorren bigunetik.

Segi diezaiogun naturari, gizakiei lotsa eman baitie zigortzat; eta zigorraren parte handiena zigortua izateagatiko lotsa izan dadila.

Izan ere, aurkitzen bada herrialderen bat non lotsa ez baita torturaren segida, hori tiraniatik dator, zigor berberak ezarri baitizkie gaizkileei eta jende zintzoari.

Eta ikusten badituzue beste batzuetan gizakiei tortura gogorren bidez baizik ez zaiela eusten, kontu egin ezazue, orduan ere, hori gobernuaren bortizkeriatik datorrela hein handi batez, tortura horiek hutsegite arinetarako erabili dituelako.

Maiz, gaitz bat zuzendu nahi duen legegile bat ez da arduratzen zuzentze horretaz baino; begiak horretarako dauzka zabalik, eta itxita dauzka eragozpenetarako. Gaitza behin zuzentzen denean, legegilearen gogortasuna baizik ez dute ikusten; baina Estatuan gogortasun horrek eragindako akats bat geratzen da: izpirituak hondatu egiten dira, ohitu egiten dira despotismora.

Lisandro<sup>170</sup> atenastarrak garaitu zituenean, preso hartutakoak epaitu zituzten; bi galeratako gatibuak amilarazi zituztelako salaketa egin zitzairen atenastarrei, eta preso har zitzaten guztiei ukabilak ebakiko zizkietela erabaki izana batzar orokorrean. Lepoa moztu zieten denei, Adimanteri izan ezik, dekretu haren kontra agertu zelako. Lisandrok zera aurpegiratu zion Filoklesi, hil baino lehen izpirituak galbideratu zituela, eta ankerkeria irakatsi ziola Grezia osoari.

"Argiboek", dio Plutarkok<sup>171</sup>, "mila eta bostehun hiritar hil zizkietelarik, atenastarrek pekamen-sakrifizioak egin zituzten, jainkoek atenastarren bihotzetatik halako pentsamendu ankerrak ken zitzaten".

Bi galbideratze-mota daude: bat, herriak legeei men egiten ez dienean; bestea, norbera legeek galbideratzen dutenean: gaitz sendaezina da hau, erremedioan bertan dagoelako.

### XIII. KAPITULUA

#### *Japoniako legeen ezina.*

Gehiegizko zigorrek are despotismoa bera ere galbidera dezakete. Ikus dezagun Japoniakoa.

Ia delitu guztiei ematen zaie heriotza-zigorra<sup>172</sup>, Japoniakoa bezalako enperadore handi bati desobeditzea izugarrizko delitua delako. Kontua ez da erruduna zuzentzea, printzea mendekatzea baizik. Ideia horiek esklabotzatik ateratakoak dira; eta jatorri hau dute: enperadorea ondasun guztien jabe izanik, ia delitu guztiak zuzenki haren interesen kontrakoak dira.

Heriotza-zigorra ematen da magistratuen aurrean esandako gezurrengatik<sup>173</sup>; eta hori defentsa naturalaren kontra doa.

Delitu-itxura ez duenak ere, zigor larria du han; adibidez, jokoan dirua arriskatzen duen gizonari, heriotza-zigorra ematen zaio.

Egia da herri tematsu, apetatsu, erabaki, bitxi, arrisku eta zorigaitz guztiei aurre ematen dien honen izaera harrigarriak lehen begiratuan absolbitu egiten dituela legegileak beren legeen ankerkeriatik. Baina heriotza naturalki mesprezatzen duen jendea, edozein txorakeriagatik sabela zulatzen duena, zuzentzen edo gerazten ote du torturak etengabe ikusteak? Ez al dira hartara ohitzen?

Kontakizunek japoniarren hezkuntzari buruz dioskutenez, haurrak emeki tratatu behar dira, zigorren kontra setatzen direlako; esklaboak ez dira gogorregi tratatu behar, berehala kontrakarrean jartzen direlako. Etxea gobernatzen nagusi

izan behar duen izpiritu horren ildotik, ez ote zegoen sumatzerik gobernu politiko eta zibilean izan beharreko izpiritua?

Legegile jakintsu bat zigorren eta sarien oreka justuaren bidez saiaturiko zatekeen izpirituak gidatzen: izaera horri dagozkion filosofia, moral eta erlijioak arauen bidez; ohore-arauak ondo erabiliz; lotsaren oinazeaz; zorion etengabea eta lasaitasun ezia gozatuz. Eta beldur izan balitz izpirituak zigor anker batek baizik ez geraraztera ohituta egonik, zigor arinago batek ez lituzkeela geraraziko, sor eta gor jardungo zukeen<sup>174</sup>; kasu partikular barkagarrietan, arindu egingo zukeen delituaren zigorra, harik eta kasu guztietan aldatzea lortu arte.

Baina despotismoak ez ditu baliabide horiek ezagutzen; ez doa bide horietatik. Bere burua gehiegikeriaz trata dezake, baina horixe da egin dezakeen guztia. Japonian, ahalegin bat egin du: zena baino ankerrago bihurtu da.

Etengabe izututako eta ankerragotutako arimak ezin izan dira gidatu ankerkeria are handiagoaren bidez baino.

Horra Japoniako legeen jatorria, horra izpiritua. Baina gehiago izan dute suminetik, indarretik baino. Lortu dute kristautasuna suntsitzea; baina ahalegin hain itzelak ezintasunaren froga dira. Legeria ona ezarri nahi izan dute, eta haien ahulezia are bistanago geratu da.

Irakurri egin behar da enperadoreak eta Deiroak Meakon izan zuten elkarriketa<sup>175</sup>. Ezin sinets liteke zenbat ito edo hil zituzten han gizatxarrek: neska eta mutilak bahitu zituzten; egunero ikus zitezkeen gero haiek leku publikoetan, ezorduetan, biluzik, ehunezko zakuetan josita, pasatutako lekuak ezagut ez zitzaizkien; nahi zen guztia lapurtu zen; sabela ireki zitzaizkien zaldiei, gainean zihoazenak lurreratzeko; zalgurdiak itzulipurdikatu zituzten, andreei lapurreta egiteko. Holandesak, tranpaldo gainetan gaua ezingo zutela pasatu esan baitzitzaizkien —bestela hil egingo zituztela eta—, jaitsi egin ziren handik, e.a.



Beste gertaera batzuetara pasatuko naiz bizkor. Enperadorea, plazer lotsagarrietara emana, ez zen ezkontzen; ondorengorik gabe hiltzeko arriskuan zegoen. Deiroak bi neska oso eder bidali zizkion; begiruneagatik ezkondu zen batekin, baina ez zuen inolako harremanik izan berarekin. Ugazamak inperioko neskari ederrenak bilatu zituen. Dena alferrik. Armadore baten alabak zirrara eragin zion<sup>176</sup>; ekin zion eta seme bat izan zuen. Gorteko damek, hain jatorri apaleko norbait beren aurretik jarri zuelako suminduta, ito egin zuten haurra. Krimen hori ezkutatu egin zioten enperadoreari; odol-errekak ekarriko zituzkeen bestela. Legeen ankerrak, bada, galarazi egiten du haiek betearaztea. Zigorra neurrigabea denean, maiz nahiago izan behar izaten da zigorrik eza.

#### **XIV. KAPITULUA**

##### **Erromako senatuaren izpirituaz.**

Azilio Glabrioren eta Pisonen kontsulaldian, Lege Aziliarra<sup>177</sup> egin zen azpijokoak gerarazteko. Dionek dio<sup>178</sup> senatuak behartu egin zituela kontsulak hura proposa zezaten, K. Kornelio tribunoak delitu horren kontra, zeinetara herria isuria baitzen, zigor izugarriak ezartzea erabakia baitzuen. Senatuak uste zuen neurrigabeko zigorrek izuikara eragingo zutela izpirituetan; baina ondorio hau izango zutela, engoitik ez zela inor aurkituko ez akusatzaile ez kondenatzailerik; zigor txikiak proposatuz, aldiz, epaileak eta akusatzaileak izango zirela.

#### **XV. KAPITULUA**

##### **Erromatarren legeez, zigorrei zegokienez.**

Gero eta seguruago nago esaten ditudanez, erromatarrek nire alde ditudanean; eta uste dut zigorrek zerikusia dutela gobernu-motarekin; izan ere,

herri handi horrek, alde horretatik, lege politikoak aldatu ahala, lege zibilak aldatzen zituela ikusten dut.

Erregeen garaiko legeak, iheslez, esklaboz eta lapurrez osatutako herri batentzat eginak, oso gogorrak izan ziren. Errepublikaren izpirituak dezenbiroek lege horiek Hamabi Tauletan ez jartzea eskatuko zukeen; baina tirania xedetzat zuen jendea ez zen arduratzen errerepublikaren izpirituari jarraitzeaz.

Tito Liviok, Metio Sufetio Albako diktadorearen torturaz ari dela —Tulo Hostiliok bi zalgurdik herrestan eramana izatera kondenatu baitzuen—, zera dio<sup>179</sup>, horixe izan zela gizatasunaren kontzientzia galdu zela erakusten zuen lehen eta azken tortura. Oker dago: Hamabi Tauletako legea xedapen oso ankerrez beteta dago<sup>180</sup>.

Dezenbiroen asmoa, libelogileen eta poeten kontra egindako heriotza-zigorrek adierazten du ondoen. Hori ez dagokio errerepublikaren berezko jiteari, han herriak gogoko baitu handikiak apaldurik ikustea. Baina libertatea kendu nahi zutenak libertatearen izpiritua gogoraz zezaketen idatzien beldur ziren<sup>181</sup>.

Dezenbiroak kanporatu ondoren, zigorrak finkatzen zituzten ia lege guztiak kendu ziren. Ez ziren espreski indargabetu, baina Lege Portziarrak erromatar hiritar bati heriotza ematea debekatua zuenez, ez zuten aplikaziorik izan.

Tito Liviok erromatarrez dioena<sup>182</sup> esan liteke garai hartaz ere: ezein herrik ez duela maiteago izan zigorrak orekatuak izatea.

Izan ere, zigorren leunari akusatu batek epaiketaren aurretik erretiratzeko zuen eskubidea eransten bazaio, ondo ikusiko da erromatarrek nik errepublikari berez doakiola esan dudana izpiritu horri atxiki zitzaizkiola.

Silak, tirania, anarkia eta askatasuna nahasten baitzituen, Lege Korneliarrak egin zituen. Bazirudien araudiak delituak ezartzeko baino ez zituela egin. Hala, hainbat eta hainbat egintza hilketatzat joz, nonahi aurkitu zituen hiltzaileak; eta

gehiegi jarraitu zitzaizkion praktika baten bidez, segadak prestatu zituen, arantzak erein, amildegiak ireki hiritar guztien bidean.

Silaren ia lege guztiek ura eta sua debekatzen zuten, besterik ez. Zesarrek ondasunen konfiskazioa erantsi zien<sup>183</sup>; izan ere, aberatsak, atzerriratuta zeudenean beren ondarea galtzen ez zutenez, ausartagoak ziren delituak egiteko.

Enperadoreek gobernu militarra ezarri zutenez, laster ohartu ziren hura sujetentzat bezain izugarria zela berentzat ere; leundu egin nahi izan zuten; ohoreen eta ohoreekiko zegoen begirunearen beharra zeukatela uste izan zuten.

Monarkiara hurbildu ziren pixka bat, eta zigorrak hiru motatan sailkatu zituzten<sup>184</sup>: Estatuko lehen pertsoneri zegozkienak<sup>185</sup>, arin samarrak; beheagoko maila bateko pertsoneri ematen zitzaizkienak<sup>186</sup>, larriagoak; azkenik, beheko giza klaseei baino ez zegozkienak<sup>187</sup>, gogorrenak.

Maximino basati eta burugabeak, gozatu beharrean, gogortu egin zuen, esan dezagun horrela, gobernu militarra. Senatua ohartu zen, dio Kapitolinok<sup>188</sup>, batzuk gurutziltzatu egin zituztela, beste batzuk piztietara bota, edo piztia hil berrien larru barruan sartu, hierarkiei inolako begirunerik izan gabe. Bazirudien diziplina militarra erabili nahi zuela eta eredu horren arabera konpondu nahi zituela arazo zibilak.

*Erromatarren Handitasunari eta Gainbeherari Buruzko Kontsideroak* obran aurkituko da nola Konstantinok despotismo militarra despotismo militar eta zibil bihurtu zuen, eta nola monarkiara hurbildu zen. Estatu horrek hurrenez hurren izandako iraultzak ere ikus daitezke han, eta nola pasatu ziren gogortasunetik soraiotasunera, eta soraiotasunetik zigorgabetasunera.

## **XVI. KAPITULUA**

***Zigorraren eta delituen arteko proportzio justuaz.***

Funtsezkoa da zigorrek harmonia izatea beren artean; funtsezkoa delako delitu handi bat txiki bat baino lehen eragozte; gizarteari kalte gehiago egiten diona, zauri txikiagoa egiten diona baino.

"Konflatino Dukas zeritzan iruzurti batek<sup>189</sup> matxinada handia eragin zuen Konstantinoplan. Atxitu zuten, eta zigorradak hartzera kondenatu; baina itzaleko jendea salatu zuenez, sutara kondenatu zuten, kalumniatzailea zela eta". Bitxia da horrelako proportzioa egotea *lesa majestate* delituaren eta kalumniaren artean.

Horrek Karlos II.a Ingalaterrako erregearen hitz batzuk dakarzkigu gogora. Pasaeran, gizon bat ikusi zuen pikotan. Galdetu du zergatik zegoen han. "Jauna", esan diote, "zure ministroen kontra libeloak egin dituelako". "Inozoa halakoa!", erregeak erantzun, "Zergatik ez zituen nire kontra idatzi? Ez zioten ezer egingo".

"Hirurogeita hamar lagunek konspiratu egin zuten Basilio enperadorearen kontra<sup>190</sup>; zigorkarazi egin zituen; ileak eta larrua erre zizkieten. Egun batez, orein batek bere adarrez gerrikotik heldu zionean, bere segizioko batek ezpata atera eta gerrikoa ebaki zion, eta hartara askatu. Hark, ordea, askatu zuenari lepoa mozteko agindu zuen, ezpata bere kontra atera zuela eta". Nork pentsatuko luke printze berberaren aldian eman zirela bi epai horiek?

Gaitz handia da, gure artean, zigor berbera ematea bide nagusi batean lapurreta egiten duenari eta lapurreta egin eta gainera hilketa egiten duenari. Bistan da alderen bat ezarri behar litzatekeela, segurtasun publikorako, zigorrean.

Txinan, lapur ankerrak zatikatzen dituzte<sup>191</sup>, ez besteak; alde horren eraginez, lapurretan bai, baina hilketarik ez da egiten.

Moskovian, non lapurren zigorra eta hiltzaileena berbera baita, lapurrek hil egiten dute beti<sup>192</sup>. Hildakoek, diote han, ez dute ezer esaten.

Zigorrean inolako alderik ez dagoenean, barkamen-itxaropenean ezarri behar da aldea. Ingalaterran ez da hilketarik egiten; lapurrek kolonietara eramanak izateko itxaropena izan dezaketelako, baina hiltzaileek ez.

Barkamen-zedulak gobernu moderatuen baliabide handia dira. Printzeak barkatzeko duen ahalmen horrek, zuhurtziaz erabiliz gero, ondorio miragarriak izan ditzake. Gobernu despotikoko printzeak, ez baitu barkatzen, eta inoiz ez baitiote barkatzen, ez ditu abantaila horiek.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Delitugileen kontrako torturaz.**

Gizakiak gaiztoak direnez, legea behartuta dago diren baino hobeak direla ematera. Horregatik, bi lekukoren deklarazioa nahikoa da delitu guztiak zigortzeko. Legeak sinetsi egiten die, egiaren ahotik mintzatuko bailiran. Ematen da, halaber, ezkontzaren barruan sortutako haur guztiak legezkoak direla: legeak konfiantza du amarengan, kastitatea bera bailitzan. Baina delitugileen kontrako tortura ez da horiek bezain derrigorrezko. Gaur egun ikusten dugunez, nazio oso zibilizatu batek<sup>193</sup> uko egiten dio eragozpenik gabe. Hortaz, berez ez da beharrezko<sup>194</sup>.

Hainbeste jende iaiok eta hainbeste jeinu handik idatzi izan dute praktika horren kontra, non ez naizen ausartzen haien ondotik hitz egiten. Esatera nindoan tortura komenigarria izan daitekeela gobernu despotikoetan, non beldurra eragiten duen oro gobernuaren baliabideen sailean sartzen baita; esatera nindoan esklaboek, greziarren eta erromatarren artean... Baina naturaren ahotsa aditzen dut nire kontra oihuka.

## **XVIII. KAPITULUA**

### **Diru-zigorrez eta gorputz-zigorrez.**

Gure arbasoek, germaniarrek, ez zuten onartzen diru-zigorrak besterik. Gizaki gerrari eta libre haiek uste zuten beren odola armak eskuetan baizik ez zela isuri behar. Japoniarrek<sup>194</sup>, aitzitik, uko egiten diete zigor-mota hauei, aberatsek zigorra ekidingo luketela aitzakia. Baina aberatsek ez al diote beldur beren ondasunak galtzeari? Diru-zigorrek ezin al dira ondasunen proportzioan egokitu? Azkenik, ezin al zaie lotsa gaineratu zigor horiei?

Legegile onak erdibidetik jotzen du: ez ditu beti diru-zigorrak agintzen; ez ditu beti gorputz-zigorrak ematen.

## **XIX. KAPITULUA**

### **Talioaren legeaz.**

Estatu despotikoek, lege sinpleen zale baitira, asko erabiltzen dute talioaren legea<sup>195</sup>; estatu moderatuek kasu batzuetan onartzen dute. Baina bada alderik: lehenek laztasun osoz erabiltzen dute, eta besteek ematu egiten dute ia beti.

Hamabi Tauletako legeak bi kasutan onartzen zuen: auzilaria bakeratu ezin izan zuenean baino ez zuen talioaren kondena ematen<sup>196</sup>. Kondenaren ondoren, kalte-galerak ordain zitezkeen<sup>198</sup>, eta gorputz-zigorra diru-zigor bilakatzen zen<sup>199</sup>.

## **XX. KAPITULUA**

### **Haurren ordezkuraz gurasoak zigortzeaz.**

Txinan gurasoak zigortzen dituzte beren hurrek egindako hutsengatik. Horixe zen Peruko usadioa ere<sup>200</sup>. Hori ere ideia despotikoetatik aterata dago.

Txinan aita, aita den aldetik naturak eman dion eta legeek emendatu dioten ahalmena ez erabiltzeagatik zigortzen omen da; horrek zera esan nahi du beti, txinatarren artean ez dela ezagutzen ohorerik. Gure artean, torturara

kondenatutako haurren aita, eta bide bera segitutako aitaren haurra<sup>201</sup>, Txinan bizia galtzeak zigortuko lituzkeen bezainbat zigortzen ditu lotsak.

## **XXI. KAPITULUA**

### **Printzearen errukitasunaz.**

Errukia erregeen ezaugarri berezia da. Errepublikan, non bertutea baita printzipioa, errukia ez da hain beharrezko. Estatu despotikoan, non beldurra baita nagusi, gutxiago erabiltzen da; Estatuko handikiei gogortasun-etsenpluen bidez eutsi behar zaielako. Monarkietan, non ohoreak gobernatzen baitu, eta maiz legeak debekatzen duena exijitzen baitu, beharrezkoago da. Zoritxarra zigorraren baliokide da: epaiketen formalitateak berak zigorrak dira. Lotsa alde guztietatik dator, zigor-mota bereziak eratzen dituelarik.

Zoritxarrek eta, inoiz irudimenez bakarrik bada ere, ondasunak, sinesgarritasuna, ohiturak, plazerrak galtzeak hain gogor zigortzen dituzte handikiak, non haiekiko laztasuna alferrikakoa baita; sujetei printzeari dioten maitasuna kentzeko baino ez du balio, eta karguei izan behar dieten begirunea.

Handikien ezegonkortasuna gobernu despotikoaren izatea den bezala, handikien segurtasuna monarkiaren izateari dagokio.

Erregeek hainbeste dute irabazteko errukiaren bidez, hainbeste maitasun sortzen du errukiak ondorioz, hainbeste loria irabazten dute hari esker, non ia beti ongi etorria egiten baitiote hura erabiltzeko aukerari; eta gure barrutiotan ia beti egin daiteke hori.

Beharbada autoritatearen adarren bat jarriko zaie auzitan, inoiz ez autoritate osoa; eta inoiz koroa irabazteko borrokatzen badira, ez dira biziagatik borrokatzen.

Baina, esango da, noiz zigortu behar da? Noiz barkatu behar da? Hori sentitu egiten da, ez dago araurik ematerik. Errukiak arriskuak dituenean, arriskuok oso bistakoak izan ohi dira. Erraz bereizten da ahuleziatik, printzeari mesprezioa eta zigortu ezina dakarkion ahuleziatik.

Maurizio enperadoreak<sup>202</sup> sujeten odolik inoiz ez isurrarazteko erabakia hartu zuen. Anastasiok<sup>203</sup> ez zituen zigortzen delituak. Isaak Angelok zin egin zuen bere erregealdian ez zuela inor hilko. Enperadore grekoek ahaztua zuten ezpata ez zeramatera alferrik.



## VII. LIBURUA

### HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOEN ONDORIOAK, LUXUARI

### BURUZKO LEGEEI, LUXUARI ETA EMAKUME IZATEARI

### DAGOKIENEZ.

## LEHEN KAPITULUA

### Luxuaz.

Luxua ondasunen desberdintasunarekiko proportzioan da beti. Baldin eta, estatu batean, aberastasunak berdin banatuta badaude, ez da luxurik izango; izan ere, luxua besteren lanari esker lortutako erosotasunen gainean oinarritzen da.

Ondasunak berdin banatuta egon daitezten, legeak bakoitzari bizitzeko beharrezko dena baizik ez ematea, besterik ez da behar. Hortik aurrera ukanez gero, batzuek gastatu, besteek erosi, eta desberdintasuna sortuko da.

Bizitzeko beharrezkoa den hori dirutza jakin bat dela emanda, beharrezko hori besterik ez daukatenean luxua hutsa izango da; hori halako bi duenak bateko luxua izango du; azken honen ondasunak halako bi duenak, hiruko luxua izango du; honek halako bi duenak, berriz, zazpiko luxua; hartara, hurrengo partikularren luxua, beti ere aurrekoak halako bi duela emanez, luxua bikoitza gehi bat izango da beti, honako era honetan: 0, 1, 3, 7, 15, 31, 63, 127.

Platonen errepublikan<sup>204</sup>, luxua zehatz kalkula zitekeen. Lau errolda-mota zeuden. Lehena pobrezia amaitzen zen muga huraxe zen zehazki; bigarrena, horren doblea; hirugarrena, lehena halako hiru; laugarrena, lehena halako lau. Lehen erroldan, luxua zero zen; bat zen bigarrenean, bi hirugarrenean, hiru laugarrenean; eta proportzio aritmetikoan hazten zen gisa horretan.

Herrien luxua kontsideratuz, batzuk besteekin alderatuz, hiritarren arteko ondasun-desberdintasunen arabera da estatu bakoitzean, eta estatu batzuen eta

besteen aberastasunen desberdintasunaren arrazoi konposatuaren araberakoa, Polonian, adibidez, ondasunak guztiz desberdinak dira; baina guztien pobreziak galarazi egiten du estatu aberats batean hainbesteko luxua izatea.

Luxua hirien —eta batez ere hiriburuaren— handitasunarekiko proportzioan ere badago, hala non Estatuaren aberastasunen, partikularren ondasunen desberdintasunaren, eta zenbait lekutan biltzen diren gizakien kopuruaren arrazoi konposatuaren araberakoa baita.

Zenbat eta gizaki gehiago bildu, hainbat harroputzago izaten dira, eta gauza txikien bitartez nabarmentzeko gogo sortzen zaie<sup>205</sup>. Baldin eta, hainbeste izanik, gehienek elkar ezagutzen ez badute, nabarmentzeko gogo bikoiztu egiten da, hori lortzeko itxaropen handiagoa dagoelako. Luxuak ematen du itxaropen hori; bakoitzak bere aurretik dagoenaren markak hartzen ditu beretzat. Baina nabarmendu nahi horretan, dena berdin bilakatzen da, eta ez dago nabarmentzerik: denek nabarmendu nahi dutenez, inor ez da bereizten.

Gauza horietatik guztietatik deserosotasun orokorra etorri ohi da. Lanbide batean gailentzen direnek, nahi duten prezioa jartzen diote beren arteari; talentu txikiagokoek bide horretatik jotzen dute; ez da harmoniarik izaten orduan premien eta bitartekoen artean. Inori auzia jarri nahi diodanean, beharrezko zait abokatu bati ordaindu ahal izatea; gaixorik nagoenean, beharrezkoa zait sendagile bat ukan ahal izatea.

Zenbaitek pentsatu izan du hiriburu batean hainbeste jende metatzean gutxitu egiten zela merkataritza, gizakiak ez daudelako elkarrengandik tarte batera. Ez dut uste hori horrela denik; denak batera egonda, desira gehiago daude, behar gehiago, fantasia gehiago.

## **II. KAPITULUA**

**Demokraziako luxuari buruzko legeez.**

Esan berri dut errepubliketan, non aberastasunak berdin banatuta baitaude, ezin dela luxurik izan; eta bosgarren liburuan berdintasun horrek errepublika baten bikaintasuna zekarrela ikusi dugunez<sup>206</sup>, zenbat eta luxu gutxiago izan errepublika batean, hainbat eta perfektuagoa izango da. Ez zegoen luxurik batere lehen erromatarren artean; ez zegoen batere lazedemoniarren artean ere; eta berdintasuna erabat galdurik ez dagoen errepubliketan, merkataritza-, lan- eta bertute-izpirituak dakar bakoitzak bere ondasunetatik bizi ahal eta nahi izatea eta, beraz, luxu gutxi da han.

Lurren banaketa berriaren legeak, zenbait errepublikatan behin eta berriz eskatuak, onak ziren berez. Bat-batean ezartzen badira baizik ez dira arriskutsuak. Bat-batean batzuei aberastasunak kenduz, eta beste batzuenak handituz, iraultza dakarte familia bakoitzera, eta iraultza orokorra eragin behar dute Estatuan.

Luxua errepublika batean ezarri ahala, izpiritua interes partikularrera begira jartzen da. Beharrezkoa besterik ez dutenei, aberriaren eta beren loria baizik ez zaie geratzen desiragarri. Baina luxuak hondatutako arima batek beste hainbat desira ditu: laster bihurtuko da enbarazu egiten dioten legeen etsai. Rhègeko goarnizioa luxutan sartzearen ondorioz, biztanle guztiei zintzurra moztu zieten.

Erromatarrek galbideratu bezain laster, haien desirak neurrigabe bihurtu ziren. Gauzei jarri zizkieten prezioetatik atera daiteke hori. Pitxer bat Falernoko ardo, ehun denario erromatarretan saltzen zen<sup>207</sup>; barrika bat Pontoko haragi gazitu, laurehun kostatzen zen; sukaldari on bat, lau talentu; mutil gazteek ez zuten preziorik. Bulkada orokor bati jarraituz<sup>208</sup>, mundu guztia atseginzaletasunera eman zenean, zer gertatu zitzaion bertuteari?

### **III. KAPITULUA**

**Aristokraziako luxuari buruzko legeez.**

Gaizki eratutako aristokraziak zorigaitz hori du, nobleek aberastasunak dituztela, eta hala ere ezin gasta ditzaketela; luxua, neurritasun-izpirituaren kontrakoa izaki, legez kanpo utzi behar da. Beraz, besterik ez da izango han: oso jende pobrea, hartu ezin duena, eta oso jende aberatsa, gastatu ezin duena.

Venezian, legeek apaltasunera behartzen dituzte nobleak. Hain daude aurreztera ohituta, non prostitutek bakarrik emanarazten baitiete dirua. Bide horretaz baliatzen dira han industriari eusteko; emakumerik mesprezagarrienek arriskurik gabe xahutzen dute; aldiz, haiei dirua ematen dietenek bizimodurik ilunena dute.

Greziako errepublika onek, alde honetatik, instituzio miresgarriak zituzten. Aberatsek festetan enplegatzen zuten dirua, musika-koruetan, zalgurdietan, lasterketako zaldietan, magistratura garestietan. Aberastasunak pobrezia bezain zama astuna ziren.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Monarkiako luxuari buruzko legeez.***

"Suioniarrek, nazio germaniar bat, ohore egiten diete aberastasunei", dio Tazitok<sup>209</sup>, "eta horrek bakar baten gobernupean bizitzea dakarkie". Horrek esan nahi du luxua monarkiei dagokiela batez ere, eta ez dela luxuari buruzko legeen premiarik.

Monarkien konstituzioaren arabera, aberastasunak desberdin banatuta daudenez, derrigorrezkoa da han luxua izatea. Aberatsek asko gastatzen ez badute, pobreak gosez hilko dira. Are gehiago, beharrezkoa da aberatsek beren ondasunen desberdintasunaren proportzioan gastatzea eta, esan dugunez, luxua proportzio horretan gehitzea. Partikularren aberastasunak hiritarren parte bati bizitzeko

beharrezko zutena kendu zaielako handitu dira; beraz, hiritar horiei itzuli egin behar zaie kendutakoa.

Horrenbestez, estatu monarkikoak iraun dezan, luxuak gero eta handiagoa izan behar du, hasi nekazariagandik eta artisaua, merkataria, nobleak, magistratuak, jaun handiak, negoziogile handiak, printzeenganaino; hori gabe, galdua litzateke dena.

Erromako senatuan, magistratu grabeek, legelariak eta lehen aldietako ideiaz betetako gizakiek osatzen zutelarik, emakumeen ohiturak eta luxua zuzentzea proposatu zen Augusto enperadore zela. Harritu egiten gara Dioni<sup>210</sup> irakurtzean zelako arteziaz saihestu zituen Augustok senadore haien eskaera gogaitarazleak. Izan ere, monarkia sortu eta errepublika desegin baitzuen.

Tiberioren aldian, edilek luxuari buruzko lege zaharrak berrezartzea proposatu zuten senatuan<sup>211</sup>. Printze hark, argia baitzen, kontra egin zion horri: "Estatuak ez luke iraungo, gauzak dauden bezala egonik. Nola biziko litzateke Erroma? Nola biziko lirateke probintziak? Urritasuna genuen, hiri bakarreko biztanle ginenean; gaur egun, ordea, unibertso osoko aberastasunak kontsumitzen ditugu; guretzat jarri ditugu lanean ugazabak eta esklaboak". Ondo asko ikusten zuen ez zegoela luxuari buruzko legeen premiarik.

Enperadore horrexen aldian, senatuan gobernatzaileei beren emazteak probintzietara eramatea debekatzea proposatu zenean, emakumeek han sortzen zituzten arazoak zirela eta, atzera bota zen proposamen hori. Zera esan zen, "arbasoen gogortasunaren etsenpluak aldatuak zirela bizitzeko era atseginago batera"<sup>212</sup>. Ohartzen ziren beste ohitura batzuk behar zirela.

Hala, bada, luxua beharrezkoa da estatu monarkikoetan; baita estatu despotikoetan ere. Lehenengoetan, dagoen askatasuna erabiltzeko modu bat da; besteetan, esklabotzaren abantailez baliatu egiten den gehiegikeria bat: esklabo bat, ugazabak beste esklaboak zapaltzeko aukeratua, egunero biharamuneko

zoriaz segurtasunik gabe, egunean eguneko harrotasuna, desirak eta atseginzaletasunak asetzea beste zorionik ez balu bezala.

Honek guztiak gogoeta hau egitera garamatza: errepublikak luxuagatik amaitzen dira; monarkiak, berriz, pobreziagatik<sup>213</sup>.

## **V. KAPITULUA**

### ***Luxuari buruzko legeak zein kasutan diren baliagarri monarkia batean.***

Errepublikaren izpirituan, edo kasu partikular batzuetan, egin ziren Aragoi  
luxuari buruzko legeak, hamahirugarren mendearen erdi aldera. Jaime I.ak agindu  
zuen ez erregeak ez sujetetako inork jan ahalko zutela bi okela-mota baino  
gehiago otordu bakoitzean, eta mota bakoitza era bakar batean baizik ez zela  
atonduko, norberak ehizatua ez bazen<sup>214</sup>.

Suedian ere, gure garaian, egin dira luxuari buruzko legeak; baina  
Aragoikoek ez bezalako xedea dute haiek.

Estatu batek urritasun erabatekoa xede duela egin ditzake luxuari buruzko  
legeak; horixe da errepubliketako luxuari buruzko legeen izpiritua, eta bistan da  
horixe izan zela Aragoiko legeen xedea ere.

Luxuari buruzko legeek izan dezakete urritasun erlatiboa ere xedetzat;  
estatu batek, ikusirik erbestetik merkantzia garestiegi batzuk ekartzeak bertako  
merkantzia ugari esportatzea eskatuko lukeela eta, premiak asetzeari begira,  
esportazioek sortuko luketen gabezia kaltegarriagoa litzatekeela inportazioek  
ekarriko luketen onura baino, erabat debekatzen ditu hauek; eta horixe da, hain  
zuzen, gaur egun Suedian egin diren legeen izpiritua<sup>215</sup>. Horiexek dira monarkiei  
komeni zaizkien luxuari buruzko lege bakarrik.

Oro har, zenbat eta pobreagoa izan estatu bat, hainbat eta bere luxu  
erlatiboak lur joago; eta, ondorioz, hainbat eta luxuari buruzko lege erlatiboen

behar handiagoa du. Estatu bat zenbat eta aberatsagoa izan, hainbat eta gehiago aberasten du bere luxu erlatiboak; hortaz, kontuz ibili behar da luxuari buruzko lege erlatiboak egitearekin. Hobeto azalduko dugu hau merkataritzari buruzko liburuan<sup>216</sup>. Hemen luxu absolutuaz baizik ez gara ari.

## **VI. KAPITULUA**

### **Txinako luxuaz.**

Arrazoi partikularrek luxuari buruzko legeak eskatzen dituzte zenbait estatutan. Populazioa, klimaren eraginez, hainbestean ugal liteke, eta bestalde bizitzeko beharrezko direnak hain izan daitezke halamoduzkoak, non ona baita populazioa bere osoan lurra lantzen enplegatzea. Estatu horietan, luxua arriskutsua da, eta luxuari buruzko legeek estuak izan behar dute. Esate baterako, luxua areagotu ala debekatu egin behar den jakiteko, lehenik herritar-kopuruaren eta bizitzeko erraztasunen arteko erlazioari eman behar zaio begia. Ingalaterran, lurrak laborariak eta jantziak egiten dituztenak elikatzeko baino askoz ale gehiago ematen du; beraz, han izan daiteke arte apaingarririk, eta ondorioz baita luxua ere. Frantzia, nekazariak eta manufakturetan lan egiten dutenak elikatzeko nahikoa gari ematen du lurrak; horrez gainera, erbestearekiko merkataritzak hainbeste gauza beharrezko ekar ditzake gauza apaingarrien truke, non ez dagoen luxuaren beldur izan beharrik.

Txinan, aitzitik, emakumeak hain dira emankorrak, eta giza espeziea hainbeste ugaltzen da, non lurra, denik eta gehien landuta ere, ez baita nahikoa biztanleak elikatzeko. Beraz, luxua kaltegarria da, eta lan-erako eta aurrezteko izpiritua beste edozein errepublikatan bezain beharrezkoa da han<sup>217</sup>. Beharrezko arteetara eman behar dira, eta atseginetatik ihes egin.

Hona enperadore txinatarren ordenantza ederren izpiritua. "Gure arbasoek", dio Tang dinastiako enperadore batek<sup>218</sup>, "arautzat zeukaten ezen, baldin eta lurra lantzen ez zuen gizonen bat edo josten ez zuen emakumeren bat inon bazen, norbait hotzez eta goseak egongo zela inperioan...". Eta printzipio horren gainean, bontzoen monasterio asko deseginarazi zituen.

Hogeita batgarren dinastiako hirugarren enperadoreak<sup>219</sup>, meategi batean aurkitutako harribitxiak eraman zizkiotenean, itxiarazi egin zuen; ez baitzuen herria nekarazi nahi jaten emango ez zion eta jantziko ez zuen gauza batean lan eginez.

"Gure luxua hain da handia", dio Kiayventik<sup>220</sup>, "non herriak bordatuekin apaintzen baititu salgai jarri behar dituen mutil eta nesken zapatak". Hainbeste gizaki izanik bakar batentzako jantziak egiteko, nola ez dira bada izango jantzirik ez dutenak? Nekazari bakoitzeko hamar gizaki dira lurraren fruituak jateko; nola ez dira bada izango zer jan ez dutenak?

## **VII. KAPITULUA**

### **Luxuaren ondorio gaiztoa Txinan.**

Txinako historian ikusten denez, hogeita bi dinastia izan dira bata bestearen atzetik; hau da, hogeita bi iraultza orokor pairatu ditu, iraultza partikularrak kontuan hartu gabe. Lehen hiru dinastiek luze samar iraun zuten, zuhurtziaz gobernatu zutelako, eta inperioa artean hain zabala ez zelako. Baina esan liteke, oro har, dinastia guztiak nahikoa ondo hasi zirela. Bertutea, arreta, zainketa beharrezko dira Txinan; horrelakorik bazen dinastien hasieran, baina ez azkenean. Izan ere, bidezkoa zen gerraren nekeetara ohitutako enperadoreek, delizietan itotako familia bat tronutik eraitsitakoan, hain baliagarri gertatu zitzaien bertutea gordetzea, eta hain kaltegarri agertu zitzaizkien atseginzaletasunen beldur izatea.



Baina lehen hiruzpalau printzeen ondoren, galbidea, luxua, alferkeria, gozamenak ondorengoez jabetzen dira; jauregian giltzapetzen dira, izpiritua ahuldu egiten zaie, bizia laburtu, familiak gainbehera egiten du; handikiak handiagotu egiten dira, eunukoak famatu; haurrak besterik ez dira jartzen tronuan; jauregia inperioaren etsai bihurtzen da; bertan bizi den jende zereginik gabeak porrota erakartzen dio lan egiten duenari; enperadorea usurpatzaile batek hiltzen du, eta familia bat fundatzen, zeinen hirugarren edo laugarren ondorengoa berriz ere jauregi horretantxe giltzapetuko baita.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Kontinentzia publikoaz.**

Hainbeste akats etorri ohi dira emakumeek bertutea galtzetik, haien arima hainbeste doilortzen da, oinarri nagusi horren faltak beste hainbeste gauza erorrarazten ditu, non estatu herritar batean inkontinentzia publikoa zorigaitz txarrena dela esan baitaiteke, eta ezbairik gabe konstituzioa aldatuko duela.

Legegile onek halako duintasun bat eskatu diete beti emakumeei beren ohituretan. Bizioa ez ezik, bizio-itxura ere debekatu dute beren errepubliketan. Alferkeriak ekarri ohi duen galanteriazko tratua bera ere kanporatu egin dute, horren bidez emakumeek gizakiak galbidean jartzen baitituzte are berak galbidean jarriak izan baino lehen, galanteriazko tratuak balioa ematen baitie huskeria guztiei, eta balioa kentzen benetan garrantzia duenari, eta emakumeek oso erraz onartzen dituzten erridikuluaren arauen ildotik bideratzen baititu denak.

## **IX. KAPITULUA**

### **Emakumeek gobernu-era desberdinetan duten egoeraz.**

Emakumeek neurri gutxi dute monarkietan; mailak eta dotoreziak gortera deitzen dielarik, han onartzen den bakarra den askatasun-izpiritu hori hartzera jotzen baitute hara. Nor bere erakarmenez eta bere grinez baliatzen da gora egiteko; eta beren ahuleziak ez baitie onartzen harrokeriarik, handinahia baino, luxua nagusi da beti haien artean.

Estatu despotikoetan, emakumeek ez dute luxurik sartzen; berak dira luxuzko objektu. Erabateko esklabo izan behar dute. Bakoitzak gobernuaren izpirituari segitzen dio, eta bereganatu egiten du inguruan ezarrita ikusten duena. Legeak gogorrak eta berehala betearaziak direnez, emakumeen askatasunak auziak sorraraziko ote dituen beldurra izaten da han. Haien liskarrak, haien zuhurtziarik eza, haien higuinak, haien jaidurak, haien zeloak, haien eskatimak, arima txikiek handiak interesatzeko duten arte hori, ezin ondoriorik gabe geratu.

Are gehiago: estatu horietan, printzeek barre egiten baitiote giza izaerari, emazte asko dituzte; eta mila arrazoik emazteak giltzapean jartzera behartzen dituzte.

Errepubliketan, emakumeak libre dira legez, eta gatibu ohituraz; luxurik ez dago, eta, horrekin batera, ezta ustelkeria eta bizioak ere.

Greziako hirietan, non ez baitziren bizi ohitura-garbitasuna gizonen beren artean ere bertutearen parte bat dela ezartzen duen erlijioaren mende; Greziako hirietan, non bizio itsu bat baitzen jaun eta jabe; non amodioak esan ezin daitekeen era bat baitzuen, adiskidetasun hutsa ezkon-bikoteetara erretiratua zelarik<sup>221</sup>; han, diot, emakumeen bertutea, sinpletasuna, kastitatea hainbestekoak ziren non ia inoiz ez baita ikusi, alde horretatik, ohitura hoberik izan duen herririk<sup>222</sup>.

## **X. KAPITULUA**

**Erromatarrek etxeko arazoetarako zuten auzitegiak.**

Erromatarrek ez zuten, greziarrek bezala, emakumeen jokabideaz arduratzen zen magistratu berezirik. Zentsoreek errepublikako beste guztiak bezala zaintzen zituzten haiek ere. Etxeko arazoetarako auzitegia ezartzeak<sup>223</sup> hartu zuen greziarren magistraturaren lekua<sup>224</sup>.

Senarrak emaztearen senideak bildu eta haien aurrean epaitzen zuen hura<sup>225</sup>. Epaimahai horrek eusten zien ohiturei errepublikan. Baina ohitura horiexek eusten zioten epaimahaiari berari ere. Legeak haustea ez ezik, ohiturak haustea epaitu behar zuen. Ohiturak haustea epaitzeko, ordea, ohiturak ukan behar dira.

Epaimahai horren zigorrek erabakimenezkoak izan behar zuten, eta halaxe ziren, izan: hain zuzen, ohiturei dagokien guztia, apaltasunaren arauetara dagokien guztia, ezin da ulertu lege-kode baten arabera. Erraza da legeen bidez norberak besteei zor diena arautzea; zaila da, ordea, legeetan nork bere buruari zor dion guztia sartzea.

Etxeko arazoetarako auzitegia emakumeen jokabide orokorraz arduratzen zen. Baina bazen delitu bat, auzitegi horren gaitzirizkoa jasotzeaz gainera, beste akusazio publiko baten mende zegoena: adulterioa, hain zuzen; dela errepublikan, hain ohitura-hauste handia gobernuari interesatzen zitzaiolako, dela emakumearen desordenak senarra susmagarrien lekuan jar zezakeelako, dela jende zintzoak delitu hori zigortu baino ezkutatu nahiago izango ote zuen beldur zirelako, hots, ezikusia egin mendekatu baino nahiago.

## **XI. KAPITULUA**

**Nola Erroman, gobernu-erarekin batera, instituzioak ere aldatu ziren.**

Etxeko arazoetarako auzitegiak bezala, akusazio publikoak ere aurrez ohiturak bazirela suposatzen zuen; eta horrexegatik, bi gauza horiek ohiturekin batera erori ziren, eta errepublikarekin batera amaitu<sup>226</sup>.

Eskuduntza iraunkorra ezartzeak, hau da, pretoreen artean jurisdikzioa banatzeak, eta pretore horiek arazo guztiak epaitzeko<sup>227</sup> gero eta gehiago sartu zen ohiturak, ahuldu egin zuten etxeko arazoetarako auzitegiaren erabilera. Hortik dator historialarien harridura, egintza bitxitzat hartu baitzituzten, eta antzinako usadioaren eraberritze gisa, Tiberiok auzitegi horri bideratu zizkion epaiketak.

Monarkia ezartzeak eta ohiturak aldatzeak akusazio publikoaren amaiera ere ekarri zuten. Beldur izatekoa zen gizon gaizto batek, emakume baten mesprezioak suminduta, haren ukoak haserretuta, haren bertuteak berak irainduta, hura galtzeko asmoa hartzea. Lege Juliarrek agintzen zuen ez zegoela emakume bat adulterioaz salatzerik, senarra emakumearen desordenari bide emateaz salatzeko ez bazen; eta horrek asko mugatzen zuen salaketa hori, are ezabatu ere egin zuen, nolabait esateko<sup>228</sup>.

Badirudi Sixto V.ak eraberritu egin nahi izan zuela akusazio publikoa<sup>229</sup>. Baina nahikoa da gogoetatxo bat, lege hori, harena bezalako monarkia batean, beste edozeinetan baino are lekuz kanporago zegoela ikusteko.

## **XII. KAPITULUA**

### **Erromatarrek zuten emakumeen tutoretzaz.**

Erromatarren instituzioek tutoretza betiraunkor baten mende jartzen zituzten emakumeak, senarraren agintepean ez bazeuden<sup>230</sup>. Tutoretza hori senide hurbilenari ematen zitzaion, gizonezkoen artean; eta adierazpide arrunt batek erakusten duenez<sup>231</sup>, oso gogaikarria zen hori haientzat. Ona zen errepublikarentzat, eta ez zen beharrezkoa monarkiarentzat<sup>232</sup>.

Badirudi ezen, barbaroen lege-kodeen arabera, emakumeak, lehen germaniarren artean ere, tutoretza betiraunkorraren mende zeudela<sup>233</sup>. Usadio hori pasatu egin zen sortu zituzten monarkietara; baina ez zuen iraun.

### XIII. KAPITULUA

#### *Enperadoreek emakumeen lizunkeriaren kontra ezarritako zigorrez.*

Lege Juliarrak zigor bat ezartzen du adulterioaren kontra. Baina lege hori eta horren ondoren egin zirenak ez ziren izan ohituren ontasunaren seinale; aitzitik, haien gaiztakeriaren seinale izan ziren.

Emakumeei zegokien sistema politiko guztia aldatu egin zen monarkian. Handik hara, kontua ez zen izan haiengan ohitura-garbitasuna ezartzea, haien delituak zigortzea baino. Lege berriak ez ziren delitu horiek zigortzeko egiten; bortxaketak zigortzen ez zirelako egiten ziren, bortxaketak ez baitziren jadanik delituak.

Ohituren gehiegikeria beldurgarriak legeak egitera behartzen zituen enperadoreak, neurri batean lohikeria gerarazteko; baina haien xedea ez zen ohiturak oro har zuzentzea. Historialariek jakinarazitako hainbat egintza positibok lege horiek guztiek frogatuko luketena baino askoz hobeto frogatzen dute hori horrela zela. Dionen lanetan ikus daiteke Augustok arazo hori dela-eta izandako jokabidea; eta nola ekidin zituen, pretore eta zentsore izan zen aldietan, egin zizkioten eskabideak<sup>234</sup>.

Historialarien lanetan aurkitzen dira, bai, Augustoren eta Tiberioren enperadore-aldietan, erromatar andre batzuen lizunkeriaren kontra emandako epai gogor batzuk; baina erregealdion izpiritua ezagutarazten digutelarik, epai horien izpiritua ere ezagutarazten digute.

Augusto eta Tiberio beren senideen lizunkeriak zigortzeaz arduratu ziren batez ere. Ez zuten zigortu ohituren desordena, baizik eta berek asmatutako halako bihozgabetasun edo *lesa majestate* delitu bat<sup>235</sup>, baliagarria beren begirunerako, baliagarria beren mendekurako. Hortik dator erromatar autoreek tirania horren kontra hain gogor ekitea.

Lege Juliarraren zigorra arina zen<sup>236</sup>. Enperadoreek, berek egindako legearen zigorra epaiketetan handitzea nahi izan zuten. Horixe hartu zuten gaitzat historialariek beren idazki zorrotzetan. Ez zuten aztertu ea emakumeek zigorra merezi zuten, baizik eta ea legea hautsi egin zen haiek zigortzeko.

Tiberioren tiranokeria nagusietako bat<sup>237</sup> lege zaharrez egin zuen abusua izan zen. Erromatar emakumeren bati Lege Juliarrak ezartzen zuen zigorra baino zigor handiagoa eman nahi izan zionean, etxeko arazoetarako auzitegia berrezarri zuen haren kontra<sup>238</sup>.

Emakumeei buruzko xedapen horiek senadoreen familiei zegozkien bakarrik, ez herri xeheari. Aitzakiak nahi ziren handien kontrako salaketetarako, eta emakumeen jokabideak ezin konta ahala halako ematen zituen.

Azkenik, esan dudana –alegia ohituren ontasuna ez dela bakar baten gobernuaren printzipioa–, ez zen hobeto egiaztatu lehen enperadoreen aldietan baino; eta horretaz zalantzarik balego, Tazito, Suetonio, Juvenal eta Martzial irakurtzea besterik ez legoke.

#### **XIV. KAPITULUA**

##### ***Erromatarrek luxuari buruz zeuzkaten legeak.***

Inkontinentzia publikoaz hitz egin dugu, luxuarekin batera doalako, hots, hau ondotik duelako edo honen ondotik doalako beti. Bihotzaren joerak aske utziz gero, nola eutsi izpirituaren ahuleziei?

Erroman, instituzio orokorrez gainera, zentsoreek hainbat lege partikular eginarazi zizkieten magistratuei, emakumeak urritasunean edukitzeko. Lege Faniarrak, Liziniarrak eta Opiniandarrak xede hori zuten. Tito Livioaren lanetan<sup>239</sup> ageri da nola inarrosi zuten senatua emakumeek, Lege Opiniandarra indargabetzea eskatu zutenean. Valerio Maximok lege horien indargabetzearekin batera jartzen du erromatarren luxuaren aldia.

## **XV. KAPITULUA**

### **Konstituzio desberdinetako doteez eta ezkontza-hobekuntzez.**

Doteek handiak izan behar dute monarkietan, senarrek beren mailari eta ohiko luxuari eutsi ahal izateko. Erdipurdikoak izan behar dute errepubliketan, han luxuak ez baitu nagusi izan behar<sup>240</sup>. Ia ezdeusak izan behar dute estatu despotikoetan, han emakumeak, nola edo hala, esklabo baitira.

Lege frantsesek ezarritako senar-emazteen ondasun-jabekidetza oso komenigarria da gobernu monarkikoan; emakumeak etxeko eginkizunetan interesatzen dituelako, eta etxeaz arduratzera deitzen dielako, haien gogoz kontra bezala. Ez da hain komenigarri errepublikan, non emakumeek bertute handiagoa baitute. Zentzugabea litzateke estatu despotikoetan, non emakumeak ia beti ugazabaren ondasunen parte bat baitira.

Emakumeek, beren egoeragatik, ezkontzarako joera dutenez, alferrekoak dira legeak senarraren ondasunen gainean ematen dizkien irabazpidezkoak. Baina irabazpidezkoak oso kaltegarriak lirateke errepublikan, han aberastasun partikularrek luxua sorrarazten dutelako. Estatu despotikoetan, ezkontzazko irabazpidezkoek emakumeen bizibidea izan behar dute, besterik ez.

## **XVI. KAPITULUA**

### Samniten ohitura ederra.

Samnitek bazuten ohitura bat, errepublika txiki batean —eta batez ere haiena zegoen egoeran egonda— ondorio bikainak ekarri behar zituen. Gazte-jende guztia bildu eta epaitu egiten zuten. Denetan hoberena deklaritzen zutenak, berak nahi zuen neska hartzen zuen emazte; haren ondoren boto gehien jasotakoak aukeratzen zuen gero; eta horrela hurrenez hurren<sup>241</sup>. Miresgarria zen mutilen ondasunen artean tasun onei baizik begia ez ematea, eta aberriari egindako zerbitzuak. Era horretako ondasunetan aberatsena zenak nazio osoan aukeratzen zuen neska. Maitasuna, edertasuna, kastitatea, bertutea, jaiotza, aberastasunak berak, hori dena, nolabait esateko, bertutearen dotea zen. Zaila litzateke sari nobleagorik, handiagorik, estatu txiki batentzat karga gutxiago zekarrenik, sexu baten eta bestearen gainean eragina izateko egokiagorik imajinatzea.

Samnitak lazedemoniarrengandik zetozen; eta Platonek —zeinen instituzioak Likurgoren legeak baino ez baitira, hobetuta— antzeko lege bat eman zuen<sup>242</sup>.

## XVII. KAPITULUA

### Emakumeen administrazioaz.

Arrazoiaren eta naturaren kontrakoa da emakumeak ugazandre izatea etxean, egiptoarren artean ohi bezala; baina ez da arrazoiaren eta naturaren kontrakoa inperio bat goberna dezaten. Lehen kasuan, beren egoera ahulak ez die uzten nagusitasuna; bigarrenean, berriz, ahulezia horrexek ematen die gozotasun eta moderazio handiagoa; eta horrexek egiten du gobernu bat on, ez bertute gogor eta ankerrek.



Indietan ondo doa dena emakumeen gobernuarekin; eta ezarrita dago ezen, semeak ama batenak ez badira, errege-odoleko ama duten alabak izatea oinordeko<sup>243</sup>. Hainbat pertsona ematen zaizkie gobernuaren pisua eramaten laguntzeko. Smithen arabera<sup>244</sup>, Afrikan ere ondo doa dena emakumeen gobernuarekin. Horri Moskoviako eta Ingalaterrako adibideak eranstean bazaizkio, ikusiko da emakumeek ondo betetzen dutela egiteko hori, bai gobernu moderatuan eta bai gobernu despotikoan.

## VIII. LIBURUA

### HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOAK USTELTZEAZ

## LEHEN KAPITULUA

### Emakumeen administrazioaz.

Gobernu bakoitzaren galbidea bere printzipioen galbidetik hasten da ia beti.

## II. KAPITULUA

### Demokraziaren printzipioa usteltzeaz.

Demokraziaren printzipioa, berdintasun-izpiritua galtzen denean bakarrik ez, erabateko berdintasunaren izpiritua hartzen denean ere hondatzen da, eta nork bere agintari hautatu dituenen berdina izan nahi duenean. Ordurako, herriak, berak ematen duen boterea jasan ezinik, berak egin nahi du dena, deliberatu senatuaren ordeztatu, exekutatu magistratuaren ordeztatu, eta epaileak beren betekizunez gabetu.

Hortik aurrera ezin da bertuterik izan errepublikan. Herriak magistratuaren betekizunak izan nahi ditu; beraz, ez ditu errespetatzen. Senatuaren deliberoek ez dute jadanik pisurik; beraz, senadoreak ez dira aintzakotzat hartzen, eta, ondorioz, ezta zaharrak ere. Eta zaharrei begirunerik ez bazaie, ezta gurasoei ere; senarrek ere ez dute merezi aintzakotzat hartuak izaterik, eta ugazabek ez dute merezi men egiterik. Mundu guztiak lasaikeria hori maiteko du; aginteak nekatu egingo du, obeditzeak bezala. Emakumeek, haurrek, esklaboek, ez diote inori men egingo. Ez da ohiturarik izango, ez ordenaren maitasunik, ez bertuterik.

Xenofonteren Oturuntza-n herriak gehiegizko berdintasuna erabili dueneko errepublika baten adierazpen peto-petoa ikus daiteke. Gonbidatu bakoitzak bere buruaz pozik zergatik dagoen adierazten du. "Ni neure pobreziagatik nago pozik

neure buruarekin", dio Karmidesek. "Aberatsa nintzenean, lausengatu egin behar izaten nituen neure kalumniatzailtzeak, jakinik errazago zela haiengandik kaltea jasotzea, nik haiei kalte egitea baino; errepublikak zerga berriak eskatzen zizkidan beti; ez neukan kanpora joaterik. Pobre naizenetik, autoritatea lortu dut; inork ez nau mehatxatzen, neuk mehatxatzen ditut besteak; joatea edo geratzea daukat. Orain aberatsak beren eserlekuetatik jaiki eta aurretik pasatzen uzten didate. Errege naiz, esklaboa nintzen; zerga bat ordaintzen nion errepublikari, gaur egun berak elikatzen nau; ez daukat ezer galtzeko beldurrik, irabaztea espero dut".

Herria zoritxar horretan erortzen da, beraren konfiantza jaso dutenek, beren ustelkeria ezkutatu nahian, hura usteldu nahi dutenean. Herriak ez dezan haien askonahia ikus, haiek bere handitasunaz baizik ez diote hitz egiten; beren zikinkeriaz ohar ez dadin, zuriketan aritzen zaizkio.

Ustelkeria gehitu egingo da usteltzaileen artean, eta gehitu egingo da jadanik ustelduta daudenen artean ere. Herriak bere artean banatuko ditu diru publikoak; eta, bere alferkeriarekin arazo publikoen gestioa batu duen bezala, bere pobreziarekin luxuaren atseginak batu nahiko ditu. Baina alferkeria eta luxu eta guzti, helburu bat baino ez du izango: altxor publikoa.

Ez da harritzekoa izango botoak diruaren truke ematen ikustea. Ezin zaio asko eman herriari, beraregandik gehiago atera gabe; baina, harengandik ateratzeko, Estatua itzulipurdikatu beharko da. Zenbat eta abantaila gehiago atera hark bere askatasunetik, hainbat eta gehiago hurbilduko da askatasun hori galdu behar dueneko unera. Tiranotxoak sortzen dira, tirano bakar baten bizio guztiak dituztenak. Laster, askatasunetik geratzen dena jasanezin bihurtzen da. Tirano bakarra altxatzen da; eta herriak dena galtzen du, baita bere ustelkeriatik lortutako abantailak ere.

Demokraziak, beraz, saihestu beharreko gehiegikeriak ditu: desberdintasun-izpiritua, aristokraziara edo bakar baten gobernura daramana; eta erabateko

berdintasunaren izpiritua, bakar baten despotismora daramana, bakar baten despotismoa konkistan amaitzen den bezala.

Egia da Greziako errepublikak usteldu zituztenak ez zirela beti tirano bihurtu. Izan ere, elokuentziari gehiago atxiki zitzaizkion arte militarri baino; horrez gainera, greziar guztien bihotzean gorroto aseezina zegoen gobernu errepublikarra itzulipurdikatzen zutenen kontra; eta horrek ekarri zuen anarkiatik suntsidura etortzea, tirania etorri ordez.

Baina Sirakusak, tirania bihurtutako oligarkia txiki ugariren erdian kokatuta zegoen hiriak<sup>245</sup>; Sirakusak, historian ia inoiz aipatu ez den senatua zuenak<sup>246</sup>, ustelkeria arruntak ematen ez dituen zorigaiztoak jasan zituen. Hiri hark, beti lizunkeria<sup>247</sup> edo inoren mendean, askatasunak eta esklabotzak berdin jorratu zutelarik –beti bata edo bestea jaso baitzituen ekaitz baten gisan– eta, kanpora begira zuen indarra eta guzti, arrotzen indar txikienak iraultza bidean jartzen zuelarik; hiri hark herri miresgarria zuen bere baitan, bi aukera hauek besterik izan ez zituen herria: tirano bat hartu, edota tirano izan.

### **III. KAPITULUA**

#### **Gehiegizko berdintasunaren izpirituez.**

Zerua Lurretik bezain urrun dago egiazko berdintasun-izpiritua gehiegizko berdintasunaren izpiritutik. Lehena ez da mundu guztiak agintea izatea, edota inork inori ez agintzea; baizik eta berdinei obeditzea eta agintzea. Ez du jomugatzat nagusirik ez izatea, baizik eta berdinak baizik ez izatea nagusitzat.

Natura-egoeran, gizakiak berdinak dira jaiotzez; baina ezin iraungo lukete horrela. Gizarteak galarazten die, eta ez dute berdintasuna berreskuratzen legeen bidez ez bada.

Hauxe da demokrazia arautuaren eta arautu gabearen arteko aldea: lehenengoan, hiritar gisa da norbera berdin; bigarrenean, berriz, baita magistratu, senadore, epaile, aita, senar, ugazaba izanda ere.

Bertutearen berezko lekua askatasunaren ondoan dago, baina ez dago gehiegizko askatasunetik esklabotzatik baino hurbilago.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Herria galbideratzearen kausa partikular bat.***

Arrakasta handiek, batez ere horiek lortzen parte handia izan badu, halako harrotasuna ematen diote herriari non ezinezko izaten baita hura gidatzea. Magistratuen jeloskor izanik, magistraturaren jeloskor ere bihurtzen da; gobernatzen dutenen etsai, laster bihurtzen da konstituzioaren etsai ere. Esate baterako, Salaminan pertsiarren gainean lortutako garaitzak galbideratu egin zuen Atenasko errepublika<sup>248</sup>; atenastarren derrotak galdu egin zuen Sirakusako errepublika<sup>249</sup>.

Marseilakoak inoiz ez zuen horrelako aldaketarik probatu, beheertzetik handitasunera, bere burua zuhurtziaz gobernatu baitzuen beti; bere printzipioak gorde baitzituen.

#### **V. KAPITULUA**

##### ***Aristokraziaren printzipioa usteltzeaz.***

Aristokrazia, nobleen boterea apetzako bihurtzen denean usteltzen da; hortik aurrera ezin da bertuterik izan ez gobernatzen dutenen ez gobernatuen artean.

Agintean dauden familiak legeei atxikitzen zaizkienean, zenbait errege dituen monarkia bat da hori, eta oso ona da berez; ia errege horiek guztiak legeek lotzen dituzte. Baina legeei atxikitzen ez zaizkienean, zenbait despota dituen estatu despotikoa da hori.

Kasu honetan, errepublikak nobleentzat baizik ez du irauten, eta beren artean bakarrik. Gobernatzen dutenen artean errepublika dago, eta gobernatuen artean estatu despotikoa; horrek munduan diren bi gorputzik bananduenak bihurtzen ditu.

Ustelkeriarik handiena nobleak herentzia bidez betierekotzen direnean dugu<sup>250</sup>: hortik aurrera ia ezin dute neurririk gorde. Gutxi badira, botere handiagoa dute; baina segurtasun txikiagoa; gehiago badira, botere txikiagoa dute, eta segurtasun handiagoa; hartara, boterea handituz doa, eta segurtasuna txikiagotuz, despotarengana iritsi arte, zeinen buru gainean botere eta arrisku guztizkoak baitaude.

Oinordetzazko aristokrazian, noble asko izateak bortizkeria kenduko dio gobernuari; baina, bertute gutxi izango denez, axolagabezian, alferkerian eta utzikerian eroriko dira, eta ondorioz Estatuak ez du ez indarririk ez baliabiderik izango<sup>251</sup>.

Aristokrazia batek eutsi diezaioke bere printzipioaren indarrari, baldin eta legeek nobleei agintearen arriskuak eta nekeak plazerrak baino gehiago sentiarazten badizkiete, eta Estatua zerbaiten beldur izateko egoeran badago, eta segurtasuna barrutik badatorkio, eta segurtasunik eza kanpotik.

Konfiantza pixka batek monarkia bati handitasuna eta segurtasuna dakartzkion bezala, errepublika batek, aitzitik, edozeren beldur izan behar du<sup>252</sup>. Pertsiarren beldurrak iraunarazi zituen legeak greziarren artean. Kartago eta Erroma elkarren beldur ziren, eta horri esker sendotu ziren. Hau gauza bitxia!

Zenbat eta segurtasun handiagoa izan estatu horiek, hainbat eta gertuago daude usteltzetik, ur geldiegia bezala.

## **VI. KAPITULUA**

### **Monarkiaren printzipioa usteltzeaz.**

Demokraziak galdu egiten dira herriak senatua, magistratuak eta epaileak bere betekizunez gabetzen dituenean. Halaxe monarkiak ere, usteldu egiten dira estamentuei edo hiriei beren pribilegioak pixkanaka kentzen zaizkienean. Lehen kasuan, denen despotismora goaz; bestean, berriz, bakar baten despotismora.

"Tsin eta Sui dinastiak galbidean jarri zituena", dio autore txinatar batek, "hauxe izan zen: printzeek dena berek gorbernatu nahi izan zutela, bertatik bertara, arbasoek bezala jokatu ordez, hots, gauzak orokorrean ikuskatzera mugatu ordez, horixe baita subiranoari dagokion gauza duin bakarra"<sup>253</sup>. Autore txinatar horrek ia monarkia guztien usteltzearen kausa ematen digu zati horretan.

Monarkia galdu egiten da printze batek, gauzen ordenari jarraitu beharrean, ordena hori aldatuta bere ahala hobeto erakusten duela uste duenean; batzuei berez dagozkien betekizunak beste batzuei arbitrarioki ematen dizkienean; eta bere fantasiei kasu handiagoa egiten dienean bere borondateari baino.

Monarkia, printzeak, dena bere buruarekin erlazioan jarrita, bere hiriburuari estatu deitzen dienean galtzen da, hiriburu gorteari, eta gorte bere buruari eta ez besteri.

Azkenik, printze bat bere autoritateaz, egoeraz, bere herrien maitasunaz ohartzen ez denean galtzen da monarkia; eta errege batek bere burua beti seguru sentitu behar duela ohartzen ez denean, despota batek arriskuan dagoela pentsatu behar duen bezala.

## VII. KAPITULUA

### *Gai beraren jarraipena.*

Monarkiaren printzipioa usteldu egiten da lehen hierarkiak lehen esklabotzaren seinale direnean; handikiei herriaren begirunea kentzen zaienean, eta botere arbitrarioaren tresna huts bihurtzen direnean.

Are gehiago usteltzen da ohorea ohoreekin kontraesanean jarri denean, eta norberak aldi berean doilorkeriak eta dignitateak izan ditzakeenean<sup>254</sup>.

Usteldu egiten da, printzeak justizia gogortasun bihurtzen duenean; Erromako enperadoreek bezala, paparrean Medusaren buru bat ipintzen duenean<sup>255</sup>; Komodok bere estatuei ematen zien itxura mehatxari eta izugarri hura hartzen duenean<sup>256</sup>.

Monarkiaren printzipioa usteldu egiten da arima oso koldarrek handiustea ateratzen dutenean beren morrontzak izan lezakeen handitasunetik; eta uste dutenean printze bati dena zor izatea eragiten duen horrexek eragiten duela aberriari ezer zor ez izatea.

Baina egia bada (horixe ikusi baita beti) erregearen boterea zenbat eta handiagoa izan, haren segurtasuna txikiagotu egiten dela; botere hori usteltzea, izaeraz aldarazi arte, ez al da beraren kontrako *lesa majestate* delitua?

## VIII. KAPITULUA

### *Gobernu monarkikoaren printzipioa usteltzeko arriskua.*

Ez dago eragozpenik Estatua gobernu moderatu batetik gobernu moderatu batera pasatzen denean, edo errepublikatik monarkia nahiz monarkiatik errepublikara, baizik eta gobernu moderatutik despotismora erortzen eta amiltzen denean.



Europako herri gehienak ohiturek gobernatzen dituzte oraindik. Baina baldin eta botere-gehegikeria luze batez, baldin eta konkista handi batez, inon despotismoa ezarriko balitz, ez legoke han iraungo lukeen ez ohiturarik ez klimarik; eta munduko alde eder honetan, aldi batez bederen, beste hiruretan egin zaizkion irainak sofrituko lituzke giza izaerak.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Nola nobleziak tronua defendatzeko joera duen.***

Ingalaterrako noblezia, Karlos I. arekin, tronuaren hondakinen azpian lurperatuta geratu zen; eta horren aurretik, Felipe II.ak frantsesen belarriei askatasun hitza entzunarazi zienean, koroa nobleziak defendatu zuen, errege bati obeditzea ohoretzat baina herriarekin boterea banatzea lotsagarritzat duen noblezia horrek.

Austriako etxea atsedetik gabe ikusi dugu lanean Hungariako noblezia zanpatzen. Ez zekien egunen batean zenbateraino izango zuen haren beharra. Herri horietan, ez zegoen diruaren bila ari zen; ez zituen ikusten han zeuden gizakiak. Hainbeste printzek beren estatuak beren artean banatzen zituztenean, monarkia haren pieza guztiak, geldi eta ezer egin gabe, batzuk besteen gainean erortzen ziren, nolabait esateko; bizia noblezia hark bakarrik gorde zuen: haserre bizian, dena ahaztu eta borrokatu egin zen, eta uste izan zuen bere loriari hiltzea eta barkatzea zegokiola.

## **X. KAPITULUA**

### ***Gobernu despotikoaren printzipioa usteltzeaz.***

Gobernu despotikoaren printzipioa etengabe usteltzen da, izatez ustela baita. Beste gobernu-motak egitate partikularrek printzipioa bortxatzen dietelako akabatzen dira; hura, berriz, bere barne-akatsagatik akabatzen da, bestelako arrazoi aldakorrek printzipioari usteltzea eragozten ez diotenean. Klimatik, erlijiotik, egoeratik edo herriaren jeinutik ateratako zirkunstantziek ordenaren bati jarraitzaera edo arauen bat jasatera behartzen dutenean, orduantxe bakarrik eusten dio. Gauza horiek bortxatu egiten diote izaera, aldatu gabe, baina bere krudelkeriak iraun egiten dio, nahiz eta aldi baterako bezatuta geratu.

## **XI. KAPITULUA**

### ***Printzipioen ontasunaren eta usteltzearen ondorio naturalak.***

Gobernuaren printzipioak behin ustelduz gero, legerik onenak txar bilakatzen dira, eta Estatuaren kontra bihurtzen; printzipioak sanoak direnean, lege txarrek onen ondorioa dute; printzipioaren indarrean datza dena.

Kretarrek, lehen magistratuak legeen mende edukitzeko, oso bitarteko berezia zeukaten: *matxinadarena*. Hiritarren parte bat matxinatu egiten zen<sup>257</sup>, ihesean jartzen zituen magistratuak, eta berriro hiritar arrunt bihurtzaera behartzen zituen. Hori legearen arabera eginga zegoela jotzen zen. Irudi luke halako instituzio batek, botere-gehiegikeria saihesteko albaramendua ezartzen zuenak, edozein errepublika itzulipurdikatu behar lukeela. Baina ez zuen Kretakoa desegin. Hona hemen zergatik<sup>258</sup>:

Antzinakoek, aberriarekiko maitasunik handiena zuen herri batez hitz egin nahi zutenean, kretarrak aipatzen zituzten beti: "Aberria", zioen Platonek<sup>259</sup>, "kretarrek hainbeste maite duten hitza". Amak haurrengana duen maitasuna adierazten duen hitz batez izendatzen zuten haiek aberria<sup>260</sup>. Alabaina, aberriarekiko maitasunak dena zuzentzen du.

Poloniako legeek ere badute beren *matxinada*. Baina hartatik sortzen diren eragozpenek ondo erakusten dute Kretako herriak bakarrik erabil zezakeela arrakastaz halako erremedioa.

Greziarren artean ezarritako gimnasia-arietak, hein berean zeuden gobernuaren printzipioaren ontasunaren mende. "Lazedemoniarrek eta kretarrek ireri zituzten", dio Platonek<sup>261</sup>, "munduan hain maila berezia ematen dieten akademia ospetsu horiek. Hasieran lotsa asalatu egin zen; baina amore eman zuen onura publikoaren aurrean". Platonen garaian, instituzio haiek miresgarriak ziren<sup>262</sup>: helburu handi bat zuten, arte militarra. Baina greziarrek bertuterik izan ez zutenean, desegin egin zuten arte militarra bera; inor ez zen jaisten hareara hezitza, galbidean jartzera baizik<sup>263</sup>.

Plutarkok dioskunez<sup>264</sup>, bere garaian erromatarrek pentsatzen omen zuten joko haiek izan zirela greziarrak morrontzan erortzearen kausa nagusia. Alderantziz gertatu zen: greziarren esklabotzak usteldu zituen arietak. Plutarkoren garaian<sup>265</sup>, biluzik borrokatzen zireneko parkeek, eta borroka-jokoek, koldar bihurtzen zituzten gazteak, amodio lotsagarriera eramaten zituzten, eta txorimalo huts bihurtzen zituzten; baina Epaminondasen garaian, borrokan trebatu izanari esker irabazi zuten tebastarrek Leuktresko bataila<sup>266</sup>.

Oso lege gutxi dira txarrak Estatuak bere printzipioak galdu ez dituenean, eta Epikurok aberatsez ari zela zioenez, ez da edabea usteldu, ontzia baizik.

## **XII. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Erroman senadoreen artetik ateratzen ziren epaileak. Grakoek zaldunetara aldatu zuten pribilegio hori. Drufusek senadoreei eta zaldunei eman zien; Silak senadoreei bakarrik; Kotak senadoreei, zaldunei eta diru publikoko diruzainei.

Zesarrek kendu egin zien azken hauei. Antoniok senadore, zaldun eta zenturioiz osatutako dekuriak egin zituen.

Errepublika bat ustelduta dagoenean, ez dago erremediorik sortzen den gaitz bakoitzarentzat, ezpada ustelkeria erauziz eta printzipioetara joz: beste zuzenketa oro alferrekoa da, edota beste gaitz bat. Erromak bere printzipioei eutsi zien bitartean, epaiketak gehiegikeriarik gabekoak izan ziren senadoreen artean; baina usteldu zenean, epaiketak edozein gorputzetara aldatzen zirelarik ere — senadoreetara, zaldunetara, diru publikoko diruzainetara, gorputz horietako bitara, hiruretara, beste edozeinetara—, beti gaizki egiten ziren. Zaldunek ez zuten senadoreek baino bertute gehiago, ez diruzainek zaldunek baino gehiago, eta bi horiek zenturioiek bezain gutxi zuten.

Erromako herriak patrizioen magistraturetan parte hartzea lortu zuenean, bidezkoa zen pentsatzea haren balakatzailleak izango zirela gobernuko arbitroak. Ez, ordea: herri hark, magistraturak herritar xeheen eskura jarri eta gero, beti patrizioak aukeratzen zituela ikusi zen. Bertutetsua zelako, eskuzabala zen; askea zenez, mesprezatu egiten zuen boterea. Baina bere printzipioak galdu zituenean, zenbat eta botere handiagoa izan, hainbat eta kontu gutxiago izan zuen; harik eta, azkenean, bere buruaren tirano eta esklabo bihurtu zen arte: askatasunaren indarra galdu zuen, eta ahulezian eta lizunkeria erori zen.

### **XIII. KAPITULUA**

#### ***Zin egiteak herri bertutetsu batean duen ondorioa.***

Ez da izan herririk, dio Tito Liviok<sup>267</sup>, non lasaikeria beranduago sartu den erromatarren artean baino, non neurria eta pobrezia luzeago ohoratu dituzten.

Zin egiteak hainbesteko indarra izan zuen herri hartan, non beste ezerk ez baitzuen legeen mendeanago jarri. Hainbatetan egin zuen, hitzari eusteko, loriagatik edo aberriagatik inoiz egingo ez zuena.

Kintius Zinzinatus kontsulak, hirian ekuen eta volskoen kontra borrokatzeko armada bat osatu nahi zuelarik, tribunoek kontra egin zioten. "Ondo da", esan zuen berak, "iazko kontsulari zin egin zioten guztiak, datozela nire ikurrinpera"<sup>268</sup>. Alferrik aldarrikatu zuten tribunoek zin hark ez zuela inor behartzen; hura egin zutenean, Kintio ez zela gizon publikoa: gidatu nahi zutenak baino erlijiosoagoa izan zen herria; ez zien belarririk eman tribunoen ez bereizketei, ez interpretazioei.

Herri hark berak mendi sakratupera erretiratu nahi izan zuenean, kontsulei egindako zinak —haien atzetik gerrara joateko emandako hitzak, alegia— behartu egiten zuela sentitu zuen<sup>269</sup>. Orduan, haiek hiltzeko asmoa hartu zuen; hala ere, zinak indarrean iraungo zuela ulertarazi zitzaion. Egin nahi zuen delituaren neurriak erakusten du zer uste zuen herriak zina hausteaz.

Cannesko batailaren ondoren, herriak, ikaratuta, Siziliara erretiratu nahi izan zuen; Eszipionek Erroman geratuko zela zin eginarazi zion; zina hausteko beldurrak beste beldur oro gainditu zuen. Erroma ekaitzean bi aingurak sustengatutako ontzia zen: erlijioak eta ohiturek.

#### **XIV. KAPITULUA**

**Nola konstituzioan aldaketarik txikiena egiteak printzipioen hondamendia dakarren.**

Aristotelek Kartagoko errepublika oso ondo araututako errepublika dela diosku. Polibiok dioskunez, bigarren gerra punikoan<sup>270</sup> eragozpen hau zegoen Kartagon, senatuak ia bere autoritate guztia galdua zuela. Tito Liviok erakusten

digunez, Hanibalek, Kartagora itzuli zenean, magistratuek eta hiritar nagusiek diru publikoak beren mesedetan erabiltzen zituztela aurkitu omen zuen, eta boterea gehiegikeriaz erabiltzen zutela. Magistratuen bertutea, beraz, senatuaren autoritatearekin batera erori zen; printzipio beretik zetorren dena.

Ezagunak dira zentsurak erromatarren artean egindako gauza harrigarriak. Halako batean astun bihurtu zen; baina eutsi egin zioten, luxua ustelkeria baino ugariago zegoelako. Klaudiok ahuldu egin zuen; eta ahultze horren ondorioz ustelkeria luxua baino handiago bihurtu zen; eta zentsurak bere burua ezabatu zuen, nolabait esateko<sup>271</sup>. Nahastua, eskatua, berriro ezarria, utzia, erabat eten zen, harik eta guztiz alferrekoa izan zen garaira iritsi arte, hots, Augusto eta Klaudioren agintealdietara arte.

## **XV. KAPITULUA**

**Bitarteko oso eraginkorrak hiru printzipioak gordetzeko.**

Datozen lau kapituluak irakurri arte, ez didazue ondo ulertuko.

## **XVI. KAPITULUA**

**Errepublikaren bereizgarriak.**

Errepublikari berez doakio lurralde txikia izatea; hori gabe, nekez iraungo du. Errepublika handi batean, aberats handiak daude eta, beraz, moderazio gutxi izpirituetan: dirutza handiegiak jarri behar dira hiritar baten eskuetan; interesak banakatu egiten dira; gizon batek, lehenik, aberria gabe ere zoriontsua, handia, loriatsua izan daitekeela sentitzen du; eta laster, aberriaren hondarren gainean izan daitekeela handi.

Errepublika handi batean, guztien ongia mila kontsideroren mende sakrifikatzen da, salbuespenen mende jartzen da; ustekabeen mende dago. Errepublika txiki batean, berriz, guztien ongia hobeto sentitzen da, hobeto ezagutzen, hiritar bakoitzagandik hurbilago; gehiegikeriak ez dira hain zabaltuak han, eta, beraz, ez daude hain babestuta.

Lazedemonia honexek iraunarazi zuen: hainbeste gerraren ondoren, beti izan zuen bere lurraldea. Lazedemoniaren helburu bakarra askatasuna zen; askatasunaren abantaila bakarra, loria.

Greziako errepubliken izpiritua beren lurraldeak askiestea zen, beren legeak bezala. Atenasek askonahia eskuratu zuen, eta Lazedemoniari eman zion; baina herri libreen gainean agintzeko izan zen hori, ez esklaboak gobernatzeko; batasunaren buru izateko, ez batasuna hausteko. Dena galdu zen monarkia bat sortu zenean, gobernu-mota horren izpiritua handitasunari begira baitago.

Zer-nolako jakin batzuk gabe<sup>272</sup>, zaila da hiri bakar batean errepublikarra ez den gobernuaren batek irautea. Hain estatu txikiko printze batek mendekoak zapaltzera joko luke berez, botere handia izango lukeelako, eta bitarteko gutxi hartaz gozatzeko, edota hura errespetarazteko. Beraz, zapatu egingo luke herria. Bestetik, halako printze bat erraz zapalduko luke atzerriko indar batek, edota are etxeko indar batek: herria noiznahi bildu ahal izango litzake haren kontra joateko. Printze bat bere hiritik botatzen dutenean, akabo prozesua; baina hiri batzuen jabe bada, prozesua hasi besterik ez da egin.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Monarkiaren bereizgarriak.**

Estatu monarkiko batek tamaina ertainekoa izan behar du. Txikia balitz, errepublika bihurtuko litzateke; oso zabala balitz, estatuko handikiek, berez

handiak izanik, printzearen begiradapean egongo ez liratekeenez, beren gortea haren gortetik kanpo izanik, eta legeei eta ohiturei esker exekuzio bizkorretarik babesturik, obeditzeari utz liezaziokete; ez lirateke zigor geldoegi eta urrunegiaren beldur.

Karlomagnok bere inperioa fundatu eta berehala, zatitu egin behar izan zuten; dela probintzietako gobernadoreek ez zutelako obeditzen, dela hobeto obediarazteko, inperioa erresuma askotan zatitu beharra egon zelako.

Alexandro hil eta gero, inperioa zatitu egin zuten. Nola obedituko zuten Grezia eta Mazedoniako handikiek, libre izanik, edota gutxienez konkista handi hartan hedatutako konkistatzaileen buruzagi?

Atila hil eta gero, haren inperioa desegin egin zen: hainbeste erregek, lotzen zituen ezer gabe, ezin berriro kateak hartu.

Botere mugagabea laster ezartzea da, kasu hauetan, desegitearen kontrako erremedio bakarra. Handitu ondoren, beste zoritxar bat!

Ibaiak itsasoarekin bat egitera doaz: monarkiak despotismoan galtzera.

## **XVIII. KAPITULUA**

### **Espainiako monarkia kasu partikular batean zegoela.**

Ez bedi aipa Espainiaren etsenplua; horrek frogatu egiten du nik diodana. Amerika gordetzeko, despotismoak egiten ez duena egin zuen berak: bertakoak suntsitu zituen. Bere koloniak gordetzeko, beren biziraupenaren mende jarri behar izan zituen.

Herbereetan despotismoa ezartzen saiatu zen; eta hura utzi bezain laster, arazoak handitu egin zitzaizkion. Batetik waloiek ez zuten nahi espainiarrek goberna zitzaten; eta bestetik, soldadu espainiarrek ez zieten obeditu nahi ofizial waloiei<sup>273</sup>.



Italian, aberastu eta lur jota baizik ez zuen iraun; izan ere, Espainiako erregeaz libratu nahiko zuketenez ez zuten haren diruari uko egiteko gogorik.

## **XIX. KAPITULUA**

### **Gobernu despotikoaren bereizgarriak.**

Inperio handi batek autoritate despotikoa eskatzen du gobernatzen duenarengan. Erabakien bizkortasunak berdindu behar du erabakiok bidali diren lekuetarainoko distantzia; beldurrak galarazi behar du urruneko gobernadore edo magistratuen axolagabekeria; legeak buru bakar batean egon behar du; eta etengabe aldatu behar du, gertaerak bezala, hauek ere estatu batean bere handitasunaren arabera ugaritzen baitira.

## **XX. KAPITULUA**

### **Aurreko kapituluaren ondorioa.**

Baldin eta estatu txikien berezko tasuna errepublika gisa gobernatuak izatea bada, ertainena monarkia baten mende egotea, eta inperio handiena despota baten azpian egotea, ondorioz, ezarritako gobernuaren printzipioei eusteko, Estatuari lehendik zeukan handitasunean eutsi beharra dago; eta estatu hori izpirituz aldatuko da, bere mugak zabaltzearen edo estutzearen arabera.

## **XXI. KAPITULUA**

### **Txinako inperioaz.**

Liburu hau amaitu baino lehen, orain arte esan dudana guztiari jar dakioken eragozpen bati erantzungo diot.

Gure misiolariak, Txinako inperio handiaz hitz egiten digutenean, gobernu-  
era miresgarria duela diote, bere printzipioan beldurra, ohorea eta bertutea  
bateratzen dituen. Beraz, alferrekoa dateke egin dudana bereizketa, hiru  
governuen printzipioak eman ditudanean.

Ez dakit zer ohorez hitz egiten den, herri horietan ez baita ezer egiten  
zigorradaka ez bada<sup>274</sup>.

Gainera, gure merkatariek misiolariak aipatzen diguten bertute horren berri  
eman diezaguten falta da; mandarinak lapurrez galde dakieke<sup>275</sup>. Eta milord  
Anfon gizon handia hartzen dut lekuko.

Bestalde, Parennin aitaren gutunak, enperadoreak odolezko printze neofito  
batzue<sup>276</sup>, gogoko ez zituela eta, jarri zien auziaz, etengabe jarraitutako tirania-  
plan bat erakusten digute, eta giza izaerari arauz —hots, odol hotzean— egindako  
irainak.

De Mairan jaunaren gutunak ere baditugu, eta Parennin berarenak, Txinako  
governuaz. Galdera eta erantzun oso zuhurren ondoren, liluragarri zena desagertu  
egiten da.

Ez ote da gertatu misiolariak ordena-itxura batek tronparazi dituela? Zirrara  
egin diela bakar baten borondatea etengabe betearazteak, berak ere horrela  
governatzen baitira, eta hainbeste maite baitute Indietako erregeen artean  
governu-era hori aurkitzea? Izan ere, hara aldaketa handiak egitera doazenez,  
errazagoa zaie printzei dena egin dezaketela sinestaraztea, herriari dena jasan  
dezakeela sinestaraztea baino<sup>277</sup>.

Azkenik, erroreetan beti da egia den zerbait. Zirkunstantzia partikularrek,  
eta beharbada bakarrek, ekarri dute Txinako gobernuaren egoera behar lukeen bezain  
ustelduta ez egotera. Jatorri fisikoa eta klimatikoa duten arrazoiek bortxatu egin  
bide dituzte arrazoi moralak herrialde horretan, eta mirari gisakoak egin bide  
dituzte.

Txinako klimak, den bezalakoa delako, bide ematen du giza espeziea miragarri ugal dadin. Hango emakumeak hain dira emankorrak non ez baita horrelakorik lurbira osoan beste inon ikusten. Tiraniarik krudelenak ez du geldiarazten ugalketa. Printzeak ezin du esan, Faraoiak bezala, "zapal ditzagun zuhurtziaz". Aldiz, Neronen desira izango luke, hots, gizateriak buru bakarra izan lezan. Tirania eta guzti, Txina, klimaren indarrez, beti populatuko da, eta tirania garaituko du.

Txinak, arroza hartzen duten herrialde guztiek bezala<sup>278</sup>, maiz izaten ditu goseteak. Herria gosez hiltzen denean, barreiatu egiten da bizibide bila. Alde guztietan sortzen dira hiru, lau edo bost laguneko lapur-taldeak: gehienak hil egiten dituzte hasieran; beste batzuk handitu egiten dira, baina azkenean hil egiten dituzte haiek ere. Baina hainbeste probintzia izanik, eta hain urrun bata bestetik, gerta daiteke talderen bat zori oneko izatea. Eutsi egiten dio, indartu egiten da, armada bihurtzen, zuzenean hiriburura jotzen du, eta buruzagia tronura igotzen da.

Halakoa da gauza, non lehenik gobernu gaiztoa zigortzen baitute. Bat-batean desordena sortzen da, herri harrigarri hark bizibiderik ez duelako. Beste herrialde batzuetan, gehiegikeriek ondorio nabarmenik ez dutelako dira hain zailak zuzentzen; horietan printzeari ez zaio jakinarazten Txinan bezain modu bizkor eta zaratatsuan.

Ez du sentituko, gure printzeek bezala, gaizki gobernatuz gero beste bizitzan ez dela hain zoriontsua izango, eta bizitza honetan ez dela hain boteretsua eta hain aberatsa izango. Berak hauxe jakingo du: bere gobernua ona ez bada, inperioa eta bizia galduko dituela.

Nahiz eta haur asko abandonatu, herria ugalduz doa<sup>279</sup>, eta etengabeko lana behar da lurak haiei guztiei elikatzeko adina eman dezan; horrek arreta handia eskatzen dio gobernuari. Oso interesatuta dago mundu guztiak lan egin ahal

dezan, lanak atsekabetuko ote duen beldurrik gabe. Gobernu zibila baino gehiago, gobernu etxekoa dateke hura.

Horra zerk sorrarazi dituen hainbesteko hizpidea eman duten araudiak. Legeak despotismoarekin nagusi izan zitezen nahi izan da, baina despotismoarekin doanak ez du indarrik. Alferrik nahi izan du despotismo horrek, bere zorigaitzek bultzatuta, bere burua kateatu; bere kateez armaturik, are izugarriago bihurtu da.

Txina, beraz, estatu despotikoa da, eta hango printzipioa beldurra da. Beharbada, lehen dinastietan, inperioa hain zabala ez izanik, gobernua ez zitzaion hainbeste jarraitzen izpiritu horri. Baina gaur egun bestela da hori.

## **BIGARREN PARTEA**

|

## IX. LIBURUA

### LEGEEZ, DEFENTSA-INDARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN

#### ALDETIK.

### LEHEN KAPITULUA

#### Nola arduratzen diren errepublikak beren segurantzaz.

Baldin eta errepublika bat txikia bada, atzerriko indar batek suntsituko du; handia bada, berriz, barruko bizio batek desegingo du.

Eragozpen bikoitz horrek kutsatzen ditu demokraziak eta aristokraziak ere, bai onak badira, bai gaiztoak badira. Gaitza gauzan bertan baitago: ez da ezer hori konponduko duenik.

Beraz, irudi luke gizakiak azken batean behartuta egongo ziratekeela beti bakar baten gobernupean bizitzera, baldin eta gobernu errepublikarraren barne-abantaila guztiak eta monarkiaren kanpo-indarra dituen konstituzio-mota bat imajinatu ez balute. Errepublika federatiboaz ari naiz.

Gobernu-era hori konbentzio bat da, zeinen bidez hainbat gorputz politikok berek eratu nahi duten estatu handiago bateko hiritar bihurtzea onartzen duten. Gizarteen gizartea da, gizarteek eratutako gizarte berria, eta are handiagotu egin daiteke beste gehiago elkartuz gero.

Elkarte horiei esker loratu zen hain denbora luzean Grezia. Horiei esker ekin zioten erromatarrek munduari; eta horiei eta ez besteri esker defendatu zen mundua erromatarren kontra; eta Erroma bere handitasunaren gorenera iritsi zenean, Danubio eta Rhin ibaien atzealdeko elkarteei esker, beldurragatik osatu ziren elkarteei esker, egin zioten aurre barbaroek.

Hori dela eta hartzen dituzte Europan Holanda<sup>1</sup>, Alemania, liga suitzarrak, betidanik errepublikatzat.

Hirien arteko elkarteak gaur egun baino beharrezkoagoak ziren antzina. Indarrik gabeko hiri batek arrisku gehiago zituen. Konkistatua izateak, indar betearazlea eta legegilea ez ezik, gizakien artean jabetza den guztia galarazten zion<sup>2</sup>.

Errepublika-mota horrek, kanpoko indarrari aurre egiteko gai izanik, barrualdea usteldu gabe iraun dezake bere handitasunean; gizarte horren formak eragozpen guztietatik gordetzen du.

Usurpatzeko asmoz letorkeena ez litzateke berdin onartua estatu konfederatu guztietan. Batean boteretsuegia bihurtuko balitz, asaldatu egingo lituzke beste guztiak; parte bat menderatuko balu, libre geratutako parteak artean aurre egin ahalko lioke hark usurpatutakoetatik independente liratekeen beste indar batzuekin, eta azpiratu egin ahalko luke hark sendotzea lortu baino lehen.

Baldin eta kide konfederatu baten baitan albaramenduren bat gertatzen bada, besteek bakera dezakete. Nonbait gehiegikeriaren bat sortzen bada, beste alde osasuntsuek zuzenduko dute. Estatu hori hil egin daiteke parte batean, eta bestean ez; konfederazioa desegin egin daiteke, eta hala ere konfederatuek subirano iraun.

Errepublika txikiz osatuta, bakoitzaren barruko gobernuaren ontasunaz gozatzen du; eta kanpotik begiratuta, elkartearen indarrari esker, monarkia handien abantaila guztiak ditu.

## **II. KAPITULUA**

**Konstituzio federatiboak izaera bereko estatuz osatuta egon behar duela, batez ere estatu errepublikarrez.**

Kanaandarrak, konfederatu gabeko monarkia txikietan antolatuta zeudelako, eta elkar hartuta defendatu ez zirelako, suntsituak izan ziren. Izan ere, monarkia txikien berezko izaera ez baita konfederazioa.

Alemaniko errepublika federatiboa hiri librez eta printzeen mendeko estatu txikiz osatua da. Esperientziak erakusten du Holanda eta Suitzakoak baino inperfektuagoa dela.

Monarkiaren izpiritua gerra eta handitu nahia da; errepublikaren izpiritua, berriz, bakea eta moderazioa. Bi gobernu-mota horiek ezin dute iraun errepublika federatibo batean, bortxatuta ez bada.

Erromako historian ere ikusten dugu horrelakorik: veioek errege bat aukeratu zutenean, Toscanako errepublika txikiek abandonatu egin zituzten. Dena galdu zen Grezian Mazedoniako erregeek anfiktioien artean leku bat lortu zutenean.

Alemaniko errepublika federatiboak, printze eta hiri librez osatuta, iraun egiten du; buruzagi bat du, aldez batasunaren magistratua eta aldez erregea dena.

### **III. KAPITULUA**

#### ***Errepublika federatiboetan bete beharreko beste gauza batzuk.***

Holandako errepublikan, probintzia batek ezin du aliantzarik egin besteen oniritzirik gabe. Lege hori oso ona da, are beharrezkoa ere bai, errepublika federatiboan. Germaniar konstituzioan, ordea, ez dute halakorik; han kide guztiak babestuko lituzke bakar baten zuhurtziarik ezaz, askonahiaz edo zekenkeriaz etor dakizkiekeen zorigaitzetatik. Beste batzuekin Konfederazio politiko batez batuta dagoen errepublika batek oso-osorik eman du bere burua, eta ez dauka besterik emateko.

Zaila da elkartutako estatuak handitasun eta indar berdinekoak izatea. Liziarren errepublika<sup>3</sup> hogeita hiru hirik osatutako elkartea zen: handiek hiru boto zituzten kontseiluan, ertainek bi, eta txikiek bat. Holandako errepublika zazpi probintziak osatzen dute, handi nahiz txiki, boto bana dutenak.



Liziako hiriek<sup>4</sup> botoen proportzioan ordaintzen zituzten zergak. Holandako probintziek ezin dute jokatu proportzio horren arabera; beren indarraren proportzioaren arabera jokatu behar dute.

Lizian<sup>5</sup>, kontseilu komunak aukeratzen zituen hirietako epaile eta magistratuak, eta esan dugun proportzioaren arabera. Holandako errepublikan, kontseilu komunak ez baina hiri bakoitzak izendatzen ditu bere magistratuak. Errepublika federatiboen eredu ederra eman beharko banu, Liziako errepublika hartuko nuke.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Nola arduratzen diren estatu despotikoak beren segurantzaz.***

Errepublikak beren segurtasunaz beren artean elkartuz arduratzen diren bezala, estatu despotikoak bananduz eta aldenduz egiten dute hori bera. Herrialdearen parte bat sakrifikatzen dute, mugak errausten dituzte, mortu utzi arte; inperioaren gorputza atzemanezin bihurtzen da hartara.

Geometrian onartuta dago ezen, zenbat eta zabalera handiagoa izan gorputzek, hainbat eta txikiagoa dela, erlatiboki, haien zirkunferentzia. Beraz, mugaldeak deboilatzeko jokabide hori onargarriagoa da estatu handietan ertainetan baino.

Estatu horrek etsai anker batek, gerarazi ezin litekeen etsai batek, egin liezaiokeen gaitzik handiena egiten dio bere buruari.

Estatu despotikoak beste bereizte-mota batez ere irauten du: probintziarik urrunenak printze feudatario baten eskuetan jarritz. Mogolak, Pertiak, Txinako enperadoreek, beren feudatarioak dituzte; eta turkiarrei oso ondo doakie etsaien eta beren artean tartaroak, moldaviarrak, valakiarrak eta, antzina, baita trantsilvaniarrak ere, jarri zituztenetik.

## V. KAPITULUA

### *Nola arduratzen den monarkia bere segurantzaz.*

Monarkia ez da, berez, bere kausaz suntsitzen, estatu despotikoa bezala; baina tamaina ertaineko estatu bat inbaditu egin daiteke. Hori dela eta, gotorlekuak ditu mugaldeak zaintzeko, eta armadak gotorleku horiek defendatzeko. Lur-zati txikienagatik ere artez, adorez eta setaz borrokatzen da. Estatu despotikoek bata bestea inbaditzen dute; monarkiek eta ez bestek egiten dute gerra.

Gotorlekuak monarkienak dira; estatu despotikoek beldur diote halakoak eraikitzeari. Ez dira ausartzen inoren esku uzten; izan ere, han inork ez du maite ez Estatua, ez printzea.

## VI. KAPITULUA

### *Estatuen defentsa-indarraz, oro har.*

Estatu bat indartsua izateko, haren handitasunak neurri batekoa izan behar du: erlazio bat egon behar du, haren kontra edozer egiteko behar den abiaduraren eta Estatuak kontrako ekinza hori indargabetzeko erabil dezakeen bizkortasunaren artean. Erasotzailea alde guztietatik ager daitekeenez, beharrezko da defendatzailea ere alde guztietan agertu ahal izatea, eta, ondorioz, Estatuaren tamaina ertaina izatea, naturak gizakiei batetik bestera joateko eman dien abiaduraren arabera proportzionatua.

Frantzia eta Espainia dira hain zuzen tamaina horretakoak. Indar armatuak hain komunikatzen dira ondo, non noranahi lekualdatzen baitira; armadak bildu

eta bizkor pasatzen dira muga batetik bestera; eta gauzak burutzeko behar den denborak ez du kezkarik sortzen.

Frantzian, zorioneko kasualitate batez, hiriburua hurbilago dago hain zuzen ahulenak diren mugaldeetatik; eta printzeak hobeto ikusten du bere herrialdeko zati bakoitza, zenbat eta arrisku handiagoa izan.

Baina Pertsia bezalako estatu handi bat, erasotzen dutenean, hilabeteak behar dira barreiatuta dauden tropak biltzeko; eta hain denbora luzean ezin da haien martxa behartu, hamabost egunetan egin daitekeen bezala. Mugaldean dagoen armada garaitzen badute, sakabanatu egingo da seguruenik, ez duelako erretiratzeko leku aproposik hurbilean izango. Armada garailea, kontra egingo dionik gabe, martxa handian aurreratzen da, hiriburu aurrean agertzen, eta, probintzietako gobernadoreei laguntza bidaltzeko deia iritsi baino lehen, setioari ekiten dio. Iraultza hurbil dela uste dutenek bizkortu egiten dute, ez obedituz. Izan ere, jendea zigorra hurbil duelako baita leial, ez hura urrun denean, eta bere interes partikularren alde lan egiten du. Inperioa desegin egiten da, hiriburua hartu egiten dute, eta konkistatzailea probintziez jabetzeko lehiatzen da gobernadoreekin.

Printze baten benetako indarra ez datza konkistatzeko duen erraztasunean, berari erasotzeko dagoen zailtasunean baizik; eta, ausartuko nintzateke esaten, bere izaeraren aldaezintasunean. Baina estatuak handitzen direnean, haiei eraso egiteko aproposak diren alde berriak uzten dituzte agerian.

Erregeek zuhurtzia izan behar dute beren indarra handitzeko, eta ez dute zuhurtzia gutxiagorik izan behar indar horri mugak jartzeko. Txikitasunaren eragozpenak ezabatzen eta handitasunaren eragozpenei begi ematen jakin behar dute.

## **VII. KAPITULUA**

### Gogoetak.

Erregealdi luzea izan zuen printze handi baten etsaiek mila aldiz salatu zuten —gehiago, nik uste, beren beldurrengatik, beren arrazoiengatik baino— monarkia unibertsalaren egitasmoa eratu eta horren atzetik saiatzeaz. Hori lortu izan balu, ez zatekeen ezer txarragorik Europarentzat, lehendik mendeko zituenentzat, berarentzat, bere familiarentzat. Zeruak, ezagunak baititu benetako abantailak, zerbitzu hobe egin zion porrotak emanez, garaitzak emanez baino. Europako errege bakar bihurtu ordez, on gehiago egin zion denen artean indartsue na eginez.

Haren nazioa, zerbait abandonatu behar izateak bestek ez du hunkitzen atzerrian; bere etxetik irtendakoan, loria ikusten du on nagusitzat, eta herrialde urrunetan, berriz, itzultzeko oztopotzat; bere tasun onengatik berengatik ere etsaiak sortzen ditu, tasunokin batera mesprezioa ere biltzen duela dirudielako; zauriak, arriskuak eta nekeak ere jasan ditzake, baina ez bere plazerren galtzea; bere alaitasuna adina ez du ezer maite, eta bataila bat galtzeaz jenerala gorai patutakoan kontsolatzen da. Nazio hori ez zatekeen eginkizun baten bururaino iritsiko, herrialde batean huts eginez gero herrialde guztietan huts egingo lukeen eginkizun baten bururaino, une batean huts eginez gero betiko huts egingo lukeen eginkizun baten bururaino.

### VIII. KAPITULUA

Estatu baten defentsa-indarra eraso-indarra baino txikiagoa deneko kasu bat.

Hona hemen Coucyko jaunak Karlos V.ari esandako hitzak: "Ingelesak inon ez dira hain ahulak eta hain errazak garaitzen, beren etxean bezainbat". Horixe esaten zuten erromatarrez ere; horixe frogatu zuten kartagotarrek; horixe

gertatuko zaio armada urrutira bidali duen indar orori, beren artean interes politiko edo zibilengatik zatituta daudenak biltzeko, diziplinaren eta botere militarraen indarrari esker. Estatua ahul dago iraun egiten duen gaitzagatik, eta are gehiago ahultzen du erremedioak.

Coucyko jaunaren erregela arau orokorraren salbuespen bat da. Arau orokorrak dio ez ekiteko urruneko gerrei. Eta salbuespen horrek ondo berresten du araua, araua hausten dutenen beren kontra emana baita.

## **IX. KAPITULUA**

### **Estatuen indar erlatiboaz.**

Handitasun, indar, ahalmen oro erlatiboa da. Kontu handia izan behar da, handitasun erreala are handiagotu nahian handitasun erlatiboa ez txikiagotzeko.

Luis XIV.aren erregealdiaren erdi aldera, Frantzia bere handitasun erlatiboaren goren gradura iritsi zen. Alemaniak artean ez zituen gerora izan dituen errege handiak. Italia ere kasu berean zegoen. Eskoziak eta Ingalaterrak ez zuten monarki gorputz bat osatzen. Aragoi ez zegoen bat eginda Gaztelarekin; Espainiako alde bananduak ahulduta zeuden, eta ahuldu egiten zuten Espainia. Moskovia ez zen Krimea baino ezagunagoa Europan.

## **X. KAPITULUA**

### **Auzo-estatuaren ahuleziaz.**

Auzoa gainbeheran datorren estatu bat denean, kontu handia izan behar da haren hondamena ez bizkortzeko; izan ere, alde horretatik, izan daitekeen egoerarik zorionekoena sortzen baita; printze batentzat ez baita ezer erosoagorik ondoan, beraren ordezkolpe eta irain guztiak jasoko dituen beste bat izatea baino.

Eta oso gutxitan gertatzen da, halako estatu bat konkistatuta, indar erlatiboa  
galtzen den neurrian benetako indarra irabaztea.

## X. LIBURUA

### LEGEEZ, ERASO-INDARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

## LEHEN KAPITULUA

### Eraso-indarraz.

Eraso-indarra jendeen zuzenbideak arautzen du, hots, nazioen lege politikoak, nazioek elkarren artean duten erlazioen aldetik begiratuta.

## II. KAPITULUA

### Gerraz.

Estatuen bizia gizakiena bezalakoa da. Gizakiek norbait hiltzeko eskubidea dute, norberaren defentsa naturalean izanez gero; estatuek gerra egiteko eskubidea dute, beren iraupenaren alde.

Neure buruaren defentsa bidezkoan bada, inor hiltzeko eskubidea dut; nire bizia nirea delako, erasotzen didanarena berea den bezala; era berean, estatu batek bere iraupena bidezkoa delako egiten du gerra, beste iraupen oro bezala.

Hiritarren artean, defentsa naturalaren eskubideak ez darama berekin eraso egin beharra. Erasotze egin beharrean, auzitegiara jo besterik ez daukate. Alegia, ez daukate defentsa horretarako eskubidea erabiltzerik, legeen laguntzaren zain egonda norbera galdua litzatekeen kasuetan izan ezik. Baina gizartearen artean, defentsa naturalerako eskubideak eraso egin beharra darama batzuetan berekin: hain zuzen, herri batek ikusten duenean bake luzeak beste herri bat bera suntsitzeko paradan jarriko lukeela, eta eraso dela, une horretan, suntsiketa horri ihes egiteko modu bakarra.

Hortik ondorio hau ateratzen da, gizarte txikiek handiek baino sarriago izan ohi dutela gerra egiteko eskubidea, sarriago egon ohi direlako suntsituko dituzten beldurrez.

Gerraren eskubidea, beraz, beharretik eta doi bidezkoa den horretatik dator. Printzeen kontzientzia gidatu edota kontseiluak ematen dizkietenak ez bazaizkio horri atxikitzen, galdua da dena; eta loria, begiramen, baliagarritasunezko printzipio arbitrarioetan oinarrituz gero, odol-errekek blaituko dute lurra.

Batez ere, ez bedi hitz egin printzearen loriaz; haren loria haren harrotasuna izango da; grina bat da hori, ez zilegizko eskubidea.

Egia da haren ahalaren ospeak handitu egin litzakeela bere estatuaren indarrak; baina haren justiziaren ospeak ere berdin handituko lituzke.

### **III. KAPITULUA**

#### **Konkista-eskubideaz.**

Gerrarako eskubidetik dator konkistarakoa ere, hau haren ondorio baita; beraz, izpiritu berari jarraitu behar zaio.

Herri bat konkistatzen dutenean, konkistatzaileak haren gainean duen eskubidea lau lege-motaren arabera da: naturaren legea, zeinen arabera denak espezieen kontserbaziorantz jotzen duen; arrazoi naturalaren legea, besteei guri egitea nahi genukeena egiteko agintzen diguna; sozietate politikoak eratzen dituen legea, naturak iraupena mugatu ez dien sozietate politikoak, alegia; azkenik, gaitik beretik datorren legea. Konkista eskuratze bat da; eskuratze-izpirituak berekin darama kontserbatzeko eta erabiltzeko izpiritua, baina ez suntsitzekoa.

Beste estatu bat konkistatu duen estatuak honako lau era hauetako batez tratatzen du: haren legeen arabera gobernatzen segitzen du, eta ez du beretzat hartzen gobernu politikoaren eta zibilaren erabilera baizik; edota gobernu politiko



eta zibil berria ematen dio; edota suntsitu egiten du gizartea, eta beste gizarte batzuetan sakabanatzen du; edota, azkenik, sarraskitu egiten ditu hiritar guztiak.

Lehen era gaur egun dugun jendeen zuzenbidearen arabera da; laugarrena erromatarren jendeen zuzenbidearen arabera da; eta hori horrela delarik, hausnargai uzten dut zenbateraino hobetu garen. Omen egin beharra dago hemen garai modernoek, egungo arrazoiari, egungo erlijioari, gure filosofiari, gure ohiturei.

Gure zuzenbide publikoko autoreek, antzinako historietan oinarrituta, eta muturreko kasuetatik abiatuz, akats handiak egin zituzten. Arbitrarietatean erori ziren; eman zuten konkistatzaileek bazutela halako eskubide bat, ez dakit nik zein, hiltzeko; eta hortik printzipioa bezain ondorio beldurgarriak atera zituzten; eta konkistatzaileek berek, zentzurik batere izan zutenean, inoiz erabili ez zituzten arauak ezarri zituzten. Argi dago ezen, konkista egin eta gero, konkistatzaileak ez duela hiltzeko eskubiderik; orduan ez baitauka defentsa naturalaren eta bere burua kontserbatu beharrik.

Honetxek pentsarazi die horrela: uste izan dute konkistatzaileak gizartea desgiteko eskubidea zuela; eta hortik ondorio hau atera dute, gizarte hori osatzen duten gizakiak suntsitzeko eskubidea ere bazutela; printzipio ustel batetik ateratako ondorio ustela da hori. Izan ere, gizartea erabat suntsitzetik ez baitator berez hura osatzen duten gizakiak ere suntsitu egin behar direnik. Gizartea gizakien batura da, ez gizakiak berak; hiritarra hil egin daiteke, eta hala ere gizakiak iraun.

Konkistan inor hiltzeko eskubidetik, politikariak jopu bihurtzeko eskubidea atera dute; baina ondorio hori ere printzipioa bezain gaizki oinarrituta dago.

Ez dago jopu bihurtzeko eskubiderik, konkista kontserbatzeko beharrezko denean izan ezik. Konkistaren helburua kontserbazioa da; esklabotza ez da inoiz

konkistaren helburu; baina gerta daiteke beharrezko bitartekoa izatea kontserbazioa lortzeko.

Kasu horretan, gauzaren naturaren kontrakoa da esklabotza hori betiko izatea. Beharrezko da herri esklaboa sujet bihurtu ahal izatea. Esklabotza, konkistan, ez da funtsezkoa. Denboraldi baten ondoren, estatu konkistatzaileko parte guztiak estatu konkistatukoekin batu ondoren, ohituren, ezkontzen, legeen, elkarteen eta nolabaiteko izpiritu-adostasun baten bidez, esklabotzak amaitu egin behar du. Izan ere, konkistatzailearen eskubideak aipatu gauza horiek ez izatean dautza, eta bi nazioak elkarretarik urrun egotean, bata bestean konfiantza izan ez dezakeelarik.

Hartara, konkistatzaileak, herria menderatutakoan, beti gorde behar ditu beretzat hura egoera horretatik ateratzeko bitartekoak (eta bitarteko horiek ezin konta ahalakoak dira)).

Nik ez diot zehaztasunik gabeko gauzarik hemen. Gure arbasoak, inperio erromatarra konkistatu zutenean, horrela aritu ziren. Garaitzaren suan, ekinean, oldarrean egindako legeak, gozatu egin zituzten; lege gogorak zituzten, eta inpartzial bihurtu zituzten. Borgoniarrek, godoek, lonbardoek, herri erromatarra beti herri garaitua izan zedin nahi zuten; Eurikoren, Gundebaldoren, eta Rotarikoren legeek hirikide egin zituzten barbaroa eta erromatarra<sup>6</sup>.

Karlomagnok, saxoniarrak mendean hartzeko, askatasuna eta ondasunen jabetza kendu zizkien. Luis I.a Errukitsuak libre deklaratu zituen<sup>7</sup>; ez zuen ezer hoberik egin bere erregealdi osoan. Denborak eta esklabotzak gozatu egin zizkien ohiturak, eta haiek leial izan zitzaizkion beti.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Herri konkistatuaren abantaila batzuk.**

Konkista-eskubidetik halako ondorio latzak atera orde, politikoei hobe zuketuen eskubide horiek herri garaituari batzuetan dakarzkieten abantailez hitz egin balute. Hobeto preziatuko zituzketen, gure jendeen zuzenbidea zehatz-mehatz bete izan balitz eta lurbera osoan ezarrita egon balitz.

Konkistatzen diren estatuak gehienetan ez dituzte izaten instituzio indartsuak: ustelkeria sartua izaten dute bertan; legeak ez dira betetzen; gobernuak zapaltzaile bihurtuta egoten da. Nola zailentzen jarri halako estatu bat ez litzatekeela irabazten irtengo, ez lukeela abantailarik aterako konkistatik bertatik, konkista hori suntsitzaile ez izanez gero? Gobernu bat, bere burua erreformatzeko gauza ez bada, zer galduko luke birfundatuko balute? Konkistatzaile bat herri batean sartutakoan, non aberatsak, mila trikimailuz eta jukutiaz, usurpatzeko ezin konta ahala bitarteko landu dituen, non zoritxarrekoa, gehiegikeria uste zutenak lege bihurtzen ikusteagatik negarrez, zapalduta dagoen, eta zapalkuntza sentitzea bere akats bat dela uste duen; konkistatzaile batek, diot, dena alda dezake; ezkutuko tirania da bortizkeria jasaten duen lehen gauza.

Ikusi izan dira, adibidez, zerga-biltzaileek zapaldutako estatu batzuek lasaitu ederra hartzen konkistatuak izan eta gero, konkistatzaileak ez zuelako legezko printzeak zituen konpromisoak ez premiak. Konkistatzaileak berak zuzendu gabe ere, zuzendu egiten ziren gehiegikeriak.

Batzuetan nazio konkistatzailearen urritasunak garaituei beharrezko zutena uztera behartu du nazio konkistatzailea bera, legezko printzearen mende zeudenean ukatu egiten zitzaizkalarik.

Konkista batek aurreiritzi kaltegarriak desegin ditzake; eta nazio bat jeinu hoberen baten mende jarri, horrela esaterik balego.

Zer on eraman zieten espainiarrek mexikarrei? Erlijio gozo bat zeukaten haiei emateko; superstizio eroa eraman zieten. Esklaboak libre egitea bazeukaten; eta esklabo bihurtu zituzten gizaki libreak. Giza sakrifizioez argia egitea

bazeukaten; horren ordezt, sarraskitu egin zituzten. Ez nuke inoiz amaituko, egin ez zituzten on guztiak eta egin zituzten gaitz guztiak kontatuko banitu.

Konkistatzaileari dagokio egin dituen kalteak konpontzea. Honela definitzen dut konkista-eskubidea: eskubide beharrezkoa, legezkoa eta zorigaitzekoa, beti zor izugarri handia uzten duena, giza izaerarekikoak kitatzeko.

## **V. KAPITULUA**

### **Gelon, Sirakusako erregea.**

Historiak kontatu digun bake-hitzarmenik ederrena, nik uste, Gelonek kartagotarrekin egin zuena da. Haurrak inmolatzeko ohitura ezaba zezaten nahi zuen<sup>8</sup>. Horra zer gauza miresgarria! Hirurehun mila kartagotar garaitu ondoren, haiei baizik balio ez zien zerbait exijitu zien; edota gizateriarentzat pentsatutakoa.

Baktiarrek zakurtzar batzuetara botatzen zituzten guraso zaharrak; Alexandrok debekatu egin zien<sup>9</sup>, eta supersitzioaren gainean lortutako garaitza izan zen hori.

## **VI. KAPITULUA**

### **Konkistatu egiten duen errepublika batez.**

Gauzen berezkoaren kontra doa, konstituzio federatibo batean, estatu konfederatu batek beste bat konkistatzea, garai hauetan suitzarren artean ikusi dugun bezala<sup>10</sup>. Errepublika federatibo mistoetan, non elkartea errepublika txikiz eta monarkia txikiz osatua den, hori ez da hain harrigarria.

Gauzen berezkoaren kontra doa, halaber, errepublika demokratiko batek demokraziaren baitan sartzen jakingo ez luketen hiriak konkistatzea. Konkistatutako herriak subiranotasunaren pribilegioez gozatu behar luke,

erromatarrek hasieran ezarri zuten bezala. Demokraziarako finkatuko den hiritar-kopurura mugatu behar da konkista.

Baldin eta demokrazia batek herri bat mendeko gisa gobernatzeko konkistatzen badu, bere askatasuna bera jarriko du jokoan; izan ere, indar handiegia emango die konkistatutako estatura bidaliko dituen magistratuei.

Zein arriskutan jarriko zatekeen Kartago, baldin eta Hanibalek Erroma konkistatu balu? Zer ez zukeen egingo hark bere hirian, porrotaren ondoren hainbeste iraultza eragin zituelarik?<sup>11</sup>

Hanonek inoiz ez zuen konbentzituko senatua Hanibali laguntza bidal ez ziezaion, baldin eta bekaizgo hutsez hitz egin balu. Senatu hark, Aristotelek dioskunez hain zuhurra izaki (eta ondo asko frogatzen digu hori errepublika haren aberastasunak), zentzuzko arrazoiez baizik ez zituen erabakiak hartzen. Ergelegia izan behar da hau ez ikusteko: armada batek, hirurehun legoatara urrunduta, galerak izango zituela nahitaez, eta galerok medeatu egin beharko zirela.

Hanonen alderdiak erromatarrei entregatu nahi zien Hanibal<sup>12</sup>. Beraz, ez ziren erromatarren beldur, Hanibalen beldur baizik.

Inork ez omen zuen sinesten Hanibalen arrakastan, baina nola jarri hura zalantzan? Kartagotarrek, lur osoan hedatuta, ez al zekiten zer gertatzen zen Italian? Ondo asko zekitelako, hain zuzen, ez zioten laguntzarik bidali nahi Hanibali.

Hanon irmoago bihurtu zen Trebia, Trasimeno, Cannesko batailen ondoren; sineskaiztasuna ez, beldurra handitu zitzaion.

## **VII. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Bada beste eragozpen bat demokraziek egindako konkistentzat. Haren gobernu gorrotagarri egiten zaie menderatutako estatuei. Itxuraz monarkikoa da, baina berez monarkia baino gogorragoa da, izan, aldi eta alde orotako esperientziak erakutsi duenez.

Konkistatutako herriak oso egoera tristean daude; ez dute ez errepublikaren ez monarkiaren abantailarik.

Estatu herritarraz esan dudana aristokraziari ere aplika dakioke.

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Gai beraren jarraipena.***

Hartara, errepublika batek herriren bat mendean daukanean, gauzen berezkotasunetik sortzen diren eragozpenak konpontzen saiatu behar du, zuzenbide politiko ona eta lege zibil onak emanez.

Italiako errepublika batek mendean zituen uhartetarrak; baina hauekiko zuen zuzenbide politikoa eta zibila akastuna zen. Ondo ezaguna da amnistia hura<sup>13</sup>, zeinen arabera ez zitzairen gorputz-zigorrik emango *gobernadorearen ardurape bakarrean* jarritz. Sarritan ikusi izan dira herriak pribilegioak eskatzen; kasu honetan erregeak ematen du nazio guztien zuzenbidea.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Bere inguruak konkistatzen dituen monarkia batez.***

Baldin eta monarkia batek luzaroan funtziona badezake bere hazkundeagatik ahuldu baino lehen, beldurgarri bihurtuko da; eta haren indarrak auzoko monarkiek presionatzen duten bitartean iraungo du.

Beraz, ez du konkistarik egin behar bere gobernuari dagozkion muga naturalen barruan baizik. Muga horiek gainditu bezain laster, gelditzeko agintzen du zuhurtziak.

Konkista-mota horretan, gauzak aurkitu bezala utzi behar dira; epaimahai berak, lege berak, ohitura berak, pribilegio berak. Ezer ez da aldatu behar, armada eta subiranoaren izena baizik.

Monarkiak auzoko probintzia batzuk konkistatuta mugak zabaldu dituenean, gozo-gozo tratatu behar ditu.

Luzaroan konkistak egiten jardun duen monarkia batean, muga zaharren barruko probintziak oso zapalduta egongo dira gehienetan. Gehiegikeria berriak eta zaharrak jasan beharko dituzte; eta sarritan dena irensten duen hiriburu handi batek jendez gabetu egin ditu. Alabaina, baldin eta, muga zaharren inguruko lurralde guztia konkistatu eta gero, garaitutako herriak ñhendiko sujetak bezala tratatuko balitu, Estatua galdua litzateke: konkistaturiko probintziek hiriburuari zergatan emandakoa ez litzaieke bueltan etorriko; mugak hondatuak lirateke, eta, beraz, ahulagoak; herriek gogoz kontra hartuko lituzkete; armaden mantenua, han geratu eta han jardun behar luketelarik, badaezpadakoagoa litzateke.

Horixe da monarkia konkistatzaile baten derrigorrezko egoera: izugarritzko luxua hiriburuan eta miseria probintzietan, hauek hartatik gero eta urrunago daudelarik; ugaritasuna muturretan. Gure planetan bezala gertatuko litzateke: erdian, sua; lurrazalean, berdetasuna; bien artean, lur elkor, hotz, antzua.

## **X. KAPITULUA**

**Beste monarkia bat konkistatzen duen monarkiaz.**

Batzuetan monarkia batek beste bat konkistatzen du. Zenbat eta txikiagoa izan hau, hainbat eta hobeto eutsiko zaio gotorlekuen bidez; zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta hobeto kontserbatuko da kolonien bidez.

## **XI. KAPITULUA**

### **Garaitutako herriaren ohiturez.**

Konkista hauetan, ez da aski garaitutako nazioari bere legeak uztea; beharbada are beharrezkoagoa da bere ohiturak uztea; izan ere, herri batek hobeto eta gehiago ezagutzen, maitatzen eta defendatzen baititu beti bere ohiturak bere legeak baino.

Frantziarrak bederatzi aldiz bota dituzte Italiatik; historialariek diotenez<sup>14</sup>, andre eta neskekin lotsagabe jokatzearagatik. Gehiegizkoa da nazio batentzat, garailearen harrotasuna ez ezik, haren neurririk eza jasan beharra; eta are gogaikarriagoa, horrez gainera haren zuhurtziarik eza jasan beharra, mugarik gabe ugaritzen dituelako bidegabekeriak.

## **XII. KAPITULUA**

### **Zioren lege batez.**

Ez deritzot lege ona Ziok egin zuen hari, lidiaerek lanbide mesprezagarriak edota lotsagarriak baino izan ez zitzaizten. Lehentasuna larrienari ematen zaio; erreboltak hartzen dira kontuan, baina ez inbasioak. Baina inbasioak laster etorriko dira, bi herriak batu eta biak galbideratu eta gero. Nahiago nuke legeen bidez herri garailearen zakartasunari eutsi, haien bidez herri garaituaren zabarkeriari bide eman baino.



Aristodemo, Cumasko tiranoa<sup>15</sup>, gazteriaren adorea makaltzen saiatu zen. Mutilek ilea neskek bezala luzatzen uztea nahi izan zuen; lorez apain zezatela; eta kolore desberdinetako soinekoak eraman zitzaatela, orpoetaraino; dantza eta musikako maisuengana joaten zirenean, emakumeek eguzkitakoak, urrinak eta haizemaileak eraman ziezazkietela; bainuan, orraziak eta ispiluak eman ziezazkietela. Heziketa horrek hogeitaz urtera arte irauten zuen. Hori tirano txiki batentzat baino ez da ona; bizia defendatzeko bere subiranotasuna arriskuan jartzen duen batentzat.

### **XIII. KAPITULUA**

#### **Karlos XII.a.**

Printze honek, bere indarrak baizik erabili ez baitzituen, bere galera eragin zuen, gerra luze batez baizik bete ezin ziren asmoak zeuzkalako; eta haren erresumak ez zeukan horri eusterik.

Ez zuen gainbeheran zegoen estatu bat irauli nahi izan, baizik eta inperio jaio berri bat. Moskoviarrak eskola batez bezala baliatu ziren hark egiten zien gerraz. Porrot bakoitzarekin, garaitzara hurbiltzen ziren; eta kanpoan galduz, barruan defendatzen ikasten zuten.

Karlosek munduko jaun eta jabe zela uste zuen Poloniako basamortuetan alderrai zebilelarik, Suedia han zehar barreiatua baitzen; bitartean, haren etsai nagusia beraren kontra gotortuko zen, eraso egingo zion, Baltiko itsasoan ezarriko zen, Livonia suntsitu edo hartuko zuen.

Suediak ibai bat ematen zuen: ubidea aldatzen zaion bitartean, iturburuan ura eten zaion ibai bat.

Ez zuen Pultovan galdu Karlosek; han suntsitu ez balute, beste nonbait suntsituko zuten. Zoriaren ezbeharrak erraz konpontzen dira; baina ez dago gauzen berezko izaeratik sortzen diren gertakizunak saihesterik.

Baina ez natura ez zoria izan ziren bera bezain gogorrek bere buruaren kontra.

Ez zen egokitzen gauzen egoerara, baizik eta berak osatua zuen eredu baten arabera jarduten zuen; eta eredu hari ere oso gaizki jarraitu zitzaion. Ez zen Alexandro; baina Alexandroren soldadurik onena izango zatekeen.

Alexandroren proiektuak zentzuzkoa zelako izan zuen arrakasta. Pertsiarrek Greziara egindako inbasioetan izandako porrotak, Agesilaoren konkistak, eta Hamar milen atzeraegiteak zehazki emana zuten ezagutzera greziarren nagusitasuna, beren borrokatzeko moduan, eta beren armetan; eta ondo jakina zen pertsiarrek handiegiak zirela okerrak zuzentzeko.

Ezin zuten Grezia zatiketen bitartez ahuldu: buru baten azpian batuta zegoen hura, eta buru horrek ez zeukan bitarteko hoberik hari bere esklabotza ezkutatzeko, bere betiko etsaiak suntsituz eta Asia konkistatzeko itxaropenaz liluratzea baino.

Munduko naziorik trebeen eta langileenak eratutako inperio batek, lurra erlijio-printzipioen arabera lantzen zuenak, emankorra eta ugaria gauza guztietan, erraztasun guztiak ematen zizkion etsaiari han irauteko.

Pentsa zitekeen errege haiek, beren porrotek beti alferrik saminduak, beren erorketa azkarragotuko zutela behin eta berriz bataila emanez; eta balakuek ez zietela inoiz utziko beren handitasuna zalantzan jartzen.

Eta egitasmoa zuhurra izateaz gain, zuhurtziaz burutu zen. Alexandro, bere ekintzen bizkortasunean, beren grinaren suan bertan, arrazoi-izpi batek gidatzen zuen, horrela esaterik badaukat; eta haren historiaz nobela bat egin nahi izan

dutenek, hark baino zentzu on gutxiago izanik, ezin izan digute hori ezkutatu. Hitz egin dezagun lasai horretaz.

#### **XIV. KAPITULUA**

##### **Alexandro.**

Ez zen abiatu Mazedonia auzoko herri barbaroen kontra segurtatu ondoren eta greziarrak menderatu ondoren baino; ez zen baliatu menderatze horretaz bere egitekoari ekiteko baino; ezgauza bihurtu zuen lazedemoniarren jelsia; itsasaldeko probintziei egin zien eraso; lehorreko armada kostatik eraman zuen, flotatik ez aldentzeko; oso ondo baliatu zen diziplinaz kopuruaren kontra; ez zitzaion falta izan hornigairik; eta egia bada ere garaitzak dena eman ziola, berak ere dena egin zuen garaitza lortzeko.

Bere egitekoaren hasieran, hau da, porrot batek itzulipurdikatu egin zezakeen unean, gauza gutxi utzi zituen zoriaren esku; zoriak gertakizunen gainetik jarri zuenean, ausarkeria izan zen batzuetan haren baliabide bat. Abiatu baino lehen, tribaliarren eta iliriarren kontra jotzen duenean, Zesarrek Galietan egin zuena bezalako gerra ikus daiteke<sup>16</sup>. Greziara itzuli zenean<sup>17</sup>, bere gogoz kontra bezala hartu eta desegin zuen Tebas; haien hiritik gertu kanpatuta, zain egon zen tebastarrek bake eske noiz etorriko. Berek ekarri zuten beren hondamendia. Pertsiarren itsas indarren kontra borrokatu behar izan zuenean<sup>18</sup>, Parmenionek izan zuen batez ere ausardia; Alexandrok, batez ere zuhurtzia. Haren taktika, pertsiarrek itsasertzetik aldentzea izan zen, eta bere itsas armada abandonatzera behartzea, alde hartatik gehiago baitziren. Tiro, printzipioz, pertsiarrekin bat eginda zegoen, hauek ez baitzeukaten haren merkataritza eta itsas ontziteria gabe moldatzerik; Alexandrok suntsitu egin zuen. Egipto hartu zuen,

Dariok troparik gabe utzia baitzuen, beste nonbait armada amaigabeak biltzen zituen bitartean.

Granikoko garaitzak greziar kolonien nagusi bihurtu zuen Alexandro; Issosko batailak Tiro eta Egipto eman zizkion; Arbellako batailak mundu osoa eman zion.

Issosko batailaren ondoren, ihes egiten utzi zion Dariori, eta bere konkistak sendotzeaz eta arautzeaz baizik ez zen arduratu; Arbellako batailaren ondoren, hain hurbiletik jarraitu zitzaion<sup>19</sup>, non ez baitzion utzi inora erretiratzen inperio osoan. Dario ez zen sartu bere hiri eta probintzietan, berehala irteteko izan ezik; Alexandroren martxak hain izan ziren bizkorak, non inperio unibertsalak lasterketaren saria baitzirudien, Greziako jokoetan bezala, garaitzaren saria baino.

Horrela egin zituen bere konkistak; ikus dezagun orain nola kontserbatu zituen.

Kontra egin zien greziarrak nagusi gisa eta pertsiarrek esklabo gisa trata zitzaiz<sup>20</sup> nahi zutenei: bi nazioak batzea beste kezkarik ez zuen izan, eta herri konkistatzailearen eta herri konkistatuaren arteko bereizketak ezabatzea; konkistaren ondoren, konkistarako balio izan zioten aurreiritzi guztiak baztertu zituen; pertsiarren ohiturak hartu zituen, pertsiarrek greziarren ohiturak harraraziz ez atsekabetzeko; horrexegatik erakutsi zien hainbesteko begirunea Darioren amari eta emazteari, eta erakutsi zuen hainbesteko kontinentzia. Nor ote konkistatzaile hau, menderatu zituen herri guztiek erostatua? Zer ote usurpatzaile hura, hildakoan tronutik kendu zuen familia bera malko-jario utzi zuena? Haren bizitzako ezaugarri hori dela eta, historialariek ez digute esaten beste inor horrelako ezaugarri batez harro ote daitekeen.

Ezerk ez du konkista bat gehiago sendotzen, bi herriak ezkontzen bidez batzeak baino. Alexandrok garaitu zuen herriko emazteak hartu zituen; bere gortekoek ere halakoak har zitzaiz nahi izan zuen<sup>21</sup>; beste mazedoniar guztiak

haien etsenpluari jarraitu zitzaizkion. Frankoek eta borgoniarrek<sup>22</sup> baimendu egin zituzten horrelako ezkontzak; bisigodoek debekatu egin zituzten<sup>23</sup> Espainian, eta gero baimendu egin zituzten; lonbardoek, onartu bakarrik ez, bultzatu ere egin zituzten<sup>24</sup>. Erromatarrek Mazedonia ahuldu nahi izan zutenean, zera ezarri zuten: ez zegoela probintzietako herrien arteko ezkontzarik egiterik.

Alexandrok, bi herriak batu egin nahi baitzituen, kontu handia jarri zuen Pertsian greziar kolonia ugari sortzeko; hiri asko eraiki zituen; eta hain ondo oinarritu zituen inperio berri hartako alde guztiak, non, bera hil ondoren gerra zibil beldurgarrienen nahasmendu eta istiluetan, greziarrak, nolabait esateko, beren artean elkar sarraskitu eta gero, Pertiako ezein probintzia ez baitzen matxinatu.

Grezia eta Mazedonia ez unatzeko, judu-kolonia bat bidali zuen Alexandriara<sup>25</sup>; ez zion axola zer-nolako ohiturak zituzten herri horiek, leial bazitzaizkion.

Ohiturak bakarrik ez zizkien utzi garaitutako herriei; beren lege zibilak ere utzi zizkien, eta sarritan baita lehendik zituzten errege eta agintariak ere. Mazedoniarrek jartzen zituen tropen buru<sup>26</sup>, eta bertakoak gobernuaren buru; nahiago baitzuen desleialtasun partikularren baten arriskua jasan (eta gertatu zitzaion halakorik inoiz), matxinada orokorra baino. Errespetatu egin zituen tradizio zaharrak, eta herrien loriaren edo handikeriaren monumentu guztiak. Pertiako erregeek suntsitu egin zituzten Greziako, Babiloniako eta Egiptoko tenpluak; berak berritu egin zituen<sup>27</sup>; beraren mende jarritako oso nazio gutxitan ez zituen sakrifizioak eskaini aldareetan; bazirudien nazio bakoitzeko errege partikularra eta hiri bakoitzeko lehen hiritarra izateko baino ez zuela konkista egin. Erromatarrek dena konkistatu eta dena suntsitu zuten; hark, berriz, dena konkistatu eta dena kontserbatu nahi izan zuen; eta bera ibilitako herrialde guztietan, lehen asmoa bertako aberastasuna eta ahalmena handituko zituen

zerbait egitea izan zen. Lehen bitartekoak bere jeinuaren handitasunean aurkitu zituen; bigarrenak, bere urritasunean eta ekonomia partikularrean<sup>28</sup>; hirugarrenak, gauza handietarako zeukan oparotasun neurriz gainera. Eskua itxi egiten zitzaion gastu pribatueterako, eta zabaldu gastu publikoeterako. Bere etxea konpondu beharra zeukala? Mazedoniarra zen horretarako; bere soldaduekiko zorrak ordaindu behar zirela, bere konkisten parte bat greziarrei eman, bere armadako gizon bakoitza aberastu? Alexandro zen orduan.

Bi ekintza gaizto egin zituen: Pertsepolis erre, eta Klitos hil. Ospetsu egin zituen damutu zenean, eta hartara ahaztu egin ziren haren ekintza kriminalak, eta bertuteari zion begirunea geratu zen denen gogoan; gauza haiek zoritxartzat kontsideratu ziren, ez berez zegozkion gauzat; hartara, geroak haren arimaren ederra aurkitzen du haren suminaldi eta ahulezien ondoan; hartara, erosta egin behar hura hil zenean, eta ezin gorrotatu.

Zesarrekin konparatuko dut: Zesarrek Asiako erregeak imitatu nahi izan zituenean, desesperatu egin zituen erromatarrek bere arrandiaz; Alexandrok Asiako erregeak imitatu nahi izan zituenean, bere konkistaren planean sartzen zen zerbait egin zuen.

## **XV. KAPITULUA**

### **Konkistaturikoari eusteko bitarteko berriak.**

Errege batek estatu handi bat konkistatzen duenean, bada modu miresgarri bat, bai despotismoa leuntzeko eta bai konkista kontserbatzeko: Txinako konkistatzaileek erabili izan dutena.

Garaitutako herria bere onetik ez ateratzeko, eta garailea ez harrotzeko; gobernu militar bihur dadin galarazteko, eta bi herriak eginbeharrari atxikita edukitzeko, gaur egun Txina gobernatzen duen familia tartariarrak zera erabaki

du: tropen gorputz bakoitza, probintzietan, erdia txinatarrez eta beste erdia tartariarrez osatuta egotea, bi nazioen arteko lehiak beren eginbeharrei atxikita eduki ditzan. Auzitegiak ere erdia txinatarrez eta erdia tartariarrez osatuta daude. Horrek zenbait ondorio on dakartza: 1. Bi nazioek elkarri eusten diote; 2. Biek gordetzen dute beren ahal militar eta zibil osoa, eta bata ez du bestea deusezten; 3. Nazio konkistatzailea noranahi heda daiteke, bere burua ahuldu eta galdu gabe; gerra zibilei eta arrotzen kontrako gerrei aurre egiteko gai da. Hain instituzio zentzuzkoa, non horrelako baten faltak galdu baititu lurra konkistatu duten ia guztiak.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Konkistatzen duen estatu despotiko batez.**

Konkista neurritz gainera denean, despotismoa eskatzen du. Orduan ez da nahikoa izaten probintzietan zehar barreiatutako armada. Beharrezko da printzearen inguruan beti gorputz bereziki fidagarria izatea, huts egin lezakeen inperio-zatiari berehala erasango liokeena. Armada horrek besteei eutsi behar die, ikaran jarri inperioan edozein aginte eman zaien guztiak. Txinako enperadorearen inguruan tartariarren gorputz handi bat dago, beti prest hark behar ditzanerako. Mongolen artean, turkiarren artean, Japonian, printzearen soldatapeko indar bat dago, lurren errenten bidez mantendutako armadaz gainera. Indar partikular horiek beren lekuan eusten diete jeneralei.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Esan dugu errege despotikoak konkistatzen dituen estatuek feudatario izan behar dutela. Historialariak laudoriotan urtzen dira koroa printze garaituen esku utzi duten konkistatzaileen esku zabala dela eta. Erromatarrek oso eskuzabalak ziren, eta nonahi egiten zituzten erregeak, beren zerbitzurako tresnak izan zitezen<sup>29</sup>. Horrelako ekintza bat nahitaezkoa da. Baldin eta konkistatzaileak konkistatutako estatua bere eskuetan gordetzen badu, bidaliko dituen gobernadoreek ez dute jakingo mendekoei eusten, ez eta konkistatzaileak berak ere gobenadore horiek. Lehendik zeukan lurraldea tropaz gabetzera behartuta egongo da, berria gordetzeko. Bi estatuen zoritxar guztiak bienak izango dira; baten gerra zibila bestearen gerra zibila izango da. Aitzitik, konkistatzaileak tronua legezko printzeari ematen badio, beharrezko aliatu bat izango du, dauzkan indarrez bereak emendatuko dizkiona. Ikusi berri dugu nola Nadir shah-k Mogolaren altxorrak konkistatu dituen, eta nola utzi dion Indostan.

## **XI. LIBURUA**

### **LIBERTATE POLITIKOA ERATZEN DUTEN LEGEEZ, KONSTITUZIOAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK**

## **LEHEN KAPITULUA**

### **Idea orokorra.**

Libertate politikoa eratzen duten legeak bereiziko ditut: batetik Konstituzioari dagozkionak, eta bestetik hiritarrei dagozkienak. Lehenak izango ditut liburu honetan mintzagai; bigarrenez hurrengo liburuan arituko naiz.

## **II. KAPITULUA**

### **Libertate hitzari emandako esanahi desberdinak.**



Ez da esanahi gehiago eta desberdinagoak hartu dituen hitzik, eta izpirituak hainbeste eratan kolpatu dituenik, *libertate* hitza baino. Batzuentzat, botere tiranikoa emana zioten hura bere kargutik kentzeko gaitasuna da libertatea; beste batzuentzat, nori obeditu behar dioten hautatzeko gaitasuna; beste batzuek, berriz, armatuta egoteko eta bortxaz jokatu ahal izateko eskubidetzat daukate; beste batzuek, beren nazioko gizon batek edota beren legeeaz baizik gobernatuak ez izateko pribilegiotzat<sup>30</sup>. Herri batek aspaldi hartu zuen libertatea bizar luzea erabiltzeko usadiotzat<sup>31</sup>. Batzuek gobernu-era bati eman diote izen hori, eta kanpo utzi dituzte beste erak. Gobernu errepublikarra probatutakoek gobernu horretan jarri dute libertatea; gobernu monarkikoaz gozatutakoek, berriz, monarkian<sup>32</sup>. Azkenik, bakoitzak bere ohitura edo joerekin bat zetorren gobernuari deitu dio *libertate*; eta errepublika batean ez baitira beti begien aurrean izaten, eta hain present, kexugai diren gaitzen tresnak; eta legeak han ozenago mintzatzen direla baitirudi, eta legearen betearazleek gutxiago hitz egiten dutela; horrenbestez, errepubliketan ezarri ohi da gehienetan, eta kendu egin ohi da monarkietatik. Azkenik, demokrazian herriak gutxi gorabehera nahi duena egiten duela dirudienez, libertatea gobernu-mota horietan jarri izan da; eta herriaren boterea herriaren libertatearekin nahastu dute.

### III. KAPITULUA

#### *Libertatea zer den.*

Egia da demokrazietan herriak nahi duena egiten duela dirudiela; baina libertate politikoa ez datza norberak nahi duena egitean. Estatu batean, hau da, legeak dituen gizarte batean, libertatea ezin izan haxe besterik: egin behar dena egin ahal izatea, eta egin behar ez dena egitera behartua ez izatea.

Jabetu beharra dago zer den independentzia, eta zer den libertatea. Libertatea legeek uzten duten guztia egiteko eskubidea da; eta hiritar batek legeek debekatzen dutena egiterik baleuka, ez legoke libertaterik, beste hiritarrek ere ahal hori izango bailukete.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Gai beraren jarraipena.**

Demokrazia eta aristokrazia, berez, ez dira egoera libreak. Libertate politikoa ez da gobernu moderatuetan baizik. Baina gobernu moderatuetan ere ez da beti izaten. Boterea gehiegikeriaz erabiltzen ez denean baizik ez da izaten libertate politikoa; baina betidanikoa da boterea duen gizon orok hura gehiegikeriaz erabiltzera jotzen duela; mugak aurkitu arte iristen da. Nork esan behar zuen! Bertuteak berak ere mugak behar ditu.

Boterea gehiegikeriaz erabiltzerik ez izateko, zera behar da: gauzen antolaeraz, botereak boterea geldiaraztea. Konstituzio bat izan daiteke halakoa non inor ez baita legeak behartzen ez dituen gauzak egitera behartua izango, ez eta legeak uzten dituenak egitera ere.

#### **V. KAPITULUA**

##### **Estatuen xedeaz.**

Estatu guztiek xede berbera badute ere –hots, irautea–, Estatu bakoitzak bere xede berezi bat izan ohi du. Handitzea zen Erromaren xedea; gerra, Lazedemoniarena; erlijioa, lege judutarrena; merkataritza, Marseilarena; lasaitasun publikoa, Txinako legeena<sup>33</sup>; nabigazioa, Rodasko legeena; libertate naturala, basatien legeriarena; printzearen gozamina, oro har, estatu despotikoena;

erregearen eta Estatuaren loria, monarkiena; partikular bakoitzaren independentzia da Poloniako legeen xedea, baina hortik denen zapalkuntza dator<sup>34</sup>.

Munduan bada nazio bat, bere Konstituzioaren xede zuzeneko zat libertate politikoa daukana. Zein printzipiotan oinarritzen den aztertuko dugu. Printzipioak onak badira, libertatea ispilu batean bezala agertuko da han.

Konstituzioan libertate politikoa aurkitzeko, ez da neke handirik hartu behar. Non dagoen ikus badaiteke, aurkitu bada, zergatik bilatu?

## **VI. KAPITULUA**

### **Inglaterra Konstituzioaz.**

Estatu bakoitzean hiru botere-mota daude: botere legegilea, jendeen zuzenbideari dagozkion gauzen botere betearazlea, eta zuzenbide zibilari dagozkion gauzen botere betearazlea.

Lehenaren bidez, printze edo magistratuak legeak egiten ditu denboraldi batez edo beti, eta egindakoak zuzentzen edo indargabetzen ditu. Bigarrenaren bidez, bakea edo gerra egiten du, enbaxadak bidaltzen edo hartzen ditu, segurtasuna ezartzen, inbasioei aurre egiteko neurriak hartzen. Hirugarrenagatik, delituak zigortzen ditu, edo partikularren arteko gorabeherak epaitzen. Azken honi epaitzeko boterea deituko diogu; eta besteari, Estatuaren botere betearazlea, besterik gabe.

Libertate politikoa, hiritar batengan, nork bere segurantzaz duen iritzitik datorren izpiritu-lasaitasun hori da; eta libertate hori izan dadin<sup>34</sup>, gobernu halakoa izatea behar da, non hiritar bat ezin den beste hiritar baten beldurrez egon.

Botere legegilea eta botere betearazlea pertsona beragan edo magistratura-gorputz berean batuta daudenean, ez da libertaterik; pentsatzekoa baita erregeak

berak edo senatuak lege tiranikoak egingo dituztela, modu tiranikoan betearazteko.

Ez da libertaterik, halaber, epaitzeko boterea botere legegiletik eta betearazletik bereizita ez badago. Botere legegilearekin bat eginda balego, hiritarren biziaren eta libertatearen gaineko boterea arbitrarioa litzateke, zeren eta epailea bera bailitzateke legegile. Botere betearazlearekin bat eginda balego, epaileak zapaltzaile baten indarra izan lezake.

Galdua litzateke dena, baldin eta pertsona berak, edo nagusien nahiz nobleen nahiz herriaren gorputz berak, hiru botereak balitu: legeak egitekoa, ebazpen publikoak egikaritzekoa eta partikularren delituak eta gorabeherak epaitzekoa.

Europako erresumarik gehienetan, gobernua moderatua da, zeren eta printzeak lehen bi botereak baititu, eta mendekoei uzten baitie hirugarrena. Turkiarren artean, ordea, hiru botereok sultanaren buruan batuta baitaude, despotismo beldurgarria da nagusi.

Italiako errepubliketan, non hiru botereok batuta baitaude, gure monarkietan baino libertate gutxiago dago. Horregatik ditu gobernuak, irauteko, turkiarren gobernuak bezain bitarteko bortitzak; horren froga dira Estatuaren inkisidoreak<sup>35</sup>, eta salatarien atabaka, non edonork, noiznahi, ohar bat utz dezakeen bere salaketarekin.

Ikus dezagun zein izan daitekeen hiritar baten egoera errepublika horietan. Magistratura-gorputz berberak, legeen betearazle gisa, bere buruari legegile gisa emana dion botere osoa du. Errautsi egin dezake Estatua bere borondate orokorrez; eta epaitzeko boterea ere baduenez, suntsitu egin dezake hiritar bakoitza bere borondate partikularrez.

Botere guztia bat da han; eta, nahiz eta agertu ez printze despotiko bat salatzen duen ospearen arrasto handirik, uneoro sumatzen da.

Halaberean, despotiko bihurtu nahi izan duten printze guztiak magistratura guztiak berengan bilduz hasi dira, eta Europako hainbat erregek beren Estatuko kargu handi guztiak.

Sinetsita nago Italiako errepubliken oinordekotzako aristokrazia hutsa ez dela inondik ere Asiako despotismoaren parekoa. Magistratuen ugariak leundu egiten du batzuetan magistratura; noble guztiak ez datoz bat gauza guztietan; hainbat epaimahai eratzten dira, eta elkar orekatzen dute. Hala, Venezian, *kontseilu handiak* legegintza du; *pregadi* delakoak, egikaritzea; *cuarantiek*, epaitzeko boterea. Baina gaitza honetan datza, epaimahai desberdinok gorputz bereko magistratuz osatuta daudela eta, beraz, botere bakar bat osatzen dutela.

Epaitzeko boterea ez zaio eman behar senatu betiraunkor bati, baizik eta, urteko zenbait sasoitan eta legeak agintzen duen bezala, herritarren artetik hartutako pertsonak erabili behar dute<sup>36</sup> epaimahaia eratzeko, premiak eskatzen duen bitartean eta ez luzeago irauten duen epaimahaia.

Hartara, epaitzeko boterea, hain izugarria gizakien artean, ez egoera bati ez lanbide jakin bati atxikia izanik, ikustezin eta deusez bihurtzen da, nolabait esanda. Ez dago epailerik etengabe begien aurrean; eta magistraturari zaio beldurra, eta ez magistratuei.

Are gehiago: salaketa handietan beharrezkoa da delitugileak, legearekin batera, epaileak aukeratzea; edota, gutxienez, hainbeste ezetsi ahal izatea, non geratzen direnak hark aukeratutakotzat jo ahal daitezen.

Beste bi botereak, eman lekizkieke magistratu edo gorputz betiraunkorrei; izan ere, ez baitira erabiltzen ezein norbanakoren gainean, bat Estatuaren borondate orokorra baita, eta bestea, borondate orokor horren egikaritzea.

Baina epaimahaiek finkoak izan behar ez badute ere, epaiek, ordea, bai, inoiz ez daitezen izan legearen testu jakin bat baizik. Epaia epailearen iritziz

partikular bat izango balitz, nork bere gainean zer konpromezu onartu dituen zehazki jakin gabe biziko ginateke gizartean.

Are gehiago: epaileek akusatuaren maila berekoak izan behar dute, haren parekoak, hark kalte egin nahi diotenen eskuetan jarri dutela pentsatzerik izan ez dezan.

Botere legegileak betearazleari uzten badio beren jokabidearen erantzule izan daitezkeen hiritarrak atxilotzeko eskubidea, ez da libertaterik; salbu eta legearen arabera larria den salaketa bati atzerapenik gabe erantzuteko atxilotu ez badituzte; kasu horretan, libre dira benetan, legearen boterearen mende baizik ez baitaude.

Baina botere legegileak Estatuaren kontrako konjurazio sekreturen batek edota kanpoko etsaiekiko elkartzeko batek bera arriskuan jartzen duela uste izango balu, baleukake botere betearazleari, denboraldi labur eta mugatu batez, hiritar susmagarriak atxilotzen uztea; hiritarrok aldi batez galduko lukete beren libertatea, baina betiko irabazteko.

Eta hori da arrazoizko bide bakarra, *eforoen* magistratura tiranikoa eta Veneziako *Estatuaren inkisidore* berdin despotikoak ordezteko.

Estatu libre batean arima librekotzat jotzen den gizon orok bere burua gobernatu behar duenez, herriak bere osoan eduki behar luke botere legegilea; baina Estatu handietan hori ezinezko denez, eta txikietan eragozpen asko dituen, herriak bere ordezkarien bidez egin behar du berez egin ezin duen guztia.

Norberaren hiriko premiak beste hirietakoak baino askoz hobeto ezagutzen dira; eta auzokoaren gaitasuna beste herrikideena baino hobeto epaitzen da. Beraz, ez da beharrezko gorputz legegileko kideak nazioaren gorputz orokorretik ateratzea; baina komeni da, leku nagusi bakoitzean, biztanleek ordezkari bat hautatzea.

Ordezkarien abantaila handia zera da, arazoak eztabaidatzeko gauza direla. Herria ez da horretarako gai; eta horixe da, hain zuzen, demokraziaren eragozpen handi bat.

Ez da beharrezko ordezkariak, hautatu dituztenengandik argibide orokorrak jaso dituztelarik, arazo bakoitzaren gaineko argibide partikularrak ere jasotzea, Alemaniako dietetan egin ohi den bezala. Egia da horrela eginez gero diputatuen hitza nazioaren ahotsaren adierazpide beteagoa litzatekeela; baina horrek luzamendu amaiezinak ekarriko lituzke, diputatu bakoitza beste guztien ugazaba bihurtuko luke; eta presa handieneko uneetan, apetatxo batek geldiaraziko luke nazioaren indar guztia.

Sidneyk oso ondo dioenez, diputatuek herri-gorputz bat ordezkatzeko dutenean, Holandan bezala, kontuak eman behar dizkiete ordezkariak eman dietenei; besterik da hirien diputatu direnean, Ingalaterran bezala.

Hiritar guztiek, barruti desberdinetan, eskubidea izan behar dute ordezkaria hautatzeko beren boza emateko; salbu eta, hain egoera baxuan egonik, beren berezko borondaterik ez dutela jotakoek.

Akats handi bat zuten antzinako errepublikariek gehienek: herriak ebazpen aktiboak hartzeko eskubidea zuen han, nolabaiteko exekuzioa eskatzen dutenak, baina herria ez da inolaz ere gai horretarako. Ordezkariak hautatzeko bakarrik sartu behar du gobernuan; hori bere esku baitago guztiz. Izan ere, gutxi badira gizonen gaitasunaren gradua zehazki ezagutzen dutenak, bakoitza gai da, ordea, oro har, hautatu duen hura beste gehienak baino argiagoa den jakiteko.

Ordezkarien gorputza ez da hautatu behar, halaber, ebazpen aktiboren bat hartzeko, hori ez bailegoko batere ondo, legeak egiteko baizik, edo ordezkarien gorputzak egin dituen legeak ondo bete diren ikusteko. Hori oso ondo egin baitezake; are gehiago, berak bestek ezin baitezake ondo egin.

Estatu batean, beti dira jaiotzaz, ondasunez edo ohorez goren direnak; baina horiek herritarren artean nahastuko balira, eta besteek bezalako boza besterik ez balute, denen libertatea haien esklabotza litzateke, eta ez lukete inolako interesik izango libertate hori defendatzeko, ebazpen gehienak beren kontra izango liratekeelako. Legegintzan duten parteak, beraz, Estatuan dituzten beste abantailen proportziokoa izan behar du; eta hori herriaren asmoak geldiarazteko eskubidea duen gorputza osatzen badute gertatuko da, herriak ere haienak geldiarazteko eskubidea baitu.

Horrela, botere legegilea nobleen gorputzari eta herria ordezkatzeko hautatutako gorputzari emango zaie, eta talde bakoitzak beren biltzarrak eta eztabaidak izango ditu, eta ikuspegi eta interes desberdinak.

Aipatu ditugun hiru botereetatik, epaitzekoa, nolabait esanda, ez da ezer. Bi besterik ez dira geratzen; eta neurrian ibiliko badira, botere arau-emaila baten premia dutenez, nobleek osatutako gorputz legegilearen parte oso egokia da horretarako.

Nobleen taldeak oinordekotzaz iraun behar du. Lehenik, bere izatez da horrelakoa, eta gainera beharrezko da bere pribilegioak gordetzeko interes handia izan dezan, berez gorrotagarri diren eta, Estatu libre batean, beti arriskuan egon behar duten pribilegioak.

Baina oinordekotzazko botere bat bere interes partikularren arabera jokatzera makur litekeenez, eta herriarenak ahaztera, zera behar da: botere hura erosteko interes handia sorrarazten duten gauzetan, hala nola diru-bilketari dagozkion legeetan, hark galarazteko ahalmena baino ez izatea legegintzan, eta ez erabakitzeko ahalmena.

*Erabakitzeko ahalmena*, nork bere kabuz agintzeko eskubideari deitzen diot, edo bestek agindutakoa zuzentzekoari. *Galarazteko ahalmena*, berriz, bestek hartutako ebazpen bat indargabetzeko eskubideari deitzen diot; horixe zen



Erromako tribunoen boterea. Eta galarazteko ahalmena duenak onesteko ahalmena ere izan dezakeen arren, kasu honetan onespén hori galarazteko ahalmena erabiltzen ez duelako adierazpen bat besterik ez da, eta ahalmen horretatik sortzen da.

Botere betearazleak errege baten eskuetan egon behar du; izan ere, hobe da gobernuaren parte hori, ia beti bat-batean jardun behar izaten duena, batek administratzea ezen ez zenbaitek; aldiz, botere legegileari dagokiona hobeto agintzen dute zenbaitek, bakar batek baino.

Erregerik ez balitz, eta botere betearazlea gorputz legegileko zenbait pertsonari emango balitzaio, ez litzateke libertaterik; izan ere, bi botereak bat eginda leudeke, eta batzuetan –ahalmen moduan, beti– pertsona berberetik hartuko lukete parte batean eta bestean.

Baldin eta gorputz legegilea denbora luzez egongo balitz bildu gabe, ez litzateke libertaterik. Izan ere, bitarik bat gertatuko litzateke: edota ez litzateke ebazpen legegilerik gehiago, eta Estatua anarkian eroriko litzateke; edota ebazpen horiek botere betearazleak hartuko lituzke, eta botere hau absolutu bihurtuko litzateke.

Alferrekoa litzateke gorputz legegilea beti bilduta egotea. Hori deserosoa litzateke ordezkariarentzat, eta gainera gehiegi arduratuko luke botere betearazlea eta ez luke ezer egikaritzeaz pentsatuko, baizik eta bere pribilegioak eta egikaritzeko lukeen eskubidea defendatzeaz.

Are gehiago: baldin eta gorputz legegilea beti bilduta balego, gerta liteke diputatu berriak hilko liratekeen diputatutuen ordezkari izendatzea; eta, kasu horretan, baldin eta gorputz legegilea behin ustelduko balitz, gaitza erremediorik gabea litzateke. Zenbait gorputz legegile bata bestearen atzetik doazenean, herriak, iritzi txarra baitauka egungo gorputz legegileaz, ondoren etorriko denaren gainean ezarriko ditu bere itxaropenak, arrazoiz; baina beti gorputz berbera balitz,

herriak, behin hura ustelduta ikusiz gero, ez lituzke haren legeak batere errespetatuko; sumindu edota alferkerian eroriko litzateke.

Gorputz legegileak ez du bere kabuz bildu behar. Izan ere, ustea da gorputz batek bilduta dagoenean baizik ez daukala borondatea, eta denak batera bilduko ez balira, ez legoke jakiterik zein parte litzatekeen benetan gorputz legegilea: bildutakoa, ala bildu gabekoa. Bere jardunaldia luzatzeko eskubidea balu, gerta liteke inoiz ere ez luzatzea, eta hori arriskutsua litzateke botere betearazlearen kontra jardun nahiko balu. Bestalde, garai batzuk besteak baino egokiagoak dira gorputz legegilea batzarrean bil dadin; beraz, botere betearazleak arautzen du batzar horiek noiz egin eta zenbat iraungo duten, ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera.

Baldin eta botere betearazleak ez badu gorputz legegilearen ekimenak geldiarazteko eskubidea, hau despotikoa izango da; izan ere, imajina dezakeen botere guztia eman ahalko baitio bere buruari, beste botere guztiak ezereztuta.

Baina ez da beharrezko botere legegileak ere botere betearazlea geldiarazteko ahalmena izan dezan. Izan ere, exekuzioak bere berezko mugak dituenetz, alferrekoa da hura mugatzea. Gainera, botere betearazlea unean uneko gauzen gainean erabiltzen da beti. Erromako tribunoen boterea akastuna zen: legegintza ez ezik, exekuzioa ere geldiarazten zuelako, eta horrek gaitz handiak ekartzen zituen.

Baina Estatu libre batean, botere legegileak botere betearazlea geldiarazteko eskubidea eduki behar ez badu ere, badu eta izan behar du berak egindako legeak nola bete diren aztertzeiko ahalmena; eta hori da gobernu honek Kreta eta Lazedemoniakoen gainean duen abantaila, bi leku horietan *kofmeek* eta *eforoek* ez baitzuten beren administrazioaldiaz konturik ematen.

Baina, dena dela azterketa hori, gorputz legegileak ez du izan behar egikaritzen aritzen den pertsona eta, beraz, pertsona horren jokabidea epaitzeko

gaitasuna. Pertsona horrek sakratua izan behar du; zeren eta, Estatuarentzat beharrezkoa izanik gorputz legegilea tiraniko bihur ez dadin, akusatu edo epaituko luketen unetik aurrera ez bailitzateke libertaterik gehiago.

Kasu horretan, Estatua ez litzateke monarkia izango, baizik eta libre ez den errepublika bat. Baina egikaritzen duenak ezin du gaizki egikaritu konseilari gaiztoak eduki gabe, ministro gisa legeak gorrotatzen dituztenak, nahiz eta gizon gisa beren lege horiek on egiten dieten; beraz, kontseilari horiek bilatu eta zigortu egin daitezke. Eta hori da gobernu horren abantaila Gnidokoaren aldean, non legeak *amimoneak*<sup>37</sup> epaiketara deitzeko biderik ematen ez zuenez, ezta haien administrazio-aldiaren ondoren ere<sup>38</sup>, herriak inoiz ezin baitzituen jasandako bidegabeez azalpenak eskatu.

Nahiz eta, oro har, epaitzeko botereak ez duen egon behar botere legegilearen ezein parterekin lotuta, hiru salbuespen ditu horrek, epaitua izan behar duenaren interes partikularren gainean oinarritutako hiru salbuespen.

Handiak bekaizkeriaren arriskupean daude beti, eta herriak epaituko balitu, arriskuan leudeke, eta ez leukakete Estatu libre bateko hiritarrik xumeenak daukan pribilegioaz baliatzerik, hots, bere parekoek epaitua izatekoaz. Beraz, nobleek nazioko epaimahai arruntan aurrera ez baina noblez osatutako gorputz legegilearen parte horren aurrera deituak izan behar dute.

Gerta liteke legea, aldi berean begi-zoli eta itsu baita, gogorregia izatea zenbait kasutan. Baina nazioko epaileak, esan dugunez, ez dira legearen hitzak esaten dituen ahoa baizik: legearen indarra edo gogortasuna leundu ezin duten izaki bizigabeak. Beraz, beste abagune batean beharrezkoa zela esan dugun gorputz legegilearen parte hura, beharrezkoa da oraingo honetan ere: bere autoritate gorenari dagokio legea legearen beraren alde leuntzea, legeak bezain epai zorrotzak ez emanez.

Gerta liteke, halaber, hiritarren batek, arazo publikoetan, herriaren eskubideak bortxatzea, eta magistratuek zigortzen jakingo edo zigortu nahiko ez lituzketen delituak egitea. Baina, oro har, botere legegileak ezin du epaitu; eta are gutxiago kasu partikular horretan, non parte interesatua ordezkatzan duen, hots, herria. Akusatzaile besterik ez dauka izaterik, beraz. Baina noren aurrean egingo du akusazioa? Bera baino beherago dauden epaimahaien aurrean apalduko ote da? Bera bezala, herriko pertsoez osatuta egonik, hain akusatzaile handiaren itzalak uzkurtuko lituzketen epaimahaien aurrean? Ez. Herriaren duintasuna eta partikularren segurtasuna gordetzeko, herriaren parte legegileak nobleen parte legegilearen aurrean akusatu behar du; honek ez ditu ez haren interes berak, ez grina berak.

Horixe da gobernu honek antzinako errepublika gehienek aldean duen abantaila; haietan gehiegikeria hori zegoen, herria aldi berean epaile eta akusatzaile zela.

Botere betearazleak, esan bezala, eragozteko duen ahalmenaren bidez hartu behar du parte legegintzan; hori gabe, laster kenduko baitizkiote bere pribilegioak. Baina botere legegileak exekuzioan parte hartzen badu, botere betearazlea galdu egingo da horrela ere.

Erregeak legegintzan xedatzeko ahalmena zela medio parte hartuko balu, ez litzateke libertaterik. Baina, hala eta guztiz ere, hark, bere burua defendatzeko, legegintzan parte hartu behar duenez, eragozteko ahalmenaren bidez hartu beharko du parte.

Erroman honexegatik aldatu zen gobernu-era: senatuak botere betearazlearen parte bat eta magistratuek beste partea izan arren, ez zutelako, herriak bezala, eragozteko ahalmena.

Hona hemen, beraz, hizpide dugun gobernuaren konstituzio funtsezkoa. Gorputz legegilea bi partez osatuta egonik, elkar lotuko dute bata besteari

kateatzeko ahalmenaren bidez; botere betearazleak bi horiek lotuko ditu, eta botere legegileak botere betearazlea lotuko du.

Hiru botere horiek atsedenean edo geldi egon beharko lukete. Baina, gauzek higitu beharra daukatenez, mugitzera behartuta daudenez, adostasunean mugitzera behartuta egongo dira.

Botere betearazlea eragozteko ahalmenagatik baizik ez denez legegilearen partaide, ez luke jakingo arazoen eztabaidan sartzen. Ezer proposatu beharrik ere ez du; izan ere, ebazpenak gaitzets ditzakeenez, errefusatu egin ditzake gogoko ez dituen proposamenen erabakiak.

Antzinako errepublika batzuetan, herriak gorputz gisa eztabaidatzen zituen arazoak, eta naturala zen arazook botere betearazleak proposatzea eta herriarekin eztabaidatzea; hori gabe, nahasmendu harrigarria izango baitzen ebazpenetan.

Baldin eta botere betearazleak zergen bilketaz, bere baiezkoa emanez ez baizik bestela, arauak ematen baditu, ez da libertaterik izango; botere hori legegile bihurtuko baita legeriaren punturik garrantzitsuenean.

Botere legegileak urtez urte ez baina betiko ematen baditu arauak zergen bilketaz, bere libertatea galtzeko arriskuan da; zeren eta botere betearazlea ez baitu bere mende izango; eta halako eskubide bat betiko izaten denean, berdin dio eskubide hori norberagandik edo besterengandik jasotzea. Gauza bera gertatzen da arauak urtez urte ez baina betiko ematen dituenean botere betearazleari eman behar dizkion lehorreko eta itsasoko armadez.

Egikaritzen duenak inor zapaltzerik eduki ez dezan, ematen zaizkion armadek herri izan behar dute, eta herriaren izpiritu bera izan behar dute, Erroman Marioren garaian bezala. Eta hori horrela izan dadin, bi bide besterik ez daude: edo armadan enplegatzen direnek nahikoa ondasun izatea beste hiritarren aurrean beren jokabidearen erantzule izateko, eta urtebeterako bakarrik erroldatzea, Erroman egin ohi zen bezala; edota, armada-gorputz iraunkor bat izanez gero, eta

bertan soldaduak nazioko parterik doilorrenetakoa, beharrezko da botere legegileak nahi izan bezain pronto hura desegin ahal izatea, soldaduak hiritarrekin bizi izatea, eta ez kanpamendu berezirik, ez koartelik, ez gotorlekurik izatea.

Armada eratu eta gero, ez du egon behar zuzenki gorputz legegilearen mende, botere betearazlearen mende baizik, eta hori gauzaren beraren izaeragatik: berari ekintza dagokio, ez deliberamendua.

Gizakien pentsaerak ausardiari herabetasunari baino garrantzi handiagoa ematen dio; ekintzari, zuhertasunari baino handiagoa; indarrari, aholkuei baino handiagoa. Armadak mesprezatu egingo du beti senatua, eta errespetatu egingo ditu bere ofizialak. Ez die kasurik egingo herabetzat —eta, beraz, beraren gainean agintea izateko ezduintzat— dauzkan lagunez osatutako gorputz batek emandako aginduei. Hartara, armada gorputz legegilearen mende bakarrik egonez gero, gobernu militar bihurtuko da laster. Eta inoiz kontrakoa gertatu bada, ohiz kanpoko arrazoiengatik gertatu da: edota armada beti aparte egon zelako; edota bakoitza bere probintzia partikularren mende dauden hainbat gorputzez osatuta zegoelako; edota hiriburuak leku bikainak zirelako, beren kokapenari esker defendatzen zirenak, eta armadarik ez zutenak.

Holanda Venezia bera baino seguruagoa da: desegin egingo lituzke matxinatutako tropak, gosez akabatuko lituzke. Izan ere, tropak ez daude mantenua emango lieketen hirietan; beraz, mantenua badaezpadakoa dute.

Baldin eta, armada gorputz legegilearen agindupean legokeen kasuan, zirkunstantzia partikularrek gobernuari militar bihurtzea galarazten badiote, beste eragozpen batzuk izango dira. Bitarik bat: edota armadak gobernu suntsitu beharko du, edota gobernuak armada ahuldu.

Eta ahultze horrek oso arrazoi gaiztoa izango du: gobernuaren beraren ahuleziatik sortuko da.

Tazitok germaniarren ohiturei buruz duen obra miresgarria irakurri nahi bada<sup>39</sup>, ikusiko da haiengandik hartu dutela ingelesek beren gobernu politikoaren ideia. Sistema eder hori basoetan aurkitu zen.

Gizakien gauza guztiek beren azkena dutenez, hizpide dugun Estatuak bere askatasuna galduko du, hil egingo da. Erroma, Lazedemonia eta Kartago hilda daude. Botere legegilea betearazlea baino ustelduago egongo denean hilko da.

Ez dagokit niri aztertzea ea gaur egun ingelesek libertate hori baduten ala ez. Aski zait esatea beren legeek ezarria dela, eta ez dut gehiago bilatzen.

Honekin ez nituzke beheratu nahi beste gobernuak, ez eta esan ere libertate politiko ezin handiago horrek min eman behar diela libertate moderatua dutenei. Nola esango nuke horrelakorik, arrazoiaren gehiegikeria bera ere ez dela beti desiragarria sinesten dudan honek?; eta gizonak ia beti hobeto egokitzen direla erdialdean, muturretan baino?

Harrington-ek ere aztertu zuen, bere *Oceana*-n, Estatu bateko Konstituzioa noraino eraman daitekeen, zein den libertate-punturik altuena. Baina hauxe esan daiteke Harrington-ez, libertate hori beraren ezjakinean egon ondoren baizik ez zuela bilatu; eta Bizantzioko itsasertza begien aurrean edukita eraiki zuela Kaltzedonia.

## **VII. KAPITULUA**

### ***Ezagutzen ditugun monarkiez.***

Guk ezagutzen ditugun monarkiek ez dute, hizpide izan ditugunek bezala, libertatea beren helburu zuzentzat; hiritarren, Estatuaren eta printzearen loria besterik ez dute jomuga. Baina loria horretatik libertate-izpiritu bat sortzen da, Estatu horietan libertateak berak bezain gauza handiak egin ditzakeena, eta agian zoriona lortzen hark beste lagun dezakeena.

Hiru botereak ez daude banatuta ez bat eginda hizpide izan berri dugun Konstituzio-ereduaren arabera; bakoitzak bere banaketa partikularra du, eta horren arabera gehiago edo gutxiago hurbiltzen zaizkio libertate politikoari; eta hurbilduko ez balitzaizkio, monarkia despotismo bihurtuko litzateke.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Zergatik antzinakoek ez zuten oso ideia argia monarkiaz.**

Antzinakoek ez zuten ezagutzen noblezia-gorputz baten gainean sortutako gobernurik, eta are gutxiago nazio bateko ordezkariak osatutako gorputz legegile baten gainean sortutako gobernurik. Italia eta Greziako errepublikak, bakoitzak bere gobernua zeukaten hiriak ziren, eta hiritarrak beren harresien barruan biltzen zituztenak. Erromatarrek errepublika guztiak irentsi baino lehen, ia ez zen erregerik inon Italian, Galian, Espainian, Alemanian; herri txikiak edo errepublika txikiak ziren denak. Afrika bera ere handi baten mende zegoen; Asia Txikia kolonia grekoek hartuta zegoen. Beraz, ez zegoen ez hiri-diputatuen, ez Estatu-batzarren etsenplurik; Pertsiaraino joan behar zen, pertsona bakar baten gobernua aurkitzeko.

Egia da bazirela errepublika federatiboak; zenbait hirik diputatuak bidaltzen zituzten batzar batera. Baina nik diot ez zegoela eredu honen araberrako monarkiarik.

Hona hemen nola eratu zen guk ezagutzen ditugun monarkien lehen plana. Nazio germaniarrak, inperio erromatarra konkistatu zutenak, oso libreak ziren, jakina denez. Tazitoren Germaniarren ohiturez irakurri besterik ez dago. Konkistatzaileak herrialdean zehar hedatu ziren; landan bizi ziren, ez hirietan. Germanian zirenean, nazio guztia bil zitekeen. Konkistan hedatu zirenean, ezin izan ziren bildu. Hala ere, nazioak bere arazoez deliberatu beharra zeukan,



konkista aurretik egin izan zuen bezala; ordezkarien bitartez egin zuen hori. Horra nola sortu zen gobernu gotikoa gure artean. Hasieran aristokrazia eta monarkia nahastu ziren. Eragozpen bat zeukan, herri xehea esklabo zela; gobernu-era ona zen, eta hobe bihurtzeko ahalmena zeukan. Gero emantzipazio-gutunak emateko ohitura etorri zen; eta laster herriaren libertate zibila, nobleziaren eta apaizen pribilegioak, erregeen botereak hain ondo elkartu ziren, non ez baitut uste mundu osoan Europako parte bakoitzeko gobernu hura bezain moderaturik izan denik, iraun zuen denboraldian; eta miresgarria da herri konkistatzaile baten gobernua usteltzean gizonek imajinatu ahal izan duten gobernu-modurik hoberena eratu izana.

## **IX. KAPITULUA**

### **Aristoteleren pentsaera.**

Aristoteleren nahasmendua argi ageri da monarkiaz ari denear<sup>40</sup>. Bost mota bereizten ditu. Ez ditu bereizten Konstituzio-eraren arabera, baizik eta funtsezko ez diren gauzen arabera, hala nola printzearen bertuteen edo bizioen, edo besterenak ziren gauzen arabera, hala nola tiraniaren usurpazioa, edo tiraniaren oinordekotza.

Aristotelek monarkien sailean sartzen ditu pertsiarren inperioa eta Lazedemoniako erresuma. Baina nork ez du ikusten bata Estatu despotikoa zela, eta bestea errepublika?

Antzinakoek, ez baitzuten ezagutzen hiru botereen banaketa pertsona bakar baten gobernuan, ezin zuten ideia doirik eratu monarkiaz.

## **X. KAPITULUA**

### **Beste politikari batzuen pentsaera.**

Bakar baten gobernu leuntzeko, Arribas-ek<sup>41</sup>, Epiroko erregeak, errepublika baizik ez zuen imajinatu. Molosiarrek, botere hori nola mugatu asmatu ezinik, bi errege egin zituzten<sup>42</sup>; horrela, Estatua agintea baino gehiago ahultzen zen; haiek aurkariak izatea nahi, eta etsaiak eduki zituzten.

Bi errege ezin ziren onartu Lazedemonian izan ezik; han ez zuten Konstituzioa eratzen, baina Konstituzioaren osagai ziren.

## **XI. KAPITULUA**

### **Greziarrek garai heroikoetan izandako erregeez.**

Greziarren artean, garai heroikoetan, iraun ez zuen monarkia-era bat ezarri zen<sup>43</sup>. Arteak asmatzen zituztenek, herriaren alde gerra egiten zutenek, gizon barreiatuak biltzen, edo lurak ematen zietenek, berentzat lortzen zuten erregetza, eta beren haurrei ematen zieten oinordekotzan. Errege, apaiz eta epaile ziren. Hau da Aristotelek aipatzen dizkigun bost monarkia-motetako bat<sup>44</sup>; eta konstituzio monarkikoaren antza duen bakarra da. Baina konstituzio horren plana gaur egungo gure monarkiei kontrajarrita dago.

Hiru botereak honela zeuden banatuta: herriak botere legegilea zuen<sup>45</sup>, eta erregeak botere betearazlea eta epaitzekoa; guk ezagutzen ditugun monarkietan, ordea, printzeak botere betearazlea eta legegilea ditu, edo gutxienez legegilearen parte bat; baina ez du epaitzen.

Garai heroikoetako erregeen gobernuan, hiru botereak gaizki banatuta zeuden. Monarkia haiek ezin zuten iraun; izan ere, herriak legegintza zuenez, apetarik txikiena izan orduko ezabatu egin zezakeen erregetza, eta egin ere halaxe egin zuen nonahi.

Botere legegilea duen herri libre batean, hiri batean bildutako herri batean, non gorrotagarri den oro are gorrotagarriago bihurtzen den, epaitzeko boterea ondo kokatzen jakitea da legeriaren maisu-lana. Baina botere hori ezin okerrago egon botere betearazlea ere bazeukanaren eskuetan baino. Une horretatik aurrera, erregea beldurgarri bihurtzen zen. Baina aldi berean, legegintza ez zeukanez, ezin zen defendatu haren kontra; batetik, botere handiegia zuen, eta bestetik ez zuen aski botere.

Artean ohartu gabe zeuden printzearen benetako zeregina epaileak izendatzea zela, ez epaitzea. Horren kontrako politikak jasanezin bihurtu zuen bakar baten gobernuaz. Errege haiek guztiak bota egin zituzten tronutik. Greziarrek ez zuten imajinatu botereen benetako banaketa pertsona bakar baten gobernuan; zenbaiten arteko gobernuan baino ez zuten imajinatu, eta konstituzio-mota horri *polizia* deitu zioten<sup>46</sup>.

## **XII. KAPITULUA**

### ***Erromako erregeen gobernuaz, eta nola banatu zituzten han hiru botereak.***

Erromako erregeen gobernu-erak bazuen zerikusirik greziarren garai heroikoetako erregeenarekin. Bere akats orokorragatik erori zen, besteak bezala; nahiz eta berez, eta bere izate partikularrean, oso ona izan zen.

Gobernu-era hori ezagutarazteko, lehen bost erregeen artean, Servio Tuliorena eta Tarkinorena bereiziko ditut.

Korua hautabidezkoa zen eta, lehen bost erregeen aldian, senatuak izan zuen parterik handiena hautapenean.

Erregea hil ondoren, senatuak ezarrita zegoen gobernu-era gordeko ote zen aztertzen zuen. Gordetzea egoki zela erabakitzen bazuen, magistratu bat izendatzen zuen<sup>47</sup> bere artetik, eta hark errege bat hautatzen zuen; senatuak onetsi

egin behar zuen hautapena, herriak berretsi, eta iragarpenek bermatu. Hiru baldintza horietakoren bat falta bazen, berriro hautatu behar zen.

Konstituzioa monarkikoa, aristokratikoa eta popularra zen; eta hainbestekoa izan zen boterearen harmonia, non ez baitzen kusi ez zelorik, ez eztabaidarik lehen erregealdietan. Erregeak armada gidatzen zuen, eta sakrifizioen intendentziaren ardura zuen; auzi zibilak<sup>48</sup> eta kriminalak<sup>49</sup> epaitzeko ahalmena zuen; senatua deitzen zuen; herria biltzartzen zuen; auzi batzuk ematen zizkion, eta besteak senatuarekin arautzen zituen<sup>50</sup>.

Senatuak aginte handia zuen. Erregeek senadoreak hartzen zituzten sarri berekin batera epaitzeko; ez zioten arazorik azaltzen herriari, aurrez senatuan deliberatu gabe<sup>51</sup>.

Herriak magistratuak hautatzeko eskubidea zuen<sup>52</sup>, lege berriak onestekoa eta, erregeak uzten zionean, gerra deklaratzeko eta bakea egitekoa. Ez zeukan epaitzeko ahalmena. Tulo Hostiliok Horazioen epaiketa herriari eman zionean, arrazoi partikularrak izan zituen; Dionisio Halikarnasokoak ematen ditu arrazoiok<sup>53</sup>.

Konstituzioa aldatu egin zen Servio Tulioaren erregealdian<sup>54</sup>. Senatuak ez zuen parterik izan haren hautapenean; herriak errege aldarrika zezala lortu zuen. Bizkar eman zien epaiketa zibilei<sup>55</sup>, eta kriminalak baizik ez zituen gorde beretzat; herriari eman zizkion zuzenean arazo guztiak; zergak arindu zizkien, eta zama guztia patrizioei bizkarreratu zien. Hartara, errege-boterea eta senatuaren agintea ahuldu ahala, herriaren boterea handitu zuen<sup>56</sup>.

Tarkinok ez zuen utzi ez senatuak ez herriak hauta zezaten; usurpatzailatzat jo zuen Servio Tulio, eta oinordekotza-eskubide gisa hartu zuen koroa; hil egin zituen senadore gehienak; ez zien kontsulta egin geratu zirenei, eta ez zien deitu berak egiten zituen epaiketetara<sup>57</sup>. Haren boterea handitu egin zen, baina botere hartan gorrotagarri zena are gorrotagarriago bihurtu zen; herriaren boterea

usurpatu zuen; hura gabe egin zituen legeak; are gehiago, haren kontra egin zituen<sup>58</sup>. Hiru botereak bere pertsonan bilduko zituzkeen, baina herria halako batean gogoratu zen bera zela legegilea, eta hantxe amaitu zen Tarkino.

### **XIII. KAPITULUA**

#### **Gogoeta orokorrak Erromako estatuaz, erregeak kanporatu ondoren.**

Ez dago erromatarrek alde bat uzterik; gaur egun ere, haien hiriburuan, jauregi berriak utzi eta hondakin zaharrak bilatzen dira; halaxe belazeen ederrean atsedean hartutako begiak ere, harkaitzak eta mendiak ikustea maite du.

Patrizioen familiek pribilegio handiak izan zituzten betidanik. Abantaila haiek, handiak erregeekin, are handiago bihurtu ziren haiek bota eta gero. Horrek herri xehearen zeloak ekarri zituen, eta apaldu egin nahi izan zituzten. Eztabaidak konstituzioaz ziren, gobernua ahuldu gabe; izan ere, magistratuek beren agintea gorde bitartean, berdin zion zein familiatakoak ziren.

Hautabidezko monarkia batek, halakoxea baitzen Erroma, hura sostengatuko duen gorputz aristokratiko indartsua eskatzen du; hori gabe, lehenik tirania edo herri-estatu bihurtzen da. Baina herri-estatu batek, irauteko, ez dauka familien arteko bereizketa horren beharrik. Horrexegatik patrizioak, erregeen garaian konstituzioaren parte nahitaezkoa izanik, alferreko bihurtu ziren kontsulen garaian; herriak apaldu egin zituen bere burua suntsitu gabe, eta Konstituzioa galbideratu gabe aldatu zuen.

Servio Tuliok patrizioak eraitsi zituenean, Erroma erregeen eskuetatik herriaren eskuetara erori zen. Baina herriak, patrizioak apaltzean, ez zuen izan beldurrik atzera berriz ere erregeen eskuetan erortzeko.

Estatu bat bi eratan alda daiteke: edo Konstituzioa zuzendu egiten delako, edo gaiztotu egiten delako. Estatuak bere printzipioak gorde baditu, Konstituzioa

zuzendu egiten da aldatzen denean; Estatuak bere printzipioak galdu baditu, gaiztotu egiten da Konstituzioa aldatzen denean.

Erromak, erregeak kanporatu ondoren, demokrazia izan behar zuen. Herriak botere legeilea zuen jadanik; haren aho batezko botoak bota zituen erregeak, eta asmo horretan irauten ez bazuen, tarkinotarrak noiznahi itzul zitezkeen. Haiek bota ondoren zenbait familiaren mende esklabotzan eroriko zela pentsatzeak ez zuen ez buru ez hankarik. Beraz, gauzen egoerak zera eskatzen zuen, Erroma demokrazia izatea, eta hala ere ez zen. Nagusien boterea leundu eta legeak demokraziantz lerrarazi beharra zegoen.

Sarritan Estatuak gehiago aurreratzen dira konstituzio batetik bestera oharkabea pasatzean, konstituzio horietako batean edo bestean baino. Izan ere, orduantxe izaten dira atezuan gobernuaren baliabide guztiak; hiritar guztiek dituzte asmoak; elkar erasotzen eta ferekatzen dute; norgehiagoka zintzoa izaten da, batetik gainbeheran datorren konstituzioa defendatzen dutenen eta bestetik nagusitzen dena bultzatzen dutenen artean.

#### **XIV. KAPITULUA**

##### **Hiru botereen banaketa nola hasi zen aldatzen, erregeak kanporatu ondoren.**

Lau gauza zihoazen batez ere Erroman libertatearen kontra: patrizioek bakarrik lortzen zituzten enplegu sakratu, politiko, zibil eta militarrik; kontsulatuari botere neurritz gainekoa emana zitzaion; herriari gehiegikeriak egiten zitzaizkion; eta azkenik, ia ez zitzaion inolako eraginpiderik uzten botazioetan. Herriak lau gehiegikeria horiexek zuzendu zituen.

1. Zenbait magistratura plebeioen esku ere izateko modua ezarri zuen; eta pixkanaka, denetan parte hartu ahal izatea lortu zuen, erregearteko aldia izan ezik.

2. Kotsulatua atalkatu egin zen, eta handik hainbat magistratura sortu ziren: pretoreak eratu ziren<sup>59</sup>, eta auzi pribatuak epaitzeko ahalmena eman zitzaizen; kuestoreak izendatu ziren<sup>60</sup>, delitu publikoak epaitzeko; edilak ezarri ziren, eta poliziaren ardura eman zitzaizen; diruzainak egin ziren<sup>61</sup>, diru publikoaren administrazioaz arduratzeko; azkenik, zentsoreak sortu eta hiritarren ohiturak eta Estatuko gorputzen behin-behineko jokabidea arautzen dituen botere legegilearen parteak kendu zitzaizen kotsulei. Geratu zitzaizkien pribilegio nagusiak hauek izan ziren: herriaren komizio orokorretan<sup>62</sup> buru izatea, senatua biltzarrean biltzea, eta armadaren buru izatea.

3. Lege sakratuek patrizioen ekimenak noiznahi geldiaraz zitzaizketen tribunoak ezarri zituzten, eta irain partikularrak ez ezik, orokorrak ere galarazten zituzten.

Azkenik, plebeioek handitu egin zuten erabaki publikoetan zeukaten eragina. Erromako herria hiru eratan banatuta zegoen: zenturiak, kuriak eta tribukak; eta bere botoa ematen zuenean, hiru era horietako batean batzartuta eta antolatuta egoten zen.

Lehenengoan, patrizioek, nagusiek, aberatsek, senatuak –gauza bera ziren gutxi gorabehera– aginte osoa zeukaten; bigarrenetan, gutxiago zeukaten; hirugarrenean, are gutxiago.

Zenturiakako banaketa zergen eta ondasunen banaketa zen, pertsona bakoitzari. Herri osoa ehun eta hogeita hamahiru zenturietan banatuta zegoen<sup>63</sup>. Zenturia bakoitzak bere botoa zuelarik. Patrizioek eta nagusiek lehen laurogeita hemezortzi zenturiak eratzen zituzten; beste hiritar guztiak beste laurogeita hamabost zenturietan sartzen ziren. Zatiketa horren arabera, beraz, patrizioak ziren botolan nagusi.

Kuriak egindako banaketan<sup>64</sup>, patrizioek ez zituzten abantaila berberak. Batzuk bazituzten, hala ere. Iragarpenak kontsultatu beharra zegoen, zeinen

nagusi patrizioak baitziren; ez zegoen herriari proposamenik egiterik aurrez senatuan aurkeztu eta senatu-kontsultuak onetsi gabe. Baina tribukako banaketan, ez iragarpenek ez senatu-kontsultuak zeukaten zereginik, eta patrizioak ez ziren onartuak.

Alabaina, herria kuriaka egiten saiatzen zen beti zenturiaka egin ohi ziren biltzarrak, eta tribuka kuriaka egiten ziren biltzarrak; horrela, patrizioen eskuetatik plebeioenetara pasatu ziren arazoak.

Hartara, plebeioek patrizioak epaitzeko eskubidea lortu zutenean —eta hori Koriolanoren arazoarekin hasi zen<sup>65</sup>—, plebeioek tribuka bilduta epaitu nahi izan zituzten<sup>66</sup>, ez zenturiaka; eta herriaren mesedetan tribuno eta edilen magistratura berriak<sup>67</sup> ezarri zirenean, herriak kuria biltzartzea lortu zuen haiek izendatzeko; eta bere boterea sendotu zuenean, tribukako biltzar batean izendatuko zituztela lortu zuen<sup>68</sup>.

## **XV. KAPITULUA**

***Nola, errepublikako estatua loratzen ari zenean, Erromak bat-batean galdu zuen bere libertatea.***

Patrizioen eta plebeioen arteko eztabaiden suan, bigarrenak lege finkoak eman zekizkien eskatu zuten, epaiketak ez zitezen borondate apetatsu baten edo botere arbitrario baten ondorio izan. Erresistentzia askoren ondoren, senatuak onartu egin zuen. Lege horiek osatzeko, dezenbiroak izendatu ziren. Botere handia eman behar zitzaiela uste izan zen, ia bateraezinak ziren bi parteri legeak eman behar zizkietelako. Magistratu guztien izendapena eten zen, eta, komizioetan, errepublikako administratzaile bakar hautatu zituzten. Kontsulen eta tribunoen botereaz jantzita zeuden. Batak senatua biltzarrean biltzeko eskubidea ematen zien; besteak, herria biltzekoa; baina ez zuten deitu ez senatua ez herria.



Errepublikan, hamar gizonek botere legegile guztia, botere betearazle guztia, epaiketen botere guztia izan zuten. Erroma Tarkinorena bezain tirania ankerraren mende geratu zen. Tarkinok bere gehiegikeriak egiten zituenean, Erroma suminduta zegoen hark usurpatutako botereagatik; dezenbiroek bereak egin zituztenean, harrituta geratu zen eman zien botereagatik.

Baina zer tirania-mota zen hura, botere politikoa eta militarra arazo zibiletan adituak izateari esker baizik lortu ez zituzten pertsonen gauzatua? Zer tirania-mota zen, abagune hartan hiritarrak Estatu barruan koldar –gobernatuak izatea onar zezaten– eta kanpoan ausart –Estatua defenda zezaten– izatea behar zuena?

Virginiaren heriotzaren ikuskizunak –aitak lotsaren eta libertatearen izenean sakrifikatua– deuseztatu egin zuen dezenbiroen boterea. Denak sentitu ziren libre, denak izan zirelako irainduak; mundu guztia bihurtu zen hiritar, mundu guztia sentitu zelako aita. Senatuak eta herriak berreskuratu egin zuten tirano irrigarriei emandako libertatea.

Erromako herria beste edozein herri baino gehiago hunkitzen zuten ikuskizunek: Lukreziaren gorpu odolduaren ikuskizunak eman zion azkena erregetzari. Plazan zauriz beteta agertu zen zordunak, errepublikaren forma aldarazi zuen. Virginiaren ikuskizunak dezenbiroak botarazi zituen. Manlio kondenarazteko, Kapitolioaren bista kendu behar izan zitzaion herriari. Zesarren jantzi odolduek esklabotzara itzularazi zuten Erroma.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Errepublika erromatarreko botere legegileaz.**

Dezenbiroen garaian ez zegoen eskubiderik eztabaidatzerik, baina libertatea berriro etorri zenean, jelsiak birsortu egin ziren. Plebeioek kendu egin zizkieten patrizioei geratzen zitzaizkien pribilegioak.

Kaltea ez zatekeen hain handia izango baldin eta plebeioak patrizioei beren pribilegioak kenduta ase balira, eta haien hiritartasunari irain egin ez baliote. Herria kuriaka edo zenturiaka biltzen zenean, senadoreek, patrizioek eta plebeioek osatzen zuten. Eztabaidetan, plebeioek haxe lortu zuten<sup>69</sup>: berek bakarrik, patrizioak eta senatua gabe, plebiszito zeritzen legeak egin ahalko zituztela; eta legeak eman ziren komizioei tribukako komizio deitu zieten. Hartara, zenbait kasutan patrizioek ez zuten parterik izan botere legegilean<sup>70</sup>, eta Estatuko beste gorputz baten botere legegilearen mende geratu ziren<sup>71</sup>. Libertatearen eldarnioa izan zen hura. Herria, demokrazia ezartzeko, demokraziaren beraren printzipioen kontra joan zen. Bazirudien hain botere neurritz gainekoak senatuaren agintea deuseztu beharko zukeela, baina Erromak instituzio miresgarriak zituen. Batez ere bi zituen: batak herriaren botere legegilea arautzen zuen; besteak mugatu egiten zuen.

Zentsoreek, eta haien aurretik kotsulek<sup>72</sup>, herriaren gorputza eratzen eta sortzen zuten, nolabait esateko, bost urtetik behin; botere legegilea zeukan gorputzari berari betearazten zizkieten legeak. "Tiberio Grako zentsoreak", dio Zizeronek, "hiriko tribuetara aldatu zituen libertoak, ez bere etorriari esker, baizik eta hitz bati eta keinu bati esker; eta hori egin ez balu, ez genukeen izango egun nekez eusten diogun errepublika hau".

Bestetik, senatuak herriari errepublika eskuetatik kentzeko boterea zuen, nolabait esateko; nola, eta diktatore bat sortuz, zeinen aurrean subiranoak burua makurtzen baitzuen, eta lege herrikoienek isiltasunean geratzen baitziren<sup>73</sup>.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Errepublika horretako botere betearazleaz.**

Herriak bere botere legegileaz ardura handia izan bazuen ere, ez zuen hainbestekoa izan bere botere betearazleaz. Ia oso-osorik utzi zien senatuari eta kontsulei; eta ia magistratuak hautatzeko eta senatuaren eta jeneralen aktak berresteko eskubidea besterik ez zuen beretzat gorde.

Erromak, bere grina agintea baitzuen, bere anbizioa dena mendeant hartzea, beti usurpatzen ibilia zen, artean ere usurpatu egiten zuen, eta arazo handiak zituen etengabe; izan ere, etsaiek azpilanean jarduten zuten beraren kontra, edota berak jarduten zuen etsaien kontra.

Batetik ausardia heroikoz, eta bestetik zuhurtzia ezin handiagoz aritzera behartuta, gauzen egoerak arazoen gidaritza senatuak izatea eskatzen zuen. Herriak botere legegilearen adar guztiak eztabaidatzen zizkion senatuari, zeren eta ardura handia baitzuen bere libertateaz; ez zizkion eztabaidatzen, ordea, botere betearazlearen adarrak, ardura handia baitzuen bere loriaz.

Senatuak botere betearazlean zeukan partea hain zen handia, non, Polibiok dioskunez<sup>74</sup>, atzerritarrek pentsatzen baitzuten Erroma aristokrazia bat zela. Senatuak diru publikoak zituen, eta akurak ematen zituen; arbitro zen aliatuen arazoetan; gerra eta bakea erabakitzen zituen, eta alde horretatik kontsulak gidatzen zituen; erromatar armadaren eta aliatuen armadaren kopurua finkatzen zuen, probintziak eta armadak banatzen zizkien kontsulei edo pretoreei; eta aginte-urtea amaitu ondoren, oinordekoa eman ziezaiekeen; garaikurrak ematen zituen; enbaxadak hartzen eta bidaltzen; erregeak izendatzen, saritzen, zigortzen, epaitzen, Erromako herriaren aliatu titulua ematen edo kentzen.

Kontsulek gerrara eraman behar zuten tropa erreklutatzen zuten; lehorreko edo itsasoko armadak gidatzen zituzten; aliatuak zituzten; probintzietan, errepublikaren botere osoa zuten; bakea ematen zieten herri garaituei, baldintzak ezartzen zizkieten, edo senatura bidaltzen zituzten.

Lehen garaietan, herriak gerra- eta bake-arazoetan eskurik bazuenean, gehiago erabiltzen zuen botere legeilea botere betearazlea baino. Ia ez zuen besterik egiten, erregeek —eta haien ondoren kontsulek edo senatuak— egindakoa berretsi besterik ez. Herria ez zen gerrako arbitroa inola ere; aitzitik, ikusten dugunez, kontsulek edo senatuak maiz herriaren tribunoen nahiaren kontra egiten zuten gerra. Baina gerora herriak handitu egin zuen bere botere betearazlea, eta berak sortu zituen legioen tribunoak<sup>75</sup>, ordura arte jeneralek izendatu izan zituztenak; eta lehen gerra punikoa baino lehentxeago, gerra deklaratzeko eskubidea berak bakarrik zeukala arautu zuen<sup>76</sup>.

## **XVIII. KAPITULUA**

### ***Erromako gobernu-eraren epaitzeko botereaz.***

Epaitzeko boterea herriari, senatuari, magistratuei, zenbait epaileri eman zitzaien. Nola zegoen banatuta ikusi behar da. Arazo zibiletatik hasiko naiz.

Erregeen ondoren kontsulek<sup>77</sup> epaitu zuten, eta kontsulen ondoren pretoreek. Servio Tuliok uko egin zion auzi zibilak epaitzeari; kontsulek ere ez zituzten epaitu, oso kasu bitxietan izan ezik<sup>78</sup>; hain zuzen horrexegatik, *ohiz kanpoko* kasuak deitu zitzaien halakoei<sup>79</sup>. Askietxi egin zuten epaileak izendatzea eta epaitu behar zuten epaimahaiak eratzea. Dionisio Halikarnasokoak dakarren Apio Klaudioren diskurtsoaren arabera<sup>80</sup>, badirudi Erromako 259. urteaz geroztik, erromatarren artean ezarritako ohituratzat hartzen zela. Hortaz, ez goaz urrunegi hura Servio Tulioren garairaino eramaten badugu.

Urtero pretoreak zerrenda<sup>81</sup> edo taula bat osatzen zuen bere magistraturako urtebetean epailetarako aukeratuak zituenekin. Auzi bakoitzerako nahikoa pertsona hartzen ziren. Ingalaterran berdintsu egiten da. Eta libertatearentzat oso

onuragarria zen<sup>82</sup> pretoreak alderdien onespenearekin aukeratzea<sup>83</sup>. Egun Ingalaterran egin daitezkeen ezezen ugariak usadio horretatik datoz.

Epaile horiek egitate-arazoak besterik ez zituzten erabakitzen<sup>84</sup>; esate baterako, dirutza bat ordaindu zen ala ez; ekintza bat egina zen ala ez. Baina zuzenbidezko arazoei dagokienez<sup>85</sup>, gaitasun maila bat eskatzen zuten, zentunburoen epaimahaira eramaten zituzten<sup>86</sup>.

Erregeek auzi kriminalen epaiketa gordetzen zuten berentzat, eta kontsulek berdin egin zuten haien ondotik. Autoritate horren ondorioz hil zituen Brutus kontsulak haurrak eta tarkiniarren alde azpilanean jardun zuten guztiak. Botere hori neurritz gainekoa zen. Kontsulek botere militarra bazutenez, berdin erabiltzen zuten hiriko arazoetan ere; haien prozedurak, justiziaren formez biluztuta, ekintza bortitzak ziren, ez epaiketak.

Horrek Lege Valeriarra ekarri zuen, zeinek herriari hiritar baten bizia arriskuan jartzen zuten kontsul-ordenantza guztien kontra jotzeko bidea ematen baitzion. Kontsulek ezin izan zuten erabaki heriotza-zigorrik hiritar erromatar baten kontra, herriaren borondatez izan ezik<sup>87</sup>.

Tarkiniarrak itzul zitezen egindako lehen konjurazioan ikusten denez, Brutus kontsulak epaitu zituen errudunak; bigarrenean, berriz, senatua eta komizioak bildu ziren haiek epaitzeko<sup>88</sup>.

Sakratu izendatu ziren legeek tribunoak eman zizkieten plebeioei, eta haiek hasieran asmo neurrigabeak izan zituen gorputza eratu zuten. Ez dago jakiterik zer izan zen handiagoa: plebeioen eskatzeko ausardia koldarra, ala senatuaren amore ematea eta akordiotara iristeko erraztasuna. Lege Valeriarrak apelazioak egiten uzten zion herriari; alegia, senadoreek, patizioek eta plebeioek osatutako herriari. Plebeioek apelatzeak beren aurrera eraman behar zirela erabaki zuten. Laster auzitan jarri zen ea plebeioek patizio bat epaitzerik bazeukaten; eztabaida baten gaia izan zen hori, Koriolanoren auziak sorrarazia, eta auzi horrexekin amaitu

zena. Koriolanok, tribunoek herriaren aurrean salatu zutenean, zera zioen –Lege Valeriarraren izpirituaren kontra–, patrizio izanik, kontsulek baizik ezin zutela epaitu; plebeioek, lege berberaren izpirituaren kontra, berek baizik ez zutela epaitu behar aldarrikatu zuten, baita halaxe egin ere.

Hamabi Tauletako legeak aldatu egin zuen hori. Lege horrek agindu zuen ezin zela hiritar baten biziaren gainean ezer erabaki herriaren *batzar* handietan izan ezik<sup>89</sup>. Hartara, plebeioen gorputzak, edota gauza bera dena, tribukako komizioek, ez zuten gehiago epaitu zigortzat diru-isuna zuten delituak. Heriotza-zigorra ezartzeko *lege* bat behar zen; diru-zigorra emateko, *plebiszitoa* besterik ez zen behar.

Hamabi Tauletako legearen xedapen hori oso zuhurra izan zen. Adostasun miresgarria eragin zuen plebeioen eta senatuaren gorputzen artean. Izan ere, batzuen eta besteen arteko lehia zigorraren tamainaren eta delituaren mende zegoenez, bat etorri beharra zeukaten.

Lege Valeriarrek kendu egin zuen Erroman garai heroikoetako errege greziarren gobernuarekin zerikusirik zuen guztia. Kontsulak delituak zigortzeko botererik gabe geratu ziren. Delitu guztiak publiko badira ere, bereizi beharra dago, batetik hiritarrei beren arteko harremanetarako dagozkienak, eta bestetik Estatuari hiritarrarekiko harremanetarako dagozkionak. Lehenei pribatu deitzen zaie; bigarrenak lege-hauste publikoak dira. Herriak berak epaitu zituen lege-hauste publikoak eta, pribatuei zegokienez, delitu bakoitzarentzat kuestore bat izendatzen zuen mandatu berezi baten bidez. Herriak magistratu bat aukeratzen zuen maiz, eta inoiz gizon pribatua. *Parrizidio-kuestorea* deitzen zitzaion. Hamabi Tauletako legean aipamena egiten zaio<sup>90</sup>.

Kuestoreak auziaren epailea zeritzana izendatzen zuen, eta hark epaileak aukeratu eta epaimahaia eratzen zuen, eta epaimahaiburu izaten zen epaiketan<sup>91</sup>.

Ondo dago hemen azpimarratzea senatuak kuestorearen izendapenean zuen partaidetza, ikus dadin nola zeuden orekatuta, alde honetatik, botereak. Batzuetan senatuak diktatore bat hautarazten zuen kuestore-lana egiteko<sup>92</sup>; beste batzuetan herria deitzen zuen tribuno baten bidez, kuestore bat izenda zezan<sup>93</sup>; azkenik, herriak magistratu bat izendatzen zuen batzuetan, hark senatuari delitu bati buruzko txostena egin ziezaion, eta kuestore bat aukeratzeko eska ziezaion, Luzio Eszipionen epaiketan ikus daitekeen bezala<sup>94</sup>, Tito Liviok dakarrenez<sup>95</sup>.

Erromako 604. urtean, mandatu horietako batzuk iraunkor bihurtu zituzten<sup>96</sup>. Arazo kriminal guztiak hainbat partetan banatu ziren pixkanaka, eta arazo iraunkorrak deitu zitzaien. Zenbait pretore sortu zituzten, eta bakoitzari arazo horietako batzuk eman zitzaizkion. Berei zegozkien delituak epaitzeko, urtebeteko boterea eman zitzaien; eta ondoren beren probintzia gobernatzera joaten ziren.

Kartagon, Ehunen Senatua biziarteko epailez osatuta zegoen<sup>97</sup>. Baina Erroman pretoreak urtebeterako ziren; eta epaileak ezta urtebeterako ere, arazo bakoitzerako hautatzen baitzituzten. Liburu honetako VI. kapituluan ikusi dugu zenbateraino zen xedapen hau, zenbait gobernutan, libertatearen aldeko.

Epaileak senadoreen artetik aukeratu ziren Grakoen garaira arte. Tiberio Grakok zaldunen artetik hartuak izan zitezen agindu zuen; hainbesteko aldaketa izan zen hori, non tribunoa harro agertzen baitzen eskaera bakar batez senadoreen ordenari zainak ebaki zizkiolako.

Azpimarratu behar da hiru botereak ondo bana daitezkeela konstituzioaren libertateari dagokionez, nahiz eta hain ondo banatuta ez egon hiritarraren libertateari dagokionez. Erroman, herriak botere handiegia zeukan: ahalmen legegilearen parterik handiena, ahalmen betearazlearen parte bat, eta epaitzeko ahalmenaren parte bat; beste botere batez orekatu beharrekoa, hortaz. Senatuak ahalmen betearazlearen parte bat zuen, zalantzarik gabe; ahalmen legegilearen

adarren bat ere bai<sup>98</sup>, baina ez zen nahikoa herriari aurre egiteko. Beharrezkoa zen epaitzeko ahalmenean ere parte eduki zezan; eta bazeukan, epaileak senadoreen artean hautatzen zirenean. Grakoek senadoreak epaitzeko ahalmenaz gabetu zituztenean<sup>99</sup>, senatua ezin izan zitzaion gehiago jarki herriari. Beraz, konstituzioaren libertatearen kontra egin zuten, eta hiritarraren libertatearen alde, baina harekin batera galdu zen hau ere.

Ezin konta ahala gaitz etorri ziren hortik. Konstituzioa, konstituzio bat nekez zegoen garaian aldatu zen, hots, borroka zibilen sutan. Zaldunak ez ziren gehiago izan herria eta senatua lotzen zituen tarteko ordena; eta konstituzioaren katea eten egin zen.

Baziren arrazoi partikularrak ere auziak zaldunen eskuetara pasatzea galarazteko. Erromako konstituzioa printzipio horretan zegoen oinarrituta: soldaduak errepublikari beren portaeraren kontu emateko adina ondasunen jabe izan behar zutela. Zaldunek, aberatsenak zirenez, legioetako zaldieria eratzen zuten. Mailaz goratu zituztenean, ez zuten milizia hartan zerbitzatu nahi izan; beste zaldieria bat erreklutatu behar izan zen; Mariok era guztietako jendea onartu zuen legioetan, eta errepublika galdu egin zen<sup>100</sup>.

Are gehiago: zaldunak errepublikako zerga-biltzaileak ziren; askonahiak ziren, zoritxarra zoritxarraren ondotik ekartzen zuten, eta premia publikoetatik premia publiko gehiago sorrarazten zituzten. Epaitzeko ahalmena halakoei eman orde, haiek jarri beharko zituzketen epaileen begipean. Horregatik, esan beharra dago hau antzinako frantziar legeen laudoriotan: etsaiak tratatu ohi diren mesfidantzaz tratatu zuten negozio-jendea. Erroman auziak zerga-biltzaileen esku jarri zituztenean, ez zen bertuterik gehiago izan, ez poliziarik, ez legerik, ez magistraturarik, ez magistraturik.

Honen azalpen bizi-bizia aurki daiteke Siziliako Diodororen eta Dionen zatiren batean. "Mutio Eszevolak", dio Diodorok<sup>101</sup>, "antzinako ohiturak



gogorarazi nahi izan zituen, eta bere ondasunetatik bizi urritasun eta zintzotasunez. Izan ere, haren aurrekoek loturak sorturik zerga-biltzaileekin — ordurako Erromako epaiketen ardura zuten hauek—, era guztietako lege-haustez beteta zeukaten probintzia. Baina Eszevolak justizia egin zuen publikanoekin, eta jendea kartzelan sartzen zuten haiexek sartu zituen bertan".

Dionek dioskunez<sup>102</sup>, bere laguntzaile Publio Rutilio, berdin gorrotatzen baitzuten zaldunek, opariak jaso izanaz salatu omen zuten, eta isun bat jarri zioten zigortzat. Bere ondasunen zesioa egin zuen, eta haren errugabetasuna agerian geratu zen, lapurtuak omen zituen ondasunak baino askoz ondasun gutxiago aurkitu baitzizkioten, eta gainera haien jabetza-tituluak erakutsi zituen. Ez zuen gehiago geratu nahi izan hirian halako jendearekin.

Italiarrek, dio Diodorok ere<sup>103</sup>, esklabo-taldeak erosten zituzten Sizilian beren soroetan lan egin zezaten, eta beren aziendak zain zitzaten, eta ukatu egiten zieten janaria. Zorigaiztoko haiek behartuta zeuden bideetan lapurretan egitera, lantzaz eta mazoz, animalien larruz estalita, inguruan zakurtzarrak zituztela. Probintzia osoa sakailatu zuten, eta bertako jendeak ezin zuen esan zer zeukan bererik, hirien harresi barruko ondasunak izan ezik. Ez zegoen ez prokontsulik, ez pretorerik, desordena hari aurre egin nahi edo ahal zionik, eta esklabo haiek zigortzen ausartzen zenik, Erroman auzien ardura zuten zaldunenak baitziren<sup>104</sup>. Horixe izan zen, ordea, esklaboen gerraren arrazoietako bat. Hitz bat besterik ez dut esango: ezin zitekeen utzi Erromako epaiketen ardura irabazpidea beste xederik ez zeukan, eta ezin eduki zezakeen, lanbide batekoen eskuetan. Lanbide hori beti eske ari zen, baina ez zegoen berari eskatzerik; gor eta gupidagabea izanik, aberastasunak eta are miseria bera ere pobretu egiten zituen.

## **XIX. KAPITULUA**

### **Erromatar probintzien gobernuaz.**

Horrelaxe banatu ziren hiru botereak hirian; baina probintzietan ere horrelaxe banatu beharra zegoen. Libertatea erdigunean zegoen, eta tirania muturretan.

Erromak Italia menderatu ez zuen bitartean, konfederatu gisa gobernatu zituen herriak: errepublika bakoitzaren legeen arabera. Baina hura bere konkistetan urrunago iritsi zenean, senatuak ezin izan zituen berak zaindu probintziak, Erroman zeuden magistratuek ezin izan zuten gobernatu inperioa eta, ondorioz, pretoreak eta prokontsulak bidali behar izan ziren hara. Handik aurrera, hiru botereen harmonia hori amaitu egin zen. Probintzietara bidaliak zirenek erromatar magistratura guztien botereak batean bilduta zeukaten; zer diot?, baita senatuarena berarena, herriarena berarena ere<sup>105</sup>. Magistratu despotikoak ziren, oso ondo zegozkienak bidalitako leku urrunei. Hiru botereak erabiltzen zituzten; hitz hau erabiltzerik baneuka, esango nuke errepublikako pasha-k zirela.

Beste nonbait esana dugu<sup>106</sup> hiritar berberak zituztela errepublikan, gauzen izateagatik beragatik, enplegu zibilak eta militarrek. Horrek zera dakar, errepublika konkistatzaile batek ezin diola ia bere gobernu-era konkistatutako estatuari eman, eta bere konstituzioaren arabera gobernatu. Izan ere, hark bidaltzen duen gobernariak botere betearazlea, zibila eta militarra dituelarik, botere legegilea ere eduki behar du; zeren eta nork egingo lituzke bestela legeak? Epaitzeko ahalmena ere ukan behar du; zeren eta nork epaituko luke, berak ezean? Beraz, bidalitako gobernadoreak hiru botereak eduki behar derrigor, eta horixe gertatu zen erromatar probintzietan.

Monarkia batek errazago eman dezake bere gobernu-era, zeren eta bidaltzen dituen ofizialak, batzuek botere betearazle zibila baitute, eta besteek botere betearazle militarra; eta horrek ez dakar despotismorik.

Erromatar hiritar batentzat ondorio handiko pribilegioa zen herriak bestek ezin epaitzea. Hori gabe, probintzietan, prokotsul baten edo propretore baten botere arbitrarioaren mende egon beharko zukeen. Hiriak ez zuen sentitzen nazio menderatueta baizik erabiltzen ez zen tirania.

Hartara, mundu erromatarrean, Lazedemonian bezala, libre zirenak guztiz libre ziren, eta esklabo zirenak guztiz esklabo.

Hiritarrek beren zergak ordaintzen zituzten bitartean, ekitate handiz biltzen ziren. Servio Tuliok ezarritakoari jarraitzen zitzaizkion. Hark sei klasetan banatu zituen hiritarrak, ondasunen arabera, eta zergaren parte bakoitzak gobernuan zuen partearen arabera finkatu zuen. Hortik zera etorri zen, zergaren handia ospearen handiari esker jasaten zela; eta ospearen txikiaz zergen txikiari esker kontsolatzen zirela.

Bazen beste gauza miresgarri bat ere: Servio Tulioren klasekako banaketa, nolabait esanda, konstituzioaren printzipio funtsezkoa izanik, zergak biltzerakoan ekitatea, gobernu-eraren funtsezko printzipio horri atxikitzen zitzaion, eta ezin zen kendu harekin batera izan ezik.

Baina hiriak zergak nekerik gabe ordaintzen zituen bitartean, edo batere ordaintzen ez zuen bitartean<sup>107</sup>, probintziak zaldunek sakailatuta zeuden, errepublikaren zerga-biltzaile baitziren haiek. Hitz egin dugu haien irain eta laidoez, eta historia guztia horietaz beteta dago.

"Asia osoa daukat zain bere askatzaile gisa", zioen Mitridates-ek<sup>108</sup>: "hainbeste kitzikatu dute erromatarren kontrako gorrotoa prokotsulen harrapaketek<sup>109</sup>, negozio-jendearen ekintzek, eta epaiketako kalumniek<sup>110</sup>".

Horra zerk ekarri zuen probintzien indarra errepublikaren indarrarekin ondo ez egokitzea, eta hura ahuldu besterik ez egitea. Horra zer dela eta ikusi zuten probintziek Erromak bere libertatea galtzea beren libertatea eskuratze gisa.

## XX. KAPITULUA

### *Liburu honen amaia.*

Ezagutzen ditugun gobernu-era moderatu guztietan, hiru botereen banaketa zein den aztertu nahi nuke, eta hortik kalkulatu zenbaterainoko libertatea goza dezakeen bakoitzak. Baina beti ez da hainbeste agortu behar gaia, irakurleari zereginik ez uzteraino. Kontua ez da irakurraraztea, pentsaraztea baizik.

## XII. LIBURUA

### LIBERTATE POLITIKOA ERATZEN DUTEN LEGEEZ, HIRITARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

#### LEHEN KAPITULUA

##### Liburu honen ideia.

Ez da nahikoa libertate politikoa konstituzioarekin duen zerikusiaren aldetik jorratzea; hiritarrarekin duen zerikusiaren aldetik ere ikusi beharra dago.

Esan dudanez, lehen kasuan libertatea hiru botereen banaketa-modu batez eratuta dago; baina bigarrenean beste ideia baten argitan begiratu behar zaio. Ideia hori segurantzaz da, edo nork bere segurantzaz duen iritzia.

Gerta daiteke konstituzioa libre izatea, eta hiritarra ez, edota hiritarra libre izatea, eta konstituzioa ez. Kasu hauetan, konstituzioa zuzenbidez izango da libre, ez egitatez; hiritarra egitatez izango da libre, eta ez zuzenbidez.

Konstituzioarekin duen zerikusiari dagokionez, legeen disposizioak, eta bereziki funtsezko legeenak, bestek ez du eratzen libertatea. Baina hiritarrarekin duen zerikusiari dagokionez, ohiturek, manerek, jasotako etsenpluek sorraraz dezakete; eta zenbait lege zibilek haren alde egin dezakete, liburu honetan ikusiko dugunez.

Are gehiago: estatu gehienetan, libertatea estatuon konstituzioak agintzen duena baino oztopatuago, aurkatuago edo beheratuago egonik, ondo dago konstituzio bakoitzean libertatearen printzipioari, bakoitzak eskura dezakeen neurrian, lagundu edo kontra egin diezaioketen lege partikularrez hitz egitea.

#### II. KAPITULUA

##### Hiritarraren libertateaz.

Libertate filosofikoa norberaren borondatea erabiltzean datza, edo gutxienez (baldin eta sistema guztiez aritu behar izanez gero) nor bere borondatea erabiltzen duelako iritzia izatean. Libertate politikoa segurantzaz datza, edo gutxienez nor bere segurantzaz duen iritzian.

Segurantza horri akusazio publiko edo pribatuen bidez erasotzen zaio batez ere. Beraz, lege kriminalen ontasunaren mende dago batez ere hiritarraren libertatea.

Lege kriminalak ez dira bat-batean hobetuak izan. Libertatea gehien bilatu duten lekuetan bertan ere, ez dute beti aurkitu izan. Aristotelek dioskunez<sup>11</sup>, Kumas-en salatariaren senideak lekuko izan zitezkeen. Erromako erregeen garaian, legea hain zen akastuna, non Servio Tuliok Anko Martzioren semeen kontrako sententzia eman baitzuen, hark bere aitagarreba, erregea, hil zuela salatuta<sup>12</sup>. Frankoen lehen erregeen garaian, Klotariok lege bat egin zuen<sup>13</sup>, akusatuari entzun gabe kondena ez zezaten, eta horrek kasu partikularren batean edota herri barbaroren batean kontrako praktika zegoela frogatzen du. Karondas izan zen lekuko faltsuen kontrako epaiketak sartu zituen<sup>14</sup>. Hiritarren errugabetasuna segurtatuta ez dagoenean, libertatea ere ez.

Epaiketa kriminaletan izan daitezkeen araurik seguruenei buruz herri batzuetan lortu diren ezagupenak, eta beste batzuetan lortuko direnak, munduan den beste ezer baino gehiago interesatzen zaizkio gizateriari.

Ezagupen horien praktikaren gainean baizik ezin da oinarritu libertatea; eta izan daitezkeen legerik hoberenak lituzkeen Estatu batean, prozesatutako gizon bat, biharamunean urkatu behar balute ere, libreago litzateke Turkian pasha bat dena baino.

### **III. KAPITULUA**

### *Gai beraren jarraipena.*

Gizon bat lekuko bakar baten testigantzagatik heriotzara eramaten duten legeak oso txarrak dira libertatearentzat. Arrazoiak bi eskatzen ditu; zeren eta zerbait dioen lekuko batek, eta hori ukatzen duen akusatuak, hainbana egiten baitute; eta hirugarren bat behar da berdinketa hausteko.

Greziarrek<sup>115</sup> eta erromatarrek<sup>116</sup> boto bat gehiago exijitzen zuten kondenatu ahal izateko. Gure lege frantsesek bi eskatzen dituzte. Greziarrek zioten beren usadioa jainkoek ezarria zela<sup>117</sup>, baina gurea ezarri zuten haiek.

## **IV. KAPITULUA**

### *Zigorren izaerak eta proportzioak on egiten diola libertateari.*

Libertatea garaile gertatzen da lege kriminalek zigor bakoitza delituaren beraren izaeratik ateratzen dutenean. Arbitrario den oro desagertu egiten da; zigorra ez da sortzen legegilearen apetatik, gauzaren izaeratik baizik; eta ez dio gizakiak gizakiari egiten bortxa.

Lau delitu-mota daude. Lehen motakoak erlijioaren kontra doaz; bigarrenekoak, ohituren kontra; hirugarrenekoak, lasaitasunaren kontra; laugarrenekoak, hiritarren segurantzaren kontra. Ematen diren zigorrek mota bakoitzaren izaeraren arabera izan behar dute.

Erljioari dagozkion delituen artean, zuzen-zuzenean erasotzen diotenak baino ez ditut sartzen, hala nola sakrilegio huts guztiak. Izan ere, erlijioaren praktika oztopatzen duten delituek hiritarraren lasaitasunaren edo segurantzaren kontra doazen izaera bera dute, eta mota horietan sartu behar dira.

Sakrilegio hutsentzako zigorra gauzaren izaeraren<sup>118</sup> arabera izan dadin, erlijioak ematen dituen abantaila guztiez gabetzea izan behar du: tenpluetatik

kanporatua izatea; aldi baterako edo betiko, eliztarren elkartasunaz gabetzea; haien presentziatik alde egitea; gaitzespen, gaitzerizko eta konjuroak.

Estatuaren lasaitasuna edo segurantzaz asaldatzen dituzten gauzetan, ezkutuko ekintzak giza justiziarik dagozkio. Baina Jainkoa zauritzen dutenetan, ekintza publikorik ez denetan, ez da delitu-gairik; gizonaren eta Jainkoaren artean gertatzen da dena, eta Jainkoak badaki bere mendekuen neurria eta garaia. Baldin eta, gauzak nahastuz, magistratua ezkutuko sakrilegioaren bila hasten bada, azterketarik behar ez duen ekintza baten aztertzeari ekiten dio; suntsitu egiten du hiritarren libertatea, haien kontra kontzientzia herabeen zein kontzientzia ausarten grinari indar emanda.

Gaitza ideia honetatik dator: Jainkoa mendekatu beharra dagoela. Baina ohorarazi egin behar da Jainkoa, ez mendekatu. Izan ere, azken ideia horren arabera jokatzuz gero, non legoke suplizioen azkena? Gizakien legeek izaki infinitu bat mendekatu behar badute, haren infinitutasunaren arabera antolatuko dira, ez giza izaeraren ahulezien, ezjakintasunaren, apeten arabera.

Probentzako historialari batek<sup>119</sup> egintza baten berri ematen digu, Jainkoa mendekatzeko ideia honek izpiritu ahulengan sor dezakeena oso ondo adierazten diguna. Judu bat, Ama Birjinaren kontra birao egiteagatik salatuta, larrutzerara kondenatu zuten. Zaldun maskaratu batzuek, labana eskutan, tranpaldora igo eta bota egin zuten berreroa, Ama Birjinaren ohorea berek mendekatu nahi zutela eta... Ez ditut irakurlearen gogoetak nireez ordezkatu nahi.

Bigarren mota ohituren kontrako delituena da. Halakoak dira kontinentzia publiko edo pribatua haustea, hau da, sentimenen erabilerari eta gorputzen elkartzeari dagozkion plazerrez gozatzeko moduari buruzko jokabidea. Delitu horientzako zigorrek ere gauzaren izaeraren arabekoak izan behar dute: gizarteak ohituren garbitasunari erantsi dizkion abantailez gabetzea, isunak, lotsa, ezkutatzera behartzea, izen txarra, hiritik eta gizartetik kanporatua izatea;



zentzabidezko jurisdikzioko zigor guztiak aski dira bi sexuen ausarkeria erreprimitzeko. Izan ere, gauza horiek, gaiztotasunean baino, norberaren burua ahaztean edo mesprezatzean oinarritzen dira.

Hemen ohiturei dagozkien delituez ari gara, ez segurantzaren publikoaren kontrakoez, hala nola bahiketa edo bortxaketa, hauek laugarren motakoak baitira.

Hirugarren motako delituak hiritarren lasaitasunaren kontrakoak dira. Eta zigorrek gauzaren izaeraren arabera izan behar dute, eta lasaitasun horrekin zerikusia izan: gabetzea, atzerriratzea, zentzaldiak, eta izpiritu egongaitzak baretzen dituzten eta ezarritako ordenan sarrarazten dituzten beste zigor batzuk.

Lasaitasunaren kontrako delituak jokabidezko ikasgai sinple bat daukaten gauzetara mugatzen ditut; izan ere, lasaitasuna haustearekin batera segurantzari ere eraso egiten diotenak laugarren motakoen artean ezarri behar dira.

Azken delitu horientzako zigorrak supizio deritzenak dira. Talio moduko bat dira: gizarteak ukatu egiten dio segurantzaren inor segurantzaz gabetu duen edo gabetu nahi izan duen hiritarrari. Zigor hau gauzaren izaeraren arabera da, arrazoian bermatzen da, eta ongiaren eta gaizkiaren indarren iturrian. Hiritar batek heriotza merezi du segurantzaren bizia kentzeraino edo kentzeko ahalegina egiteraino hautsi duenean. Heriotza-zigor hori gizarte gaixoaren erremedioa bezalakoa da. Segurtasuna ondasunen aldetik hausten denean, izan daitezke arrazoiak zigorra heriotza izan dadin; baina hobe litzateke, eta naturari hobeto doakio, ondasunen segurtasunaren kontrako delituak ondasunen galerarekin zigortzea; baina hain zuzen ondasunik ez dutenek erasotzen baitiete gehienetan besteenei, gorputz-zigorrak ordezkatu behar izan du diruzkoa.

Diodan guztia naturan oinarritzen da, eta on handia egiten dio hiritarraren libertateari.

## **V. KAPITULUA**

### Neurritasunaren eta zuhurtziaren behar berezia duten zenbait akusazioz.

Arau garrantzitsua: oso zuhur jokatu beharra dago magia eta heresia jazartzerakoan. Bi delitu horien salaketa libertatearen guztiz kontrakoa izan daiteke, eta ezin konta ahala tiraniaren iturri, baldin eta legegileak mugatzen ez badaki. Izan ere, salaketa ez baita hiritar baten ekintzez, baizik eta haren izaerari buruz dagoen ideiaz, hainbat arriskutsuago bihurtzen da zenbat eta herria ezjakinagoa izan. Orduan hiritarra arriskuan dago beti, zeren eta munduko jokabiderik onena, moralik aratzena, betebeharrak guztiak betetzea, ez dira nahikoa berme delitu horiez diren susmoen kontra.

Manuel Komnenoren garaian, *protestator*-a<sup>120</sup> enperadorearen kontra konspiratu izanaz eta horretarako gizakiak ikustezin bihurtzen zituzten zenbait sekretuz baliatu izanaz salatu zuten. Enperadore horren bizitzan kontatzen denez<sup>121</sup>, Salomonen liburu bat irakurtzen harrapatu omen zuten Aaron, irakurketa hark deabruen legioak agerrarazten zituelarik. Alabaina, magiak ahalmen infernutarra duela jotzen denez, hortik abiatuta magiagileztat jotakoari gizartea nahasteko eta hankaz gora jartzeko gizakirik aproposena balitz bezala begiratzen zaio, eta hortik dator hura neurrigabe zigortzeko joera.

Sumina hazi egiten da magiari erlijioa suntsitzeko boterea leporatzen zaionean. Konstantinoplako historiak<sup>122</sup> erakusten digunez, apezpiku batek izan zuen errebelazio batean oinarrituta —alegia, mirakulu bat norbanako baten magiari esker eten zela—, norbanako hura eta semea heriotzara zigortu omen zituzten. Zenbat gauza harrigarri behar dira delitu hori gertatzeko?: errebelazioak gertatzea arraroa ez izatea; apezpikuak errebelazio bat edukitzea; hura egia izatea; mirakulu bat gertatzea; mirakulu hori etetea; magia egotea; magiak erlijioa hankazgoratu ahal izatea; norbanako hura magiagilea izatea; azkenik, hark magia-ekintza hori egitea.

Teodoro Laskaris enperadoreak magiari egozten zion bere gaixotasuna. Horretaz salatu zituztenek ez zuten beste defentsabiderik burdina gorria eskutan erre gabe erabiltzea baino. Gauza ona izango zatekeen, greziarren artean, magiagilea izatea, magiaz justifikatzeko. Hainbestekoa zen haien ergelkeria, non denik eta deliturik balizkoenarentzat ere, frogarik balizkoenak biltzen baitzituzten.

Felipe Luzearen erregealdian, juduak Frantziatik bota zituzten, legendunen bitartez iturriak pozoitu zituztela-eta. Salaketa burugabe horrek zalantzazko bihurtu behar lituzke, bihurtu behar lituzkeenez, gorroto publikoan oinarritutako salaketa guztiak.

Hemen ez dut esan heresia zigortu behar ez denik; nik zera diot, zentzu handiz jokatu behar dela hura zigortzerakoan.

## **VI. KAPITULUA**

### **Naturaren kontrako delituaz.**

Jainkoari nahi ez dakiola nik erlijioak, moralak eta politikak kondenatzen duten delitu bati zaion higuina gutxitu nahi dezadan. Legez kanpo utzi beharko litzateke, sexu bati bestearen ahuleziak eman besterik egingo ez lukeenean; eta zahartzaro negargarri baterako prestatu, gaztaro lotsagarri batengatik. Delitu horretaz esango dudanak bere laido guztiak utziko dizkio, eta tiraniaz arituko naiz bakarrik, hari eduki behar zaion laztura ere gehiegikeriaz erabil baitezake honek.

Delitu hori berez ezkutukoa denez, maiz gertatu izan da legegileek haur baten aitorpenean oinarrituta zigortu izana. Hori kalumniari atea zabal-zabal irekitzea zen. "Justinianok", dio Prokopiok<sup>123</sup>, "lege bat eman zuen delitu horren kontra; errudun zirenak bilatu zituen, ez bakarrik legea indarrean jarri ondorengoak, baizik eta aurrekoak ere bai. Lekuko baten aitorpena, batzuetan

haur bat, beste batzuetan esklabo bat, aski zen; batez ere aberatsen kontra, eta berdeen taldekoak zirenen kontra".

Gauza bitxia da hiru delitu magia, heresia eta naturaren kontrako delitua—gure artean suaz zigortu izana. Horietaz hauxe esan liteke: lehena ez dela existitzen; bigarrenari ezin konta ahala bereizketa, interpretazio, mugapen egin dakizkiokeela; hirugarrena, oso maiz, ilun gertatzen dela.

Esango dut naturaren kontrako delituak inoiz ez duela aurrerapen handirik egingo gizarte batean, baldin eta ohituraren batek ez badu herria hartara eramaten, greziarren artean bezala, non gazte-jendeak biluzik egiten baitzituen bere ariketa guztiak; gure artean bezala, non etxeko heziketa usadioz kanpo dagoen; asiarren artean bezala, non norbanako batzuek emakume ugari eduki eta mesprezatu egiten baitituzte, besteek ezin eduki ditzaketelarik. Ez bekio bide eman delitu horri; legez kanpo utz bedi jokabide gogor baten bitartez, eta laster ikusiko da naturak edota bere eskubideak defendatzen dituela, edota berriro hartzen dituela. Naturak —ezti, gozo, xarmant— esku-zabal hedarazi ditu plazerrak; eta gozamenez bete gaituelarik, gozamen horiek baino atsegin handiagoetarako prestatzen gaitu berriro jaioarazten gaituzten —nolabait esan behar eta— seme-alaben bitartez.

## **VII. KAPITULUA**

### ***Les majestate delituaz.***

Txinako legeek diote enperadoreari begirunea galtzen dion edonori heriotza-zigorra eman behar zaiola. Begirunea galtze hori zer den definitzen ez dutenez, edozerk eman dezake nahi den edonori bizia kentzeko aitzakia, eta zeinahi familia sarraskitzekoa.

Gorteko albistaria egiteko ardura zuten bi pertsonak, gertaera bat zela-eta gerora egiazko agertu ez ziren gorabeherak jarri zituztelako, esan zitzairen gorteko

albistari batean gezurra esatea gorteari begirunea galtzea zela, eta hil egin zituzten<sup>124</sup>. Odolezko printze batek, enperadoreak pintzel gorriz sinatutako memorial batean, konturatu gabe, ohar bat idatzi zuela-eta, enperadoreari begirunea galdu ziola erabaki zen, eta horrek historiak inoiz kontatu duen pertsekuziorik izugarrienetako bat abiarazi zuen haren familiaren kontra<sup>125</sup>.

Aski da lesa majestate delitua zehaztu gabea izatea, gobernua despotiko bihur dadin. Gehiago luzatuko naiz horretaz *legeen konposaeraz* izeneko liburuan.

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Sakrilegio eta lesa majestate delituen izenak oker erabiltzeaz.***

Gehiegikeria bortitza da, halaber, lesa majestate delitutzat jotzea halakorik ez den ekintza bat. Enperadoreen lege batek<sup>126</sup> sakrilegotzat jotzen zituen printzearen burubidea auzitan jartzen zutenak, eta hark edozein enplegutarako aukeratu zituenen merezimenduez zalantzak zituztenak<sup>127</sup>. Kabineteak eta begikoek ezarri zuten, noski, delitu hori. Beste lege batek printzearen ministroen eta ofizialen kontra egiten zutenak lesa majestate delituaren egile zirela zeukan ezarrita<sup>128</sup>. Lege hori ahuleziak ospetsu bihurtu dituen bi printzeri<sup>129</sup> zor diegu. Beren ministroek eraman zituzten bi printze horiek, artzainak artaldea eramaten duen bezala. Beren jauregian esklabo ziren bi printze haiek, kontseiluan haur, armadan arrotz; inperioa kontserbatu bazuten, egunero eman zutelako kontserbatu zuten. Aipatu begikoetako batzuek enperadore horien kontra konspiratu zuten. Gehiago egin zuten: inperioaren kontra konspiratu, barbaroei deitu, eta begiko horiek atxilotu nahi izan zituztenean, Estatua hain zen ahula, non legea hautsi behar izan baitzen, eta lesa majestate delituaren arriskupean jarri, haiek zigortzeko.

Hala ere, lege horren ganean oinarritzen zen informatzailea Cinq-Mars-eko jaunaren kontrako auzian<sup>130</sup>, jaun horrek Richelieu kardinala kargutik bota nahi izan zuela-eta, lesa majestate delituaren errudun zela frogatu nahian, hauxe esan zuenean: "Printzeen ministroen pertsona ukitzen duen delitua, printzearen pertsona bera ukitzen duen delituaren pisu berdinekotzat jotzen dute enperadoreen konstituzioek... Ministro batek bere printzea eta bere Estatua zerbitzatzen ditu; ministro hori biei –printzeari eta Estatuari– kentzea, lehenari besoa<sup>131</sup> eta bigarrenari bere ahalmenaren parte bat kentzea bezalakoa da". Esklabotza bera munduratuko balitz, ez luke bestela hitz egingo.

Valentiniano, Teodosio eta Arkadioren beste lege batek<sup>132</sup> lesa majestate delituaz errudun jotzen ditu txanpon-faltsutzaileak. Baina hori ez al da gauzen ideiak nahastea? Beste delitu bati lesa majestate deitzea, ez al da lesa majestate delituaren izugarria gutxitzea?

## **IX. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Paulinok Alexandro enperadoreari "bere ordenantzen kontra mintzatu zen epaile bat lesa majestate delituaren egile gisa prozesatzera zihoala (jakinarazi zionean), enperadoreak hauxe erantzun zion: hura bezalako mende batean, zeharkako lesa majestate delituek ez zutela lekurik"<sup>133</sup>.

Faustinianok zera idatzi zion enperadore berberari, printzearen biziaren ganean zin egina zela bere esklaboari ez ziola inoiz barkatuko, eta bere haserrea betierekotu beharrean zela lesa majestate delituaren errudun ez bihurtzeko. Hauxe erantzun zion enperadoreak: "Alferreko beldurrek hartu zaituzte<sup>134</sup>, eta ez dituzu nire arauak ezagutzen".

Senatu-konsultu batek<sup>135</sup> agindu zuen onartuak izan ez ziren enperadorearen estatuak funditzen zituena ez zela lesa majestate delituan errudun izango. Severo eta Antonino enperadoreek idatzi zioten Pontziori<sup>136</sup> enperadorearen estatua sagaratu gabeak saltzen zituena ez zela erortzen lesa majestate delituan. Enperadore berberak idatzi zioten Julio Kasianori, enperadorearen estatua bati ustekabeen harrika egingo liokeena ez litzatekeela prozesatua izan behar lesa majestate delituaren egile gisa<sup>137</sup>. Lege Juliarrak era horretako aldaketak eskatzen zituen; zeren eta lesa majestate delituaren errudun bihurtu baitzituen, enperadoreen estatuak funditzen zituztenak ez ezik, antzeko beste ekintzaren bat egingo luketenak<sup>138</sup>; eta horrek arbitrario bihurtzen zuen delitu hori. Lesa majestate delituak ondo ezarri zirenean, delitu horiek bereizi egin behar izan ziren derrigor. Hala, Ulpiano juriskonsultuak, lesa majestate delituaren salaketa erruduna hil arren ez zela desagertzen esan eta gero, zera eransten du, hori ez dagokiela Lege Juliarrak ezarritako lesa majestate delitu guztiei<sup>139</sup>, baizik eta inperioaren edota enperadorearen biziaren kontrako atentatua direnei bakarrik.

## **X. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Ingalaterrako lege batek, Enrike VIII.aren erregealdian emanak, goi mailako traizioaz errudun jotzen zituen erregearen heriotza auresango luketen guztiak, Lege hori oso lausoa zen. Despotismoa hain da izugarria, non erabiltzen dutenen beren kontra bihurtzen baita. Errege horren azken gaixotasunean, sendagileak inoiz ez ziren ausartu arriskuan zegoela esatera, eta, zalantzarik gabe, horren arabera jardun zuten<sup>140</sup>.

## **XI. KAPITULUA**

### Pentsamenduez.

Marsias delako batek Dionisiori lepoa mozten ziola egin zuen amets<sup>141</sup>. Honek heriotza eman zion, esanez hark ez zukeela gauez amets egingo, egunez pentsatu ez balu. Tirania handia zen hura, zeren eta, pentsatu izan balu ere, ez baitzuen pentsatutakoa gauzatu<sup>142</sup>. Legeei kanpoko ekintzak besterik ez dagokie zigortzea.

## XII. KAPITULUA

### Hitz zuhurtziarik gabeez.

Ezerk ez du lesa majestate delitua arbitrarioago bihurtzen delitugaitzat hitz zuhurtziarik gabeak hartzen direnean baino. Diskurtsoak hain daude interpretazioen mende, hainbesteko aldea dago zuhurtziarik ezaren eta gaiztakeriaren artean, eta hain alde txikia batak eta besteak darabiltzaten esamoldeetan, non legeak ezin baititu hitzak heriotza-zigorpean jarri, salbu eta zein hitz jartzen dituen espreski adierazten badu<sup>143</sup>.

Hitzek ez duteosatzen delitu-gorputza; ez doaz ideiaz harantzago. Gehienetan, berez ez dute esanahirik, esateko erabiltzen den tonuagatik baizik. Maiz, hitz horiek berresatean, ez zaie esanahi berbera ematen; esanahia hitzok beste gauza batzuekin duten zerikusiaren mende dago. Batzuetan isiltasunak diskurtso guztiek baino gehiago adierazten du. Ez dago hau guztia baino ezer nahasgarriagorik. Nola bihurtu, bada, hori, lesa majestate delitu? Lege hori ezarrita dagoen edonon, libertatea bakarrik ez, libertatearen itzala ere desagertzen da.

Tsarina zenak Olguruki familiarentzat emandako manifestuan<sup>144</sup>, familia horretako printze bat berari buruz hitz zantarrak esateagatik kondenatu zuen



heriotzara; beste bat, inperiorako emandako xedapen zuhurrak gaizto interpretatzeagatik eta begirunerik gabeko hitzez haren pertsona sakratua iraintzeagatik.

Ez nuke beren printzearen loria laidotu nahi dutenen kontra izan behar den haserrea ematu nahi, baina esango dut ezen, baldin eta despotismoa leundu nahi bada, zigor zentzatzaille sinple bat egokiagoa izango dela halakoetan lesa majestate delituaz salatzea baino, hori beti baita izugarri inozentziarentzat berarentzat ere<sup>145</sup>.

Delitu-ekintzak ez dira egunerokoak; jende asko ohar daiteke haietaz; egintzen gaineko salaketa faltsua erraz argi daiteke. Ekintza bati lotutako hitzek, ekintza horren izaera hartzen dute. Hala, gizon bat, plazara sujetak matxinadara deitzera doalarik, lesa majestate delituaren errudun bihurtzen da; zeren eta hitzak ekintzari eransten baitzaizkio, eta hartan parte hartzen baitute. Ez dira hitzak zigortzen, egindako ekintza baizik, zeinetan hitzak erabiltzen diren. Hitzak ez dira delitu bihurtzen, ekintza kriminal bat prestatu, ekintzan lagundu edo ekintzaren ondotik doazenean baizik. Hankaz gora jartzen da dena, baldin eta hitzak delitu nagusi bihurtzen badira, delitu nagusi baten zeinutzat hartu ordez.

Teodosio, Arkadio eta Honorio enperadoreek Rufino, pretorioko prefektuari idatzi zioten: "Inork gutaz edo gure gobernuaz gaizki esaka jarduten badu, ez dugu zigortzea nahi<sup>146</sup>; arinkeriaz hitz egin badu, mesprezatu egin behar da; erokeriaz egin badu, errukia izan behar zaio; irain egin badu, barkatu egin behar zaio. Hartara, gauzak bere horretan utzita, jakinarazi egingo dizkiguzu, hitzez pertsonen bidez juja dezagun, eta ondo neur dezagun ea epaitu behar ditugun ala kasurik egin behar ez diegun".

### **XIII. KAPITULUA**

**Idatziez.**

Idatziak hitzak baino iraunkorragoak dira; baina lesa majestate deliturako prestatzen ez dutenean, ez dira delitu horretan aztergai.

Augustok eta Tiberiok, ordea, delitu honen zigorra eman zioten<sup>147</sup>: Augustok, gizon eta emakume ospetsuen kontra egindako zenbait idatzi zirela eta; Tiberiok, zenbait idatzi bere kontra eginak zirela uste zuelako. Ezer ez zen okerragoa izan erromatar libertatearentzat. Kremuzio Kordo salatu zuten, bere urte-liburuetan Kasiori erromatarretan azkena deitu ziolako<sup>148</sup>.

Idatzi satirikoak ia ez dira ezagutu ere egiten estatu despotikoetan, non batetik abaildurak, eta bestetik ezjakintasunak, ez baitute ematen ez gaitasunik ez borondaterik halakorik egiteko. Demokrazian ez zaie eragozpenik jartzen, hain zuzen bakar baten gobernupean haiek debekatzeko dagoen arrazoi berberagatik. Jende ahaltsuaren kontra konposatu ohi direnez, demokrazian gobernatzen duen herriaren malezia lausengatzen dute. Monarkian, debekatu egiten dira; baina polizi alorrean kokatzen dira, delitu-alorrean baino areago. Malezia orokorra diberti dezakete, pozik ez daudenak kontsolatu, goi karguen kontrako bekaizgoa gutxitu, herriari sofritzeko egonarria eman eta bere sofrikarioaz barrea eragin.

Aristokrazia da obra satirikoak gehien debekatzen dituen gobernuua. Magistratuak erregetxoak izaten dira han, irainak mesprezatzeko aski handi ez diren erregetxoak. Baldin eta, monarkia batean, geziren bat erregearen kontra badoa, hura hain dago goian, non gezia ez baitzaio iristen. Aristokraziako jaun bat, ordea, alderik alde zeharkatzen du. Dezenbiroek ere, aristokrazia bat eratzen baitzuten, heriotzaz zigortzen zituzten idatzi satirikoak<sup>149</sup>.

#### **XIV. KAPITULUA**

**Lotsa bortxatzea, delituak zigortzean.**

Ia munduko nazio guztietan gorde ohi dira lotsa-arau batzuk; zentzugabea litzateke horiek haustea delituak zigortzean, zigorrak ordena berrezartzea izan behar baitu beti xede.

Ekialdekoek, emakumeak suplizio-mota gogaikarri baterako trebatutako elefanteen mende jartzean, legea legeagatik hautsi nahi izan ote zuten?

Erromatarren usadio zahar batek debekatu egiten zuen ezkontza-adineko ez ziren neskak hiltzea. Tiberiok borrareroak bortxa zitzala asmatu zuen, supliziora bidali aurretik<sup>150</sup>. Tirano sotil eta ankerra hura, arbasoen ohiturak suntsitu zituen, garaiko usadioak gordetzeko.

Japoniako magistraturak emakumeak plazetan biluzik agertarazi eta abereak bezala ibiltzera behartu zituenean, lotsa ikararazi zen<sup>151</sup>; baina ama bat behartu nahi izan zuenean... seme bat behartu nahi izan zuenean... ezin dut esaldia amaitu; natura bera ikararazi zuen<sup>152</sup>.

## **XV. KAPITULUA**

### **Esklaboa askatzeaz, ugazaba salatzeke.**

Augustok ezarri zuen beraren kontra konspiratu zutenen esklaboak publikoki salduak izango zirela, beren ugazabaren kontra deklaratu ahal zezaten<sup>153</sup>. Ez da jaramonik egin gabe utzi behar delitu handi bat argitzera daraman ezer. Hortaz, Estatu batean esklaboak badaude, bidezkoa da halakoek argibideak eman ahal izatea, baina ez lukete lekuko izan behar.

Vindexek argibideak eman zituen Tarkinoren alde egindako konspirazioaz; baina ez zen Brutoren haurren kontrako lekukoa izan. Bidezkoa zen bere aberriari hain zerbitzu handia egindako bati libertatea ematea; baina ez zitzaion eman aberriari zerbitzu hori egin ziezaion.

Tazito enperadoreak ere esklaboak beren ugazabaren kontra ez zirela lekuko izango agindu zuen, ezta lesa majestate delituan ere<sup>154</sup>; lege hori ez da jaso Justinianoren bilduman.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Kalumnia lesa majestate delituan.**

Justizia egin beharra dago zesarrei; ez ziren lehenak izan eman zituzten lege tristeak imajinatzen. Silak<sup>155</sup> irakatsi zien ez zegoela kalumniatzaileak ez zirela zigortu behar. Laster haiek saritzeraino iritsi ziren<sup>156</sup>.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Konspirazioak jakinarazteaz.**

"Zure anaiak, edo semeak, edo alabak, edo emazte maiteak, edo bihotzeko lagun minak, sekretuan esaten badizute 'Goazen beste jainko batzuk gurtzera', zuk harrika emango diezu; lehenik zure eskuak emango die, gero herri osoarenak". Deuteronomioko lege hori<sup>157</sup> ezin da izan lege zibila ezagutzen ditugun herririk gehienetan, delitu guztiei irekiko liekeelako atea.

Estatu askotan, konspirazio guztiak —baita haietan parte hartu gabe ere— jakinarazi behar direla heriotza-zigorpean agintzen duen legea ere ez da bigunagoa. Gobernu monarkikoan ezartzen denean, oso komenigarria da mugatzea.

Ez zaio aplikatu behar bere gogortasun osoan goren mailako lesa majestate delituari baizik. Estatu horietan, oso garrantzitsua da delitu horren maila desberdinak ez nahastea.

Japonian, non legeek hankaz gora jartzen baitituzte giza arrazoiaren ideia guztiak, ez jakinarazte delitua kasurik arruntenei aplikatzen zaie.

Kontakizun batek<sup>158</sup> esaten digu nola bi neska gazte hil arte sartu zituzten punta zorrotzez betetako kutxa batean; bat, gorteiatze-arazoren bat izateagatik; bestea, hura ez jakinarazteagatik.

## **XVIII. KAPITULUA**

### ***Zein arriskutsua den, errepubliketan, lesa majestate delitua gehiegi zigortzea.***

Errepublika batek berori itzulipurdikatu nahi zutenak suntsitzea lortzen duenean, mendeku, zigor eta are sariei ere lehenbailehen azkena ematen saiatu behar du.

Ez dago zigor handiak jartzerik eta, beraz, aldaketa handiak egiterik, hiritar batzuen esku botere handia jarri gabe. Beraz, hobe da, kasu honetan, asko barkatzea, asko zigortzea baino; gutxi atzerriratzea, asko atzerriratzea baino; ondasunak uztea, konfiskazioak ugaritzea baino. Errepublika mendekatzeko aitzakiaz, mendekatzaileen tirania ezarriko litzateke. Kontua ez da besteak mendean dituenak suntsitzea, menderakuntza bera suntsitzea baizik. Lehenbailehen sartu beharra dago gobernu-martxa normal horretan, non legeek dena babesten duten, eta ez doazen inoren kontra.

Greziarrek ez zizkieten mugak jarri tiranoen edo tiranotzat zeuzkatenez hartutako mendekuei. Haurrak hilarazi zituzten<sup>159</sup>, eta inoiz baita senide hurbiletako bost ere<sup>160</sup>. Familia ugari bota zituzten. Haien errepublikek astindu ederra hartu zuten horrekin; atzerriratzea eta atzerriratuen itzulera Konstituzioaren aldaketa-garaian izan ziren beti.

Erromatarrek zuhurragoak izan ziren. Kasio tirania-asmotan ibili zelako kondenatu zutenean, zalantzan zegoen ea haurrak ere hilko zituzten; ez zieten

inolako zigorrik jarri. "Marsoen gerraren eta gerra zibilaren azkenean", dio Dionisio Halikarnasokoak<sup>161</sup>, "lege hau aldatu eta Silak legez kanpo utzitakoen haurrei karguetarako gaitasuna kendu nahi izan dietenak lege-hausle osoak dira".

Mario eta Silaren gerretan ikusten da noraino gaiztotu ziren pixkanaka erromatarren arimak. Pentsatzen zuten hain gauza deitoragarriak ez zituztela berriro inoiz ikusiko. Baina triunbiroen garaian are ankerragoak izan eta otzanago agertu nahi izan zuten; nahigabetu egiten du ankerkeriak zer-nolako sofismak erabiltzen dituen ikusteak. Apianoren lanetan irakur daiteke<sup>162</sup> norbait legez kanpo uzteko formula; irudi luke errepublikaren ona beste xederik ez zegoela horretan, hainbeste hitz egiten da odol hotzaz, hainbeste abantaila erakusten dira, hain dira hobestekoak hartzen diren bitartekoak! Aberatsak seguru egongo dira, herri xehea lasai egongo da, hiritarren bizia arriskuan jartzeko beldur dira, soldaduak bakeratu egin nahi dira. Zoriontsu izango dira denak<sup>163</sup>.

Erroma odolez blai zegoen Lepidok Espainian garaipena lortu zuenean; eta, parekorik gabeko zentzugabekeria batengatik, hartaz pozteko agindu zuen hark, hala egiten ez zutenak legez kanpo geratuko zirela mehatxu eginez<sup>164</sup>.

## **XIX. KAPITULUA**

### ***Nola eteten den libertatearen erabilera errepublikan.***

Libertateari kasu gehien egiten zaion Estatuetan, badira norbanako batena urratzen duten legeak, denena gordetzeko. Halakoak dira, Ingalaterran, *d'atteindre* deritzen "bill"ak<sup>165</sup>. Atenasko lege batzuekin dute zerikusia: sei mila hiritarren botoak izanez gero, norbanako baten kontra egiten zirenekin<sup>166</sup>. Erroman hiritar partikularren kontra egiten ziren, eta *pribilegio*<sup>167</sup> zeritzen legeekin dute zerikusia. Herriaren batzar handietan baizik ez ziren egiten. Baina, herriak nolanahi emanda ere, Zizeronek ezaba zitzaten nahi zuen, legearen indarra

denentzat izatean baitatza<sup>168</sup>. Aitortzen dut, hala ere, munduan izan diren herririk libreenen usadioak sinestarazten didala kasu batzuetan libertatea belo batez estali behar izaten dela aldi batez, jainkoen estatuak ezkutatzen diren bezala.

## **XX. KAPITULUA**

### ***Hiritarraren libertatearen aldeko legeak, errepublikan.***

Herri-estatuetan maiz gertatzen da akusazioak publikoak izatea, eta edonork libre izatea berak nahi duena salatzea. Horrek hiritarren errugabetasuna defendatzeko xedea duten legeak ezartzea ekarri du. Atenasen, bere alde botoen bostena ez zeukan salatzailleak mila drakmako isuna ordaindu behar zuen. Eskines, Ktesifonte salatu zuelarik, kondenatu egin zuten<sup>169</sup>. Erroman, salatzaille bidegabekoa doilortzat jotzen zuten<sup>170</sup>, eta K letra jartzen zioten bekokian. Goardiak jartzen zizkieten salatzailleari, ez epaileak ez lekukoak eros ez zitzan<sup>171</sup>.

Hitz egina naiz Atenasen eta Erroman akusatuari epaiketa baino lehen erretiratzeko bidea uzten zion lege hartaz.

## **XXI. KAPITULUA**

### ***Errepublikako legeen zordunekiko ankertasunaz.***

Hiritar batek abantaila handia hartzen du beste baten gainean, diru bat mailegutan utzi dionean, baldin eta bigarrenak berehala beste norbaiti emateko jaso badu eta, beraz, diru hori ez badauka. Zer litzateke errepublika batean, legeek mendekotasun hori areagotuko balute?

Atenasen eta Erroman<sup>172</sup>, hasieran zilegi zen ordaintzeko biderik ez zeukaten zordunak saltzea. Solonek zuzendu egin zuen usadio hori Atenasen<sup>173</sup>: zor zibilak zirela eta, agindu zuen ezin zela inor gorputzez behartu. Baina

dezenbiroek<sup>174</sup> ez zuten zuzendu Erromako usadioa eta, Solonen araudia begien aurrean bazuten ere, ez zioten jarraitu nahi izan. Ez da hori dezenbiroek demokraziaren izpirituaren kontra joateko zuten asmoa erakusten duen Hamabi Tauletako legearen parte bakarra.

Zordunen kontrako lege anker horiek maiz jarri zuten arriskuan errepublika erromatarra. Zauriz betetako gizon batek ihes egin zuen hartzekodunaren etxetik, eta plazan agertu zen<sup>175</sup>. Ikuskizun hark hunkitu egin zuen herria. Beste hiritar batzuk, haien hartzekodunak ez baitziren ausartzen atxilotuta edukitzen, beren ziegetatik irten ziren. Promesak egin zizkieten; ez zituzten bete. Herria mendi sakratura erretiratu zen, baina ez zuen lortu lege haiek indargabetzea; magistratu bat baino ez, bera defenda zezan. Anarkiatik irten eta tiranian erori zirela uste izan zuten. Manliok, ospea irabazteko, hartzekodunen eskuetatik kendu nahi izan zituen haiek esklabo bihurtuta zeuzkaten hiritarrak<sup>176</sup>. Manlioren asmoei aurrea hartu zieten, baina gaitzak iraun egin zuen. Lege partikularrek ordaintzeko erraztasunak eman zizkieten zordunei<sup>177</sup>, eta Erromako 428. urtean kontsulek lege bat eman zuten<sup>178</sup>, hartzekodunei zordunak beren etxeetan zerbitzari edukitzeko eskubidea kendu ziena<sup>179</sup>. Papirio zeritzan lukurrero bat Publio izeneko gazte baten kastitatea galbidean jartzen saiatu zen, hura atxilotuta zeukalarik. Sextoren delituak libertate politikoa eman zion Erromari; Papiriorenak libertate zibila eman zion.

Horixe izan zen hiri haren patua, delitu berriek delitu zaharrek ekarria zioten libertatea berretsi ziotela. Apiok Virginiaren gainean egindako atentatuak aurrez Lukreziaren zorigaitzak emana zion tiranoen kontrako gorrotoa eragin zion berriro herriari. Papirio dongearen delitutik hogeita hamazazpi urtera<sup>180</sup>, antzeko delitu batek<sup>181</sup> herria Janikulu mendira erretirarazi zuen<sup>182</sup>, eta zordunen segurtasunerako egindako legea indarberritzea ekarri zuen.



Handik hara, gehiagotan gertatu zen zordunek hartzekodunei esestea, lukurreriaren kontrako legeak hausteagatik, hartzekodunek zordunei esestea baino, ez ordaintzeagatik.

## **XXII. KAPITULUA**

### ***Monarkian libertateari eraso egiten dieten gauzez.***

Printzearentzat denik eta alferrekoena zen gauza batek ahuldu izan du maiz libertatea monarkietan: partikular bat epaitzeko noizbehinka izendatutako komisarioek.

Printzea hain gutxi balia daiteke komisarioez, non ez baitu merezi hark gauzen ordena aldatzea horretarako. Moralki segurua da printzeak bere komisarioek baino zintzotasun- eta justizi izpiritu handiagoa duela, hauek aski justifikatuta ikusten baitituzte beren buruak haren aginduengatik, Estatu-interes ilun batengatik, hautatuak izateagatik, eta are beren beldurrengatik ere bai.

Enrike VIII.aren erregealdian, pare bat epaitzen zutenean, pareen ganbaratik aukeratutako komisarioek epaitzen zuten; metodo horren bidez, nahi adina pare hil zituzten.

## **XXIII. KAPITULUA**

### ***Ispioiez, monarkian.***

Behar al dira ispioiak monarkian? Ez da hori printze onen ohiko jokabidea. Gizon bat legeekin leiala denean, betea du printzeari zor diona. Beharrezkoa da etxea behinik behin babesleku izan dezan, eta hortik kanpoko jokabidea seguru. Ispioitza onargarri litzateke agian, baldin eta jende zintzoak egingo balu, baina pertsonaren nahitaezko doilorkeriak gauzaren doilorkeria eman dezake aditzera.

Printze batek laño, zabal, konfiantzaz jokatu behar du mendekoekin. Hainbeste kezka, susmo eta beldur dituen bere rola jokatzeko trabatuta dagoen aktorea da. Ikusten badu legeak oro har indarrean daudela, eta errespetatuak direla, seguru senti daiteke. Martxa orokorra norbanako guztienaren berme zaio. Ez beza inolako beldurrik izan, ez luke sinetsiko zenbateraino maite duten sujetek. Eta zergatik ez lukete, bada, maitatuko? Bera da egiten den ia on guztiaren iturria; eta ia zigor guztiak legeen kontu dira. Aurpegi narez baizik ez da agertzen herriaren aurrera; haren aintza gurea ere bada, eta haren botereak eusten digu. Maitatua izatearen froga bat, zaion konfiantza da; eta ministro batek zerbait ukatzen duenean, beti imajinatu ohi da printzeak eman egingo zukeela. Zorigaitz publikoetan ere, ez dute haren pertsona salatzen; damu izan ohi du jendeak hura ezjakinean egoteagatik, edo jende ustelaren eragina jasateagatik. "Printzeak hau baleki", esan ohi du herriak. Hitz horiek laguntza eskatze moduko bat dira, eta harengan duten konfiantzaren froga.

## **XXIV. KAPITULUA**

### **Gutun anonimoez.**

Tartariarrak behartuta daude beren gezetan izena jartzera, zein eskuk jaurti dituen jakin dadin. Filipo Mazedoniakoa hiri baten setioan zauritu zutenean, hitz hauexek aurkitu zituzten dardoan, "Aster-ek eman dio heriozko kolpe hau Filipori"<sup>183</sup>. Gizon bat salatzen dutenek on publikoaren izenean salatuko balute, ez lukete printzearen aurrean salatuko, hau ernai egon bailiteke, magistratuen aurrean baino, hauek kalumniatzaileentzat bakarrik baitituzte arau izugarriak. Ez badituzte jarri nahi legeak beren eta salatuaren artean, hori haien beldur direlako froga da; eta ezar dakiekeen zigorrik txikiena, ez sinestea da. Justizia arruntaren geldotasuna jasan ezin duten kasuetan baizik ez zaie arreta jarri behar, eta

printzearen salbamenari dagozkionetan. Halakoetan, sinets daiteke salatzen duenak mihia askatu eta hitz egiteko ahalegina egin duela. Baina beste kasuetan, Konstantzio enperadoreak bezala esan behar da: "Ezin dugu susmorik egin etsairik falta ez zitzaionean salatzaileak izan ez zuenaz"<sup>184</sup>.

## **XXV. KAPITULUA**

### **Monarkian gobernatzeko eraz.**

Erregearen autoritatea baliabide handia da, erraz eta zaratarik gabe mugitu behar dena. Txinatarrek beren enperadore bat laudatzen dute, zeruak bezala gobernatu omen zuelako; hau da, bere etsenpluaz.

Zenbait kasutan botereak bere ahal osoan jardun behar du; beste kasu batzuetan, beren mugekin jardun behar du. Administrazioaren gauzarik bikainena zera da, ondo ezagutzea zenbaterainoko boterea, handia ala txikia, erabili behar den aldiko.

Gure monarkietan, zorion guztia herriak gobernatzailearen leuntasunaz duen iritzian datza. Ministro trakets batek beti nahi izango digu jakinarazi esklabo garela. Baina hori horrela balitz ere, guk jakin ez genezan saiatu beharko luke. Ez daki besterik idazten edo esaten: printzea haserre dagoela, harrituta dagoela, ordena ezarriko duela. Bada halako gizabide bat agintean: printzeak adorea eman behar du, eta legeek mehatxatu egin behar dute<sup>185</sup>.

## **XXVI. KAPITULUA**

### **Monarkian printzeak abegitsua izan behar duela.**

Hori askoz hobeto ikusiko da kontrasteen bidez. "Pedro I.a tsarrak", dio Perry jaunak<sup>186</sup>, "ordenantza berri bat egin du: debekatua dago berari memoria

aurkeztea, baldin eta aurrez bere ofizialei ez bazaizkio bi aurkezten. Justizia ukatuz gero, aurkez dakioke hirugarrena; baina arrazoirik ez duenak bizia galdu behar du. Harrezkeroztik, inork ez dio memorialik aurkeztu tsarrari".

## **XXVII. KAPITULUA**

### **Erregearen ohiturez.**

Printzearen ohiturek legeek hainbat egiten dute libertatearen alde; hauek bezala, hark ere abere bihur ditzake gizakiak, eta abereak gizaki. Arima libreak maite baditu, sujetak izango ditu; arima baxuak maite baditu, esklaboak izango ditu. Jakin nahi al du errege izateko arte handia? Ohorea eta bertutea beregana ditzala, bere merezimendua bila dezala. Talentuetan ere jar dezake batzuetan begia. Ez dadila izan meritudun aurkakoen beldur; haien berdina da, maite dituenek geroztik. Bihotzak irabaz ditzala, baina izpirituak preso hartu gabe. Herritar bihur dadila. Harro egon behar du bere sujet apalenaren maitasunaz; halakoak ere gizakiak dira. Herriak hain begiramendu gutxi eskatzen du, non bidezko baita ematea; erregearen eta haren artean dagoen tarte hain da handia, non ezinezko baita herriak erregea gogaitzea. Erreguentzat bihozbera eta eskaeren aurrean irmo egon behar du; jakin behar du herriak beraren ukoekin duela atsegin, eta kortesanoek beraren mesedeekin.

## **XXVIII. KAPITULUA**

### **Erregeek sujetei zor dieten begiramenduaz.**

Oso neurri handiz jokatu behar dute trufekin. Lausengatu egiten dute neurrizkoak direnean, konfiantza hartzeko bidea ematen dutelako; baina ezten

zorrotza azken sujetari baino gutxiago onartzen zaie, printzeak baitira bakarrik beti heriozko zauria eragiten.

Are gutxiago iraindu behar dute sujet bat; barkatzeko eta zigortzeko daude, inola ere ez iraintzeko.

Printzeak sujetak iraintzen dituenean, Turkiarrak edo Moskoviarrak bere sujetak baino askoz ankerrago tratatzen ditu hark bereak. Aipatu bi horiek irain egiten dutenean, makurrarazi egiten dute, eta ez dute desohoratzen; baina haiek, makurrarazi eta desohoratu.

Hainbestekoa da asiarren aurreiritzia, non printzeak egindako laidoa aitaren ontasunaren ondoriotzat hartzen baitute; gure pentsatzeko eraren arabera, berriz, laidotua izatearen sentimendu ankerrari laido hori inoiz garbitu ezingo dugulako etsipena eransten diogu.

Erregeek pozik egon behar dute ohorea bizia baino maiteago, eta ausardiarako adina leialtasunerako motibo duten sujetak izateagatik.

Gogora gaitezen printzeei sujetak iraintzeagatik gertaturiko zoritxarrez; Txeras-en, Narses eunukoaren eta Julian kondearen mendekuez; eta Montpensier-ko dukesaz, zein, Enrike III.aren kontra suminduta errege hark bere akats sekreturen bat jakinarazi zuelako, bizi osoan artegatu baitzuen.

## **XXIX. KAPITULUA**

***Gobernu despotikoan libertate pixka bat emateko egoki diren lege zibilez.***

Nahiz eta gobernu despotikoa, berez, berdina izan alde guztietan, hala ere, zirkunstantziek, erlijio-iritzi batek, aurreiritzi batek, jasotako etsenpluek, pentsaerak, manerek, ohiturek, alde handiak ezar ditzakete batetik bestera.

Gauza ona da ideia batzuk ezarrita egotea. Hala, Txinan, printzea herriaren aita bailitzan dago ikusia; eta arabiarren inperioaren hasieretan, printzea predikatzaila zen<sup>187</sup>.

Komenigarria da liburu sakratu bat izatea arautzat, Korana arabiarrentzat bezala, Zoroastroren liburuak pertsiarrentzat, Vedak indiarrentzat, liburu klasikoak txinatarrentzat. Kode erlijiosoak kode zibila ordezkutzen du, eta finkatu egiten du arbitrario zena.

Ez dago gaizki zalantzazko kasuetan epaileek erlijioaren ministroak kontsultatzea<sup>188</sup>. Esate baterako, Turkian, kadiak galdetu egiten diete molakoei. Kasuak heriotza merezi badu, komenigarria izan daiteke epaile partikularrak, halakorik bada, gobernadorearen iritzia jasotzea, aginte politikoak botere zibila eta Elizarena leun ditzan.

### **XXX. KAPITULUA**

#### **Gai beraren jarraipena.**

Despotaren haserreari zor zaio aitaren zoritxarrak haur eta emazteena ekartzea. Nahikoa zoritxarreko dira horiek, deliturik egin gabe ere. Bestalde, printzeak erregutzaileak utzi behar ditu akusatuaren eta bere artean, bere sumina ematzeko edo bere justizia argitzeko.

Maldivetako ohitura on bat da<sup>189</sup> jaun bat zoritxarrean erortzen denean egunero erregeari gortea egitera joatea, harik eta berriz ere haren ustea irabazi arte; izan ere, haren presentziak printzearen sumina indargabetzen du.

Zenbait estatu despotikotan<sup>190</sup> zera pentsatzen da, printze bati zoritxarrean eroritako batez hitz egitea printze horri zor zaion begirunea iraintzea dela. Irudi luke halako printzeek ahalegin guztiak egiten dituztela errukiaren bertuterik ez izateko.

Arkadio eta Honoriok, hainbeste aztertu dudan<sup>191</sup> legean<sup>192</sup>, zera diote, ez dietela barkatuko errudunen alde erregutzen ausartuko direnei<sup>193</sup>. Lege hori oso gaiztoa zen, despotismoan bertan ere gaiztoa delako.

Pertiako ohitura bat, nahi duenari erresumatik alde egiten uztea, oso ona da. Kontrako ohiturak despotismoan du jatorria, mendekoak esklabotzat hartzen baitira, eta alde egiten dutenak esklabo ihesletzat<sup>194</sup>; hala eta guztiz ere, Pertiako aztura hori oso ona da despotismoarentzat, ihesaren edo zordunek alde egitearen beldurrak geldiarazi edo leundu egiten baititu pashen eta zerga-biltzaileen pertsekuzioak.

### XIII. LIBURUA

#### ZERGEN BILKETAK ETA ERRENTA PUBLIKOEN HANDITASUNAK

#### LIBERTATEAREKIN DUTEN ZERIKUSIAZ

### LEHEN KAPITULUA

#### Estatuaren errentez.

Estatuaren errentak hiritar bakoitzak bere ondasunetatik ematen duen parte batez osatzen dira, beste guztia seguru edukitzeko edo hartaz atseginez gozatu ahal izateko.

Errenta horiek ondo finkatzeko, Estatuaren premiak eta hiritarren premiak izan behar dira kontuan. Ez da ezer hartu behar herriaren benetako premietatik, Estatuaren premia imajinarioak asetzeko.

Premia imajinarioak, gobernatzen dutenen grina eta ahuleziek, neurritz gaineke egitasmo baten erakarmenak, handiustearen irrika gaixoak eta fantasien kontra izpirituzko nolabaiteko ezin batek eskatzen dutena dira. Maiz, printzearen esanetara arazoez arduratzen diren izpiritu urduriek pentsatu izan dute Estatuaren premiak beren arimatxoek premiak zirela.

Ez dago zuhurtziak eta ardurak hobeto arautu behar dutenik, sujetei kentzen eta uzten zaien parte hori baino.

Errenta publikoak ez dira neurtu behar herriak ahal duenaren arabera, baizik eta eman behar duenaren arabera; eta eman ahal duenaren arabera neurtzen badira, beti eman ahalko duenaren arabera izan dadila, behinik behin.

### II. KAPITULUA

Oker arrazoitzea dela zergen handitasuna berez ona dela esatea.



Monarkia batzuetan ikusi izan da zergarik gabeko herri txikiak zergaz leporaino zeuden inguruko herriak bezain miserable zirela. Arrazoi nagusia zera da, Estatu txikiak, beste batzuez inguratuta, ezin duela ez industriarik, ez arterik, ez manufakturarik izan, zeren eta alde horretatik hura bere baitan daukan Estatu handiak traba egingo baitio mila modutan. Inguratzen duen Estatu handiak ditu industria, manufaktura eta arteak, eta abantaila guztiak ematen dizkioten araudiak egiten ditu. Estatu txikia, beraz, pobretu egiten da ezinbestean, nahiz eta zerga gutxi ordaindu behar izan.

Hala ere, herri txiki horien pobreziatik ondorio hau atera zen: herria trebe eta langilea izan zedin, zerga astunak behar zirela. Hobe zuketen horrelakorik ez dela behar ondorioztatu balute. Inguruetako doilor guztiak erretiratzeko dira leku haietara, ezer ez egiteko; lanaren nekeak gogogabetuta, alferkerian jartzen dute beren zorion guztia.

Herri bateko aberastasunen eragina bihotz guztietan askonahia ezartzea da; pobrezia eragina, berriz, desesperantza sorraraztea. Askonahia lanak kitzikatzen du; desesperantza alferkeriak kontsolatzen du.

Natura justua da gizakiekin: saritu egiten ditu nekeengatik; langile egiten ditu, lan handiei saririk handienak ematen baitizkie. Baina botere arbitrario batek naturaren sariak kentzen baditu, lanarekiko higuina sortzen da berriro, eta ezer ez egiteak dirudi orduan on bakarra.

### **III. KAPITULUA**

#### ***Herriaren parte bat glebako jopu den herrialdeetako zergez.***

Konkista baten ondoren glebako joputza ezarri ohi da batzuetan. Kasu horretan, lurra lantzen duen esklaboak nagusiaren kolono partzuerra izan behar

du. Galera eta irabazietan partaide izateak bakarrik elkar ditzake lanerako direnak gozatzeko direnekin.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Errepublikaz, antzeko kasu batean.**

Errepublika batek nazio bat lurak berarentzat lantzera behartu duenean, ez da onartu behar hiritarrak esklaboaren zerga handiagotu ahal izatea. Lazedemonian ez zen horrelakorik onartzen; pentsatzen zuten ilotek<sup>195</sup>, esklabotza handituko ez zitzaizela jakinik, hobeto landuko zituztela lurak; uste zen nagusiak hiritar hobeak izango zirela, eduki ohi zutena besterik desiratzen ez bazuten.

#### **V. KAPITULUA**

##### **Monarkiaz, antzeko kasu batean.**

Monarkia batean, konkistatutako herriak lurak nobleziaren probetxurako lantzen dituztenean, orduan ere ez zaio handitu behar errenta<sup>196</sup>. Gainera, ona da printzeak bere nagusigoarekin eta zerbitzu militarrekin aski izatea. Baina zergak dirutan jaso nahi badizkie bere nobleen esklaboei, jaunak izan beharko du zergaren berme<sup>197</sup>, berak ordaindu behar du esklaboen izenean, eta gero haiengandik jaso. Eta arau horri jarraitzen ez bazaio, jaunak eta printzearen zergak biltzen dituztenek, banan-banan, gaizki erabiliko dute esklaboa, eta bata bestearen atzetik erasoko diote, harik eta hura miseriaz hil arte edo basora ihes egin arte.

#### **VI. KAPITULUA**

### *Estatu despotikoaz, antzeko kasu batean.*

Esan berri dudana are derrigorrezkoagoa da estatu despotiko batean. Jauna, lurrak eta esklaboak edozein unetan ken diezazkioketenez, ez dago hain lotua haiek gordetzera.

Pedro lehenak, Alemaniako ohiturari jarraitu eta zergak dirutan jaso nahirik, oso arautegi zuhurra egin zuen, oraindik ere Errusian indarrean dagoena. Aitonsemeak nekazariengandik jasotzen du zerga, eta tsarrari ordaintzen dio. Nekazari-kopurua gutxitzen bada, berdin ordaintzen du; kopurua handitzen bada, ez du gehiago ordaintzen; beraz, interes handia izango du nekazariak gaizki ez erabiltzen.

## **VII. KAPITULUA**

### *Glebako esklabotza ezarrita ez dagoen herrialdeetako zergez.*

Estatu batean norbanako guztiak hiritarrak direnean, eta bakoitzak bere jabetzaz daukanean printzeak bere agintez daukana, jar dakizkieke zergak pertsoneri, lurrei edo merkantziei; gauza horietarik biri, edota hirurei.

Pertsonaren gaineko zergan, bidegabeko proportzioa ondasunen proportzioaren araberakoa litzateke. Atenasen<sup>198</sup> hiritarrak lau klasetan banatu zituzten. Beren ondasunetatik, fruitu likido nahiz lehorretan bostehun neurri ateratzen zituztenek talentu bat ordaintzen zioten altxor publikoari; hirurehun neurri ateratzen zituztenek, talentu erdi; berrehun neurri zeuzkatenek, hamar mina edo talentu baten seirena; laugarren klasekoek ez zuten ezer ematen. Zerga justua zen, nahiz eta proportzionala ez izan: ondasunen proportzioaren araberakoa ez baina premien araberakoa zen. Erabaki zen bakoitzak oinarrizko premia berdina zuela, eta oinarrizko premia horri ezin zitzaiola zergarik ezarri; ondoren baliagarri

zena zetorrela, eta horri zerga ezarri behar zitzaiola, baina beharrezko ez zenari baino gutxiago; hartara, beharrezko ez zenari ezarritako zergaren tamainak galarazi egiten zuen beharrezko ez zena.

Lurren gaineko zergan, zerrendak egiten dira, eta bertan lur-mota desberdinak jartzen. Baina oso zaila da desberdintasun horiek ezagutzea, eta are zailagoa horiek ezagutzen interesatuta dauden pertsonak aurkitzea. Beraz, bi bidegabe-mota daude han: gizakiaren bidegabea, eta gauzaren bidegabea. Baina zerga, oro har, gehiegizkoa ez bada, herriari premiazkoa denetik ugari uzten bazaio, bidegabe partikular horiek ez dira ezer izango. Aitzitik, herriari doi bizitzeko behar duena baizik uzten ez bazaio, desproporztiorik txikienak ondorio handiak izango ditu.

Hiritar batzuek ez dutela nahikoa ordaintzen? Kaltea ez da handia; haien lasaitasuna denen artean banatzen da beti; norbanako batzuek gehiegi ordaintzen dutela? Haien hondamendia denen kontra bihurtzen da. Estatuak bere ondasunak norbanakoen ondasunekin proportzioan jartzen baditu, norbanakoen lasaitasunak laster igoaraziko dizkio bere aberastasunak. Abagunearen arabera da dena: Estatuak sujetak pobretzen hasi beharko al du bera aberastu ahal izateko? Ala lasai bizi diren sujetek aberats dezaten itxarongo du? Lehen abantaila ala bigarrena izango du? Aberats izanez hasiko da? Ala aberats izaten amaituko du?

Merkantzien gaineko tasak sentitzen dituzte gutxien herriek, ez zaielako haien eskabide formalik egiten. Hain zuhur erabil daitezke zergok, non herriak ia ez baitu jakin ere egingo ordaintzen dituenik. Horretarako, munta handikoa da merkantzia saltzen duenak ordaintzea tasa hori. Ondo daki berak ez duela hura ordaintzen; eta erosleak, azken batean berak ordaindu arren, prezioarekin nahasten du. Autore batzuek esan dute Neronek ezabatu egin zuela saltzen ziren esklaboek hogeita bostenaren tasa<sup>199</sup>; baina hark saltzaileak ordaindu behar zuela besterik ez

zuen agindu, ez erosleak; arau hark, zerga bere hartan utzi arren, kendu egiten zuela zirudien.

Bi erresuma dira European edariei oso zerga gogorrak ezarri dizkietenak: batean, egileak bakarrik ordaintzen du tasa; bestean, kontsumitzen duten sujet guztiengandik berdin jasotzen da. Lehenengo kasuan inork ez du sentitzen zergaren gogorra; bigarrenean, berriz, astuntzat daukate. Hartan, hiritarrak ez ordaintzeko duen askatasuna besterik ez du sentitzen; honetan, ordaindu egin behar duela besterik ez du sentitzen.

Bestalde, hiritarrak ordain dezan, etengabe bilatu behar da haren etxean. Ezer ez da libertatearen kontrakoagorik, eta horrelako zergak ezartzen dituztenek ez dute alde horretatik administrazio-motarik onena aurkitu.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Nola gordetzen den ilusioa.**

Gauzaren prezioa eta zerga ordaintzen duenaren buruan horrela nahasteko, zerikusiren bat egon behar du merkantziaren eta zergaren artean; eta balio gutxiko erosgairen bati ez zaio zerga handiegia ezarri behar. Zenbait herrialdetan zerga merkantziaren balioa baino hamazazpi bider handiagoa da. Halakoetan, printzeak kendu egiten die ilusioa mendekoei; ikusten dute arrazoizkoa ez den moduan gidatzen dituztela, eta horrek azken muturreraino sentiarazten die beren esklabotza.

Bestalde, printzeak gauzaren balioarekin hain desproporzio handia duen tasa jaso ahal dezan, berak saldu beharra dauka merkantzia, eta herria ezin dadila beste inora hura eroatera joan, eta horrek mila eragozpen ditu.

Kasu honetan iruzurra oso aberasgarria izanik, zigor naturala, arrazoiak eskatzen duena –hau da, merkantzia konfiskatzea–, ez da aski hura geldiarazteko;

are gehiago, gehienetan merkantzia hori prezio hutsalekoa izaten baita. Beraz, neurritz gainera zigorretara jo behar izaten da, delitu larriengatik ezartzen direnak bezalakoetara. Zigorren proportzio guztia ezabatu egiten da. Gaizkiletzat hartuko ez liratekeen pertsonak dongeak bailiran zigortzen dira; eta hori gobernu moderatuaren izpirituaren denik eta gauzarik kontrakoena da.

Hauxe erantsiko dut: zenbat eta aukera gehiago eman herriari zerga-biltzaileari iruzur egiteko, hainbat eta gehiago aberasten da hau eta pobretzen da hura. Iruzurra geldiarazteko, ohiz kanpoko zigorbideak eman behar zaizkio zerga-biltzaileari, eta horrela galdua da dena.

## **IX. KAPITULUA**

### **Zerga-mota kaltegarri batez.**

Bidenabar, zenbait estatutan kontratu zibilen klasusulen gainean ezarritako zerga batez hitz egingo dugu. Zerga-biltzaileagandik defendatzeko, asko jakin behar da, horrelako gauzak oso eztabaida sotilen mende baitaude. Eztabaidotan, zerga-biltzaileak, printzearen arautegien interpretea delarik, botere arbitrarioa erabiltzen du aberastasunen gainean. Esperientziak erakutsi duenez, askoz hobea litzateke kontratua idazteko erabiltzen den paperaren gaineko zerga bat.

## **X. KAPITULUA**

### **Zergen zenbatekoa gobernua-eraren araberakoa dela.**

Zergek oso arinak izan behar dute gobernu despotikoan. Hori gabe, nork hartu nahiko luke lurak lantzeko nekea? Eta gainera, nola ordaindu zerga handiak mendekoak eman duenaren truke ezer ematen ez duen gobernu batean?

Printzeak botere harrigarria, eta herriak ahulezia arraroa duten lekuan, ez da inolako gaizkiulerturik egon behar ezeren gainean. Zergak biltzea hain erraza izan behar du, eta hain argi ezarria, non biltzaileek ezin baitituzte handitu edo txikiagotu. Lurreko igalien zati bat, tasa bat pertsona bakoitzeko, ehuneko hainbeste merkantzien gainean, horiek dira komeni diren bakarrak.

Gobernu despotikoan, ona da merkatariek babes pertsonala izatea, eta haiek errespetatzeko ohitura izatea; hori gabe, ahulegiak lirateke printzearen ofizialekin izan litzaketen eztabaidetan.

## **XI. KAPITULUA**

### **Zigor fiskalez.**

Hona zigor fiskalen ezaugarri berezi bat: ohikoaren kontra, gogorragoak direla European Asian baino. European, konfiskatu egiten dira merkantziak, batzuetan baita ontziak eta ibilgailuak ere; Asian ez da ez bata ez bestea egiten. European, merkataria epaileak ditu zapalkuntzatik babesteko; Asian, ordea, epaile despotikoak berak lirateke zapaltzaileak. Zer egingo luke merkataria merkantziak konfiskatzea erabakia lukeen pasharen kontra?

Irainak iraina gaingitzen du, eta zerbait leuntzera behartuta dago. Turkian, sarrera-eskubide bakar bat ordaintzen da, eta horren ondoren herrialde osoa dago zabalik merkatarientzat. Deklarazio faltsuek ez dakarte ez konfiskaziorik ez tasa-handitzerik. Txinan, ez dira irekitzen<sup>200</sup> merkataria ez direnen fardelak. Mongolian, iruzurra zigortzeko, ez da konfiskazioarik egiten, zerga bikoizten da. Asiako hirietan bizi diren printze tartariarrek<sup>201</sup> ez dute ia ezer jasotzen pasatzen diren merkantziengatik. Japonian, merkataritzan iruzur egitea delitu larria bada, atzerriarrekiko harreman oro debekatzeko arrazoiak dituztelako da horrela; eta

han iruzurra<sup>202</sup> Estatuaren segurtasunerako egindako legeen kontra joatea da, ez merkataritzaren legeen kontra joatea.

## **XII. KAPITULUA**

### **Zergen handitasunak libertatearekin duen zerikusia.**

Arau orokorra: hainbat eta zerga handiagoak bil daitezke, zenbat eta mendekoen libertatea handiagoa izan; leundu egin behar dira, ordea, esklabotza areagotu ahala. Hori horrela izan da beti, eta horrela izango da. Naturatik ateratako araua da, aldaezina; herrialde guztietan aurkitzen da, Ingalaterran, Holandan, eta libertatea urrituz doan herrialde guztietan, Turkiaraino. Suitzak araua indargabetu egiten duela dirudi, han ez delako zergarik ordaintzen; baina jakina da zergatik, eta horrexek berresten du diodana. Mendi antzu haietan, jakiak hain dira garestiak, eta herrialdea hain dago populatuta, non suitzar batek lau bider gehiago ordaintzen baitio naturari, turkiar batek sultanari baino.

Herri menderatzaile batek –atenastarrek eta erromatarrek, kasu– zerga guztiak bazter ditzake, mendean nazioak dituelako. Orduan ez du ordaintzen bere libertatearen proportzioan, alde horretatik ez baita herri, errege baizik.

Baina arau orokorrak beti dirau. Estatu moderatuetan, zergen astunaren truke libertatea dago. Estatu despotikoetan<sup>203</sup>, zergen urria dute libertatearen baliokide.

Europako zenbait monarkiatan, probintzia batzuk<sup>204</sup>, beren gobernu-era politikoaren izaeragatik, beste batzuk baino hobeto daude. Beti pentsatu ohi da ez dutela aski ordaintzen, zeren eta, beren gobernu-eraren ontasunaren ondorioz, gehiago ordain bailezakete; eta beti etorri ohi da gogora gobernu-era hori kentzea, nahiz eta komunikatzen den, urrunera hedatzen den ondasun hori sorrarazi, eta hobe izan hartaz gozatzea.



### XIII. KAPITULUA

#### *Zein gobernutan diren zergak handigarri.*

Errepublika gehienetan handi daitezke zergak, hiritarrak, bere buruari ordaintzen diola uste baitu, ordaintzeko borondatea duelako, eta gehienetan hori egin dezakeelako gobernuaren izaerari esker.

Monarkian ere handi daitezke zergak, gobernu-era moderatuak aberastasunak ekar ditzakeelako; printzearen saria litzateke hori, legeak errespetatzeagatik.

Estatu despotikoetan ezin dira handitu, esklabotza gorria ezin delako handitu.

### XIV. KAPITULUA

#### *Zergen izaera gobernuaren araberakoa dela.*

Burukako zerga esklabotzari doakio; salerosgaien gaineko zerga, ordea, libertateari doakio, ez duelako hain zerikusi zuzenik pertsonarekin.

Gobernu despotikoari berez doakio printzeak armadari edo gortekoei dirurik ez ematea, lurak banatzea baizik, eta, ondorioz, zerga gutxi biltzea. Printzeak dirua ematen badu, bil dezakeen zergarik naturalena burukako zerga izango da. Zerga horrek oso urria izan behar nahitaez, zeren eta, zergadun-mota desberdinak egin ezin direnez –izan ere, hortik gehiegikeriak etorriko bailirateke–, gobernuaren bidegabeta eta bortxa ikusirik, txiroenek ordain ditzaketen tasen arabera arautu behar baita derrigor.

Gobernu moderatuari berez dagokion zerga salerosgaien gaineko zerga da. Zerga hori ordaindu, erosleak ordaintzen du –merkatariak aurreratu egiten badu

ere—, eta merkatariak erosleari aurreratu dion mailegua da. Beraz, negoziogilea Estatuaren zordun orokor gisa eta partikular guztien hartzekodun gisa ikusi behar da. Egunen batean erosleak ordainduko dion eskubidea aurreratzen dio Estatuari; eta eroslearen izenean ordaindu du salerosgaiagatik ordaindu duen eskubidea. Beraz, gobernu zenbat eta moderatuagoa izan, zenbat eta nagusiago izan libertate-izpiritua, zenbat eta segurtasun handiagoa izan aberastasunek, hainbat eta errazagoa zaio merkatariari Estatuari aurreratzea, eta partikularrari eskubide handiak mailegatzea. Ingalaterran, merkatari batek berrogeita hamar edo hirurugei libra esterlina mailegatzen dizkio Estatuari ardotan hartzen duen tona bakoitzeko. Zein merkatari ausartuko litzateke horrelakorik egiten Turkia bezala gobernatutako herrialde batean? Eta ausartuko balitz ere, nola egingo luke bere aberastasuna hain susmagarri, badaezpadako eta hondatua izanik?

## **XV. KAPITULUA**

### ***Libertatea gehiegikeriaz erabiltzea.***

Libertatearen abantaila handi horiek libertatea bera gehiegikeriaz erabiltzea ekarri izan dute. Gobernu moderatuak ondorio miresgarriak zekartzanez, baztertu egin zen moderazio hori; zerga handiak jasotzen zirenez, gehiegizkoak jaso nahi izan ziren; eta opari hori egiten zuen libertatearen eskua ezagutu gabe, dena ukatzen zuen esklabotzara jo zen.

Libertateak zerga gehiegi sorrarazi ditu; baina gehiegizko zerga horien ondorioa esklabotza sorraraztea izan da; eta esklabotzaren ondorioa, zerga gutxiegi sorraraztea.

Asiako erregeek ia ez dute edikturik egiten, urtero beren inperioko probintziaren bat zergez salbuesteko baizik<sup>205</sup>; haien borondatearen agerpide horiek on egintzat hartzen dira. Baina Europan printzeen ediktuek argitaratuak

izan baino lehen atsekabetzen dute, haien premiez hitz egiten dutelako beti, inoiz ez gureez.

Herrialde batzuetako ministroek, gobernuan –eta maiz baita klima dela medio ere– hartzen duten zabarkeria barkaezin batetik, herriek honako abantaila hau ateratzen dute: haiek ez dituztela etengabe unatzen eskari berriekin. Gastuak ez dira handitzen, ez delako proiektu berririk egiten; eta, aukeran, egiten badira, amaitu hurren dauden proiektuak dira, ez hasitako proiektuak. Estatuak gobernatzen dutenek ez dute Estatu hori oinazetzen, beren buruak ere ez dituztelako etengabe oinazetzen. Baina guri dagokigunez, ezinezkoa da guk inoiz araurik izatea gure finantzetan, beti jakiten dugulako zerbait egingo dugula, eta inoiz ez zer egingo dugun.

Gure artean, jadanik ez daukagu ministro handitzat errenta publikoak zuhur erabiltzen dituen, baizik eta irtenbideak aurkitzen dituen gizon artatsua.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Mahometarren konkistak.**

Gehiegizko zergek<sup>206</sup> ekarri zuten mahometarrek beren konkistetan izan zuten erraztasun bitxi hura. Herriak, enperadoreen askonahiak asmatuak zituen bidegabekerien segida etengabearen ordeztan, erraz ordaintzen eta jasotzen zen zerga sinple bati lotuta ikusi zuten beren burua; zoriontsuago nazio barbaro bati obeditzeagatik gobernu usteldu bati obeditzeagatik baino, zeinetan ez zuten libertatearen akats guztiak jasaten baitzituzten, morrontzaren izugarrikeria guztiekin batera.

## **XVII. KAPITULUA**

### **Tropak gehitzeaz.**

Gaixotasun berri bat zabaldu da Europan, gure printzeak hartu ditu, eta ordenarik gabeko tropa-kopurua mantentzen die. Gaixotasuna berpiztu egiten da, eta kutsakor bihurtzen da nahitaez; izan ere, Estatu batek bere tropak ugaltzea bezain laster, besteek ere bereak ugaltzen dituzte berehala; hartara, ezer ez da irabazten bide horretatik, denen hondamena ez bada. Monarkia bakoitzak prest dauzka bere herriak sarraski-arriskuan baleude izan litzakeen armada guztiak; eta bake deitzen zaio denak denen kontrako egoera horri<sup>207</sup>. Hartara, Europa hain dago behea jota non, norbanakoak munduko alde honetako hiru potentzia aberatsenak dauden egoeran baleude, ez bailukete bizibiderik. Pobre gara unibertso osoko aberastasun eta merkataritzarekin; eta aurki, hainbeste soldadu izanda, ez dugu soldaduak besterik izango, eta tartariarrak bezalakoak izango gara<sup>208</sup>.

Printze handiek, txikiagoen tropak erostearekin aski ez-eta, aliantzak ordaintzen saiatzen dira alde guztietatik; hau da, beren dirua galtzen ia beti.

Honelako egoera baten ondorena zergak etengabe handitzea da; eta erremedio posible guztiak ezinezko bihurtzen ditu honako honek: ez dira errentak erabiltzen, kapitalarekin egiten da gerra. Ez da harritzekoa Estatuak beren fondoak hipotekatzea bake-garaian bertan; eta ohiz kanpoko deitzen dieten bitartekoak erabiltzea, porrot egiteko; hain ohiz kanpokoak ezen familiako semerik neurrigabeenak berak ere ez bailituzke ia imajinatu ere egingo.

## **XVIII. KAPITULUA**

### **Zergak barkatzea.**

Ekialdeko inperio handien araua –alegia, sofritu duten probintziei zergak itzultzea– ezarri behar litzateke estatu monarkikoetan. Ezarrita dago batzuetan,

baina egongo ez balitz baino gehiago unatzen du, zeren eta, printzeak ez gehiago ez gutxiago biltzen duenez, Estatu osoa bihurtzen baita solidario. Hortaz, gaizki ordaintzen duen herri bati zama leuntzeko, hobeto ordaintzen duen bat zamatzen da; lehena ez da sendatzen, eta bigarrena suntsitu egiten da. Herria etsita geratzen da, batetik ordainarazpenen beldurrez ordaindu beharraren, eta bestetik gainkargen beldurrez ordaintzeko arriskuaren artean.

Ondo gobernatutako Estatu batek, bere gastuen lehen artikulua gisa, dirutza bat ezarri behar du ustekabeetarako. Gauza bera gertatzen zaie gauza publikoei eta partikularrei, porrot egiten dutela beren lurren errentak osorik gastatzen badituzte.

Herri bereko biztanleen arteko solidaritateari dagokionez, esan izan da<sup>209</sup> arrazoizkoa zela, pentsa zitekeelako elkar har lezaketela iruzurrez; baina nondik atera da ezen, uste hutsen gainean, berez bidegabekia eta Estatuarentzat hondagarria den gauza bat ezarri behar dela?

## **XIX. KAPITULUA**

**Zer komeni zaien gehiago printzeari eta herriari, zergen errentamendua ala kudeaketa.**

Kudeaketa familiaburu on baten administrazioa da, bere errentak ekonomiaz eta ordenaz jasotzen dituenean.

Kudeaketaren bidez, printzea gai da zerga-bilketa aurreratzeko edo atzeratzeko, bere edo herriaren premien arabera. Kudeaketaren bidez, Estatuak aurreztu egiten ditu biltzaileen etekin izugarriak, hauek mila modutara pobretzen baitute. Kudeaketaren bidez, ez dio ematen herriari atsekabetzen duten bat-bateko aberastasunen ikuskizuna. Kudeaketaren bidez, bildutako dirua esku gutxitatik pasatzen da; printzearengana doa zuzenki, eta ondorioz lehenago itzultzen zaio herriari. Kudeaketaren bidez, printzeak ez dizkio hainbat eta hainbat lege txar

ematen herriari, zerga-biltzaileen askonahiak halakoak eskatzen baititu, orainean abantaila eta etorkizunean kaltea diren arautegiak.

Dirua duena beti besteen ugazaba denez, zerga-biltzailea despotiko bihurtzen zaio printzeari berari: ez da legegilea, baina legeak egitera behartzen du printzea.

Aitortzen dut batzuetan baliagarria dela berriki ezarritako tasa bat errentan ematea. Badira arte bat eta asmakizun batzuk iruzurak saihesteko, eta interesak arte eta asmakizunak iradokitzen dizkie zerga-biltzaileei, eta administratzaileek imajinatu ere ez lituzkete egingo; alabaina, biltzaileak bilketa-sistema egin ondoren, arrakastaz ezar daiteke kudeaketa zuzena. Ingalaterran, kontsumo-zergaren eta postaren errentaren kudeaketa, gaur egun den bezala, zerga-biltzaileengandik hartua da.

Errepubliketan, Estatuaren errentak zuzenean kudeatzen dira ia beti. Kontrakoa ezartzea Erromako gobernuaren akats handi bat izan zen<sup>210</sup>. Estatu despotikoetan, non kudeaketa baitago ezarrita, herriak askoz zoriontsuagoak dira; Pertsia eta Txina dira horren lekuko<sup>211</sup>. Zorigaiztokoena printzeak itsas portuak eta merkataritza-hiriak errentan ematen ditueneko herriak dira. Monarkien historia zerga-biltzaileek egindako kalteez beteta dago.

Neronek, publikanoen bidegabekeriez suminduta, zerga guztiak kentzeko asmo ezinezko eta eskuzabala hartu zuen. Ez zuen imajinatu kudeaketa zuzena; lau ordenantza eman zituen<sup>212</sup>: publikanoen kontra egindako legeak, ordura arte ezkutuan eduki zirenak, argitara emango zirela; publikanoek ezingo zutela eskatu urtean zehar eskatu ez zutena; pretore bat jarriko zela haien nahiak formalitaterik gabe epaitzeko; merkatariek ez zutela ezer ordainduko itsasontziengatik. Horra enperadore haren egun ederrak.

## **XX. KAPITULUA**

### Zerga-biltzaileez.

Galdu da dena zerga-biltzaileen lanbide irabazi handikoa, aberastasunak direla-eta, lanbide ohorezko ere izatera iristen denean. Hori ona izan daiteke estatu despotikoetan, non maiz lanbide hari gobernadoreen beren eginkizunetako bat baita. Ez da ona, ordea, errepublikan: antzeko gauza batek desegin zuen Erromako errepublika. Ez da hobe monarkian ere: ez dago ezer gobernu-era horren izpirituaren kontrakoagorik. Higuina jabetzen da beste Estatu guztiez; ohoreak bere ospe guztia galtzen du; aurrerantzean norbera bereizteko eta gora egiteko bide geldo eta naturalek beren erakarmena galtzen dute; eta gobernu bere printzipioan kaltetua gertatzen da.

Iraganean, aberastasun eskandalagarriak ikusi ziren; horixe izan zen berrogeita hamar urteko gerren kalteetako bat; baina orduan aberastasun haiek barregarritzat hartu ziren, eta guk miretsi egiten ditugu.

Lanbide bakoitzari berea dagokio. Zergak eta aberastasunak biltzen dituztenei, aberastasun horiek dagozkie saritzat. Loria eta ohorea, ohorea eta loria beste onik ikusten eta sentitzen ez duen nobleziari dagozkio. Begirunea eta kontsiderazioa, inperioaren zorionaren alde gauak eta egunak beilan ematen dituzten ministro eta magistratuei dagozkie.

**HIRUGARREN PARTEA**

|



## XIV LIBURUA

### LEGEEZ, KLIMAREN IZAERAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

## LEHEN KAPITULUA

### Idea orokorra.

Egia bada klima desberdinetan izpirituaren izaera eta bihotzaren grinak guztiz desberdinak direla, legeek grina eta izaera horien desberdintasunaren araberakoak izan behar dute.

## II. KAPITULUA

### Zenbateraino diren gizakiak desberdin klima desberdinetan.

Aire hotzak<sup>1</sup> gure gorputzaren kanpoaldeko zuntz-muturrak uzkuratzen ditu; horrek gehitu egiten die kemena eta erraztu egiten du odola gorputz-adarretatik bihotzera itzultzea. Gutxitu egiten du zuntz horien luzera<sup>2</sup> eta, beraz, handitu egiten die indarra. Aire beroak, aitzitik, lasaitu eta luzatu egiten ditu zuntz-muturrak; beraz, gutxitu egiten die kemena eta indarra.

Beraz, indar handiago izaten da klima hotzetan. Bihotzaren lana eta zuntz-muturren erreakzioa hobeto egiten dira han, likidoak orekatuago daude, odolak errazago jotzen du bihotzera, eta horrekin batera bihotzak ahalmen handiagoa du. Indar handiago horrek ondorio asko izan behar ditu; adibidez, konfiantza handiagoa norberaren buruan, hau da, kemen handiagoa; norberaren nagusitasuna hobeto ezagutzea, hau da, mendekurako gogo gutxiago; norberaren segurtasunaren uste handiagoa, hau da, irekitasun handiagoa, susmo gutxiago, politika gutxiago, jukutria gutxiago. Azkenik, oso izaera desberdinak ekarri behar ditu horrek. Jar ezazue gizon bat leku bero eta itxian; esan ditudan arrazoiengatik,

bihotza asko makalduko zaio. Egoera horretan ekintza ausarten bat proposatzen bazaio, uste dut ez dugula oso aldeko aurkituko; oraingo ahuleziak adoregabezia jarriko dio ariman; denari izango dio beldur, ezertarako gai ez dela sentituko duelako. Herrialde beroetako herriak herabeak dira, pertsona zaharrak bezala; herrialde hotzetakoak kementsuak dira, gazteak bezala. Azken gerrei erreparatuz gero<sup>3</sup>, horiexek baitauzkagu begien aurrean, eta horietan ikus baititzakegu hobekien zenbait ondorio arin, ondo ikusiko dugu iparraldeko herriak, hegoaldeko herrialdeetara eramandakoan<sup>4</sup>, ez dituztela beren herrikideek bezain ekintza ederrak egin, hauek, beren kliman borrokatuta, beren kemen osoaren jabe baitziren.

Iparraldeko herrien zuntzek, beren indarra dela medio, zukurik latzenak ateratzen dituzte elikagaietatik. Hortik bi gauza etortzen dira: bat, kiloaren edo linfaren parteak egokiago aritzen direla, beren gainazal handiagatik, zuntzetan eta hauek elikatzen; bestea, ez direla hain egokiak, beren laztasunagatik, nerbio-zukuari sotiltasuna emateko. Herri horiek, beraz, gorputz handiak dituzte, eta bizitasun gutxi.

Nerbioak, alde guztietatik iristen dira gure azaleko ehunera, eta bakoitza nerbio-sorta bat dira. Gehienetan ez da nerbio osoa mugiarazten, parte oso-oso txiki bat baizik. Herrialde beroetan, non azaleko ehuna lasaituta dagoen, nerbio-muturrak zabalduak eta objekturik ahulenen ekintzapean daude. Herrialde hotzetan, azaleko ehuna uzkurtuta egoten da, eta papilak konprimatuta; borlatxoak, nolabait esanda, paralizatuta daude; sentrazioa ia ez da garunera iristen, oso indartsua ez bada, eta nerbio osoarena ez bada. Ordea, irudimena, gustua, sentikortasuna, bizitasuna ezin konta ahala sentrazio txikiren mende daude.

Ahari baten mihiaren kanpo-ehuna behatu dut, begi hutsez papilaz estalita ikus daitekeen aldetik. Mikroskopia batez, papila horien gainean iletxoak ikusi

ditut, edo bilo modukoa; papilen artean piramideak zeuden, eta muturrean pintzeltxo modukoak zeuzkaten. Oso litekeena da pintzeltxo horiek izatea dastamenaren organo nagusia.

Izoztu egin nuen mihi horren erdia; eta begi hutsez ikusi nuen papilak oso txikituta geratzen zirela; papila-ilara batzuk beren zorroetan sartuta zauden; aztertu nuen ehuna mikroskopioaz, eta ez nuen ikusi piramiderik. Mihia desizoztu ahala, papilak berriro agertu zaizkit bistara; eta mikroskopioan, borlaxoak ere berragertzen hasi dira.

Behaketa horrek berretsi egiten du nik esandakoa: herrialde hotzetan, nerbio-sortatxoak ez daude hain zabaldua; beren zorroetan ixten dira, eta han kanpoko objektuetatik babestuta geratzen. Beraz, sentsazioak ez dira hain biziak.

Herrialde hotzetan, sentikortasun gutxi izango da plazerretarako; handiagoa izango da herrialde epeletan; herrialde beroetan, erabatekoa izango da. Klimak latitude-graduen arabera bereizten direnez, bereiz litezke, nolabait esanda, sentikortasun-graduen arabera ere. Ikusi izan ditut Ingalaterrako eta Italiako operak; pieza eta aktore berberak dira, baina musika berberak hain ondorio desberdinak eragiten ditu bi nazioetan, bata hain da lasaia, bestea hain inarrosia, non sinestezina baitirudi.

Gauza bera gertatuko da oinazearekin ere: gure gorputzeko zuntzen bat urratzean sortuko da gudan. Naturaren egileak ezarri du oinaze hori indartsuagoa litzatekeela zenbat eta handiagoa izan nahasmendua; alabaina, bistan da gorputz handiak eta zuntz lodiak ez direla herrialde beroetako herrien zuntz delikatuak bezain gai nahasmendua izateko; beraz, han arima ez da hain sentibera oinazearekiko. Larrutu egin behar da moskoviar bat, ezer senti dezan.

Herrialde beroetan duten organo-fintasun horrekin, arima izugarri emozionatzen du bi sexuen bat egitearekin zerikusia duen edozerk; dena bideratzen da helburu horretara.

Iparraldeko klimetan, maitasunaren alderdi fisikoak ia ez du indarrik agerian jartzeko; klima epeletan, maitasuna, mila lagungarrirekin, atsegin gertatzen da hasieran maitasuna bera diruditen baina ez diren gauzez; klima beroetan, maitasuna maitasunagatik maite izaten da; zorionaren kausa bakarra da, bizia da.

Hegoaldeko herrialdeetan, makina delikatu, ahul baina sentikor bat, haren batean etengabe jaiotzen eta ematen den maitasunera ematen da, edota, emakumeei independentzia handiagoa uzten zaienez, mila arazoren arriskupean geratzen den maitasun batera. Iparraldeko herrialdeetan, makina osasuntsu eta ondo eginak, baina astunak, izpirituak mugiarazten dituen orotan aurkitzen ditu plazerrak: ehizan, bidaietan, gerran, ardoan. Iparraldeko klimetan, bizio gutxi eta bertute askotxo dituzten herriak aurkituko dituzu, egiatasun eta zabaltasun handia. Hegoaldeko herrialdeetara hurbildu, eta moraletik bertatik urruntzen zarela irudituko zaizu: grina biziagoek ugaritu egingo dituzte delituak; bakoitzak grina horien aldeko abantaila guztiak hartu nahiko ditu besteen gainetik. Herrialde epeletan, berriz, herri aldaberak ikusiko dituzu, aldaberak maneretan, bizioetan beretan, eta bertuteetan, han klimak ez baitu herriak beti berean finkatzeko adina zehaztasun.

Klimaren beroa hain izan daiteke gehiegizko, non gorputza erabat indargabetuko baita han. Orduan, nekea izpiritura pasatuko da; inolako jakinminik, inolako asmo noblerik, inolako sentimendu leinargitsurik ez; zaletasunak pasiboak izango dira denak; alferkeria zoriona izango da; zigor gehienak arimaren ekintza baino jasanerrazagoak izango dira; eta esklabotza jasangarriagoa, nork bere burua gidatzeko behar den izpiritu-indarra baino.

### **III. KAPITULUA**

**Kontraesana hegoaldeko zenbait herriren izaeretan.**

Indiarrak<sup>5</sup> kemenik gabeak dira berez; europarren haurrak<sup>6</sup>, Indietan jaioak badira, beren klimari dagokiona galtzen dute. Baina nola bateratu hori haien ekintza izugarriekin, haien ohitura eta penitentzia barbaroekin? Gizonek gaitz sinestezinei egiten diete men, emakumeek beren buruak erretzen dituzte: horra zenbat indar hainbeste ahuleziarentzat!

Naturak herri horiei herabe egiten dituen ahulezia eman die, baina horrekin batera hain irudimen bizia, non edozerk egiten baitie gehiegizko zirrara. Organoen emetasun horrek, heriotzaren beldur jartzen baditu ere, beste mila gauzari heriotzari baino beldur handiagoa emateko balio du. Sentiberatasun berak jartzen ditu arrisku guztietatik ihesean, eta bultzatzen ditu denei aurpegi ematera.

Heziketa ona haurrei izpiritu heldukoei baino beharrezkoagoa zaien bezala, halaxe klima horietako herriek ere, legegile zuhur baten behar handiagoa dute gure klimako herriek baino. Zenbat eta zirrara handiagoa egin norbaiti, hainbat eta komenigarriagoa da hori modu egokian gertatzea, aurreiritzirik jaso gabe eta arrazoiak gidatuta.

Erromatarren denboran, Europako iparraldeko herriak arterik gabe bizi ziren, hezkuntzarik gabe, ia legerik gabe; eta hala ere, klima horietako zuntz lodiei atxikitako zentzu on hutsari esker, zuhurtzia miresgarritz eutsi zioten erromatarren ahalmenari, harik eta beren basoetatik irten eta haiek suntsitu zituzten arte.

#### **IV. KAPITULUA**

***Erljioaren, ohituren, maneren, legeen aldakaiztasunaren kausa, ekialdeko herrialdeetan.***

Baldin eta, Ekialdeko herriei denik eta zirrarakik bortitzenak jasoarazten dizkien organo-ahulezia horri, gorputzeko alferkeriarekin batera, izpirituko halako alferkeria bat eransten badiozue, izpiritu hori ekintza, ahalegin, neurri orotarako

ezgai egiten duena, ulertuko duzue zirrarak behin jasan dituen arima ezin dituela aldatu. Horrexek dakar lege, ohitura<sup>7</sup> eta manierak, are zerikusirik ez dutela diruditenak ere –hala nola janzkera–, orain dela mila urte bezalakoak izatea Ekialdean.

## **V. KAPITULUA**

### ***Gobernadore txarrak klimaren bizioei bide eman dietenak direla, eta gobernadore onak horiei kontra egin dietenak.***

Indiarrek uste dute atsedena eta ezereza direla gauzen funtsa eta helmuga. Beraz, ezer ez egitea egoerarik perfektuentzat eta beren desiren xedetzat daukate. Izaki nagusiari<sup>8</sup> higitzen ez dena esaten diote izengoitiz. Siamdarrek uste dute zorionik handiena<sup>9</sup> makina bat martxan jartzera eta gorputz bat mugiaraztera behartuta ez egotea dela.

Herrialde horietan, non gehiegizko beroak maskaldu eta unatu egiten baitu, atsedena hain da gozoa, eta mugitzea hain nekagarria, non metafisika-sistema horrek naturala baitirudi; eta Foe<sup>10</sup>, Indietako legegilea, ondoen zeritzonari jarraitu zitzaion, gizonak egoera guztiz pasiboan ezarri zituenean; baina haren doktrinak, klimaren alferkeriatik jaioa, alferkeria hori areagotu egiten zuenez, mila kalte ekarri ditu.

Txinako legegileek zentzu handiagoz jokatu zuten: gizakiak, ez egunen batean izango diren egoera pasiboan, baizik eta bizitzako eginkizunak betearazteko behar den ekintzan kontsideratuz, guztiz praktikoak egin zituzten beren filosofia eta lege guztiak. Zenbat eta gehiago bultzatu kausa fisikoek gizakiak atsedenera, hainbat eta gehiago urrunarazi behar dituzte handik kausa moralek.

## **VI. KAPITULUA**

### **Lurrak lantzeaz, klima beroetan.**

Lurrak lantzea gizonen beharrik handiena da. Zenbat eta klimak gehiago bultzatu lan horri ihes egitera, hainbat eta gehiago bultzatu behar ditu erlijioak hartara. Horregatik, Indietako legeek, lurrak printzei ematen eta partikularrei jabetza-izpiritua kentzen dietelarik, areagotu egiten dituzte klimaren eragin txarrak; alegia, berezko alferkeria.

## **VII. KAPITULUA**

### **Monakotzaz.**

Monakotzak gaitz berberak dakartza; Ekialdeko herrialde beroetan sortu zen; ekintzarako baino espekulaziorako joera handiagoa dagoen lekuan.

Asian, derbitxe edo monakoen kopurua handitu egiten da klimaren beroarekin batera; Indiak, non beroa gehiegizkoa baita, beteta daude haietaz; Europan ere desberdintasun horixe aurkitzen da.

Klimaren alferkeria garaitzeko, legeek lanik egin gabe bizitzeko bide guztiak kendu behar lituzkete; baina Europako hegoaldean guztiz kontrakoa egiten dute: ezer egin gabe egon nahi dutenei espekulazio-bizitzarako leku egokiak ematen zaizkie, eta aberastasun eskergak atxikitzen dizkiete leku horiei. Jende horrek, garesti ateratzen zaion ugaritasunean bizi baita, arrazoiz ematen dio sobera duena ondasunen jabetza galdu duen herri xeheari; eskaintzen dion nagikeriaz beraz ematen dio kalte-ordaina, eta herria bere miseria bera maitatzera iristen da.

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Txinako ohitura on bat.***

Txinako kontakizunek<sup>11</sup> enperadoreak urtero egiten duen luberritze-zeremoniaz hitz egiten digute<sup>12</sup>. Herria laborantzara bultzatu nahi izan da<sup>13</sup> ekintza publiko eta solemne horren bidez.

Are gehiago: enperadorea jakinaren gainean jartzen dute urtero nor gailendu den bere lanbidean, eta hark zortzigarren ordenako mandarin egiten du.

Antzinako pertsiarren artean<sup>14</sup>, *chorrem-ruz* izeneko hilabetearen zortzigarren egunean, erregeek beren luxua uzten dute laborariekin jateko. Instituzio horiek miresgarriak dira laborantza sustatzeko.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Industria sustatzeko bitartekoak.***

XIX. liburuan erakutsiko dut nazio alferrak harroak izan ohi direla. Ondorioa kausaren kontra bihur liteke, eta alferkeria harrokeriaz desegin. Europako hegoaldean, non herriek hainbesteko garrantzia ematen baitiote ohoreari, ona litzateke beren soroak ondoen landutako laborariei, edota beren industria gehien aurrerarazitako langileei sariak ematea. Horrek nonahi izango du arrakasta. Gure denboran, Irlandan Europako ehun-manufakturarik garrantzitsuenetako bat ezartzeko balio izan du.

## **X. KAPITULUA**

### ***Herrien neurritasunarekin zerikusia duten legeez.***

Herrialde beroetan, odolaren ur-partea asko galtzen da izerdiaren bidez<sup>15</sup>: beraz, antzeko likidoren batez ordeztu behar da. Ura balio miresgarrikoa da



horretan; likore indartsuek gatzatu egingo lituzkete ura galdu ondoren gelditzen diren odoleko globuluak<sup>16</sup>.

Herrialde hotzetan, odolaren ura gutxi lurrintzen da izerdiaren bidez; ugari irauten du; beraz, erabil daitezke alkohol-dun likidoak, odola gatzatu gabe. Humorez beteta gaude eta, beraz, likore indartsuak, odola mugiarazten dutenak, komenigarriak izan daitezke.

Mahomaren legea, ardoa edatea debekatzen duena, Arabiako klimari dagokion legea da; Mahoma baino lehen ere, ura zen arabiarren edari arrunta. Kartagotarrei ardoa edatea debekatzen zien legea<sup>17</sup> ere klimari zegokion; izan ere, bi herrialde horietako klima berdintsua baita.

Horrelako lege bat ez litzateke ona herrialde hotzetan. Han badirudi klimak nazioa mozkortzera behartzen duela (pertsona mozkortzearen oso desberdina da hori). Mozkorra lurbira osoan ezarrita dago, klimaren hotzaren eta hezetasunaren proportzioan. Pasa zaitez ekuatoretik gure polora, eta ikusiko duzu mozkorra gehituz doala latitude-graduarekin batera. Pasa zaitez ekuatoretik beste polora, eta ikusiko duzu mozkorra hegoalderantz doala<sup>18</sup>, gure aldean iparralderantz bezala.

Bidezkoa da han, ardoa klimaren eta, beraz, osasunaren kontrakoa baita, gehiegikeria askoz larriago zigortua izatea, mozkokeriak pertsonari eta gizarteari ondorio txar gutxi ekartzen dizkien herrialdeetan baino, non ez baititu haserre jartzen gizonak, ergel baizik. Hala, gizon mozkorra zigortu duten legeak<sup>19</sup>, bai egiten zuen okerragatik eta bai mozkortzeagatik, pertsonaren mozkokeriari ezartzen zitzaizkion bakarrik, ez nazioarenari. Alemaniar batek ohituraz edaten du; espainiar batek, aukera hori eginda.

Herrialde beroetan, zuntzen laxatzeak likido-transpirazio handia eragiten du; baina parte solidoak gutxiago barreiatzen dira. Zuntzak, jardun oso ahula eta ahalbide gutxi baitute, ia ez dira erabiltzen; zuku elikatzaile gutxi behar da haien zatia eta, beraz, gutxi jaten da.

Premia desberdinek, klima desberdinetan, bizitzeko modu desberdinak eratu dituzte; eta modu desberdin horiek lege-mota desberdinak ekarri dituzte. Nazio batean gizonek harreman asko badituzte elkarrekin, era bateko legeak behar izango dira; beste era batekoak behar izango dira, ordea, jendeak elkarrekin harreman gutxi duen herrian.

## **XI. KAPITULUA**

### ***Klimaren gaixotasunekin zerikusia duten legeez.***

Herodotok<sup>20</sup> diosku judutarrek legenaz dituzten legeak egiptoarrei hartutakoak direla. Izan ere, gaixotasun berberak erremedio berberak eskatzen zituzten. Lege horiek ezezagunak izan ziren greziarrentzat eta lehen erromatarrentzat, baita gaitza bera ere. Egiptoko klimak eta Palestinakoak beharrezko egin zituzten; eta gaixotasun horrek barreiatzeko duen erraztasunak ondo erakutsi behar digu lege horien zuhurtzia eta aurreikusmena.

Guk geuk ere ikusi ditugu legeon ondorioak. Gurutzadek legena ekarri ziguten, baina egin ziren arautegi zuhurrek eragotzi zioten herritarren artean hedatzea.

Lonbardiarren legeaz<sup>21</sup> ikusten denez, gaixotasun hori gurutzaden aurretik zegoen zabaldua Italian, eta legegileen arreta bereganatu zuen. Rotharis-ek zera agindu zuen, legendun bat bere etxetik bota eta barruti berezi batean sartu eta gero, ezin erabiliko zituela bere ondasunak; zergatik eta, bere etxetik bota zutenez geroztik, hildakotzat jotzen zutelako. Legendunekin harreman oro eragozteko, ariera zibiletarako ezgai egiten zituzten.

Uste dut gaixotasun hori enperadore greziarren konkisten bidez sartu zela Italian, haien armadetan Palestinako edo Egiptoko miliziak baitzeuden. Nolanahi ere den, gaitzari aurrera egitea galarazi zitzaion gurutzaden garaira arte.

Ponpeioren soldaduek, Siriatik itzultzean, legenaren antzeko gaitz bat ekarri omen zuten. Garai hartan egindako inolako arautegirik ez zaigu iritsi, baina badirudi izan zirela, gaitz hori desagertu egin baitzen lonbardiarren garaira arte.

Orain dela bi mende, gure arbasoek ezagutzen ez zuten gaixotasun bat etorri zitzaigun mundu berritik, eta biziaren eta plazerren sorburuan bertan egin zion eraso giza izaerari. Europako hegoaldeko familia handi gehienak hil ziren, lotsagarri izateko zabalduegia eta adur txarrekoa besterik ez zen gaitz batek jota. Urre-goseak betierekotu zuen gaixotasun hura; etengabe joaten zen jendea Amerikara, eta hozi berriak ekartzen zituen beti.

Errukizko arrazoiak zirela medio, zigorra delituan bertan uztea eskatu zen, baina lazeria hura ezkontzaren baitan zen sartua, eta ordurako haurrak ere hartuta zeuzkan.

Legegileen zuhurtziari baitagokio hiritarren osasunaz arduratzea, oso zentzuzkoa izango zatekeen harreman hura lege mosaikoen arabera egindako legeen bidez geldiaraztea.

Izurria desmasia bat-batekoago eta bizkorragoak eragiten dituen gaitza da. Egipton du bere egoitza nagusia, eta handik zabaltzen da mundu osora. Europako estatu gehienetan, oso arautegi onak egin dira hari sartzen ez uzteko; eta gure garaiotan, geldiarazteko modu miresgarri bat asmatu da: tropa-lerro bat eratzen da kutsatutako herrialdea inguratzen, eta harreman oro eragozten da.

Turkiarrek<sup>22</sup>, alde horretatik ez baitaukate inolako politikarik, ikusten dute hiri bereko kristauek ihes egiten diotela gaitzari, eta berak bakarrik hiltzen direla. Izurriak ptakoen arropak erosten dituzte, baita jantzi ere, eta ez dira batere arduratzen. Dena arautzen duen patu zurrunaren doktrinak ikusle lasai bihurtzen du magistratua: pentsatzen du Jainkoak dena egina duela, eta berak ez duela ezer egin beharrik.

## XII. KAPITULUA

### *Beren burua hiltzen dutenen<sup>23</sup> kontrako legeez.*

Historietan ez zaigu ageri erromatarrek motiborik gabe beren burua hiltzen zutenik, baina ingelesek bai, horretara bultzatzen dituen arrazoa imajinatu ezin dugularik. Zorionean ere hiltzen dute beren burua. Ekintza hori, erromatarren artean, hezkuntzaren ondorio zen, haien pentsaera eta ohituren mende zegoen; ingelesen artean, ordea, gaixotasun baten ondorio da<sup>24</sup>, makinaren egoera fisikoaren mende dago, ez beste ezeren mende.

Badirudi nerbio-zukuaren iragazte-huts batengatik dela: makina, indar mugiarazleak beti ezer egin gabe badaude, berez nekatzen da; ez du oinazerik sentitzen, baizik eta bizitzeko halako zailtasun bat. Oinazea gaitz lokal bat da, oinaze hori amaitzen ikusteko desira ekarri ohi diguna; bizitzaren astunak, ordea, ez du leku jakinik, eta bizitza hori amaitzeko desira ekartzen digu.

Argi dago herrialde batzuetako lege zibilek izan dituztela, bai, arrazoiak nork bere burua hiltzea zigortzeko; baina Ingalaterran ezin da zigortu, zorotasunaren ondorioak zigortzen ez diren bezala.

## XIII. KAPITULUA

### *Ingalaterrako klimaren ondorioak.*

Klimaren ondoriozko gaixotasun batek hainbesteko eragina dakarkion nazio batean –hainbestekoa non gauza guztiak gorrotatzera eraman dezakeen, are bizia bera ere–, argi asko ageri da dena jasanezina luketen pertsonen komeniko litzaiekeen gobernua, beren nahigabeen errua inori egozteko ezinezko egingo lukeen hura litzatekeela; eta, legeek gizonek baino gehiago gobernatzen luketelarik, legeok aldatu beharra ekarriko lukeena, Estatua bera aldatzeko.

Baldin eta nazio horrek klimatik pazientziarik eza hartua balu, gauza berak denbora luzez jasatea ezinezko egingo liokeena, argi ageri da aipatu berri dugun gobernuak litzatekeela komenigarriena.

Pazientziarik ez izate hori ez da handia berez, baina handiagotu egin daiteke ausardiarekin bat egiten duenean.

Desberdina da arintasunetik: honek arrazoirik gabe ekitea eta bertan behera uztea eragiten du. Setakeriari gehiago hurbiltzen zaio, zeren eta gaitzen sentipen hain bizitik baitator non ez baitu ahultzen ezta gaitzok jasateko ohiturak berak ere.

Izaera hori, nazio libre batean, oso aproposa litzateke tiraniaren<sup>25</sup> asmoak hankazgoratzeko, hura geldoa eta ahula baita beti hasieran, eta bizkorra eta bizia amaieran; izan ere, lehenik laguntzeko esku bat baizik ez du erakusten, eta segidan ezin konta ahala besoz estutzen du.

Esklabotza lotatik hasten da beti. Baina ezein egoeratan atsedetik ez duen herri bat, bere burua etengabe haztaka eta bere alde guztiak minduta aurkitzen dituenak, ezingo litzateke lokartu.

Politika lima gorra da, pixkanaka gastatu eta helburua lortzen du. Alabaina, hizpide izan berri ditugun gizonek ezingo liekete eutsi negoziazioen geldotasunari, xehetasunei, odol hotzari; beste edozein nazio baino arrakasta gutxiago izango lukete horretan; eta armen bidez irabazitakoa itunen bidez galduko lukete.

#### **XIV. KAPITULUA**

##### **Klimagatiko beste akats batzuk.**

Gure arbasoak, germaniar zaharrak, grinak oso lasaiak zireneko klima batean bizi ziren. Haien legeek ez zuten aurkitzen ikusten zutena besterik gauzetan, eta ez zuten beste ezer imajinatzen. Gizonei egindako irainak zaurien

tamainaren arabera epaitzen zituzten, eta emakumeei egindako laidoetan ez zuten fintasun handiagorik jartzen. Alemaniarren legea<sup>26</sup> oso berezia da alde horretatik. Emakume bati burua desestaltzeagatik, sei soldatako isuna ordainduko da; beste hainbeste zangoa belauneraino desestaliz gero; doblea belaunetik gora. Irudi luke legeak emakumeen pertsonari egindako laidoen tamaina geometri irudi bat neurtzen den bezala neurtzen zuela; ez zuen zigortzen irudimenaren delitua, begiena baizik. Baina nazio germaniar bat Espainiara aldatu zenean, klimak bestelako legeak aurkitu zituen. Bisigodoen legeak debekatu egiten zien sendagileei jaiotzaz libre zen emakume bat sendatzea, beraren aita edo amaren, nebaren, semearen edo osabaren aurrean ez bazen. Herrien irudimena piztu egin zen, legegileena ere sutu egin zen; legeak dena susmatu zuen, denetarik susma zezakeen herri batentzat.

Lege horiek arreta handia jarri zuten, bada, bi sexuen gainean. Baina badirudi ezen, ematen zituzten zigorretan, gehiago arduratu zirela mendeku partikularrari amore ematen, mendeku publikoa burutzen baino. Kasurik gehienetan, bi errudunak gurasoen edo iraindutako senarraren mende jartzen zituzten. Emakume jaiotzaz libre bat<sup>27</sup>, gizon ezkondu batekin nahastua, honen emaztearen mende geratzen zen, emazteak hartaz nahi zuena egin zezan. Legeek behartu egiten zituzten esklaboak<sup>28</sup> adulterioan harrapatutako emakumea lotu eta senarrari aurkeztera; haurre<sup>29</sup> ama salatzen uzten zieten, eta esklaboak torturatzen hura konbentzitzeko. Hartara, egokiagoak izan ziren ohore gehiegizkoa fintzeko, jokabide ona eratzeko baino. Eta ez da harritzekoa Julian kondeak halako irainak aberria eta erregea galtzea eskatzen zuela sinetsi izana. Ez da harritu behar mairuei, halako ohiturekin, hain erraza gertatzea Espainian bizitzen jartzea, irautea eta beren inperioaren gainbehera atzeraraztea.

## **XV. KAPITULUA**

*Legeek herrian duten konfiantza-mailaz, klimen arabera.*

Japoniako herriak hain izaera izugarria du, non hango legegile eta magistratuek ez baitute izan inolako uste onik berarengan: ez dizkiote jarri begien aurrean epaileak, mehatxuak eta zigorrak baino; poliziaren miaketen mende jarri dute zernahitarako. Lege horiek, familiako bost burutarik bat beste lauren magistratu gisa ezartzen dute; delitu batengatik, familia osoa edo auzo osoa zigortzen dute; errudun bat egon litekeen lekuan ez dute errugaberik aurkitzen. Lege honek gizon guztiak elkarren mesfidati izan daitezen daude eginda, bakoitzak bestearen jokabidea azter dezan, eta ikuskatzaile, lekuko eta epaile izan dadin.

Indietako herria, aitzitik, gozoa da<sup>30</sup>, samurra, daukana besteekin partitze zalea. Hala, legegileek uste osoa dute harengan. Zigor gutxi<sup>31</sup> ezarri dituzte, eta ez oso gogorrak; are gehiago, zigorrak ez dira oso estu betetzen. Ilobak osabei ematen zaizkio, umezurtzak tutoreei, gurasoei ematen zaizkien bezala; oinordekotza onordekoaren merezimendu ezagunaren arabera arautu dute. Badirudi pentsatu dutela hiritar bakoitzak besteen aiurri onaren gainean pausatu behar zuela.

Erraz ematen diete libertatea<sup>32</sup> esklaboei; ezkondu egiten dituzte; beren haurrak bezala tratatzen dituzte<sup>33</sup>; hura bai zorioneko klima, ohituren lañotasuna sorrarazten duena, eta legeen gozotasuna!

## XV. LIBURUA

### NOLA ESKLABOTZA ZIBILAREN LEGEEK ZERIKUSIA DUTEN

#### KLIMAREN IZAERAREKIN

## LEHEN KAPITULUA

### Esklabotza zibilaz.

Esklabotza, zehazki, pertsona bat beste pertsona baten jabego egiten duen eskubidea ezartzea da, hala non bigarrena lehenaren biziaren eta ondasunen jabe osoa baita. Ez da ona berez; ez zaie baliagarria ez jabeari, ez esklaboari; honi, ezin duelako ezer egin bertutez; hari, era guztietako ohitura txarrak hartzen dituelako bere esklaboekin, bertute moral guztietan huts egitera ohitzen delako oharkabea, eta harro, suminkor, gogor, atseginkoi, anker bihurtzen delako.

Herrialde despotikoetan, non dagoeneko esklabotza politikoaren mende baitaude, esklabotza zibila beste leku batzuetan baino eramangarriagoa da. Bakoitzak nahikoa du bere bizibidea eta bizia izatea. Hala, esklabo izatea ez da sujet izatea baino okerragoa.

Baina gobernu monarkikoan, non guztiz garrantzitsua baita giza izaera ez beheratzea edo doilortzea, ez dira behar esklaboak. Demokrazian, mundu guztia berdina baita, eta aristokrazian, legeek beren ahalegina egin behar baitute mundu guztia gobernuaren izaerak bide ematen duen adina berdina izan dadin, esklaboak Konstituzioaren izpirituaren kontrakoak dira; hiritarrei eduki behar ez dituzten ahalmena eta luxua emateko bestetarako ez dute balio.

## II. KAPITULUA

### Esklabotzaren eskubidearen jatorria, juriskontsultu erromatarren arabera.



Sinestezina da esklabotza errukiak ezarri zuela eta, alde horretatik, honako hiru era hauetan kontsideratu zuela<sup>34</sup>: jendeen zuzenbideak preso hartutakoak esklabo izatea nahi izan du, hil ez zitzaten; erromatarren zuzenbide zibilak bide ematen zien zordunei, hartzekodunek gaizki trata baitzitzaketen, beren buruak saltzeko; eta zuzenbide naturalak nahi izan du aita esklaboak hurrei jaten eman ezin bazien, haurrak ere, aita bezala, esklabo izan zitezen.

Juriskonsultuen arrazoi horiek ez dira zentzuzkoak. Lehena: gezurra da gerran hiltzea libre dela, derrigorrezko kasuetan ez bada; baina gizon batek beste bat esklabo bihurtu duen unetik, ezin da esan hura hil beharrean izan denik, ez baitu hil. Gerrak katibuen gainean eman dezakeen eskubide guztia zera da, haiek kalte egingo ez dutelako segurantzia izatea. Soldaduek borrokaren beroaren ondoren odol hotzez egindako giza hilketak, munduko nazio guztiek<sup>35</sup> arbuiazen dituzte.

Bigarrena: ez da egia gizon libre batek bere burua sal dezakeenik. Saltzeak prezioa eskatzen du; esklaboak bere burua salduko balu, haren ondasun guztiak jabearenak izango lirateke; beraz, jabeak ez luke ezer emango, eta esklaboak ez luke ezer jasoko. *Pekulioa* izango luke, esango zait; baina *pekulioa* pertsonaren eranskin bat da. Nork bere burua hiltzea zilegi ez bada, aberriari lapurreta egiten zaiolako, ez dago nork bere burua saltzerik ere. Hiritar bakoitzaren libertatea libertate publikoaren parte bat da. Tasun hori, herri-estatu batean, subiranotasunaren parte bat ere bada. Nork bere hiritartasuna saltzea hain da zentzugabea<sup>36</sup>, non horrelakorik pentsaezina baita gizon batengan. Libertateak prezio bat badu erosten duenarentzat, saltzen duenarentzat, ordea, ez du preziorik. Lege zibilak, gizonei ondasunak banatzeko gaitasuna eman baitie, ez du jarri ondasunen artean banaketa hori egin behar luketen gizonen parte bat. Lege zibilak, akatsen bat duten kontratuetan lehengoratzeko agintzen baitu, ezin du besterik egin akats guztietan okerrean daukan kontratu baten kasuan.

Hirugarren era jaiotza da. Hau beste biak bezala erortzen da. Izan ere, baldin eta gizon batek ezin badu bere burua saldu, are gutxiago saldu ahalko du bere semea jaio aurretik; gerra-presoa bat ezin bada esklabo bihurtu, are gutxiago haren haurrak.

Delitugile bat zigortzen duen legea beraren alde egin izateak bihurtzen du delitugilearen heriotza zilegi. Hiltzaile batek, adibidez, kondenatzen duen legearen onura izan du; legeak bizia gorde dio une guztietan; beraz, kriminalak ez dauka legearen kontra ezer erreklamaterik. Esklabotzarekin ez da gauza bera gertatzen: esklabotzaren legea inoiz ez zaio baliagarri gertatu; beraren kontra dago kasu guztietan, inoiz ez beraren alde, eta hori gizarte guztien funtsezko printzipioaren kontrakoa da.

Esango da gertatu zaiola baliagarri, jabeak jaten eman diolako. Beraz, esklabotza bizibidea ateratzeko gai ez diren pertsonetara mugatu behar litzateke. Baina horrelako esklaborik inork ez du nahi izaten. Hurrei dagokienez, natura, amei esnea emanda, haien mantenuaz arduratu da; eta haurtzaroaren beste zatia hain dago hurbil baliagarri izan daitezkeen adinetik, non ezin esan baitaiteke jaten emango liekeenak, jabea izanik, ez liekeela ezer emango.

Esklabotza, bestalde, zuzenbide naturalaren kontrakoa bezainbat da zuzenbide zibilaren kontrakoa. Zein lege zibilek galaraziko lioke esklabo bati ihes egitea, ez baitago gizartean eta, beraz, lege zibilak ez baitagozkio berari? Ezin da hura atxiki famili lege baten bidez baizik, hau da, jabearen legearen bidez.

### **III. KAPITULUA**

#### **Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.**

Nik esango nuke esklabotza-eskubidea nazio batek beste bati hartzen dion mespreziotik datorrela, mesprezio hori ohituren desberdintasunean oinarritzen delarik.

López de Gomarak dio<sup>37</sup> "espainiarrek saski batzuk aurkitu zituztela Santa Martatik hurbil, biztanleen hornizioekin; karramarroak, barraskiloak, txitxarrak, matxinsaltoak ziren. Garaileek delitutzat hartu zuten hura". Autoreak aitortzen du hantxe sortu zela amerikarrak espainiarren esklabo egiten zituen zuzenbidea; horrez gainera, tabakoa erretzen zuten, eta ez zuten bizarra espainiar erara mozten.

Ezagutzak gozatu egiten ditu gizonak; arrazoiak gizatasuna dakar; aurreiritziek bakarrik ukatzen dute arrazoa.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.***

Nik esango nuke, halaber, erlijioak eskubide bat ematen diela beretarrei, erlijio horren jarraitzaile ez direnak morrontzapean jarri eta hartara erlijioaren zabalkundearen alde errazago lan egiteko.

Pentsatzeko era horrek eman zien Amerikaren suntsitzaileei beren delituak egiteko adorea<sup>38</sup>. Ideia horretan oinarrituta sortu zuten hainbeste herri esklabo bihurtzeko eskubidea; izan ere, bandido haiek, bandido eta kristau osozko eta erabateko izan nahi baitzuten, oso elizkoiak ziren.

Luis XIII.ak<sup>39</sup> nahigabe handia hartu zuen bere kolonietako beltzak esklabo bihurtzen zituen legea zela eta; baina konbentzitu zutenean huraxe zela haiek federa ekartzeko biderik seguruena, onartu egin zuen.

#### **V. KAPITULUA**

##### ***Beltzen esklabotzaz.***

Baldin eta beltzak esklabo bihurtzeko izan dugun eskubidearen alde egin behar banu, hauxe esango nuke:

Europako herriek, Amerikakoak sarraskitu eta gero, Afrikakoak jarri behar izan dituzte esklabotzan, hainbeste lur labakitzeko.

Azukrea garestiegia litzateke, hura ematen duen landareak esklaboek landuko ez balute.

Hizpide ditugun horiek beltzak dira burutik oin-puntaraino; eta sudurra hain dute zapala non ia ezinezko baita haiek erruki izatea.

Ez dago sinesterik Jainkoak, hain izaki jakintsua izanik, arima ezarri duenik, eta arima ona gainera, hain gorputz beltzean.

Hain da naturala pentsatzea kolorea dela gizatasunaren funtsa, non Asian, eunukoak sortzen dituzten herriek galarazi egiten baitiete beltzei berek gurekin modurik nabarmenenean dituzten harremanak.

Larruaren koloreaz ileen kolorearen arabera juzka daiteke: egiptoarrak, munduko filosofo onenak alegia, hain kontsekuenteak ziren, non hil egiten baitzituzten esku artean erortzen zitzaizkien gizon ilegorri guztiak.

Beltzek zentzurik ez dutelako beste froga bat: kasu gehiago egiten diotela beirazko koilare bati urreari baino, hau nazio zibilizatuetan hain kontsidero handikoa izanik.

Pentsatu ezinezkoa da jende horiek gizakiak izatea; zeren eta gizakitzat hartuko bagenu, hasiko baikinake sinesten geu ez garela kristauak.

Izpiritu motzek gehiegi exajeratzen dute afrikarrei egiten zaien injustizia. Izan ere, esaten duten bestekoa balitz, ez ote zitzaien otuko Europako printzeei, beren artean hainbeste itun alferriko egiten dituztelarik, itun orokor bat egitea errukiaren eta gupidaren alde?

## VI. KAPITULUA

### *Esklabotza-eskubidearen benetako jatorria.*

Bada garaia esklabotza-eskubidearen benetako jatorria bilatzeko. Gauzen izaeran oinarrituta egon behar du; ikus dezagun ea eskubide hori gauzen izaera horretatik sortzen den kasurik baden.

Gobernu despotiko orotan, erraztasun handia izaten da nork bere burua saltzeko: esklabotza politikoak ezereztu egiten du, nolabait, libertate zibila.

Perry-k<sup>40</sup> dio moskoviarrak oso erraz saltzen dutela beren burua. Ondo asko dakit arrazoiak: haien libertateak ez duelako ezer balio.

Achim-en mundu guztiak saldu nahi du bere burua. Jaun nagusi batzuek<sup>41</sup> ez dute mila esklabo baino gutxiago; esklabo horiek merkatari nagusiak dira, eta berek ere esklabo asko dituzte mendean; eta azken hauek ere beste asko; oinordekotzan jasotzen dira, eta salerosgai dira. Estatuetan, gizon libreek, ahulegiak izaki gobernuaren kontra, gobernu tiranizatzen dutenen esklabo bihurtu nahi izaten dute.

Horra zenbait herrialdetan aurkitzen den esklabotza-eskubide oso ematu horren jatorri justu eta arrazoizkoa; oso ematua izan behar du, zeren eta gizon batek, bere mesederako, jabe bat aukeratzean baitatza, eta hartara bi parteen arteko ituna eratzen baita.

## VII. KAPITULUA

### *Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.*

Hona hemen esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat, are gizonen artean ikusten den esklabotza anker horrena ere.

Herrialde batzuetan beroak maskaldu egiten ditu gorputzak, eta hainbeste ahultzen du adorea non gizonak zigorraren beldurragatik baizik ez baitzaizkio behar gogorrari lotzen; beraz, esklabotza ez dago arrazoiaren hain kontra, eta esklaboa jabearekiko adina koldar izanik jabea printzearekiko, esklabotza zibilak esklabotza politikoa du lagun.

Aristotelek<sup>42</sup> frogatu nahi du badirela berez eta izatez esklabo direnak, baina hark dioenak ez du hori frogatzen. Nik uste dut ezen, halakorik izatekotan, aipatu berri ditudan horiek direla.

Baina gizon guztiak jaiotzaz berdinak baitira, esan behar da esklabotza naturaren kontrakoa dela, nahiz eta zenbait herrialdetan arrazoi natural batean oinarritu; eta ondo bereizi behar dira herrialde horiek eta arrazoi naturalek berek arbuiatzen duteneko besteak, hala nola Europako herrialdeak, non zorionez ezabatuta baitago.

Plutarkok Numaren bizitzan dioskunez, Saturnoren garaian ez omen zegoen ez nagusirik ez esklaborik. Gure klimetan, kristautasunak ekarri du berriro garai hura.

## **VIII. KAPITULUA**

### ***Esklabotzaren baliagarritasunik eza gure artean.***

Beraz, morrontza naturala Lurreko herrialde jakin batzuetara mugatu behar da. Beste guztietan, iruditzen zait ezen, gizarteak eskatzen dituen lanak denik eta neketsuenak izanda ere, dena egin daitekeela gizon libreekin.

Horrexek pentsarazten dit honela: kristautasunak European morrontza zibila abolitu aurretik, meategietako lanak hain gogortzat jotzen ziren, non uste baitzen ezin zirela egin esklaboen edo delitugileen bidez ez bazen. Baina gaur egun gauza jakina da han enplegatutako gizonak zoriontsu bizi direla<sup>43</sup>. Pribilegio txikien

bidez, erakargarri bihurtu da lanbide hori; lana handitzearekin batera, irabazia ere handitu egin zaie, eta beren lanbidea beste edozein lanbideren gainetik maita dezaten lortu da.

Ez dago lanik, egiten duenaren indarrari egoki ez dakiokenik, baldin eta arrazoiak eta ez askonahiak arautzen badu. Beste leku batzuetan esklaboei eginarazten zaien lan behartua, arteak asmatzen edo aplikatzen dituen makinak erosotasunari esker egin daiteke. Turkiarren meategiak, Temeswar-eko banatoan, Hungariakoak baino aberatsagoak ziren, baina ez zuten hainbeste ematen, beren esklaboen besoez baino ez zirelako baliatzen.

Ez dakit artikulu hau izpirituak ala bihotzak lumaratzen didan. Beharbada Lurrean inongo klimatan ez da ezinezko gizon libreak lanari lotzea. Legeak gaizki eginda zeudelako aurkitu dira gizon alferrak; eta gizon horiek alferrak zirelako, esklabotzan jarri dira.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Libertate zibila orokorki ezarrita duten nazioez.***

Egunero entzun ohi da gure artean on litzatekeela esklaboak izatea.

Baina hori ondo juzgatzeko, ez da aztertu behar nazio bakoitzeko aberats eta apetatsu gutxientzat baliagarri liratekeen; zalantzarik gabe, haiei baliagarri izango litzaizkieke. Baina beste ikuspuntu batetik, ez dut uste nazioa osatzen duen inork zotz egin nahiko lukeenik, nork osatu libreen taldea eta nork esklaboena. Esklabotzaren alde gehien mintzatzen direnek izango liokete beldurrik handiena, eta dohakabeenek ere beldurra izango liokete. Esklabotzaren aldeko aldarrikapena, beraz, luxuak eta atseginzaletasunak egindako aldarrikapena da, ez zorion publikoaren maitasunak egindakoa. Nola zalantzan jarri gizon bakoitza, partikularki, oso pozik legokeela besteren ondasunen, ohorearen eta biziaren jabe

izateaz, eta bere grina guztiak asaldatuko liratekeela ideia horren aurrean? Gauza hauetan, norberaren desirak zilegi diren jakin nahi bada, azter bitez denen desirak.

## **X. KAPITULUA**

### ***Esklabotza-mota desberdinak.***

Bi morrontza-mota daude: erreala eta pertsonala. Errealak lurrarekin lotzen du esklaboa. Horrelakoak ziren germaniarren esklaboak, Tazitok dioenez<sup>44</sup>. Etxean ez zuten egitekorik; gari-, abere- edo ehun-kantitate jakin bat ematen zioten nagusiari; haien esklabotza ez zihoan harantzago. Esklabotza-mota hori dago oraindik indarrean Hungarian, Bohemian eta Alemania Behereko zenbait aldetan.

Esklabotza pertsonala etxearen gobernuari dagokio, eta lotuagoa dago nagusiaren pertsonarekin.

Esklabotzaren gehiegikeriarik handiena aldi berean pertsonala eta erreala izatea da. Halakoa zen iloten esklabotza lazedemoniarren artean; lan guztietara lotuta zeuden etxetik kanpo, eta era guztietako gehiegikerien mende etxean; *ilotatasun* hori gauzen izaeraren kontrakoa da. Herri sinpleek esklabotza erreala besterik ez dute<sup>45</sup>, emazte eta haurrek egiten baitituzte etxeko lanak. Herri atseginzaleek esklabotza pertsonala dute, luxuak etxean esklaboen zerbitzua izatea eskatzen duelako. Alabaina, *ilotatasunak* herri atseginzaleen artean ezarritako esklabotza eta herri sinpleetan ezarritakoa biltzen ditu pertsona beragan.

## **XI. KAPITULUA**

### ***Legeek egin behar dutena, esklabotzari dagokionez.***

Baina esklabotza nolanahikoa delarik ere, lege zibilek batetik gehiegikeriak eta bestetik arriskuak galarazten saiatu behar dute.



## XII. KAPITULUA

### *Esklabotzaren gehiegikeriak.*

Mahometar estatuetan<sup>46</sup>, emakume esklaboen biziaren eta ondasunen nagusi ez ezik, haien bertute edo ohore deritzanaren jabe ere izan ohi da nagusia. Hori da herrialde horietako zoritxarretako bat, nazioaren parterik handiena beste partearen atseginetarako bestetarako ez izatea. Esklabotza horren truke, halako esklaboei alferkerian bizitzen uzten zaie; eta hori beste zoritxar bat gehiago da Estatuarentzat.

Alferkeria horrexek bihurtzen ditu ekialdeko harenak<sup>47</sup> gozamen-toki, baita hori jasan beharra daukatenentzat ere. Lana beste beldurrik ez dutenek zoriona aurki dezakete toki lasai horietan. Baina ikusten denez, bide horretatik esklabotzari berez dagokion izpirituaren beraren kontra doaz.

Arrazoiak agintzen du nagusiaren boterea ez dadila heda bere zerbitzupeko gauzetara baino harantzago; esklabotzak gauza baliagarrietarako izan behar du, ez lizunkeriarako. Xahutasunaren legeak zuzenbide naturalari dagozkio, eta munduko nazio guztiek errespetatu behar dituzte.

Esklaboen xahutasuna gordetzen duen legea ona bada mugarik gabeko boterea bere osoan erabiltzen den estatuetan, nola ez da izango monarkietan? Nola ez da izango estatu errepublikarretan?

Bada lonbardiarren legearen<sup>48</sup> xedapen bat, on dirudiena gobernu guztientzat. "Nagusia esklaboaren emazteaz gozatzen bada, esklaboa eta bere emaztea libre izango dira". Neurri miresgarria nagusien inkontinentzia aurreikusteko, eta gogorregi jokatu gabe geldiarazteko.

Ez dut uste alde horretatik erromatarrek legeria ona izan dutenik. Lasaitu egin zioten brida nagusien inkontinentziari; esklaboei ere, nolabait, ezkontza-

eskubidea kendu zieten. Nazioko parterik mesprezagarriena zen; baina hain mesprezagarri izanda ere, ondo zegoen bere ohiturak izan zitzaizkion; eta gainera, haiei ezkontzak galaraztean, galbidean jartzen ziren hiritarrenak.

### **XIII. KAPITULUA**

#### ***Esklavo-kopuru handia izatearen arriskua.***

Esklavo-kopuru handiak ondorio desberdinak ditu gobernu-mota batean edo bestean. Ez da garestia gobernu despotikoan; Estatuaren gorputzean ezarritako esklabotza politikoak gutxi sentiarazten du esklabotza zibila. Gizon libre deituak ez dira titulu hori ez dutenak baino askoz libreago; eta hauek, eunuko, liberto edo esklaboek, ia arazo guztiak bere esku dituztenez, gizon libre baten eta esklabo baten egoera oso gertu daude elkarretarik. Beraz, ia garrantzirik gabea da jende asko edo gutxi izatea esklabo.

Baina estatu moderatuetan oso garrantzitsua da esklavo gehiegi ez izatea. Libertate politikoak oso preziatu bihurtzen du han libertate zibila, eta inori azken hau kentzen bazaio, bestea ere kentzen zaio. Halakoak gizarte zoriontsua ikusten du, eta berak ez duela osatzen; ikusten du nagusiak arima duela, eta handitu egin dezakeela; berea, ordea, etengabe apaldu beharrean dagoela. Ezerk ez du abereen egoeratik hurbilago jartzen, beti gizon libreak ikusi eta bera haien arteko ezin izateak baino. Halako jendeak gizartearen etsai berezkoak dira, eta ugari izatea arriskutsua litzateke.

Hortaz, ez da harritzekoa gobernu moderatuetan Estatua hainbeste asalatu izana esklaboen erreboltetan, eta estatu despotikoetan horrelakorik hain gutxitar<sup>49</sup> gertatu izana.

### **XIV. KAPITULUA**

### **Esklabo armatuez.**

Monarkian ez da errepubliketan bezain arriskutsua esklaboak armatzea. Monarkian, herri gerrari batek eta nobleen gorputzak eutsi egingo liekete esklabo armatuei. Errepublikan, hiritar arruntek ezingo liokete eutsi armak eskutan dituela hiritarren pareko sentituko litzatekeen jendeari.

Godoak Espainia konkistatu eta herrialde osoan zehar zabaldu ziren, baita laster ahuldu ere. Aintzakotzat hartzeko moduko hiru arautegi egin zituzten: indargabetu egin zuten erromatarrekin ezkontza bidez elkartzea debekatzen zien ohitura zaharra<sup>50</sup>; Estatuaren liberto guztiak gerrara joango zirela ezarri zuten, eta hala ez egitera esklabo bihurtuko zirela<sup>51</sup>; godo bakoitzak bere esklaboen hamarrena<sup>52</sup> armatu eta gerrara eraman zezala agindu zuten. Kopuru hori ez zen oso handia geratzen zirenen aldean. Gainera, nagusiak gerrara eramandako esklabo haiek ez zuten osatzen gorputz berezia; armadan zeuden, eta, nolabait esanda, familian geratzen ziren.

## **XV. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Nazio osoa gerraria denean, esklabo armatuak are gutxiago dira beldurgarri.

Alemanen legearen arabera, gordailupean utzitako zerbait lapurtzen zuen esklaboari<sup>53</sup> gizon libre bati emango zitzaiokeen zigorra ezartzen zitzaion; baina indarrez lapurtzen bazuen<sup>54</sup>, lapurtutako gauza itzultzeraz bestetara ez zegoen behartuta. Alemanentzat, adorean eta indarrean oinarritutako ekintzak ez ziren gorrotagarriak. Beren esklaboez baliatzen ziren gerretan. Errepublika gehienak esklaboen adorea apaltzen saiatu izan dira beti. Alemanen herria, ordea, bere buruaz seguru, bere esklaboen ausardia handitzeaz arduratzen zen; beti armatuta,

ez zien inolako beldurrik; bere lapurretetarako edo bere loriarako tresnatzat zeuzkan.

## **XVI. KAPITULUA**

### **Gobernu moderatuan hartu beharreko neurriak.**

Esklaboekin gizabidez jokatzek saihestu egingo ditu, Estatu moderatuan, haien kopuru handiagatik izan litezkeen beldurrak. Pertsonak edozertara ohitzen dira, baita esklabotzara ere, baldin eta nagusia esklabotza bera baino gogorragoa ez bada. Atenastarrek gozotasun handiz tratatzen zituzten beren esklaboak; ez da ageri Atenasen haiek Estatua asaldatu zutenik, Lazedemoniakoa astindu zuten bezala.

Ez da ageri lehen erromatarrek, beren esklaboak zirela eta, kezkarik izan zutenik. Haiekiko gizabidea galdu zutenean sortu ziren gerra zibilak, eta gerra punikoekin konparatu izan dira<sup>55</sup>.

Lanari lotzen zaizkion nazio sinpleek leuntasun handiagoa erakutsi ohi dute esklaboengana, lanari errefusa egin diotenek baino. Lehen erromatarrek beren esklaboekin bizi, lan egin eta jaten zuten; oso leun eta zuzen jokatzen zuten haiekin; ematen zieten zigorrik handiena, auzokoen aurrean bizkarrean egur urkuldua zutela pasaraztea zen. Ohiturak aski ziren esklaboen leialtasunari eusteko; ez zen legerik behar.

Baina erromatarrek handitu zirenean, esklaboak lankide ez baina beren luxu eta harrokeriarako tresna izan zituzten, eta ohitura onik ez zenez, legeak behar izan ziren. Izugarriak behar izan ziren nagusi anker haien segurtasuna babesteko, beren esklaboen artean etsaien artean bezala bizi baitziren.

Silaren senatu-kontsultua eta beste lege batzuk egin ziren<sup>56</sup>, eta zera ezarri zen: nagusi bat hiltzen zutenean, estalpe hartan ziren esklabo guztiak, edo etxetik

gizon baten ahotsa aditzeko adina gertu, heriotzara kondenatuak izango zirela inolako bereizketarik gabe. Halako kasuetan esklabo bati babes ematen ziotenak hiltzaile gisa zigortzen zituzten<sup>57</sup>. Are nagusiak esklabo bati bera hiltzeko agindu<sup>58</sup> eta hark obeditzen bazion, errudun zen; eta nagusiari bere burua hiltzea galarazten ez zion esklaboa ere zigortu egiten zuten<sup>59</sup>. Baldin eta nagusi bat bidaia batean hiltzen bazuten, berarekin zeudenei eta ihes egindakoei heriotza-zigorra<sup>60</sup> ematen zitzaien. Lege horiek guztiek errugabetasuna frogatu zitzaienen gainean ere bazuten indarra. Xede hau zuten legeok: esklaboei nagusiaganako begirune harrigarria sorraraztea. Ez zeuden gobernu-era zibilaren mende, baizik eta gobernu-era zibilaren akats baten mende. Ez ziren sortuak lege zibilen ekitatetik, lege zibilen printzipioen kontrakoak baitziren. Gerraren printzipioan zeuden oinarrituta, baina kasu honetan etsaiak Estatuaren barruan zeudelarik. Silaren senatu-kontsultua jendeen zuzenbidetik sortua zen, eta hauxe nahi du zuzenbide horrek: gizarte batek, nahiz eta inperfektua izan, iraun dezala.

Gobernuaren zoritxarra da magistratura halako lege ankerrak egitera behartua izatea. Obeditzea zail bihurtu delako, larriagotu egin behar da desobeditzeagatiko zigorra, edo leialtasuna susmopean jarri. Legegile zuhur batek legegile beldurgarri bilakatzeko zorigaitza ekidin behar du. Erromatarren artean, esklaboei legean konfiantzarik izan ezin zutelako, legeak ezin izan zuen konfiantzarik izan haiengan.

## **XVII. KAPITULUA**

### ***Nagusiaren eta esklaboen artean egin beharreko arautegiak.***

Magistratuak esklaboak jatekoa eta jantzia izan ditzan arduratu behar du; legez araututa egon behar du horrek.

Legeek esklaboak gaixotasunean eta zahartzaroan zainduta egon daitezen arduratu behar dute. Klaudiok<sup>61</sup> agindu zuen esklaboak gaixorik egon eta nagusiek abandonatzen bazituzten, libre izango zirela ihes egiten bazuten. Lege horrek libertatea segurtatzen zien, baina bizia ere seguru beharko zuket.

Legeak nagusiari esklaboari bizia kentzeko bidea ematen dionean, epaile gisa erabili behar du eskubide hori, ez nagusi gisa; legeak formaltasunak agindu behar ditu, ekintza bortitz baten susmorik izan ez dadin.

Erroman gurasoei beren haurrak hiltzea galarazi zitzaientean, magistratuek aitzak agindu nahi zuen zigorra ematen zuten<sup>62</sup>. Gisa horretako usadioa, nagusiaren eta esklaboen artean, arrazoizkoa litzateke nagusiek bizitza- eta heriotza- eskubidea dituzten herrialdeetan.

Moisesen legea oso gogorra zen. "Inork bere esklaboa jo eta hiltzen badu, zigortua izango da; baina esklaboak egun bat edo bitan bizirik irauten badu, ez da zigortua izango, bere dirua delako". Hura zen herria! Lege zibilak lege naturaletik askatu beharra zeukan han!

Greziarren lege batez<sup>63</sup>, nagusiek gogorregi tratatzen bazituzten, esklaboek beste bati salduak izatea eska zezaketen. Azken garaian, gisa horretako lege bat izan zen Erroman<sup>64</sup>. Bere esklaboaren kontra haserretutako nagusiak, eta nagusiaren kontra haserretutako esklaboak, elkarrengandik bereiz egon behar dute.

Hiritar batek beste baten esklaboa gaizki hartzen duenean, jabeak auzitegira jotzeko aukera izan behar du. Platonen<sup>65</sup> eta herri gehienek legeek ez diete defentsa naturalerako biderik ematen esklaboei; beraz, defentsa zibila eman behar zaie.

Lazedemonian, esklaboek ezin zuten inolako justiziarik izan irainen eta laidoen kontra. Hain zorigaitzekoak ziren, non hiritar batenak ez ezik, publikoaren esklabo baitziren; denek eta bakar baten jabetza ziren. Erroman, esklabo bati

egindako kaltea zela eta, nagusiaren interesa besterik ez zen hartzen kontuan<sup>66</sup>. Lege Akiliarraren ondorioz, abere bati eta esklabo bati egindako zauriak berdintsuak ziren; haien prezioak behera egingo ote zuen, besterik ez zen kontuan hartzen. Atenasen<sup>67</sup> larri zigortzen zen, inoiz baita heriotzaz ere, inoren esklaboa gaizki hartu zuena. Atenasko legeak, arrazoiz, ez zion erantsi nahi segurantza galtzea libertatea galtzeari.

## **XVIII. KAPITULUA**

### **Manumisioaz.**

Gauza jakina da ezen, gobernu errepublikarretan esklabo ugari dagoenean, askatu egin behar direla asko. Arazoa zera da, esklabo gehiegi badira, ezin zaiela eutsi; eta liberto gehiegi badira, ez dutela bizibiderik, eta errepublikak bere gain hartu behar duela haien mantenua; gainera, errepublika arriskuan egon daiteke, bai liberto-kopurua handiegia izateagatik, eta bai esklabo-kopurua handiegia izateagatik. Beraz, legeek arreta jarri behar diete bi arazo horiei.

Erroman egin ziren legeek eta senatu-kontsultuek, esklaboen kontra eta alde, dela manumisioak oztopatzeko, dela errazteko, argi asko erakusten dute zelako nahaspidea sortu zen alde horretatik. Zenbait garaitan, legeak egiten ere ez ziren ausartu. Neronen aldiar<sup>68</sup>, senatuari zera eskatu zitzaionean, liberto esker txarrekoak atzera esklabotzan jartzeko bidea emateko ugazabei, enperadoreak idatzi zuen auziak banan-banan epaitu behar zirela, ezin zela orokorki erabaki.

Ez nuke asmatuko esaten zein diren errepublika on batek horretaz egin behar dituen arautegiak; hainbat gorabeheraren mende dago hori. Hona hemen gogoeta batzuk.

Ez da askatu behar, bat-batean eta lege orokor baten bidez, esklabo-kopuru handirik. Jakina denez, volsiniarren artean<sup>69</sup>, libertoek, botazioetan nagusi

bilakatuta, lege ezin gaitzesgarriagoa egin zuten, gizon jaiotzaz libre zirenekin ezkontzen ziren neskekin lehenak etzan ahal izateko eskubidea ematen ziena.

Hainbat era daude errepublikan oharkabeen hiritar berriak sartzeko. Legeek bide eman diezaiokeite pekulioa handitzeari, eta esklaboei beren libertatea erosteko aukera eman. Epe bat ezar diezaiokeite esklabotzari, Moisesen legeek bezala, hebraitar esklaboena sei urtetara mugatzen baitzuten<sup>70</sup>. Erraza da urtero esklabo-kopuru jakin bat liberto bihurtzea, beren adina, osasuna, trebezia dela medio bizibidea ateratzeko modua izango dutenen artean aukeratuta. Are gehiago, gaitza sustraian bertan senda daiteke: esklaboen kopuru handia haiei ematen zaizkien enpleguei lotuta dagoenez, enplegu horietako parte bat –adibidez, merkataritza edo nabigazioa– gizon jaiotzaz libreei ematea esklaboen kopurua gutxitzea da.

Liberto asko direnean, lege zibilek finkatu egin behar dute haiek ugazabari zor diotena, edota bestela manumisio-hitzaurrenak finkatu behar du.

Bistan da haien egoerak hobeia izan behar duela estatu zibilean estatu politikoan baino. zeren eta, are gobernu herritarrean ere, botereak ez baitu erori behar herri xehearen eskuetan.

Erroman, hainbeste liberto zegoelarik, lege politikoak miresgarriak izan ziren alde horretatik. Gutxi eman zitzairen, baina ia ezertatik kanpo ez zituzten utzi. Partaide izan ziren legegintzan, baina ia ez zuten eraginik har zitezkeen azken ebazpenetan. Karguetan eta are apaizgoan parte har zezaketen<sup>71</sup>, baina pribilegio hori, nolabait, alferreko bihurtzen zuten hauteskundeetan zituzten desabantailek. Milizian sartzeko eskubidea zuten, baina soldadu izateko, zentsu jakin bat behar zen. Ezerk ez zien galarazten liberto<sup>72</sup> libre jaiotakoen familiekin ezkontzaz lotzen, baina ez zeukaten senadoreen familiekin bat egiterik. Azkenik, haien haurrak jaiotzaz libre ziren, nahiz eta berak ez izan.



## XIX. KAPITULUA

### *Libertoez eta eunukoez.*

Hainbaten arteko gobernu-eran, maiz baliagarria izaten da libertoa jaiotzaz libre direnak baino pixka bat beherago egotea, eta legeak beren izate horrekiko nazka kentzen saiatzea. Baina bakar baten gobernuan, luxua eta botere arbitrarioa nagusi direnean, ez dago zereginik alde horretatik. Libertoak gizon libreen gainetik egon ohi dira ia beti. Nagusi izaten dira printzearen gortean eta handikien jauregietan; eta ugazabaren ahuleziak ondo aztertuak dituztenez, eta ez haien bertuteak, bertuteen bidez ez baina ahulezien bidez erreinarazten diete. Horrelakoak ziren Eroman libertoak enperadoreen garaian.

Esklavo nagusiak eunukoak direnean, zeinahi pribilegio ematen zaiela ere, ez dago haiek libertotzat hartzerik. Izan ere, familiarik izan ezin dutenez, familia bati erantsita daude berez; eta fikzio moduko baten bidez baino ez dago haiek hiritartzat hartzerik.

Hala ere, zenbait herrialdetan magistratura guztiak ematen zaizkie: "Tonkinen", dio Dampierrek<sup>73</sup>, "mandarin militar eta zibil guztiak eunukoak dira"<sup>74</sup>. Ez dute familiarik eta, berez askonahiak izanik ere, nagusia edo printzea haien askonahiaz aprobetzatzen dira azken batean.

Dampierre berak dioskunez<sup>75</sup>, herrialde horretan eunukoek ezin dituzte emakumeak alde bat utzi, eta ezkondu egiten dira. Ezkontzeko bidea ematen dien legea, alde batetik, antzeko jedeari ohi zaion kontsideroaren gainean oinarritzen da, eta bestetik, emakumeengana dagoen mesprezioaren gainean.

Hala, horien esku uzten dira magistraturak, familiarik ez dutelako; eta beste aldetik ezkontzen uzten zaie, magistraturak dituztelako.

Kasu honetan, geratzen zaizkien sentimenek galdutakoak ordezkatu nahi izaten dituzte setatsu, eta desesperazioaren ahaleginak halako gozabide bat dira.

Hala, Miltonen obran, desirak baizik geratzen ez zaizkionaren izpirituak, bere degradazioaz etsita, bere ezina bera erabili nahi du.

Txinako historian lege asko ageri dira eunukoei enplegu zibil eta militar guztiak kentzeko; baina beti itzultzen dira. Badirudi eunukoak, Ekialdean, ezinbesteko gaitza direla.

## XVI. LIBURUA

### NOLA ETXEKO ESKLABOTZAKO LEGEEK ERLAZIOA DUTEN

#### KLIMAREN ZER-NOLAKOAREKIN

## LEHEN KAPITULUA

### Etxeko joputzaz.

Esklaboak familiarentzat dira, baina ez dira familiakoak. Hala, bada, bereizi egingo ditut haien joputza eta emakumeek herrialde batzuetan dutena. Honi etxeko joputza deituko nioke.

## II. KAPITULUA

### Hegoaldeko herrialdeetan, desberdintasun naturala dagoela bi sexuen artean.

Klima beroetan, emakumeak ezkontzeko adinean izaten dira zortzi, bederatzi eta hamar urte dituztenerako; hori dela eta, haurtzaroa eta ezkontza batera doaz ia beti leku horietan<sup>76</sup>. Zaharrak dira hogeitaz betetzerako; beraz, haien arrazoiak ez doa inoiz edertasunarekin batera. Edertasunak agintea eskatzen duenean, arrazoiak errefusarazi egiten dio; arrazoiak lor lezakeenean, akabo edertasuna. Emakumeek mendean egon behar dute, zeren eta arrazoiak ezin baitie eman, beren zahartzaroan, edertasunak gaztaroan eman ez dien aginterik. Beraz, oso erraza da gizon batek, erlijioak oztoporik jartzen ez duenean, emaztea utzi eta beste bat hartzea, eta poligamia agertzea.

Herrialde epeletan, emakumeen erakarmena hobeto kontserbatzen baita, beranduago iristen baitzaie ezkontzeko adina, eta beranduago izaten baitituzte haurrak, senarraren zahardadea, nolabait, haienari jarraitzen zaio; eta arrazoi eta ezagutza gehiago dutenez ezkontzen direnean, denbora gehiagoz bizi izan

direlako baino ez bada ere, halako berdintasun moduko batek agertu behar izan du naturalki bi sexuen artean, eta ondorioz baita emazte bakar bat izateko legea ere.

Herrialde hotzetan, edari gogorrak ia derrigor erabili beharrak neurrigabekeria ezarri du gizonezkoen artean. Emakumeek, alde horretatik neurritasun naturala baitute, defenditu egin behar direlako beti, arrazoa dute haiekiko abantaila.

Naturak, gizonak indarraz eta arrazoiak bereizi dituelarik, ez die haien botereari indar eta arrazoi horiek beste mugarik jarri. Emakumeei edertasuna eman die, eta haien itzala haien edertasunarekin batera amai dadin nahi izan du. Baina herrialde beroetan, edertasuna hasieran baino ez dute, eta inoiz ez bizitzan zehar.

Hortaz, emazte bat besterik uzten ez duen legea hobeto dagokio Europako klimari, Asiako klimari baino. Horrexegatik, besteak beste, bota ditu islamismoak hain erraz erroak Asian, eta gertatu zaio hain zaila European zehar hedatzea; horrexegatik iraun du kritautasunak European, eta suntsitu dute Asian; eta azkenez, horrexegatik aurreratzen dira hainbeste mahometarrak Txinan, eta kristauak hain gutxi. Giza arrazoiak kausa nagusi horren mende daude beti; nahi duen guztia egiten du, eta nahi duen guztiaz baliatzen da.

Valentinianoren<sup>77</sup> zenbait arrazoi partikularrek inperioan poligamia onartarazi zioten. Lege hura, bortitza baitzen gure klimarentzat, kendu egin zuten Teodosiok, Arkadiok eta Honoriok<sup>78</sup>.

### **III. KAPITULUA**

***Emakumeen aniztasuna beren mantenuaren mende dagoela hein handi batean.***

Poligamia ezarrita dagoen herrialdeetan, emazteen kopuru handia, neurri handi batean, senarraren aberastasunen mende badago ere, ez dago esaterik

poligamia aberastasunek ezartzen dutela estatu batean; pobreziak gauza bera ekar dezake, basatiez mintzatzerakoan esango dudanez.

Poligamia, luxua baino gehiago, luxu handia izateko aukera da nazio boteretsuetan. Klima beroetan, premia gutxiago izaten dira<sup>79</sup>; gutxiago kostatzen da emaztea eta haurrak mantentzea. Beraz, emazte gehiago izan ditzake gizonak.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Poligamiaren gorabeheraz.**

Europako zenbait aldetan egiten diren kalkuluen arabera, neskak baino mutil gehiago jaiotzen dira<sup>80</sup>; aitzitik, Asiako<sup>81</sup> eta Afrikako<sup>82</sup> kontakizunek dioskutenez, askoz neska gehiago jaiotzen dira mutilak baino. Beraz, emazte bakar bat izatea agintzen duen legeak, Europan, eta hainbat emazte izatea onartzen duenak, Asia eta Afrikan, badute zerikusirik klimarekin.

Asiako klima hotzetan, Europan bezala, mutil gehiago jaiotzen dira neskak baino. Horrexegatik izan omen ditzake emakume batek, lamek diotenez<sup>83</sup>, zenbait senar<sup>84</sup>.

Baina ez dut uste herrialde asko izango direnik horrenbesteko desproporzioa dutenak; alegia, zenbait emazte edo zenbait senar edukitzeko legea beharrezko egiten duen desproporzioa. Horrek hauxe besterik ez du esan nahi: zenbait emazte –edota are zenbait senar– izatea gutxiago urruntzen dela naturatik zenbait herrialdetan, beste zenbaitetan baino.

Aitortzen dut ezen, kontakizunek dioskutena egia bada, hots, Bantam-en<sup>85</sup> gizonezko bakoitzeko hamar emakume daudela, poligamia-kasu guztiz berezia litzatekeela hori.

Diodan honetan guztian ez ditut usadioak justifikatzen; horien arrazoiak ematen ditut.

## V. KAPITULUA

### Malabarko lege baten arrazoia.

Malabarko kostan, Naire kastan<sup>86</sup>, gizonak ezin dute eduki emazte bat baizik; emakume batek, aitzitik, zenbait senar eduki ditzake. Uste dut aurki daitekeela ohitura horren jatorria. Naireak nobleen kasta dira, nazio osoko soldaduak, alegia. Europan, soldaduei galarazi egiten zaie ezkontzea; Malabarren, klimak gehiago exijitzen baitu, ezkontza ahalik eta erosoena egin nahi izan zaie; emazte bat eman zaie zenbait gizoni; horrek asko lasaitzen du familia batekiko atxikimendua eta hura mantentzeko ardura, eta gizonak izpiritu militarra gordetzen dute.

## VI. KAPITULUA

### Poligamiaz beraz.

Poligamia, oro har, eramangarri egin dezaketen zirkunstantzietatik at, ez da onuragarri gizateriarentzat, ez bi sexuetakoa ezeinentzat: dela gehiegikeriaz jokatzeko duenarentzat, dela gehiegikeria jasaten duenarentzat. Ez da baliagarria haurrentzat ere; hona hemen eragozpen handienetakoa bat: aita eta ama ezin dutela maitasun berdina izan beren haurrentzat; aita batek ezin ditzake maita hogei haur ama batek bi maite dituen bezala. Are okerragoa da emakume batek hainbat senar dituenean; izan ere, halakoetan, aitaren maitasuna haur batzuk bereak direla uste izateari lotuta dago.

Marokoko erregeak emakume zuriak, beltzak, horiak omen dauzka bere harenean. Zorigaitzekoa! Apenas behar duen kolore bakar batekorik.

Emazte asko izateak ez du beti babesten besteren emaztearen desira izatetik<sup>87</sup>; haragikeriarekin askonahiarekin bezala gertatzen da, zenbat eta altxor gehiago izan, hainbat eta diru-gose handiagoa.

Justinianoren garaian, zenbait filosofo, kristautasunak gogaituta, Pertsiaara erretiratu ziren, Kosroes errege zelarik. Gehien harritu zituen, dio Agazias-ek<sup>88</sup>, are adulterioari uko egiten ez ziotenek ere poligamia libre zutela.

Emazte asko izateak, nork esan behar zuen!, naturak gaitzesten duen amodio horretara darama; izan ere, libertinaje batek beste bat dakar. Konstantinoplan izan zen iraultzan, Akmet sultana bere tronutik kendu zutenean, ez omen zuten emakume bakar bat ere aurkitu herritarrek Txiaiairen etxea zakuratu zutenean. Aljerren<sup>89</sup> haren gehienetan emakumerik ez izateraino iritsi omen dira.

## **VII. KAPITULUA**

### **Tratamendu-berdintasunaz, emazte asko izatean.**

Emazte asko izatea onartzen duen legetik, tratamendu-berdintasunaren legea dator. Mahomak, lau onartzen baititu, haien artean dena berdina izan dadin nahi du: janaria, jantziak, ezkonduaren betebeharrak. Maldivetan ere, han gizona hiru emazterekin ezkon baitaiteke, ezarrita dago lege hori<sup>90</sup>.

Moisesen legearen arabera<sup>91</sup>, batek semea emakume esklabo batekin ezkontzen badu, eta gero semea emakume libre batekin ezkontzen bada, ez dio kendu behar jantzirik, janaririk, eta betebeharririk lehen emazteari. Badago emazte berriari gehiago ematea, baina lehen emazteak ez du gutxiago izan behar.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Gizonak eta emakumeak banantzeaz.**

Poligamiaren ondorio bat, nazio atseginzale eta aberatsetan emakume asko edukitzea da. Emakumeok gizonengandik bereiztea eta giltzapean sartzea, asko izate horretatik ondorioztatzen da. Etxeko ordenak hala eskatzen du; ordaindu ezin duen zordun bat hartzekodunengandik babesten saiatzen da. Zenbait klimatan, fisikoak halako indarra du, non moralak ezin baitu ezer egin. Utz ezazue gizon bat emakume batekin; tentazioak erorketak izango dira, eraso segurua, erresistentzia deus ez. Herrialde horretan, arauen orde, sarrailek behar dira.

Txinako liburu klasiko batek bertutearen miraritzat jotzen du gela batean emakume batekin bakarrik egon eta ez bortxatzea<sup>92</sup>.

## **IX. KAPITULUA**

### ***Etxeko gobernuak politikarekin duen lotura.***

Errepublikan batean, hiritar izaera mugatua da, berdina, leuna, moderatua; dena egokitzen zaio libertate publikoari. Emakumeen gaineko boterea ezingo litzateke hura gabe erabili; eta klimak botere hori eskatu duenean, bakar baten gobernu izan da komenigarriena. Horra gobernu-era herritarra Ekialdean beti zaila izatearen arrazoi bat.

Aitzitik, gobernu despotikoaren moldearekin bat dator emakumeen joputza, gobernu-era horrek gauza guztiak gehiegikeriaz erabili nahi izaten bititu. Hala, Asian elkarren ondoan joan dira beti etxeko joputza eta gobernu despotikoa.

Batez ere lasaitasuna eskatzen zaion gobernu batean, eta erabateko mendekotasunari bake deitzen zaiolarik, giltzapean gorde behar dira emakumeak; izan ere, haien azpijokoak oso txarrak lirateke senarrarentzat. Mendekoen



jokabidea aztertzeko astirik ez duen gobernu batek susmagarritzat dauka emakumea, bere itxura eta bere agertze hutsagatik.

Demagun une batez gure emakumeen izpiritu-arintasuna eta zuhurtziarik eza, gustu eta herrak, grina handi eta txikiak, ekialdeko gobernu batera aldatzen direla, gure artean diren bezalako jardueran eta libertatean; zein familiaburu egongo litzateke une bakar batez ere lasai? Susmagarriak nonahi, etsaiak nonahi; gogotik astinduko lukete Estatua, odol-errekak isuriko lirateke.

## **X. KAPITULUA**

### **Ekialdeko moralaren printzipioa.**

Emakume asko izanez gero, familiak bat bakarra izateari uzten dion heinean, hainbat eta gehiago bildu beharko dituzte legeek gune batean parte banatuak; eta zenbat eta desberdinagoak izan interesak, hainbat eta hobea izango da legeek interes bakar baterantz jotzea.

Hori, batez ere, giltzaperatzearen bidez lortzen da. Emakumeek, gizonengandik bananduta, etxean giltzapetuta ez ezik, giltzape horretan ere aparte egon behar dute, familiaren barruan familia partikular bat osatuko balute bezala. Hortik dator, emakumeentzat, moralaren praktika guztia: lotsa, kastitatea, zuhurtasuna, isiltasuna, bakea, mendekotasuna, begirunea, maitasuna eta, azkenik, sentimendu guztiak berez munduan den gauzarik onenari begira jartzea, hau da, familiaganako atxikimendu bakarrari.

Emakumeek hainbeste eginkizun dituzte berez dagozkienak, non ez baitago haiek nahikoa banantzerik beste burubide batzuk emango lizkieketen gauza guztietatik, dibertsio kontsideratzen direnetatik, arazoak deitzen diren guztietatik.

Ohitura garbiagoak aurkitzen dira ekialdeko estatuetan, zenbat eta emakumeen giltzapea erabatekoagoa izan. Estatu handietan, jaun handiak daude

halabeharrez. Zenbat eta baliabide gehiago izan, hainbat eta gaiago dira emakumeak erabateko giltzapean edukitzeko, eta gizartean sartzea galarazteko. Hori dela eta, Turkia, Pertsia, Mongolia, Txina eta Japoniako inperioetan, emakumeen ohiturak miresgarriak dira.

Ez dago Indiez gauza bera esaterik, uharteen kopuru amaiezinak eta lurraldearen egoerak ezin konta ahala estatu txikitan banatu baitute, eta hemen azaltzeko astirik ez dudan hainbat eta hainbat arrazoiengatik despotiko dira.

Han, ez daude lapurretan egiten duten gizajoak eta lapurtuak diren txiroak besterik. Handikitzat jotakoek oso bitarteko urriak dituzte; aberastzat jotakoek ia ez dute bizitzeko adina. Han emakumeen giltzapea ezin da izan hain erabatekoa; ezin dira hain neurri handiak hartu haiek bezatzeko; haien ohituren okerbideratzea pentsaezina da.

Hantxe ikusten da klimaren akatsek, libertate handian utzita, noraino ekar dezaketen desordena. Han, naturak duen indarra eta lotsak duen ahuldadea ulertezinak dira. Patane-n<sup>93</sup> emakumeen lizunkeria hainbestekoa da, non gizonek neurriak hartu beharra izaten baitute haien erasoetatik babesteko<sup>94</sup>. Smith-en arabera<sup>95</sup>, gauzak ez doaz hobeto Gineako erresuma txikietan. Badirudi herrialde hartan bi sexuek are beren legeak ere galtzen dituztela.

## **XI. KAPITULUA**

### **Poligamiaz gainerako etxekko joputzaz.**

Emakume asko izateak bakarrik ez du eskatzen haiek giltzapetzea Ekialdeko zenbait lekutan; klimak ere bai. Goan eta portugaldarrek Asian dituzten beste kokalekuetan –non erlijioak emazte bat besterik ez baitu onartzen–, emakumeen libertateak eragiten dituen izugarrikeriak, delituak, gaiztakeriak, ankerkeriak, pozoitzeak, hilketak irakurriko dituztenek, Turkia, Pertsia, Mongolia, Txina eta

Japoniako emakumeen ohituren lañotasun eta garbitasunarekin konparatzen badituzte, argi eta garbi ikusiko dute ezen, nahiz eta emakume bakar bat eduki, maiz bat baino gehiago edukita bezain beharrezko izaten dela emakumeak gizonengandik bereiztea.

Klimak erabaki behar ditu gauza horiek. Zertarako balioko luke iparraldeko gure herrialdeetan emakumeak giltzapean jartzeak, han ohiturak berez onak izanik; grinak lasaiak, ez oso indartsuak, ez oso finak; non maitasunak hain aginte arautua baitu bihotzaren gainean, ezen ardurarik txikiena aski baita haiek gidatzeko?

Zorionekoa da harremanak izateko moduko klima hauetan bizi izatea: erakarmen handieneko sexuak gizartea ornatzen duela dirudi, eta emakumeek, bakar baten plazererako izan arren, denen atseginerako dira.

## **XII. KAPITULUA**

### **Lotsa naturalaz.**

Nazio guztiak datoz bat emakumeen kontinentziarik eza mesprezatzean; izan ere, naturak nazio guztiei hitz egin die. Defentsa ezarri du, eraso ezarri du; eta desirak bi aldeetan jarrita, batean ausardia eta bestean lotsa ezarri ditu. Denboraldi luzeak eman dizkie norbanakoei beren buruak kontserbatzeko, eta une bakar batzuk besterik ez dizkie eman ugaltzeko.

Beraz, ez da egia kontinentziarik eza naturaren legeen araberkoa denik; aitzitik, hautsi egiten ditu legeak. Apaltasuna eta zuhurtzia dira legeon araberrak.

Bestalde, izaki adimendunei dagokie beren inperfekzioez ohartzea; naturak, beraz, lotsa jarri du gudan, hau da, gure akatsengatiko ahalkea.

Zenbait klimaren indar fisikoak bi sexuen lege naturala eta izaki adimendunena bortxatzen dituenean, legegileari dagokio klimaren izaera behartu eta lehen legeak berrezartzen dituzten lege zibilak egitea.

### **XIII. KAPITULUA**

#### **Jeloskortasunaz.**

Ondo bereizi behar dira herrietan grinaren jelosia eta ohituren, usadioen, legeen jelosia. Bata kixkali egiten duen sukarra da; bestea, hotza, baina batzuetan izugarria, eta axolagabetasunarekin eta mesprezioarekin bat daiteke.

Bata, maitasunaren gehiegikeria baita, maitasunetik bertatik sortzen da. Bestea nazio baten ohitura eta maneretatik, herrialdeko legeetatik, moraletik eta inoiz baita erlijiotik ere<sup>96</sup>.

Klimaren indar fisikoaren ondorio da ia beti, eta indar fisiko horren erremedioa.

### **XIV. KAPITULUA**

#### **Etxearen gobernuaz, Ekialdean.**

Hain sarri aldatzen da emaztea Ekialdean, non haiek ezin baitira arduratu etxeko gobernuaz. Beraz, eunukoei ematen zaie ardura hori; giltza guztiak ematen zaizkie, eta bere gain dute etxeko arazo guztiak antolatzea. "Pertsian", dio Chardin-ek, "haurrei bezala ematen zaizkie emakumeei jantziak". Hala, bada, ustez hain berea duten ardura hori, beste edonon beren lehen ardura dutena, ez dagokie han.

### **XV. KAPITULUA**

### *Dibortzioaz eta zapuzketaz.*

Alde hau dago dibortzioaren eta zapuzketaren artean: dibortzioa bien arteko adostasunez egiten da, elkartzintasunen bat denean; aldiz, zapuzketa bi parteetako baten borondatez eta abantailarako egiten da, direnak direla bestearen borondatea eta abantaila.

Batzuetan hain beharrezkoa dute emakumeek zapuztea, eta hain neketsua izaten dute beti, non eskubide hori gizonezkoei bai eta emakumeei emango ez liekeen legea gogorra bailitzateke. Senarra etxeko nagusia da; mila modu ditu emazteak beren beharrei lotzeko, eta badirudi ezen, haren eskuetan, zapuzketa bere boterearen beste gehiegikeria bat baino ez litzatekeela. Baina senarra zapuzten duen emakumeak erremedio triste bat baino ez darabil. Zoritxar handia da beti harentzat bigarren senar baten bila hasi beharra, beste baten etxean bere erakarmen gehiena galdu duelarik. Hauxe da emakumeek gaztaroan dituzten xarmen abantailetakoko bat: adinean aurrera egindakoan, senarra onginahiz portatzea, plazer iraganak gogoan.

Beraz, arau orokora da hau: legeak gizonezkoei zapuzteko ahalmena ematen dien herrialde guztietan, emakumeei ere eman behar die. Are gehiago: emakumeak etxeko esklabotzan bizi diren klimetan, legeak emazteei zapuzketa onartu behar lieke, eta senarrei dibortzioa besterik ez.

Emakumeak haren batean daudenean, senarrak ezin du inor zapuztu ohituren bateraezintasuna dela eta; senarraren akatsa da ohiturak bateraezinak izatea.

Emakumea antzutasunagatik zapuztea, emazte bakar bat izanez gero gerta liteke bakarrik<sup>97</sup>; emazte bat baino gehiago direnean, arrazoi horrek ez du inolako garrantzirik senarrarentzat.

Maldivetako legeak<sup>98</sup> onartu egiten du zapuztutako emaztea berriro hartzea. Mexikoko legeak<sup>99</sup> debekatu egiten zuen berriro elkartzea, heriotza-zigorraren mehatxupean. Mexikoko legea Maldivetakoa baino zentzuzkoagoa zen: banaketaren unean bertan ere, ezkontzaren betikotasunaz arduratzen baitzen; Maldivetakoa, berriz, ezkontzaz eta zapuzketaz, biez trufatzen dela dirudi.

Mexikoko legeak dibortzioa besterik ez zuen ematen. Beste arrazoi bat gehiago zen hori beren borondatez banandutako pertsonak berriro elkartzen ez uzteko. Zapuzketa izpiritu-bizitasunaren eta arimaren grinaren baten mende dagoela dirudi; dibortzioa, berriz, ondo pentsatutako arazoa dela ematen du.

Dibortzioak baliagarritasun politiko handia izan ohi du; eta baliagarritasun zibilar dagokionez, senarrarentzat eta emaztearentzat dago ezarrita, eta haurrentzat ez da beti ona izaten.

## **XVI. KAPITULUA**

### ***Zapuzketa eta dibortzioa erromatarren artean.***

Romulok onartzen zuen senarrak emaztea zapuztea, baldin eta honek adulterioa egin, pozoia prestatu edo giltzak faltsutu bazituen. Emakumeei ez zien eman senarra zapuzteko eskubidea. Plutarkok<sup>100</sup> oso gogorra deritza lege horri.

Atenasko legeak<sup>101</sup> emazteari senarra zapuzteko ahalmena ematen zionez, eta, Romuloren legea eta guzti, lehen erromatarren artean emakumeei eskubide hori lortu zutenez, argi dago instituzio hori Erromako diputatuek Atenastik ekarri zutenetako bat izan zela, eta Hamabi Tauletako legeetan ezarri zutela.

Zizeronek<sup>102</sup> dio zapuzketaren kasuak Hamabi Tauletako legetik zetozeela. Beraz, zalantzarik gabe, lege horrek Romulok ezarritako zapuzte-kausen kopurua gehitu zuen.

Dibortziazteko ahalbidea ere Hamabi Tauletako legearen xedapena izan zen, edo gutxienez haren ondorio bat. Izan ere, emazteak edo senarrak, zeinek bere aldetik, zapuzteko eskubidea zuten, are arrazoi handiagoz aparta zitezkeen ados jarrita eta bien borondatez.

Legeak ez zuen eskatzen dibortziorako arrazoiak azaltzea<sup>103</sup>. Izan ere, gauzaren izaeraren arabera, zapuzketarako bai, arrazoiak behar dira, baina ez dibortziorako; zeren eta legeak ezkontza hauts dezaketen arrazoiak ezartzen dituenean, elkarren arteko bateraezintasuna izan ohi da denetan indartsuena.

Dionisio Halikarnasokoak<sup>104</sup>, Valerio Maximok<sup>105</sup> eta Aulo Geliok<sup>106</sup> egiantz handirik ez duen egintza baten berri ematen dute. Hirurek diotenez, nahiz eta Erroman emaztea zapuzteko ahalmena izan, hainbesteko begirunea omen zieten iragarpenei, non bostehun eta hogeitaz inork ez baitzuen erabili eskubide hori<sup>107</sup>, Karbilio Ruga baino lehen; hark antzua zelako zapuztu zuen berea. Baina aski da giza izaera ezagutzea, ikusteko harrigarria litzatekeela legeak herri oso bati halako eskubidea eman eta inork ez erabiltzea. Koriolano erbestera zihoanean, bera baino gizon zoriontsuago batekin ezkontzeko aholkatu zion emazteari<sup>108</sup>. Ikusi berri dugu Hamabi Tauletako legeak eta erromatarren ohiturek asko zabaldu zutela Romuloren legea. Zertarako zabaltze hori, zapuzteko ahalmenaz aurrez inor baliatua ez bazen? Gainera, hiritarrek halako begirunea bazieten iragarpenei non ez baitzuten inoiz emaztea zapuzten, zergatik izan zioten begirune gutxiago Erromako legegileek? Nola izan daiteke legeak berak ohiturak galbidean jartzea?

Plutarkoren bi pasarte alderatuz gero, ikusiko da nola desagertzen den arazo honen harrigarria. Errege-legeak<sup>109</sup> aipatu ditugun hiru kasuetan zaputze egiteko bidea ematen zion senarrari. "Eta zera nahi zuen", dio Plutarkok<sup>110</sup>, "beste kasu batzuetan zaputze egiten zuena, bere ondasunen erdia emazteari ematera behartuta egotea, eta beste erdia Zeresi eskaintzea". Beraz, kasu guztietan egin zitezkeen

zaputz, zigor hori ordainduz gero. Inork ez zuen egin Karbilio Rugak baino lehen<sup>111</sup>; "hark", dio Plutarkok<sup>112</sup>, "antzua zelako egin zion zaputz emazteari, Romulo baino berrehun eta hogeita hamar urte geroago"; hau da, Hamabi Tauletako legea baino hirurogeita hamaika urte lehenago egin zion zaputz; lege horrek zaputz egiteko ahalmena eta zapuzketaren arrazoiak gehitzen ditu.

Aipatu ditudan autoreek diote Karbilio Rugak emaztea maite zuela, baina antzua zelako, zentsoreek zapuzketa zin egitera behartu zutela, errepublikari haurrak eman ahal izateko; eta horrek herriaren gorrotoa ekarri ziola. Ezagutu egin behar da herri erromatarraren adiurra, Karbiliori hartu zion gorrotoaren benetako arrazoia aurkitzeko. Karbiliok ez zuen bereganatu herriaren ezin ikusia emazteari zaputz egin ziolako; herria ez zen arduratzen horretaz. Baina Karbiliok zin bat egin zien zentsoreei: emaztea antzua zuenez, zaputz egingo ziola errepublikari haurrak emateko. Hori zentsoreek berari jarriko zioten uztarria zela ikusi zuen herriak. Obra honetan aurrerago<sup>113</sup> erakutsiko dut zer-nolako herra hartu zitzaizen gisa horretako arauari. Baina nondik etor ote daiteke autoreen arteko horrelako kontraesan bat? Hona hemen nondik: Plutarkok egintza bat aztertu du, eta besteek gauza harrigarri bat kontatu dute.



## XVII. LIBURUA

### MORRONTZA POLITIKOAREN LEGEEK ZERIKUSIA DUTELA

#### KLIMAREN IZAERAREKIN

## LEHEN KAPITULUA

### Joputza politikoaz

Morrontza politikoa ere, zibila edo etxekoa bezala, klimaren zer-nolakoen mende dago, erakutsiko dudanez.

## II. KAPITULUA

### Herrien arteko aldeak, ausardiari dagokionez.

Esan dugu bero handiak ahuldu egiten dituela gizonen indarra eta ausardia, eta klima hotzetan badagoela halako indar bat, gorputzekoa eta arimakoa, pertsonak ekintza luze, neketsu, handi eta ausartak egiteko gai egiten dituen. Hori nabaria da, nazio batzuen eta besteen artean ez ezik, baita nazioan bertan ere, alde batetik bestera. Txinako iparraldeko herriak<sup>114</sup> hegoaldekoak baino adoretuagoak dira; Koreako hegoaldeko herriak<sup>115</sup> ez dira iparraldekoak bezain adoretuak.

Beraz, ez da harritzekoa klima beroetako herrien koldarkeriak haiek esklabo bihurtu izana, eta klima hotzetako herrien adoreak libre eduki izana. Bere kausa naturaletik datorren ondorioa da hori.

Egia gertatu da Amerikan ere: Mexiko eta Peruko inperio despotikoak tropiko inguruan zeuden, eta ia herri txiki libre guztiak polo alderantz zeuden eta daude oraindik ere.

### III. KAPITULUA

#### Asiako klimaz.

Kontakizunek dioskutenez<sup>16</sup>, "Asiako iparraldea, berrogeigarren gradutik-  
edo Poloraino, eta Moskoviako mugetatik ekialdeko itsasoraino doan kontinente  
handi hori, oso klima hotzekoa da; lurralde neurrigabe hori mendikatea batek  
zatitzen du mendebaldetik ekialdera, iparraldera Siberia eta hegoaldera Tartaria  
handia uzten dituztelarik; Siberiako klima hain da hotza, non zenbait eskualdetan  
salbu, ezin baitaiteke lurrik landu; eta nahiz eta errusiarrek koloniak izan Irtis ibai  
osoan zehar, ez dute ezer laboratzen; herrialde hartan pinu txiki batzuk eta  
zuhaixkak besterik ez dira ageri; herrialde hartakoak herrixka eskas batzuetan  
banatuta daude, Kanadakoak bezala. Hotz hori, alde batetik, lurraldearen altuerari  
zor zaio, eta bestetik, zenbat eta iparralderago joan, mendiak lautu egiten dira, eta,  
beraz, ipar-haizeak alde guztietatik jotzen du, inolako oztoporik gabe. Haize  
horrek, Zembla bizileku desagoki egiten duen bezala, Siberian dabilelarik laboratu  
ezineko lur egiten du. European, aitzitik, Norvegiako eta Laponiako mendiak  
bulebar miresgarriak dira, iparraldeko herrialdeak haize horretatik babesten  
dituztenak; horri esker Stockholm-en, berrogeita hemeretzi graduko latitudean  
alegia, lurrak fruituak, aleak, landareak ematen ditu; eta Abo inguruetan,  
hirurogeita batgarren graduan, bai eta hirurogeita hiru eta hirurogeita laugarren  
gradueta ere, zilarrezko meategiak daude, eta lurra emankor samarra da".

Kontakizunean irakurtzen dugu, halaber, "Tartaria handia, Siberiaren  
hegoaldean dagoena, oso hotza dela; herrialde hartan ez dela ezer lantzen; abere-  
taldeentzako belardiak besterik ez daudela han; ez dela zuhaitzik hazten,  
zuhamuxka batzuk baizik, Irlandan bezala; Txina eta Mongoliatik gertu dauden  
herrialde batzuetan, artatxiki modukoa hazten dela, baina garia eta arroza ezin  
direla heldu; ia ez dela bazterrik, Tartaria txinatarrean, 43, 41 eta 45 gradueta,

urtean zazpi edo zortzi hilabetez izoztuta egoten ez denik, eta Irlanda bezain hotza dela, Frantziako hegoaldea baino beroagoa izan behar lukeen arren; ez dela hiririk, lauzpabost salbu ekialdeko itsasalderantz, eta txinatarrek, arrazoi politikoak direla medio, Txinatik gertu eraiki dituzten batzuk; Tartariako beste lurralde guztian, Bukarietan, Turkestanen eta Karismanen kokatutako hiri banaka batzuk besterik ez daudela; hotz handi hori lurzoru nitroso, kresaltsu eta hareatsuagatik dela; eta gainera, lurraldearen altueragatik. Aita Verbiest-ek bazter bat aurkitu zuen, harresi handitik 80 legoa iparralderantz, Kavamhuram ibaiaren iturbegi alderantz, Pekinetik gertuko itsasertzaren maila baino 3.000 urrats geometriko gorago zegoena; altuera hori<sup>17</sup> dela eta, nahiz eta Asiako ia ibai handi guztiak herrialde hartan sortuak izan, ura falta da hala ere, eta ez dago bertan bizitzerik ibaiertz eta aintziren inguruetan izan ezik".

Gauzak horrela, honela arrazoitzen dut: "Asiak ez du alde epelik; eta oso klima hotzean kokatutako lekuak eta oso klima beroko lekuak elkar ukitzen daude, hau da, Turkia, Pertsia, Mongolia, Txina, Korea eta Japonia.

Europan, aitzitik, alde epela oso zabala da, nahiz elkarren artean oso desberdinak diren klimetan kokatua egon, Espainiako eta Italiako klimek ez baitute zerikusirik Norvegiako eta Suediakoekin. Baina hegoaldeetik iparralderantz klima pixkanaka hoztuz doanez herrialde bakoitzaren latitudearen arabera, gertatzen da herrialde bakoitza, gutxi gorabehera, aldamenekoaren antzekoa dela; ez dagoela alde handirik eta, esan berri dudanez, alde epela oso zabala dela.

Hortik ondorio hau ateratzen da, Asian nazioak elkarren kontrakoak direla: indartsua ahularen ondoan, herri gerrari, oldartsu eta ekileak herri marisa, alfer, herabeen ondoan; beraz, bat konkistatua izan behar derrigor, eta bestea konkistatzailea. Europan, aitzitik, nazioak indartsua indartsuaren ondoan daude; elkarren ondokoek ausardia berdintsua dute. Horixe da Asiaren ahuleziaren eta Europaren indarraren arrazoia, Europaren libertatearen eta Asiaren morrontzarena.

Ez dut uste kausa hori inoiz aipatua izan denik. Horregatik, Asian inoiz ez da gertatzen libertatea haztea; Europan, aldiz, hazi edo urritu egiten da, zirkunstantzien arabera.

Moskoviako noblezia morrontzan jarri badu bere printzeetako batek, beti ikusiko dira egonezin-zantzuak, hegoaldeko klimetan inoiz sortzen ez direnak. Ez al genuen ikusi han gobernu aristokratikoa ezarri zutela egun batzuetan? Iparraldeko beste erresuma batek bere legeak galtzen baditu, fida gaitetzke klimaz, ez ditu behin betiko galduak.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **Horren ondorioa.**

Esan berri duguna bat dator historiako gertaerekin. Asia hamahiru aldiz menderatu dute; hamaika aldiz iparraldeko herriek, bi aldiz hegoaldekoek. Aspaldi batean, eszitek hiru aldiz konkistatu zuten; segidan medoek eta pertsek, bana aldiz; greziarrek, arabiarrek, mongolek, turkiarrek, tartariarrek, pertsiarrek eta afganiarrek. Ez naiz Asia garaiaz baizik ari; eta ez diot ezer munduko alde horretako hegoaldean egindako beste inbasioez, etengabe jasan baititu oso iraultza handiak.

Europan, aitzitik, ez ditugu ezagutzen, greziarrek eta feniziarrek koloniak ezarri zituztenez geroztik,

Europan, aitzitik, lau aldaketa baizik ez ditugu ezagutzen, greziarrek eta feniziarrek koloniak ezarri zituztenez geroztik: lehena erromatarren konkistak ekarria; bigarrena, barbaroen inbasioek, erromatarrek suntsitu zituztenean; hirugarrena, Karlomagnoren garaipenak; laugarrena, normandiarren inbasioek. Eta hori ondo aztertzen bada, ikusiko da aldaketa horietan bertan indar orokor bat zegoela hedatuta Europako bazter guztietara. Ezagunak dira erromatarrek Europa

konkistatzeko izan zituzten zailtasunak, eta zein erraz inbaditu zuten Asia. Ezagunak dira iparraldeko herriek erromatar inperioa hankaz gora botatzeko izan zituzten nekeak, Karlomagnoen gerrak eta lanak, normandiarren saioak. Suntsitzaileak behin eta berriz izan ziren suntsituak.

## **V. KAPITULUA**

***Asiako iparraldeko herriek eta Europako iparraldekoek konkistak egin dituztenean, konkistaren ondorioak ez direla berdinak izan.***

Europako iparraldeko herriek gizon libre gisa konkistatu zuten Europa; Asiako iparraldeko herriek esklabo gisa konkistatu zuten Asia, eta nagusi batentzat irabazi zuten.

Horren arrazoia zera da, tartariarren herria bera, Asiaren konkistatzaile naturala izan arren, esklabo bihurtu dela. Etengabe konkistatu zuen Asiako hegoaldea, inperioak eratu zituen; baina herrialdean geratzen zen nazio-zatia nagusi handi baten mende zegoen, hegoaldean despotikoa eta iparraldean ere berdin izan nahi duena; eta, konkistatutako sujeten gainean botere arbitrarioa izanik, sujet konkistatzaileen gainean ere gauza bera nahi zuen. Hori ondo ikusten da gaur egun Tartaria txinatarra deritzan herrialde handi horretan: enperadoreak Txina bera bezain despotikoki gobernatzen du hura, eta egunero handiagotzen du lurralde hori konkisten bidez.

Txinako historian ere ikus daiteke enperadoreek<sup>118</sup> txinatarren koloniak bidali zituztela Tartariara. Txinatar haiek tartariar bihurtu ziren, eta Txinaren etsai sekulako; baina hala eta guztiz ere txinatar gobernuaren izpiritua eraman zuten Tartariara.

Maiz tartariar nazio konkistatzailearen parte bat espulsatua izan da bera ere; eta esklabotza-giroan bereganatu duen morrontza-izpiritu hori eraman du bere

basamortuetara. Txinaren historiak etsenplu handiak eman dizkigu horretaz, eta gure antzinako historiak ere bai<sup>119</sup>.

Hori dela eta, nazio tartariar edo getiarraren adiurrea Asiako inperioenaren antzekoa izan da beti. Hauetan, herriak makilaz gobernatzen dira; herri tartariarrak, berriz, zartailu luzez. Europako izpiritua beti izan da ohitura horien kontrako; eta garai orotan, Asiako herriek zigor deitu dutena, Europako herriek irain deitu dute<sup>120</sup>.

Tartariarrek inperio grekoa suntsitu eta morrontza eta despotismoa eraman zuten konkistaturiko herrialdeetara; godoek, inperio erromatarra konkistatu eta monarkia eta libertatea fundatu zituzten nonahi.

Ez dakit Rudbeck famatuak, *Atlantikoa* obran Eskandinavia hainbeste laudatu duenak, pribilegio honetaz hitz egin duen, hots, han bizi diren nazioak munduko beste herri guztien gainetik jarri behar dituen pribilegioaz: alegia, haiek izan direla Europaren libertatearen iturria, hau da, gaur egun gizonek duten ia libertate guztiarena.

Jordanis godoak gizateriaren fabrika deitu dio Europako iparraldeari<sup>121</sup>. Nik hegoaldean forjatutako kateak hausten dituzten tresnen fabrika deituko nioke. Hantxe sortu dira nazio adoretsu horiek, beren herrialdetik irten eta tiranoak eta esklaboak suntsitu dituztenak, eta gizonei irakatsi ezen, naturak berdinak egin baititu, arrazoiak ezin izan dituela mendeko bihurtu beren zorionerako baino.

## **VI. KAPITULUA**

### ***Asiaren joputzaren eta Europaren libertatearen beste kausa fisiko bat.***

Asian beti izan dira inperio handiak; European, ordea, inoiz ezin izan dute iraun. Izan ere, guk ezagutzen dugun Asiak askoz lautada handiagoak ditu; zati handiagoetan ebakitzen dute itsasoek; eta hegoalderago dagoenez, iturriak

errazago agortzen dira, mendiak elur gutxiagoz estalita daude, eta ibaiak<sup>122</sup>, hainbeste ur ez daramatenez, oztopo txikiagoak dira.

Beraz, Asian botereak despotikoa izan behar du derrigorrez. Izan ere, morrontza erabatekoa ez balitz, lurralde haren izaerak berez jasan ezin dezakeen partiketa bat gertatuko litzateke.

Europar, partiketa naturalak zabalera ertaineko hainbat estatu sortu ditu, eta legez gobernatzea ez da bateraezina Estatuari eustearekin; aitzitik, hain da horren aldeko, non legeok gabe, Estatu hori gainbeheran hasten baita, eta beste guztiak baino gutxiago bihurtzen.

Horrexek sorrarazi duen libertate-izpirituari esker oso zail gertatzen da parte bakoitza indar arrotz batek mendera dezan, legeen eta merkataritzaren onuraren bidez ez bada.

Asian, aitzitik, betidanik da nagusi morrontza-izpiritua; eta lurralde hartako historia guztietan, ezin da aurkitu arima libre baten ezaugarri den zantzu bakar bat ere; han ez da ikusiko morrontzaren heroitasuna besterik.

## **VII. KAPITULUA**

### **Afrikaz eta Amerikaz.**

Hona zer esan dezakedan Asiaz eta Europaz. Afrika Asiako hegoaldearen antzeko kliman dago, eta morrontza berdinean, halaber. Amerikak<sup>123</sup>, Europako eta Afrikako nazioek suntsitu eta birpopulatu dutenez, gaur egun ezin du bere adiurrea erakutsi, baina beraren historia zaharraz dakiguna guztiz bat dator gure printzipioekin.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Inperioko hiriburuaz.**

Esan berri dugunaren ondorio bat hauxe da: printze handi batentzat oso garrantzitsua dela bere inperioaren egoitza ondo aukeratzea. Hegoaldean ezarriko duenak iparraldea galtzeko arriskua izango du; eta iparraldean jartzen duenak erraz gordeko du hegoaldea. Ez naiz kasu bereziez ari: mekanikak baditu bere marraskadurak, maiz teoriak agintzen duena aldatu edo galaraz dezaketenak, eta politikak ere baditu bereak.



## XVIII. LIBURUA

### LEGEEZ, LURRAREN IZAERAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

#### LEHEN KAPITULUA

##### *Lurraren izaerak nolako eragina duen legeetan.*

Herrialde bateko lurren ontasunak berez ezartzen du mendekotasuna bertan. Landaldeko jendea, herriaren gehiengoa, ez da hainbeste arduratzen bere libertateaz; nahikoa lan eta kezka dute beren arazo partikularrekin. Ondasunak ekoizten dituen landa beldur izaten da harrapaketez, beldurra dio armada bati. "Nork eratzen ote du alderdi ona?", galdetzen zion Zizeronek Atikori<sup>124</sup>. "Merkataritzako eta landaldeko jendea ote? Monarkiaren kontra daudela imajinatzen ez badugu, bederen; izan ere, gobernu guztiak berdinak zaizkie, lasai bizi diren artean".

Hala, bada, herrialde emankorretan maizago izaten da bakar baten gobernua, eta emankor ez direnetan zenbaiten gobernua, batzuetan bata bestearen ordaina izaten baita.

Atikako lurraren antzutasunak herri-gobernua ekarri zuen han; eta Lazedemoniakoaren emankortasunak, gobernu aristokratikoa. Izan ere, garai hartan Grezian ez zuten nahi bakar baten gobernurik; alabaina, gobernu aristokratikoak zerikusi handiagoa du bakar baten gobernuarekin.

Plutarkok<sup>125</sup> dioskunez, Atenasen ziloniar sedizioa bakeratu zutenean, hiria sesio zaharretan erori zen berriro, eta Atikan ziren lurralde-motak adina alderditan zatikatu zen. Mendialdeko jendeak herri-gobernua nahi zuen derrigor; lautadakoek jende nagusiaren gobernua eskatzen zuen; itsasaldekoek, berriz, bitariko gobernua.

## **II. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Herrialde emankorrak lautadak izaten dira, eta han ezin da eztabaidan hasi indartsuagoarekin; beraz, men egiten zaio; eta haren mende jarri eta gero, ez da berreskuratzen libertate-izpiritua; landako ondasunak leialtasunaren bermea dira. Baina mendialdean badago norberarena kontserbatzerik, eta gutxi izaten da kontserbatzeko. Libertatea da, gobernu-era alegia, defendatzea merezi duen ondasun bakarra. Beraz, gehiago irauten du herrialde menditsu eta zailetan, naturak itxuraz mesede egin dietan baino.

Menditarrek gobernu moderatuagoa izaten dute, ez daudelako konkistaren mehatxupean. Erraz defendatzen dira, zail da haiei eraso egitea; gerrako eta jateko hornigaiak gastu handiz biltzen eta eramaten dira haien kontra, herrialdeak ez baitu hornitzen. Beraz, zailagoa da haien kontra gerra egitea, arriskutsuagoa; eta herriaren segurantzarako egin diren lege guztiek leku gutxiago dute han.

## **III. KAPITULUA**

### **Zein diren herrialderik landuenak.**

Herrialdeak ez daude landuta emankortasunaren arabera, baizik eta libertatearen arabera; eta lurra mentalki zatitzen badugu, harritu egingo gara gehienetan alderik emankorrenak mortu daudela ikustean, eta ustez lurrak denari uko egiten dion parajeetan herri handiak daudela.

Naturala da herri bat lurralde txar batetik alde egin eta hobeena bila abiatzea, ez lurralde ona utzi eta txarragoaren bila joatea. Inbasiorik gehienak, beraz, naturak zoriontsuak izateko egindako herrialdeetan gertatzen dira: eta ezer ez dagoenez hondamenditik gertuago inbasioa baino, herrialderik onenak izan ohi

dira maizenik despopulatuenak; aldiz, iparraldeko herrialde izugarriak populatuta irauten du beti, hain zuzen bertan ia bizi ezin daitekeelako.

Historialariek Eskandinaviako herriak Danubio ibaiaren ertzetara aldatzeaz kontatzen digutenaren arabera, hura ez zen konkista izan, lurralde hustuetara aldatzea baino.

Klima zorioneko haiek beste transmigrazio batzuek despopulatu zituzten, eta ez dakigu ezer han gertaturiko gauza trajikoez.

"Monumentu askoren arabera, badirudi", dio Aristotelek<sup>126</sup>, "Sardinia kolonia grekoa izan zela. Aspaldi oso aberatsa izan zen, eta Aristeok, zeinen laborantzarekiko maitasuna hainbeste goraiatu den, legeak eman zizkion.. Baina asko erori da harrezkeroztik; izan ere, kartagotarrak hango nagusi bihurtu zirenetik, giza elikadurarako oro suntsitu zuten, eta bizitza galtzeko mehatxupearan debekatu zuten lurra lantzea". Sardinia ez zen bere onera etorria Aristoteleren garaian, ez eta gaur ere.

Pertsia, Turkia, Moskoviako alderik epelenak, ezin izan dira zuzpertz tartariar handi eta txikiek eragindako hondamendien ondoren.

#### **IV. KAPITULUA**

##### ***Herrialdearen emankortasunaren eta antzutasunaren ondorio berriak.***

Lurren antzutasunak langile bihurtzen ditu gizonak, neurridun, lanean zaildu, adoretu, gerrarako egoki; lurak ematen ez diena ateratzen saiatu beharra daukate. Herrialde baten emankortasunak, erosotasunarekin batera, errazkeria eta bizia kontserbatzeko halako nahikari bat eman ohi dituzte.

Azpimarratu izan da Alemaniako tropak, laborariak aberatsak diren lekuetakoak badira, hala nola Saxonian, ez direla besteak bezain onak. Lege militarrek diziplina gogorraren bidez zuzenduko dute eragozpen hori.

## V. KAPITULUA

### *Uharteetako herriez.*

Uharteetako herriak kontinentekoak baino libertatezaleagoak dira. Uharteak zabalera txikikoak izan ohi dira gehienetan<sup>127</sup>; ez da erraza herriaren parte batek beste partea zapaltzea; itsasoak inperio handietatik bereizten ditu, eta tiraniak ezin dio tiraniari lagundu; itsasoak geldiarazi egiten ditu konkistatzaileak; ondorioz, uhartekoak ez dira konkistetan nahasten, eta errazago gordetzen dituzte beren legeak.

## VI. KAPITULUA

### *Gizonen lanak eratutako herrialdeez.*

Gizonen lanak bertan bizitzeko gai bihurtu dituen herrialdeek, eta aurrera egingo badute lan horren beharra dutenek, nahiago dute gobernu moderatua. Hiru daude batez ere mota horretakoak: Txinako Kiang-nan eta Txe-kiang probintzia eder biak, Egipto eta Holanda.

Txinako antzinako enperadoreak ez ziren konkistatzaileak. Handitzeko egin zuten lehen gauzak frogatu zuen gehien haien zuhurtzia. Urpetik inperioko bi probintziarik ederrenak sortzen ikusi ziren han, gizonen lanari esker. Bi probintzia horien emankortasun esan ezinak eman dio Europari paraje zabal hartako zorionaren ideia. Baina inperioaren hain zati handia hondamenditik babesteko etengabe arduratu beharrak, herri zuhur baten ohiturak eskatzen zituen, ez herri atseginzale batenak; erregearen botere legezkoa, ez despotaren botere tiranikoa. Botereak moderatua behar zuen han, behinola Egipton izan zen bezalakoa. Moderatua izan behar zuen, egun Holandan den bezalakoa, herrialde hau bere

buruaz ardura dadin egin baitu naturak, ez axolagabekeriara edo apetetara eman dadin.

Hala, Txinako klima den bezalakoa izan arren, non gizakiak berez joputzara makurtzen baitira, inperioaren luze-zabal handiegien ondoriozko izugarrikeriak eta guzti, Txinako lehen legegileek oso lege onak egin behar izan zituzten; eta gobernua jarraitu egin behar izan zitzairen.

## **VII. KAPITULUA**

### **Gizakien eginez.**

Gizakiek, beren arduraz eta lege onez, lurra beren bizileku izateko egokitu dute. Ibaiak ikusten ditugu aintzira eta padura ziren lekuetan; naturak ez du berez on hori egin, baina naturak kontserbatzen du. Pertsiarrek<sup>128</sup>, Asian nagusi zirenean, aurrez ureztatu gabeko lekuren batera ura eramaten zuen edonori, leku hari bost belaunaldiz probetxu ateratzeko baimena ematen zioten; eta Taurus menditik urlaster pila bat sortzen denez, eginahal guztiak egin zituzten ura ekartzeko. Gaur egun, nondik datorren jakiteke, landetan eta jardinetan aurkitzen dute.

Nazio suntsitzaileek berek baino gehiago irauten duten kalteak egiten dituzten bezala, badira nazio saiatuak ere, berekin batera amaitzen ez diren gauza onak egiten dituztenak.

## **VIII. KAPITULUA**

### **Legeen zerikusi orokorra.**

Legeek zerikusi handia dute herrien bizibidearekin. Lege-kode zabalagoa behar du merkataritzara eta itsasora emandako herri batek, lurra lantzen aski duen

herri batek baino. Handiagoa behar du azken honek, abeltzaintzatik bizi den herri batek baino. Handiagoa azken honek, ehizatik bizi den herri batek baino.

## **IX. KAPITULUA**

### **Amerikako lurraz.**

Amerikan, lurrak bizitzeko adina fruitu berez ematen duelako daude han hainbeste nazio basati. Hango emakumeek etxolaren inguruan lur-puska bat lantzen badute, artoa etortzen da lehenik. Ehizak eta arrantzak oparotasunean jartzen dituzte denak. Gainera, larratzen diren animaliek, hala nola idiek, bufaloek eta abarrek, piztia haragijaleek baino bizibide errazagoa dute. Piztiok betidanik izan dira nagusi Afrikan.

Nik uste Europan ez genituzkeela abantaila horiek guztiak izango lurra landu gabe utziko bagenu; basoak besterik ez lirateke sortuko, pagoak eta beste zuhaitz antzu batzuk.

## **X. KAPITULUA**

### **Gizakien kopuruaz, bizibidea ateratzeko erarekin duen zerikusiaren aldetik.**

Nazioek lurrik lantzen ez dutenean, hona hemen zein proportziotakoa den gizaki-kopurua. Lur-sail landu baten emaria lur landu baten emariarekiko den bezala, halaxe da herrialde bateko basati-kopurua ere beste herrialde bateko laborari-kopuruarekiko; eta lurrak lanzen dituen herriak arteak ere lantzen ditutenean, xehetasun gehiago Azaldu beharko liratekeen proportzioak izaten dira.

Ezin dute eratu nazio handia. Artzainak badira, herrialde handia behar dute ugari samar izango badira; ehiztariak badira, are gutxiago izan beharko dute, eta nazio txikiagoa eratzen dute bizitzeko.

Haien herrialdea basoz beteta egon ohi da, eta gizakiek urei biderik eman ez dietenez, paduraz beteta. Han, talde bakoitza abarotu eta nazio txiki bat osatzen du.

## **XI. KAPITULUA**

### **Herri basatiez eta herri barbaroez.**

Bada alde bat herri basatien eta herri barbaroen artean: lehenak nazio txiki barreiatuak izan ohi dira, hainbat arrazoi direla -eta bildu ezin direnak; barbaroak, aldiz, biltzea badaukaten nazio txikiak izan ohi dira. Lehenak herri ehiztariak izaten dira gehienetan; bigarrenak, artzaintzara emandako herriak. Ondo asko ikusten da hori Asiako iparraldean. Siberiako herriak ezingo lirateke bilduta bizi, elikatu ezingo liratekeelako; tartariarrak bilduta bizi daitezke denboraldi batez, haien abere-taldeak ere denboraldi batez bil daitezkeelako. Beraz, gizatalde guztiak ere bil daitezke, eta horixe egiten dute buruzagi batek beste guztiak menderatu dituenean. Horren ondoren, bi gauza egin behar izaten dituzte: banandu edo konkista handiren bat egitera joan hegoaldeko inperioren batera.

## **XII. KAPITULUA**

### **Lurra lantzen ez duten herrietako jendeen zuzenbideaz.**

Herri horiek, lurralde mugatu eta hesituan bizi ez direnez, eztabaidagai asko izango dituzte; lur landugabeagatik izango dituzte sesioak, hiritar guztien artean jarauntsiak direla-eta izan ohi diren bezala. Hala, gerra-aukera ugari izango dituzte ehiza, arrantza, abereen bazka, esklaboen hazkundera direla eta; eta lurralderik ez dutenez, hainbeste gauza izango dituzte jendeen zuzenbideaz arautzeko, non ezer gutxi erabaki beharko baitute zuzenbide zibilaren bidez.

### XIII. KAPITULUA

#### *Lurra lantzen ez duten herrietan*

Lur-partiketak gizentzen du batez ere kode zibila. Partiketa hori egin ez den nazioetan, oso lege zibil gutxi izango dira.

Herri horietako instituzioei ohitura dei dakieke *lege* baino areago.

Horrelako nazioetan, zaharrek, iraganeko gauzez oroitzen baitira, aginte handia izan ohi dute; han ez dago nor bere ondasunen arabera bereizterik, besoaren eta aholkuen arabera baizik.

Herri horiek alderrai eta sakabanatuta ibili ohi dira larre edo basoetan. Ezkontza ez dute gure artean bezain seguru izango, gurean bizilekuak finkatzen baitu, eta emaztea etxeaz arduratzen baita; beraz, errazago alda ditzakete emazteak, bat baino gehiago izan, eta batzuetan baita abereak bezala nahastu ere.

Artzaintzatik bizi diren herriak ezin dira abeltaldeetatik bereizi, beren bizibide baitituzte; emazteez ere ezingo lirateke bereizi, hauek zaintzen baitituzte abeltaldeok. Beraz, denek elkarrekin joan behar dute; izan ere, gehienetan babesleku gutxiko lautada handietan bizi direnez, emazte, haur eta abeltaldeak etsaien harrapakin izango lirateke.

Haien legeek harrapakinaren partiketa arautuko dute, eta arreta berezia eskainiko diete, lapurretei gure lege salikoek bezala.

### XIV. KAPITULUA

#### *Lurra lantzen ez duten herrien egoera politikoaz.*

Herri horiek libertate handia dute; izan ere, lurra lantzen ez dutenez, ez daude leku bati lotuta; alderrai ibili ohi dira, batetik bestera; eta buruzagiren batek



libertatea kendu nahi izango balie, beste batengana joko lukete libertate horren bila, edo basora erretiratuko lirateke han familiarekin bizi izateko. Herri horietan, gizaki baten libertatea hain da handia, non hiritarraren libertatea baitarama derrigor berekin.

## **XV. KAPITULUA**

### ***Diru-erabilera ezagutzen duten herriez.***

Aristipo, itsasontzia urperatu zitzaionean, igeri egin eta itsasertz hurbilenara iritsi zen; harea gainean irudi geometrikoak eginda zeudela ikusi zuenean, hunkituta geratu zen, pentsatuz herri greko batera iritsa zela, ez herri barbaro batera.

Bakarrik zaudelarik, ezbeharrez herri ezezagunen batera iritsi eta diru-txanpon bat ikusten baduzu, egizu kontu nazio zibilizatu batera iritsi zarela.

Lurra lantzeak dirua erabiltzea eskatzen du. Lurra lantzeak arte eta ezagutza ugari eskatzen ditu, eta artea, ezagutza eta premia batera doaz beti. Horrek guztiak balio-zeinu bat ezartzea dakar.

Uharrek eta suteek erakutsi digute lurrak metalak zeuzkala bere baitan<sup>129</sup>. Metalak lurretik bereizi eta gero, erraz enplegatu ahal izan dira.

## **XVI. KAPITULUA**

### ***Diru-erabilera ezagutzen ez duten herrietako lege zibilez..***

Herri batek dirurik erabiltzen ez duenean, han ez da ezagutzen indarkeriatik datozen bidegabeak baizik, eta ahulak batu eta indarkeriaren kontra babesten dira. Han ia ez da xedapen politikoak besterik. Baina dirua erabiltzen den herri batean, maltzurkeriatik sortzen diren bidegabeen arriskupean egon ohi da jendea, eta

bidegabeok mila modutan buru daitezke. Beraz, lege zibil onak eduki behar dira han; gaizto izateko bide berri eta modu anitzekin batera jaiotzen dira legeok.

Dirurik ez dago en herrialdeetan, lapurrak gauzak besterik ez ditu lapurtzen, eta gauzek inoiz ez dute elkarren antzik. Dirua den herrialdeetan, berriz, lapurrak zeinuak lapurtzen ditu, eta zeinuak elkarren antzeko dira beti. Lehen herrialdeetan ezin da ezer gorde, lapurrak berekin eramaten baititu beti bere erruduntasun-frogak; ez da horrela gertatzen besteetan.

## **XVII. KAPITULUA**

### ***Dirurik erabiltzen ez duten herrietako lege politikoez.***

Dirua ez ezagutzeak segurtatzen die batez ere libertatea lurra lantzen ez duten herriei. Ehizaren, arrantzaren edo abere-taldeen fruituak ezin dira bildu eta gorde gizaki batek beste gizaki guztiak erosi ahal izateko adina. Aberastasunen zeinuak edukiz gero, ordea, bildu egin daitezke zeinu horiek, eta nahi direnen artean bana.

Dirurik ez duten herrietan, bakoitzak beharrian gutxi ditu, eta erraz eta besteek bezala asetzen ditu. Beraz, berdintasuna derrigorrezkoa da, eta buruzagiak ez dira despotikoak.

## **XVIII. KAPITULUA**

### ***Superstizioaren indarra.***

Kontakizunek dioskutena egia bada, Luisianako Natxez herriaren konstituzioa esan berri dudanaren salbuespena da. Haien buruzagiak<sup>130</sup> mendeko guztien ondasunak erabil ditzake, eta berak nahi bezala eragiten die lana; ezin diote beren burua ukatu; jaun nagusia bezalakoa da hura. Ustez oinordeko izango

dena jaiotzen denean, bularreko haur guztiak ematen dizkiote, bizitza osoan zerbitza dezaten. Esan liteke Sesostris handia dela hura. Buruzagi hori Japoniako edo Txinako enperadore bati egingo litzaizkiokeen zeremoniekin tratatzen dute bere etxolan.

Supersitizioaren aurreiritziak beste aurreiritzi guztien gainetik daude, eta haren arrazoiak beste arrazoi guztien gainetik. Hala, nahiz eta herri basatiek berez despotismoa ezagutu ez, herri horrek bai, ezagutzen du. Eguzkia gurtzen dute, eta buruzagiak imajinatu ez balu eguzkiaren anaia dela, eurak bezalako gizajotzat hartuko zuket.

## **XIX. KAPITULUA**

### ***Arabiarren libertateaz, eta tartariarren morrontzaz.***

Arabiarrek eta tartariarrak artzain-herriak dira. Arabiarrek aipatu ditugun kasu orokorretan sartzen dira, eta libreak dira; tartariarrak, ordea (munduko herririk bereziena), esklabotza politikoa daude<sup>131</sup>. Eman ditut azken gauza honen arrazoi batzuk<sup>132</sup>; hona hemen beste batzuk.

Ez dute hiririk, ez dute basorik, padura gutxi dituzte, ibaiak izoztuta egoten dira ia beti, lautada neurrigabeen bizi dira, larreak eta abere-taldeak dituzte, eta beraz ondasunak; baina ez dute inolako babesik edo defentsarik. Kan bat garaitua den bezain laster, lepoa moztu zaio<sup>133</sup>; berdin tratatzen dituzte haurrak ere; eta mendeko guztiak garailearenak dira. Ez dituzte kondenatzen esklabotza zibilera; karga handia lirateke lantzeko lurrik ez eta etxerako zerbitzaririk behar ez duen nazio sinple batentzat. Beraz, ugaltu egiten dute horrela nazioa. Baina ulertzekoa da esklabotza zibilaren ordeztu esklabotza politikoa sartu behar izana.

Izan ere, bandoen artean etengabe gerra den herrialde batean, batzuek besteak konkistatzen dituztelarik; bando garaitu bakoitzeko gorputza, buruzagia

hiltzean, beti suntsitua den herri batean, nazioa, oro har, ezin da libre izan, zeren eta han ez baita hainbat aldiz azpiratua izan ez den lur-zatirik.

Garaitutako herriek bai, gorde dezakete libertate pixka bat, derrotaren ondoren, egoeraren poderioz itunak egiteko gai direnean. Baina tartariarrek, babesik gabe beti, garaituak izan direnean, inoiz ezin izan dituzte beren baldintzak jarri.

Esan dut II. kapituluan lautada laboratuetako biztanleak ez zirela libre; zirkunstantziek ekarri dute tartariarrak, lur landugabeen bizi izanik, kasu horretan egotea.

## **XX. KAPITULUA**

### **Tartariarren jendeen zuzenbideaz.**

Tartariarrak leun eta gizatiar ageri dira beren artean, baina oso konkistatzaile ankerrak dira: ezpataz hiltzen dituzte hartutako hirietako biztanleak; saldu edo beren soldaduen artean banatzen dituztenean, onbera jotzen dutela uste dute. Suntsitu egin dute Asia, Indiatik Mediterraneoraino; Pertiako ekialdea mortu geratu da.

Hona hemen zerk eman duen, nire ustez, horrelako jendeen zuzenbidea. Herri horiek ez zuten hiririk; gerra guztiak bizkor eta oldarrean egiten zituzten. Garaitzea espero zutenean, borrokatu egiten ziren; horrelakorik espero ez zutenean, berriz, indartsuagoen armadan sartzen ziren. Horrelako ohiturekin, beren jendeen zuzenbidearen kontrakotzat hartzen zuten aurre egin ezin zien hiri batek geldiarazi mhi izatea. Hiriak ez zituzten ikusten biztanleen bilgune gisa, beren boteretik ihes egiteko leku gisa baizik. Ez zuten inolako arterik setioetarako, eta arrisku handiak hartzen zituzten halakoetan; odolez menderatzen zuten berek isuritako odol guztia.

## **XXI. KAPITULUA**

### **Tartariarren lege zibila.**

Aita Du Haldek dioenez, tartariarren artean gizonezkoetan azkena izan ohi da beti oinordeko; zergatik, eta zaharragoek, artzaintzari ekiteko gai izan ahala, etxetik alde egiten dutelako aitak ematen dien abere-taldearekin, eta beste bizileku bat eratzen dutelako. Aitarekin etxean geratzen den azken gizonezkoa da, beraz, oinordeko naturala.

Entzuna dut horrelako ohitura zutela Ingalaterrako barruti txiki batzuetan, eta gaur egun oraindik ere aurki daiteke Britainian, Rohango dukerrian, non luberritzeetan erabiltzen baita. Artzain-legea da, zalantzarik gabe, herri txiki bretoiren batetik datorrena, edo germaniar herriren batek ekarria. Zesar eta Tazitori esker dakigu germaniarrek gutxi lantzen zutela lurra.

## **XXII. KAPITULUA**

### **Herri germaniarren lege zibil batez.**

Hauxe azalduko dut hemen: zer-nolako zerikusia duen lege salikoaren testu partikular horrek, hain zuzen lege saliko deitu ohi zaionak, lurra lantzen ez zuen – edo gutxi lantzen zuen– herri baten instituzioekin.

Lege salikoaren arabera<sup>134</sup>, gizon batek haurrak dituenean, gizonezkoek jasotzen dute lur salikoa oinordekotzan, emakumeen kaltetan.

Lur salikoak zer ziren jakiteko, aztertu behar da nolakoa zen frankoen artean, Germaniatik irten aurretik, lurraren jabetza edo erabilera.

Echard-ek oso ondo frogatu du saliko hitza "etxe" esan nahi duen sala hitzetik datorrela, eta lur salikoa etxeko lurra zela. Ni harantzago joango naiz: germaniarrentzat etxea eta etxeko lurra zer ziren aztertuko dut.

"Ez ziren hirietan bizi", dio Tazitok<sup>135</sup>, "eta ezin dute eraman etxeak elkar ukitzen egotea; bakoitzak lur-zati edo tarte bat uzten du bere etxearen inguruan, hesitua". Tazito zehatz ari zen. Izan ere, kode barbaroen hainbat lege<sup>136</sup> xedapenak dituzte esparru horiek bota eta etxeetan sartzen zirenen kontra.

Badakigu, Tazito eta Zesarri esker, germaniarrek lantzen zituzten lurak urtebeterako ematen zitzaizkiela, eta aldi horren ondoren lur publiko bihurtzen zirela. Ez zuten etxea eta etxearen inguruko lur-zatia beste ondarerik<sup>137</sup>. Ondare hori gizonezkoena zen. Izan ere, emakumeak beste etxe batera pasatzen baziren, zergatik izan behar zuen emakumeena?

Lur salikoa, beraz, germaniarraren etxe inguruko esparru hori zen; horixe zen haren jabetza bakarra. Frankoek, konkistaren ondoren, jabetza berriak hartu zituzten, eta lur saliko deitu zieten haiei ere.

Frankoak Germanian bizi zirenean, haien ondasunak esklaboak, abere-taldeak, zaldiak, armak eta abar ziren. Etxea eta etxeari atxikitako lur-zatitxoak bertan bizi behar zuten mutilei ematen zitzaien. Baina konkistaren ondoren, frankoek lur asko lortu zituztenean, gogorra egin zitzaien emakumeek eta beren haurrek parte bat berena ez izatea. Usadio bat sortu zen, aita alaba eta alabaren haurrak oinordeko egiteko bidea ematen zuena. Isilarazi egin zen legea; eta oinordetze-era horiek arrunt bilakatu ziren, noski, hartarako formulak egin zirelako<sup>138</sup>.

Formula horien guztien artean, bat oso bitxia iruditze zait<sup>139</sup>: aitona batek bere bilobak izendatzen ditu seme eta alabekin batera oinordeko izateko. Zer gertatu zitzaion, bada, lege salikoari? Badirudi garai hartan ez zitzaizkiola jarraitu,

edo alabak oinordeko izendatzeko usadio etengabeak kasu arrunt bihurtu zuela oinordeko izateko zuten gaitasuna.

Lege salikoaren xedea ez zen sexu baten aldeko lehentasuna ezartzea, eta are gutxiago familiaren, izenaren edo lur-jarauntsiaren transmisioa ezartzea; hori guztia ez zitzaien sartzen buruan germaniarrei. Lege ekonomiko hutsa zen, etxea eta etxeari zegokion lurra bertan bizi behar zuten eta, beraz, gehien komeni zitzaien gizonezkoei ematen ziena.

Aski da lege salikoaren Alodioez izeneko titulua, testu ospetsu hori, hainbeste jenderen hizpide izana baina hain gutxik irakurria, hona aldatzea:

1. "Gizon bat haurrik gabe hiltzen bada, aita edo ama izango ditu oinordeko. 2. Aita-amarik ez badu, anaia edo arreba izango ditu oinordeko. 3. Anai-arrebarik ez badu, amaren ahizpa izango du oinordeko. 4. Amak ahizparik ez badu, aitaren arreba izango du oinordeko. 5. Aitak arrebarik ez badu, gizonezkoken lerroan seniderik hurbilena izango du oinordeko. 6. Lur salikoaren ezein parte<sup>140</sup> ez da pasatuko emakumeengana; gizonezkoena izango da, hau da, haur gizonezkoak izango dira aitaren oinordeko".

Argi dago lehen bost artikulua haurrik gabe hiltzen denari dagozkiola; eta seigarrena, haurrak dituen oinordekotzari.

Gizon bat haurrik gabe hiltzen zenean, legeak bi sexuetako batek kasu batzuetan bestearen aldean lehentasunik ez izatea agintzen zuen. Oinordekotzaren lehen bi graduetan, gizonezkoen eta emakumeen abantailak berberak ziren; hirugarren eta laugarrenean, emakumeek zuten lehentasuna; eta bosgarrenean gizonezkoek.

Bitxikeria horien hazia Tazitogan aurkitu dut. "Osabak", dio hark<sup>141</sup>, "aitak bezala maite ditu arreben haurrak. Badira lotura hori estuagotzat eta are santuagotzat daukatenak ere, eta nahiago izaten dute bahiak hartzen dituztenean". Horregatik hitz egiten digute hainbeste gure lehen historialariek<sup>142</sup> errege

frankoek arrebari eta arrebaren hurrei zieten maitasunaz. Arreben haurrak etxean norberaren seme-alabatzat jotzen baziren, bidezkoa zen hurrek izeba ere amatzat hartzea.

Amaren ahizpak lehentasuna zuen aitaren arrebaren aldean; lege salikoko beste testu batzuek azaltzen dute hori. Emakume bat alarguntzen zenean<sup>143</sup>, senarraren gurasoen babesean geratzen zen; legeak, babes horretarako, nahiago zituen emakumeen bidezko senideak gizonezkoen bidezko senideak baino. Izan ere, familia batean sartzen zen emakume bat, bere sexuko pertsonekin batzean, lotuago zegoen emakumeen bidezko senideekin, gizonezkoen bidezko senideekin baino. Are gehiago: gizon batek<sup>144</sup> beste bat hiltzen zuenean, eta hutsegiteagatik diru-zigorra ordaintzeko ez zeukanean, legeak bere ondasunak ematea onartzen zion, eta gurasoek ordaindu behar zioten hartzekodunari. Aitaren, amaren eta anaiaren ondoren, amaren ahizpa zen ordaintzailea, lotura hori samurragoa bailitzan-edo. Alabaina, kargak ematen zituen senidetzak abantailak ere eman behar zituen.

Lege salikoak agintzen zuen aitaren arrebaren ondoren gizonezkoen bidezko seniderik hurbilenak izan zezala oinordekotza; baina bosgarren gradua baino harantzagoko senidea bazen, ez zuen oinordekotzarik. Hala, bosgarren graduko emakume bat oinordeko izango zen seigarren graduko gizonezko baten kaltetan; eta halaxe ageri da Rhin aldeko frankoen legean<sup>145</sup>. Lege hori lege salikoaren interprete leiala da alodioei buruzko tituluan, non urratsez urrats jarraitzen baitzaio lege salikoko titulu berari.

Aitak haurrak uzten bazituen, lege salikoak alabak lur salikoaren oinordekotzatik at gera zitezela agintzen zuen, eta lurra semeena izan zedila.

Erraz frogatu ahal izango dut lege salikoak ez dituela besterik gabe alabak lur salikotik at uzten, nebek kanpo utziko lituzketen kasuan bakarrik. Hori ageri da lege salikoan bertan: lur salikoaren jabe emakumeak ez, gizonezkoak bakarrik



izango direla esan ondoren, bere burua interpretatu eta mugatzen du: "alegia", dio, "semea izango da aitaren oinordeko".

2. Lege salikoaren testua Rhin aldeko frankoen legeak argitzen du: alodioen titulu bat du<sup>146</sup>, lege salikoarekin guztiz bat datorrena.

3. Herri barbaro horiek guztiek Germanian dute jatorria, eta horien legeek batzuek besteak interpretatzen dituzte; izan ere, denek izpiritu berbera baitute. Saxoniarren legeak<sup>147</sup> aita-amek beren ondasunak semeari uzteko agintzen du, ez alabari; baina semerik ez bada, alabak izan daitezela oinordeko.

4. Antzinako bi formula ditugu<sup>148</sup>, lege salikoaren arabera mutilek neskak noiz baztertzen dituzten argitzen dutenak: nebarekin lehian gertatzen direnean.

5. Beste formula batek<sup>149</sup> frogatzen du alaba zela oinordeko, bilobaren kaltetan; beraz, semeak bestek ez zuen baztertzen.

6. Baldin eta alabak, lege salikoaren arabera, kasu guztietan baztertu balira lurren oinordekotzatik, ezinezko zatekeen emakumeek lehen belaunaldian zituzten lurrez eta ondasunez etengabe mintzatzen diren historia, formula eta gutunak azaltzea.

Huts egin dute lur salikoak feudoak zirela esan dutenek<sup>150</sup>. 1. Titulu horrek "Alodioez" du izena. 2. Hasieran feudoak ez ziren jarauntsiak. 3. Lur salikoak feudo izan balira, nola joko zuen Markulfok adeigabetzat emakumeak oinordeko izatea galarazten zuen ohitura, gizonezkoek berek ere ez bazituzten feudoak oinordekotzan jasotzen? 4. Lur salikoak feudoak zirela frogatzeko aipatzen diren gutunek lur frankoak zirela besterik ez dute frogatzen. 5. Feudoak konkistaren ondoren ezarri ziren, eta usadio salikoak baziren frankoak Germaniatik abiatu baino lehen. 6. Feudoak ez zituen lege salikoak ezarri, emakumeen oinordekotza mugatuz; aitzitik, feudoak ezarritakoan ipini zitzaizkien mugak emakumeen oinordekotzari eta lege salikoaren xedapenei.

Esan berri dugunaren ondoren, sinesgaitza dirudi Frantziako koroaren oinordekotza gizonezkoena izatea lege salikotik etor daitekeenik. Hala ere, handik dator, inolako zalantzarik gabe. Herri barbaroen kodeen bitartez frogatuko dut. Lege salikoak<sup>151</sup> eta burgundiarren legeak<sup>152</sup> ez zieten eman alabei beren nebekin batera lurraren oinordeko izateko eskubidea; koroaren oinordeko ere ez ziren izan. Bisigodoen legeak<sup>153</sup>, aitzitik, onartzen du alabek<sup>154</sup> beren nebekin batera lurraren oinordeko izateko duten eskubidea; emakumeak koroaren oinordeko izan zitezkeen. Herri horietan, lege zibilaren xedapenak behartu zuen<sup>155</sup> lege politikoa.

Frankoen artean, ez zen hori izan lege politikoak lege zibilari men egin zion kasu bakarra. Lege salikoaren xedapenaren arabera, anaia guztiak lurraren oinordeko ziren, berdin, eta horixe zen burgundiarren legearen xedapena ere. Orobat, frankoen monarkian eta burgundiarrenean, anaia guztiak ziren koroaren oinordeko, burgundiarren artean izandako zenbait bortizkeria, hilketa eta usurpazio gorabehera.

### **XXIII. KAPITULUA**

#### **Errege frankoen ile luzeaz.**

Lurra lantzen ez duten herriek ez dute luxuaren ideiarik ere. Ikustekoa da, Tazitoren obran, herri germaniarren sinpletasun miresgarria: arteak ez ziren saiatzten beren apaingarriak bilatzen; naturan aurkitzen zituzten. Buruzagiaren familia zeinuren batez nabarmendu behar bazen, naturan bertan bilatzen zuten zeinu hori: frankoen erregeek, burgundiarrenek, bisigodoenek, ile luzea zuten diadematzat.

### **XXIV. KAPITULUA**

#### **Errege frankoen ezkontzez.**

Gorago esan dudanez, lurra lantzen ez zuten herrietan, ezkontzak ez ziren hain finkoak, eta gizonek zenbait emazte hartu ohi zituzten. "Germaniarrak ia bakarrak ziren<sup>156</sup> barbaro guztien artean emazte bakar bat askiesten", dio Tazitok, "zenbait pertsonaren kasuan salbu<sup>157</sup>: horiek, ez lizunkeriaz, baizik eta beren nobleziaren kariaz, zenbait emazte zituzten".

Horrek azaltzen du nola lehen dinastiako erregeek emazte asko izan zituzten. Ezkontza haiek, inkontinentziaren agerpide baino gehiago, duintasunaren ezaugarri ziren: pribilegio hori kendu izan balitzaie, muin-muinean zaurituta geratuko ziratekeen<sup>158</sup>. Horrek azaltzen du, halaber, sujetak ez zitzaizkiola jarraitu erregeen etsenpluari.

## **XXV. KAPITULUA**

### **Txilderiko.**

"Germaniarren artean, ezkontzak finkoak dira", dio Tazitok<sup>159</sup>, "bizioak ez dira gai irrigarria; norbait galbidean jartzea, edo norbera galbideratzea, ez dute usadiotzat edo bizimodutzat hartzen; ezkontza-fedearen hausturaren etsenplu gutxi<sup>160</sup> dira hain nazio jendetsuan".

Horrek azaltzen du Txilderiko erregetzatik bota izana: ohitura zurrunen kontra joan zen, artean konkisten ondorioz ohiturok aldatzeko astirik izan ez zelarik.

## **XXVI. KAPITULUA**

### **Errege frankoen adin-nagusitasunaz.**

Lurra lantzen ez duten herri barbaroek ez dute lurralderik, zehazki hitz eginez; eta jendeen zuzenbidez gobernatzen dira, esan dugunez, zuzenbide zibilaz baino areago. Beraz, armatuta dabilta ia beti. Tazitok ere hala dio: "Germaniarrak ez dira inolako eginkizun publiko edo partikularretan sartzen armatu gabe"<sup>161</sup>. Armez egiten zuten keinu baten bidez ematen zuten beren iritzia<sup>162</sup>. Eramateko gai ziren unetik, batzarraren aurrean aurkezten zituzten<sup>163</sup>; xabalina bat jartzen zieten eskuetan<sup>164</sup> eta, une hartatik aurrera, haurtzaroa uzten zuten<sup>165</sup>; ordura arte familiakide izandakoak, errepublikako kide bihurtzen ziren.

"Arranoek", zioen ostrogodoen erregeak<sup>166</sup>, "ez diete janaririk ematen beren umeei hauek lumak eta atzaparrak dituzten unetik aurrera; ez dute besteren laguntzaren beharrik harrapakinen baten bila doazenean. Ez litzateke duina gure armadan diren gazteak beren ona gidatzeko eta beren jokabidea arautzeko ezgaitzat jotzea. Bertuteak ematen du adin-nagusitasuna godoen artean".

Txildeberto II.ak hamabost urte zituen<sup>167</sup> bere osaba Gontranek adinez nagusi eta bere kabuz gobernatzeko gai deklaratu zuenean. Rhin aldeko frankoen legean ageri denez, adin horretan, hamabost urte, armak eramateko gaitasuna eta adin-nagusitasuna batera hasten ziren. "Baldin eta rhindar bat hil bada edo hil badute" esaten da<sup>168</sup>, "eta semea uzten badu, honek ezingo du eta ezingo diote auzirik jarri, hamabost urte bete arte; orduan berak erantzungo du, edo ordezkari bat aukeratuko du". Izpirituak epaiketa batean bere burua defendatzeko adina formatuta egon behar zuen, eta gorputzak borrokan defendatzeko adina. Burgundiarren artean ere<sup>169</sup>, haiek ere borrokaren usadioa baitzeukaten auzietan, adin-nagusitasuna hamabost urtetan hasten zen.

Agatiasek diosku frankoen armak arinak zirela; beraz, adinez nagusi izan zitezkeen hamabost urterekin. Geroago armak astun bihurtu ziren, eta Karlomagnoren garaian oso astunak ziren, gure kapitular eta eleberrietan ageri

denez. Feudoak eduki<sup>170</sup> eta, beraz, soldadutza egin behar zutenak, ez ziren adinez nagusi hogeita bat urte bete arte<sup>171</sup>.

## **XXVII. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Ikusi denez, germaniarren artean ez zegoen batzarrera joaterik adinez nagusi izan baino lehen; une horretara arte, familiakide ziren, ez errepublikakide. Horregatik Klodomiros, Orleanseko errege eta Borgoniaren konkistatzailearen haurrak ez zituzten deklaratu errege, zeren eta, ume txikiak zirenez, ezin baitziren batzarraren aurrera azaldu. Artean ez ziren errege, baina izan behar zuten armak eramateko gai izango zirenean; eta hala ere Klotilde amonak gobernatu zuen Estatua<sup>172</sup>. Haien osaba Klotario eta Txildebertok lepoa moztu zieten, eta erresuma banatu zuten. Etsenplu horregatik, handik aurrera tutorepeko printzeak errege deklaratu zituzten aita hil eta berehala. Hala, Gondobaldo dukeak salbatu egin zuen Txildeberto II.a Txilperikoren ankerkeriatik, eta errege deklaratu zuen<sup>173</sup> bost urte zituenean.

Baina aldaketa horretan ere nazioaren lehen izpirituari jarraitu zitzaizkion: aktak ez ziren pasatzen tutorepeko erregeen izenean. Hartara, frankoen artean administrazio bikoitza izan zen: bat, tutorepeko erregeari buruzkoa; eta bestea, erresumari buruzkoa; eta feudoetan ere, aldea zegoen tutoretzaren eta bailegoaren artean.

## **XXVIII. KAPITULUA**

### **Seme-alabatzat hartzea germaniarren artean.**

Germaniarren artean, adinez nagusi armak hartzean bihurtzen zirenez, seme edo alabatza hartua izatea ere zeinu berberaren bidez egiten zen. Hala, Gontranek adinez nagusi deklaratu nahi izan zuen bere iloba Txildeberto, eta hura semetzat hartzeaz gainera, hauxe esan zion: "Xabalina hau jartzen dizut eskuan<sup>174</sup>, nire erresuma ematearen adierazgarri". Eta batzarrari zuzenduz: "Ikusten duzue nire seme Txildeberto gizon bilakatu dela; obedi iezaiozue". Teodorikok, ostrogodoen erregeak, heruloen erregea semetzat hartu nahi zuelarik, hauxe idatzi zion<sup>175</sup>: "Gauza ederra da, gure artean, armen bidez semetzat hartua izatea; izan ere, gizon bihoztoiak dira gure seme bihurtzea merezi duten bakarrak. Hain indar handia dago ekintza horretan, non horrelakoa egiten zaionak nahiago izango baitu hil, ezer lotsagarriarik jasan baino lehen. Hala, nazioen ohituraz, eta gizon zarelako, semetzat hartzen zaitut bidaltzen dizkizudan ezkutu, ezpata, zaldi hauen bidez".

## **XXIX. KAPITULUA**

### **Errege frankoen izaera odolzalea.**

Klodoveo ez zen izan printze bakarra, frankoen artean, Galietara espedizioak egiten; haren zenbait senidek eramanak zituzten tribu batzuk hara. Baina arrakasta handiagoa izan zuenez, jarraitzaileei lur asko eman zizkienez, frankoek tribu guztietatik jo zuten harengana, eta beste buruzagiak ahulegi izan ziren hari aurre egiteko. Bere etxe osoa sarraskitzeko asmoa hartu zuen, bai eta halaxe egin ere<sup>176</sup>. Beldur zen, dio Gregorio Tourskoak<sup>177</sup>, frankoek ez ote zuten beste erregeren bat hartuko. Haren haurrak eta ondorengoak ohitura horri jarraitu zitzaizkion ahal izan zuten guztietan; etengabe ageri zaizkigu anaia, osaba, iloba, zer diot?, semea, aita, familia osoaren kontra konspiratzen. Legeak etengabe banatzen zuen monarkia; beldurak, anbizioak eta ankerkeriak bildu egin nahi zuten.

### **XXX. KAPITULUA**

#### **Nazioaren batzarrak frankoen artean.**

Esan dut gorago lurra lantzen ez duten herriek libertate handia izan ohi dutela. Germaniarrek ere bai. Tazitok diosku oso botere mugatua ematen omen zieten beren errege edo buruzagiei<sup>178</sup>; eta Zesarrek<sup>179</sup>, ez zutela denentzako magistraturik bake-garaian, baizik eta herrixka bakoitzean printzeek egiten zutela justizia beretarren artean. Frankoek ere, Germanian, ez zuten erregerik, Gregorio Tourskoak oso ondo frogatzen duenez<sup>180</sup>.

"Printzeek<sup>181</sup>", dio Tazitok, "gauza txiki horietaz deliberatzen dute, eta nazio osoak gauza handiez; baina herriak bideratzen dituen arazoak ere printzeen aurrera eramaten direlarik, beti ere". Usadio hori gorde egin zen konkistaren ondoren, iturri guztietan ageri denez<sup>182</sup>.

Tazitok<sup>183</sup> dio delitu larriak batzarraren aurrera eraman zitezkeela. Gauza bera gertatu zen konkistaren ondoren ere, eta sujet nagusiak han epaitu zituzten.

### **XXXI. KAPITULUA**

#### **Elizgizonen aginteaz, lehen dinastian.**

Herri barbaroetan, apaizek gehienetan boterea izan ohi dute, erlijiotik datorkien agintea eta halako herrietan superstizioak ematen duen ahalmena edukitzen dituztelako. Tazitok dioskunez, esate baterako, apaizek sinesgarritasun handia zuten germaniarren artean, eta ordena ezartzen zuten herri-batzarrean.<sup>184</sup> Beste inork ezin zuen zigortu<sup>185</sup>, atxitu, jipoitu, eta hori, ez printzearen aginduz, ez eta zigorra ezartzearen; Jainkoaren inspirazio batengatik-edo egiten zuten, hura beti izaten baita gerra egiten dutenekin.

Ez da harritzekoa apezpikuak, lehen dinastiatik, auzietan epaile izatea<sup>186</sup>,  
nazioaren batzarretan agertzea, erregeen erabakietan hain eragin handia izatea, eta  
hainbeste ondasun jasotzea.



## XIX. LIBURUA

### LEGEEZ, NAZIO BATEN IZPIRITU OROKORRA, OHITURAK ETA

### MANERAK ERATZEN DITUZTEN PRINTZPIOEKIN DUTEN

### ZERIKUSIAREN ALDETIK

## LEHEN KAPITULUA

### Liburu honetako gaiaz.

Gai hau oso zabala da. Nire izpirituari agertzen zaion ideia-ugaritasun honetan, arreta gehiago eskainiko diot gauzen ordenari, gauzei berei baino. Beharrezko izango dut gauzak ezker-eskuin uztea, bereiztea, bidea irekitzea.

## II. KAPITULUA

### Zein beharrezko den izpirituak legerik onenetarako prest egotea.

Germaniarrei ezer ez zitzaien jasanezinago iruditu<sup>187</sup>, Varoren epaimahaia baino. Justinianok laziotarren artean haien erregearen hiltzailea epaitzeko eratu zuen epaimahaia<sup>188</sup> gauza izugarri eta barbaroa iruditu zitzaien bertakoei. Mitridatesek<sup>189</sup>, erromatarren kontrako harengetan, beren justiziaren formaltasunak<sup>190</sup> aurpegiratzen dizkie batez ere. Partiarrek ezin izan zuten jasan Erroman hezia izan eta denekin atsegina<sup>191</sup> eta abegitsua zen errege hura. Libertatea bera ere eramanezina iruditu zaie hartaz gozatzen ohitu gabeko herriei. Aire garbia ere, batzuetan, kaltegarria izaten dute padura aldeetan bizi izandakoek.

Balby izeneko veneziar bat, Pegun zegoelarik<sup>192</sup>, erregearen aurrera eraman zuten. Honek Venezian erregerik ez zela jakin zuenean, barre-algara batean hasi

zen, eta ezulka hasi eta kortesanoei hitz egin ezinean gertatu zen. Zein legegilek proposatuko lieke herri-gobernua halako herriei?

### **III. KAPITULUA**

#### **Tiraniaz.**

Bi tirania-mota daude: bat erreala, gobernuaren indarkerian datzana; eta beste bat iritzizkoa, gobernatzen dutenek nazio baten pentsaeraren kontra doazen gauzak ezartzen dituztenean sentiarazten dena.

Dionek azaltzen digunez, Augustok Romulo dei ziezaioten nahi izan zuen, baina herria hura errege bihurtuko ote zen beldur zela jakinik, asmoz aldatu omen zen. Lehen erromatarrek ez zuten erregerik nahi, ezin zutelako eraman haren boterea; garai hartako erromatarrek ere ez zuten erregerik nahi, haren ohiturak jasan ez izateko. Izan ere, nahiz eta Zesar, triunbiroak, Augusto, benetako erregeak izan, berdintasun-itxura gorde zuten, eta haien bizitza pribatuan halako kontrajarren bat zegoen orduko erregeen handikeriarekiko; eta erregerik nahi ez bazuten, horrek esan nahi zuen beren usadioak gorde nahi zituztela, Afrikako eta Ekialdeko herrienak hartu gabe.

Dionek<sup>193</sup> diosku herri erromatarra suminduta zegoela Augustoren kontra, hark egindako zenbait lege gogorregi zela medio; baina bandoek hiritik botatako Pilades komediagilea etorerrarazi bezain laster, atsekabea desagertu egin zela. Halako herri batek biziago sentitzen zuen tirania pailazo bat botatzen zutenean, lege guztiak kentzen zitzaizkionean baino.

### **IV. KAPITULUA**

#### **Izpiritu orokorra zer den.**

Gauza askok gobernatzen dituzte gizonak: klimak, erlijioak, legeak, gobernuaren arauak, iraganeko gauzen etsenpluek, ohiturek, usadioek, eta horien guztien ondorio da izpiritu orokorra.

Nazio bakoitzean, kausa horietako bat indartu ahala, besteek neurri horretan egiten dute atzera. Natura eta klima dira nagusi, ia bakarrik, basatien artean; usadioek gobernatzen dituzte txinatarrek; legeak zapaltzen dute Japonia; antzina ohiturek markatzen zuten jokabidea Lazedemonian; gobernuaren arauak eta antzinako ohiturek, berriz, Erroman.

## **V. KAPITULUA**

***Zein arreta handia jarri behar zaion nazio baten izpiritu orokorra ez aldatzeari.***

Munduan umore gizartekoia, bihotz-zabaltasuna, bizi-poza, gustua, pentsamenduak komunikatzeko erraztasuna lukeen herririk balitz; bizia, atsegina, alaia, inoiz ausartegia, maiz zuhurtziagabea; eta horrekin batera adorea, eskuzabaltasuna, egiatasuna, ohore-puntu bat lituzkeena; horiek horrela izatera, ez litzaizkioke legeen bidez oztopatu behar usadioak, bertuteak ez oztopatzeko. Baldin eta izaera, oro har, ona bada, zer axola dio akats batzuk izatea?

Balegoke emakumeak katea motzagoz lotzea, haien ohiturak aldatzeko eta luxua mugatzeko legeak egitea; baina nork daki ez ote litzatekeen horrekin batera galduko nazioaren aberastasunen iturri zen gustu pixka bat eta atzerritarrak bertara erakartzen dituen kortesia?

Legegileari dagokio nazioaren izpirituari jarraitzea, hori gobernuaren printzipioen kontra ez doanean; izan ere, libre eta geure jitearen arabera egiten duguna baino hobeto ez dugu ezer egiten.

Berez alaia den nazio bati pedanteria-izpiritu bat ematen bazaio, Estatuak ez du ezer irabaziko horrekin, ez barrura ez kanpora begira. Utz bekio gauza friboloak serio egiten, eta alaiki gauza serioak.

## **VI. KAPITULUA**

### **Ez dela dena zuzendu behar.**

Honela zioen zirriboratu berri dugun nazioaren antz handia zuen nazio bateko aitoren seme batek: "Utz biezagute garen bezalakoak izaten". Naturak dena konpontzen du. Irain egiteko adinako bizitasuna eman digu, eta begirada guztiei ixkin egiteko modukoa; bizitasun hori, naturak ematen digun kortesiak zuzentzen du, munduarekiko eta, batez ere, emakumeekiko tratua gogoko eginez.

Utz biezagute garen bezalakoak izaten. Gure tasun zuhurtziagabeek, malezia urriarekin batera, gizarte-umorea sortzen zuten legeak gure artean komenigarri ez izatea dakarte.

## **VII. KAPITULUA**

### **Atenastarrez eta lazedemoniarrez.**

Atenaskoa, egiten zuen aitoren seme hark, gure herriarekin zerikusirik bazuen herria zen. Alaitasunez ekiten zien bere arazoei; tribunan bezala, antzokian ere gogoko zuen broma. Aholkuetan jartzen zuen bizitasun hori, gauzak egitean ere bazuen. Lazedemoniarren izaera grabea zen, serioa, lehorra, goibela. Atenastar bat asperrarazita inork ez luke gehiago aterako, lazedemoniar bat dibertituta baino.

## **VIII. KAPITULUA**

### Umore gizartekoiaren ondorioak.

Zenbat eta herriak harreman gehiago izan elkarrekin, hainbat eta errazago aldatzen zaizkie usadioak, zeren eta bakoitza ikuskizuna baita bestearentzat, eta hobeto ikusten dira norbanakoen berezitasunak. Nazio bati harremanak izateko gogoia ematen dion klimak, aldatzeko gogoia ere ematen dio; eta nazio bati aldatzeko gogoia ematen dionak, gustua hezi ere egiten dio.

Emakumeekiko harremanek kalte egiten diete ohiturei, eta gustua formatzen dute; besteak baino gehiago gustatzeko gogoak apaindurak ezartzen ditu, eta norbera baino gehiago gustatzeko gogoak modak ezartzen ditu. Modak gauza garrantzitsua dira: izpiritua fribolo bihurtzearen bidetik, etengabe luzatzen dira merkataritzaren adarrak<sup>194</sup>.

## IX. KAPITULUA

### Umore gizartekoiaren ondorioak.

Handikeria gobernu baterako baliabide ona den bezala, arriskutsua da harrokeria. Hori ikusteko, aski da handikeriatik etortzen diren on kontaezinak gogoratzea: luxua, industria, modak, kortesia, gustua; eta beste aldetik, zenbait nazioaren harrokeriatik sortzen diren gaitz amaigabeak: alferkeria, pobrezia, guztia bere hartan uztea, beren eskuetan eroritako nazioak suntsitzea, norberarena ere suntsitzea. Alferkeria<sup>195</sup> harrokeriaren ondorio da; lana handikeriaren segida; espainiar baten harrokeriak lanik ez egitera eramango du; frantses baten handikeriak, berriz, besteak baino hobeto lan egiten jakitera eramango du.

Nazio alfer oro serioa da; izan ere, lanik egiten ez dutenek lan egiten dutenen subiranotzat baitaukate beren burua.

Azter itzazue nazio guztiak, eta kusiko duzue seriotasuna, harrokeria eta alferkeria batera doazela gehienetan.

Achingo herriak<sup>196</sup> harroak eta alferrak dira: esklaborik ez dutenek alokatu egiten dute bat, ehun urratseko bidean bi pinta arroz eramateko besterik ez bada ere; ohoregabetuak sentituko lirateke berek eramanez gero.

Lurreko zenbait bazterretan, azkazalak hazten uzten dituzte, lanik ez dutela egiten erakusteko.

Indietako emakumeek<sup>197</sup> uste dute berentzat lotsagarria dela irakurtzen ikastea; hori pagodetan kantatzen duten esklaboek gauza omen da. Kasta batean, ez dute iruten; beste batean, saskiak eta zerriak besterik ez dituzte egiten, ezin dute ezta arroza txikitu ere; beste batzuetan, ezin dute ur bila joan. Harrokeriak bere arauak ezarri ditu, eta horiek bete beharra dago. Ez dago esan beharrik tasun moralek ondorio desberdinak dituztela, beste batzuei lotuta badaude; esate baterako, harrokeriak, handikeria handiarekin batera, ideien handitasunarekin eta abar, ezagunak diren ondorioak ekarri zituen erromatarren artean.

## **X. KAPITULUA**

### **Espainiarren izaeraz, eta txinatarrenaz.**

Nazioen izaerak bertutez eta akatsez eginak dira, tasun on eta txarrez. Nahasketa zorionekoak on handiak dakartzatenak dira, eta sarritan susmatu ere ezin daitezke egin; beste batzuetatik kalte handiak etortzen dira, susmaezinak horiek ere.

Espainiarren fede ona famatua izan da betidanik. Justinok<sup>198</sup> gordailuak gordetzean zuten leialtasunaz hitz egiten digu; askotan heriotza ere jasan izan dute sekretuak gordetzearen. Behinola zuten leialtasun hori, gaur ere badute. Cadizen merkataritzan aritzen diren nazio guztiek espainiarren eskuetan uzten dute beren

fortuna, eta inoiz ez dira damutu horregatik. Baina tasun miresgarri horrek alferkeriarekin batera eratzen duen nahasketak ondorio kaltegarriak dakarzkie: Europako herriek egiten dute, haien begi-bistan, monarkia horretako merkataritza guztia.

Txinatarren izaerak bestelako nahasketa egiten du, espainiarren izaeraren kontrakoa. Txinatarren bizimodu badaezpadakoa<sup>199</sup> dela medio, ekin eta ekin ari dira etengabe, eta irabazteko hain gogo handia dute, non ezein nazio merkatariz ezin fida baitaiteke haietaz<sup>200</sup>. Leialtasun falta ezagun horri esker, gorde egin dute Japoniarekiko merkataritza; Europako negoziogizon bakar bat ere ez da ausartu bere izenean egiten, nahiz eta erraztasun handiak izan Txinako iparraldeko itsas probintzietatik merkataritzari ekinez gero.

## **XI. KAPITULUA**

### **Gogoeta.**

Ez dut esan hau akatsen eta bertuteen artean den tarte izugarria inolaz ere txikiagotzeko: Jainkoari nahi ez dakiola! Zera besterik ez dut erakutsi nahi izan: akats politiko guztiak ez direla akats moralak, eta akats moral guztiak ez direla akats politikoak; eta horixe ez dute ahaztu behar izpiritu orokorraren kontra doazen legeak egiten dituztenek.

## **XII. KAPITULUA**

### **Estatu despotikoko usadio eta ohiturez.**

Arau nagusia da Estatu despotiko batean inoiz ez direla ohiturak eta usadioak aldatu behar; beste ezerk ez luke bizkorrago ekarriko iraultza. Izan ere,

estatu horietan ez da legerik, nolabait esateko; ohiturak eta usadioak besterik ez dago, eta hori itzulipurdikatuz gero, dena itzulipurdikatzen da.

Legeak ezarri egiten dira; ohiturak, berriz, inspiratu. Hauek hobeto atxikitzen zaizkio izpiritu orokorrari; haiek, hobeto egokitzen zaizkio instituzio partikular bati. Alabaina, instituzio partikular bat aldatzea bezain arriskutsua da, edo arriskutsuagoa, izpiritu orokorra itzulipurdikatzea.

Harreman gutxiago dago pertsona bakoitzak, dela nagusi, dela mendeko gisa, botere arbitrarioa erabiltzen eta jasaten duen herrialde batean, libertatea gisa guztietan nagusi den haietan baino. Beraz, gutxiago aldatzen dira usadioak eta ohiturak; usadio finkoenak legeei hurbiltzen zaizkie; hortaz, printze edo legegile batek munduko beste edozein herrialdetan baino aukera gutxiago dauka han ohitura eta usadioen kontra joateko.

Emakumeak giltzapean egon ohi dira han, eta ez daukate beren manierak erakutsi beharrik. Beste herrialdeetan, gizonekin bizi direlarik, gustatzeko duten gogoak, eta haien gustua egiteko dagoen gogoak, usadioak etengabe aldatzea dakarte. Bi sexuen kaltetan da hori, batak eta besteak bakoitzaren tasun bereizgarria eta funtsezkoa galtzen baitute: arbitrario bihurtzen da absolutu zena, eta usadioak egunero aldatzen dira.

### **XIII. KAPITULUA**

#### **Usadioez, txinatarren artean.**

Baina Txinan usadioak suntsiezinak dira. Emakumeak gizonezkoengandik erabat aparte bizitzeaz gainera, eskoletan usadioak eta ohiturak irakasten dira. Letratu bati<sup>201</sup> erreberentzia egiteko modu errazagatik igartzen zaio. Gauza horiek, behin doktore itzaltsuek manu gisa eman eta gero, moral-printzipioak bezala finkatzen dira, eta ez dira aldatzen.



#### XIV. KAPITULUA

##### *Zein diren nazio bateko ohiturak eta usadioak aldatzeko bitarteko naturalak.*

Esan dugu legeak legegilearen instituzio partikular eta zehatzak zirela, eta ohiturak nazioaren instituzioak, oro har. Hortik zera ondorioztatzen da, ohiturak eta manierak aldatu nahi direnean, ez dagoela legeak aldatu beharrik; larderia handiegia litzateke hori; hobe da beste ohitura eta manera batzuen bidez aldatzea.

Hala, printze batek bere nazioan aldaketa handiak egin nahi dituenean, lege ezarrita dagoena legeen bidez erreformatu beharra dauka, eta manerez ezarrita dagoena maneren bidez; eta oso politika txarra da maneren bidez aldatu behar dena legeen bidez aldatzea.

Moskoviarrak bizarra eta jantziak moztera behartzen zituen legea, eta Pedro I.aren indarkeria –hirietan sartzen zirenen jantzi luzeak belaunetaraino motzarazten baitzituen– gehiegizkoak ziren. Badira delituak galarazteko bideak: zigorrak; baita manierak aldatzeko bideak ere: etsenpluak.

Nazio hori hain bizkor eta erraz zibilizatu izanak ondo asko erakutsi du zein iritzi txarra zuen printze horrek hartaz, eta herri haiek ez zirela animaliak, berak zioen bezala. Erabili zituen bitarteko bortitzak alferrekoak ziren; helburu bera lortuko zukeen leuntasuna erabilita ere.

Hark berak probatu zuen aldaketa horien erraztasuna. Emakumeak giltzapean zeuden, eta esklaboen gisan; gortera deitu zien, alemaniarren erara jantziarazi, eta ehunak bidali zizkien. Sexu horrek lehen aldiz probatu zuen bere gustuari, handikeriari eta grinei hain bortizki eragiten zien bizimodua, eta gizonezkoei probarazi zien.

Gauza batek erraztu zuen aldaketa: ordura arteko ohiturak arrotzak zitzaizkion klimari, eta nazioen nahasketa eta konkistek eramanak zituzten hara. Pedro I.ak Europako nazio bati Europako manierak eta ohiturak emanez, berak ere espero ez zituen erraztasunak aurkitu zituen. Klimaren ahala, ahal guztietan lehena da. Beraz, ez zuen legeen beharrik bere nazioko ohiturak eta manierak aldarazteko; aski zukeen beste ohitura eta manera batzuk iradokitzea.

Oro har, herriak oso atxikita egon ohi dira beren ohiturei; ohiturok indarkeriaz kentzea, herriak zorigaiztoko bihurtzea da; beraz, ez dira aldatu behar, baizik eta herriok bultzatu berek alda ditzaten.

Beharretik sortzen ez den neke oro larderia da. Legea ez da botere-ekintza hutsa; berez indifferente diren gauzak ez dagozkio.

## **XV. KAPITULUA**

### ***Etxeko gobernuak gobernu-era politikoan duen eragina.***

Emakumeen ohituren aldaketa horrek eragin handia izango du, zalantzarik gabe, Moskoviako gobernuan. Elkarrekin oso lotuta daude gauza guztiak: printzearen despotismoa berez dago emakumeen mendekotasunarekin lotuta; emakumeen libertatea, berriz, monarkiaren izpirituarekin.

## **XVI. KAPITULUA**

### ***Nola zenbait legegilek nahastu egin dituzten gizonak gobernatzen zituzten printzipioak.***

Ohiturak eta manierak legeek ezarri ez dituzten, edo ezarri ezin izan dituzten, edo ezarri nahi izan ez dituzten, usadioak dira.

Bada alde bat legeen eta ohituren artean: legeek gehiago arautzen dituzte hiritarraren ekintzak, eta ohiturek gehiago arautzen dituzte gizonaren ekintzak. Ohituren eta maneren artean, berriz, alde hau dago: lehenek gehiago begiratzen diote barne-jokabideari, eta bigarrenek kanpokoari.

Batzuetan, Estatu batean, gauza horiek nahastu egiten dira<sup>202</sup>. Likurgok kode bakar bat egin zuen lege, ohitura eta manerentzat, eta Txinako legegileek ere gauza bera egin zuten.

Ez da harritzekoa Lazedemoniako eta Txinako legegileek legeak, ohiturak eta manerak nahastu izana; izan ere, ohiturak legeen ordezkari dira, eta manerak ohiturenak.

Txinako legegileek herria lasai bizitzea zuten helburu nagusitzat. Gizonek elkarri begirune handia izatea nahi zuten; bakoitzak etengabe senti zezala asko zor ziela besteei, ez zela hiritarrik alde edo moldez beste hiritar baten mende ez zegoenik. Beraz, hedadurarik handiena eman zieten hiri-moldezko araei.

Esate baterako, herri txinatarretan, herriketako jendeak bere artean handikiek bezalako zeremoniak egiten dituela ikus daiteke<sup>203</sup>; oso bide egokia da hori herrian bakea eta ordena izateko, eta izpiritu-gogortasunetik datozen akats guztiak kentzeko. Izan ere, gizalegezko araei men ez egitea, ez al da norberaren akatsei bide emateko modurik onena?

Hiri-moldeak, alde horretatik, kortesia baino hobeak dira. Kortesiak haize ematen die besteen akatsei, eta hiri-moldeek galarazi egiten digute gure akatsak argitara ateratzea; gizonek, galbidean ez barrentzeko, beren artean jartzen duten hesi bat dira.

Likurgok, zeinen instituzioak gogorak baitziren, ez zituen hiri-moldeak helburutzat manerak eratu zituenean; bere herriari eman nahi zion borroka-izpiritua zeukan gogoan. Etengabe elkar zuzentzen aritzen ziren pertsona haiek,

etengabe irakasle eta ikasle, sinple bezain zurrin, bertuteak lantzen zituzten beren artean, begirunea baino gehiago.

## **XVII. KAPITULUA**

### ***Txinako gobernuaren ezaugarri berezia.***

Txinako legegileek gehiago egin zuten<sup>204</sup>: erlijioa, legeak, ohiturak eta manierak nahastu zituzten; dena zen morala, dena zen bertutea. Lau puntu horiei zegozkien aginduek, errito deitutakoa osatzen zuten. Errito haiek zehatz betetzean zetzan txinatarren gobernu-eraren garaipena. Gaztaro osoa pasatzen zuten haiek ikasten, bizitza osoa praktikatzen. Letratuek irakatsi egiten zituzten, magistratuek predikatu. Eta erritoek bizitzako ekintza txiki guztiak hartzen zituztenez, haiek zehazki betetzeko modua aurkitu zutenean, Txina ondo gobernatua izan zen.

Bi gauzak grabatu ahal izan zituzten erraz erritoak txinatarren bihotzean eta izpirituan: bat, haien idazkera guztiz bihurria, bizitzako zati handi bat izpiritua horretara osorik emana izatea eskatzen duena<sup>205</sup>, errito haiek zetozen liburuetan irakurtzen ikasi beharra zegoelako; bestea, erritoen aginduek izpiritualik ezer ez zutenez, praktika arrunteko arauak baizik, errazagoa dela izpirituak horien bidez konbentzitzea eta eragitea, gauza intelektualen bidez baino.

Printzeek, erritoen bidez ez baina suplizioen bidez gobernatzen baitzuten, berez eman ezin zutena atera nahi izan zieten suplizioei, hau da, ohiturak ematea. Suplizioek gizartetik aldenduko dute ohiturak galdu eta legeak hautsi dituen hiritar bat, baina ohiturak mundu guztiak galtzen baditu, berrezarriko ote dituzte? Suplizioek gaitz orokorraren ondorio asko geldiaraziko dituzte, baina ez dute gaitza bera zuzenduko. Hala, gobernu txinatarraren printzipioak baztertu zirenean, morala galdu zenean, Estatua anarkian erori zen, eta errebolta agertu ziren.

## XVIII. KAPITULUA

### Aurreko kapituluaren ondorioa.

Hortik zera dator, Txinak ez zituela konkistagatik galdu bere legeak, Ohiturak, manierak, legeak, erlijioa, gauza bera izanik, ezin da hori dena batera aldatu. Eta garaileak edo garaituak, bietako batek aldatu egin behar duenez, Txinan garaileak aldatu behar izan du beti; izan ere, haien ohiturak ez ziren haien manierak, manierak ez ziren legeak, eta legeak ez ziren erlijioa, eta errazago izan zuten herri garaituari egokitzea, herri garaitua berei egokitzea baino.

Hortik beste gauza triste bat ere badator: ia ezinezkoa da kristautasuna inoiz Txinan sustraitzea<sup>206</sup>. Birjintasun-botoak, elizetan emakumeen bilerak izatea, erlijioko ministroekiko harreman nahitaezkoak, sakramentuetan parte hartzea, bekaturen aitortza, oliadura, emakume bakar batekin ezkontzea: horrek denak itzulipurdikatu egiten ditu herrialde hartako ohiturak eta manierak, eta erlijioaren eta legeen kontra doa aldi berean.

Irudi luke erlijio kristauak, karitatea ezartzearekin, kultu publikoarekin, sakramentuetan parte hartzearekin, denak bat egitea eskatzen duela; errito txinatarren arabera, ordea, denak bereizi eta banatu egin behar luke.

Eta bereizte hori<sup>207</sup> despotismoaren izpirituari dagokiola ikusi den bezala, gobernu monarkikoa eta gobernu moderatu oro erlijio kristauarekin hobeto bateratzearen arrazoietakoa bat ikusiko da horretan<sup>208</sup>.

## XIX. KAPITULUA

### Nola egin den legeen, ohituren eta maneren batasun hori txinatarren artean.

Txinako legegileek inperioko lasaitasuna izan zuten gobernuaren xede nagusitzat. Mendekotasuna iruditu zitzaien hari eusteko biderik egokiena. Hau

dela eta, gurasoenganako begirunea inspiratu behar zutela iruditu zitzaien, eta indar guztiak bildu zituzten horretarako. Ezin konta ahala errito eta zeremonia ezarri zituzten, hala bizitzan nola hil eta gero, haiek ohoratzeko. Izan ere, ezinezkoa zen hildako gurasoak hainbeste ohoratzea, bizirik zeudenean ohoratu gabe. Hildako gurasoentzako zeremoniek zerikusi handiagoa zuten erlijioarekin; bizirik zeuden gurasoentzakoek, berriz, zerikusi handiagoa zuten legeekin, ohiturekin eta manerekin; baina kode beraren bi parte ziren, eta kode hori oso luzea zen.

Gurasoenganako begirunea lotuta zegoen, ezinbestean, haien ordezkoi izan zitezkeen guztiekin: zahar, nagusi, magistratu, enperadorearekin. Gurasoenganako begirune horrek haurrenganako maitasuna zekarren berekin, eta, ondorioz, maitasun bera zaharren aldetik gazteengana, magistratuen aldetik beren esanetara zeudenengana, enperadorearen aldetik mendekoengana. Horrek guztiak osatzen zituen erritoak, eta errito haiek nazioaren izpiritu orokorra osatzen zuten.

Ikus dezagun orain zer-nolako erlazioa izan dezaketen Txinako oinarrizko konstituzioarekin ustez batere zerikusirik ez duten gauzek. Inperio hura familia baten gobernuaren ideiarekin gainean dago eratua. Aitaren autoritatea gutxitzen baduzu, edota hari zaion begirunea adierazten duten zeremoniak kentzen badituzu, ahuldu egingo duzu aitzak bailiran ikusten diren magistratuekiko begirunea; magistratuek ez dute ardura berdina izango haurtzat hartu beharko lituzketen herritarrengana; printzearen eta mendekoen artean den maitasunezko harremana ere galdu egingo da pixkanaka. Ken ezazu praktika horietako bat, eta Estatu osoa astinduko duzu. Berez ez dio batere axola goizero erraina jaiki eta amaginarrebarekiko betebeharrak hau edo hori egitea. Baina kontuan izanez gero kanpoko praktika horiek etengabe gogorarazten dutela bihotz guztietan ezarri behar den sentimendu bat, eta bihotz guztietatik inperioa gobernatzen duen

izpiritua eratzen dela, ikusiko da beharrezko dela halako edo bestelako ekintza partikularra egitea.

## **XX. KAPITULUA**

### ***Txinatarrei buruzko paradoxa baten azalpena.***

Gauza berezi bat dute txinatarrek: bizitza erritoek erabat gidatua badute ere, munduko herririk maltzurrena dira. Hori merkataritzan ageri da batez ere, inoiz ez baitzaie txertatu horretarako behar den fede ona. Erosten duenak bere balantza eraman behar du<sup>209</sup>; merkatarari bakoitzak hiru balantza ditu: astuna erosteko, arina saltzeko, ondo doitua jakinaren gainean daudenentzat. Uste dut argi ditzakedala kontraesan horiek.

Txinako legegileek bi xede izan dituzte: herria esaneko eta lasaia izan zedila, eta langile eta saiatura izan zedila. Klimaren eta lurraren izaera dela medio, halamoduzko bizimodua du; saiatura eta lanaren poderioz baizik ez dago bizibidea ateratzerik.

Mundu guztiak obeditzen duenean, eta mundu guztiak lan egiten duenean, Estatua oso egoera zorionekoan dago. Beharrak, eta agian klimaren izaerak, eman diete txinatar guztiei diru-gose harrigarri hori; eta legeak ez dira arduratu hori geldiarazten. Dena zegoen debekatuta, indarkeriaz eskuratu nahi zenean; dena zen zilegi, artifizioz eta trebetasunez eskuratu nahi zenean. Ez dezagun konparatu, bada, txinatarren moralak Europakoarekin. Txinan pertsona bakoitzak erne egon behar izan du baliagarri zitzaionaz; bilauak bere interesen alde egin badu, iruzur egin diotenak ere bereak zaindu behar izan ditu. Lazedemonian zilegi zen lapurreta; Txinan zilegi da engainatzea.

## **XXI. KAPITULUA**

### *Nola legeek zerikusia izan behar duten ohitura eta manerekin.*

Instituzio berezi batzuek bakarrik nahasten dituzte horrela berez bereizita dauden gauzak: legeak, ohiturak eta manerak; baina, nahiz eta bereizita egon, zerikusi handia dute beren artean, hala eta guztiz ere.

Behin galdetu omen zioten Soloni ea atenastarrei eman zizkien legeak onenak ziren. "Jasan zitzaketen onenak eman dizkiet", erantzun zuen; ederrak hitzak, legegile guztiek aditu beharko lituzketenak. Jainkoaren jakituriak esan zionean judutarren herriari "on-onak ez diren arauak eman dizkizuet", haien ontasuna erlatiboa zela esan nahi zuen; eta hori Moisesen legeez jar daitezkeen eragozpen guztien gozagarri da.

## **XXII. KAPITULUA**

### *Gai beraren jarraipena.*

Herri batek ohitura onak dituenean, legeak sinple bihurtzen dira. Platonek dio<sup>210</sup> Radamantek, oso herri erlijiosoa gobernatzen baitzuen, bizkor bideratzen zituela auzi guztiak, salaketa bakoitzaren gainean zin egitea besterik ez eskatuta. Baina, dio Platonek berak<sup>211</sup>, herri bat erlijioso ez denean, ez dago zinaz baliatzerik zinegileak interesak ez dituenean baizik; epailek eta lekukoek bezala, esate baterako.

## **XXIII. KAPITULUA**

### *Nola legeak ohiturei jarraitzen zaizkien.*

Erromatarren ohiturak garbiak ziren garaian, ez zen lege berezirik diru publikoaz jabetzearen kontra. Delitu hori agertzen hasi zenean, hain gaizto iritzi



zioten, non hartutakoa itzultzeraz kondenatua izatea<sup>212</sup> zigor handitzat hartu baitzen; horren frogagarri da L. Eszipionen epaiketa<sup>213</sup>.

## **XXIV. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Tutoretza amari ematen dioten legeek garrantzi handiagoa jartzen diote tutorepekoaren pertsona babesteari; oinordeko hurbilenari ematen diotenek, berriz, garrantzi handiagoa jartzen diote ondasunak kontserbatzeari. Ohiturak galduta dituzten herrietan, hobe da tutoretza amari ematea. Legeek hiritarren ohiturez fidatu behar duten herrialdeetan, berriz, ondasunen oinordekoari ematen zaio tutoretza, edota amari, eta batzuetan bie.

Lege erromatarrez gogoeta eginez gero, ikusiko da haien izpiritua nik diodanarekin bat datorrela. Hamabi Tauletako legea egin zen garaian, Erromako ohiturak miresgarriak ziren. Tutorepekoaren senide hurbilenari ematen zitzaion tutoretza, pentsatuz oinordekotzaren abaintaila izan zezakeenak izan behar zuela tutoretzaren zama. Ez zen uste tutorepekoaren bizia arriskuan jartzen zenik, hura hilez gero ondasunen jabe izango zenaren eskuetan jarrita. Baina Erroman ohiturak aldatu zirenean, ikusi zen legegileen pentsamoldea ere aldatu egin zela. "Baldin eta tutorepekoaren ordezkapenean", diote Kaiok<sup>214</sup> eta Justinianok<sup>215</sup>, testamentugilea beldur bada ordezkatuak tutorepekoari tranpa egingo ote dion, agerian utzi dezake ordezkapen arrunta<sup>216</sup>, eta tutorepekoaren ordezkapena denboraldi bat pasatu arte ireki ezingo den testamentu-zati batean jarri". Lehen erromatarrek ez zituzten ezagutzen horrelako beldur eta neurriak.

## **XXV. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Lege erromatarrak ezkondu baino lehen elkarri opariak egiteko libertatea ematen zuen; ezkondu eta gero, ez zuen halakorik uzten. Hori erromatarren ohituretan zegoen oinarrituta; izan ere, urritasun, sinpletasun eta umiltasunagatik baino ez baitziren ezkontzen, baina etxeko zainketek, pozak eta bizitza osoko zorionak liluratu egin zitzaizkien.

Bisigodoen legeak<sup>217</sup> agintzen zuenez, senargaiak emaztegaiari ezin zion ondasunen hamarrena baino gehiago eman; eta ezkontzako lehen urtebetean ezin zion ezer eman. Hori ere herrialdeko ohituretatik zetorren. Legegileek geldiarazi egin nahi zuten harrokeria espainiarra, ekintza distiratsuetan baino ez baitu jotzen eskuzabaltasun gehiegizkoetara.

Erromatarrek, beren legeen bidez, munduan gehien iraun duen agintearen akats batzuk geldiarazi zituzten, hots, bertutearenak; espainiarrek, beren legeen bidez, munduan izan den tiraniarik hauskorrenaren ondorio txarrak galarazi nahi zituzten, hots, edertasunarenak.

## **XXVI. KAPITULUA**

### **Gai beraren jarraipena.**

Teodosio eta Valentinianoren legeak<sup>218</sup> erromatarren ohitura zaharretatik<sup>219</sup> eta maneretatik atera zituen zapuztearen kausak. Kausa horien artean, senar batek<sup>220</sup> emaztea pertsona libreari ez dagokion moduan zigortzea jarri zuen. Kausa hori kendu egin zen hurrengo legeetan<sup>221</sup>; izan ere, ohiturak aldatuak baitziren alde horretatik: Ekialdeko usadioek Europakoen lekua hartua zuten. Justiniano II.aren emaztea zen enperatrizaren lehen eunukoak mehatxu egin zion, dio historiak, hurrei eskolan ematen zaien zigorraz. Ohitura ezarriek edo ezartzeko bidean direnek bakarrik imajinaraz dezakete halakorik.

Ikusi dugu nola jarraitzen zaizkien legeak ohiturei; ikus dezagun orain nola jarraitzen zaizkien ohiturak legeei.

## XXVII. KAPITULUA

*Nola legeek nazio baten ohiturak, manierak eta izaera eratzen lagun dezaketen.*

Herri esklabo baten ohiturak bere morrontzaren zati bat dira; herri libre batenak, berriz, bere libertatearen zati bat.

XI. liburuan herri libre batez mintzatu nahiz<sup>222</sup>, eta haren konstituzioaren printzipioak eman ditut. Ikus ditzagun handik etorri diren ondorioak, eratu ahal izan den izaera, eta sortu diren manierak.

Ez dut ukatzen klimak nazio horretako legeak, ohiturak eta manierak sorrarazi dituenik neurri handi batean, baina zera diot, nazio horren ohiturek eta manerek zerikusi handia izan beharko luketela legeekin.

Estatu horretan ageriko bi botere izango lirateke, botere legegilea eta betearazlea, eta hiritar orok bre borondate propioa izango luke, eta bere gogara erabiliko luke bere independentzia; hartara, gehienek botere horietako batekiko bestearekiko baino atxikimendu handiagoa izango lukete; izan ere, pertsona gehienek ez daukate biei atxikimendu berdina izateko nahikoa ekitate edo zentzu.

Botere betearazleak, enplegu guztiak bere esku izanik, itxaropen handiak sorraraziko lituzke, eta batere beldurrik ez; hortaz, harengandik ezer jasoko luketenak haren alde jarriko lirateke, eta harengandik ezer espero ez luketenek eraso egingo liokete.

Grina guztiak libre izanik, beren tamaina osoan agertuko lirateke gorrotoa, bekaizkeria, zeloak, diru-gosea eta handinahia. Hori bestela izatera, Estatua gaixotasunak jotako pertsona bezalakoa litzateke: grinarik gabe, indarrik ez duelako.

Bi alderdien arteko gorrotoak iraun egingo luke, inoiz ez litzatekeelako aski izango.

Alderdi horiek pertsona librez osatuak izanik, bietako bat bestearen gainetik jarriko balitz, libertatearen efektua hura beheratzea izango litzateke, eta hiritarrek, gorputzari laguntzen dioten eskuek bezala, bestea jasoko lukete.

Norbanako bakoitza, beti ere independente izanik, bere apeta eta ameskeriei jarraituko litzaike, eta sarri aldatuko litzateke alderdiz; lagun guztiak leudekeen alderdiari utzi eta etsai guztiak leudekeenera pasatuko litzateke; eta agian, nazio horretan, maiz ahaztu egingo lirateke adiskidetasunaren eta gorrotoaren legeak.

Erregea ere norbanakoen kasuan egongo litzateke, eta zuhurtziaren ohiko arauen kontra, maiz beraren kontra gehien egindakoei konfiantza ematera behartuta egongo litzateke, eta ondoen zerbitzatu lioketenei bere faborea kentzera; behartuta egingo litzateke, beraz, beste printzeek hautaz egiten dutena egitera.

Beldurra izaten dugu antzeman bai baina ondo ezagutzen ez ditugun eta ezkutatu egin diezazkiguketen gauza onei ihes egiten uzteko; eta beldurrak handitu egiten ditu beti gauzak. Herria urduri egongo litzateke bere egoera dela eta, eta unerik seguruenetan arriskuan legokeela usteko luke.

Gainera, botere betearazleari indar handienaz kontra egingo lioketenek, beren kontrakarraren zio interesatuak aitortu ezinik, handitu egingo lukete herriaren beldurra, eta hark ez luke inoiz zehazki jakingo arriskuan legokeen ala ez. Baina horrexek lagundu egingo lioke handik aurrera izango lituzkeen benetako arriskuak saihesten.

Baina gorputz legegileak herriaren konfiantza duenez, eta hura baino ikasiagoa izanik, hartutako inpresio txarrak ahaztaraziko lizkioke herriari, eta mugimenduak baretuko.

Abantaila handi horixe izango luke gobernu horrek demokrazia zaharren aldean. Haietan, herriak berehalako boterea zuen; izan ere, mintzalariek asaldatzen zutenean, asaldurik bere ondorioa izaten zuen beti.

Hala, bada, eragindako beldurrek arrazoi segururik izango ez luketenean, aldarri eta irain huts batzuk besterik ez lituzkete sortuko, eta ondorio on hau ere izango lukete: gobernuaren baliabide guztiak atezuan jarriko lituzkete, eta erne jarriko lituzkete hiritar guztiak. Baina oinarritzko legeak hankazgoratzean sortuko balira, gorrak, deitoragarriak, ankerrak izango lirateke, eta hondamendia ekarriko lukete.

Laster ikusiko litzateke baretasun beldurgarria, zeinetan denak bilduko bailirateke legeen botere bortxatzailearen kontra.

Baldin eta, kezkek benetako arrazoirik ez izanez gero, potentzia atzerritarren batek Estatuari mehatxu egingo balio, eta bere ondasunak eta loria galzorian jarriko balizkio, orduan denak, interes txikiek handiei leku emanez, denak bilduko lirateke botere betearazlearen alde.

Eztabaidak oinarritzko legeen bortxaketatik sortuko balira, eta atzerritar botere bat agertuko balitz, ez gobernuaren era, ez konstituzioa aldatuko lituzkeen iraultza izango litzateke; izan ere, libertateak sorrarazten dituen iraultzak libertatearen berrespena besterik ez dira.

Nazio libre batek, izan dezake askatzailea; nazio menderatu batek ezin dezake beste zapaltzaile bat baizik izan.

Izan ere, Estatuaren jaun eta jabe dena botatzeko adina indar duen gizon orok, bera ere jaun eta jabe bihurtzeko adina indar du.

Libertateaz gozatzeko, beharrezko baita norberak pentsatzen duena esan ahal izatea, eta hura kontserbatzeko ere beharrezko baita norberak pentsatzen duena esan ahal izatea, hiritar batek, Estatu horretan, legeek espreski esatea edo idaztea galarazi ez dioten oro esango luke.

Nazio hori, beti berotuta, errazago mugiaraziko lukete bere grinek arrazoiak baino, honek ez baitu ondorio handirik eragiten gizonen izpirituan, eta erraza izango litzateke gobernatuko luketenentzat nazioari bere interesen kontrako ekintzak eginaraztea.

Nazio horrek ezin maiteago izango luke bere libertatea, libertate hori benetakoa izango litzatekeelako, eta baliteke ezen, hura defendatzeko, bere ona, erosotasuna, interesak sakrifikatzea, bere burua printzerik absolutuenak ere bere sujetei inoiz ezarriko ez lizkiekeen zerga gogorrenez zamatzea.

Baina oso ondo jabetua litzatekeenez zama horri men egiteko beharraz, gehiago ez ordaintzeko itxaropen ondo errotuaz ordainduko luke, eta kargak kargen sentipena baino astunagoak izango lirateke; beste estatu batzuetan, aldiz, sentipena kaltearen guztiz gaintik dago.

Kreditu segurua izango luke nazio horrek, bere buruagandik jasoko bailuke mailegutan, eta bere buruari ordainduko bailioke. Baliteke bere indarrez gaineko zerbaiti ekitea, eta gezurrezko aberastasun sekulakoak erakutsiko lizkieke etsaiei, gobernuaren konfiantzak eta izaerak egiazko bihurtuko lituzkeenak.

Libertatea gordetzeko, sujetengandik jasoko luke mailegutan; eta sujetek, ikusiz mailegatutakoa galdua litzatekeela baldin eta nazioa konkistatzen bazuten, beste arrazoi bat gehiago izango lukete haren libertatea defendatzen ahalegintzeko.

Nazio hori uharte batean biziko balitz, ez litzateke konkistatzaile, beragandik aparteko konkistek ahuldu egingo luketelako. Uharte horretako lurraldea ona balitz, are gutxiago izango litzateke konkistatzaile, ez lukeelako gerraren premiarik izango aberasteko. Eta ezein hiritar ez litzatekeenez beste hiritar baten mende egongo, nor bere libertateaz gehiago arduratuko litzateke, zenbait hiritarren edo bakar baten loriaz baino.

Han gerra-gizonak baliagarria eta maiz arriskutsua izan daitekeen lanbide batekotzat joko lirateke, nazioarentzat berarentzat zerbitzu astunak egiten dituzten jendetzat, eta tasun zibilak aintzakotzatago hartuko lirateke.

Nazio horrek, bakean eta libertatean aurrera egingo lukeelarik, aurreiritzi hondagarrietatik aske, merkatari izatera joko luke. Langilearen eskuak prezio handia ematen dien gauzak egiteko balio duen lehengairen bat balu, zeruaren dohain horren etekina jasotzeko moduko instalakuntzak egin ahalko lituzke lurraldearen luze-zabal osoan.

Nazio hori iparralderantz balego, eta alferreko merkantzia asko izango balitu, klimak ukatuko lizkiokeen merkantzia askoren falta izango lukeenez, salerosketa beharrezko eta handian jardungo luke hegoaldeko herriekin, eta merkataritza abantailatsuaz sarituko lituzkeen Estatuak aukeratuta, bi aldeentzat baliagarri liratekeen itunak egingo lituzke aukeratutako nazioarekin.

Batetik egundoko aberastasuna eta bestetik gehiegizko zergak lituzkeen estatu batean, ez legoke saiatu gabe bizitzerik ondasun mugatuekin. Jende askok, bidaïen edo osasunaren aitzakiaz, atzerrira joko luke; esklabotzaren lurraldeetara, aberastasunaren bila.

Nazio merkatari batek interes partikular txiki ugari baino ugariagoak ditu; beraz, ezin konta ahala modutan egin dezake eta egin diezaiokete kontra. Honako nazio hau oso zeloso bihurtuko litzateke, eta handiagoa litzateke besteen onak eragindako atsekabea, bereak eragindako gozamina baino.

Eta legeak, bestela hain leun eta errazak, hain zurrinak lirateke bertako merkataritzari eta nabigazioari begira, non etsaiekin bakarrik negoziatzen zuela emango bailuke.

Nazio horrek urrunean koloniak sortuko balitu, merkataritza zabaltzeko egingo luke hori, bere agindupeko lurak zabaltzeko baino areago.

Kanpoan etxean ezarritakoa ezarri nahi izaten denez, bere gobernu-era emango lieke kolonietako herriei, eta gobernu-era horrek berekin aberastasuna eramango lukeelarik, herri handiak eratuko lirateke koloniak sorrarazitako basoetan bertan.

Agian inoiz auzoko nazioren bat azpiratuko luke, haren kokaeraren, portuen ontasunaren, aberastasunen zer-nolakoen zeloak eraginda; hala, nahiz eta bere legeak eman, guztiz mendean edukiko luke hura, eta hartara hiritarrak libre eta Estatua bera esklabo izango lirateke.

Konkistaturiko Estatuak oso gobernu zibil ona izango luke, baina jendeen zuzenbideak estu hartuko luke, eta naziotik naziora ezarriko litzaizkioke legeak, hala non badaezpadako aberastasuna izango bailuke, eta nagusi batentzat gordailuan utzia.

Nazio menderatzailea uharte batean bizi izanik, eta merkataritza handiaren jabe izanik, aukera guztiak lituzke itsas armada izateko, eta bere libertatea gordetzeak ez plazarik, ez gotorlekurik ez lehorreko armadarik izatea eskatuko liokeenez, itsas armada baten beharra izango luke inbasioetatik babesteko; eta haren untziteria beste potentzia guztien gainetik legoke, zeren eta, haiek beren indar guztiak lehorreko gerrarako enplegatu beharko lituzketenez, ez bailukete aski izango itsasoko gerrarako.

Itsas botereak berezko ausardia eman izan die haren jabe izan diren herri guztiei, zeren eta, beren buruak nornahi iraintzeko gai sentiturik, uste baitute itsasoa beste mugarik ez duela beren botereak.

Nazio horrek eragin handia izan lezake auzokoen arazoetan. Izan ere, bere indarra erabiliko ez lukeenez, beraren adiskidetasuna bilatuko lukete, eta haren gorrotoaren beldur izango lirateke, haren gobernuaren egonkortasunik ezak eta barne-egonezinak ustez aginduko luketenaren beldur baino gehiago.



Hala, horixe litzateke botere betearazlearen patua, barruan beti egonezinean, eta kanpoan errespetatua izatekoa.

Gertatuko balitz nazio hori batzuetan Europako negoziazioen gune bihurtzea, besteek baino prestutasun eta fede on gehiago ekarriko luke bertara; izan ere, haren ministroak maiz beren jokabidea herri-kontseilu baten aurrean zuritu beharra dutenez, negoziazioak ezin izango lirateke ezkutukoak, eta alde horretatik zintzoagoak izatera behartuta leudeke.

Gainera, jokabide desbideratu batek sorraraz litzakeen gertaeren ardura izango luketenez, nolabait esanda, gauzarik seguruena biderik zuzenena hartzea izango litzateke haientzat.

Nobleek, noizbait, nazioan neurritz gaineko boterea izan balute, eta erregeak herria goratuz haiek beheartzeko modua aurkitu izan balu, morrontza handieneko unea handikien apaltzearen eta herriak bere boterea sentitzen hasia litzatekeen unearen artekoa izango litzateke.

Beharbada nazio hori inoiz botere arbitrario baten mende egona izanik, orduko estiloa gordeko luke askotan, hala non, gobernu libre baten hondoaren aurrean gobernu absolutuaren forma ikusiko bailitzateke maiz.

Erlijioari dagokionez, Estatu horretan hiritar bakoitzak bere borondatea lukeenez, bere argiak edo fantasiak izango lituzke gidari, eta zera gertatuko litzateke, edota bakoitzak indiferentzia handia izatea erlijio-mota ororekiko, nolanahikoak izanik ere, eta hartara mundu guztiak jotzea erlijio nagusia besarkatzera; edota erlijioarekiko ardura handia izatea, oro har, eta hartara sektak ugaltzea.

Ez litzateke ezinezkoa nazio horretan erlijiorik gabeko jendea izatea, eta hala ere ez onartzea bat izanez gero inork aldatzera behar lezan; izan ere, sentituko luke lehenik bizia eta ondasunak ez direla pentsaera baino norberarenago, eta bat ken dezakeenak are hobeto ken dezakeela bestea ere.

Baldin eta, erlijio desberdinen artean, bat ezarri nahi balitz eta esklabotzaren bidea erabiltzeko tentazioa emango balu, gorrotagarria litzateke; zeren eta, gauzak bertan jartzen ditugun loturen eta eransgarrien arabera juzgatzen dugunez, erlijio hori inoiz ez bailitzaioke izpirituari azalduko libertatearen ideiarekin.

Erljio hori luketenen kontrako legeak ez lirateke odoltsuak izango; izan ere, libertateak ez baitu imajinatzen era horretako zigorrik; baina hain errepresiboak lirateke, non odol hotzean egin daitekeen kalterik handiena egingo bailukete.

Mila modutara gerta liteke kleroak beste hiritarrek baino sinesgarritasun gutxiago izatea. Hala, laikoetarik bereizi orde, nahiago luke laikoen karga berdina jasatea, eta alde horretatik gorputz bat bera osatzea; baina beti ere herriaren begirunea erakarri nahiko lukeenez, bizimodu erretiratuagoak bereiziko luke, jokabide ezkutuagoak, eta ohitura garbiagoak.

Klero horrek erlijioa babestu ezingo lukeenez, eta erlijioak bera babestuko ez lukeenez, inor behartzeko indarrrik ez eta jendea konbentzitzen saiatuko litzateke; haren lumatik oso obra onak irtengo lirateke, Izaki handiaren errebelazioa eta probidentzia frogatzeko.

Gerta liteke kleroaren batzarrak saihestea eta hari ezta bere gehiegikeriak ere zuzentzen utzi nahi ez izatea; eta, libertatearen eldarnio batengatik, nahiago izatea kleroaren erreforma burutu gabe uztea, hura erreformatzaile izan zedin jasatea baino.

Kargu altuak, oinarritzko konstituzioaren parte izanik, beste aldeetan baino finkoagoak izango lirateke, baina, bestalde, handikiak, libertate-herrialde horretan, gertuago izango lirateke herriagandik; beraz, mailak elkarretarik bereiziago, eta pertsonak nahastuago egongo lirateke.

Gobernatzen dutenek, nolabait esateko, egunero berrosatzen eta berregiten den boterea dutelarik, arreta gehiago jarriko liekete baliagarri zaizkienei, dibertitzen dituztenei baino; hala, kortesano, lausengari, balakari gutxi ikusiko

lirateke, hau da, handikiei beren izpirituaren hutsa ordainarazten dieten jende-  
mota hori guztia.

Gizonak ez lirateke estimatuko talentu edo tasun aldakorreatatik, baizik eta  
tasun errealeatik; eta horrelakoak bi besterik ez daude, aberastasunak eta  
norberaren merezimendua.

Luxu sendoa legoke, ez dotorezian eta handiustean oinarritua, baizik eta  
benetako premietan; eta gauzetan ez litzateke bilatuko naturak bertan jarri dituen  
plazerrak baizik.

Beharrezko ez diren gauza askoz gozatuko lirateke, baina hala ere  
girgileriak legez kanpo leudeke; hala, gastatzeko abaguneak baino ondasun  
gehiago luketenek, modu berezian erabiliko lituzkete, eta nazio horretan izpiritua  
gustuaren gainetik legoke.

Nor bere interesez arduratuta egongo litzatekeenez beti, ez litzateke izango  
aisian oinarritutako kortesia hori, eta astirik ere ez legoke horretarako.

Erromatarren kortesiaren garaia botere arbitrarioa ezarri zeneko garaia da.  
Gobernu absolutuak aisia dakar, eta aisiak kortesia sorrarazten du.

Zenbat eta jende gehiago izan nazio batean beren artean begiramenezko  
tratua izateko eta aldi berean elkarri itxura txarrik ez hartzeko premia dutenak,  
hainbat eta kortesia gehiago izango da. Baina ohituren kortesiak bereizi behar  
gaitu herri barbaroetatik, ez manerenak.

Denek, zein bere erara, Estatuaren administrazioan parte hartuko luketen  
nazio batean, emakumeek ez lukete gizonekin bizi beharrik izango. Beraz, apalak  
izango lirateke, hau da, herabeak; herabetasun horrek egingo lituzke bertutetsu;  
gizonak, aldiz, limurkeriarik gabe, galdukerian murgilduko lirateke, beren  
libertate eta asti osoa izango bailukete horretarako.

Legeak batzuentzat eta besteentzat berdinak liratekeenez, erregetzat leukake nork bere burua, eta gizonak, nazio horretan, konfederatuak lirateke hiritarkide baino gehiago.

Klimak jende askori izpiritu urduria eta gaitasun handia eman balie, konstituzioak mundu guztia gobernuan parte bat eta interes politikoak emango lizkiokeen herrialde batean, asko hitz egingo litzateke politikaz; bizitza gertaerak kalkulatzeko emango lukeen jendea ikusiko litzateke; alegia, gauzen izatea eta zoriaren apetak –hau da, gizonenak– ikusita, kalkulapean egon ezin diren gertaerak.

Nazio libre batean, maiz ez dio axola partikularrek ondo edo gaizki arrazoitzea; nahikoa da arrazoitzea; hortik sortzen da libertatea, eta libertateak arrazoiak horien ondorioetatik babesten du.

Era berean, gobernu despotiko batean, kaltegarria da ondo nahiz gaizki arrazoitzea; aski da arrazoitzea, gobernu-printzipioaren kontra joateko.

Inoren gustagarri izateko ardura ez lukeen jende asko beren jitez biziko lirateke. Gehienak, injenioa izanik, injenio horrek oinazetuko lituzke: gauza guztiekiko mesprezioz eta higuinez, zorigaitzoko izango lirateke, zoriontsu izateko hainbeste gauza edukita.

Inor ez litzateke beste inoren beldur izango; nazio hori burgoia litzateke; izan ere, erregeen burgoitasuna beren independentzian baizik ez baita oinarritzen.

Nazio libreak harroak dira, besteak errazago izan daitezke hutsal.

Baina hain burgoiak diren gizonak beren baitara bilduta bizi izanik, maiz izango lirateke ezezagunen artean; herabe lirateke, eta gehienetan nahasketa bitxia agertuko lukete: lotsa gaiztoa eta burgoitasuna.

Nazioaren izaera izpirituzko obretan agertuko litzateke batez ere; horietan barrura begirako pertsonak ikusiko genituzke, bakardadean pentsatzen dutenak.

Gizarteak irigarrikeriak sentitzen irakasten digu; erretiroak bizioak sentitzeko gaitzen gaitu. Haien idatzi satirikoak krudelak lirateke, eta Juvenal asko agertuko lirateke haien artean, Horazio bakar bat aurkitu aurretik.

Oso absolutu diren monarkietan, historialariek traizionatu egiten dute egia, egia esateko libertaterik ez dutelako; oso libreak diren Estatuetan, berriz, beren liberteagatixe traizionatzen dute egia; izan ere, liberte horrek zatiketa eragiten duelarik, bakoitza bere fakzioaren aurreiritzien esklabo bihurtzen da, despota baten bezain esklabo.

Haien poetek asmamenak berezko duen zakartasuna lukete, gustuak ematen duen delikadezia baino; Migel Anjelen indarrari hurbilduko litzaiokeen zerbait aurkituko litzateke han, Rafaelen grazia baino gehiago.

## AIPUEN ITZULPENA

XXX or. "Haren heriotza dolu izan zen guretzat, nahigabe Aberriarentzat; eta atzerritarrentzat eta ezagutzen ez zutenentzat ere, ez zen muntarik gabea izan".

XXX or. "Amarik gabe jaiotako haurra". Erktionio da, Lurraren semeetako bat. Jaio eta gero, Atena arduratu zen hartaz. Aurrerago Atenas gobernatu bide zuen, eta Atenaren gurtza ezarri zuen bertan. Atenasen Erekteion jainkotegian ohoratzen zuten, Akropolian.

XXX or. "Lehen hiritarrek botere gorena eskura ez zezaten, Galienok debekatu egin zien senadoreei armadan erroldatzea eta are bertara hurbiltzea ere".

XXX or. "Zenbat eta xehetasun gehiago eman salatzaileak, hainbat eta aurrerago egiten zuen, eta ia bortxaezintasuna segurtatzen zuen beretzat".

## OHARRAK

30 "Kopiatu egin dut Eszevolaren ediktua", dio Zizeronek, "greziarrei beren arteko gorabeherak beren artean erabakitzea uzten duena; horregatik dauzkate beren buruak herri libretzat".

31 Moskoviarrak ezin zuten jasan Pedro tsarrak bizarra motzaraztea.

32 Kapadoziarrak errefusatu egin zuten erromatarrek eskaini zieten estatu errepublikarra.

33 Kanpoan etsairik ez duen, edota hesien bidez geldiarazi uste dituen estatu baten xede naturala.

34 *Liberum veto* delakoaren eragozpena.

35 Venezian.

36 Atenasen bezala.

37 Herriak urtero aukeratzen zituen magistratuak ziren. Ikus Bizantzioko Esteban.

38 Erromako magistratuak bazegoen akusatzerik haien magistratura aldiaren ondoren. Ikus Dionisio Halikarnasokoa, IX. lib., Genutio tribunoaren afera.

39 *De minoribus rebus principes consultant, de majoribus omnes; ita tamen ut ea quoque, quorum penes plebem arbitrium est, apud principes pertractentur.*

40 *Politika*, III. lib., XIV. kap.

41 Ikus Justino, XVII. liburua.

42 Aristotele, *Politika*, V. lib., IX. kap.

43 Aristotele, *Politika*, III. lib., XIV. kap.

44 Ibid.

45 Ikus Plutarkok dioena, *Teseoren bizitza*. Ikus, halaber, Tuzidides, I. lib.

46 Ikus Aristotele, *Politika*, IV. lib., VIII. kap.

47 Dionisio Halikarnasokoa, II. lib., 120 or; IV. lib., 242 eta 243 orr.

48 Ikus Tanakil-en diskurtsoa, in Tito Livio, *I. hamarkada*, I. lib.; eta Servio Tulioaren araudia, Dionisio Halikarnasorengan, IV. lib., 229 or.

49 Ikus Dionisio Halikarnasokoa, II. lib., 118. or.; eta III. lib., 171 or.

50 Senatu-kontsultu baten bidez agindu zuen Tulo Hostiliok Alba suntsitzea, Dionisio Halikarnasokoa, III. lib., 167 eta 172 orr.

51 Ibid., IV. lib., 176 or.

52 Ibid., II. lib. Hala ere, ez zituen denak izendatu behar, zeren eta Valerio Publikolak egin baitzuen lege famatu bat, hiritar guztiei edozein enplegu izatea debekatzen ziena, herriaren botoz lortua ez bazen.

53 III. lib., 159 or.

54 IV. lib.

55 "Errege-boterearen erdiaz gabetu zen" dio Dionisio Halikarnasokoak IV. lib., 229 or.

56 Uste zenez, Tarkino ohartu ez balitz, hark herri-gobernua ezarriko zukeen. Dionisio Halikarnasokoa, IV. lib., 243 or.

57 Dionisio Halikarnasokoa, IV. lib.

58 Ibid.

59 Tito Livio, *I. hamarkada*, VI. liburua.

60 *Questores parricidii*. Ponponio, 2. leg, 23,§ *de orig. jur.*

61 Plutarko, *Publikolaren bizitza*.

62 *Comitiis centuriatis*.

63 Ikus gorago Tito Livio, I. lib.; eta Dionisio Halikarnasokoa, IV eta VII. lib.

64 Dionisio Halikarnasokoa, IX. lib., 598 or.

65 Dionisio Halikarnasokoa, VII. lib.

66 Antzinako usadioaren kontra, Dionisio Halikarnasokoaren lanetan ikus daitekeenez, V. lib., 320 or.



67 Ibid., VI. lib., 410 eta 411 orr.

68 Ibid. IX. lib., 605 or.

69 Dionisio Halikarnasokoa, XI. lib., 725 or.

70 Lege sakratuen arabera, plebeioek bazeukaten berek bakarrik plebisituak egitea, eta patrizioak haien biltzarrean sartzen ez zirelarik. Dionisio Halikarnasokoa, VI. lib., 410 or.; eta VII. lib., 430 or.

71 Dezenbiren espultsioaren ondoren egindako legearen arabera, patrizioak plebisitzen mende geratu ziren, nahiz eta botorik ematerik ez eduki. Tito Livio, III. lib.; Dionisio Halikarnasokoa, XI. lib., 725 or. Eta lege hori Publilio Filo diktatorearenak berretsi zuen Erromako 416. urtean. Tito Livio, VIII. lib.

72 Erromako 312. urtean, kontsulek artean zentsua egiten zuten, Dionisio Halikarnasokoak dioskunez, XI. lib.

73 Esate baterako, magistratu guztien ordenantzak zirela-eta, herriarengana jotzeko bidea ematen zutenak.

74 VI. lib.

75 Erromako 444. urtean. Tito Livio, *Lehen hamarkada*, IX. lib. "Pertsiaren kontrako gerrak arriskutsua zirudienez, senatu-kontsultu batek lege hori indarrik gabe uztea agindu zuen; eta herriak onartu egin zuen". Tito Livio, *Bosgarren hamarkada*, II. lib.

76 "Senatuari erauzi zion", dio Freinshemius-ek, *Bigarren hamarkada*, VI. lib.

77 Ez dago zalantza egiterik kontsulek, pretoreen sorrera aurretik, epaiketa zibilak egiten zituztela. Ikus Tito Livio, *Lehen hamarkada*, II. lib., 19. or.; Dionisio Halikarnasokoa, X. liburua, 627 or.; liburu bera, 645 or.

78 Maiz tribunoek bakarrik epaitu zuten; beste ezerk ez zituen gorrotagarriago bihurtu. Dionisio Halikarnasokoa, XI. lib., 709 or.

79 *Judicia extraordinaria*. Ikus *Institutuak*, IV. lib.

80 VI. lib., 360 or.

81Album iudicium.

82 Honela dio Zizeronek Pro Cluentio-n: "Gure arbasoek ez dute nahi izan gizon bat parteak bat etorri gabe, epaile izatea, hiritar baten ospearen gainean ez ezik, diru-afera txikienaren gainean ere".

83 Ikus, Lege Serviliarren eta Korneliarren zatietan, eta beste lege batzuenetan, nola izendatzen ziren epaileak lege horiek zigortu asmo zituzten delituetan. Maiz zotzetara aukeratzen ziren, batzuetan hautabidez, edota, azkenik, zotzak eta hautapena nahastuz.

84 Seneka, De benef., III. lib., VII. kap., in fine.

85 Ikus Kintiliano, IV. lib., 54. or., in fol., Parisko argitarapena, 1541.

86 2. legea, 24. § ff.\* de orig. jur. Dezenbiro zeritzen magistratuak ziren epaimahaiburu, dena pretore baten gidaritzapean zegoelarik.

87 Quoniam de capite civis romani, injussu populi romani, non erat permissum, consulibus jus dicere. Ikus Pomponio, 2. leg., 16. § ff.\* de orig. jur.

88 Dionisio Halikarnasokoa, V. lib., 322 or.

89 Zenturiakako komizioak. Horregatik epaitu zuten Manlio Kapitolino komizio haietan. Tito Livio, Lehen hamarkada, VI. lib., 68 or.

90 Ponponio deitua, 2. legean, de orig. jur. digestoan.

91 Ikus Ulpianoren zati bat, Lege Korneliarren beste zati bat dakarrena; Lege mosaikoen eta Erromakoen arteko konparazioa delakoan, I. titulua, de sicariis et homicidiis.

92 Hori batez ere Italian egindako delituetan gertatzen zen, non senatuak ikuskaritza berezia baitzuen. Ikus Tito Livio, Lehen hamarkada, IX. lib., Kapuako konjurazioez.

93 Halaxe izan zen Postumioaren heriotzaren epaiketan, Erromako 340. urtean. Ikus Tito Livio.

94 Epaiketa hori Erromako 567. urtean egin zen.

95 VIII. lib.

96 Zizeron, in *Bruto*.

97 Tito Livioaren XIII. liburuan foga daiteke hori: Hanibalek urtebeteko bihurtu zuen haien magistratura.

98 Senatu-kontsultuek urtebetean zuten indarra, nahiz eta herriak berretsi ez. Dionisio Halikarnasokoa, IX. lib., 595 or.; eta XI. lib., 735 or.

99 630. urtean.

100 *Capite censos plerosque*, Salustio, *Jugurtaren gerra*.

101 Autore honen zatia, XXXVI. lib., Konstantino Porfirogenetaren bilduman, *Bertuteak eta bizioak*.

102 Haren historiaren zati bat, *Bertute eta bizioen laburpena* delakotik ateratakoa.

103 XXXIV. lib.ko zatia, *Bertute eta bizioen laburpena* delakoan.

104 "Penes quos Romae tum iudicia erant, atque ex equestri ordine solerent sortito iudices eligi in causa praetorum et proconsulum, quibus, post administratam provinciam, dies dicta erat".

105 Beren ediktuak probintzietan sartzean egiten zituzten.

106 V. lib., XIX. kap. Ikus II, III, IV eta V. liburuak ere.

107 Mazedoniaren konkistaren ondoren, ez zen zerga gehiago izan Erroman.

108 Trogo Ponpeiorengandik ateratako harenga. Justinok dakar, XXXVIII. lib.

109 Ikus *Verres-en kontrako hitzaldiak*.

110 Gauza jakina da Varoko epaimahaiak matxinarazi zituela germaniarrak.

111 *Politika*, II. lib.

112 Tarkinio Prisko. Ikus Dionisio Halikarnasokoa, IV. lib.

113 560. urtekoa.

114 Aristotele, *Politika*, II. lib., XII. kap. Legeak eman zizkion Turium-i, laurogeita laugarren olinpiadan.

115 Ikus Aristides, *Orat. in Minervam*.

116 Dionisio Halikarnasokoa, Koriolanoren epaiketaz, VII. lib.

117 *Minervae calculus*.

118 San Luisek hain lege gogorrak eman zituen birao egiten zutenen kontra, non Aita Santua zerbait esan beharrean aurkitu baitzen. Printze hark leundu egin zuen bere zorroztasuna, eta legeak leundu zituen. Ikus haren ordenantzak.

119 Aita Bougerel.

120 Nizetas, *Manuel Komnenoren bizitza*, IV. lib.

121 Ibid.

122 *Maurizio enperadorearen historia*, Teofilakto, XI. kap.

123 *Historia ezkutua*.

124 Aita Du Halde, lehen tomoa, 43. or.

125 Aita Parennin-en gutunak, in *Onbidezko Gutunak*.

126 Graziano, Valentiniano eta Teodosio. Hirugarrena da *De crimin. sacril.*\* kodean.

127 "Sacrilegii instar est dubitare an is dignus sit quem elegerit imperator", ibid. Lege horrek Roger-enaren eredu gisa balio izan du, Napoliko konstituzioetan, 4. tit.

128 Bosgarren legea *Ad leg. maj. Jul.* kodean.

129 Arkadio eta Honorio.

130 Montrésor-en *Oroitzapenak*, 1. t.

131 "Nam ipsi pars corporis nostri sunt". Lege bera, *Ad leg. Jul. maj.* kodean.

132 Teodosioren kodeko bederatzigarrena da, *De falsa moneta*.

133 "Etiam ex aliis causis majestatis crimina cessant meo seculo", *Ad. leg. Jul. maj.* kodea, I. paper-sorta.

134 "Alienam sectae meae soicitudinem concepisti". *Ad leg. Jul. maj.* kodea, 2. paper-sorta.

135 Ikus 4, 1 legea, *Ad leg. Jul. maj.*

136 Ibid., 5, 2 legea.

137 Ibid., 1.

138 "Aliudve quid simile admiserint". 6. legea, Ad leg. Jul. maj.

139 Azken legean, Ad leg. Jul. de adulteriis.

140 Ikus Burnet-en Erreformaren historia.

141 Plutarko, Dionisioren bizitza.

142 Pentsamenduak ekintza-motaren batekin lotuta egon behar du.

143 "Si non tale sit delictum, in quod vel scriptura legis descendit, vel ad exemplum legis vindicandum est", dio Modestino 7. legean, 3. §, in Ad leg. Jul. maj.-en azken or.

144 1740an.

145 "Nec lubricum linguae ad poenam facile trahendum est". Modestino, Ad leg. Jul. maj., 7, 3 legean.

146 "Si id ex levitate processerit, citemendum est; si ex insania, miseratione dignissimum; si ab injuria, remittendum", Leg. unica, Si quis imperat. maled.

147 Tazito, Urtekariak, I. lib. Horrela izan zen hurrengo erregealdietan ere. Ikus lege bakarra, de famosis libellis kodean.

148 Idem, IV. lib.

149 Hamabi Tauletako legea.

150 Suetonio, in Tiberio.

151 Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten Bidaiei Bilduma, V. t., II. parte.

152 Ibid., 496 or.

153 Dion, in Xifilino.

154 Flavio Vopisco, bere Bizitza delakoan.

155 Silak maiestate-lege bat egin zuen. Horretaz hitz egiten da Zizeronen diskurtsuetan: Pro Cluentio, 3. art.; in Pisonem, 21. art.; Verres-en kontrako

bigarrena, 5. art.; Famili epistolak, III. lib., II. gutuna. Zesarrek eta Augustok Lege Juliarretan txertatu zituzten; beste batzuek erantsi egin zituzten.

156 "Et quo quis distinctior accusator, eo magis honores assequabatur, ac veluti sacro sanctus erat"\*. Tazito.

157 XIII. kap., 6, 7, 8 eta 9 berts.

158 Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma, 423. or., V. lib., 2. part.

159 Dionisio Halikarnasokoa, Erromako antzinakoak, VIII. lib.

160 "Tyranno occiso, quinque ejus proximos cognatione magistratus necato". Zizeron, De inventione, II. lib.

161 VIII. lib., 547 or.

162 Gerra zibilez, IV. lib.

163 "Quod felix faustumque sit".

164 "Sacris eta epulis dent hunc diem: qui secus faxit, iner proscriptos esto".

165 Ez da aski, erresumako epaimahaietan, epaileak konbentzituko dituen froga bakar bat izatea; horrez gainera, froga horrek formala izan behar du, hau da, legala; eta legeak akusatuarentzat bi lekuko izatea eskatzen du; beste frogaren bat ez litzateke aski. Alabaina, baldin eta gizon batek, krimen larri deritzanaz erruduntzat hartua, lekukoak baztertzeko modua aurkitu izan balu eta, beraz, hura legez kondenatzea ezinezko balitz, d'atteindre-ko bill partikular bati ekin dakioke haren kontra; alegia, haren pertsonari buruzko lege partikular bat egiteari. Beste bill guztiekin bezala jarduten da halakoetan: bi ganbaretatik pasatu behar du, eta legeak bere baimena eman; hori gabe, ez da bill-ik, hau da, epaiketarik. Akusatuak bill-aren kontra mintzaraz ditzake bere abokatuak; eta ganbaran bill-aren alde hitz egin daiteke.

166 "Legem de singulari aliquo ne rogato, nisi sex millibus ita visum. Ex Andocide de mysteriis". Hori da ostrazismoa.

- 167 "De privis hominibus latae", Zizeron, *De leg.*, III. lib.
- 168 "Scitum est jussum in omnes". Zizeron, *ibid.*
- 169 Ikus Filostrato, I. lib., *Sofisten bizitza, Eskinesen bizitza*. Ikus Plutarko eta Fozio ere.
- 170 *Remnia* legearen bidez.
- 171 Plutarko, *Nola atera etekina etsaiengandik tratatuari*.
- 172 Askok beren haurrak saltzen zituzten zorrak ordaintzeko. Plutarko, *Solonen bizitza*.
- 173 *Ibid.*
- 174 Badirudi, historiaren arabera, usadio hori Hamabi Tauletako legea baino lehenagotik zegoela ezarrita erromatarren artean. Tito Livio, *Lehen hamarkada*, II. lib.
- 175 Dionisio Halikarnasokoa, *Erromako antzinakoak*, VI. lib.
- 176 Plutarko, *Furio Kamilioren bizitza*.
- 177 Ikus beherago, XXIV. kap., XXII. lib.
- 178 Hamabi Tauletako legea baino ehun eta hogeita bost urte beranduago. "Eo anno plebi romanae, velut aliud initium libertatis, factum est quod necti desierunt". Tito Livio, VIII. lib.
- 179 "Bona debitoris, non corpus obnoxium esset". *Ibid.*
- 180 Erromako 465. urtean.
- 181 Plautiok Veturioren kastitatearen kontra egindakoa. Valerio Maximo, VI. lib., IX. art. Ez dira nahastu behar bi gertaera horiek; ez dira ez pertsonak berak, ez garai berak.
- 182 Ikus Dionisio Halikarnasokoaren zati bat, in *Bertute eta bizioen laburpena*; Tito Livioaren epitomea, XI. lib.; eta Freinshemius, XI. lib.
- 183 Plutarko, *Obra moralak, historia erromatar eta greko batzuen erkaketa*, II. tomoa, 487 or.

- 184 VI. legea, Teodosioren kodea, *de famosis libell.*
- 185 "Nervak", dio Tazitok, "areagotu egin zuen inperioaren erraztasuna".
- 186 Errusia handiko Estatua, 173 or., Parisko argitalpena, 1717.
- 187 Kalifak.
- 188 Tartariarren historia, hirugarren partea, 277. or., oharretan.
- 189 Ikus François Pyrard.
- 190 Gaur egun Pertsian bezala, Chardin-ek jakinarazten digunez; usadio hori oso zaharra da. "Kabades ahazturaren gazteluan sartu zuten", dio Propkopiok; "bada lege bat han sartuta daudenez hitz egitea, eta are aipatzea bera ere, debekatzen duena".
- 191 Liburu honetako VIII. liburuan.
- 192 5. legea, *ad leg. Jul. maj.* kodean.
- 193 Federikok lege hau kopiatu zuen *Napoliko Konstituzioak* obran, I. lib.
- 194 Monarkietan lege bat egon ohi da enplegu publikoak dituztenei printzearen baimenik gabe erresumatik alde egitea debekatzen diena. Lege hori errepubliketan ere ezarri behar da. Baina instituzio bereziak dituztenetan, debekuak orokorra izan behar du, ohitura arrotzak sar ez daitezen.
- 195 Plutarko.
- 196 Horrexek eragin zizkion Karlomagnori gorago aipatutako instituzio ederrak.
- Ikus *Kapitularrak*-eko bosgarren liburua, 303. art.
- 197 Hori horrelaxe egiten da Alemanian.
- 198 Polux, VIII. lib., X. kap., 130. art.
- 199 "Vectigal quoque quintae et vicesimae venalium mancipiorum remissum specie magis quam vi; quid cum venditor pendere juberetur in partem pretii, emptoribus accrescebat". Tazito, *Urtekariak*, XIII. lib.
- 200 Du Halde, II. t., 37. or.
- 201 Tartariarren historia, hirugarren partea, 290 or.



202 Atzeritarrekin merkataritza-harremanak izan nahi dituzte, baina haiekin komunikatu gabe, eta, hori dela eta, bi nazio aukeratu dituzte: holandarrak, Europako merkataritzarako, eta txinatarrak, Asiakorako; kartzela moduko batean dauzkate faktoreak eta marinelak, eta pazientzia galtzerainoko trabak jartzen dizkiete.

203 Errusian, zergak kaxkarrak dira; handitu egin dituzte han despotismoa leundu denez geroztik. Ikus *Tartariarren historia*, bigarren partea.

204 Estatuz osatutako herrialdeak.

205 Hori da Txinako enperadoreen usadioa.

206 Ikus, historian, zerga horien handitasuna, bitxikeria eta are eromena ere. Anastasiok airea arnasteagatiko bat imajinatu zuen: "ut quisque pro haustu aeris penderet".

207 Egia da ahalegin-egoera horrek eusten diola batez ere orekari, unatu egiten dituelako potentzia handiak.

208 Horretarako, aski da ia Europa osoan ezarritako miliziak, asmakizun berri hori, aztertzea, eta tropa arautuak eraman diren gehiegikeria berdinerara eramatea.

209 Ikus *Erromatarren finantzen tratatua*, II. kap., *Parisen inprimatua*, Briasson, 1740.

210 Zesar Asiako probintziatik publikanoak kendu beharrean gertatu zen, eta beste administrazio-era bat ezarri beharrean, Dionengandik jakin dezakegunez. Eta Tazitok diosku Mazedonia eta Akaia, Augustok herri erromatarrari utzitako probintziak eta, beraz, era zaharrean gobernatuak, enperadoreak bere ofizialen bitartez gobernatzen zituen probintzien arteko izatea lortu zutela.

211 Ikus Chardin, *Pertsiako bidaia*, VI. t.

212 Tazito, *Urtekariak*, XIII. lib.

## **HIRUGARREN PARTEA**

1 Begietara ere gauza bera ageri ohi da: hotza denean, itxura meheagoa izaten dugu.

2 Gauza jakina da burdina uzurtu egiten duela.

3 Espainiako erregetzaren oinordetzagatikoak.

4 Espainian, adibidez.

5 "Europako ehun soldaduk", dio Tavernier-ek, "ez lukete neke handirik mila soldadu indiar menderatzeko".

6 "Indietan bizitzen jartzen diren pertsiarrek ere, hirugarren belaunaldira orduko, indiarren alferkeria eta koldarkeria hartzen dute". Ikus Bernier, *Mogolaz*, I. t., 282 or.

7 Konstantino Porfirogenetak jasotako Nikolas Damaskokoaren zati batean ageri da aspaldiko ohitura zela Ekialdean gogokoa ez zen gobernadorea iratotea; mediarren garaikoa zen ohitura hori.

8 Panamanack. Ikus Kircher.

9 La Loubère, *Siamgo kontakizuna*, 446. or.

10 Foe-k bihotza huts oso bihurtu nahi du. "Begiak eta belarriak ditugu; baina betegintzarrea ez ikustea ez aditzea da; ahoa, eskuak, etab. ditugu... Betegintzarrea soin-atal horiek ezer egin gabe egotea da". Testu hori filosofo txinatar bati hartua da, Aita Du Halde-k aldatua, III. tomoa.

11 Aita Du Halde, *Txinaren historia*, II. t., 72. or.

12 Indietako zenbait erregek gauza bera egiten dute. *Siamgo erresumako kontakizuna*, Loubère, 69 or.

13 Ven-ti-k, hirugarren dinastiako hirugarren enperadoreak, bere eskuez lantzen zuen lurra; eta seda lantzerantz behartu zituen, bere jauregian, enperatriza eta haren zerbitzuko emakumeak. *Txinaren historia*.

14 Hyde, *Pertsiarren erlijioa*.

15 Bernier-ek, Lahoretik Kaxmirrera bidaian, honela idatzi zuen: "Nire gorputza bahe bat da: basokada bat ur edan orduko, ihintza bezala ikusten dut irteten gorputz-atal guztietatik behatzen muturreraino. Hamar pinta edaten ditut eguneko, eta ez dit gaitzik egiten". Bernier-en *Bidaia*, II. t., 261 or.

16 Odolean globulu gorriak, zuntzez osatutako parteak eta globulu zuriak ditugu, eta hori guztia igerian dabil uretan.

17 Platon, *Legeak*; II. lib.; Aristotele, *Etxeko arazoen zainketaz*; Eusebio. *Prep. evang.*, XII. lib., XVII. kap.

18 Horixe ikusten da hotentoteen artean eta Txileko puntuako herrietan, hegoaldeetik hurbilago baitaude.

19 Pitakok egin bezala, Aristotelek dioenez, *Politika*, II. lib., III. kap. Mozkorkeria nazio osoaren bizioa ez den klima batean bizi zen.

20 II. lib.

21 II. lib., I. tit., 3. §; 18. tit., 1. §.

22 Ricaut, *Inperio Otomanoaz*, 284 or.

23 Beren buruak hiltzen dituztenen ekintza lege naturalaren eta errebelatutako erlijioaren kontrakoa da.

24 Baliteke eskorbutuarekin nahastuta egotea; izan ere, herrialde batzuetan bereziki, gizon bat arraro eta jasanezin bihurtzen baitu baita bere buruarentzat ere. François Pyrard-en *Bidaia*, II. part., XXI. kap.

25 Hemen ezarritako boterea –eta batez ere demokrazia– iraultzeko asmoa adierazteko darabilt hitz hau. Esanahi horixe ematen zioten greziarrek eta erromatarrek.

26 LVIII. kap., 1. eta 2. §.

27 Bisigodoen legea, III. lib., 4. tit. 9. §.

28 Ibid., III. lib., 4. tit. 6 §.

29 Ibid., III. lib., 4. tit. 13 §.

30 Ikus Bernier, II. t., 140 or.

31 Ikus *Onbidezko gutunak*-en hamalagarren bilduma, 403 or., Indian Ganges ibaiaz hemendik bizi diren herrien lege edo ohitura nagusiak.

32 *Onbidezko gutunak*, bederatzigarren bilduma, 378 or.

33 Uste nuen Indietako esklabotzaren gozoak esanarazi ziola Diodorori herrialde hartan ez zegoela ez nagusirik ez esklaborik, baina Diodorok India osoari egotzi dio Estrabonen arabera –XV. lib.– nazio bakar bati zegokiona.

34 Justinianoren *Instit.*, I. lib.

35 Baldin eta beren presoak jaten dituztenak aipatu nahi ez badira.

36 Esklabotzaz adiera estuenean ari naiz, erromatarren artean zen bezalakoaz; horrela dago ezarrita gure kolonietan.

37 *Bibliot. ingel.*, XIII., bigarren partea, 3. art.

38 Ikus *Mexikoko konkistaren historia*, Solis; eta Perukoa, Garcilaso de la Vega idatzia.

39 Aita Labat, *Bidaia berria Amerikako uharteetara*, IV. t., 114. or., 1722, in-12\*.

40 *Errusia handiaren egungo egoera*, Jean Perry, Paris, 1717, in-12.

41 *Beste Bbdaia bat munduaren biran*, Guillaume Dampierre, III. t., Amsterdam, 1711.

42 *Politika*, I. lib., I. kap.

43 Alemania behereko Hartz-ko meategietan, bai eta Hungariakoetan ere, gertatzen denaz badaukagu zer ikasia alde horretatik.

44 *De moribus German.*

45 "Ezin bereiziko zenukete", dio Tazitok (*Germaniarren ohiturez*), nagusia eta esklaboa, bizitzako gozoei dagokienez".

46 Ikus Chardin, *Pertsiako bidaia*.

47 Ikus Chardin, II. t., Izagurko merkatuaren deskribapenean.

48 I. lib., 32. tit., 5. §.

49 Mamelukoen errebolta kasu partikular bat zen: soldadu esklabo izatetik nagusi izatera pasatu ziren.

50 Bisigodoen legeak, III. lib., I. tit. 1 §.

51 Ibi., V. lib., 7. tit. 20 §.

52 Ibid., IX. lib., 1. tit. 9 §.

53 Alemanen legea, V. kap., 3. §.

54 Ibid., V. kap., 5. §, *per virtutem*.

55 "Sizilia", dio Florok, "esklaboen gerrak, gerra punikoak baino gogorrago sakailatua", III. lib.

56 Ikus *de senat. consult. Sillan*. titulu osoa.

57 *Leg. Si quis*, 12, ff. *de senat. consult. Sillan*.

58 Antoniok Eros-i hil zezala agindu zionean, hori ez zen hil zezala agintzea, bere burua hiltzea baizik; izan ere, obeditu balio, bere nagusiaren hiltzaile gisa zigortuko baitzuten.

59 I leg., 22 ff. *de senat. consult. Sillan*.

60 I leg., 31 ff. *ibid*.

61 Xifilin, in *Klaudio*.

62 Ikus III. legea Alexandro enperadorearen *de patriae potestate* kodean.

63 Plutarko, *Superstizioaz*.

64 Ikus Antonino Pioren konstituzioa, *Instit.*, I. lib., 7. tit.

65 *Legeez*, IX. lib.

66 Horixe izan zen germaniatik irtendako herrien legeen izpiritua ere, maiz, haien kodeetan ikus daitekeenez.

67 Demostenes, *Orat. contra Mediam*, 610. or., Frankfurt-eko argitalpena, 1604.

68 Tazito, *Urtekariak*, XIII. lib.

69 Freinshemius-en gehigarria, *Bigarren hamarkada*, V. lib.

70 *Irteera*, XXI. kap.

71 Tazito, Urtekariak, III. lib.

72 Augustoren harenga, Dion-engan, LVI. lib.

73 III. t., 91. or.

74 Gauza bera gertatzen zen antzina Txinan. IX. mendean hara bidaia egin zuten bi arabiar mahometarrek "eunukoa" diote hiri bateko gobernadoreaz ari direnean.

75 III. t., 94. or.

76 Mahoma Kadisharekin ezkondu zen bost urte zituenean, eta zortzi urte zituenean etzan zen berarekin. Arabia eta Indietako herrialde beroetan, neskatoak ezkontzeko gai dira zortzi urtetan, eta handik urtebetera oheratzen dira senarrarekin. Prideaux, *Mahomaren bizitza*. Aljeriako erresumetan, bederatzi, hamar eta hamaika urtetan haurrak izaten dituzte emakumeek. Logier de Tassis, *Aljeriako erresumaren historia*, 61. or.

77 Ikus Jordanis, *De regno et tempor. succes.* eta Elizaren historialariak.

78 Ikus VII. legea, *De Judaeis et coelicolis* kodean; eta 18. novella, V. kap.

79 Sri Lankan, gizon batek, bizitzeko, hamar soldu (antzinako diru bat) behar ditu hilean; ez da arroza eta arraina besterik jaten. *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, II. t., lehen partea.

80 Arbutnot jaunak dio Ingalaterran mutil-kopurua neskena baino handiagoa dela; hortik ondorio okerra atera da, gauza bera gertatzen dela klima guztietan.

81 Ikus Kempfer. Meakoko errolda bat ematen digu, non 182.072 gizonezko eta 223..573 emakume zenbatzen diren.

82 Ikus Smith-en *Gineako bidaia*, bigarren partea, Anté-ko herrialdeaz.

83 Du Halde, *Txinako oroitzapenak*, IV. t., 46. or.

84 Albuzeir el-hassen-ek, IX. mendean Indietara eta Txinara joan ziren bi mahometarretako batek, prostituziotzat hartzen du usadio hori. Ezerk ez baitzuen txoke handiagoa egiten mahometarren ideiekin.

85 *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, I. t.

86 François Pyrard-en *Bidaiak*, XXVII? kap. *Onbidezko gutunak*, hirugarren eta hamargarren bildumak, Malabarko kostako Malleamiaz. Hori lanbide militarren gehiegikeria gisa hartzen da; eta Pyrard-ek dioen bezala, Braminen kastako emakume bat inoiz ez da ezkonduko senar bat baino gehiagorekin.

87 Horregatik ezkontzen dira hainbesteko arduraz emakumeak Ekialdean.

88 Justinianoren bizitzaz eta egintzez. 403. or.

89 Logier de Tassis, *Aljerko Historia*.

90 François Pyrard-en *Bidiak*, XII. kap.

91 *Irteera*, XXI. kap., 10 eta 11 berts.

92 "Altxor bat apartatuta aurkitu eta haren jabe izan ahal izatea; edo emakume eder bat bakarrik logela batean; geure etsaiaren ahotsa entzun, laguntzen ez badiegu hil-hurren direlarik: horra froga-harri ederrak". Moralari buruzko obra txinatar batetik itzulua, Aita Du Halderen lanean, III. t., 151. or.

93 *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, II. t., II. parte, 196 or.

94 Maldivetan, aitek hamar eta hamaika urterekin ezkontzen dituzte alabak; bekatu handia baita, dioten berek, gizonen beharrean edukitzea. François Pyrard-en *Bidaiak*, XII. kapitulua. Bantam-en, neska batek hamahiru edo hamalau urte izan orduko, ezkondu egin behar du, ez bada nahi bizimodu desordenatua har dezan. *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, 348. or.

95 *Gineako bidaia*, bigarren parte, frantsesezko itzulpeneko 192. or. "Emakumeek gizon bat aurkitzen dutenean", dio, "hartu eta, mespreziatzen baditu, senarraren aurrean salatuko dituztela mehatxatzen dute. Gizon baten ohean sartzen dira, esnatu egiten dute; eta hark errefusatu egiten baditu, mehatxu egiten diote egoera hartan harrapa ditzaten uztearekin".

96 Mahomak emazteak gordetzeko gomendatu zien beretarrei; iman batek, hiltzerakoan, gauza bera esan zuen; eta Konfuziok ere doktrina hori predikatu du.

97 Horrek ez du esan nahi kristautasunean onartuta dagoela emaztea antzua denean zapuztea.

98 François Pyrard-en *Bidaiak*. Besteren bat baino lehenago hartzen dute, zeren eta hartara gastu gutxiago egin behar baitira.

99 *Konkistaren historia*, Solis, 499. or.

100 *Romuloren bizitza*.

101 Solonen lege bat zen.

102 "Mimam res suas sibi habere jussit, ex duodecim tabulis causam addidit. Filip. II.

103 Justinianok aldatu zuen hori, 117 novel., X. kap.

104 II. lib.

105 II. lib., IV. kap.

106 IV. lib., III. kap.

107 Dionisio Halikarnasokoaren eta Valerio Maximoren arabera; eta 523. urtean, Aulo Gelioren arabera. Ez dituzte kontsul berberak sartzen.

108 Ikus Veturioren diskurtsua, Dionisio Halikarnasokoa, VIII. lib.

109 Plutarko, *Romuloren bizitza*.

110 Id., ibid.

111 Hain zuzen, Romuloren legeak ez du aipatzen antzutasunaren arrazoa. Badirudi ez zela konfiskazio-subjektu izan, zentsoreen aginduari men egin zielako.

112 *Teseoren eta Romuloren arteko konparazioa* obran.

113 XXIII. liburuan, XXI. kap.

114 Aita Du Halde, I. t., 112. or.

115 Liburu txinatarrek ere hala diote. Ibid., IV. t., 448. or.

116 Ikus *Iparraldeko bidaiak*, VIII. t.; *Tartariarren historia*; eta Aita Du Halderen Txinari buruzko laugarren alea.



117 Hortaz, Tartaria mendi lau baten antzekoa da.

118 Hala nola Ven-ti-k, bosgarren dinastiako bosgarren enperadoreak.

119 Eszitek hiru bider konkistatu zuten Asia, eta hiru bider bota zituzten handik.  
Justino, II. lib.

120 Hori ez doa XXVIII. liburuko XX. kapituluaren esango dudanaren kontra, herri  
germaniarrek makilaz duten pentsaeraz, alegia. Tresna izan arren, beti hartu zuten  
laidotzat jotzearen ahalmena edo ekintza arbitrarioa.

121 *Humani generis officinam.*

122 Urak galdu edo lurrindu egiten dira, bildu aurretik edo bildu ondoren.

123 Amerikako herri barbaro txikiei "Indios bravos" deitzen diete espainiarrek;  
askoz menderagaitzagoak dira Mexiko eta Peruko inperio handiak baino.

124 VII. lib.

125 *Solonen bizitza.*

126 Edo *De mirabilibus* liburua idatzi duenak.

127 Japonia salbuespena da bere handitasunaz eta esklabotzaz.

128 Polibio, X. liburua.

129 Horregatik diosku Diodorok artzainek aurkitu zutela Pirinioetako urrea.

130 *Onbidezko gutunak*, hogeigarren bilduma.

131 Kan bat aldarrikatzen dutenean, herri guztiak egiten du oihu: "Hitza ezpata  
izan beza!".

132 XVII. lib., V. kap.

133 Ez da harritzekoa, beraz, Miriveis-ek, Ispahango nagusi bihurturik, odoleko  
printze guztiak hilarazi izana.

134 62. tit.

135 *"Nullas Germanorum populis urbes habitari fatis noeum est, ne pati quidem*  
*inter se junctas sedes; colunt discreti, ut nemus placuit. Vicos locant, non in*

nostrum morem connexis et cohaerentibus aedificiis; suam quisque domum spatio circumdat". De morib. Germ.

136 Alemanen legea, X. kapitulua; Bavariarren legea, 10 tit., 1 eta 2 §.

137 Esparru horri curtis deitzen zaio gutunetan.

138 Ikus Markulfo, II. lib., 10 eta 12 form.; Markulforen Eranskina, 49 form.; eta antzinako formulak, Sirmond-enak deituak, 22 form..

139 55 form., Lindenbroch-en bilduman.

140 "De terra vero salica in mulierem nulla portio hereditatis transit, sed hoc virilis sexus acquirit, hoc est filii in ipsa hereditate succedunt". Tit. 62, 6.

141 "Sororum filiis idem apud avunculum quam apud patrem honor. Quidam sanctiorem arctioremque hunc nexum sanguinis arbitrantur, et in accipiendis obsidibus magis exigunt, tanquam ii et animum firmitus et domum latius teneant".

De morib. Ger.

142 Ikus Gregorio Tourskoa, VIII. lib., XVIII eta XX. kap.; IX. lib., XVI eta XX. kap., Gontran-en sumina Leovigildok haren iloba Ingundari ematen zizkion tratu txarreatatik; eta nola Txildebertok, neskaren nebak, gerra egin zuen mendeku hartzeko.

143 Lege salikoa, 47. tit.

144 Ibid., 61. tit., 1 §.

145 "Et deinceps usque ad quintum genuculum qui proximus fuerit in hereditatem succedat", 56. tit., 6. §.

146 56. tit.

147 7. tit., 1. §, "Pater aut mater defuncti, filio, non filiae, hereditatem relinquunt". 4. §, "Qui defunctus, non filios, sed filias reliquerit, ad eas omnis hereditas pertineat".

148 Markulfo, II. lib., 12. form.; eta Markulforen Eranskina-n, 49. form.

149 Lindembroch-en bilduman, 55. form.

150 Du Cange, Pithou, etc.

151 62. tit.

152 I. tit., 3. §; 14. tit., 1. §; eta 51. tit.

153 IV. lib., 2. tit., 1. §.

154 "Nazio germaniarrek", dio Tazitok, "usadio komunak zituzten; partikularrak ere bazituzten".

155 Koroa, ostrogodoen artean, bi aldiz pasatu zen emakumeetatik gizonezkoetara: behin, Amalasuntaren bidez, Atalarikorengana; beste behin, Amalafredaren bidez, Teodatorengana. Ez haien artean emakumeek ezin dutelako erreinatu berez: Amalasuntak, erreinatu egin zuen Atalariko hil ondoren, bai eta Teodato errege aukeratu eta gero ere, berarekin lehian. Ikus Amalasuntaren eta Teodatoren gutunak, in Kasiodoro, X. lib.

156 "Propore soli barbarorum singulis uxoribus contentisunt". *De morib. Germ.*

157 "Exceptis almodum paucis qui, non libidine, sed ob nobilitatem, plurimis nuptiis ambiuntur". Ibid.

158 Ikus Fredegarioren *Kronika*, 628. urte inguruan.

159 "Severa matrimonia... Nemo illic vitia ridet; nec corrumpere et corrompi saeculum vocatur". *De moribus Germanorum.*

160 "Paucissima in tam numerosa gente adulteria". Ibid.

161 "Nihil, neque publicae, neque privatae rei, nisi armati agunt". Tazito, *De morib. Germ.*

162 "Si displicuit sententia, aspernantur; sin placuit, frameas concutiunt". Ibid.

163 "Sed arma sumere non ante cuiquam moris quam civitas suffecturum probaverit".

164 "Tum ipso concilio, vel principum aliquis, vel pater, vel propinquus, scuto frameaque juvenem ornant".

165 "Haec qpud illos toga, hic primus juvena honos: ante hoc domus pars videntur, mox republicae".

166 Teodoriko, in Kasiodoro, I. lib., 38. gutuna.

167 "Bost urte bete gabe zituen", dio Gregorio Tourskoak, V. lib., I. kap., "aitaren oinordetza hartu zuenean, 575. urtean; bost urte zituen, beraz. Gontranek 585. urtean deklaratu zuen adinez nagusi; beraz, hamabost urte zituen.

168 81. tit.

169 87. tit.

170 Ez zen aldaketarik izan plebeioentzat.

171 San Luis ez zen nagusi izan adin horretara arte. Hori aldatu egin zen Karlos V.aren ediktu baten bidez, 1374. urtean.

172 Gregorio Tourskoak III. liburuan dioenez, Borgoniako –alegia, Klodomioren konkista bateko– bi gizon aukeratu zituen Toursen hezteko, hura ere Klodomioren erresumakoa baitzen.

173 Gregorio Tourskoa, V. lib., I. kap. "Vix lustro aetatis una jam peracto, qui, die dominicae natalis, regnare coepit".

174 Ikus Gregorio Tourskoa, VII. lib., XXIII. kap.

175 In Kasiodoro, IV. lib., 2. gutuna.

176 Gregorio Tourskoa, II. lib.

177 Ibid.

178 "Nec regibus libera aut infinita potestas. Caeterum neque animadvertere, neque vincire, neque verberare, etc.". *De morib. Germ.*

179 "In pace nullus est communis magistratus; sed principes regionum atque pagorum inter suos jus dicunt". *De belo Gall.*, VI. lib.

180 II. lib.

181 "De minoribus principes consultant, de majoribus omnes; ita tamen ut ea quorum penes plebem arbitrium est, apud principes quoque pertractentur". *De morib. Germ.*

182 "Lex consensu populi fit et constitutione regis". Karlos Burusoilaren kapitularrak, 864. urtea, 6. art.

183 "Licet apud concilium accusare et discrimen capitis intendere". *De morib. Germ.*

184 "Silentium per sacerdotes, quibus et coercendi jus est, inperatur". *De morib. Germ.*

185 "Nec regibus libera aut infinita potestas. Coeterum neque animadvertere, neque vincere, neque verberare, nisi sacerdotibus est permissum; non quasi in paenam, nec ducis jussu, sed velut deo imperante, quem adesse bellatoribus credunt". Ibid.

186 Ikus Klotarioren konstituzioa, 560. urtekoa, 6. art.

187 Mihia ebakitzen zieten abokatuei, esanez: "Sugegorri hori, ez egin txistu gehiago". Tazito.

188 Agazias, IV. lib.

189 Justino, XXXVIII. lib.

190 "Calumnias litium". Ibid.

191 "Prompti aditus, nova comitas, ignotae Parthis virtutes, nova vitia". Tazito.

192 1596ean egin zuen deskribapena, *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, III. t., I. parte, 33 or.

193 LIV. lib., 532 or.

194 Ikus *Erleen fabula*.

195 Malakanbarko kanari jarraitzen zaizkion herriak, Karnataka eta Koromandelkoak, herri harro eta alferrak dira; gutxi kontsumitzen dute, miserableak direlako; mongolak eta Indostaneko herriak, aldiz, bizitzako

erosotasunez arduratzen dira eta gozatzen dute, europarrak bezala. *Indietako Konpainia ezartzeko balio izan duten bidaien bilduma*, lehen tomoa, 54. or.

196 Ikus Dampierre, III. t.

197 *Onbidezko gutunak*, hamabigarren bilduma, 80. or.

198 XLIII. lib.

199 Klima eta lurraldea diren bezalakoak direlako.

200 Aita Du Halde, II. t.

201 Hala dio Aita Du Haldek.

202 Moisesek kode bakar bat egin zuen legeentzat eta erlijioarentzat. Lehen erromatarrek nahastu egiten zituzten antzinako ohiturak legeekin.

203 Ikus Aita Du Halde.

204 Ikus liburu klasikoak; Aita Du Haldek oso zati ederrak eman dizkigu horietatik.

205 Horrexek ezarri du emulazioa, alferkeriatik ihes egitea, eta jakintza estimatzea.

206 Ikus txinatar magistratuek emandako arrazoiak, erlijio kristaua legez kanpo uzteko emandako dekretuetan. *Onbidezko gutunak*, hamazazpigarren bilduma.

207 Ikus IV. lib., III. kap.; XIX. lib., XII. kap.

208 Ikus hemen aurrerago, XXIV lib., III. kap.

209 Lange-ren *Egunkaria*, 1721 eta 1722an; *Iparraldeko bidaiak*-eko VIII. kap., 363. or.

210 *Legeez*, XII. lib.

211 Ibid.

212 *In simplum*.

213 Tito Livio, XXXVIII. lib.

214 *Instit.*, II. lib., 6. tit., 2. §; Ozel-en bilduma, Leiden, 1658.

215 *Instit.*, II. lib., "de pupil., substit.", 3. §.

216 Honela dio ordezkapen arruntak: "Norbaitek ez badu oinordekotza hartzen, ordezkatu egingo dut...". Arduraekoaren ordezkapenak honela dio: "Norbait pubertatea baino lehen hiltzen bada, ordezkatu egingo dut...".

217 III. lib., I. tit., 5. §.

218 VIII. leg., *de repudiis* kodea.

219 Eta Hamabi Tauletako legeetatik. Ikus Zizeron, *Bigarren Filipika*.

220 "Si verberibus, quae ingenuis aliena sunt, afficientem probaveris".

221 In 117. novellan, XIV. kap.

222 VI. kap.

## AURKIBIDEA

## LEGEEN IZPIRITUAZ

Egilearen oharra

Hitzaurrea

## LEHEN PARTEA

### LEHEN LIBURUA

#### LEGEEZ, ORO HAR

I. kapitulua: Legeez, izakiekin duten zerikusiaren aldetik.-

II. kapitulua: Naturaren legeez.

III. kapitulua: Lege positiboez.

### II. LIBURUA

#### GOBERNU-ERAREN IZAERATIK ZUZENEAN ERATORTZEN DIREN

##### LEGEEZ

I. kapitulua: Hiru gobernu-eren izaeraz

II. kapitulua: Gobernu errepublikarraz, eta demokraziari doazkion legeez.

III. kapitulua: Aristokraziaren izaerari buruzko legeez.

IV. kapitulua: Legeez, gobernu monarkikoaren izaerarekin duten zerikusiaren aldetik.

V. kapitulua: Estatu despotikoaren izaerari dagozkion legeez.

### III. LIBURUA

#### HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOEZ

I. kapitulua: Gobernu-eraren eta bere printzipioaren arteko aldea.



- II. kapitulua: *Gobernu-mota bakoitzaren printzipioaz.*
- III. kapitulua: *Demokraziaren printzipioaz.*
- IV. kapitulua: *Aristokraziaren printzipioaz.*
- V. kapitulua: *Bertutea ez dela gobernu monarkikoaren printzipioa.*
- VI. kapitulua: *Nola ordezkatzan den bertutea gobernu monarkikoan.*
- VII. kapitulua: *Monarkiaren printzipioaz.*
- VIII. kapitulua: *Ohorea ez dela estatu despotikoen printzipioa.*
- IX. kapitulua: *Gobernu despotikoaren printzipioaz.*
- X. kapitulua: *Gobernu moderatuetan eta gobernu despotikoetan obeditzearen arteko aldea.*
- XI. kapitulua: *Honi guztiari buruzko gogoeta.*

#### **IV. LIBURUA**

##### **HEZKUNTZAKO LEGEEK GOBERNU-ERAREN PRINTZIOEI**

##### **DAGOZKIENAK IZAN BEHAR DUTELA**

- I. kapitulua: *Hezkuntzako legez.*
- II. kapitulua: *Monarkietako hezkuntzaz.*
- III. kapitulua: *Gobernu despotikoko hezkuntzaz.*
- IV. kapitulua: *Antzinakoen hezkuntzaren eta gurearen ondorioen arteko aldea.*
- V. kapitulua: *Gobernu errepublikarreko hezkuntzaz.*
- VI. kapitulua: *Greziarren zenbait instituzioz.*
- VII. kapitulua: *Instituzio berezi horiek zein kasutan izan daitezkeen onak.*
- VIII. kapitulua: *Antzinakoen paradoxa baten azalpena, ohiturei dagokienez.*

#### **V. LIBURUA**

##### **LEGEGILEAK EMATEN DITUEN LEGEEK GOBERNUAREN**

##### **PRINTZIOAREN ARABERAKOAK IZAN BEHAR DUTELA**

- I. kapitulua: *Liburu honen ideia.*
- II. kapitulua: *Estatu politikoan bertutea zer den.*
- III. kapitulua: *Demokrazian errepublika maitatzea zer den.*
- IV. kapitulua: *Nola kutsatzen den berdintasunarekiko eta urritasunarekiko maitasuna.*
- V. kapitulua: *Legeek nola ezartzen duten berdintasuna demokrazian.*
- VI. kapitulua: *Legeek nola eutsi behar dioten urritasunari demokrazian.*
- VII. kapitulua: *Demokraziaren printzipioari laguntzeko beste bide batzuk.*
- VIII. kapitulua: *Nola legeak gobernu-eraren printzipioarekin erlazionatu behar diren aristokrazian.*
- IX. kapitulua: *Nola legeak beren printzipioari dagozkion monarkian.*
- X. kapitulua: *Monarkian laster egikaritzeaz.*
- XI. kapitulua: *Gobernu monarkikoaren bikaintasunaz.*
- XII. kapitulua: *Gai beraren jarraipena.*
- XIII. kapitulua: *Despotismoaren ideia.*
- XIV. kapitulua: *Nola legeak gobernu despotikoaren printzipioari dagozkion.*
- XV. kapitulua: *Gai beraren jarraipena.*
- XVI. kapitulua: *Boterea emateaz.*
- XVII. kapitulua: *Opariez.*
- XVIII. kapitulua: *Subiranoak ematen dituen sariez.*
- XIX. kapitulua: *Hiru gobernu-eren ondorio berriak.*

## **VI. LIBURUA**

**GOBERNU-EREN PRINTZPIOEN ONDORIOAK, LEGE ZIBIL ETA**  
**KRIMINALEN SINPLETASUNARI, EPAIEN FORMARI, ZIGORRAK**  
**EZARTZEARI DAGOKIENEZ.**

- I. kapitulua: Gobernu-era bakoitzeko lege zibilen sinpletasunaz.
- II. kapitulua: Gobernu-era bakoitzeko lege kriminalen sinpletasunaz.
- III. kapitulua: Zein gobernu-eratan eta zein kasutan epaitu behar den legearen testu zehatz baten arabera.
- IV. kapitulua: Epaketak eratzeke moduaz.
- V. kapitulua: Zein gobernu-eratan izan daitekeen subiranoa epaile.
- VI. kapitulua: Monarkian ministroek ez dutela epaitu behar.
- VII. kapitulua: Magistratu bakarraz.
- VIII. kapitulua: Gobernu-era desberdinetan salatzeaz.
- IX. kapitulua: Gobernu-era desberdinetako zigorren gogortasunaz.
- X. kapitulua: Frantziako lege zaharrez.
- XI. kapitulua: Herri bat bertutetsua denean zigor gutxi behar duela.
- XII. kapitulua: Zigorren ahalmenaz.
- XIII. kapitulua: Japoniako legeen ezina.
- XIV. kapitulua: Erromako senatuaren izpirituez.
- XV. kapitulua: Erromatarren legez, zigorrei zegokienez.
- XVI. kapitulua: Zigorren eta delituen arteko proportzio justuaz.
- XVII. kapitulua: Delitugileen kontrako torturaz.
- XVIII. kapitulua: Diru-zigorrez eta gorputz-zigorrez.
- XIX. kapitulua: Talioaren legez.
- XX. kapitulua: Haurren ordeztasunaz.
- XXI. kapitulua: Printzearen errukitasunaz.

## **VII. LIBURUA**

**HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOEN ONDORIOAK, LUXUARI**  
**BURUZKO LEGEEI, LUXUARI ETA EMAKUME IZATEARI**  
**DAGOKIENEZ.**

- I. kapitulua: Luxuaz.
- II. kapitulua: Demokraziako luxuari buruzko legeez.
- III. kapitulua: Aristokraziako luxuari buruzko legeez.
- IV. kapitulua: Monarkiako luxuari buruzko legeez.
- V. kapitulua: Luxuari buruzko legeak zein kasutan diren baliagarri monarkia batean.
- VI. kapitulua: Txinako luxuaz.
- VII. kapitulua: Luxuaren ondorio gaiztoa Txinan.
- VIII. kapitulua: Kontinentzia publikoaz.
- IX. kapitulua: Emakumeek gobernu-era desberdinetan duten egoeraz.
- X. kapitulua: Erromatarrek etxeko arazoetarako zuten auzitegiak.
- XI. kapitulua: Nola Erroman, gobernu-erarekin batera, instituzioak ere aldatu ziren.
- XII. kapitulua: Erromatarrek zuten emakumeen tutoretzaz.
- XIII. kapitulua: Enperadoreek emakumeen lizunkeriaren kontra ezarritako zigorrez.
- XIV. kapitulua: Erromatarrek luxuari buruz zeuzkaten legeak.
- XV. kapitulua: Konstituzio desberdinetako doteez eta ezkontza-hobekuntzez.
- XVI. kapitulua: Samniten ohitura ederra.
- XVII. kapitulua: Emakumeen administrazioaz.

**VIII. LIBURUA**

**HIRU GOBERNU-EREN PRINTZPIOAK USTELTZEAZ**

- I. kapitulua: Emakumeen administrazioaz.
- II. kapitulua: Demokraziaren printzipioa usteltzeaz.
- III. kapitulua: Gehiegizko berdintasunaren izpiritua.
- IV. kapitulua: Herria galbideratzearen kausa partikular bat.
- V. kapitulua: Aristokraziaren printzipioa usteltzeaz.
- VI. kapitulua: Monarkiaren printzipioa usteltzeaz.
- VII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.
- VIII. kapitulua: Gobernu monarkikoaren printzipioa usteltzeko arriskua.
- IX. kapitulua: Nola nobleziak tronua defendatzeko joera duen.
- X. kapitulua: Gobernu despotikoaren printzipioa usteltzeaz.
- XI. kapitulua: Printzipioen ontasunaren eta usteltzearen ondorio naturalak.
- XII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.
- XIII. kapitulua: Zin egiteak herri bertutetsu batean duen ondorioa.
- XIV. kapitulua: Nola Konstituzioan aldaketarik txikiena egiteak printzipioen hondamendia dakarren.
- XV. kapitulua: Bitarteko oso eraginkorrak hiru printzipioak gordetzeko.
- XVI. kapitulua: Errepublikaren bereizgarriak.
- XVII. kapitulua: Monarkiaren bereizgarriak.
- XVIII. kapitulua: Espainiako monarkia kasu partikular batean zegoela.
- XIX. kapitulua: Gobernu despotikoaren bereizgarriak.
- XX. kapitulua: Aurreko kapituluen ondorioa.
- XXI. kapitulua: Txinako inperioaz.

## **BIGARREN PARTEA**

### **IX. LIBURUA**

## LEGEEZ, DEFENTSA-INDARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN

### ALDETIK.

- I. kapitulua: Nola arduratzen diren errepublikak beren segurantza.
- II. kapitulua: Konstituzio federatiboak izaera bereko estatuz osatuta egon behar duela, batez ere estatu errepublikarrez.
- III. kapitulua: Errepublika federatiboetan bete beharreko beste gauza batzuk.
- IV. kapitulua: Nola arduratzen diren estatu despotikoak beren segurantza.
- V. kapitulua: Nola arduratzen den monarkia bere segurantza.
- VI. kapitulua: Estatuen defentsa-indarraz, oro har.
- VII. kapitulua: Gogoetak.
- VIII. kapitulua: Estatu baten defentsa-indarra eraso-indarra baino txikiagoa deneko kasu bat.
- IX. kapitulua: Estatuen indar erlatiboaz.
- X. kapitulua: Auzo-estatuen ahuleziaz.

### X. LIBURUA

## LEGEEZ, ERASO-INDARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

- I. kapitulua: Eraso-indarraz.
- II. kapitulua: Gerraz.
- III. kapitulua: Konkista-eskubideaz.
- IV. kapitulua: Herri konkistatuaren abantaila batzuk.
- V. kapitulua: Gelon, Sirakusako erregea.
- VI. kapitulua: Konkistatu egiten duen errepublika batez.
- VII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.
- VIII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

IX. kapitulua: Bere inguruak konkistatzen dituen monarkia batez.

X. kapitulua: Beste monarkia bat konkistatzen duen monarkiaz.

XI. kapitulua: Garaitutako herriaren ohiturez.

XII. kapitulua: Zioren lege batez.

XIII. kapitulua: Karlos XII.a.

XIV. kapitulua: Alexandro.

XV. kapitulua: Konkistaturikoari eusteko bitarteko berriak.

XVI. kapitulua: Konkistatzen duen estatu despotiko batez.

XVII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

## **XI. LIBURUA**

### **LIBERTATE POLITIKOA ERATZEN DUTEN LEGEEZ,** **KONSTITUZIOAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK**

I. kapitulua: Ideia orokorra.

II. kapitulua: Libertate hitzari emandako esanahi desberdinak.

III. kapitulua: Libertatea zer den.

IV. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

V. kapitulua: Estatuen xedeaz.

VI. kapitulua: Ingalaterrako Konstituzioaz.

VII. kapitulua: Ezagutzen ditugun monarkiez.

VIII. kapitulua: Zergatik antzinakoek ez zuten oso ideia argia monarkiaz.

IX. kapitulua: Aristoteleren pentsaera.

X. kapitulua: Beste politikari batzuen pentsaera.

XI. kapitulua: Greziarrek garai heroikoetan izandako erregeez.

XII. kapitulua: Erromako erregeen gobernuaz, eta nola banatu zituzten han hiru botereak.

XIII. kapitulua: Gogoeta orokorrak Erromako estatuaz, erregeak kanporatu ondoren.

XIV. kapitulua: Hiru botereen banaketa nola hasi zen aldatzen, erregeak kanporatu ondoren.

XV. kapitulua: Nola, errepublikako estatua loratzen ari zenean, Erromak bat-batean galdu zuen bere libertatea.

XVI. kapitulua: Errepublika erromatarreko botere legegileaz.

XVII. kapitulua: Errepublika horretako botere betearazleaz.

XVIII. kapitulua: Erromako gobernu-eraren epaitzeko botereaz.

XIX. kapitulua: Erromatar probintzien gobernuaz.

XX. kapitulua: Liburu honen amaia.

## **XII. LIBURUA**

### **LIBERTATE POLITIKOA ERATZEN DUTEN LEGEEZ,** **HIRITARRAREKIN DUTEN ZERIKUSIA REN ALDETIK**

I. kapitulua: Liburu honen ideia.

II. kapitulua: Hiritarraren libertateaz.

III. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

IV. kapitulua: Zigorren izaerak eta proportzioak on egiten diola libertateari.

V. kapitulua: Neurritasunaren eta zuhurtziaren behar berezia duten zenbait akusazioz.

VI. kapitulua: Naturaren kontrako delituaz.

VII. kapitulua: Lesa majestate delituaz.

VIII. kapitulua: Sakrilegio eta lesa majestate delituen izenak oker erabiltzeaz.

IX. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

X. kapitulua: Gai beraren jarraipena.



XI. kapitulua: Pentsamenduez.

XII. kapitulua: Hitz zuhurtziarik gabeez.

XIII. kapitulua: Idatziez.

XIV. kapitulua: Lotsa bortxatzea, delituak zigortzean.

XV. kapitulua: Esklaboa askatzeaz, ugazaba salatzeke.

XVI. kapitulua: Kalumnia lesa majestate delituan.

XVII. kapitulua: Konspirazioak jakinarazteaz.

XVIII. kapitulua: Zein arriskutsua den, errepubliketan, lesa majestate delitua gehiegi zigortzea.

XIX. kapitulua: Nola eteten den libertatearen erabilera errepublikan.

XX. kapitulua: Hiritarraren libertatearen aldeko legeak, errepublikan.

XXI. kapitulua: Errepublikako legeen zordunekiko ankertasunaz.

XXII. kapitulua: Monarkian libertateari eraso egiten dieten gauzez.

XXIII. kapitulua: Ispioiez, monarkian.

XXIV. kapitulua: Gutun anonimoez.

XXV. kapitulua: Monarkian gobernatzeko eraz.

XXVI. kapitulua: Monarkian printzeak abegitsua izan behar duela.

XXVII. kapitulua: Erregearen ohiturez.

XXVIII. kapitulua: Erregeek sujetei zor dieten begiramenduaz.

XXIX. kapitulua: Gobernu despotikoan libertate pixka bat emateko egoki diren lege zibilez.

XXX. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

### **XIII. LIBURUA**

#### **ZERGEN BILKETAK ETA ERRENTA PUBLIKOEN HANDITASUNAK**

#### **LIBERTATEAREKIN DUTEN ZERIKUSIAZ**

- I. kapitulua: Estatuaren errentez.
- II. kapitulua: Oker arrazoitzea dela zergen handitasuna berez ona dela esatea.
- III. kapitulua: Herriaren parte bat glebako jopu den herrialdeetako zergez.
- IV. kapitulua: Errepublikaz, antzeko kasu batean.
- V. kapitulua: Monarkiaz, antzeko kasu batean.
- VI. kapitulua: Estatu despotikoa, antzeko kasu batean.
- VII. kapitulua: Glebako esklabotza ezarrita ez dagoen herrialdeetako zergez.
- VIII. kapitulua: Nola gordetzen den ilusioa.
- IX. kapitulua: Zerga-mota kaltegarri batez.
- X. kapitulua: Zergen zenbatekoa gobernu-eraren arabera dela.
- XI. kapitulua: Zigor fiskalez.
- XII. kapitulua: Zergen handitasunak libertatearekin duen zerikusia.
- XIII. kapitulua: Zein gobernutan diren zergak handigarri.
- XIV. kapitulua: Zergen izaera gobernu-eraren arabera dela.
- XV. kapitulua: Libertatea gehiegikeriaz erabiltzea.
- XVI. kapitulua: Mahometarren konkistak.
- XVII. kapitulua: Tropak gehitzeaz.
- XIX. kapitulua: Zer komeni zaien gehiago printzeari eta herriari, zergen errentamendua ala kudeaketa.
- XX. kapitulua: Zerga-biltzaileez.

## **HIRUGARREN PARTEA**

### **XIV LIBURUA**

#### **LEGEEZ, KLIMAREN IZAERAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK**

- I. kapitulua: Ideia orokorra.

- II. kapitulua: Zenbateraino diren gizakiak desberdin klima desberdinetan.
- III. kapitulua: Kontraesana hegoaldeko zenbait herriren izaeretan.
- IV. kapitulua: Erlijioaren, ohituren, maneren, legeen aldakaiztasunaren kausa, ekialdeko herrialdeetan.
- V. kapitulua: Gobernadore txarrak klimaren bizioei bide eman dietenak direla, eta gobernadore onak horiei kontra egin dietenak.
- VI. kapitulua: Lurrak lantzeaz, klima beroetan.
- VII. kapitulua: Monakotzaz.
- VIII. kapitulua: Txinako ohitura on bat.
- IX. kapitulua: Industria sustatzeko bitartekoak.
- X. kapitulua: Herrien neurritasunarekin zerikusia duten legeez.
- XI. kapitulua: Klimaren gaixotasunekin zerikusia duten legeez.
- XII. kapitulua: Beren burua hiltzen dutenen<sup>23</sup> kontrako legeez.
- XIII. kapitulua: Ingalaterrako klimaren ondorioak.
- XIV. kapitulua: Legeek herrian duten konfiantza-mailaz, klimen arabera.
- XV. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

## **XV. LIBURUA**

### **NOLA ESKLABOTZA ZIBILAREN LEGEEK ZERIKUSIA DUTEN**

#### **KLIMAREN IZAERAREKIN**

- I. kapitulua: Esklabotza zibilaz.
- II. kapitulua: Esklabotzaren eskubidearen jatorria, juriskontsultu erromatarren arabera.
- III. kapitulua: Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.
- IV. kapitulua: Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.
- V. kapitulua: Beltzen esklabotzaz.

VI. kapitulua: Esklabotza-eskubidearen benetako jatorria.

VII. kapitulua: Esklabotza-eskubidearen beste jatorri bat.

VIII. kapitulua: Esklabotzaren baliagarritasunik eza gure artean.

IX. kapitulua: Libertate zibila orokorki ezarrita duten nazioez.

X. kapitulua: Esklabotza-mota desberdinak.

XI. kapitulua: Legeek egin behar dutena, esklabotzari dagokionez.

XII. kapitulua: Esklabotzaren gehiegikeriak.

XIII. kapitulua: Esklabo-kopuru handia izatearen arriskua.

XIV. kapitulua: Esklabo armatuez.

XV. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XVI. kapitulua: Gobernu moderatuan hartu beharreko neurriak.

XVII. kapitulua: Nagusiaren eta esklaboen artean egin beharreko arautegiak.

XVIII. kapitulua: Manumisioaz.

XIX. kapitulua: Libertoez eta eunukoez.

## **XVI. LIBURUA**

### **NOLA ETXEKO ESKLABOTZAKO LEGEEK ZERIKUSIA DUTEN**

#### **KLIMAREN ZER-NOLAKOEKIN**

I. kapitulua: Etxeko joputzaz.

II. kapitulua: Hegoaldeko herrialdeetan, desberdintasun naturala dagoela bi sexuen artean.

III. kapitulua: Emakumeen aniztasuna beren mantenuaren mende dagoela hein handi batean.

IV. kapitulua: Poligamiaren gorabeherez.

V. kapitulua: Malabarko lege baten arrazoia.

VI. kapitulua: Poligamiaz beraz.

VII. kapitulua: *Tratamendu-berdintasunaz, emazte asko izatean.*

VIII. kapitulua: *Gizonak eta emakumeak banantzeaz.*

IX. kapitulua: *Etxeko gobernuak politikarekin duen lotura.*

X. kapitulua: *Ekialdeko moralaren printzipioa.*

XI. kapitulua: *Poligamiaz gainerako etxekko joputzaz.*

XII. kapitulua: *Lotsa naturalaz.*

XIII. kapitulua: *Jeloskortasunaz.*

XIV. kapitulua: *Etxearen gobernuaz, Ekialdean.*

XV. kapitulua: *Dibortzioaz eta zapuzketaz.*

XVI. kapitulua: *Zapuzketa eta dibortzioa erromatarren artean.*

## **XVII. LIBURUA**

### **MORRONTZA POLITIKOAREN LEGEEK ZERIKUSIA DUTELA**

#### **KLIMAREN IZAERAREKIN**

I. kapitulua: *Joputza politikoaz*

II. kapitulua: *Herrien arteko aldeak, ausardiari dagokionez.*

III. kapitulua: *Asiako klimaz.*

IV. kapitulua: *Horren ondorioa.*

V. kapitulua: *Asiako iparraldeko herriek eta Europako iparraldekoek konkistak egin dituztenean, konkistaren ondorioak ez direla berdinak izan.*

VI. kapitulua: *Asiaren joputzaren eta Europaren libertatearen beste kausa fisiko bat.*

VII. kapitulua: *Afrikaz eta Amerikaz.*

VIII. kapitulua: *Inperioko hiriburuaz.*

## **XVIII. LIBURUA**

## LEGEEZ, LURRAREN IZAERAREKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK

I. kapitulua: Lurraren izaerak nolako eragina duen legeetan.

II. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

III. kapitulua: Zein diren herrialderik landuenak.

IV. kapitulua: Herrialdearen emankortasunaren eta antzutasunaren ondorio berriak.

V. kapitulua: Uharteetako herriez.

VI. kapitulua: Gizonen lanak eratutako herrialdeez.

VII. kapitulua: Gizakien eginez.

VIII. kapitulua: Legeen zerikusi orokorra.

IX. kapitulua: Amerikako lurraz.

X. kapitulua: Gizakien kopuruaz, bizibidea ateratzeko erarekin duen zerikusiaren aldetik.

XI. kapitulua: Herri basatiez eta herri barbaroez.

XII. kapitulua: Lurra lantzen ez duten herrietako jendeen zuzenbideaz.

XIII. kapitulua: Lurra lantzen ez duten herrietako lege zibilez.

XIV. kapitulua: Lurra lantzen ez duten herrien egoera politikoaz.

XV. kapitulua: Diru-erabilera ezagutzen duten herriez.

XVI. kapitulua: Diru-erabilera ezagutzen ez duten herrietako lege zibilez..

XVII. kapitulua: Dirurik erabiltzen ez duten herrietako lege politikoez.

XVIII. kapitulua: Superstizioaren indarra.

XIX. kapitulua: Arabiarren libertateaz, eta tartariarren morrontzaz.

XX. kapitulua: Tartariarren jendeen zuzenbideaz.

XXI. kapitulua: Tartariarren lege zibila.

XXII. kapitulua: Errege frankoen ile luzeaz.

XXIV. kapitulua: Errege frankoen ezkontzez.

XXV. kapitulua: Txilderiko.

XXVI. kapitulua: Errege frankoen adin-nagusitasunaz.

XXVII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XXVIII. kapitulua: Seme-alabatzat hartzea germaniarren artean.

XXIX. kapitulua: Errege frankoen izaera odolzalea.

XXX. kapitulua: Nazioaren batzarrak frankoen artean.

XXXI. kapitulua: Elizgizonen aginteaz, lehen dinastian.

## **XIX. LIBURUA**

### **LEGEEZ, NAZIO BATEN IZPIRITU OROKORRA, OHITURAK ETA MANERAK ERATZEN DITUZTEN PRINTZIPIOEKIN DUTEN ZERIKUSIAREN ALDETIK**

I. kapitulua: Liburu honetako gaiaz.

II. kapitulua: Zein beharrezko den izpirituak legerik onenetarako prest egotea.

III. kapitulua: Tiraniaz.

IV. kapitulua: Izpiritu orokorra zer den.

V. kapitulua: Zein arreta handia jarri behar zaion nazio baten izpiritu orokorra ez aldatzeari.

VI. kapitulua: Ez dela dena zuzendu behar.

VII. kapitulua: Atenastarrez eta lazedemoniarrez.

VIII. kapitulua: Umore gizartekoiaren ondorioak.

IX. kapitulua: Umore gizartekoiaren ondorioak.

X. kapitulua: Espainiarren izaeraz, eta txinatarrenaz.

XI. kapitulua: Gogoeta.

XII. kapitulua: Estatu despotikoko usadio eta ohiturez.

XIII. kapitulua: Usadioez, txinatarren artean.

XIV. kapitulua: Zein diren nazio bateko ohiturak eta usadioak aldatzeko bitarteko naturalak.

XV. kapitulua: Etxeko gobernuak gobernu-era politikoan duen eragina.

XVI. kapitulua: Nola zenbait legegilek nahastu egin dituzten gizonak gobernatzen zituzten printzipioak.

XVII. kapitulua: Txinako gobernuaren ezaugarri berezia.

XVIII. kapitulua: Aurreko kapituluaren ondorioa.

XIX. kapitulua: Nola egin den legeen, ohituren eta maneren batasun hori txinatarren artean.

XX. kapitulua: Txinatarrei buruzko paradoxa baten azalpena.

XXI. kapitulua: Nola legeek zerikusia izan behar duten ohitura eta manerekin.

XXII. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XXIII. kapitulua: Nola legeak ohiturei jarraitzen zaizkien.

XXIV. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XXV. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XXVI. kapitulua: Gai beraren jarraipena.

XXVII. kapitulua: Nola legeek nazio baten ohiturak, manerak eta izaera eratzen lagun dezaketen.

Aipuen itzulpena.